268. «L'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia comme exemple d'un développement institutionnel transfrontalier», in *Langues d'Aquitaine, dynamiques institutionnelles et patrimoine linguistique*, Maison des Sciences de l'homme d'Aquitaine, Bordele, 1996, 87-99.

269. «Georges Hahn et le Pays Basque», *Chronique, n° 2, Supplément au Bulletin de Littérature ecclésiastique*, Institut catholique, Toulouse, 1996, 41-47.
270. «Etxahun et la langue française», *Lapurdum I*, E.R.S. 142 du C.N.R.S., Baiona, 1996, 121-139.
271. «Lizardi-ren mendeurrena», *Euskera*, 1996, 13-14.
272. «Resurrección María de Azkue saria : Ipuin eta bertsoak», *Euskera*, 1996, 321.
273. «Bernard Etxepare : Linguae Vasconum Primitiae», *Euskera*, 1996, 325-326.
274. «Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia, 1995-eko literatura sarien banaketa», *Euskera*, 1995, 369 eta 375.
275. «Jose Aristimuño 'Aitzol'-en mendeurrena», *Euskera*, 1996, 449.
276. «IV. Herri literatura Jardunaldiak : paremiologiaz», *Euskera*, 1996, 609-610.
277. «Palabras de Jean Haritschelhar, presidente de la Real Academia de la lengua vasca / Euskaltzaindia con ocasión de la audiencia concedida por la Excelentísima Señora Doña Esperanza Aguirre, ministra de Educación y Cultura a la Junta rectora de la Institución el día 30 de octubre de 1996», *Euskera*, 1996, 1029-1031.
278. «Aita Juan Mateo Zabala : Sermoiak (I)», *Euskera*, 1996, 1039.
279. «Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia : Literatura sariak», *Euskera*, 1996, 1053.
280. «Invitación a la esperanza», [Euskaltzaindiaren eta Gasteizko udalaren arteko hitzarmenaren kariatara], VG, Hiriko gazeta (1996/10/12), Vitoria-Gasteiz, 3.

1997

281. «Le mécène de la culture basque», *Abbadia un rébus géant*, Fondation Antoine d'Abbadie, Académie des Sciences, Cap. Sciences, Bordele, 1997, 56-57.
282. «Aitzin- solasa», *Federiko Krutwig-i omenaldia*, *Iker 10*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1997, 9-13.
283. «Euskalduna zertarik ageri den», *Federiko Krutwig-i omenaldia*, *Iker 10*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1997, 133-145.
284. «Aita Polikarpo Iraizozkoaren mendeurrena», *Euskera*, 1997, 79-80.
285. «Federiko Krutwig jaunari ohore», *Euskera*, 1997, 419-423.
286. «Pompeu Fabra eta Koldo Mitxelena omenaldia», *Euskera*, 1997, 431.
287. «Nafarroan FM irrati lizentzia berriak», *Euskera*, 1997, 595-597.
288. «B.B.K. - Euskaltzaindia sariak», *Euskera*, 1997, 757-763.

289. «Liburu aurkezpena», *Euskera*, 1997, 775-776.
290. «Lehen Udako Euskal Unibertsitatea», *Euskera*, 1997, 797.

1998

291. «Aurkezpena» [J. J. Goiriena de Ggandariasekin batean], A. Abbadieren Nazioarteko Biltzarreko Hendaia-Sara 1997) aktak, Euskaltzaindia & Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1998, XIX-XXIII.
292. Hasierako ekitaldiko hitzaldia, A. Abbadieren Nazioarteko Biltzarreko (Hendaia-Sara 1997) aktak, Donostia, 1998, XLI-XLIII.
293. «Ideologiak Lore jokoetako kantuetan», [A. Abbadieren Nazioarteko Biltzarreko (Hendaia-Sara 1997) aktak], Donostia, 1998, 621-653.
294. «Andres Urrutia Badiola Euskaltzaindian sartzea», *Euskera*, 1998, 11-12.
295. «Josef Frantzisko Aizkibel-en II. mendeurrena», *Euskera*, 1998, 75-76.
296. «Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia Literatura sariak», *Euskera*, 1998, 281-282.
297. «Pedro Antonio Añibarro : 250. urtemuga», *Euskera*, 1998, 343-344.
298. «Euskaltzaindiaren II. Euskal egunen 75. urteurrena», *Euskera*, 1998, 363-364.

1999

299. «Aitzin solas» [Pello Salabururekin batean], *Vasconiana*, Iker 11, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999, XV-XVI.
300. «Avant-propos» [Pello Salabururekin batean], *Vasconiana*, Iker 11, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999, XVII.
301. «Antonio Maria Labaien-en mendeurrena», *Euskera*, 1999, 15-16.
302. «EUEDEL-Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena sinatzean», *Euskera*, 1999, 489-490.
303. «Federiko Krutwig-en hileta zibilean», *Euskera*, 1999, 647-648.
304. «Euskararen gGizarte kKontseiluak Euskaltzaindiari omenaldia», *Euskera*, 1999, 679-681.
305. «*Vasconiana* aurkeztean», *Euskera*, 1999, 699-703.
306. «*Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro occidental*. aAurkezpenatean», *Euskera*, 1999, 705.
307. «Gero-ren bi parteak», *Lapurdum IV, Numéro spécial 1*, Acters du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999), Baiona, 1999, 105-118.
308. «Vitoriano Huizi eta Aingeru Irigarai-ren mendeurrenak», *Euskera*, 1999, 815-816.

309. «Aramaioko euskal jaien mendeurrenean», *Euskera*, 1999, 1013-1014.
310. «Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkari-tza eraberritzean», *Euskera*, 1999, 1227.
311. «*Voces alavesas* liburua aurkeztean», *Euskera*, 1999, 1239.
312. «Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia : literatura- sariketak», *Euskera*, 1999, 1257.
313. «In memoriam Louis Barriety», *Bulletin du Musée Basque*, 1999, 137-138.
314. «In memoriam Olivier Baulny», *Bulletin du Musée Basque*, 1999, 139-140.

2000

315. «Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren bisita [Euskaltzaindiko] egoitzara», *Euskera*, 2000, 11-12.
316. «Herri Agintean eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena : 2000/-2004», *Euskera*, 2000, 21-22.
317. «Palabras de Jean Haritschelhar, presidente de la Real Academia de la Lengua vasca / Euskaltzaindia, con ocasión de la audiencia concedida por el Excmo Señor D. Mariano Rajoy, ministro de Educación y cCultura, a la Junta de Gobierno de la Institución el día 16 de noviembre de 1999», *Euskera*, 2000, 361-362.
318. «Palabras de Jean Haritschelhar, presidente de la Real Academia de la Lengua vasca / Euskaltzaindia, con ocasión de la audiencia concedida por la Excmá Señora Da. Esperanza Aguirre, presidenta del Senado, a la Junta de Gobierno de la Institución el día 16 de noviembre de 1999», *Euskera*, 2000, 363-364.
319. «Juan María Otegi jauna, Euskadiko Kutxako buruari [Bbisita]», *Euskera*, 2000, 371-372.
320. «Aita Aranaren *Egunaria* aurkeztean», *Euskera*, 2000, 379-380.
321. «Bilbao Bizkaia Kutxa BBK - Euskaltzaindia : literatura sari-banaketa», *Euskera*, 2000, 391-394.
322. «*Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*-ren aurkezpena», *Euskera*, 2000, 451-453.
323. «Aitzin solas», Marikita Tambourin : *Euskal deituren kronika*, Gatuzain, Baiona, 2000, 7-10.
324. «Gernikako arbola, véritable hymne basque», *Lapurdum V*, 2000, 307-322.
325. «Andres Iñigo Ariztegiren Euskaltzaindian sartzean euskaltzainburiaren mintzaldia», *Euskera*, 2000, 827-829.
326. «Gerhard Bähr-en mendeurrenaren ospakizuna», *Euskera*, 2000, 837-838.

327. «San Fermin ikastolaren 30. urteurreneko batzar irekia», *Euskera*, 2000, 937-938.
328. «Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia : 1999ko literatura sariak», *Euskera*, 2000, 1285 eta 1303.
329. «Nécrologie : Jacques Allières (1929-2000)» [Hilberria], *Euskera*, 2000, 1333-1337.
Ikus halaber : «Jacques Allières (1929-2000)», *Bulletin du Musée Basque*, 2003, 63-66.

2001

330. «Eugène Goyheneche et le Bulletin du Musée Basque», *Eugène Goyheneche omenaldia - Hommage*, Eusko Ikaskuntza, 2001, 157-163.
331. «Introducció», in Axular, *Després, traducció de Daniel Luján*, Clàssics del Cristianisme n° 86, Facultat de teologia de Catalunya, Fundació enciclopèdica catalan, Proa, Barcelona, 2001, 7-39.
332. “ Esker oneko hitzak ” [Gerhard Bähr-ren omenezko ekitaldian], *Euskera*, 2001, 221.
333. « Euskaltzaindiaren eta Bilbao Bizkaia Kutxa : literatura sariak », *Euskera*, 2001, 447.
334. « 2000ko R. M. Azkue sarien banaketa », *Euskera*, 2001, 461.
335. «Piarres Lafitte» [Piarres Lafitteren omenaldian eginikako mintzaldia], *Euskera*, 2001, 567-569.
336. «Gratien, Albert Goyheneche jaun mediku eta Donibane Lohizuneko auzapez ohiaren ohoretan (1847-1900)», *Euskera*, 2001, 769-773.
337. «Ageriko bilkura ‘Nafarroa oinez 2001’ dela eta», *Euskera*, 2001, 905-906.
338. «V. Jagon jardunaldiak», *Euskera*, 2001, 933.
339. «Orotariko Euskal Hiztegiaren bulego berriak», *Euskera*, 2001, 1107.
340. «Euskaltzaindia—BBK sariak», *Euskera*, 2001, 1153.
341. «R.M. Azkue iazko liburu sarituen eta aurtengoaren oinarrien aurkezpena egoitzan», *Euskera*, 2001, 1159.
342. «Nere Altuna, Rikardo Badiola, aspaldiko ezagunak eta adiskideak», *Euskera*, 2001, 1171.
343. «Patxi Altuna eta Patxi Goenagari Azpeitiko udalak omenaldia», *Euskera*, 2001, 1179-1181.

2002

344. «Défense et illustration de la langue basque au XVI^e siècle : la ‘Sautrela’ de Bernat Echapare», in M. Aurnague & M. Roché (argit.) *Hommage à Jacques Allières*, Atlantica, Angelu, 2002, 119-127.

345. «Andolin Eguzkitza-ren sarrera hitzaldian Euskaltzainburuaren ongi etorria», *Euskera*, 2002, 47-48.
346. «Euskaltel eta Euskaltzaindiaren arteko *hitzarmena* eta EEBS-ren aurkezpena», *Euskera*, 2002, 277-278.
347. «Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko akordioaren sinatzea», *Euskera*, 2002, 293-296.
348. «J.M. Satrustegi : II. Manuel Irujo saria = A J.M. Satrustegi : Premio Manuel Irujo», *Euskera*, 2002, 329-335.
349. «R.M. Azkue sari- banaketa», *Euskera*, 2002, 363-364.
350. «Ezkonduien koplak (Etxepare, 1545)», *Lapurdum VII*, 2002, 237-246.
351. «VII. Herri literatura jardunaldiak», *Euskera*, 2002, 409.
352. «Hendaia-ko biltzar idekia : Euskaltzainburuaren agurra», *Euskera*, 2002, 617-618.
353. «Bilboko udalarekin *hitzarmena* sinatzea», *Euskera*, 2002, 803-804.
354. «Oñatiko Arantzazun, Gogartetxean : Euskaltzaindiak frantziskotarrei egindako omenaldia», *Euskera*, 2002, 823-825.
355. «Tuterako biltzar idekian», *Euskera*, 2002, 877-878.
356. «Laxotik errabotera», in Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga, Joseba A. Lakarra (argit.) *Erramu boneta : Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, ASJUren gehigarriak XLIV, EHU, Bilbo, 2002, 311-324.

2003

357. «Aintzin solasa», *Euskalkia eta bezkuntza, dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*, Iker 13, Euskaltzaindia, Bilbo, 2003, XI-XII.
358. «Aitzin hitza» [B. Oyharçabalekin batean], *Euskal gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI.mendearen atarian*, Iker 14 (I et II), Euskaltzaindia, Baiona, 2003, XI-XIII.
359. «Emazteen fabore», *Euskal gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI.mendearen atarian*, 2. tomoa, *Literatura gaiak*, Iker 14-II, Euskaltzaindia, Baiona, 2003, 113-124.
360. «Kardaberazen mendeurrena», *Euskera*, 2003, 53-54.
361. «Euskaltzainburua Legebiltzarrean», *Euskera*, 2003, 329-336.
362. «Bilbao Bizkaia Kutxa – Euskaltzaindia : sari banaketa», *Euskera*, 2003, 359.
363. «*Haizearen hegaletan*, Yehuda Ha-Levi : Xabier Kintanaren liburu-aurkezpena» [Aurkezpena], *Euskera*, 2003, 363-364.
364. «*Morfología del verbo auxiliar vasco*» [Aurkezpena], *Euskera*, 2003, 377-378.
365. «R.M. esurrección María de Azkue : sari banaketa», *Euskera*, 2003, 387-388 eta 395.

366. «*Euskalkia eta Hezkuntza* : Iker 13 liburuen aurkezpena», *Euskera*, 2003, 413-414, 425 eta 429.
367. «Begoña Amundarain Uriarte, 25 urte Euskaltzaindian lanean, : Zilarrezko domina», *Euskera*, 2003, p. 449.
368. «Tour de France», [Jean Grenet Baionako auzapezari idatzikako gutuna], *Euskera*, 2003, 1109.
369. «Intxauspe Axularren zentsurataile ? Gero-ren gaurkotzaile?», *Euskera*, 2003, 569-580.
370. «Azkue sariketak», *Euskera*, 2003, 1173 eta 1179.
371. «Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, Baionan, 2001ean : Iker 14 liburuen aurkezpena», *Euskera*, 2003, 1183.
372. «Lutxi Alberdi eta Resu Orbe : 25 urte Euskaltzaindian lanean», *Euskera*, 2003, 1211-1212.
373. «Amoros sekretuki dena», *Lapurdum*, VIII, 2003, 233-241.
374. «Du culturel au politique. L'éveil de la conscience basque dans le dernier quart du XIXe siècle», *Sempre los camps auran segadas resurgantas*, Mélanges Xavier Ravier, Toulouse, 2003, 375-390.
375. «Jacques Allières (1929-2000)», *Bulletin du Musée Basque*, 2003, 63-66.

2004

376. «Aitzin solas», in *Premios literarios Bilbao Bizkaia Kutxa – Euskaltzaindia, Literatura sariak (1958-2003)*, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbao, 2004, p. XV.
377. «In memoriam Manex Goyhenetche», *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 2004, 91-94.
378. «Mikel Zarateren omenaldia», *Euskera*, 2004, p. 17.
379. «EUDEL – Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena», *Euskera*, 2004, 493.
380. «BBK – Euskaltzaindia», *Euskera*, 2004, 525-526 eta 535.
381. «*Eusqukeraren berri onac* liburuen aurkezpena», *Euskera*, 2004, 543.
382. «Découverte d'un manuscrit basque du XVI^e siècle», *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 2004, 5-8.
383. «Salvat Monho olerkariaren metrika», *Lapurdum*, IX, 2004, 135-147.
384. « Jose Luis Lizundia-ren sarrera mintzaldian », *Euskera*, 2004, 641-642.
385. «Euskara eta Euskaltzaindia Europako hizkuntzen mosaikoan », *Euskera*, 2004, 919-922.
386. « El euskera y su Academia en el mosaico lingüístico europeo », *Euskera*, 2004, 923-926.

387. « Euskaltzaindia – Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin hitzarmenaren sinatzea », *Euskera*, 2004, 1061-1062.
388. « BBK literatura sariak », *Euskera*, 2004, 1077-1078.
389. « Azkue sariak », *Euskera*, 2004, 1103-1104.
390. « Gema Insausti eta Itziar Rekalde-ri zilarrezko domina ematea », *Euskera*, 2004, 1157-1158.
391. « Préface 1 = Aitzin-Solasa = Abans-díser » in J. B. Coyos, *Politique linguistique : langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne = Hizkuntza politika : euskara, Biarno eta Gaskoniako okzitaniara = Política lingüística : lenga basca e lenga occitana deu Bearn e de Gasconha*, Elkar, Baiona, 2004, 7-8.

2005

392. “In memoriam Albert Chabagno (1923-2004)”, *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 2005, 83-85.
393. «Dibarrart-en kantu babten aldaketak», in *Nerekin yaiyo nun.: Txillardegiri omenaldia*, Iker 17, Euskaltzaindia, Bilbo, 281-296.
394. «Euskaltzaindian kargu-haritzea», [Euskaltzainburu kargua uztean eginikako hitzaldia], *Euskera*, 2005, 11-1320.
395. «Lekuona saria» [Manuel Lekuona saria jasotzean eginikako hitzaldia], *Euskera*, 2005, 377-379.
396. «BBK-Euskaltzaindia sariak liburuaren aurkezpena» «, *Euskera*, 2005-1, 403-404.
397. «Manuel Irujo saria» [Manuel Irujo saria jasotzean eginikako hitzaldia], *Euskera*, 2005-2, 1099-1101.
398. «Pierre Duny-Pétré» [Hilberria], *Euskera*, 2005-2, 1127-1130.
399. «Le XIXe siècle littéraire» in: Manex Goyhenetche, *Histoire générale du Pays Basque*, T.V. *Le XIXe siècle : 1804-1914*, Elkarlanean, Donostia, 2005, 287-194.
400. «L'identité basque. Quels fondements ? Quelles perspectives ?», in *Les identités, richesse ou menace ?*, Centre Ha 32, Bordeaux, 2005, pp. 35-44.
401. «Euskararen etorkizuneko egoera», in *Arte y parte en la sociedad del espectáculo*, Forum Deusto, Baiona, 2005, pp. 125-141.
402. «Le XX^e siècle littéraire», in Manex Goyhenetche, *Histoire générale du Pays Basque, le XIX^e siècle : 1804-1914*, Tome V, Elkar, Baiona, 2005, pp. 287-294.
403. «Académie de la langue basque – Euskaltzaindia», in *Lettres d'Aquitaine, Dossier Culture et langue basques*, Bordeaux, Janvier-Mars 2005, p. 3.

2006

404. «Compte rendu de lecture “L’Archipel Basque” de Claude Dendaletche”, *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 2006, 79-88.
405. «Ana Maria Toledo Lezeta euskaltzainaren sarrera-hitzaldia eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren erantzuna », *Euskera*, 657-663.

HARITSCHELHAR 38 URTE ZUZENDARITZAN

Jose Luis LIZUNDIA ASKONDO
euskaltzaina

Jakina da Jean Haritschelhar euskaltzain oso izendatu zutela 1962an urgazletzatik igaro gabe, berau kasu bakanetarikoa delarik. Jules Moulier “Oxobi” bera bezala baxenafarraren ordezkoko, Baigorri kantonamendu berekoak biok, gainera. Handik lau urtera, erakunde akademikoak Zuzendaritza berrantolatu zuenean, euskaltzainburuordetza sortu zuen, kargu horretarako lehen izendatua izan zelarik. Zuzendaritza hartan, Jeanekin batera, Manuel Lekuona, euskaltzainburua; Juan San Martin, idazkaria eta Eusebio Erkiaga, diruzaina zeuden. Haritschelharrek 2005eko urtarrilaren 27 arte iraun zuen Zuzendaritzan, lehendabizi 1989ko urtarrilaren 19 arte, Buruorde eta, geroztik Euskaltzainburu, beraz, hogeita hamazortzi urte kargudun, Euskaltzaindiaren historian gehien iraun duena Akademiaren gobernamentuan.

Beñat Oihartzabal buruordearekin batera, Jeanen omenezko liburuki honen argitalpen arduradun izendatua izan nintzenezan -bistan da Andres Urrutiarekin batera, zeren eta, ene iradokizunez, 1974an L. Villasante euskaltzainburuak proposatu eta onartu bai zen Barne Erregeletan, Euskaltzainburua izango zela *Euskera* agerkariaren eta Argitalpen Batzordeburu- pozik hartu nuen ardura. Eta horregatik, euskaltzainkide gisa egin dudana artikuluaz landa, lan hau izan bedi, labur bederen, Jean kargudun legez, izan duen ibilbide luze eta emankorraren azalpen eta lekuko.

1966ko azaroaren 25ean euskaltzain urgazle izendatua izan nintzen, beste lagun andana batekin: Migel Javier Urmeneta, Roger Idiart, Xabier Kintana, Xabier Lete, Telesforo Monzon, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta besteron batzuk. Hurrengo hilaren, abenduaren 30an, nire lehen bileran izan nuen Jean ezagutzeko parada, hain zuzen Euskaltzainburuorde izendatu zuten egun

berberean. Handik urte bi pasatutxo, 1969ko urtarrilaren 12an, Baionako Euskal Museoan, zeinetan Jean zen zuzendari, Euskaltzaindiak, bere hileroko batzarrean -bide batez, Lapurdiko hiri nagusian ospatzen bai zituen erakunde akademikoak Urre Eztaiak, lehentxoago Oñati-Arantzazun eta Nafarroako Diputazioan hasiak- izendatu ninduen idazkariorde. Han zen, orduan ere, mahaiburuan, Manuel Lekuona euskaltzainburuarekin eta Juan San Martin idazkariarekin batera. Esan nezake egun horretan hasi nintzela berarekin gaur arteko etenik gabeko harremanetan, lankidetzan eta adiskidantzan.

ZUZENDARITZAN IPARRALDEKO ORDEZKARI

Inor izan bada Ipar Euskal Herriaren “erreferentzia” eta, ez Euskaltzaindiaren barruan bakarrik, hori Jean Haritschelhar izan da. Euskaltzainburuordetza sortu zenean erakundearen agintaritza kolejiatuan argi zeukan zer ordezkatzan zuen eta horrekin baliatu zen. Lafitte, Dassance, Diharce-’Iratzeder’, Eppherre eta Lafonekin lehendabizi, gerotxoago sartu zirelarik Davant eta Hiriart-Urruty, Jean euskaltzain talde eraginkor batekin inguratu zen. Ez dut izkutatuko Lafitte zela hizkuntzarekiko “erreferentzia” nagusia eta hori Jeanek ere aitortuko luke, baina erakunde harremanetarako Jeanek geroago eta pisu gehiago hartu zuen Euskaltzainburuordetzarekin. Haritschelhar-Lafitte bikotea zen Hegoaldekoontzat solaskidetzan ezinbestekoa L. Villasante, euskaltzainburu; J. San Martin>J. M. Satrustegi, idazkariarentzat; E. Erkiaga>H. Knörr>J. San Martin diruzaintzat eta K. Mitxelena, *Iker* sailburu iraunkorarentzat. Noski, J. L. Lizundia idazkariorde eragilearentzat ere. Bagenekien kasu bakoitzean bikoteko norengana jo behar zen, edota biengana ba zen, hobeki.

Udako Euskal Unibertsitatearen sorreran ba du zer-ikusi handia Euskaltzaindiak, azken antolatzaileak ahaztu badute ere eta erakunde akademikoaren barnean, dudarik gabe, Jeanek, zeren eta bera izan bai zen 1973an, buruorde izateaz gain IKASeko presidente eta Bordeleko Unibertsitateko irakasle gisa baime-nak lortu eta bideratu zituena. Ez bakarrik hori, aurreko hiru urtetan Baionako Euskal Asteen buru eta arima izan zen Jean eta kokagune babestua Euskal Museoa zeinetan zen zuzendari. Noski ez zuen berak bakarrik antolatu han bai ziren eraketa lagun P. Xarritton, Manex biak: Goihenetxe eta Pagola, Harluxet eta abar. Inoren lumaz hobekien labor biltzeko, hara hor zer dion Mikel Aizpuru Muruak *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturagintzan. Hasierako urteak 1973-1984* liburuan, UEU, Bilbo, 2003, 30 orrialdean, *Baionako Lehen Euskal Astea, 1970* kapituluan hain zuzen:

IKAS-en burua Jean Haritschelhar zen, garrantzi handiko pertsona Ipar Euskal Herriko kultura bizitzan; izan ere, ardura hori izateaz gain, Baionako

Euskal Museoaren zuzendari zen, Euskaltzaindiko buruordea eta Bordeleko Unibertsitateko irakaslea. Haren ospeak mila kudeaketa erraztu zituen jarduera ugari antolatzeko, baita UEUren sorreran ere.

Hego Euskal Herritik frankotan Bidasoa-Pirineoz haraindiko ezaguera eskasa, okerra edo fokloriko samarra izan dugu. Batzuk saiatu gara zehatzago ezagutzen, ez bakarrik historiko-geografikoki, edo sozialki, baita Errepublikaren aginte izaera piramidala nola eratuta dagoen ere. Hor ere trebeziaz jokatzeko jakin du, hasi udal mailatik, departamendura, Akitaniako eskualdera eta Estaturoraino. Ez bakarrik harremanez, baizik eta kudeaketaz ere, ahantzi gabe Euskaltzaindiaren erakunde-akademikotasuna ezagutarazten. Oroitzen naiz 1970 hamarkadaren hasieran, Euskaltzaindiak Euskal Museoan ospatzen zuen ageriko ekitaldi batean nola aurkeztuak izan ginen Grenet aitaren, alegia, Baionako auzapezaren, aitzinean, Juanito eta biok: hau da Juan San Martin, idazkari akademikoa; “hau da Jose Luis Lizundia, administrazio idazkaria”. Ba zekien idazkari eta idazkariorde gure terminologia erabilita ez zuela ongi ulertuko hiriko alkate frantsesak. Errepublikako agintariekin ez zuen lortu bere amets nagusia, hots, Euskaltzaindia instituzio akademiko ofizial gisa aitortzea, egia ezan oso nekeza hizkuntza bakarra aitortzen duen estatu batean. Hala eta guztiz ere kudeatu zuen “utilité publique” mailako elkarte bezala onartzea Parisek, hori bai, konforme gaitza izanik behin baino gehiagotan adierazi die idatziz eta publikoki hango agintariei, nola Espainiako Erresuman, Madrilek ofizialki aitortua duela Euskaltzaindia, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurralde eremuetan, ikus dezaten, konparatiboki Errepublika gibelerago gelditu dela. Ekina okerra baita, bera Zuzendaritzan zelarik hasi ziren Iparraldeko aginte zenbait diru laguntzak ematen Euskaltzaindiari, oraintsuago, Euskararen Erakunde Publikoarekin aurrekontu laguntza normalizatuagoan sartu bagara ere.

Zuzendaritzan, bai buruorde eta baita buru bezala ere hainbat ekitaldi antolaketan lan egitea tokatu zitzaidan, 1969-2003 urte bitartean. Iparraldekoetan, Jeanen aholkua, harremana eta goi babesa ezinbestekoa zen. Asko aipatuko nituzke, baina bat azpimarratzekotan Bearnoko hiriburuan, “Parlament de Navarre” delako jauregian, Euskaltzaindiak egin zituen hileroko eta ageriko batzarrak izan ziren, bertan bildu bai ziren, ez bakarrik zazpi herrialdeetako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazle, baizik ere zazpietako herri agintariak ere: François Bayrou, Pirineo Atlantikoetako presidentea; J. A. Ardantza, Euskadiko lehendakaria; Jose Alberto Pradera, Bizkaiko eta Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusiak, Arabako Kultura diputatu Pedro Ramos eta Nafarroako Gobernuaren izenean, Markotegi kontseilaria. Jauregi hartan lau hizkuntza entzun ziren: euskara gehienbat, frantsesa eta gaztelania, Nafarroako ordezkariak; hiruetan mintzo zelarik Haritschelhar euskaltzainburua eta gaskoin-bearnoeraz eta euskara-zubereraz, Txomin Peillen euskaltzain osoa.

Atal hau bukatzeko, badut bere eginkizunetan lekukotu beharra eta hau da: 1968-1978 hamarkadan, hots, Arantzazu eta Bergarako Biltzar bien tartean, euskara batuaren Hegoaldeko euskaltzainek beraien proposamenak aurrera atera ahal izateko, Iparraldekoen botoak behar zituzten. Horretarako Zuzendaritzan Jean izateak asko ahal bideratzen zuen eta hala atera ziren gehiengo osoz arau eta gomendio interesgarri ugari.

ZUZENDARITZAN BURUORDE

Euskaltzainburuordeari, erakundearen Arautegiak ahal eta eginbide gutxi esleitzen dizkio, ikus 10 artikulua:

Euskaltzain buruordeari dagokio: euskaltzainburua falde denean, haren lanak egitea”. Barne Erregelen 27. artikulua ere ez dute askoz gehiago garatzen: “Euskaltzainburuordeari dagokio: 27.1. Euskaltzainburua falta denean, haren lanak egitea.27.2. Bestelako kargu edo eginkizunen ardura ere egoitz daiteke.

Jean Haritschelhar mahai buruan zegoen, 1970ko urriaren 25ean. Mauleko udaletxean -hain zuzen, Zuberoa eta Nafarroa Beherea hartzen zituen “arrondissement” subprefektura ohian- Manuel Lekuonak Luis Villasanteri euskaltzainburutza pasatu zion ekitaldian. Jeanek lehenagotik zuen buruorde karguarekin jarraitzen zuen. Hori kontuan izanda, A. Villasante euskaltzainburu zen garaian, batik bat Ipar Euskal Herriko ordezkari-tza sortu eta eraman zuen Jeanek, gai hau aurreko kapituluan azaldu dugularik. Horrez gaiz, Villasante berak proposatuta, batzarretako moderatzaile izendatu zuen Haritschelhar, horretarako berak baino doe hobeak zituela uste baitzuen. Ospakizunetarako plaza-gizon egokia zelako askotan delegatzen zuen berarengan.

Zuzendaritza bileretara beti ezin izaten zuen etorri Hegoaldera, Bordeleko Unibertsitate eskolek, Baionako Euskal Museoaren zuzendaritzak eta bederatzi urtez Baigorriko alkatetzak trabatzen zutelako. Hori bai, telefonoz, gutunez eta, nahi genuen guztian, bere Angeluko etxean, erraza zen, garai hartan, harremanetan jartzea. Era batera edo bestera, Zuzendaritzako bere partaidetza, ziurtatua zegoen.

ZUZENDARITZAN BURU

Euskaltzainburu kargua Bizkaiko Foru Aldundian, 1989ko urtarrilaren 19an, kargua hartu zuenean, L. Villasantek, 1970eko urrian, aginte berberaz

Zuberoako hiriburuan jabetu zeneko hitz esanguratsu batzuk errepikatu zituen, besteak beste:

Euskara zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen eginkizun bakarra. Euskararen ona, euskararen iraupena eta osasuna eragin, euskara gaur eguneko eginkizunetarako tresna zalui eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman...". Jeanek berak Jaurreriko jauregian, bere kautatik, esandakoetatik hitzaldiaren amaierakoa dakart hona: "Urratu duen bidetik ibili da Euskaltzaindia. Lanak hasiak dira, behar dira bururatu. Badakit zer kar eta kemenekin bermatzen diren euskaltzainak, euskaltzain urgazleak, batzorde kideak, bai eta ere egoitzako eta ordezkarietzako langileak. Haiei ere goresmenak, nire eskerrak. Elgarrekin, elgar bilduz eta sustatuz, euskarak behar dituen argibideak eta arauak, emeki emeki, ematen ditugu euskararen eta Euskal Herriaren onerako. "Ekin eta jarrai" da Euskaltzaindiaren lema, beraz, euskaltzainena, nola ez Euskaltzainburuarena

Ordurarte, arrunki, hilean behin biltzen zen Zuzendaritza, aurrerantzean hamabostero egingo zen, bi arrazoiengatik: 1. erakundearen hazkunde eta berriztatzeak hala eskatzen zutelako; 2. Akademiaren gobernamenduari "kolegialtasun" zentzua ematea nahi ziolako. Kontuan izan behar da, 2000 urte arte, Zuzendaritza lau kide botodunekin bakarrik zegoela osatua: burua, buruordea, idazkaria eta diruzaina eta sailburu biak, nahiz eta, noizean behin "Zuzendaritza zabaldua" deitzen zenera, sailburuak ere deitu.

L. Villasanteren ildotik, kolegialtasun hori erarik zabalenean eraman zuen beti, ez bakarrik Arautegi edota Barne Erregeletan agertzen diren bakoitzaren ahalak errespetatuz, baizik eta agintea gehiago delegatuz. Filosofia hori, sail eta batzorde buru eta euskaltzainekin ere eraman izan du, kasu hauetan, behin baino gehiagotan, liberaleria zela kritikatu niolarik.

Juan San Martinek euskaltzainburuordetza oso denbora gutxian eraman zuen, zeren eta kargua hartu eta hiru hilabete eskasera, Eusko Legebiltzarrak Ararteko izendatu zuelako utzi beharra izan zuen. Juan Mari Lekuona sartu zen buruorde. Oiartzuarrak oso ongi konpontzen zen eta hala erakusten du 1996ko azaroaren 29ko batzar agiriak:

Ondoren bere esker ona agertzen dio (J.H.k) Juan Mari Lekuonari, azken zazpi urtetan ederki bete baitu bere lana. Jarrai lezan nahiko lukeela esan du, baina Lekuona jaunak beste kargualdirik ez izateko gogoia adierazi zion aspaldi.

Are gehiago, Juan Mariren aholkuak beti izaten zituen kontuan. Ez zen hura asko nabarmenduko, baina bazuen aginte mailan iritzi zuhurrik, inoiz baino gehiagotan komentatu nion buruari: "diplomazia vatikana du, ikusten da Erroman estudiantua ere bazela". 1996ko abendua geroztik, Henrike Knörr izan zuen buruorde, Arautegiak kargu honi ematen dizkion ahalmen urriez gain, erakunde ordezkapen zereginetan, nortasun zabala uzten ziolarik.

Jose Mari Satrustegi aspalditik zen idazkari eta hala jarraitu zuen Jeanekin ere, 1992ko abenduaren amaiera arte. Ez zen erraza arruazurrarekin ongi eramatea, baina jakin zuen toreatzen, behin baino gehiagotan Jeanek aitortu zidanez, buruorde zenetik ezagutzen bai zuen. Elkarrekin gobernatu zuten, erabaki amankomun onuragarri anitz hartuz. Gero, lau urtez, 1993-96 tartean, Henrike Knörr izan zen idazkari, agintaldi biotan, gobernuak bezala ondo konpondu zirelarik. 1997ko abendutik, 2001eko apirila arte, Patxi Goenagak hartu zuen idazkaritza akademikoa. Aspalditik Gramatika batzordekide, konpenetrazio eta kidekotasun handia zuten, denok dakigun bezala, azpeitiarrak, aurrerago San Martinek bezala, kargua utzi beharra izan zuela Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuorde izendatzeagatik. Patxiarekin uste dut oso pozik zegoela. Ondoren, Xabier Kintanaren idazkaritza ezagutu zuen, euskaltzainburutza utzi arte eta bistan da, biak ezagututa, ez ziotela, ez bata, ez besteak, elkarren ahal eta eginbideetan, arazorik sortu.

Jose Antonio Arana Martijak diruzaintza kargua, Jeanek euskaltzainburutza hartu zuen egun berean hartu zuen eta hala segituko zuen gaixotasunagatik utzi behar izan ez balu, 2003ko azaroan, nahiz eta hiru hilabete geroago nik hartu behar izan nuelarik kargu hori. Hamalau urte pasa izan ziren elkarrekin Zuzendaritzan Jean eta Jose Antonio eta uste dut, desadostasun gutxi batzuk gorabehera, elkarren errespetu osoz ihardun zutela, bai bakoitzaren eginbideetan, baita ere gobernamenduko amankomunetan, beti ere Akademiaren mesedetan.

Diruzain urtebete eskas egon banintzen ere berarekin, euskaltzainburutzako urte guztietan eta buruordetzako gehienetan, idazkariorde, edota, idazkariorde-kudeatzaile gisa kargualdi biotako lekukotasuna eman dezaket. Atal honetan Euskaltzainburua izandako urteetako ekintza garrantzitsu batzuetara bakarrik mugatu beharra dut, ez gehiegi luzatzearen eta behar haina material aztertzerik ez dudalako orain. Luza gabe norbaiti agindu beharko diogu Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen historia egitea eta ordu hori heltzen denean, historiagile horri edota horiei laguntza emateko prest nagoelarik, lankide izateko ere, hasi R. M. Azkue eta J. Lakarra buka, ikusiko da euskaltzain askoren emaitza, kasu honetan, Jeanen emaitza oparoa.

Ekintza nagusietara mugatuz, Orotariko Euskal Hiztegiaren erdialde osoa bere garaian egin zen; orobat EGLU, hots, Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak deituriko bost liburuki; Euskararen Lekukoak bildumaren arduradun izan zen hasieran, batzorde buru zelako; IKER bildumaren 5. zenbakitik 15.era bere buruzagitzakoak dira; BBK-Euskaltzaindia sariketako gehienak ere; orobat, argitalpen ugari. Jean euskaltzainburu zela hamaika euskaltzain berri sartu ziren, hots, kronologikoki: I. Sarasola, Tx. Peillen, J. A. Arana Martija, B. Oihartzabal, M. Azkarate, X. Kintana, P. Goenaga, A. Urrutia, A. Iñigo, A. Eguzkitza eta J. L. Lizundia. Beraz, erakundearen erdia eraberritu zen.

Zenbait gertaera eta ospakizun azpimarratzekotan, hara hor, batzuk: 1991eko urriaren 21ean, Euskaltzaindiaren egoitza nagusia inauguratu zuen Bilboko Plaza Barrian, J. A. Ardantza, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren eta J. C. Alli, Nafarroako Gobernudaren Presidentearekin batera, azken honekin batera sortzaile izandako Aldundietako ordezkariak; Bilboko Alkatea; EA, EAJ, EE, HB eta PP alderdi politikoetako ordezkari nagusiak; unibertsitateetako errektore, kultura eta euskalgintzako elkarteen ordezkari eta beste. Noski, aurrenengo, domina eta guzti ia euskaltzain oso guztiak; segidan, lerroz lerro, euskaltzain ohorezko eta urgazle. 1994an, erakunde akademikoaren 75 urteen ospakizun buru izan zen, lehendabizi hasiera emanez Arantzazun eta Oñatiko Unibertsitatean, 1993ko irailaren 30 eta urriaren 1ean eta jarraian, 1994 urtean zehar, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Diputazioetan, Miarritzen Iparraldeari zegokionez eta, amaitu urrian, Leioako Unibertsitatean, XIII. Biltzar Nagusiarekin.

Bere buruzagitzapean egindako Biltzar Nagusietara mugatuz, hauek dira: XI. 1991ko urriaren 21etik 25era, Plaza Barriko egoitzan eta dialektologia gaiaz, Bonaparte printzea omenduz, nazioarteko mailarekin eta Europako espezialista hobereenen partaidetzaz; XII., 1992ko irailean, Oihenarten omenez, Maulen eta Donapaleu antolatua; XIV., Hendaian, Antoine d'Abbadieren mendeurrenkari, Eusko Ikaskuntzarekin batera, 1997ko irailean eraturia; XV. Bilbon eta Baionan, 2001eko irailaren 20 eta 21ean aste osoan, segidan, programaturia eta egina. Herri literatura, onomastika, gramatika, hizte-gigintza, dialektologia eta beste gaiez, kargualdi horretan, euskal herrialde orotan egindakoak aipatzea luzeegi joko liguke, baina, oker ez bagaude, dene-tan izan zen presente, neurri batean edo bestean.

BATZORDE ARDURETAN

Jeanek hasieratik parte hartu zuen batzordeetan. Hain zuzen, 1970 urteko urriaren 25ean, Mauleko Herriko-etxean, L. Villasantek euskaltzainburutza hartu eta hurrengo hilabeteen, azaroaren 27an, egindako batzarrean, erakun-dean sortutako lehen batzorde bietarako izan zen izendaturia: Alfabetatze Batzordean eta "Euskaltzaindiaren araudia berritzea eta "personalidad jurídica" behar bezala lortzeko batzordean", hitzez hitz aktak dioen bezala. Euskaltzainburuaren proposamenak honela zioen: "Kontseilari Atalerako: Jean Haritschlehar, mugazandikoen eskubideak eta errepresentazioa zaintzeko", batzordearen idazkari legez, bere aholkuak onuragarriak izan zirela aitortzeko, bai Arautegia berritzatzeko eta baita nortasun juridikoa lortzeko ere. Oroitzen naiz nola Madrilgo hoteletik deitu genion Jeani -L.

Villasante, J. San Martin eta J. M. Satrustegi ginen han- Iparraldeko euskaltzain osoen partaidetza eta noizbait Baionan sor zitekeen Ordezkaritzarena nola negoziatu genuen Hezkuntza ministroarekin eta kabinete juridikoko buruarekin azaltzeko, birretsi baino lehen bere iritzia jakinaz.

Geroago, Loiolan, 1981ean egindako II. Barne Jardunaldietan batzordeen organigrama finkatu zenean, II. batzorde iraunkorreko, hots, Gramatikako, buruorde izendatua izan zen, buru noski, P. Lafitte. Loiolan bertan sortu zen Euskararen Lekukoak batzordea eta A. Villasante euskaltzainburuak, bera idazkari soil gelditurik, batzorde buru proposatu zuen Jean eta, hala izendatu, osoko bilkurak.

Hirugarren batzorde iraunkorrak, Dialektologia/Euskalkiak deitua, 1981an sortu eta laster, hasi zen bere egitasmo nagusia hausnartzen eta eztabaidatzen, hain zuzen, Deba (1981), Donaixiti-Ibarre (1982), Markina (1984) eta Gasteiz (1985), lau Dialektologia Jardunaldien eraginez, Euskal Herriko Hizkuntza Atlas, hots, aurrerantzean EHHA akronimoaz ezagutua. Lau jardunaldiotan plangintza hausnartzen eta gauzatzen hasi zen, batzordeburu, hasieran Patxi Ondarra bazen ere, egitasmoaren arduradun Jean zuelarik. Noizbait, egitasmoa burutu eta emaitzak argitaratzen direnean, Orotariko Euskal Hiztegiarekin egin genuen antzera, EHHaren historia ere idatzi beharko du norbaitek, bertan lekukotuko delarik, proiektua martxan jartzean eta lehen urteetako langintzan Haritschelharren zuzendaritza gaitza.

Literatura Batzordea hasiera batean, Jagon Sailean zegoen kokatua, baina bertsolaritza txapelketa eta antzerako ekintzak antolatzeari utzi zioenean Euskaltzaindiak, ikusi zen literatura ikerketari ere heldu behar zitzaiola. Hala hiru azpibatxordetan banatu zen: Literatura Klasikoa, Herri Literatura eta Literatura Ikerketa, ondorioz, Jagon Sailetik Iker Sailerak pasatu zelarik Literatura Batzordea, VI. Barne Jardunaldietan, 1989ean, Lazkaon egindakoetan, hain zuzen. Literatura Ikerketa azpibatxorde honen buru urte hartan Juan Mari Lekuona izendatu zen eta Jean kide sartu zen, geroztik, Lekuona zendu ondoren, 2005ean, Argomaizen antolatutako, XIV. Barne Jardunaldietan, Jean izendatu zen buru eta hala segitzen du.

Argitalpen Batzordea, egiturazko batzordeetariko bat baita, beraz, Zuzendaritzari atxikia, bai buruorde zelarik, Villasanteren garaian eta, gero, euskaltzainburu gisa kide izan da 2005 hasiera arte. Gainera, Euskaltzainburua baita, Barne Erregelen arabera, Argitalpen Batzordearen buru, hala izan da Jean urte luzetan, gainontzeko kideen partaidetasunez eta Ricardo Badiola eragile lanez. Erakundearen *Argitalpen Katalogo* mardulak ematen du urte horietako uzta oparoa, bai *Euskerak* agerkarian eta, baita ere, bilduma orotan.

HARITSCHELHAR HERRI-GIZON/PLAZA-GIZON

Jean, bederatzi urtez (1971-1980) Baigorri bere sorterriko alkate izan zelako bakarrik ere gizon publiko, herri-gizon kontsidera genezake, herri-baitzen-hautetsia. Politika garai horretatik landa, izan zuen eta izaten jarraitzen du Iparraldean anitzentzat herri gizon, nahiz eta karguetatik erretiraturua izan.

Hego Euskal Herrian, ordea, euskaltzainburutza karguagatik hartu zuen herri-gizon ospea, ongi merezia, bestalde. Hizkuntzaren erakunde nagusia denetik Euskaltzaindia, batzar akademiko arruntetan eta ageriko ospakizunetan, beti jakin du karguak behar zuen tornua ematen. Orobat, agintari eta herri hautetsiekiko harremanetan duintasunez eta diplomaziaz Euskaltzaindia bere leku gorenean jagotea lortu zuen. Kulturgintzan, orohar eta, batez ere, euskalgintzan ziharduten eta diharduten elkarte eta taldeekin harremanik goxoenak eramaten jakin zuen, erakundearen maila ondo zainduz.

Komunikabideetako agerraldietan eta herritarrekiko harremanetan, ordea, herri-gizontasun hori, plaza-gizon bezala eraman zuen trebezia naturalez. Barka beza Jeanek, baina Bizkaia-Gipuzkoetan plaza-gizon berba horrek herrikoitasuna egokien adierazten digu.

EUSKAL LITERATURAZ HIRU APUNTE SOLTE

Iñaki ALDEKOA BEITIA

1. ZERGATIK IZAN DA PIO BAROJA HAIN EZTABAIDATUA EUSKAL MUNDUAN?*

Luzea da Barojak euskal kulturaren eta literaturaren munduko jendearekin izandako ika-miken zerrenda. Integrismoa nagusi zen garai bateko Barojaren antiklerikalismo amorratua ez da nahikoa bi munduen arteko, hau da, euskal munduaren eta Barojaren (edo Unamunoren) arteko haustura bere neurrian juzkatzeko. Zer gertatzen da Euskal Herri zaharra (ez Bilbo eta ez Donostia), baserri eta herrixketakoa, euskal giroko jende isil hura hain gertutik ezagutu eta hain gertu izan zituen Baroja hark hainbeste etsai sortzeko euskal politikarien eta kultura jendearen artean? Egia da izan zuela defendatzailerik, esate baterako Koldo Mitxelena, eta itzultzailea ere aurkitu zuela Jon Etxaiderengan. Ez bakarrik gerraondorengo belaunaldietan: Toma Agirre “Barrensorok” haren hainbat pasarte argitaratu zituen *Euzkadi* egunkari nazionalistan (1933an “Baroja idazlearen begi-ninietan” izenburupean bildu zituen *Gazigozoak* liburuan). Inazio Mujikak¹ honela dio *Zalakain abenturazalea*-ri idatzitako sarreran: “Izan ere, asko idatzi eta erausi ugari egin da abertzaletasunaren kontrako Don Píoren jarreraz eta abertzaleek zioten herraz, baina euskal abertzaletasuna barojazale-habia ere izan da aspaldi-aspaldidanik eta gaur arte”. Baina berrogeita hamarreko urteetatik aurrera zerbait hasia da aldatzen (ez pentsa, hala ere, Koldo Mitxelenaren jarrera nagusi izango denik ondorengoan artean ere).

* Izenburupean datorrena Iruñeko Udala eta Nafarroko Ateneoaren artean antolatutako “Pio Baroja, bere 50. urteurrenean” hitzaldi sortarako prestatu nuen.

¹ “Baroja eta amets-ekurrak”, *Zalakain abenturazalea*, Irun, Alberdania, 2006.

Serafin Baroja aitaren eta Pio Baroja semearen artean zein da aldea euskal giroari dagokionez; izaera soilik? Izan ere, Serafin Baroja Manterolaren eta Bilintxen laguna izan zen eta pozik zegoen *Euskal-Erria* aldizkarian euskarazko erdi-bertsio erdi-poesia haiek argitaratuz, edo argitaratugabe² geratu ziren “Amairu damacho” bezalako zarzuelak idatziz, edo garai hartan hain ospetsu bihurturiko apokrifoen generoan eleberririk idatziz, honako izenburu honekin esate baterako: “Los pillos de la playa. Novela escrita en vascuence por Tatanfirulet, célebre tamborilero de Mizpirandienea y vertido al castellano por Andre Grachi (1865)”. Serafin Baroja, Pioren aita, oso ezaguna zen Donostian, hau da, euskarak presentzia nabarmena zuen XIX. mende amaiera aldeko donostiartasun hartan. Jakina, Pio Barojarentzat aitaren kultur giro hark ez zuen jadanik inongo erakarmenik. Mespretxatu ere egiten zuen umorea eta aldarte ona baizik nagusi ez zuen kultur giro hura, maila artistiko apal batean konforme bizi zen fuerismoaren aurreko eta garaiko euskal mundu hura. *Euskal-Erria* aldizkariak joera ezberdinetako jendea bere ingurura biltzen asmatu zuen, hala tradizionalistak nola errepublikazaleak, hau da, karlistak eta liberalak, geroztik inoiz gertatuko ez zen harreman-maila sustatuz gainera. Azken batean, euskararen antzinatasun, birjintasun eta noblezia, Euskal Herriaren metonimia gisa (edo irudi adierazgarritzat), ikuspegi ideologiko erkidea zen bigarren karlistada irabazi eta galdu zuten artean. Horrek azaltzen du XIX. mende amaiera arte literatura foruzaleak izan zuen arrakasta, euskaraz idazten zen guztia kutsatzerainokoa. Foruzaletasunaren ideologia zabal eta integradorearen barruan, bi hizkuntzek halako “kidesan” batean jardun zuten literaturan. Laster ez zen egoera hori nahikoa izango euskal nazionalismoarentzat, izan ere, testuinguru foruzalean, gaztelera idazten zuten beste kideen lanak euskaratzea izan baitzen euskal literaturari egokitu zitzaiona. Urri izan ziren alderantziz egindako saioak. Jakina, norberaren hizkuntza eta literatura naziogintzaren ikur erabili nahi zituen euskal nazionalistentzat gorago aipatutako “kidesan” hura faltsua zen, euskalgintzaren mendekotasun bat estaltzen zuen egoera salagarria. Horrekin guztiarekin esan nahi dudana hauxe da: Serafin Baroja, Claudio Otaegi eta antzeko euskal (euskaraz) idazle ere baziren haientzat guztientzat, gaztelera zen kultura³ eta arte hizkuntza jaso, eta euskararen lekua literatura foruzalearen joko-zelai hartan –literatura foruzalearen sistemaren barruan esango genuke, akademikoago jardunez– apal, xume eta bazterreko protagonismora errenditzen zen. Egia da naturaltasunez bizi izan zutela egoera hura. Nazionalismoarekin, euskal nazionalismoarekin eta Espainiak ere estatu gisa sendotzeko ezinbesteko zuen nazionalismoaren eraginez,

² Ikus Patrizio Urkizuren *Serafin Baroja (1840-1912). Euskal operaren aitzindaria*, Irun, Alberdania, 2007.

³ Gauza bera esanenez gaztelera idazten zen garaiko poesiari buruz Bilintxek *3/4beti ere lekukoen arabera3/4* erakutsi bide zuen sentiberatasunaz.

foruzaletasuna berehala gainditu zen, eta mende aldaketak zeharo bestelako agertoki batean kokatu gintuen. Unamuno, Baroja eta Sabino Aranarekin literatura foruzalearen mundua atzean geratu zen, eta alde bateko eta besteko idazleak buruz buru jarri ziren beren artean. Aurrerantzean, esanguratsua izango da zein hizkuntzatan idazten den; egoera hartan, beren buruak nazionalistatzat ez zituzten idazleentzat (R. M. Azkue, Txomin Agirre), Unamuno eta Baroja (eta Sabino Arana bera ere, kontrako aldetik) urrutiegi joanak ziren. Barojak ez zuen Unamunok eta are gutxiago Ramiro Maeztuk erakutsi zuten espainolitatearen espiriturik; hala ere, gogor egin zuen nazionalismo katalanaren eta bizkaitarrismoaren aurka. Euskaldun jendea oso goian zuen, Unamunok bezala. Eta, hark bezala, uste zuen ondo zetorkiokeela Espainiari euskal izaeraren igurtzi sakon bat; dena den, kulturari dagokionez, uste zuen euskara ez zegoela prestatuta kultura modernoaren erronkari aurre egiteko, eta horretan ere Unamunorekin bat zetorren. Honela dio han eta hemen maiz plazaratutako iritzietako batean:

“Para comentar a Platón, o a los clásicos, los vascos hemos llegado tarde a la cultura.” (1935)

Ez zuen besterik esan Unamunok 1901eko Bilboko “Lore Joko” famatu haietan. Hara zer zioen Barojak urte bereko udan *El imparcial* egunkarian argitara emandako “El vascuence” artikuluan:

“El vascuence no ha sido ni es una lengua literaria o filosófica, nos viene ya estrecho. Ha venido estrecho a todos los vascongados que han tratado de expresar sus pensamientos en él. Si algunos han querido demostrar que el vascuence es una lengua que puede transformarse en un idioma literario y científico, han sido un corto número de chiflados, y un gran número de eúskaros carlistas con disfraz de filólogos, que creen que toda la verdad del mundo está encerrada en el Astete”.

Ikusten denez, Baroja ez zegoen karlista eta liberal foruzaleen arteko ñabarduretan denbora galtzen ibiltzeko.

Beraz, mahairatu beharko banu zein izan zen aldea hizkuntzaren hautuari dagokionez Serafin Barojaren eta bere semearen artean, hauxe esango nuke: lehenengoarentzat kultur kontuez esan gabe ere onartua zegoen hura (gazteleraz edo frantsesez egiten zela kultura jaso), bigarrenak, aldiz, garaien dinamikak bultzatuta inondik ere, bere ertz larrienekin azaldu behar izan zuen erabaki hori. Batak bi hizkuntzetan egingo zuen, bigarrenak galdua zuen jadanik euskara. Eta inork ezin uka Euskalerra hura ez zuenik aberri Pio Barojak. “El cantar vagabundo”n honela dio:

“Para mí la patria es lo que se halla de bueno y amable en el país donde se ha nacido y se vive; la patria es el paisaje, el color del cielo y del campo.”

Baina ez zuen kultura aldaketarik nahi, aurrean zuena maitatzearekin nahikoa zuen, alferrikakoa ikusten zuen munduaren “berezko” — Barojarentzat halaxe baitzen— martxan esku hartzea; ez zuen giza borondatean inongo federik. XIX. mendea maite zuen, ez XX.a, eta industrializazioak, bizkaitarrismoak eta modernitateak berekin zekarten guztiak etsitu egiten zuen. Honela dio 1935eko artikulua batean:

“El tradicionalismo, el nacionalismo y el marxismo del país tienen poco interés ecuménico.”

Baroja fatalista zen, eta gizarte eta kulturen ikuspegi darwinista samar bat zuen (Unamunok bezala, bestalde). Alde horretatik, ez zuten federik giza erabakietan, borondatearen eraginean. Justu horixe da Koldo Mitxelenak azpimarratu nahi izan zuena, Itzeako idazlea hil aurretikoan, “Berriketan” sailean, *Egnerako* egin zion elkarrizketaren amaieran, Weinreich hizkuntzalariaren esaldi honetaz baliatuz:

“Galtzen ari ziran izkuntza askok luzatu dute bizia, iztunen gogoia aldatu delako. Arriskuz betea dago orrexegetatik izkuntzen il berria zabaltzen dabiltzan profeta lanbidea.”

Eta gurean halako zerbait gertatu zen: une batetik aurrera, nazionalismoaren eraginpean, euskara ez zen iraganeko gure esentzien muina soilik, etorkizunerako euskaldunek nahi zuten hizkuntza tresna baino. Gorago aipatutako joko-zelaian piezak mugitzen hasi ziren, euskaraz ala erdaraz idatzitako literaturak ez zuen jada leku finkorik, bata zentroan eta bestea periferian. Biak lehiatuko ziren lekuri duinenaren bila: bata Madrila (eta ahal bazen Parisa) begira; bestea, bertako plazara.

Geroztik, Julio Caro Barojak, osabari eta aitonari buruz ari zelarik, honela idatzi zuen *Los Baroja* liburuan:

“Ningún autor ambicioso —se refiere a Serafín— se contenta con esta clase de celebridad anecdótica, local, tan corriente en el país vasco en otra época.”

Psikologo batek izakeran edo aldarlean ikusiko luke bien arteko leizea. Marxista batek, berriz, esango luke Serafinek bizi izan zuen XIX. mende amaiera aldeko burgesia aurrerakoienak porrot egin zuela Serafinen semea heldutasun arora iristearekin batera eta hortik letorkiokeela Piori eszeptizismoa, pesimismoa eta burges txikien ideologian hain ohiko den subjektibotasun frustraturako joera. Garbi dagoena zera da: Serafinek gustura bizi izan zuela bere garaia; Pio Barojak, ez. Arrazoiak arrazoi —aipatu dira hemen batzuk—, ez ziren gutxi izan Barojak euskal kulturako zenbait izen seinalearekin izandako ika-mikak. Ez pentsa euskaltzale haiek guztiak nazionalistak zirenik; tartean, ideologia zaharreko karlista eta tradizionalista

asko zegoen, besteak beste R. M. Azkue, Julio Urkixo edo Pierre Lhande. Barojaren hiru argitalpenetan bildu ziren euskararen eta euskal nazionalismoaren aurka jaurretako sonatuenak: *Nuevo tablado de Arlequín* (1917), *Las horas solitarias* (1918) eta *Momentum Cathastrophicum* (1919), Bidasoako Txapelaundien aurrean irakurritakoa azken hori.

Hermes aldizkariak eta Asociación de Artistas Vascos erakundeak afari-omenaldi bat antolatu zioten Barojari, Bilbon, 1917an. Barojak han botatakoak *Euzkadi* egunkari nazionalistaren haserrea ekarri zuen, eta idazlearen esanei gutxienez lau artikulurekin erantzun zieten. Hauxe izan zen artikuluen tonua: “El impío escritor contra la raza vasca, su cultura y su religión”, eta afari-omenaldi hartan parte hartu zutenei mezu inkisitorial hau bidali zien egileak: “Quiénes están con Baroja y sus cosas, y quiénes en contra”. Nazionalista batzuk ere tartean ziren afarian (De la Sotatarrak, esate baterako). Afari haren ondoren eta *Euzkadi* egunkariko artikuluen atzean Azkue zegoelakoan, hauxe idatzi zuen Barojak *Las horas solitarias* liburuan:

“Un mes después del banquete, un curita vascófilo de estos que sirven de moscas canarias del vascuence, don Resurrección María de Azkue, dijo en una conferencia, ante el aplauso de un público bizkaitarra, que yo era un botarate y que me debían expulsar del País Vasco.”

Ezin izan dut Azkueren hitzaldia begiratu, baina gauzak nola ziren: Azkue “nazionalistak” (kakotxen artean: ahal zelarik, Errepublikako urteetan ezabatu egiten ziren *Euzkadi* egunkarian Azkueri buruzko aipamenak) eta Baroja “liberalak” (hau ere kakotxen artean) Salamancan egingo dute topo 1938an, Instituto de España erakundearen eraketa egunean eta frankistek erregimen berria legitimatzeko antolatutako *showean*.

Ez zuen halakorik egiteko aukerarik izan Aitzolek; *El Día* egunkarian 1931ean argitaratutako artikulua sortan Unamuno eta barojatarrak zituen hizpide. “La muerte del euskera. Los intelectuales vascos o los profetas de mal agüero” izenburupean bildu ziren artikulua haiek panfleto gisara argitaratuko ziren hurrengo urtean.

Ezbairik gabe, Aitzol izan zen Errepublikako urteetan Barojak izan zuen kritikarik gogorrena euskal kulturaren munduan.

Ordurako, 1919an, Julio Urkixo eta Pierre Lhande⁴ izanak zituen Barojak aurrez aurre *Riev* aldizkarian. Urkixoren euskarari buruzko iritzien aurka, hauxe zioen Barojak:

⁴ *L’Emigration basque* liburutik *Las inquietudes de Shanti Andia*-ra Barojak aldatutako pasarte nasaia dela-eta, honela erantzuten dio Pierre Lhandek. “Je m’estime, pour ma part, très honoré de voir figurer dans son roman: *Las inquietudes de Shanti Andia* une traduction fidèle de deux pages de mon livre *L’Emigration basque...*”, RIEV, 1919, 119. or.

“Esa tesis que ha sostenido don Julio de Urquijo, afirmando la posibilidad de que el eúscaro sea lengua de civilización, me parece una fantasía de filólogo, pero no una realidad.”

Urkixoren erantzuna:

“Baroja expresaba más bien un deseo con tintes proféticos, pero carecía de conocimiento tanto de vascuence como de filología para constatar nada.”

Aipatutako horiek dira euskararen inguruan izandako heldukada ezagunenak; izan ziren euskal idazle gehiago, Unamuno edo Baroja gogoan, euskararen alde mintzatu zirenak (Jaurtakol edo Lizardi, esate baterako). Urte beretsuetan, Barrensorok pena agertzen zuen Barojak ez zuelako euskaraz idazten: “Ai euzkal-elerti-barutian onen antzeko jardule bat bagenu! Irakurlearen agoa gozatzeko. Irakur’miña zirikatzeke”.

Gorago esan duguna errepikatu nahi nuke berriz: Baroja ez zen euskararen etsaia, bai ordea nazionalismoarena, eta nazionalismorik gabe euskarak egunak kontatuak izaki (edo hori zen behintzat euskaltzale askoren kezka). Batak, Barojak, gauzak zeuden moduan egotearekin nahikoa zuen; nazionalistentzat, berriz, euskara —proiektu nazionalaren muina— txerto berri baten beharrean aurkitzen zen.

Beraz, nola izan abertzale, nazionalista izan gabe, bi hizkuntzatan (bata potentea, bestea ahula) banatutako gizarte batean? Honela azaldu zuen Unamunok auzia XX. mende hasierako urteetan:

“Los pobrecitos, que estiman el vascuence y el catolicismo consustanciales al espíritu vasco, no pueden comprender que amemos nuestra tierra de otro modo que ellos la aman. Y siguen dándole vueltas al eterno manubrio del organillo tradicionalista y repitiendo todo género de inocentes fantasías y de candidas leyendas. Se encuentran muy a gusto en esa Baskonia —con b y k, pues así resulta más infantilmente pintoresca— de una historia sin crítica y de unas tradiciones en su mayoría falsificadas.”

Hain izenburu unamunotarra —*Huntaz eta Hartaz* (1965)— duen saio liburuan, Txillardegik hitz batzuk eskaintzen dizkio Barojari “Euskaldun txapeldunei bi hitz” saioan. Bidasoako txapelaundiei eskaintako hura gogora ekarriz, hau dio gure idazleak:

“Ba dakit nik Baroja’rez euzpaleko bat nekez joka zitekeala denbora haietan jeltkideen alde, orduko “bizkaitar” haien eskuintasuna gauza ezaguna baita. Are gehiago: beren eskuintasuna nabarmenago baitago askotan beren euskaldun abertzaletasuna baino.

Baina, hunengatik edo hargatik, Baroja espainol bat izan zan, eta ez euskaldun bat.”

Ez dago Txillardegiren hitz horietan gerraurreko euskal idazleengan sumatzen zen tonu mikatzik, are gutxiago arbuiorik. Baina gaur arte soluzionatu gabe daukagun dilema bat dakar Txillardegik plazara: euskaldun izateko modu bakarra dago ala iritsiko gara, patxadaz, gurean bi edo hiru hizkuntza izan zirela, direla (eta izango direla) onartzera?

2. KLASIKOEN ITZULPENGINTZA ETA MODERNITATEA

Gorago aipatu dugu Platon itzultzeko beranduegi iritsi ginela zioela Barojak. Baieztapen hori egin zuenerako (1935), burutuak ziren greko-latindarrak itzultzeko hainbat saio. Esate baterako, Jokin Zaitegik itzulia zuen ordurako Sofoklesen *Antigona* (1933), eta tragiko beraren beste lan batzuk hurrengo urteetan etorri ziren (1946-1958). Platonen *Solasak* geroago (1962-1979). Ez dut nik klasikoen itzulpenei buruz jardungo hemen, hasteko gai ez naizelako, eta bigarrenaz Iñigo Ruiz Arzallusek⁵ bikain egin duelako lan hori, gutxienez latindarrei dagokienez. Gure klasiko nagusiek izan zuten jesuiten pedagogiaren (eskolaren) eraginaz ere ez dut jardungo, horretan ere badugulako nori jarraitu: Paulo Iztuetaen *Orixen eta bere garaia* (1991) sahistezinezko iturria da (handik sortuak dira geroago liburu gisa argitaratutako *Erbeste euskal pentsamendua* (2001) eta *Orixen auzitan* (2003). Gaurkoagoa da egile beraren “Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan” (*Euskera*, 2005).

Ez dut aurkitu, ordea, klasikoen itzulpengintzaren eta 50etik aurrera zabalduz joan zen gizarte modernoaren arteko dialektikaz jarduten duen saiorik. Horixe da nire gogoetabidea apunte labur honetan. Eta hauxe abiapuntua: klasikoen itzulpenek ez zuten kulturalki inongo eraginik izan modernizatzen ari zen gizartearen baitan. Aitzitik, hiritartzen, industrializatzen eta sekularizatzen ari zen gizartearen aurrean nekazaritzaren giza balio “eternalen” ereduari itsatsi ziren, aldaketa berritzaile ororen aurka harresi lana ginez gainera. Zaitegiren eta Orixeren ardura izan zen hori

⁵ Ikus Iñigo Ruiz Arzallusen “Materiales para una historia de la traducción de los clásicos latinos al euskera”, Cuadernos de Filología Clásica, vol. XXI (1988), Ed. Universidad Complutense, Madrid.

“Sarrera”, in A. Ibiñagabeciaren *Bergiliren Unai eta alor-kantak*, ed. I.R.A., Donostia, Euskal Idazleen Elkarte, 1992 vii-lxv or. *Aitorkizunen Historia eta Testua*, Donostia, A.S.J.U., 2003.

nagusiki. Hara zer esaten dion Orixek Zaitegiri, Ibiñagabeitiaren *Ars Amandiren* itzulpena zela-eta: “Ez ote litzake obe *Ars Amandi* ixilik gordetzea? Gure jendea ikaratuko da (*Orixek. Gutunak*, 2006, 306. or.). Bai Zaitegik, bai Ibiñagabeitiak eta bai Orixek uste eta asmo onenekin jardun zuten bakoitzak berean. Guztiak ziren, Paulo Iztuetak hain egoki ezagutzera eman digun eran, jesuiten tradizio pedagogikoan heziak.

Ez pentsa, ordea, tradizio klasiko eta humanistiko hori izugarri aldentzen zenik mendebaleko beste nazioetan garai berean nagusi ziren ereduetatik. Gutxienez ez Lehen Mundu Gerra arte, ez eta geroxeagora arte ere. Arno J. Mayer-ek bere *La persistencia del Antiguo Régimen* liburuan hauxe dio: “1900 inguruan *lycée* bateko ikasketa denboraren erdia baino gehiago hizkuntza klasikoei (gramatika, erretorika) eskaintzen zitzairen; zientziei, berriz, ehuneko zortzia baino ez.” (240. or.) Azken batean, historikoki modernitatearen ikur izan diren zientzia, industria eta positibismoak ez zuten prestigiorik mendebaleko estatuetakoko elite nagusien artean: latinaren ezagutza ia ezinbesteko baldintza zen Estatuaren estamentu ofizialetan sartzeko, eta zer esanik ez gizarteko beste estamentu zaharretan, Elizan eta Unibertsitatean. Azken finean, Arno Mayer-ek dioena da XIX. eta XX. mendeetako historialari askok arinegi (edo alaiki) ahaztu dutela begi-bistakoa den egia hau: Frantziako Iraultzaren ondoren modernitatea abian jarri arren, industrializazio aurreko interes ekonomikoak (lurgintzak), errege-noblezien pribilegioak, Elizaren eta kultura klasikoaren nagusitasunak, hau da, *Ancien Régime*-aren zutabe sendoak ziren guztiak, luze iraungo zutela XX. menderaino bertaraino⁶. Estatuko elite politiko, militar, erlijioso eta unibertsitarioetan, eredu zahar eta balio moral haiek nagusi izan ziren. Berriz diot, Zaitegik, Ibiñagabeitiak eta Orixek euskarari onena eman nahian jardun zutela, beren ustetan —eta honetan berriz Iztuetaren lanetara bidaltzen dut interesatua—, eskura zuten kultur eredurik sendo eta prestigiotsuenean beratu nahian gurea. Baina, aldi berean, 50etik 70erainoko tarte horretan gure munduak hartutako norabideari erreparatzen bazaio, ezinbestean gertatu behar haien eredu zaharkitua belaunaldi gazteagoaren ezinegonerako. Nonbait esana dut haien ahaleginak —maiz Ruiz Arzallusek⁷ aipatzen duen “*tours de force*” huts izateaz gainera— kulturalki antzu gertatu behar zutela derrigor; izan ere, ordurako kultura klasiko eta humanistikoaren alderdi

⁶ Gizartearen sekularizazioa eta latinaren prestigioaren gainbehera bateratsu ibili dira gurean. Latinaren hegemonia XVI. mendean jarri baldin bazen aurreneko aldiz zalantzan, ez dezagun ahaztu hura indartuta atera zela Trentoko Kontziliotik (1562ko irailaren 5eko Dekretuan) eta Dekretu horrek indarrean iraun duela gurean 1965ko martxoaren 7a arte (Vaticanoko II. Kontzilioaren ondoren).

⁷ Ruiz Arzallus: “Materiales para una historia...”, op. cit. 282. or.

esentzialaren, estatikoaren eta betierekoaren aurrean, existentzialagoa, dinamikoagoa eta aldakorragoa (denboraren eta abiaduraren sentipen eraberrituarekin) nagusitzen ari baitzen. Beste termino bat erabiliz, errealistagoa zen gure mundua, eta beraz, modernoagoa. Orixeren *Euskaldunak* poema auzitan jarrita, hara nola planteatu duen Iztuetak eztabaida *Orixen auzitan* liburuan:

“Eztabaida honetan, aparte bakoitzak agertzen dituen gustu partikularrak, nahiz eta hitza bera ez datorren, errealismoan dator oratua. Joan San Martinetzat, lehen esanenez, *Euskaldunak* poemak ez zion erantzuten 1960ko hamarkadako euskal gizarteari eta, zentzu honetan, ez zen errealista. Joan San Martini arrotz egiten bazitzaion, konprenitzekoa da arrotzago egitea gerratea ezagutu ez zuen belaunaldiari... Joxeri (Azurmendi) Altsasutik Nafarroarekin mugan bizi izanda, arrotz egiten zaio Orixeren nekazal mundu hori. Nik berriz, Joxeren adinekoa izaki, ahari-talkak, inauteriak eta gehiago ezagutu nituen Larrun aldetik Nafarroarekin muga egiten duen Berastegin. Eta gauzarik normalena iruditzen zait hala izatea, zeren, azken batean, *Euskaldunak* poema luzea Orixen eta gogo Uitzin burutua baita (...) Baina kontua ez da hori, poema nagusia eta nazionala izateko helburuarekin pentsatutako obra batek, abiapuntuan bertan, lokalismoak gainditu behar baititu. Horiek anekdotak dira, ohartxo puntualak. Garrantzitsuena, eztabaidatuena, beste hau da: 1960ko hamarkadako belaunaldiak, hauek bereziki, ez duela poema horretan ezagutzen bere herria, inguruan daukan ez nekazal gizarte, ezago industrialak (...) Nekez uka daiteke 1960az geroztiko errealismoak folklorikoa ez beste izen bat zeramala (...) Baina har ezazu kontuan kritika hori 1966koa dela eta ez poema burutu izan zenekoa, 1935ekoa. Puntu honi erantzunez bakarrik erabaki daiteke *Euskaldunak* poemaren errealismoaren zenbaterainokoa.” (109. or.)

Balirudike eman dizkiola Iztuetak auzi horri eman beharreko erantzun posible guztiak. Ados nago gorago esandako guztiarekin, eta ados nago aurrerago datorrenarekin ere, alegia, ezin direla egilea eta bere obra deskontestualizatu, eta Orixeren poemaren testuingurua, egoera-definizioa, alegia, 1930eko hamarkadan dagoela eta ez 1960koan.⁸ Baina periodizazio literarioaren haritik inoiz ez genuke erabili beharko “errealismo” terminoa *Euskaldunak* poemaz ari garenean. Hango ahari-talkak eta inauteriak ezagutu

⁸ *Orixen auzitan*, 110. or.

ala ez axola gutxi baitio errealismoari, ez behintzat literatur periodizazioaren eta historiaren ikuspegi antropologiko batetik helduko bagenio gaiari.

Errealismoa modernitatearekin lotzea, berriz, zilegi litzateke. Izan ere, kolpera gertatu ez arren —non halakorik?— gizartearen bilakaerarekin (aldaketa eta dinamikarekin), zientziarekin, industrializazioarekin, laizismoarekin, positibismoarekin (eta erromantizismoarekin) zerikusi estuan hazi den kontzeptua delako. Orixeren *Euskaldunak* poema, berriz, estatikoa da, betierekoa eta kristautasunaren moral estuan sendo oretua. Beste hainbeste gerraurreko belaunaldiak mundu klasikoaz egin zuen irakurketa. Zerbaitengatik zegoen harro Orixe *Euskaldunak* poemari buruz Zaitetik eta Ibiñagabeitiak botatako laudorioekin, izan ere “Aiek Homer eta Virgili beren izkuntzan irakurri ditute.” (*Gutunak*, 229. or.). Iztuetak erantzungo luke gerraurreko giroa halakoxea zela, eta ni ados, baina soilik baserriar kultura besarkatzen zuen giro horrek, eta kultur giro hartako protagonisten artean ere bazen diferentziarik. Ovidioren *Ars Amandi* (klasikoen artean klasiko) zela eta Orixe Ibiñagabeitiari idatzi zion gutuna lekuko: “Itxizu bakean eta bazterean zantarkeri ori argitaratu barik” (*Orixe. Gutunak (1917-1961)*, 323. or.); beste hainbeste lehenago Lauaxetarekin izandako eztabaidan Orixe Laukizko poetari egotzia zion “belaxkakeria” hura; edo geroago Nemesio Etxanizen poesiari iritzitako “likiskeri ori” eta “lotsa emangarri ori. Zorigaiztoko moda!” (*Orixe. Gutunak*, 306) eta abar.

Jakina, artean ez gara Miranderenganaino iritsi. Honengana iritsi baino lehenago ere izana zuten Iparraldean antzeko gertaerarik Jean Etxepare medikuarekin. Han ere zentsura nagusitu zen, zentsura morala. Baina ez dut idazlearen izenaren atzetik medikuarena besterik gabe aipatu. Har ditzagun gerraondorengo modernitatearen bideak urratuko zituzten poeta eta idazleak eta erreparatu diezaiegun haien heziketei (edo ogibideei): bata Deustuko Komertzialean ikasitako kontablea (Aresti), hurrengo bulegari Parisen (Mirande), Txillardegí eta Sarasola ingeniari, Ramon Saizarbitoria soziologo eta Mikel Lasa ekonomialari. Gorago aipatutako Mayerren azterketaren ildoan baluke zeresanik horrek guztiak.

Uste dut pertinentea dela, errealismoaz eta mundu klasikoaz ari garen honetan, beste nonbait esandakoa hona ekartzea: “En su opinión (belaunaldi gaztea), el clasicismo de la generación de la preguerra se mostraba estéril para expresar el sentido de los nuevos tiempos. Lo que para uno revestía sustancia clásica, para los otros no era sino una manifestación de costumbrismo caduco.”⁹ Izan ere, hau da guztiaren klabea: “La novela costumbrista no es

⁹ Iñaki Aldekoa, *Historia de la literatura vasca*, Donostia, Erein, 2004, 148. or.

imitación de la realidad, sino de un modelo previo construido sobre un sistema de valores al que se subordina la ficción literaria.”

Mendebaleko literatura nagusietan, irakurleen eskura zeuden klasikoen irakurketa eguneratuak; gure jendeak, berriz, entzungor zirudien errealitate berri horien aurrean. Gure klasikoen miresleak ez zeuden Joyceren *Ulyses* edo T. S. Elioten *Lur eremuak* bezalako ekarriak barneratzeko. Ez zitzaion besterik gertatu belaunaldi gazteagoari Orixeren *Euskaldunak* poemari dagokionez: zaharrentzat zuen arnas klasiko betierekoa ez zen gazteagoentzat kalterako baizik. Gerraondorengo giroan hezitakoentzat, ezin hura izan poema kostunbrista malogratu bat baino. Ordurako haiek nahiago Unamuno, Bernanos edo Camus irakurri. Izan ere, belaunaldi berriak bai baitzekien Camusek zioen hura; sentsibilitate modernoaren eta sentsibilitate klasikoaren desberdintasuna honetara errenditzen omen zen harentzat: batean arazo moralak dira nagusi; bestean, ordea, metafisika.

3. GERRAONDOKO POESIAZ PARE BAT OHAR

Aspalditik dator Kortazarren eta bion arteko desadostasuna Lauaxetaren poesiari dagokionez. Eta aldiro-aldiro azaleratu ohi da eztabaida. Azkenekoa, 2005ean, Mungian, Lauaxetari eskainitako omenaldiak zirela-eta, *Berria* egunkariak Kortazarren iritzi hau plazaratu zuen: “*Bide barriak* erromantikoa da, eta *Arrats beran*, modernista (...) Estiloari dagokionez, modernitatearen barruan koka daiteke, edo sinbolismoaren barruan, Espainian modernitatea zenari Frantzian sinbolismoa esaten baitzioten. Lauaxetak sinboloen bidez adierazi zuen errealitatea, poeta sinbolista izan zen. Iñaki Aldekoak ezetz dio (non ez du esaten), kristaua zelako, baina poeta modernista asko izan zen kristau” (Jon Kortazar, *Berria*, 2005-07-13, 34. or.). Jakina, Kortazarrek hor dioena nire *Historia de la literatura vasca*-n (2004) nioenaren haritik esaten du. Baina kontua da nik ez nuela halakorik esaten liburuan; nioena hori baino askoz konplexuagoa zen. Kortazarrena sinplifikazio bat zen, nahiz hark adierazitakotik ere zerbait egon. (*Esteban Urkiaga, Lauaxeta (1905-1937)* liburuan “Lauaxeta, modernitateko poeta” argitaratu zuen iaz Kortazarrek. Hor bai matizatzen da gorago esandakoa).

Nahiko nuke, nire aldetik, puska luze baterako utzi auzi hau, nahiz eta badakidan kontzeptuen argitze hutsa ez dela nahikoa horretarako. Baina saia gaitezen. *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*-n (Bilbo, Desclée Brower, 1986), besteak beste, Octavio Paz-ek *Los hijos del limo*-n saiaturako lan jada klasikoaz baliatzen da Kortazar. Ni ere bat nator mendebaldeko poesia modernoaz Octavio Pazek eskaini zuen ibilbidearekin. Oso pertinentea

iruditu zait beti gurean ere erabilia izan zedin. Baina, hara non, tesi beretik eta ikuspegi beretik abiatu, eta ezin iritsi konklusio beretara. Nire ustez, Kortazarrek mekanikoki ezartzen du gure poesian saiolari mexikarraren eskema.

Gauzak horrela, beste literaturetako periodizazio andana ekartzen digu bata bestearen atzetik: erromantizismoa, posterrromantizismoa, modernismoa, sinbolismoa, postsinbolismoa, eta abar. Eta batek ez daki oso garbi zertaz hitz egiten ari garen termino horiek gurera aplikatzen ditugunean (nahiz eta jakin zertaz hitz egiten den aldameneko hizkuntzetako poesiaz dihardugunean). Kortazarren abiapuntuak, ona eta gainera integratzailea izanik, huts egiten du —nire ustetan— gure bilakaera soziokulturala besarkatzeko ahaleginean, hau da, gure modernitatearen kontzientzia soziokulturalaz jabetu nahi duenean. Azken batean, zer da historia? Max Weber-ek esango zukeen funtsean balioekiko gure harremana dela historiari ardura zaiona. Nire ahaleginen artean beti egon da Lauaxeta Orixerengandik bereizten zuenaz jabetzea, baina baita Miranderengandik bereizten zuenaz ere. Gauzak horrela, ezin zentzu historiko sendo batetik begiratuta, *continuum* batean baino ikusi euskal poesia modernoaren bilakaera. Lauaxeta modernoa al zen? Orixerekin konparatuta bai. Zergatik? Ba, Orixeren *Euskaldunak* poeman —gauza bera *Barne muinetan* zerebrala hartzen badugu— ez dago subjektibitatearik (intimitaterik), subjektibotasun modernorik (poesia homerikoan ez dagoen tamaina berean); Lauaxetarengan, ordea, bai. Eta horrexegatik da, besteak beste, modernoa Lauaxeta. Eta Miranderekin edo Arestirekin konparatuz? Ba, Lauaxetaren poesia bere giro soziokulturalean kateatuta ageri zaigu, herentzia kultural kristau eta tradizional baten lastre gaingitu gabe batean ageri ere. Poeta modernistak ere kristau zirela, eta Lauaxeta ere horien pare jarri nahi dugula? Ez naiz ni horretaz ari. Artikuluko bigarren puntuan saiaturakoaren haritik esan dezadan moderno dela Lauaxeta, Orixe eta Lizardi baino aurrerago dagoelako tradizionalismoaren mundu zaharkitutik modernitaterako *continuum* horretan. Baina haien munduarekin dituen loturak estuagoak izaki Mirande eta Arestirekin dituenaren aldean. Horregatik idazten nuen nire *Historia de la literatura vascan* modu honetan:

“*Bide barriak* inaugura la senda que conducirá a la poesía vasca hacia la modernidad poética (...) la quiebra de la armonía que vive el poeta enlaza por primera vez con el paisaje moral y afectivo que emana de las corrientes poéticas que van desde el romanticismo de Heine hasta el modernismo de Juan Ramón Jiménez (...).

Bide barriak significó un auténtico aldabonazo en la poesía vasca. La polémica que suscitó su publicación no deja lugar a dudas. Se trataba de un libro novedoso y que hacía honor a su título, exhibiendo con exuberancia rasgos sentimentales de la estética moderna. Sin embargo, su influjo no deja de

resultar quizás epidérmico y sin otro trans fondo que el sentimental. Incorpora la mera sentimentalidad, pero no rompe con el concepto del hombre y del mundo heredado de la tradición vasca. Dibuja el atuendo pero le falta convicción para adaptarlo a las formas del cuerpo que dicha poesía demanda.” (138-139. or.)

2005eko *Euskera* aldizkariko 2. alean, gure arteko auziari heltzen dio Paulo Iztuetak, baina justu *Berria*-ko iritzi sinplifikatuari jarraikiz, eta honela arrazoitzen du: “Nik puntu horretaz emana baitut neure ikuspuntua eta, bestalde, eztabaida antzua iruditzen baitzait, ohar batzuk eginaz emango diot bukaera gaurkoari”. Duela gutxi arte ez zen horrela. Bere *Kritika literarioaren lehen saioak* (1926-36) liburuan honela idatzi zuen:

“Lehen esana daukat, euskal literaturak une horretan ezagutzen duen berrikuntzan ez dudala sumatzen inolako modernismo-kutsurik. Euskal gizartean ez da gauzatzen Europan iraultza burgesarekin ematen den tradizioarekiko haustura. Beraz, ez deritzot egoki euskal poesia modernoaz hitz egiteari, ezta Lauaxetaren kasuan ere, literatura mailan forma-berrikuntza batzuk ematen badira ere, ez baita ematen etendura ideologikorik. Puntu honetan bat natorkizu Iñaki Aldekoak *Jakin*-en euskal poesigintzaz agertutako iritziarekin: “Zail egiten zaigu, berriz, onartzea —J. Kortazarrek nahi duen bezala— Europako haustura, tradizioaren edo, beste modu batera esanez, poesia modernoaren euskal bertsioa, Lauaxeta eta Lizardi direlako baieztapena.” (189.or.)

Nire baieztapen hori 1989an argitaratutako artikuluko batekoa zen. Oraingoan antzu irizten dio eztabaidari, eta guztiz orojakile, salomonikoki banatzen digu batari eta besteari dagokiguna. Zientzia eta zorroztasuna ahoan, ez da gai izan begiratzeko zer esaten zen nire liburuan, ze, edo irakurtzen ahaztu zait, edo ez du han ez zegoen ezer berririk aportatzen. Berak jakingo du zergatik nahiago izan duen egunkari batean esandakoaz baliatzea, liburu batean esaten direnak aintzat hartu gabe.¹⁰

¹⁰ Ikus zer dioen nireaz *Euskal idazleen belaunaldiez* liburuan: “Kortazarren eskema berari jarraituz interpretatzen du euskal literaturaren historia Iñaki Aldekoak (2004) ere, aldaketa handirik gabe, alderdi estetikoari dagokionez bederen” (94. or.). Ez dut nik horrela ez denik esango, bera baita oraingoan kritikaria; hori bai, esango dudana hauxe da: Kortazarrena ez nuela kontzienteki begi aurrean izan nirea idazten nuen bitartean, bai ordea Jon Juaristiren *Literatura vasca*, justu Paulo Iztuetak, zergatik ez dakidala, bere azterketan isilarazi duena. Ze, zientziaz ari bagara, lehen baldintza litzateke jokoaren arauen berri ematea. Euskal literaturaren historiografiaz ari bagara ezin da kapritxosoki inor alde batera utzi, eta hori egiten bada, zergatia eman behar da.

b) Apunte hau Lizardiri eskainiko diot. Lizardiren poesian nagusi den “untzia”ren metaforari, hain zuzen: bizitza nabigazio gisa. Mendebaleko poesiaren baitan ondo errotutako irudia dugu itsasoratzea bizitzaren edo mundualdiaren metafora gisa. Hasi Antzinate klasikotik —*Antologia palatina*-n Páladas delako poeta batek honako bertsook idazten ditu “Gizakion bizitza” izenburupean: “Gizakion bizitza itsas ibilaldi arriskutsua da / Ekaitzaldi larrien erasopean, itsasoan galdua”— eta kristauenean jarraitu, maiz aurkituko da metafora hori Homero, Horacio, Dante, Petrarca eta Errenazimenduko eta ondorengo poetengan. Egia esan, *topos* gisa har daiteke literatur tradizioaren barruan. Ez ditugu hona ekarriko Homeroren, Horacioren edo Danterengan agertzen diren metafora horren adibide ugariak. Horiengan hartu baitzuen metaforak gurean, gure tradizioan, duen lekua.

Gatozen gertuagoko beste zenbait adibiderekkin:

1. Petrarcaren *Canzoniere*, 189: “pasa la nave mía llena de olvido”.
2. Juan del Enzina poetak (*Cancionero General*, Hernando del Castillo, IV, 1511, 613. or.). “Quien navega por el mar / de aqueste triste bivir.../ Si bien quiere navegar”
3. Cristóbal Carrera poetak (1513-1597): “Mi ánimo, señor, es navegante por este mar / del mundo, tan amargo...”
4. Heinrich Heineren “Bizitzaren bidaia” (Denboraren poemak, 1844): “Uhinek kulunkatzen zuten nire untzitxo alaia”
5. Antonio Machado “Autorretrato” (*Campos de Castilla*, 1912): “y está al partir la nave que nunca ha de volver” edo “ y encontrarás una mañana pura / amarrada tu barca a otra ribera” (*Soledades*, XXI).

Garbi dago ez zuela Lizardik bere poesia idatzi mendebaleko tradizio horri bizkar emanaz. Aitzitik, bere poesia osorik dago errotua Europan.

BIBLIOGRAFIA:

- ALDEKOA, Iñaki: *Historia de la literatura vasca*, Donostia, Erein, 2004.
- BAROJA, Pío: *Obras dispersas y epistolario*, in *Obras Completas*, Barcelona, Círculo de Lectores, 1999.
- IZTUETA, Paulo: *Orixe ete bere garaia*, Donostia, Etor, 1991.
- Erbesteko euskal pentsamendua*, Donostia, Utriusque Vasconiae, 2001.

- Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, Donostia, Utrisque Vasconiae, 2002.
- Orixe auzitan*, Donostia, Utrisque Vasconiae, 2003.
- Euskal idazleen belaunaldiez*, Donostia, Utrisque Vasconiae, 2005
- “Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan” in *Euskera* 2, Bilbo, Euskaltzaindia, 2006, 627-669. or.
- JUARISTI, Jon: *Literatura vasca*, Madrid, Taurus, 1987.
- KORTAZAR, Jon: *Teoria y práctica poética de Lauaxeta*, Bilbao, Desclée de Brouwer, 1986.
- “Lauaxeta, modernitateko poeta” in Esteban Urkiaga, *Lauaxeta (1905-1937)*, Donostia, Egan, 2006, 9-24 or.
- MAYER, Arno: *La persistencia del Antiguo Régimen*, Madrid, Alianza, 1984.
- MUJICA, Inazio: “Baroja eta amets-ezkurrak”, in *Zalakain abenturazalea*, Irun, Alberdania, 2006.
- ORIXE: *Gutunak*, (Paulo eta Ibai Iztueta paratzaileak), Donostia, Utrisque Vasconiae, 2006.
- PAZ, Octavio: *Los hijos del limo*, Barcelona, Seix Barral, 1981.
- RUIZ ARZALLUS, Iñigo: “Materiales para una historia de la traducción de los clásicos latinos al euskera” in *Cuadernos de Filología Clásica*, vol. XXI (1988), Ed. Universidad Complutense, Madrid.
- “Sarrera” in *A. Ibiñagabetiaren Bergiliren Unai eta alor-kantak*, ed. I. R.A., Donostia, Euskal Idazleen Elkartea, 1992, vii-lxv or.
- Aitorkizunen Historia eta Testua*, Donostia, A.S.J.U., 2003.
- URKIZU, Patrizio: *Serafin Baroja (1840-1912). Euskal operaren aitzindaria*, Irun, Alberdania, 2007.

RÉVEIL BASQUE ASTEKARI ERREPUBLIKANO ELEBIDUNA (1886-1894)

Xabier ALTZIBAR

1. ZOKO ILUNETIK JALGITZEKO ORDUA

(*Le Réveil Basque* (Paue, 1886-VII-11–1894-XII-30) aipatua bezain ezezaguna da oraino. Vinsonek eman zituen *Réveil* eta *Eskualdunaren* xehetasun larrienak: hura errepublikanoa eta hau antierrepublikanoa eta apaiztiarra zela, baina biak parte frantsesez eta parte euskaraz idatziak. Huts ttipi bat eginez ordea: *Réveil* agorrilaren 1ean sortua zela esan zuen (1891: 628-629 zbk, 399-400. or.). Lafittek Vinsoni jarraitu zion, bere bozkarioa ezin gordez haatik, esanez *Eskualdunak* ehortzi zuela *Réveil* apaiz-jalea 10 urteren buruan (1941:68; 1971:24); beraz ez bide zuen *Réveil* ezagutu. Lafitteri jarraitu zion Villasantek, bere aldetik Baionan ateratzen zela gehituz (1979:198), eta Villasanteri S. Onaindiak (1974:346). Bere denboran *Eskualdunak* beste bekatu bat egotzi zion *Réveili*: Candau kudeatzailearen euskara gaizto eta farregarria (“Il s’en f...”, E 128, 1889-X-25; “Candauren eskuararen chantilun bat”, E 183, 1890-XI-14).

Lafittek bezala, euskal literaturaren historiagile anitzek, *Réveil* laburki aipatzen badute, haren ondotik kontserbadoreek *Eskualduna* sortu zutela eta hark *Réveilek* baino luzazago iraun zuela jakinarazteko baizik ez da. Puntu honi datxekiola, ohartararazi behar da *Réveil* izan zela lehena, ez *Eskualduna*; *Réveilek* behartu zuela *Eskualdunaren* sortzea, beren baitarik xuriek ez baitzuten 1887an behintzat kazeta elebidunik sortuko, eta *Réveil* 1894ko abenduaren azkenetan agertzetik gelditu bazen ere, haren ondotik gorriek (*Le Pays Basque-Eskual-Herria* astekari elebiduna (*Eskual-Herria* izenez ezagunagoa) jalgiarazi zutela beste 10 urte baino gehiagoz (1898-X-1-1914?).

Oraintsuagoko bibliografia aipatu zenbaitetan zuzen esaten da *Réveil* kazeta errepublikanoa zela, baina elebiduna zelakoa ahantziz (J. Bilbao 1977); orobat entziklopedietan (Añamendi 1995; Harluxet 1995). Zorionez xehetasun hori ageri da aldizkarien katalogo zenbaitetan (Diaz Noci 1994). Literaturaren historiaren aldetik begiratuta, Urkizuk dio *Réveilen* euskarazko artikuluek ia huts-hutsik laborari gaiak dituztela solas, zenbaitek emigrazio-koak eta beste batzuek *Eskualdunaren* erasoei erantzuten dietela, erantsiz bestalde, hizkuntza, historia edo politika aldetik interesgarriagoak direla (2000:363). Noski, kazeta politiko gisa, aldi hartako Euskal Herriko politika eta gizarte gaiak ditu hizpide, uste baino zabalagoak ordea; baina bertzalde, aldi hartan politikak literaturan sortarazi zituen emaitzak ez dira gutxiestekoak eta horien lekuko dira *Réveileko* bertso eta testu anitz.

Beraz *Réveil* garai batez apaiz euskalzaleen madarikazio guztiekin zokoratu izan da. Ideologia eta politika aitzakiak ulergarriak ziratekeen beste garai batean: hain katolikoak baitziren euskaldunak (boza gorri ematen zutenak ere bai), hain hertsiki estekatuak elkarri elizgizonak eta euskara, eta halako guduak III. Errepublikan non halabeharrez euskarazko kazeta gorriak eta xuriak sortu beharrak baitziren elkarren kontra borrokatzeko. Estatuaren eta Elizen arteko Bereizkunde Legearen (1905) ondorioz kalapitak eztituz joan ziren; izan ere Andere Errepublika eta Aita Saindua elkarrekin ezkontarazi zituzten, eta 1905eko dibortzioak luzara on egin ziela batzuei eta besteei ez da dudarik. Borrokak sortarazi eta biziarazi zuenez, borroka bere bizienean zegoeno iraun zuen *Réveilek*, eta halaber haren ondoko *Eskual-Herriak*. Gorri eta xurien jokaera noraino iritsi zen jabetzeko, hona alde batekoen eta bestekoen erakusburu bana, 1905 aitzin eta ondokoak: 1902an gorriek apezak euskaldun haurrei katixima frantsesez irakastera behartu zituzten, paga kentzeko mehatxupean (*Eskual-Herriako* idazleak prefetaren manuaren alde agertu ziren); 1810ean J. Etxepare bere *Buruxkak* erretiratu beharrean gertatu zen, besteak beste apezak eskolemailagoatik kendu behar zirela idazteagatik, eta 30 urte beranduago ere (1941), Lafittek liburua berriz argitaratzean, bi kapitulu kendu zizkion, hain zuzen irakaskuntza eta amodio gaietan egilearen pentsamendua agertzen zutenak.

Eta *Réveil* han datza zokoratua oraino, gure ikerketen ahuleziagatik. Bilduma bat Pauen goteak ez du erraztu ikerketa. Aipatu behar da hala ere B.

¹ (*Le Réveil basque*. Bibliothèque square Paul Lafond, 64000 Pau. Ee 3178. Bi liburukitan. Ondoko agerraldiak falta dira (zenbakia eta urtea): 10, 1888; 43, 1890; 31-39, 1892; 11, 20, 1893. Nire eskerrak biblioteka horretako Patrimonio Zerbitzukoari eta bereziki Maïté Aguërori.

Larzabalen artikulu labur bezain mamitsua Elizanburu, Otxalde, Guilbeau eta errepublikanoen Euskal Bestez (1983: 323-338). Ordu da beraz, ideologia eta ezazola bazter utzirik, Euskal Herriko gorri eta xuriek zer pentsatzen eta zer idatzi zuten, frantsesez eta euskaraz, jakin dezagun. *Réveilen* berean zortzi urtez euskaraz idatzitako testuen kopurua handia da. Edukiari dagokionez, alderdikaria da, noski, baina irakurri beharrekoa garai garrantzitsu hura eza-gutu nahi bada, zeren, *Eskualduna* batetik, eta *Réveil* eta *Eskual-Herria* bes-tetik, erdikiak baitira, elkarrekin Euskal Herriaren ikuspegia osatzen dutenak.

Artikulu honetan ez dugu azerketa luze sakonik egiteko asmorik, informazio larriena ematea baizik. Xoil eta gaingiroki azalduko dugu *Réveilen* sortzea, programa eta jokabidea, zertako egina zen parte euskaraz, zein gerta-era eta nola kontatu zituen bere ibilbidean, eta bereziki, zein eta nolakoak diren euskarazko idazlanak –generoak, gaiak eta testuingurua–, euskara eta idazleak.

2. RÉVEILEN SORTZEA, PROGRAMA ETA JOKABIDEA

Réveil da euskaldunen lehen astekari politiko elebiduna. Hura sortu arte Donibane Lohitzuneko *Le Vrai Basque* kazeta xuri erregetiarrak baizik ez zuen euskarazko artikuluren bat edo beste argitaratzen noizean behin, barne aldeko orrialdeetan; *Réveil* agertu ondoan, ordea, 1887ko bozak hurbiltzeare-kin, kazeta xuriak euskara lehen orrialdera ekarri zuen propaganda egiteko.

Réveil sortzeko erabakia prefeturak, Berdoly buruzagiak (Bordele 1844–Uhartea-Amikuze 1905) eta Pirineo Apaletako alderdi errepublikanoak elkarrekin ados hartu bide zuten. Martial-Henry Berdoly abokatua eta Mauleko suprefet ohia zen, franko aberatsa, bere Uharteko jauregian bizi zena, Donapaleuko kantonamenduan. 1885ko diputatu bozetan gorriek izigari-riko mustupilakoa hartu zuten departamendu osoan eta Euskal Herrian diputatu guziak xuriak jalgi. Berdoly, Mauleko arrondizamendu edo boz-
-eskualdean Harispe bonapartetarrak garaitua izan ondoan, 1886an, Donapaleuko kantonadako kontseilari jeneral kargura aurkeztu zen Diriart xuriaren kontra, Daguene hiltzean. Hortakotz, Berdolyri laguntzeko, sortu zuten *Réveil*.

1886ko uztailaren 11n, igandez, agertu zen beraz *Le Réveil Basque*. Azpiizenburua zuen: Organe des Intérêts de l'Arrondissement de Mauléon. Goiburua: Dieu, Famille, Propriété–Jainkoa, Familia, Hontasuna. Zortzitik zortzira, igandez, jalgi zen uztailaren 18, 25, bai eta 29an, ostegunez, eta abuztuaren 1 eta 8an. Lau orrialde zituen. Neurriak: 30 x 42 zm. Pauen ateratzen

zen, Garete inprimategian, Cordelier karrikan, 11; gero Place des Écoles (1887) eta ondotik Henry IV karrikan (1887-1894). Inprimategi hori *Indépendant* kazeta gorriarena zen, E. Garete baitzen kazeta horren zuzendaria. Parte frantsesez eta parte euskaraz idatzirik argitaratu zen.

*Réveil*en propaganda, Diriarten kontra, zinez bortitza eta demagogikoa izan zen, xuriena bezala, baina Berdolyk irabazi zuen abuztuaren 1eko bozetan. Donapaleuko kantonamendua, ordura arte xuri egona, gorrien eskuetara zuen. Artetik errateko, Donapaleu hirian aspaldian nagusi ziren errepublikanoak, baina ez inguruko herririketan eta oro har kantonadan; hori bera gertatzen zen ere Donibane Garazin edo Maulen.

Berdoly kontseilari jeneral pasatu ondoan, *Réveilek* geldialdi bat izan zuen baina ez zegoen lo, eta Berdoly, berriz, bere tenorearen beha, egunen batez diputatu izateko ustetan duda gabe. Destandean diputatu xuri hilaren lekua betetzeko departamendu osoan berriz hautesleak bozetara deituak izan zirelarik 1887ko otsailaren 27rako (gizonkiak baizik ez, erran gabe doa), *Réveil* berriro agertu zen, oraingoan ofizialki, 1886ko azaroaren 14an. Lehen agerraldi ofizial horretan kazetak Mauleko arrondizamenduko interesen aipamena kendu zuen, Euskal Herrira hedatzeko asmoz (Baionako II. arrondizamendura bederen), baita goiburua ere (Jainkoa-Familia-Hontasuna). Berdolyk bere burua aurkeztu ere zuen diputatugai izateko, eta haren hautagaitza sustatu zuten Baionako komite erradikal batek eta Donibane Lohitzuneko Liga Errepublikanoak, Guilbeau Donibane Lohitzuneko auzapeza buru zuenak. Baina alderdiak Vignancour oportunistak edo moderatu bearnesa hobetsi eta Berdoly erretiratu behar izan zen, eta hautagai ofizialarentzat lan egin zuen Mauleko arrondizamenduan herriz herriz Vignancour ezagutaraziz. Otsailaren 27ko bozetan hautagai gorriak gaitzeko zafaldia eman zion xuriari, Joantho erregetiar *Mémorial des Pyrénées*en idazle nagusiari, 12.000 edo gutienez 6.000 bozeko aldea atereaz. Euskal Herrian berean ere bai. “Errepublikaren errebantxa” deitu zuten errepublikanoek.

Beraz kazeten botere eta indarrak jabetuak bide ziren Euskal Herriko errepublikanoak 1885ko porrotaren ondoren. Etsaiek apaiztiarren kazeten propagandari esker irabazi zutelak zioten, laborariak erregetiar eta apaiztiarren erranei sineskor zirelako (Martin, “Ene eskualdun lagunak”, RB 14, 1887-II-13). 1887ko otsaileko bozetako kanpainan errepublikanoak bat eginik agertu ziren eta, gainera, Euskal Herrikoek euskaldunen sentimenduei deika, euskara erabiliz eta Biba Eskual-Herria oihukatuz. Adibidez, J. D. J. Salaberri Mauleko notario eta kontseilari jenerala, 1870an bere kantutegi ospetsua argitara zuena (Sallaberry, “Mauleko kantounadako botz-emailer”, RB 17, 1887-II-27).

Beraz gorriek Euskal Herria Errepublikaratuko zela konfiantza erakutsi zuten eta bitoriei esker *Réveil* hazi zen. 1887ko urtarrilean, 600 harpidedunek

hartzen dutela dio kazetak (“Réveil Basque errezebitzen eta irakurtzen duten-er”, RB 8, 1887-I-2); 1887-II-27ko garaitiaren ondoren, idazle eta kolaboratzaile franko dituela, bai frantsesez bai euskaraz, graziaz idazten dakitenak (RB 21, 1887-III-27). *Réveilek* Joanthoren *Mémorialari* ostikoa eman eta Donibane Lohitzuneko *Le Vrai Basque* eta *Le Pays Basque* ehortzi bide zituen. *Réveilen* lezioea ikasita, Euskal Herriko kontserbadoreen buruzagi jarri zen L. Etxeberri bonapartetarrak *Eskualduna–Le Basque* hamabostekaria sortu zuen, *Réveili* buru egiteko asmoz, 1887ko martxoaren 15ean, aurki *Eskualduna* astekaria bilakatuko zena.

Réveilen sortzeak esplikatzen du nork eta zertako egina zen. Paueko prefeturatik sustatua eta lagundua izan zen, Berdolyri eta Euskal Herriko hautagai errepublikanoei laguntzeko; “prefeturaren kazeta” deitzen zuten xuriek. Gabriel Davenet (Coderville, Seine Inférieur –Paue 1893), Pauera 1884an etorria eta prefeturako lehen kontseilari kargua hartu zuena jotzen dute xuriek kazetaren asmatzaile eta eragile nagusitzat. Berdolyren adiskidea zen eta haren Uharteko jauregian egonaldiak egiten zituen (RB 1886-VII-25). Funtzionario nekagaitza zen, eri zelarik ere urtetan, eta Berdoly diputatu ikusi baino bi hilabete lehenago hil zen (“Nécrologie. M Davenet”, RB 29, 1893-VI-18, 1.orr., 1. zer.). *Eskualdunak* gorrotatua zen, xurien kontra jotzeko administrazioaz eta epaitegiez baliatzen zela egotzi zioten, bai eta bozak koakzio bidez edo faboreak hitzemanaz bilarazten zituela Berdolyrentzat (“M. Davenet”, E 318, 1893-VI-30).

Baina kazetaren kudeatzailea, kazeta-egile nagusia eta legezko arduraduna Candau zuberotarra zen. Hark dioenez, 1870ko gerran mobilisatuena kapitain ohia izan zen eta euskaldun soldaduei armak erabiltzen euskaraz irakasten zien, ez baitzekiten frantsesik (RB 3, 1892-XII-18; 26, 1889-V-19). Pauen bizi zen baina Barkoxe bere herrian eta Zuberoan ere ibiltzen zen Berdolyren laguntzaile, politika lanetan.

Lehen agerraldiko aurkezpen ofizialean (“Gure irakurzailerari”, RB 1, 1886-XI-14) *Réveilek* bere programa agertzen du. Laburki: Euskal Herri osoan, herri guzietan harpidedunak (izanen) dituela. Euskal Herri osoko beharrak aipatuko dituela: herri bakoitzeko berriak eta aferak kontatuko, bai eta informazio eta aholkuak emanen bakoitzaren interes, eskubide eta eginbideak jakinarazteko. Errepublikaren sostengatzaile fermua izanen dela eta Gobernamentuaren ezagutaraziko dizkiola Mauleko arrondizamentuko eta Euskal Herri guziko beharrak. Baina alderdiari itsutuki atxiki gabe, aitzitik Errepublikaren egonkortasuna, ordena eta bakea nahi dutenei dei egiten die lagundu dezaten: “oraiko legek salbatu behar gaituztela desordre, erreboluzione eta gerra zibiletik”. Azkenik errepublikanoen batasuna aldarrikatzen du Biba euskaldunak! eta Biba Frantzia! oihukatuz.

Gure irakurzaileri

“*Réveil Basque* ezagutua da yadanik zuetarik hanitzez. Agorrilaren leheneko azken bosketan, uruski bataillatu izan gare, eta orduan erraiten ginduen:

“*Réveil Basque* ez da geldituko agertzetik boska ondoan. Kontrarat, bere izenak erraiten duen bezala, deithua da Eskual herriko intresez okupatzerat, eta hortaracotz khondatzen dugu gure adichkide ezagun eta estranyeren gainean aisago egiteko abiatzen dugun obra, erreusitzeko esperantzan.”

Gure hitza atchikitzen dugu.

Réveil Basque fondatua da finki. Mila esker koraye emaile guzieri eta beren lagun-tza ofreitu guzieri.

Esperantza ginduen baino hobekiago lagunduak gare.

Alderdi guzietarik iskribatzen gaituzte: “zoaste aitzina, zuekin gare”, eta alderdi guzietarik adichkidek igortzen gaituzte abonamenduak. Prezioa bakarka pagatzen ahal ez dutenak yuntatzen dire elgarren ganat jurnal hori errezebitzea gatic, eta segurtatzen ahal dugu orai *Réveil Basque* errezebitua izanen dela eskual herri guzietan.

Orai artio hanitzek uste izan dute eskualdunak ez duela maite libertatea ez eta ere yakitatean aitzina egitea; bainan horra froga, ageri da orai zonbat trunpatzen ziren Eskualdunaren ignorantzaren gainean, zeren ez baitzuten conprenitzen haren lengua-ya eta bizitzeko manerak eta ez baitzakiten harekin solas egiten.

Réveil basque deithua da destruitzerat errankisun eta ustekeria enuchent frango, bai eta asko gauza gaiski konprenituak orai artio. Egina izanen da pharte bat frantsesez, beste pharte bat eskuaraz; entseatuko da mintzatzerat guziek konprenitzeko gizan, eta errezebituko ditu plazerekin eta inprimaraziko ditu yustoki eta lejitimoki eginak izaiten ahal zaizkon galde edo erreklamazione guziak.

Herrietako afera inportantak izanen dire chuchen aiphatuak eta jurnal horrek emanen ditu gutarik baktotchak yakin behar dituen abisu guziak bere intresen zaintzeko, bere dretchuez baliatzeco eta bere obligazionen bethetzeko.

Bakezko eta unionezko politika pratikatzen duelarik eta fermoki sinhesten oraiko legeak salbatu behar gaituztela desordre, erreboluzione eta gerla zibiletik, *Réveil Basque*, zoina fondatua baita Murde BERDOLY, conseilu yeneraleko menbroaren proteksione handiaren azpian, jurnal hori izanen da Errepublikaren sustengatzaile fermo-ya eta Gobernamentuari ezagutaraziko dituen Mauleko arrondizamenduko eta Eskual herri guziko beharrak.

Ez gare gure alderdiari atchikiko itsutuki; ez gare bestetarik apart bizi nahi; lagun-tza galdegiten dugu borondate onezko gizon guzieri, desordriak eta menturazko afe-
rak hastio dituzteneri, eta bakian bizi eta lanian ari nahi duteneri, ordre oneko eta liber-
tateko gobernamentu baten azpian.

Orai artio gure ganik urrun zirenak hurbil ditezela beraz gure ganat! Konpreni dezatela oraiko legeak hobeago egin nahi dituztenak direla egiasko contserbaturrak

edo *churiak* eta ez lege hoienu destruizaileak. Eta aldiz tronpatuak direla diotenez (sic; diotenuk) oraino lehenagoko denborak itzuliko direla, erran nahi baita errege edo enperadore bat izanenu dugula.

Eta orai, akabatuko dugu, erraiten dugularik gure adichkideri: “Unionea, bai unionea eta bethi unionea!”. Horra *Réveil basque* jurnalaren phentsazeko manera, eta oraiko orenean errepublikano guziena zoinen obligazionea baita phentsamendu bat izaitea: “Frantziaren ona”.

Maitha dezagun Frantzia; zerbitza dezagun pasionerekin, ari gaiten lanian haren fortunaren eta handitasunaren fagoretan; yunta giten guziak banderaren inguruan, hirur koloretako bandera, eta oiuhu egin dezagun elgarrekin, adichkide maiteak:

Biba Frantzia! Biba Eskualdunak!

(Jurnal-egileak, “Gure irakurzaileri”, RB 1, 1886-XI-14, 1. or.. Ondoa frantsesezko bertsiua (“A nos lecteurs”).

* * *

Alderdi errepublikanoari ez zela hertsiki atxikiko adierazi zuen arren, Paueko prefeturaren kontrolpekoa edo bederen harekin lotura estua izanik, Estatuaren legeak eta kargudun nagusiak errespetarazi nahi zituen, eta halaber espreski –Gambettaren izena aipatuz– errepublikar alderdia garbitu eta batu. Horregatik salatzen zituen eta salatzeru deitzen, bereziki boz aitzinean, gorrien alde boza ematen ez zuten administrazioko funtzionario xumeak, enplegu edo negozio publikoren bat “Errepublikari esker” erdietsi zutenak. Horregatik ere, errepublikarren arteko batasuna problematikoa izan baitzen askotan, polemikan ari izan zen *Républicaine Bayonnais* kazeta errepublikar moderatuarekin (1890tik aitzina, artean radikala izan baitzen). *Réveilen* jokaera bera erakutsiko du haren ondoko *Eskual-Herriak*.

Beraz bere burua “egiazko errepublikano”tzat zuen kazetak maiz eta goraki aipatzen ditu Ferry, Gambetta, Floquet, Constans, azken hau Berdolyren laguna. Bethi Gobernamentuaren aldekoa izan zen, batzuetan moderatua eta beste batzuetan erradikala. “Errepublikaren bandera Euskal Herrian” bere buruari deitzen zionak kideko eta gogaide zituen Paueko *Indépendant* (haren inprentan jalgitzeaz gain, informazio iturri zuen, hango kazetalanak publikatuz) eta Baionako *Avenir* gorri-gorria.

Bozetan kazetaren hautagai zen Berdolyren diskurtsoak moderazioa azpimarratzen zuen. 1893koetan, bere burua eta pentsatzeko manera agertzean, dio: errepublikano fermua, zaharra dela (ez *ralliés* heldu berri horietariko) eta moderazioaren aldekoa; erlijioari buruzko lege guztien eta kontzientziako libertatearen aldekoa; lanaren libertate eta jabetza pribatuaren aldekoa eta sozialismo iraultzailearen kontrakoa; lurraren gaineko zergak kentzea galde

eginen duela, baita laborariari laguntzea eta haren gaineko kargak hobeki banatzea; eta, batez ere, hura, Berdoly, gobernamenduaren gizona dela; alferrekoa dela xuriei boza ematea, hots (Berdoly, “Mauleco arrondizamenduco Electur orori”, RB 37, 1893-VIII-13).

Réveil igande oroz jalgi izan zen 1894-XII-30ean behin-behineko etenaldia iragarri baina betiko itzali zen arte. Sortzean bezala bere ibilbidean kazetaren iraupen eta hedapena, bozetako garaitiari baino gehiago administrazioaren sustapenari zor dio. Urtean 6 sosen prezioan saltzen zen abonatuentzat. Hasieran, 1887ko urtarrilean, 600 harpidedunek hartzen bazuten, erran dugunez, abonatu ez ziren irakurleak bertzalde, 1891eko azaroan 1.000 aletik gora jalgitzen dituela eta Maule eta Baionako bi arrondizamenduetako herri guzietan sartua dela jakinarazten du (“Avis”, RB 1891-XI-8). *Eskualdunak* ez bide zuen irakurle askoz gehiago 1891ean, nahiz haren nagusia diputatua zen: 1300 irakurle, Lafitteren arabera (1971:26).

3. EUSKALDUNEN IRATZARRARAZLE ETA ARGITZAILE

Beraz prefeturako gain hartatik sortua zen *Réveil*, errepublikanoen Errepublikaren ideologia eta politika hedatzeko eta errepublikanoen hautagaiak sustatzeko. Izatez, bere nagusiaren, Berdolyren kazeta izan zen beti. Hierarkikoa sortzez, Frantziako nagusien eta Berdolyren irudi hierarkiko eta paternalista erakutsiko du funtzionario edo enplegu publikodun eta hautesle errepublikanoen alderako (halaber gero *Eskual-Herriak*). Hots, Gobernamendua da nagusia, nagusi ona (beraz hiritarrak haren mutil ona izan behar du). Halaber Berdoly: Gobernamenduaren gizona, Frantziako nagusiek onetsia, haien mutil ona, boteretsua, aberatsa, eskuzabala, jende xehea eta langilea –bereziki laboraria– ororen gainetik maite dituen, erlijioa errespetatzen duena, argitzailea, ongiegilea edo *faboreen* erdieslea, are euskalduna bere ohi-turetan, hots, Aita bat euskaldunentzat.

Diogunaren lekuko, hona *Réveilek* 1887an argitaratu “Dozena bat bertso berri alagrantziaz kantatzeko” hasten diren bertsoetako zenbait estrofa (RB 44, 1887-IX-4). Ortografia batuan ezarri dugu, testuan erdal grafiak erabiltzen baitira alde bat.

2. Sujeta nur eta zer den dut deklaratu
 Haren izena nulegi da ez aipaturik izateko
 Kartiel huntan gunüke jinkua erremestiateko
 Aita bat eman deikulakoz ororen argitzeko.

3. Aita hun haren izenaren hasten niz déklaratzen
Uharteko Jaürégian du jaun harek égoitza egiten
Hanitx penadun dizu harek etxen errezebitzen
Eta ororen konsolatzera duzu lehiatzen.
4. Musde Berdoly duzu jaun haren izena
Frantzia bazter batetik bestila duzu ezagutia
Haren poteria duzu parerik gabia
Eta borontatia aldiz, hori erran gabia.
5. Jaun haren kalitatiak pare gabiak dira
Nahiz eta dutien huntarzunak gaintika
Fabore galtazalia izan dadin aberats edo pobria
Bi besuak zabalik prest duzu ororen konsolatzera.

Bertso hauetan ageri diren hautesle eta hautetsien arteko harremanak (bozak faboreen truk) denbora haietako demokraziari buruzko ikuspegi bat erakusten du, egun ere munduko zenbait Estatutan diraukeena. Kazeta eta haren sortzailea argitzailetzat hartuak dira.

7. Uskal herrietan dikuzu jaun harek eman argia
Guri orori erakutsiz salbamentuko bidia
Bai eta ere érakutsiz maíta erazten Errepublika
Zoin beita esklabajetik gure ororen librazalia.
9. Gure felizitazioniak *Reveil Basque* kasetari
Eta partikularzki haren konposale orori
Harek érakusten deizu lehia handi batéki
Libertatia diela nahi beti guri etxeki.
10. Hartu dugu beraz Errepublikako bandera
Bai eta ere etxekiren duguno bizia
Uskaldunak iratzarri girela emanen dugu proba
Berriz jiten datekienian botzen emaiteko turra.

Izan ere, *Réveil* izenak 'irartzarte' eta 'iratzarrarazle' esan nahi du eta, hain zuzen, kazetak dio euskaldunen eta bereziki euskaldun laborarien iratzarrazle eta argitzaile izan nahi zuela; bestalde, errepublikanoek biziki maite zuten hitz hori kazeten izentzat ezartzea. Ezen, euskaldunak gibelatuago omen, beste toki askotako frantsesen eretzean. Euskaldunen aitzinamenduaren izenean mintzo zen *Réveil*, errepublikar diskurso mesianikoa erabiliz.

“Errepublika fincatua da azcarki eta oraino hobeki fincatua izanen da Escual herrian ignorantac egia yakitearekin *Réveil Basque* gasetaren medioz.”
 (“Jinkoa eskoletan”, RB 25, 1887-IV-24; 1. or.).

Euskaldunen iratzartzeaz mintzo delarik, erregetiar eta bonapartetar pentsamoldearen eragina haien baitan handia zela aitortzeaz gainera, *Réveilek* bertze gauza bat ere erran nahi du: euskaldunak gibelatuegi zeudela frantses-

tasunean edo frantses sentitzean eta batez ere frantses hizkuntzaren ezagutzan. Hortakotz 1893 hondarrean bozkarioz jakinarazten du Mauleko arrondizamenduko haurren eskoletan 1880tik 1893ra frantsesaren ezagutza zinez aitzinatu dela (“Le français au pays basque”, RB 3, 1893-XII-17). Ez da arranguratzen, noski, ea euskara galduz doan familian edo gizartean. Soldadogora joaterakoan euskaldun gazteak frantsesa jakinda joan zitezen nahi zuen *Réveilek*, eta, Ameriketara joatekotan, ez behintzat zerbitzu militarra egin gabe. Beraz frantses on izateko euskaldunek eskolan frantsesa ikasi behar zutela predikatzen zuen, eta hortakotz hurrek eskolara joan behar zutela (laborantza lanetan laguntzeko haur asko eskolara gutxitan joaten baitziren).

Ideologia aldetik *Réveil* euskararen kontrakoa ez baina frantsesaren eta euskaldunak frantsesestearen aldekoa baldin baten, zertako zen erdia edo parte handia euskaraz argitaratu? Duda gabe, Euskal Herriko laborari ia guziak, funtzionario xehe gehienak (guarda, bidegile, tabako saltzaile...) eta errienterrientsa ez gutxi (eta haiek ziren Errepublikaren lehen lerroko soldaduak kanpainetan), hautesle eta are “militante” errepublikano (eta kontserbadore) gehienak euskal hiztunak zirelako, eta asko, frantsesik ez zekitenak. Berdolyk ez zekien euskaraz baina euskara behar zuen; horretarako zeukan Candau. Berdoly Barkoxen zelarrik, herriko kontseilukoekin bildurik, ezin zuten elkar aditu, kontseilukoek ez baitzekiten frantsesik ezta Berdolyk euskararik (Irigoién 1888).

Bereziki euskara darabil *Réveilek* laborariei mintzatzeko, haiei Errepublika ezagutaraz eta maitarazteko, baita Frantzia, frantses hizkuntza, Frantziaren historia, armada, koloniak...eta Frantziako eta Frantziaren haur sentiarazteko. Xurien propagandak laborari munduan eragin handia zuela zioen (uzta txarrak, zergak...), ideien munduan ere bai, laborariak gibelatuago (eskola gutxi, frantses gutxi) eta sineskorrago zirela (beraz apezten eta xurien mendeanago). Bertzalde, kazetak erakutsi nahi ziren Errepublika azkar zela, etsaiek ez zutela Errepublika kordokaraziko.

Errepublikanoak (kontserbadoreak bezala) euskalduntasun sentimenduaz (eta ideologiaz ere: euskaldunek libro izan nahi dutela etab.) baliatzen ziren bozetan eta Berdolyri euskaldun itxura ematen saiatzen, orobat Floqueti (“Eskualdun eguiazco bat”, RB 25, 1892-V-15). Candauk Joanthori euskaraz erantzuten zion (RB 1887; 2, 1892-XII-11), erregetiarrak Aruen lur-sailak bazituen ere hura (Candau) euskaldunago zela erakutsi nahiz. Nolanahi ere, *Réveil basque* (1886) hasi zen euskara erabiltzen, ez *Eskualduna* (1887), nahiz gero xuriak euskarari toki nagusia eman, euskara erlijioaren babes eta hesitzat hartu eta erabiliz. *Réveilek*, ordea, gero eta euskara gutiago erabili zuen azken aldera, Errepublika inoiz baino indartsuago zelarrik.

4. GARAIKO GERTAERAK RÉVEILEN BEGIPEAN

Réveil Errepublikaren eta haren legeen defentsari, errepublikanoen alderdiari eta bereziki Berdolyren kanpainei lotua egon zen beti. Erregetiar, bonapartetiar eta boulangertiarrak zituen etsai eta bereziki L. Etxeberri eta *Eskualduna*. Kazeta alderdikaria baitzen, aldian aldiko gertaerak bere ikusmolde eta interesen arabera hautatzen eta kontatzen ditu. Hona beraz, urteka, gertaera eta mintzagai nagusietariko batzuk:

1888: herrietako kontseiluak hautatzeko kanpaina (gorriak nagusitu ziren, salbu Donibane Lohitzunen). Floquet eta haren ministerio erradikalaren alde eta Boulangerren kontra. Jakina denez, Floquet ministro nagusia, framazon buruzagia eta Eliza eta Estatuaren arteko bereizkudearen aldekoa, Donibane Garazin sortua zen eta ahaide hurbilak zituen Euskal Herrian; L. Etxeberri haren kusia zen. Floquetek Boulangerrekin izaniko duela kontatu zuen euskaraz *Réveilek* (RB 36, 1888-VII-22). 1888-1890 bitartean *Réveil* Boulangerren kontra ari izan bazen, zeharbidez, L. Etxeberriren kontra ere ari izan zen, buruzagi xuria Konstituzioa berriz aldatzearen eta presidentzialismoaren aldekoa baitzen eta parlamentarismoaren kontrakoa.

1889: soldadutza egin gabe erbesteratuentzako amnistiaz, 1889ko mendeurrena kari, artikulua saila argitaratu zuen, euskaldun anitz baitzen kanpoan egoera hartan. Artikulu ugari ere, Iraultzaren ospakizunak kari, Parisen ospatu Esposizioaz. Zenbait, soldadugoko lege berriaz, hiru urtetara murriztu zuena, apaiz eta apaizgaiak ere urte bateko soldadugoa egitera behartuz. Ongi etorri Jaufret Baionako apezpiku berriari, Presidenteak onetsiari, eta laudorio haren liberal izpirituari, Intxauspe bikario jeneralaren aginteari mugak ezarriko zizkiolakoan (RB 44, 1889-IX-22). Berdoly diputatugaiaren alde bermatu zen da kazeta, L. Etxeberriren kontra aurkezten baitzen Mauleko arrondizamenduan. Berdolyk galdu zuelarik (5891 boz vs 6906), eta halaber Morroxxo Harriagek Labat bonapartetiarraren aurka, “Eskual Herriaren ignorantzia handia” deitoratu zuen *Réveilek*. Eta apezek politikan esku hartu zutela-eta, herrietan salaketak egitera deitu.

Apez hantzez erran dute kontzientziako afera zela M. Etcheverryri boza ematea eta behar zela hautatu edo Yainkoa edo debrua. (...). Apezheri du bakharric zor M. Etcheverryc duen majoritatea, zeren horiec duten Eskual-herrian nausitazun bat handia. Boz ematea ez da libro izan, bakhotchac nahi duen bezala.(...) (“Mauleko bozkatzearen haustea, RB 11, 1890-II-2)

Ondorioz Diputatuen Ganbarak bozak hautsi eta Etxeberri inbalidatu zueneko kontuak eta hizka-mizkak agertu ziren kazetan, bai eta boz egunetako eta ondoko kalapitak: Etxeberri eta Mettas suprefetaren arteko afera,

bozkatzetan Urepeleko errientak izaniko jokabideaz; Agorrearen afera, luzaz iraun zuena (1889-1892) eta Euskal Herriko 20 apaizen leku-aldatze bortxazkoa, horien artean Diharasarriena.

1890: berriz ere Etxeberriren garaitia irentsi behar izan zuen *Réveilek* (RB 15, 1890-III-2). Diputatuen Ganbaran Etxeberriren hitzaldiari Thévenet eta Fallièresek emaniko erantzuna. Lavigérie kardinal baionesaren harrera Itsas Armadari Algerren (RB 1, 1890-XI-23); kardinalaren letra (RB 3, 1890-XII-7). Nola, hura bezala, Errepublikari jartzeaz mintzo zen Annecyko apezpikua (RB 5, 1890-XII-21).

1891: zenatur bozetan Haulonen alde errepublikanoek eginiko lana, kontseiluetan senatari izendatzaileak hauta eta Pauera igorritz. Diharasarri eta Pujol aferan monseinoaren ponpak gogotik maiseatu zituen *Réveilek*. Presidenteak Paue eta Baionara eginiko bidaia eta hari makila eskaintzea, L. Etxeberriren jokabidea gaitzetsiz –joan ez zelako–, eta, azkenik, Frantzia eta Errusiaren arteko akordioa izan ziren urteko beste solasgai nagusiak.

1892: Eliza katolikoak eta apezkek, Lavigerieren eredura, Errepublika onetsi beharraz. Herrietako kontseiluko bozak (Kontseilu jeneralekoetan gorriak nagusitu; herriko kontseiluetakoetan, xuriak).

1893: Panamako auziaz artikulu ugari. Diputatu bozetan berriz Berdoly Etxeberriren kontra eta, oraingoan bai, *Réveilek* Berdolyren garaitia ospatu zuen (6670 boz vs 6062), baita Morroxxko Harriagerena Diharasarri apez erregetiarrari nagusiturik Baiona II boz-eskualdean (5351 vs 3779). Hiru diputatuak gorriak jalgirik, “Eskual Herria atzarri da” kantatu zuen Otxaldek *Réveil*-en.

1894: Carnoten hiltzea, anarkisten kontrako legeak eta Dreyfusen auziaren hastera, gorri eta xurien artean polarizazio handiagoa sortaraziko zuena.

Réveil itzaliz geroztik, 1898an berriz jalgi zen diputatu Berdoly. Urte horretan *Eskual-Herria* sortu zen, Lewy d’Abartiaguek zuzendua. Waldeck-Rousseuren eta Combesen gobernu erradikalaren denboran haien alde eta Mélinen joerakoen aurka agertuko zen kazeta hori, hots, Euskal Herriko diputatu errepublikano moderatuen aurka (Légrand, Morroxxko Harriage, Pradet-Ballade, azken hau Mauleko arrondizamenduan jalgia Berdolyren ondoko), haiek gaitzetsiz eta etengabe kritikatu, gero eta erradikalago eta antiklerikalago. Orduko Berdoly senadore izendatua izan zen (1900) eta fraide-serorak irakaskuntzatik kanporatzearen alde eman zuen beti boza (Hiriart-Urruti 1971:141-146).

5. EUSKARAZKO ARTIKULUAK ETA BERRIAK

Beti frantsesezko artikuluak euskarazkoak baino gehiago izan ziren eta sail garrantzitsuetan kokatuak: Nouvelles Politiques, Bulletin Politique, Nouvelles Militaires, Bulletin Financier, Révue Hebdomadaire, Le Département, Le Pays Basque. Beraz Diputatuen Ganbarako eztabaidak eta Kontseilu Jeneraleko arazoak eta erabakiak irakur daitezke, *Eskualdunan* ez bezala. Bereziki Le Pays Basque sailak herrietako berri ugari biltzen ditu, batez ere Mauleko arrondizamenduko hirietakoak: hor ageri dira herrietako gertaera orotarikoak, errepublikanoen bilkura, sozietate eta hilberriak, baita tobera, kabalkada, maskarada, pastoral eta euskal besten berriak, Ameriketara joandakoenak eta azken urteetan are hegoaldekoak.

Iritzi artikuluak ere, euskaraz anitz agertarazi zituen arren, gehiago frantsesez. Gehienak, sinatu gabe edo ezizenez (X, XY, Z, H...). Candeauek bereak sinatzen zituen, bereziki polemikazkoak edo espreski laido egitekoak; *Eskualdunak*, ordea, ez zuen arduradunaren izenik ezartzen eta hori egozten zion beti Candauk. Jean Tommeryk, erredakziokoak, politikaz idazten zuen. Noizbehinka Long-Savigny eta J. Elie Pécaut doktorearen artikuluak publikatzen zituen kazetak: lehena *Aveniren* idazle nagusia zen 1890-VIItik aitzina; Eli-Pécaut framazonak, *Aveniren* ez ezik, *Eskual-Herria* eta *Frontière du Sud-Ouesten* idazten zuen. Gutxiagotan beste batzuenak (Emmanuel Arène, Louis Braud). Frantses politikarien artikuluak ere argitaratu zituen *Réveilek*: Jules Simon, J. Ferry, L. Barthou, Poincaré, Constans, Develle etab.

Olerkiak ugari eta istorio laburrak ere franko publikatu zituen frantsesez, gehienak egilearen izena gordez; errepublikano joerakoak, noski (J.B. Larrieu, E. de B. etab.). Bearnesez ere poesia bat, saritua, A. Peyré-rena (“Concou Navarrot”, RB 48, 1887-X-2). Prosazkoen artean, Crac delako kolaboratzailearen istorio edo nobela labur euskal girokoak dira ugarietak, *nouvelle basque* deitzen baitzituen; egilea Sauveur Harruguet uxer garaztarra bide zen, framazon aipatua (1871-1952).

Euskarazko kazetalarik hiru mota nagusitan multzokatuko ditugu: iritzi artikuluak, berriak eta jostagarriak. Iritzi artikuluen artean badira polemika, atxikimendu, propaganda eta irakaspenekoak. Polemika artikuluetan eskolarena da arlo nagusietarik bat. 1887an artikulua sail bat agertarazi zuen xuri-akusazioen kontra (Errepublika erlijioari jazartzen ari zaiola eta errienterrientsek ez dutela katiximarik ez otoitzik irakasten, ez Jainkoaren izenik eskolan aipatzen). Kazetak ihardesten die Jainkoa bai aipatzen dela eta errien-

ten eginbidea ez dela katixima irakastea, morala irakastea baizik². Polemika artikuluko Ferry eta Bert-en eskola legeen (1880-1886) testuinguruan kokatzen dira. Azkenak (1886), Estatuaren eskoletan apaiz-fraide-seroren ordezkariak ezartzen zituen irakasle, eta katixima eskolatik kentzen.

Errient-errientsei eta apaiz-apezpikuei buruzko artikulukoak ugari dira. Horietako batzuk, bozkatzetan batzuen eta besteen eginbidea zein den ohar-tarazteko: haiena, gorrien alde boza emanaraztea, eta, apaizena, politikan ez sartzea. Frantziako apezpiku zenbaiten gutun eta aipuak maiz ageri dira, Errepublikak haiekin dituen harreman onak erakutsi nahiz euskal apaizei. Euskal Herria katolikoa izanik, erlijioa zatekeen kazeta gorriaren “puntu ahulena”. *Eskualdunak Réveileko* artikuluen egileak juduak edo protestantak edo giristino arnegatu zenbait direla egotzirik, hark erantzuten du:

“Ez gare yudu, ez protestant. (...) Giristino katoliko on gare, gure ustez; (...) familiako membro guziac ibiltzen gare elizan.” (“Nor gare edo zer gare”, RB 7, 1890-I-5).

Hastapenetan, bozen karietara, elkarrizketa eta istorio formako politika idazkiak ere argitaratu zituen *Réveilek*, etsaien kontrako alusioz beteak, frantsesez eta euskaraz (itzulpenak, hauek). *Réveil* eta *Eskualdunaren* arteko polemikaren tonua zinez bortitza eta zakarra izan zen (halakoa bide zen beste tokietan ere): piko eta laido, ironia, burla eta sarkasmo, kitzikatzeko, salatzekeo dei...

Polemika eta Errepublikaren politikaren propaganda nahasten dira izenburu generikoa duten beste artikuluko askotan: “Errepublikak bakea nahi du” “Errepublika eta laborariak”, “Errepublika eta zergak”, “Errepublikaren ongi eginak”, etab. Frantziako politikakoak ugariak dira, bai barne- eta kanpo-politikakoak (armada eta soldadugoaz, Tonkin eta Dahomeyko kolonizazioaz); nazioarteko gaietakoak ere ez guti, ez eta Frantziako ekonomiakoak eskas (Frantziaren zorra, buxeta edo diru-kontua, errenta, merkataritza etab.), edo gizarte eta ekonomia arazoei buruzkoak (laborantza eta azienda hazkuntzaren krisia, emigrazioa, soldadogoa). Adibidez, emigrazioaz, bereziki Ameriketako euskaldunen berri eta gutunak, badira hamabost bat, frantsesez baino askoz gutiago, eta hiru bertso-sail, Hiribarrenen *Eskaldunac*-etic (1853) bilduak. Badira ere Gobernamentuko eta Elizako agintari nagusien iritziko artikulukoak, hitzaldiak edo gutunak, adibidez Ferryren, Errepublikako Presidentearen, Rouvier nahiz Mauleko suprefetaren, Lavigerieren eta Langres-eko apezpikuarenak. Badira irakurleentzako aholku (“abis”) eta oharrak ere. Propaganda

² Eskolan haurrei morala irakatsi beharraz, Ferryk manatu bezala: “Aita eta amen argitzekeo. Moralaren erakustea eskoletan edo ongiaren egitea eta gaizkitik urruntzea” (RB 33/35, 1887-VI-19; VII-3).

hutsekoak dira boz egunetako hautagai errepublikanoen deiak haien pentsatzeko manera agertuz eta boz galdez, boz ondoan eskerrak emanez, edo boze-maleei aholkuak, edo etsaien kontrakoak.

Irakaspeneko artikuluetan toki berezia merezi dute laborantzazkoek eta Frantziako historiazkoek. Laborantzazkoak (ogi hazi, ongarri, arno, arbola landatze, kabaleen eritasun kontuez etab.), euskaraz eta frantsesez argitaratu zituen *Réveilek* Laborarier (1891-1894), Agriculture, Chronique Agricole eta Chronique Forestière sailetan (azken bietan euskaraz ere noizean behin). Esan behar da III. Errepublikak laborariak aitzinarazteko eta argitzeko liburuak eta kazetak argitaratu zituela eta irakasleak izendatu departamenduetan hitzaldiak emateko. Artikuluon edukia liburu horietatik eta laborantza irakasleen hitzaldietatik bildua dateke. Beste mota bateko artikulua ere badira, hots, politika eta propagandakoak, eta franko: laborariak Errepublikan hobeki bizi direla errege eta enperadoreekin baino adierazteko, edo haiek salbatu izan dutela Errepublika behin baino gehiagotan. Mota bateko eta besteko artikulugileen artean aipagarri da Piarres sinatzen duena.

Frantziako historia kontatzen duten artikulua ere maiz haren (ez)izenpean argitaratuak dira, hiruzpalau aldikadatan, arruntki bozak aitzinean edo ondoan. Errepublikaren ongi eginak eta erregeen eta Napoleondarren gaizki eginak kontatzen dituzte, aldiari aldiko etsaien kontra jotzeko asmoz: lehen artikulua saila, Joantho erregetiarraren kontrako kanpainarekin abiatzen da, 1887-II-27ko bozen aitzin eta ondotik, gutxienez dozena bat artikulurekin. 1888an beste bi artikulua sail agertzen dira: ekain-uztail-abuztu aldean Frantziako iraultza handiko gertakariez; eta azaro-abenduan beste bat, Boulanger-en mugimenduaren kariatara eta *Eskualdunarekin* polemikan, kazeta xuriak begi onez ikusten baitzuen Boulanger, aitzinagoko bi Bonapartee bezala Errepublika erroz gora aurdikitzen ziholakoan. Adib. “Errege tzarrac eta Erreboluzioneac Frantzian” (RB 51, 1888-XI-4) edo 1870ko gerlaz, Napoleon I.aren estatu-kolpeaz eta 1848ko iraultzaz ari direnak. Eta berriz 1889an, maiatz-ekainean, uztaileko bozak aitzinean. Historiari buruzko artikulua *Eskual-Herrian* segida izanen dute, Frantziaren historia osoa laburturik, eta eskola gutxikoentzat bulgarizazio maila apalean emanez.

Piarresen kontatzen duen bezala, eskolan haurrei Frantziako Historia irakasten zitzaizkien, asmo jakinez,

(xuriek) badakite guc escolan ikhasiko dugula haurrei Frantziako istorioa, erregek eta enperadorek egin tuzten gaizkiak yende chehiari (...)
(Piarres, “Yinkoa eskoletan”, RB 48, 1887-X-2).

Hori bera egin nahiko zuen *Réveilek* eskolatik kanpo. Laborariei eta irakurleei irakasteko, idazlea mintzaldi edo solas tonuaz baliatzen da; egitura aldetik ere, batzuetan galdera eta erantzunez, katiximan bezala (historiaren

irakaspena katixima politikoa baita), edo, alegietan bezala bukaeran irakas-kizuna azalduz (hots, “lehen eta orai” nor ari den eta zertako laborariaren eta jende xehearen alde eta kontra).

Irakurzaile maitia, orai ikusten duzu zerentzat aphezak eta nobleac atchikiak diren erregeri, agian lehenagoko denborac ethorriko direla horientzat: Karguac, fagoreac, ohoreac eta nausitasun osoa; populu chehiarentzat aldiz, dretcho pagatze, lanac eta esklabotasuna. (“Lehenbiziko errepublikaren proklamatzeari buruilaran 21 ian 1792 an”, RB 39, 1887-VII-31; 1. or., 1. zer.).

Historiako gertaeretatik eguneko politika arazoetara jauzi egitean, Frantziako historia horren funtzioa ageri da: bozemaile laborariak “argitu” boza errepublikanoen alde eman dezaten, Errepublikaren ongiak edo abantailak ezagut ditzaten. Hain zuzen, errepublikar historia ofizialaren arartekoz –Iraultza Handia hartzen duena erreferentzia puntu nagusi–, Frantzia aberriaren eta Errepublikaren alderako atxikimenduak elkartzen ditu errepublikanoak eta hori da *Réveilek* egin nahi duena Euskal Herrian eta euskaraz.

Berriei dagokienez, bi motatakoak dira. Bata euskal herrietakoek, politikarekin zerikusia dutenek osatzen dute; horietan berriak iritziekin batera emanak dira, berezi gabe. Berri horietako batzuk Le Pays Basque sailean agertu ziren, beste batzuk gutun formaz, herrietako berriketariak edo herritar errepublikano batzuek idatziak eta ezizenez sinatuak. Gutunetariko batzuk herritarrei zuzenduak dira (“Ene herritar maitiak” hasiak), gehienak kazeta-egileari (“Jaun kazeta-egileari” hasiak). Herri-kronika bereziak dira, alderdikariak, gehienetan gai eta okasio jakinen ingurukoan (uztailaren 14ko besta, herriko bestak, herriko eztabaidak bozak aitzinean); ohointza, istripu eta holako gertaerei buruzkoak ere badira, gero eta gehiago azken aldera, iritzi artikulua gutxitu ahala. Bertsoak ere ez dira eskas, lerroaldeetan barrena, tartekaturik. Orotara, berri eta gutun, 70tik goiti. Hortaz *Réveilek* irakurle euskaldunen parte hartzea bultzatu zuen, euskarazko gutunen bidez. Elkarrekin komunikatzeko bide bat eskaintzen zien kazetak, boz giroak lagundurik; berriemate batzuek elkarren ezagunak dirudite. Bide hori bera erabili zuten beste kazeta batzuek ere (*La Frontière du Sud-Ouestek*, adib. 1907an). *Réveilen* garaietan, euskal herrietako berriak frantsesez emateko ohitura handiagoa zegoen; *Eskualduna* ere 1891 arte ez zen ohartu Euskal Herriko berriak euskaraz ematearen garrantziaz (Hiriart-Urruti 2004:367-369).

Beste mota, Nouvelles Politiques-en ereduko Berri Zombait saileko berri laburrek osatzen dute, komentarioak erantsita: hasieran berri larriak nazioartekoak eta Frantziakoak; gero Euskal Herrikoak ere, orotarikoak, istripu eta bitxikeriak barne, bai eta ekonomiakoak edo Ameriketakoak. Hori da euskarazko sailik finkoena (1888-1894) eta berrien nahiz kazetari idazkeraren alde-tik (ortografia modernoa, besteak beste) baliotsuenetarikoa.

6. BERTSO, ISTORIO ETA IRRI SOLASAK

Kazetalan jostagarrien artean badira, alde batetik, kantuak eta bertsoak, eta, bestetik, *feuilleton* gisa agertarazi kontakizunak nahiz istorio eta gertaera labur bitxiak edo ateraldi irriarriak.

Kantu eta bertso franko argitara zituen *Réveilek* (40 inguru). Horien artean batzuk kantu zahar edo tradiziozkoak; beste batzuk Etxahun, B. Mardo, Elizanburu, Zaldubi eta Larralde medikuaren kantu ospetsuak. J. D. J. Salaberriren liburutik hartuak dira anitz (Salaberri 1870). Badira politikakoak (dozena bat), bai eta zuhurtzia umorez erakusten dutenak ere (“Bi adinen arteko gizona eta bere bi emaztegiak”, egile izengabearenak, RB 28, 1887-V-15).

Politika bertsoen artean batzuk lehenago argitaratuak ziren: 1887-II-27ko bozen ondotik berrargitaratu zen Elizanbururen “Lehen eta orai” (RB 25, 1887-IV-24), egilea bizi zelarrik beraz (1879an Donostiako lehen euskal festetan saritua izan ondoan *Euskal-Erriari* argitaratua 1885ean). Haren paretsuko “Biba Errepublika!” behin eta berriz argitara zuen *Réveilek* (RB 19, 1887-III-13, 1891-V-24; geroztik Urkizuk 1991:I, 31-56, huts franko dituen beste iturri batetik). Indar handikoa da eta, ustez, J.D.J. Salaberrirena.

Berdolyren alde eta Etxeberriren kontrako bertso berri mordoxka argitara zuen kazetak, hauteskundearen kariatara, edo ondotik garaitia ospatuz; beste batzuk, *Réveilen* alde eta *Eskualdunaren* kontra. Etxeberriren 1889ko garaiak dozena erdi bat bertso berri sortarazi bazituen Berdoly eta *Réveilen* kontra, beste hainbat Berdolyren 1893ko garaiak, horien artean bi Otxalderenak. Kazetetan etsaiaren kontra bertsoak argitaratzeak indar eta oihartzun handia izan behar zuen eta, zernahi gisaz, aldi hartako politikaren bizitasun eta polarizazioaren lekuko dira. Bertso horietako batzuetan egile izenik ez da ageri; beste batzuetan, izen edo deitura edo patronimiko bat. Beraz ezezagunak dira guretzat, Otxalderen kasuan izan ezik, baina bertsolari haiek bazuten elkarren berri: “Biba Etcheverry! Kuku Berdoly!” bertsoak, Pette Mauleren kantoreari erantzuteko atera dituela dio haien sinatzaile Juhane Atharratzek eta hala da. Hain zuzen, Pette Mauleren kantore hori, aire berarekin, 1893an berriz argitara zuen *Réveilek*: “Biba Berdoly! Kuku Etcheverry!” (RB 40, 1893-IX-3). Gero, *Eskual-Herriak Réveilen* bide bertsutik jarraitu zuen, bereziki bertsolari eta neurtzilarri gorrien kantuak agertaraziz.

J. B. Elizanbururen *Piarres Adame* nobela argitara zuen *Réveilek*, zatika edo epeka (RB 34, 1887-VI-26–1888-III-18); azken urte honetan *Réveil* jalgitzen zen inprimategi beretik atera zen liburu gisa lehen aldiz (Paue: Garet, 1888, ik. Vinson 1891 Addit. et corr. 653-10°; lehenago, Donibane Lohitzuneko *La Nivellen* argitaratua izan zen: F. B. Larzabal 1983:329).

Legenda zenbait ere argitara zituen hastapenetan (1887): batzuk, Cerquandek bildu ipuinetarik (1884-1885), iturria aipatu gabe. Badira istorio “egiazkoak”, “alegiatzkoak”, bitxiak eta beste (“Eskualdun buhameac Pauen 1805ean”, 1892).

Gertaera bitxiak eta ateraldiak ugariak dira; maiz frantses kazetetarik hartuak, bardin frantsesezkoekin nahaste, aldizkatuz. Sailen izenak gehienak frantsesezkoak dira: *Faits Divers* (1887), *Drolekeria* (1888-1890; *Drolieries*, 1890), *Mots pour Rire* (1888; hortik datorke “irri solasak”, euskarazko azpi-generoa, geroago *Eskualdunan* ere agertuko dena), *Menus Propos* (1892-1893), *Variétés* (1893, 1894).

7. EUSKARA ETA EUSKAL IDAZLEAK

Réveilek hiru euskalkiak erabiltzea erabaki zuen: zuberera, nafarrera eta lapurtera, aldizkatuz (“*Avis*”, RB 3, 1886-XI-28). Izatez, zuberera eta baxenabarrera dira usuenak. Bestelako erabakirik ez du espreski adierazten, baina, hasieran ortografian anarkia badago ere, geroago nolabaiteko batasuna nabari da, ortografia nahikoa modernoa erabiliz: *-k-*, *-c-* (-k 1894an), *y-*, *tz*, *tx* (*ts*-ren ordez). Salbuespena Candau da, beti frantses ortografiaz idazten baitu.

Candauk frantsesez ez ezik euskaraz ere idazten zuen, bere izenez sinatuta edo laburduraz (C): irakurleei informazioa edo oharrak (1. or.), etsai kazetari erantzunak, agian iritzi artikulua nagusi batzuk lehen orrialdean, eta Zuberoako berriak noizean behin. Frantses joskera eta hitzak ugari zerabiltzan. Ez zuen euskaraz idazteko ezein idatzizko eredurik. Haren euskara gaiztoaz trufatzen zen *Eskualduna*, erran dugunez.

Baina ezin halakorik egotzi beste batzuei, adibidez Piarres sinatzaileari. *Réveileko* kolaboratzaile nagusietarik zatekeen, euskaraz eta frantsesez. Laborantza, politika eta gizarte gaiak eta Frantziako historia dira haren arlo nagusiak. Ongi azaltzen daki, pedagogikoa da; laborariari zuzentzen zaio, hizketa-estiloa erabiliz, irakatsi nahi baitio. Zuzen idazten du haste-hastetik (nahiz nor-nork-nori adizkien ordez nor-nork motakoak darabiltzan), euskara duinean. Ortografia aski modernoa darabil; joskera eta hiztegian ezagun da eredu idatziak hein bat ezagutzen zituela. Garaziko euskaren kutsua du. Zernahi gaiez idazten du, hiztegi eta mintzaira funtzionalean. Hura da euskal idazleetan aipagarriena.

Guillen sinatzen duenak gizarte-gaiez, laborantzaz eta ekonomiaz idazten du, azalpen teknikoak emanez. Haren drolekeriak eta gertaera bitxiak ere atsegingarriak dira eta grazia du kontatzerakoan. Ortografia zaharra darabil eta

nahasia, baina funtzionala da haren hizkera ere. Ordea, Yoanes delakoaren euskara ez da hain landua. Noizbehinkako berri igortzaileen artean aipa daiteke ere J. P. Goitino, *Kaliforniako Eskual-Herriaren* idazle nagusia, bizpahiru artikulua eta Etxeberriren kontrako “Barea eta karakoila” bertsoak igorri baitzituen (RB 1893-XII-3; RB 36, 1894-VIII-5). *Réveilek* Goitinoaren kazetako artikulua eta berri mordoxka argitaratu zituen, batez ere 1893-1894an.

Beraz Candeau bazter utzita, idazleak nor ziren ez dakigu zuzen, ez baitute gehienetan sinatzen, 1889 arte izan ezik, eta izen arruntez gainera, ikusi dugunez. Idazleon nortasunari buruzko aipamenik ere ez da ageri kazetan. Militante eta propagandista politikoak ziren, euskaldunak eta euskara erabiltzen zutenak. Haiek izan bide ziren *Eskual-Herriakoen* aitzindari, agian idazle berak, lehenago *Réveilen* trebatuak; oro har doi bat hobeki idatziko baitute *Eskual-Herriakoen*.

Ondorio batzuk

Réveil Basque, Euskal Herriko errepublikanoen kazeta, eskuragarri behar genuke interneten, ikerketak nahiz kontsultak egin ahal izateko. Euskal Herriko irakaskuntza edo kultura erakundeak horretaz arranguratu eta lan hori bere gain hartu behar lukete, III. Errepublika garaiko gure historia, hizkuntza eta literatura ezagutzeko tresna baliotsua baita. Hartara, Euskal Herriko gorrien eta xurien berri jakin eta, borrokaldiko berotasuna hoztu ondoan, aldi iragana eta egungoa ere hobeki ezagut ditzakegu.

Euskara aldetik *Eskualdunakoa* aipamen handikoa bada ere, hark baino lehenago argitara zituen *Réveilek* laborantzako artikulua, Frantziako historiakoak, politikako bertso berriak. Bertzalde, berri larriak, bereziki politika mundukoak, laburki ematean euskal kazetaritzaren historian lehena izan daiteke. Horrek guztiak erakusten baitu euskal idazle edo kazetari gorriak edo errepublikanoak ere izan ditugula.

Artikulan esandako gauza batzuen erakusgarri, Otxalderen bertso batzuk berrargitaratzen ditugu: “Zuela 100 urthe–Biba Errepublika!”. *Réveilen* agertu ziren lehen aldiz, Berdolyren 1893ko kanpaina garaian, abuztuaren 6ko agerraldian; bozak abuztuaren 20an ziren. Harrezkero ez bide ditu inork inon jaso. Otxaldek 80 urte zituela ondu zituen bertso horiek, errepublikanoekin engaiatua zela erakusten dutenak, nahiz ez zuen uste irabaziko zutela; bestenaz, jakina da 40 urte lehenago L. Napoleon III.aren laudoriozko bertsoengarik saritua izan zela (“Biba Luis Napoleon!”, Urruña, 1852). 1893ko garaitiaren ondoan Otxaldek beste batzuk atera zituen *Réveilen*, “Euskal Herria atzari da” izenburupean, F. B. Larzabalek berrargitaratuak (RB 40, 1893-IX-3); Larzabal 1983:336-337).

Errepublikaren aldeko propaganda bertsoak dira hemen berrargitaratzen ditugunak eta errepublikanoen ideiak erakusten dituzte (lege berria vs zaharra), baita Otxalde guarda ondoak Frantziako historia ezagutzen zuela eta agian *Réveileko* historia artikulua ere.

Hamabi bertso dira, lau puntukoak eta 15 silabakoak (8+7); aireari egokিতuta kantatzekoak, ez letzari. J. B. Elizanbururen “Lehen eta orai” bertsoen oihartzuna entzun daiteke, bietan ageri baita ideia nagusi bera: Iraultzak ekarritako aldakuntza (lehen esklabo, orain jende), laborariaren estatuari aplikaturik:

Hogoi mendez bedere hola munduan / Gizona gizonaren esklabo zuan!”
(J. B. Elizanburu, “Lehen eta orai, 5. estr.)

Errepublika jin aitzinean huna zer zen munduan, / Gizona gizonarentzat
esklabe baitzen orduan, (Otxalde, 2. estr.).

Jakina denez, Otxalde (1814–1897) eliz ofiziorik gabe ehortzi zuten, Oxobik dienez (1950:11). Hona beraz Haritschelhar jaun estimatuari nire oparia eta Otxalderi nire meza.

* * *

ZUELA 100 URTHE –BIBA ERREPUBLIKA!

Belzunce ahairian

Errepublikak egin lan hunez orai nahi naiz mintzatu
Gure abraso eroriak, nula zituen alchatu;
Orduko legue berriak eskuetan baititugu,
Hersatuki conplitzera, entseatu behar dugu.

Errepublika jin aitzinean huna zer zen munduan,
Gizona gizonarentzat esklabe baitzen orduan;
Autor batzuek hartu zuten gauza hau beren buruan,
Ikhusirik laboraria, zela azken estatuan.

III. Gure aitasoak, hal'ikustia, etzena phen'egingarri (1);
Izerditan (2) trenpaturic bertzen hazten ziren ari;
Beren neken (3) saririkan, ezin galda nehoi,
Lege berriac baitzituen, beren herunkan (4) ezari.

Orduan, deskansatu zen, gaicho laboraria:
Ez baitzakien oraino, zer zen ogi xuria;
Gogotik laudatu zuen: Biba, lege berria!
Orai bederen izanen diuc, errecoltaren erdia!

Orai duela ehun urthe, yarri zen Errepublika.

Gueroztik hemen dabila, guri hurbil itzulika;
Estimatu behar dugu haren azken bisita:
Oro anaia ezari gaitu: hau dugu lege pollita.

Harec eman abisu hunac behar ditugu hon etsi;
Oro aditu onduan eta, ez burutikan utzi.
Gauza horren (5) ahaztia, ez othe laitek (6) gaizki:
Ungi egiten duenari, eskerrac bihurt azkarki!

VII Gobernuac igorridu galde hon bat egun hotan:
Deputatu bat eskas duela (7), Pariseko Gamberetan,
Hortakotz gerthatzen dela, langile beharretan,
Badugunez hango gisaric, (8) Eskual herri hotan.

Entzun dudan bezain laster, ezpainez egin (9) dut irri (10),
Bainan eztut orai artio hori salhatu nehorri:
Deputatu churidenik eztute hartu nahi
Gorriak (11) baizik ez hartzekotz, gan bedi Murde Berdoly!

Etsamina egin dezagun, oroc ichil-ichila.
Ez gira ibili (12) behar falta eztenaren bilha.
Yaun hori gauza guzietan espirituz da abila.
Nausiac maithatuco du, bere gostuko muthila.

Gobernuac zuretako, badauca amodio,
Zu behar zira han sarthu, horidela medio;
Sehi huna (13) nahi dute, izanik ere kario:
Muthil tcharrac nehorentzat, deusik ezdu balio!

Murde Berdoli barkha zadazut hartu dudan ausartzia;
Sartzen ezbazira ere har zazu pazientzia;
Gobernuaz ez baitzira oraino ahantzia,
Kampotic ere izanen duzu, galdatzen duzun grazia.

Zaharrari (14) gogua huntzen bersu emaiten hasita;
Aiten phenez orhoitu eta, bihotza hasten yauzica
Bainan ezpaitut probetchuric dolore hortan sar eta
Guzien dako barber (15) izan da: Biba Errepublika!!

Jn.-Bte OXALDE. Poète basque âgé de 80 ans.

(RB 36, 1893-VIII-6, 2. or.).³

³ Réveileko testuak dio: (1) egingari. (2) Izerdutan. (3) naken. (4) sic. (5) horen. (6) sic. (7) duela. (puntu). (8) gisaric. (puntu). (9) egui. (10) iri. (11) Goriak. (12) ibila. (13) hune. (14) Zaharari. (15) basber.

BIBLIOGRAFIA

- BILBAO, J. 1977. *Eusko Bibliographia*. T. VII.
- DÍAZ NOCI, J. 1994. *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza.
- Eskualduna* (1887-1903).
- HIRIART-URRUTI, Jean. 1971. *J. Hiriart-Urruty. Mintzaira, Aurpegia: Gizon!. Arantzazu-Oinati: Jakin. P. Lafitteren hitzaurrearekin.*
- 2004. *J. Hiriart-Urruti. Ni kazeta-egilea naiz*. Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa. Bilbao.
- IRIGOIEN. 1888. Irigoienek L. Etxeberriri gutuna, Altzürükü, 1888-VI-7. Eskuizkribua (L. Etxeberriren gutunak. E. Goihenetxeren artxiboa).
- LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona, Aintzina.
- 1971. “Aintzin-solasa”, in *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!. Oñati: Jakin.*
- LARZABAL, F.B. 1983. “J.B. Elissamburu eta Oxalde, bi “gorri””, in *Piarres Lafitte-ri Omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, Iker-2. 323-338.
- ONAINDIA, S. 1974. *Euskal Literatura*, t. III. Etor.
- OXOBI (J. Moulier). 1950. *Oxalde (1814-1897)*. Eskualzaleen Biltzarra.
- (*Le*) *Pays Basque-Eskual-Herria* (1898-1909).
- (*Le*) *Réveil Basque* (1886-1894).
- SALABERRI, J.D.J. *Chants populaires du Pays Basque, paroles et musique originales, recueillis et publiés avec traduction française par J.D.J. Sallaberry (de Mauléon)*. Baiona: Lamaignère Alarg.-Hordago, 1879.
- URKIZU, Patri. 1991. *Bertsolaritzaren historia. Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*. I. Anonimoak. Etor.
- 2000. “S XIX”, in *Historia de la literatura vasca*. Madrid, UNED.
- VILLASANTE, Fr. L. 1979. *Historia de la Literatura Vasca*. Editorial Aranzazu. 2. edizioa.
- VINSON, Julien. 1891. *Bibliographie de la langue basque*. I. Paris. —1970. Oosterhout, Pays-Bas: Anthropological Publications. (aipamenetan beti 1970ko edizioko zenbakia ezarri dugu, ez orrialdea). Additions et Corrections. Citations et Références.

RÉVEIL BASQUE ASTEKARI ERREPUBLIKANO ELEBIDUNA (1886-1894)

(Le) Vrai Basque. Organe des intérêts conservateurs et religieux du Pays Basque. 1885 bukaera inguruan edo 1886 hasieran–1886). Donibane Lohizunen jalgiarazia.

Laburdurak

E: *Eskualduna* (1887-1944).

RB: *(Le) Réveil basque* (1886-1887).

HIRIA ETA NORTASUN ALDAKETAK EUSKAL ELEBERRIAN

Ur APALATEGI

Idazle orok zilegitasun literarioa bilatzen du, unibertsaltasuna du jomuga. Eta zilegitasun literarioa eta unibertsaltasuna, biak batera, hiriak baino ez diezaizkioke eskaini, hiria baita unibertsalaren fabrika. Zehatzago izateko, hiriburu literarioak, Pascale Casanovak *La République mondiale des lettres* saiakeran emandako definizioaren haritik : hiriburu literarioa banku zentral sinbolikoa da, kreditu literarioa kontzentratzen den gunea, kanon literarioa egiten eta desegiten dutenen kokagunea. Aipatu liburua atal bateko epigrafe batean Rodolphe Töpffler XIX. mendeko autore suitzarrak laburbiltzen duenez :

behar-beharrezkoa da gizon horrentzat [idazlearentzat], fama lortuko badu, bere dohai merkea hiriburura eramatea, bertako [...] adituen aurrean erakustea, adituen lana ordaintzea, eta orduan bai, probintzietan erreparorik gabe eta lipar batean onartzeko moduko ospea fabrikatuko zaio. (Casanova, 1999 : 179).

Literatur sistema handienetako idazle hasi berrien kezka hiriburu literario nazionala konkistatzea izan ohi da. Oroit bedi Rastignac gaztearen aldarri famatua : « A nous deux, Paris ! ». Eta gainera, konkista hori zenbait kasutan –Parisenean, Bartzelonarenean, New-York-renean esaterako, hau da hiriburu literario desnazionalizatuenen edo kosmopolitenen kasuan– esparru literario unibertsal edo nazioartekoaren konkistaren sinonimo bihurtzen da. Harkaitz Cano batek bere modura, jazz musikariaren erran zahar bat gogoratuz, adierazten duen egia da hau : « *beste edozein tokitan arrakasta lortzen baduzu, ederra da pagotxa./Baina Manhattanen arrakasta lortzen baduzu, aixkidea, orduan Sagar handiari eginen diozu kozka* ». Espazio guztiak, hiri guztiak hortaz, ez dira-eta baliokide. Batzuk besteak baino literarioagoak izanki.

Euskal literaturaren kasuan zilegitasun literarioa eta unibertsaltasuna helburu dituen idazle hasi berriak beti izan ditu bi aukera garbi. Bata, euskarari uko egitea, Unamunok modu sonatuan egin zuenez, ez baitago euskara darabilen eta unibertsaltasuna bana dezakeen hiriburu literario nahikoa desnazionalizaturik Euskal Herrian, are okerrago, ez baita egon luzaz ezta zilegitasun nazionalik behinik behin eman zezakeen hiribururik. Bigarren aukera : euskaraz idatzi eta unibertsaltasunaren utopia ahanztea, jomuga zilegitasun nazionalera mugatuz. Baina bigarren aukera hau ere, bere xumetasunean, problematikoa suertatu izan da luzaz, aipatu moduan ez delako hiriburu nazional ez politiko ez literario ongi definiturik existitu edo existitzen Euskal Herrian. Nora jo orduan? Nori bota Rastignac-en erronka euskaraz idatziz gero? Funtsean, nola konkistatu ez badago zer konkistatu ?

Gure historia literarioa laburbiltzearen, luzaz hiria, paisaia literario gisa, ez da existitu gure testuetan, anbizio literariorik ez zegoen seinale. Eta agertu denean –Txomin Agirrerren eleberrietan– anti-eredu apokaliptiko gisa agertu izan da, eremu arrotz gisa, geneukan apurraren –alegia mundu errural euskaldunaren– apologia proposatuz. Ordu hartako anbizio literarioa eskualdekoa izan zen, literatura erregionalista zen egiten zena, asumituki bigarren mailakoa. Anbizio literario serioa erakutsi zuten lehenak autore abertzaleak izan ziren 30eko hamarkadan. Noski, unibertsalizazioaren utopia aipatzen dute –ikus Lizardiren zenbait olerki, hala nola « Parisko txolarrea »– baina zilegitasun nazionala dute egiazko erronka. Haatik, hiri euskaldunik ez dagoenez –eta bestelako hiririk ere apenas– prosa errealistari uko egin eta poesia sinbolistan aurkituko dute anbizio literarioa adierazteko tresna egokiena. Sinbolismoa hiri burgesaren aurka oldartuz literaturaren autonomia aldarrikatzen duen mugimendu poetikoa izanki –hiritar peto-petoez egindako poesia anti-hiritarra–, harri batez bi txori jotzen dituzte euskal olerkariak : literaturtasuna aldarrikatu eta hiriaren ausentziak sortzen duen arazo « teknikoa » saihestu.

Gerraostean agertuko da indarrez hiriaren problematika euskal literaturan, Mirande, Txillardegi, Aresti eta Saizarbitoriarekin, batik bat. Hiriaren agerpena, paisaia edo ekintza erromaneskoaren kokagune gisa, gauza paradoxikoa da garai hartako euskal idazleentzat : hiria eremu ez euskaldun gisa onartzea beste erremediorik ez zaie gelditzen eta hortaz euskal literaturaren periferikotasunaren aitortza da egiten dena. Baina aldi berean periferikotasun konsubstantzial hori gainditzen hasteko ahalegina ere bada ekoizpen literario hau. Bilbo euskalduna –Arestiren Bilbo Arestiren testuetan baino ez da existitzen, baina existitzen da harrez geroztik. Eta bestela atzerrira jotzen da –Miranderen kasuan Parisa, Saizarbitoriarenean Suitzara– euskal literaturari hiritartasuna emateko, alegia literaturtasuna emateko. Jakina, berritze edo eguneratze formal handi batekin batera joango da hiritartze ahalegin hau. Emaitzak emaitza, halere, zurruna da oso euskal literatura « moderno » hau

eta horregatik autonomiaren belaunaldia deritzoneko idazleek hiritartasuna aldarrikatzeko modu zeharkako eta bihurri samarra esperimentatuko dute 80eko hamarkadan : neorruralismoa. Zer den nagusiki hego-amerikarren errealismo magikoan inspiratzen den korronte literario hau? Bada, hiri euskadunik ezean begirada hiritarrak begiratu nahi zitzaion euskal paisaia naturalari –mundu erruralari–, bere itxitasuna, bere anti-unibertsaltasuna, hitz batean bere izaera anti-literarioa modu trajiko batean salatuz –ikuspegi honen paradigma eta dudarik gabe harribitxi literario konparaezina Atxagaren « Esteban Werfell » kontakizuna litzatekeelarik. Neorruralismoa, bestalde, hizkera literario sinesgarriago bat erdiesteko modua ere izan zen, euskara batu hiritar eta berriegiaren zurruntasunak sortzen zuen harrera arazoari irtenbide bat aurkitzeko.

Atxagaren *Obabakoak* liburuaren sagarapenak (1989) unibertsaltasuna euskaraz lor zitekeela frogaturik utzi zuen eta hortaz esan daiteke hiririk gabeko hiritartasuna iritsi zuela euskal literaturak, behar bada, kurioski, zilegitasun nazionalaren arazoa oraindik konpontzeke utziz. Hots, euskal literatur sistema oraindik ere hiriburu garbirik gabea da, ahula beraz bere egiturari bagagozkio, eta ahulezia honen zantzurik nabarmenena zera da, kanpotikoz ezagupen sistemak –batik bat espainiar hiriburu literarioetatik datorrena (Madrid edoartzelona)– hobeto funtzionatzen duela bertakoak baino. Hots, Donostian, Gasteizen edo Bilbon —zer esanik ez Baionan– arrakasta lortzeko ez du ezer balio Madriletiko edozein ezagupen keinuren ondoan. Horregatik, behar bada, hiriaren arazoak zentrala eta funtsezkoa izaten jarraitzen du gure literaturan, modernitate literarioarenak ez bezala. Korronte literario garaikideenekiko homologazioa ez da jada arazo bat euskal idazlearentzat. Atxagaren zein Elorriagaren sariak bere konplexuetaz arindu dute euskal idazlea. Modernitatearen obsesioa iragana da. Aldiz, hiriburu literario euskaldun baten ausentziak hor dirau baita berarekin batera datorren legitimazio nazionalaren eskasiak. Hortik hiriaren obsesioa, batik bat eleberrigintzan. Modernotasuna edo unibertsaltasuna lortzea badago euskaraz, baina non lortu ? Non egin borroka ? Bernardo Atxaga, Euskal Herriaren ordezkari Euskal Hiriaren izena eta utopia proposatzen duenean, zentrala den ausentzia horretaz mintzo zaigu ez beste ezertaz.

Nire lan hipotesia euskal hiriaren ausentzia horrek sortzen duen gabezia sentipenaren konstatazioan oinarritzen da. Euskal idazleak hiriaz hitz egiten duenean gabezia hitz egiten digu eta hiriratzea obra hauetan agertzen diren pertsonaientzat nortasun aldaketa –gabezien konpentsazioa– gauzatzen den toki magiko-demoniakoa da. Hori frogatzen edo ilustratzen saiatuko gara hurrenez hurren Atxagaren *Ziutateaz*, Olasagarreren *Ezinezko mailetak*, Canoren *Piano gainean gosaltzen* eta Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* aztertuz.

ZIUTATEAZ EDO GABEZIAREN GAIN-KONPENTSAZIO DEMONIAKOA

Hau da, apika, Atxagak gutxien aipatzen duen bere obra. Izan ere, bertan Atxaga demoniako bat agertzen zaigu, orduz geroztik landuz joan den itxura zuhur eta konpasibotik txit urrun dagoena. Eleberri labur hau oraindik euskal literaturan inor ez den idazle gazte baten aldarria da, bere anbizio megalomaniakoaren aitortza eta salaketa prospektibo bat. Scardenalli litzateke, hemen, Atxagaren *alter ego* demoniakoa. Laburbilduz, Scardenalli periferiatik hirira –alegia, boterea dagoen lekura– hurbilduko den pertsonaia anbiziotsu eta gupidagabea da. Modu generiko esanguratsuan « Ziutatea » deritzon hiria objektu literario abstraktu samarra da (batzuek frankismoaren alegoria bat ikusi nahi izan dute indar militarra eta eliza uztarturik agertzen baitira, baina ez da horretara mugatzen). Hiriari buruzko diskurtso ia oro bezala, hemengoa ere botereari buruzko gogoeta bat da. Scardenalli guttiz nihilista da eta bere botere gose asegabe bezain krudela gutxiagotasun konplexu bortitz batean oinarritzen da, liburuaren eskaintzetako batean agerian geratzen denez :

[...] ez zait gustatzen ne(re) begirada / ezta nere gorputza / gorrotatzen dut bular erdiko / kartoiezko bihotza / [...] ai amaren haragia nitaz / inoiz erditu ez balitza / nigatik putzu batean ito / bitez gizon boteretsuak / erori elizetako hormak / lurra jo palaziuak [...]
(Atxaga, 1976 : 14).

Bere buruarekiko gorrotoraino iristen da Scardenalli –« kobarde bat naiz, nire aita bezala » (Ibid. : 25)–, eta berea ere baden sortzezko izaera periferiko hori patu ekidinezina bailitzan onartuz bizi direnak mespretxatzen ditu :

ni ere, beraz, estupidoen mundukoa izan naiz. [...] Ebaki nituen gauza hilezinekin [natura, erruraltsauna, balore tradizionalak] lotzen ninduen [sic] zilbor hesteak, eta, bizitzaren ertz batetik, panpina ustel bat izatetik kitatu naiz betirako. Eta hondartza bateko zomorroak bezala ikusten ditut gaur mundu honetara neurekin etorri ziren beste guztiak [...] Scardenalli putrea da [bere « zizaregoa » utzi du], sugea da, beste zomorro guztiak mespreziatzen ditu. (Ibid. : 35).

Hiriko Borrero handiaren menean sufritzen duten biztanle xumeak irringarri zaizkio Scardenalliri eta gisa berean trufatzen da erresistentzia ahalegin ahul bezain inuxentetan indarra eta bizia galtzen duten Ikarotaz. Ikarotak, obraren irakurketa politiko-alegorikoan, antifrakistak liriateke. Hegaldatzen saiatze hutsagatik exekutatzen dituzte Ziutateko agintariek, jakina, exekuzioak jendetza sometituarentzako ikuskizun bihurtuz. Ikarotak hiritik baztertuta dagoen uharte ezkutu batean bizi dira eta beraien buruzagia Hyeronimus da –azken indioaren izena?, euskaldunak azken indiotzat hartzen gaituztelarik.

Bada, hastapen batean Ikaroeekin bat egiten duela dirudien arren, Scardenallik birritan pentsatu gabe salduko ditu hauek bere helburuak lortzeko. Traizioa, hilketak, torturak... Scardenallik giza moral arruntak debekatzen duen oro gauzatu du Ziutatearen gailurrera iristeko. Zapaldua eta periferikoa izatetik libratzeko dakusan bide bakarra zapaltzaile eta zentral bihurtzea baita, bere buruaren eta hurbilekoen ukaziora badarama ere aukera honek : « Hemendik aurrera, kontuz nirekin lagun zaharrak, kontuz ama, kontuz Inexa, kontuz, kontuz » (Ibid. : 31). Ez dago hemen periferiaren eta gabezien idealizaziorik. Utikan porrotaren eta ahuleziaren ikuspegi erromantiko edo kristaua. Scardenalli faszista bat da, bere sortzezko gabeziaren mendekua hartu nahi duena :

zerbaitek esaten dit [...] ziutate honek eguzkiaren pareko egingo nauela. Eta hala, mendekantza kunplitu geldituko da. (Ibid. : 41).

Pisikoanalisiaren ildotik epaitu behar bagenu Scardenalliren « kasua » konpentsazio fenomeno baten aurrean gaudela esango genuke. Alfred Adlerren teoriaren arabera, bere jatorrizko gutxiagotasuna gainditzeko edo konpentsatzeko haurrak forma ideal burutu bat bilatzen du. Gertatzen dena da kasu batzuetan konpentsazio prozesua desbideratu eta gain-kompentsazio bihurtzen dela, agresibitate bihurtuz eta munduaren ikuskera irreal batera eramanez gizakia. Hori gertatzen zaio Scardenalliri.

Bai, laster, ziutateko borrarero nagusia izango naiz, erregearen hurrengoa, Loiolaren parekoa [Loiola elizaren boterea sinbolizatzen duen pertsonaia da], eta palaziorik altuenetako batera pasako naiz bizitzera (Ibid. : 50).

Scardenallik gutxiagotasun konplexutik zuzenean gehiagotasun konplexura igaro ohi diren idazle faszista zenbait dakarzkigu gogora. Esaterako, gaztaroko Cioran errumaniarra, edo gure Mirande bera ere. Baina kontuz, Scardenalli ez da Atxaga. Aitzitik, badirudi Atxaga gazteak Scardenalliren figura darabilela behin betirako handinahi faszistoiderearen tentazioa uxatzeko. Prozesu katartikoa bide da *Ziutateaz*-en idazketa euskal mendietatik datorren Atxaga oraindik anonimo eta ezdeusarentzat. Baina interesgarria da ikustea nola aldi berean nazka eta lilura eragiten dizkion Atxagari Scardenallik, obraren idazkera sutuak salatzen digunez. Ez dezagun ahanzi 23 urteko gazte baten obra dela *Ziutateaz*.

OLASAGARREREN *EZINEZKO MALETAK* EDO GIZARTEA ETA KOMUNITATEA KONTRAJARTZEN DIRENEKOA

Soziologia klasikoak egiten duen gizartearen eta komunitatearen arteko bereizketa aintzat hartu behar da Olasagarreren pertsonaia nagusiaren hiri-

nahia ulertzeko. Teoria soziologikoaren arabera, jakina denez, gizartea espazio profano eta anitza litzateke, nahasketa eta erlatibitatea gertatzen diren tokia. Komunitatea –edo gizarte tradizionala, nahiago bada–, berriz, sakratuaren mende dagoen espazio bateratua litzateke, zeinetan desberdintasun oro taldearen orekarentzat mehatxugarri suertatzen baita. Bada, Olasagarreren eleberriko Carlos Urretabizkaia « Bazter » pertsonaia arrazoi horregatik joaten da hirira, bere desberdintasunak –homosexuala da– ez duelako tokirik Lekunberri-Aranaz bezalako herrixa euskaldun batean, eta metonimikoki ulerturik, homosexualitateak ez duelako tokirik euskal proiektu abertzalean. Atxagak deitoratzen duenez, Euskal Herria, abertzaleek ulertzen omen duten moduan, herri bat delako oraindik –komunitate « endogamiko » bat Olasagarrek esaten duen moduan–, eta ez izan beharko lukeen hiria –edo gizartea.

Garbi dago Olasagarrek Atxaga baten –edo gutxienez « autonomiaren belaunaldia » deitu izan den taldeko kideen– diskurtso politikotik edan duela eta ez da behar bada kasualitatea bere pertsonaiaren izena. Carlos izenak Atxagaren *Gizona bere bakardadean* eleberriko protagonista dakarkigu gogorra –Euskal Herriarekin moztu eta Bartzelonara bizitzera joaten den pertsonaia. Urretabizkaia abizenak, berriz, abertzaletasun estutik harat doan aldarrikapen feministarekin zerikusia duen idazle bat oroitarazten digu ezinbestean, eta azkenik « Bazter » sasizena bera ere gardena suertatzen da pertsonaiak euskal munduan izango duen izaera marginala adierazteko unean. Ezizena, bidenabar, komunitateak gizabanakoari inposatzen dion nortasuna sinboliza dezake :

bazter, joder, Bazterren izena Carlos Urretabizkaia duk, amazon inork hala hots egiten ez bazion ere (Olasagarre, 2004 : 12).

Hori da, izan ere, arazoa, herrian ezin dela norbera dena izan, baizik eta besteek erabakitzen dutena. Olasagarreren pertsonaien hizkera erabiltzeko, « sustraiek ito egiten dute batzuetan » (Ibid. : 149). Bizi ahal izateko, beraz, hirira alde egitea beste erremediorik ez dauka Bazterrek... edota iraultza sozial baten bitartez herria bera hiritartzea. Hori da 70eko eta 80eko hamarkada hasieran ezker abertzalearen utopiak sinetsiaraziko diona Bazterri, horregatik sartuko da bere koadrilakoek herrian sortzen duten ETArekin komandotxoan. Baina herrian antolatu duten rock kontzertu abertzale baten karietara lagun taldeko Ferminen « Gora iraultza sexual » pankarta irekitzen duenean eta ekintza horrek lagunengandiko trufak baino erakarriko ez dizkiola ikusirik ulertzen du bat-batean Bazterrek hala betidanik homosexuala izan dela, nola homosexualentzat ez dagoela tokirik Aranaz-Lekunberriin :

amestutako iraultza hark bere buruarengandiko askapena ekarzekioneko esperantza eta heterosexal bihurtu zedineko beharra ezi-

nezko zitzaizkiola ohartzean, nahi eta ezinaren arteko sarean trabatu zen ; bere bizitza ez zuela inoiz irudikatu erabaki behar izan zuen, ametsa kolektiboa baitzen, eta kolektiboan gauzatuko zen oro banakakoari zegokion afan, nahi eta desira oro. Ohartu zen Lekunberrin egin zuen bidea egitea zela errazena, xenda trazatuari jarraitu, alegia ; bere kasuan, ordea, akats bat zegoen, eta akats horrek zeraman orain Londresera ; akats horretan zetzan eskura uste izan zuteneko Euskal Herri aske hartako biztanle, aske, esan beharko luke, ez bilakatzeke arrazoia, baina beti izaten duk akats bat. (Olasagarre, op.cit. : 151).

Londresen pub bat ireki eta « familia » berri bat osatuz joango da Carlos, Marck mutil lagun « ofiziala » eta Ike amorantearen artean banatuko delarik aurrerantzean bere bizitza sentimental. Marckek atzean utzitakoa eta egindako aukera existentziala asumitzen lagunduko dio Carlosi, besteak beste iraultza politikoa « beti arra » dela azalduz eta Carlosek onartuko du bera ere zentsuratzailerik izan zela hainbat urtetan, ezinbestean : « herriak eta neronek, zoritxarrez neronek ere bai, ezarri lege estuaren hesietatik kanpo ateratzen zen oro izendatzen genuen keria » (Ibid. : 147). Marck teorizatzaile ere bihurtzen da eleberriarren zenbat pasartetan :

azpimarratuko zuen Marckek, hiritarrak eta herritarrak bereizten zituena, herritarrei background bera suposatzen zitzaizela eta orduan background horrek berebiziko garrantzia hartzen zuela, bazterketaren irizpide izateraino eta aldiz hirian denek zutela background desberdina, eta horregatik background horrek garrantzia galtzen zuela onargarritasun irizpide gisa (Ibid. : 80).

Hortik aurrerakoa, nobelak egiten duen benetako galdera, honakoa da : hiriratu eta nortasunez aldatuz gero zer gelditzen da iraganetik, jatorrizko nortasunetik, herritartasunetik? Deserrotzea erabatekoa al da, ala zeozer, arrastoren bat, gordetzen da? Carlosen erantzuna erradikala da, berak ez dauka zerikusirik Bazter deitzen zuten horrekin. Marckek bere « evil basque character » aipatzen dion bakoitzean zera erantzuten dio Carlosek, « ez zela herriei zegokion senik, senak, izatera, banakoarenak zirela, bizimoduak, paisaiak, gizarteak zizelkatuak baina banakoarenak » (ibid. : 42-43). Euskal Herrira bisitan eramateko eskaera behin baino gehiagotan egiten dion bizilagunari « Zertarako joan nahi duzu hara? » (ibid. : 43) erantzuten dio Carlosek. Eta oso tarteka gurutzatzen dituen herriko koadrilako lagunak gurutzatzen dituenean –Londresen, jakina–, erabateko desagerpena leporatzen zaio : « hirian bizi haizenetik ez zeukaagu hire berririk » (ibid. : 15). Bere ehorzketara Londresera hurbildutako lagun koadrilako kide batek laburbiltzen du egoera : « Aspaldi, aditzen duk, aspaldi utzi zioan euskaldun iza-teari » (ibid. : 208). Iragana eta norberaren herritartasuna ezinezko mailetak bihurtzen dira, nobelaren izenburuak iradokitzen duenez.

Carlosen erantzuna, hortaz, garbia da, herritik hirira joatean ezin da maletarik eraman. Adierazgarria da nola duda-mudan ibili ostean Carlosek, halere, Mikel Laboaren zein Hertzainak eta Zarama taldeen diskoak nahiz Bernardo Atxagaren *Etiopia* olerki liburua maletan sartzea erabakitzen duen behin betiko bidaiaren atarian dagoela. Eleberriak, ordea, ironikoki desegiten du Carlosen nahikeria nostalgiko hau maleta aireportuan betirako galduko baita. Gauza bera gertatuko da eleberriaren amaieran Carlos zenduaren errausak Euskal Herriko mendietan barreiatu gogo dituzten koadrilekoek errausen potea galtzen dutenean. Ez dago ezer eramaterik, ez dago itzultzerik.

Haatik, Olasagarreren ikuspegia ez dateke bere pertsonaiarena edo nobelarena bezain erradikala ezen, nobelak kutsu autobiografiko aitortua duela jakinik, ohartu beharrean gaude euskaraz eta Euskal Herriko sistema literarioari begira idatzi eta argitaratu duela euskal gizartearen hertsitasuna salatzeratorren deserrotze istorio hau. Apika euskal literatur sistema azken urteotan eremu politikoarekiko autonomizatu den seinale baikortzat hartu beharko genuke hau. Olasagarrek sinesten du euskal literatura nahikoa eremu zabala bihurtu dela ikuspegi « hiritar » bat bere baitan onartzeko eta irakurlegoaren begirada « hiritarra » jasotzeko.

CANOREN PIANO GAINEAN GOSALTZEN EDO DESPERATELY SEEKING ART

Harkaitz Canoren obra literarioa pixka bat ezagutzen duenak badaki idazle honen kezka nagusietako bat idazle izateari lotuta dagoela. Canorentzat, apika, literaturaren funtsa ez dagoelako obretan, baizik eta idazlearen nortasunean. Bestela esateko, Canorentzat literatura idazleak dira, obra guztien gainerik. Obren justifikazioa idazlearen figura artistikoa bermatzean datza. Eta horrek bertigoa sortzen du: zerk ziurtatzen dit artista naizela ? Fedeak, ez daukanez oinarri objektibo edo finkorik, etengabe dago kolokan eta idazlearen baitan beti dabilta borrokan batetik artista izatearena iruzurra delako uste kulpabilizantea eta bestetik genio artistiko bat delako esperantza. New Yorkera egindako idazketa-bidaiaren zergatia ez da oso ezberdina. Hemen ere, irakurlearen sedukzioa eta txunditzea ageri da azalean baina azpian bizirik dirau bere buruarekiko galdezketan obsesiboak : benetako idazlea al naiz ? New-York metamorfosia gertatuko den hiria izatea espero du Canok.

Alde batetik beraz, irakurlea txunditzeko beharra. Eta zer egokiagorik, horretarako, New York hiria baino ? Izan ere New York urruti dago, jende

gutxi du eskura, eta mundu artistikoaren edo arte mundialaren bihotzean kokatzen da. Ez dago munduan hiri errepresentatuagorik egungo media artistikoetan (literatura, zinema, kantagintza, pintura...). Kale kanto bakoitza erreferentzia artistiko bilaka daiteke. Canoren hitzak hartuz : « Zine munduko fetitxistentzat paradisua da hiri hau » (Cano, 2000 :15). Literaturaz kutsatutako hiri honetan ez da harrizkeoa Cano ohartzea bera bizi den etxean bizi izan zela berak pertsonaia literario gisa erabilitako aktorea underground bat (Lupe Velez) : « Eta orain, lau urte beranduago, hara non nire pertsonaia bizilagun bihurturik aurkitzen dudun » (Ibid. :25). Han ez dago literaturan pentsatzen jarri beharrik, hiriak berak eragiten ditu ameskeria literarioak : « Batzutan irakurgai eramaten dut labandieriara, baina beste batzuetan eskotilatik begira geratzen naiz, Julio Vernereren istorio bateko protagonista banintz bezala » (Ibid. : 127). Dena da aitzakia literatura egiteko : « Argindar instalazio zahar asko dagoelako edo ez dakit zergatik, baina suteak ugari dira. Narrazio eta ipuinei amaiera emateko era egokia izan daitezke suteak » (Ibid. : 138). Literatura guzti hau kontenitzeko liburudendak ere neurritan eginda egon behar : « Liburudendak ikaragarriak dira hemen : mahaia eta aulkiak daude, bertan eseri eta kafea hartuz nahi duzun liburua irakurtzeko [...]. Makina bat liburu ari naiz irakurtzen » (Ibid. : 19). Zerrenda hau nekerik gabe luza genezake... Hain da literarioa tokia non Cano bere *Beluna Jazz* eleberriko Bob Ieregi saxofonista New Yorkar guztiz imaginarioaren bila ere hasiko baita listinak lagun dituela. Oraingoan ez du zortetik izango. Gehitxo litzateke.

Toki bat literarioa da literaturaz kargatua dagoelako baina baita ere, txanponaren beste alde, sorkuntza berrietarako inspirazio iturri delako. Bi alderdi hauek elkartzen dira Canoren bizileku new yorktarrean : « Tuberkulosia harrapatzeko leku aproposa iruditzen zait [Mme Bovary eta beste hainbat pertsonaia famaturen eritasuna]. Definitiboki literarioa. Orain idaztea besterik ez zait falta » (Ibid. : 67). Eta hala gertatuko da, hirian oin hartu bezain laster jartzen zaizkio martxan Canori pulsio artistikoak : « Paper erreziklatuzko patrikako uzta koadernotxoan lehen hitzak idatzi ditut [...] eta gero poema simulakro bat [...] Gaur marrazteko gogo daukat » (Ibid. : 17-18). Urrunago : « Bi poema posibleren zirriborroak ekarri ditut etxera » (Ibid. : 22). Baina estimulo artistikoa orokorra da, ez da literaturara mugatzen : « Kamera hartuta zubira txuribeltzeko karrete bat botatzera abiatu naiz [...] Hiri honek argazkilari sena, margolari sena, zerbait egiteko sena pizten ditu. Arratsalde oso eman dut argazkiak ateratzen » (Ibid. : 95-96). Gauzak gaizki doazenean ere –idazteko inspirazioa ez denean inondi ageri– New Yorkeko Canoren artista sena kitzikatzen darrai : « hutsune handi bat sentitu dut. Enbalatzeko papera lurrean itsatsi eta pintzel pare batekin garabato bat egiten hasi naiz, desahogatzeko » (Ibid. : 86). Idazleak aitortzen digunez, “idazten ari zarenekin bizi eta murgiltzeko era bat dela horrelako leku batean bizitzea” (Ibid. : 85).

Kontua da hiria, dekoratu artistiko-literario erraldoia izateaz gain, artistaz beteta dagoela, lepo eginda. Sarrera eta epilogoak kenduta liburua osatzen duten 38 kroniketako baten tituluak iradokitzen duen bezala (« Bohemia eta glamourra ») bidaia hau, Harkaitz Canorentzat, XIX. mendeko idazle zein artistek Parisen egiten zuten bohemaldi artistikoaren pareko litzateke. Alegia, bizimodu artista bat eramanez inspiratzeko ahalegin bat, hiriburu kosmopolitenera helburu berarekin hurbildutako hainbat jenderekin nahastuz. Eta, hala, bohemiarren mitoaren ezaugarri gehienak bereganatzen ditu Canoren egonaldia amerikarrak : diru gutxi, auzune erdi-pobre erdi-sofistiktua –Williamsburg–, etxe-bizitza erdipurdikoa –*loft* konpartitu bat–, giza-fauna anitza –maila sozial guztietako jendearekiko harremana. Hala ere, bohemioarentzat garrantzitsuena beste jende bohemioarekin egotea da, elkar-ezagupen errittoa bailitzan, eta jende bohemioaren bilaketan dihardu beti Canok, espezie zoologiko baten atzetik usnaka bailebilen : « *artista jendea* bizi bide da hemen » (Ibid. : 61, guk azpimarratua). Eta ez daudenean bizirik, hildako artisten arimak arnasten duen airean somatzen ditu Canok : « Eta hor abiatu da [Cano, bere buruaz hirugarren pertsonan], batere jendekin ez den idazle isila, Julian Schnabel pintore eta zinemaegilearen jabetzakoa den Chelsea Hoteleko gelara [...] eta hor goaz, elurretan oinez, Jim Morrison, The Beatles, The Eagles eta beste hainbestek kantuak eskaini eta bolada luzeak eman zituzten Chelsea Hotel mitikora » (Ibid. :96). New Yorken gurutzatuko dituen euskaldun bakarrak ere, nola ez, artistak : « Alexek, urte batzuk dramatzatza New Yorken eta, besteak beste, musika tresnak asmatzen ditu » (Ibid. : 29). Ainhoa Arteta diva euskaldunarekin ere afaria izango du Harkaitz Canok eta hiriko Euskal Etxera hurbilduko denean Alex eta honen lagun artista batekin bertako euskaldun tradizionalak harrituko dituen performance artistikoa burutuko dute : « Alexekin Euskal Etxean zerbait egitekotan geratu gara. Bruce Mc Clure izeneko bere lagun batek super-8ko filmak azidoz erre eta koloreztatuz oso efektu bereziak lortzen omen ditu. [...] Euskal Etxeko xahar guztiak jo ta ma geratu dira Bruceren irudiekin eta Alexen musika tresnekin » (Ibid. : 30-33).

Egia esan, eta hau da liburuaren enkantuaren arrazoietako bat, oharkabean errealismotik ihes egiten du Canok, eta badirudi hiri horretan bizi den oro dela artista deklaratu edo izkutukoa. Entzun bestela :

« New Yorken inork ez dizu esango aroztegi batean lurra berdintzen, hormak margotzen edo testuak ordenagailuz garbira pasatzen lan egiten duenik, bere diru iturri bakarra hori izan arren. Larunbatetan izebaren tabernan diskoak jartzen dituen arotzak “musikaren negozioan” dabilela esango dizu, laburmetraia batean extra bezala lan egin zuen horma margotzaileak *filmakerra* dela etabar. Miresgarria da izpirituan bakarrik duten lan horri halako adoreaz eustea » (ibid. : 116).

Azken esaldi hau errepikatu behar dut : *miresgarria da izpirituan bakarrik duten lan horri halako adoreaz eustea.*

Idazlea fikziozko pertsonaia da beti, *izpirituan bakarrik duen lana* delako berea, eta Ana Urkizak, liburuaren aipamen kritikoa egiterakoan dioenez :

New Yorken, bestalde, idazle-bisitariak bere burua aurkitzen du eta berdefinitu egin behar izango du bere kokalekua. Literaturak fikzio hori ulertzen eta bizitzen lagunduko dio baina delako fikzio hori bizi ondoren, Canok etxera bueltatu-beharra dauka, idazle egina (Urkiza, 2001).

Beste hitzetan esanda, New Yorkeko egonaldia Canok errito inizatiko bat bailitzan pentsatu du, idazle dela segurta liezaiokeen erritoa hain zuzen. Hori, bidaiaren jatorria eta prestakuntza aipatzen zaizkigunean geratzen da agerian. « bi urte pasa nituen jende guztiari New Yorkera joan behar nuela esanez » (Ibid. : 9). JFK aireportuan lur hartu baino lehen, hegazkinean oraindik, bertako aduanara heltzean eman beharreko papertxo bat betetzen ikusten dugu Cano : « Zalantza momentu bat izan dut laukitxo horretara heltzean. Ogibidea galdetzen dit. Writer and Journalist idatzi dut lotsagabe. Gehitxo akaso? » (Ibid. : 12). Bere literaturaren eta bokazioaren iturburu mitologikoa den hirira heltzean biluzturik sentitzen da eta azterketa bat pasatzera joango balitz bezala sentitzen da betiereko idazle-gaia : « Mesfidantzaz begiratuko ote didate nire ibilera sosegatua ez delako, edo sosegatuegia delako? Nire editoreak egindako kontratu faltsu bati esker, urtebeteko bisa lortu dut. *Artistei* emate zaien horietakoa. Hona zer dioen kontratuak : argitaletzeak nire egonaldia eta gastu guztiak ordaintzen dituela New York blues izeneko liburua idazteko baliatuko ditudan bederatzi hilabeteetan » (Idem). Jokoan dagoena idazle izatea da eta bederatzi hilabete haurdunaldi literarioaren ostean (idatziko al du bere liburua ?) jakingo da idazlea sortu den ala ez liburuarekin batera.

Egonaldiaren bukaeran Canok « New Yorken idatzi beharreko liburua » (Ibid. : 178) kostata baina idatzi duela esaten digu. Eta sinbolismo gardeneko azken ekintza bat bururatzen zaio orduan : « karta bat idatzi nion nire buruari : erremitean nire Brooklingo helbidea jarri nuen eta kartazalean berri Donostiakoa. *Bi pertsona ezberdin izango ziren finean karta idazten zuena eta jasoko zuena.* Kartazala itxi aurretik diskette batean New Yorken idatzitako eleberriaren kopia bat sartu nuen. Superstizio kontuak. Badaezpada ere, hegazkina eroriko balitz edo. *Beste ahalegin bat gure bizitza literarioa izan dadin* » (Ibid. : 178, guk azpimarratuta).

MONTOIAREN DENBORAREN IZERDIA EDO ASIMILAZIOAREN MUGAK

Montoiak bere orain arteko eleberrri onena plazaratzen duenean –2003koa da *Denboraren izerdia*– hogeita sei urte igaro dira Atxagak *Ziutateaz* argitaratu zuenetik eta euskal eleberrriak ez dira jada alegorikoak, ezta neorruralak ere. Euskal eleberrigintza errealista bihurtu da, ironikoa –heldutasunera iritsi den seinale agian. Euskal sistema literarioa osatua dago : irakurleko alfabetatu eta ikasia existitzen da, kritika literarioa profesionaldu da idazleekin batera eta industria kultural txiki baten aurrean gaude. Bestalde, gorago iradoki bezala, euskal literaturak bere behialako anakronismo estetikoak gaingitu du eta modernitatearekiko konplexu zaharraren azken arrastoak Atxagaren sari nazionalak eraman zituen.

Horregatik, behar bada, Montoiaren heroi edo anti-heroia Madrilerá doanean ez da izenik ez duen toki batetik abiatzen Scardenalli bezala, Gasteiz EAeko hiriburu politiko-administratibotik baino. Halere, gordetzen du loturarik Jon Ezenarro zinema ekoizle madriltartuaren istorioak Scardenallirenarekin.

Scardenalli bezala, Ezenarro bere gaztaroan « Ikaroa » izandakoa da. Hots, klabe errealistan, ETAkidea. Eta, Scardenallik bezalaxe, bere anbizio pertsonalak hala agindu dionean Ezenarrok ere Ikaroei bizkar eman eta hiria konkistatzera jo du, 70eko hamarkadako utopia ezkertiar-iraultzaile-abertzalearen arropa estuegi bilakatuak zailtasun edo eskrupulo gehiegirik gabe erantziz. Iparraldean (Euskal Herriko iparraldean, hau da Frantzian) ETAp.m.-kide gisa eginiko egonaldia Gasteiz itxi eta gabeziaz jositakotik ihes egiteko modu bat izan bide zen Ezenarroentzat –ez dezagun ahanzi ETAk izan zuela hamarkada urrun haietan Europa osoan halako glamour berezi bat, halako unibertsaltasun kutsu bat, Frankok zutik zirauen bitartean– harik eta iraultza abertzalea kontserbatismo nazional bat gehiago bihurtu zen arte. Orduantxe jo zuen Madrilerá Ezenarro.

Zer eskaintzen dio, baina, Madrilek Gasteizek eskaintzen ez dionik? Dударik gabe, beti ere Casanovaren definizioaren arabera, hiriburu literario batek ezinbestekoak dituen bi ezaugarriok : liberaltasun politikoaren ospea eta kapital literario –Ezenarroren kasuan zinematografikoa– metaketa. Gasteizen ezin bizitza liberalik –moderno edo postmodernorik, alegia– eraman, eta ezin zinema egiteko egiturarik aurkitu. Literatura nazional txikiaren eta egiazko literaturaren –hots, unibertsalaren, hiriburu literario handietakoaren– arteko amildegia ezin hobeto metaforizatu du Montoiak zinemaren munduan jarriz bere pertsonaia.

Bi hirion arteko desberdintasuna –hiritxo nazionala eta hiri kosmopolita– Ezenarroren bizitza sentimentalaren iragana eta oraina erkatuz adierazten

digu Montoiak. Gasteizen Elena eder, abertzale eta aratzarekin ezkondurik eta zinezko monogamian bizi zelarik, Madrileran joan denetik panorama sexual konplexuagoa eta agian kitzikagarriagoa da berea : alde batetik ETArekin mehatxupean madrildarturiko euskal enpresario baten alaba Anarekin senargai bizitza txukuna darama, baina bestetik Maria Isabel, Itziar edota beste hainbat maitalerekin jotzen du larrua ahal duen guztietan.

Hiriburu batera joateak nortasun aldaketa eragin dio Ezenarrori, edo uste horrekin bizi da behintzat (zeren nobela aurrera joan ahala ohartuko baikara ez dela hain erraza asimilatzea). Guztiz bestelakotua ikusi nahi du bere burua Ezenarro, iraganeko Ezenarro ahantzi nahi bailuen (Scardenallik bere jatorria eta iragana ukatzen zituen moduan) :

Elena, gosarian atseginez aldamenean onartu zuen bakarra, aitor-tu beharra dago. Elena abertzalea. Bere izen-abizen bereko gazte baten emaztea (Montoia, 2003 : 13).

Ezenarrok sinetsi gura du, Sarrionandiaren pastitxea egiteko, bera ez dela jada « hangoa ». Euskaldunak arraroak direla esaten dion amorante bati –« hainbeste hilketa, hainbeste izugarrikeria »– zera erantzuten dio : « Doazela pikutara ! Ni, zorionez, hemen nago, hemen bizi naiz, ez han » (Ibid. : 54). Eta Madrilen bizi arren bozkatzeko Euskadin erroldatzen direnei barre egiten die, alferrikakoa iritziz ahalegin horri : « Frantzian hasieran, Madrilen orain, Euskadin baino luzeago bizi izan naiz erbestean. Bueltatzen naizen bakoi-tzean arrotz ikusten dut han neure burua » (Ibid. : 55).

Egia esateko, Scardenallik bezala –azken honek behiala bera lagundutako Hyeronimus Ikaroen buruzagia salatuz egin zuen gora Ziutateko boterearen hierarkian–, Ezenarrok bere utopia abertzale-ekzertiarra salduz –hitzaren zentzu guztietan– antolatu du bere negozioa Madrilgo zinemaren mundutxoan. Eta bere arrakastarik dizdiratsu eta sonatuena terrorismo abertzalea salatzen duen *Libertad* izeneko filme bat ekoiztuz lortu berri du nobelaren hasieran.

Bere arrakasta madrildarraren atalaitatik ikusita, gonbidatzen duten errepezio glamurosoetatik begiratuta, konkistatzen dituen emakume desiragarrien hankatartetik hausnartuta, Gasteiz bezalako hirixka nazionala ezdeusa eta mespretxagarria iruditzen zaio, Scardenalliri bere sorlekua eta bertako jendea erdeinagarri iruditzen zitzaizkion bezalaxe :

urte askotan Madrilen bizi ondoren, harrigarria zaio hiri tipietako bizimodua, bertako jendearen arteko harreman mota, denek elkar eza-gutze hura. Harrigarria bezain itogarria, bestalde. [...] Aukeran, hiriburu handietako anonimotasuna nahiago. Dena dela, Gasteiz bezalako hiritxo –bai, hiritxo, bertako biztanleek eta bereziki alkateak bestela uste arren– batera etorri behar izan du anonimotasun [...] bila (Ibid. : 125).

Zergatik itzuli behar izan duen Gasteiza? Bada, bera bezalako odol hozteko animalia den beste euskaldun madrildartu batek –Itziar Urzaga *El Mundoko* kazetariak– ez diolako barkatu umilatu izana. Urzagarekin oheratu ondoren honek elkarrekin bizitzen jar zitezkeela iradoki dionean gupidarik gabe baztertu du emakumea Ezenarrok. Mendekuz, Urzagak artikulu bat kaleratzen du *Libertad* filmaren aurkezpen ospakizunen erdian non salatzen baita garai batean Ezenarro ETAp.m.-ko komando baten diruzaina izan zela. Eta, jakina, euskal terrorismoaren aurkako madrildar giro inkisitorialean –PPren gobernupeko urte gogorrenetan gertatzen da istorioa– *persona non grata* bihurtuko da Jon Ezenarro artikulua plazaratu bezain laster. Kurioso da, bestalde, ikustea nola, metaforari eutsiz, bere iragana Urzagak agerian uzten duenean, amorante guztiak desagertzen zaizkion bat-batean Ezenarrori, berriro ere bizitea sexual pobre batera itzuliz.

Hortik aurrerakoa, eleberriaren bigarren zatia, Gasteizen kokatzen da osorik. Iraganeko mamuekin berriro bizi beharra tokatuko zaio Ezenarrori, Madrilgo sorgin ehizatik ihes egingo badu, harik eta ETaren bonba baten biktima bihurturik berriro Madril onartua den arte, happy end ironiko bezain interesgarria osatzen duelarik Montoiak.

Nobelaren drama, azken beltzean, honakoa da : urtetan kontrakoa sine-tsi nahi izan duen arren Ezenarrok deskubritzen duela, Urzagaren jukutriaren ondorioz, Madril unibertsal, liberal eta artistikoki autonomoaren atzean, Espainar Estatuko hiriburu itxi eta nazionalista bat gordetzen dela, bere jatorrizko Gasteiz hura bezain estua eta antiglamourosa, Julio Medemak boikotatzen dituen Madril bat, edota Atxagaren *Gizona bere bakardadean*-i aurpegi txarra jarri zion Madril hura. Hots, Madril ez da Paris.

Hiriratz bere nortasuna ahantzi edo ezabatu nahi izan duen pertsonaia dugu Ezenarro, Madril dar bizitzara asimilatu nahi izan duen pertsonaia. Zein den bere nortasun sakona ? Bada, hirigabearena, boteregabearena. Gasteiz ez baita benetako hiriburu literarioa, kontzeptuaren definizio hertsia bagagozkio –hau da, liberalismo politikoa eta aberastasun literarioak uztartzen diren lekua. Izan ere, Madril bera ere ez baldin bada erabat hiriburu literarioa¹, nola izango da, ba, Gasteiz ?

¹ Hona zer dioten Pascale Casanova frantsesak Madrid-Bartzelona bionomioari aplikatu dakiokeen pasarte batean (berak honako binomioak proposatzen ditu : Varsovia-Krakovia ; Atenas-Tesalonika ; Pekin-Shangai ; Madrid-Bartzelona ; Rio-Sao Paolo) : « zenbait espazio literario nazionaletan erakunde literarioen autonomia erlatibo bi hiribururen presentzian (eta borrokan) nabaritzen da, batak –gehienetan zaharragoa– botere, funtzio eta ondasun politikoak bereganatzen dituelarik –bertan literatura kontserbatzaileagoa egiten da, tradizionalagoa, eredu eta dependentzia nazionalari lotua–, besteak –batzuetan askoz berriagoa– maiz portu bat daukan hiria, atzerriari irekia, edo hiri unibertsitarioa izanki modernotasun literarioa aldarrikatzen duelarik, kanpoko eredu literarioen ekarpena » (Casanova, 1999 : 338). Beste pasarte batean, Bartzelona egiazko Espainir hiriburua dela dioten Vazquez Montalbanen hitzak aipatzen ditu.

EUSKAL HIRIAK

Hemen aipatu ez dugun korronte bat ere existitzen da eskal literatura garaikidean. Euskal idazleak saiatu dira bertako hiriei prestigio literarioa eransten, izate artistiko bat kutsatzen, literaturan integratuz, literarizatuz, berauen erromaneskotasuna aldarrikatuz, mito literario bihurtuz. Hots Joyce batek Dublinekin egin zuena errepikatzen ahalegindu eta ahalegintzen dira euskal idazleak oraindik ere², Parisen modura « mila eleberridun hiria » bihurtu dadin euskal hiria. Baina hor dago kokxa, zein hiri ?

Donostia ? Euskal Herriko hiriburu euskaldunena izanki eta hizkeraz azken hamarkadetan nagusitu den euskara eredutik hurbilen dagoena, Donostia litzateke behar bada euskal hiriburu literario naturalena. Areago aintzat hartzen bada euskarazko argitalgintzaren –eta bereziki argitalgintza literarioaren– kokagune nagusia dela. Lorpenik handiena Donostia literaturizatze bide horretan, agian, Saizarbitoriarena da. Baina Saizarbitoriaren obran bertan soma daiteke Donostiaren handicap sorta : glamourrik izatekotan, Donostiaren glamourra ez da preseski bere alderdi euskaldunarena, gainera bere iraganean sakonegi erroturik bizi den hiria da arteari dagokionez eta ezin esan benetan liberala denik bertako giroa. Burges dekadentea izatera ozta-ozta iristen baita.

Horregatik, akaso, 60eko hamarkadan hasi zen mugimendu bat euskal letretan Bilbo bilaka zedin euskal hiriburu literarioa. Honetan aintzindari Aresti izan zen eta Atxagak Pott bandaren garaiean Bilbora bizitzera joanez joera honen oinordekotza aldarrikatu zuen. Egungo zenbait eleberriegile berri saiatzeko dira mito hau lantzen –Iturriagaren *Berandu da gelditzeko* edota Belmonteren *Hamar urte barru* datozkigu boteprontoan oroimenera–, gehienetan Bilbo zikina (drogarena, militantzia klandestinoarena, langabeziarena) erakutsiz, baina Bilboren ahulezia handiena bere izaera erdalduna da, dudarik gabe. Behar bada Euskal Herriko hiririk hiriena da, baina ezin horraatik euskal literatura inkarnatu.

Iruñeak ere azken urteotan bizi du bere urrezko aroa, Epaltza, Alonso eta « sandwich belaunaldi »ko partaide batzuren eskutik, baina gure geografiko hiririk anti-liberalena eta probintzialena dugu agian berau eta nekez lor

² Pascale Casanovak azaltzen duenez : « Joyce idazle irlandarrarentzat, existentzia literarioa ematea hiriburu nazional bati [Dublini] eremu nazional barruan eramandako borroka baten ekintza zatekeen : erronka estetiko bat aurrera eraman nahi zuen, ekintzaren bitartez, idazkeratik bertatik, irlandar literaturan indarrean zeuden arau eta eredu « baserritar » eta folklorikoekin hautsiz » (Casanova, 1999 : 338).

dezake hiriburu literario estatuturik. Baiona Iruñearen pareko hirixka nahiko euskaldun baina ez oso literarioa (ezta liberala ere) litzateke eta euskal eremuaren periferia metaforizatzeke erabili ohi da egungo literaturan.

Azken urteetan modan jarri den hiria gure literaturan Gasteiz da, dudarik gabe. EAEko botere politikoa bertan kontzentratu egoteak eta euskal funtzionarioz nahiz ikaslez betetako hiria izateak badu zeresanik fenomeno honetan. Gasteiz hiri nahiko erdalduna izanki berez, bertan bizi diren euskaldunak kanpotik etorriak dira –euskal eremu guztietatik « etorkinak »– eta maila sozio-kultural handi samarrekoak direla esan daiteke. Hori dela eta, hiriko euskaldunei ezin egotzi zaie Donostiarrei egotz lekiekeen itxitasun edota bertakokeria. Zentzu horretan, egiazko euskaldun hiritar bakarrak Gasteiztarrak lirateke. Bestalde herri handi izatetik hiri izatera igarotzen orain dela gutxi hasi denez badu halako birjinitate bat –ez dago ezein tradizio literario ez kultura esklerosagarri loturik gure imaginarioan– erakargarri egiten duena. Nahikoa komentzigarriak dira Montoia batek ala Zaldua batek egindako literaturtze ahaleginak, aipatu gabe euskal rock radikalak utzi zituen aztarna mitologiko eskergarriak. Halere, Bilbok bezala Gasteizek bere erdalerriri izaera kontra dauka eta bestalde beti ikusia izan da, baita geografikoki ere, Euskal Herriaren azken muga bezala. Alde horretatik, gure susmoa da bere siberiar ospea ez diola klimari bakarrik zor, baizik eta bere euskararekiko giro hotzari baizik. Ezin nonbait euskal literatura erabat eroso sentitu Gasteizen.

Aldi berean euskalduna, errekurtsio literarioz aberatsa eta modernoa (hots, liberala) den hiririk ez dago gurean eta, hortik, apika, Atxagaren euskal hiriaren kontzeptua : kontzeptu horrek euskal hiriekin duten hoberena espazio utopiko batean bildu nahi litzuke benetako hiriaren antza edukiko lukeen zerbait osatu ahal izateko, mentalki bederen. Esan daiteke gaur egun euskal hiria euskarazko literaturan baino existitzen ez den espazio abstraktu bat dela eta ez da hain gutxi. Hiriburu literarioaren izpiritua hor dago, bitartean, gure autoreen eleberrien eta olerki liburuen orrialdeetan flotatzen, balizko gorputz fisiko baten zai. Halakorik gorpuzten ez den bitartean beti izango dugu gure literaturan atzerriko hiriburu literario handietara edo auzo Espainiako hiriburu nazionalera unibertsaltasun bila jotzeko beharra edo tentazioa artikulu honetan azaltzen saiatu garenez.

BIBLIOGRAFIA

ATXAGA, *Zintateaz I-II*, Donostia, Kriselu, 1976 (réédité par Erein en 1986, 154 p).

CANO, Harkaitz, *Piano gainean gosaltzen*, Donostia, Erein, 2000, 187. or.

CASANOVA, Pascale, *La République mondiale des lettres*, Paris, Seuil, 1999, 493. or.

DICTIONNAIRE DE LA PSYCHANALYSE, Paris, Encyclopædia universalis-Albin Michel, 1997, 919. or.

MONTOIA, Xabier, *Denboraren izerdia*, Donostia, Elkar, 2003, 221. or.

OLASAGARRE, *Ezinezko maletak*, Zarautz, Susa, 2004, 249. or.

LAZARRAGAREN LEXIKO ETA GRAMATIKA ZEHETASUNEZ

Adolfo AREJITA

0. AURKEZPENA

Ondoko lan labur honetan Lazarragaren izkribuko hizkeraren puntu batzuk hautatu ditut aztergai, gramatikari doazkion alderditik, zabalean barik sakonean ikertu nahiz, asmoz behintzat. Gramatika historikoa dudanez neure irakasgai oinarrizkoetarikoa, pentsatu dut eraz datorkeela idazle honen garaian eta eremuan kokatzea gramatika-egitura jakin batzuk, konparantzak eginez, bai aldi beretsuko beste izkribuetako erabilerekin, bai ekialdeko, bai sartaldekoekin, baina baita denboran hurbilagoekin, batez ere bizkaiera zahar eta klasikoko ereduarekin eta, denboran jauzi handi bat eginez, gaur egun ere bizirik dirauten egitura zaharzale batzuekin.

Perpau bakuneko kategoria jakin batzuetara mugatu dut ezin bestean neure eginkizuna: izen sintagmaren esparrutik irten barik, pertsona-izenordainak eta hauen posesiboak, mugatzaile-erakusleak, zenbatzaile batzuk eta graduazio-marka batzuk hautatu ditut ikergai eta aztergai.

Izkribuko testu-aipua gaurko grafian eskaini ditut. Horretarako neure transkripzioa erabili dut oinarritzat, baina Armiarma-k sarean duena ere aurrean dudala. Orrialdeak, sarean dauden bertsioren zenbaki sistema berarekin aipatu ditut.

Jakitun nago bestetik, hemen jorratzen diren puntu berberak edo beretsuak aipatu edo komentatu izan dituela zuzen edo zeharka bestek ere, izkribua ezagun egin denik honunzkoan. Hala J. A. Lakarrak (2004), X. Kintanak (2004 eta 2005), Pruden Garciak edo R. M. Pagolak (2006), besteak beste.

1. PERTSONA IZENORDAINEZ

Guztien morfologia edo sintaxi ezaugarrietara barik, berezi antzeko diren formetara mugatuko dut neure azalpena.

1.1. Forma neutroak

– *guck* pluralekoaz lehen aipua. Obran, *gu* forma arruntarekin batera argiro lekukotua dago *guck* forma zaharra, kasu absolutibo eta ergatiborako. Donemiliagako glosa euskarazkoetariko batean ageri den berbera da, baina sei mende geroago. Horrek darakus, sartaldeko hizkeretan eta ziurtasun gehiagoz goi lautadan, lehengo aldietan gutxi-asko hedaturik egon zela, ez dakigu garbi noiz arte. Mikoleta bilbotarrak ere bere gramatikatxoan (1653) badarabil noiz edo noiz, gehienetan *gu* idatzi arren. Lazarraga dugu, beraz, euskara zaharrean eta diskurtsoan txertaturik aldaera hau garbiroen darabilena. Guganatu den testuan lau aldiz ageri da. Horrek beste barik esan nahi du forma ohikoa zela idazlearen hizkeran.

Balio plurala du beti, *gu* zaharragoak duen bezalaxe; inolaz ere ez maiestatikoa ohi deritzana. Adibideetariko baten *zuek* eta *guck* aurrez aur ditugu (b).

(a) “ik jakingo dok eze *guck* goazela Dueroko riberara” (10r), “goazen guztiok batera eze *guck* al daigun lagundasunik onaena egingo deutsugu” (10v), “oi nox zenbilzen / orrinbat gatxez munduan; / eldu ez zara / *guck* gueonzen lekuan” (45r).

(b) “edo bestela *guck* eta *zuek* bearko dogu jente krueloen eskue-tati eriotzea gustadu” (14v).

Esan bezala, *gu* itxura ere badarabil, eta izenordaina deklinatzean *gu-* oinaren gainean jokatzeko du beti: *guk*, *guri*, *gugaz*, *gugaiti*. Ondoko bertso-ahapaldian hiru aldiz jarraian darabil, zeinetan neurriari ere jaramon behar dion:

"Ozaetako bandereagaz / oi ta *gu* gara etorri / iguzkiaren aldean dago / gure onrrea jarririk; / geure atzean *guk* darabilgu / mundua katigaturik. / Goitixego ekusi neben / beste alderutz eguinik / donzella flordelisarik asko / guztiak gorritz janzirik. / Gaztelu Gebarakoan gara / *gu* bizi defendidurik" (15r).

– *ni* izenordainaren deklinan aipagarri dira berariaz *en-* erro zaharraz eraikitako formak, sartalde euskararen mehatz azaltzen direnak, nahiz beranduagoko testuetan ere behin edo behin lekukotzen diren¹ eta Oinatiko aldeko

¹ Cf. Mikoleta: "enessat oneyc dirá egunac beardogusanac esean sartu" (13).

hizkeran ahoz ere bai.² Berez *en-* oinaren edota *ene* posesiboaren gainean eraikiak dira, gutxienez ondokook: soz. *enegaz* (32r), benef. *enetako*, *enetzat*, mot. *enegaiti* (a). Toki-denbora kasuetan, ostera, *ni-* oinaz eraikiak dira *nigana* eredu ohikoak (b); postposizioa absolutiboaren gainean eraikia den seinale. Benefaktiborako dugun *enetako* / *zuretako* segidak garbiro islatzen du - (*r*)*etako* atzizki aldaera, gaur egun oraindino, ekialde-euskalkietan ez eze, bizkaiera ekialdekoan ere bizi dena (c):

(a) “Nunberegaita asko dago / *enetako* dolorerik” (36r), “uste gutxienez dozun orduan *enegaz* bearko dozu” (17r), “ark *enegaiti*, oi, oraingaño eztau edugi ansirik” (27v), “*Enetzat* faltadu zan kontentua” (39r).

(b) “*nigana* gia eztezazula / sekula zeure barkea” (15vbis).

(c) “ala *zuretako* nola *enetako*” (11v).

– Pertsona-izenordainok sozietiboan, motibatiboan eta *-ga-* artizkidun osteango kasuetan deklinatzeko duten modua ere aipagarri da, zeren ez baitator beti bat sartalde euskararen nagusi den ereduarekin. Batetik *nigaz* (9r, 11v), *zugaz*, *zugana*, *zugaiti*, *zuegaz*, *zuegaiti* erakoak darabiltza ugari (a), baina horien ondoan *zure* posesiboaz eraikiriko *zuregaz*, *zuretzat*, *zuregaiti*, *zuregan*, *zuregana* ereduak ere ezagunak ditu, haiek bezain ugariak ez badira ere (b).

Forma bihurkarien sailean ere berdin: *neurgaz* formaren ondoan *neuregaz* ere bada, hau da, *-re-* genitibo-atzizkia tartean duela; edo nahi bada, *neure-*, *zeure-* posesiboen gainean eraikirik. Jokabide bikoitz berbera dugu erakusleekin ere: (*h*)*aregaz* ezaguna du, baina (*h*)*agaz* (15v) ere badarabil, bizkaiera zaharraren bidetik. Eredu bien kontrastea ageri-agerikoa da pasarte batzuetan: *nigaz* / *zuregaz* bertso berean darabiltza inoiz (c):

(a) “Zuk barriz *nigaz* ez daukazu / bapere memoriarik” (30r), “Bestela bere *nigan* ez dago / zurea ez dan gauzarik” (30r), “*zugaz* amarduagaiti” (30r), “*zugaiti* kruel dala beregana” (39v), “*Zugana* deudan amorioak / oi, iñon ez dau kaburik” (30r), “*Zuegaz*, barriz, ez eukaen, / oi ta, bapere konturik” (24r), “Au *zuegaiti* egiterako, / asko da errazoarik” (24v), “*Agaz* osatu lekidizu” (15v).

“*Neurgaz* sekula giten ez dot” (30r).

(b) “*zegaiti* nabon *zuregaz* batu” (19v), “*Neuregaz* neben libertadea” (27r), “Ditxoso *zuregaiti* ilten dana” (39v).

(c) “zu *nigaz* konfesadu, ni *zuregaz*” (32v).

² Cf. OEH (VI, 657): “Enekiñ etorri (Araotzen zaarrak oraindino)” Kandido Izagirre; Voc. Aranzazu-Oñate.

Bide beretik, toki-denbora kasuetan *-regan* eredia ere badarabil, 2gn pertsonan zehazki: *zuregan* (39v), *zuregana* (39v), *zureganik*, ziurrenik bertsoen neurriagatik komeni izan zaiolako (b). Baina ugariak dira ere bizkaiera tradiziokoak: *nigan*, *zuga* (22v), *nigana* (3v, 12r), *niganik* (23v) eredukoak (a):

(a) “*nigana* manso dakarkezula” (30v), “jakin egizu *niganik*” (47v), “Au egitea *zuga* asko da” (41r), “*Zuga* ereingo dan / ene azia” (22v), “presentetxoau / artu egizu *niganik*” (23v).

(b) “pensamentuau daukadala / *zuregan* enklabadurik” (30r), “Libertadeau joan jatan *zuregana*” (31v), “nik merezidu ez dot *zureganik*” (32r).

- Pertsona-izenordainok bizidunak eta gizaki-eremukoak izanik, toki-denbora kasuak *-ga-* artizkiak eraiki ohi dituzte, ez ekialdeko tradizioan, baina bai nagusiro erdi eta sartaldekoetan. Hala ere, ekialdearekin uztardura eginik, *-ta-* hizkidun formak ere ezagunak ditu idazleonek bere hizkeran. Hala darabiltza, kasurako, *zuetan* eta *zuetara*, biak pluralak. Bide batez gogorra dezagun gaur egungo bizkai euskararen ere badirela horietarikoak, *nitara*, *zutara*, *gutara*, *zuetara* erakoak, balio semantiko mugatuaz bada ere³:

“*zuetan* miiu ifinterako, / banago lotsaz beterik” (23v), *zuetara* joan joazen orduan (45v).

- Izenordaina foku izanak ez daroa berekin izenordain bihurkariaren presentzia; forma neutroak dirau halakoetan. Ondoko hau dugu ingurune argia, non *zuk* eta *nik* aurrez aurre jartzen dituen, 2gn pertsona hanpatuz: “*zuk* legez ditut nik naruru zuriak” (33r).

1.2. Forma bihurkariak: *neur-*, *neurau*; *eur*; *geu*; *zeur-*, *zeurori* izenordain ereduak.

- Sartalde euskara guztian, testu honexetakoak dukegu *-r* amaieradun aldaeren lekukotasun bakanetarikoa, oker handi barik. Izkribuan *neur*, *eur*, *zeur*, *geur* ereduko itxurak ageri dira, sartaldean gerora nagusitu diren *-r* bakoien lekuan; ekialde tradizioko Axularren *neurk* erakoetatik hurbilago daudenak sartaldeko edota erdialdeko forma nagusietatik baino. Bizkaian euskararen sartalderengo mugan dagoen Nerbioi aldean dirauen *zeurok* izenordain-itxuraz aparte, Lazarragarenean dakusagun *zeure* legezko posesiboetan ez bada,

³ Gernika aldean neuk jende zaharrari entzunak dira, senide barrukoen antzak adierazteko kontestuan: *Notara emon dau? -Nitara ez behintzat... Zutara emongo eban!* Ezagunak dira guztiz, bestalde, honako esamoduok: *zuek zuetara*, *guk gutara*, etb.

-r horren arrastorik ez dugu, ez Bizkai, ez sartalde osoko euskaran. Hizkuntzaren historiaren aldetik horretan datza, besteak bestek, Lazarragaren erabileron garrantzia.

Horren gainean eraikiak dira *neurau*, *zeurori* eta *geurtxeok* erako egitura konplexuak, ekialde tradizio zaharrea ditugun *neuror/neror*, *zeurori/zerori*, *geurok/gerok* eredu-koetatik hurbil daudenak. Baina mugatzaile hurbil bikoitza ageri dute Lazarragaren formek singularrean, gerora ere gordeko den bikoitzasuna: *-au*, *-ori* atzizkietan mamitua. Erdialdeko hizkeretan ere partiketa bera dugu funtsean: *nerau*, *zerori*. Ekialdeko forma klasikoetan, aldiz, *-or/-ori* dugu atzizki bakarra, salbu *nibaur* eredu.

Izenordainotan, mugatzaile hurbilen partiketa honetara eginik dugu beraz: sing.ean lehen gradurako *-au*, beti *neur-* lehen pertsonaren gainean eraikia; bigarrenarako *-ori*, *zeur-* bigarren pertsonakoaren gainean eraikia, eta pluralerako *-ok* bakarra, pertsona bietarako. Hala eraikiak dira testuko *neurau*, *zeurori* eta *geur-txe-ok*.

- Egitura konposatutun bihurkari horiek aposizioan erabilirik ageri dira maiz, modu nabarian gainera; hau da, izenordain beraren forma neutroaren ondoan; gehienetan hau aurretik dela; ez beti, hala ere. Gaur egun ere indarrean eta bizi-bizi dirauen sistema, *ni neu*, *zu zeu*, *gu geu* erako segidak aurkari-tza kontestuetan.

Izenordain biok jarrai-jarraian daude batzuetan eta ohiko ordenan: neutroa aurretik eta markatua ondoren dela (a); hala ere, ordena iruntzitakoa dutenak ere badira (b), eta inoiz bata eta bestea urrunduago kokaturik ere ageri dira (c):

(a) “*ni neurau* nago / galanto informadurik” (41v), “Begiratu baga zuk ni nor naxan, / salbo *zu zeurori* nungo zarean” (13v).

(b) “*neurau ni* ezkonduko nax sarri” (36r).

(c) “*zuk* banozu sentietan / sentitzen zaitut bai *zeurori* bere” (32v).

Bestalde, errepika egitura agerikorik egon ez arren ere, bihurkaritasun kontestuan darabiltza beti-beti forma markatuok:

“aldi bat leku sekreto baten / *neuroni* zidan agindu” (25v).

– Banaka emanik, izenordainak ondoko kasuotan ageri dira:

- Lehen gradurako eredu bietako forma bihurkariak ditugu, *neur* eta *neurau* erakoak. Kasu oinarritzkoen formak hauek dira: abs. *neurau* eta honen ald. indartua, *neurtxeau* –*neur* ez dugu lekukotu–; erg. *neurk* eta *neuronek*; dat. *neuri* eta *neuroni*. Aldiz, *neur-* oinaren edota *neure* genitibo zaharraren gainean eraikiak dira besteok: dest. *neuretako*, soz. *neuregaz* eta in. *neuregan*. Azken kasu honetarako *neugaz* itxura da sartalde euskaran nagusiki erabilia.

(a) “jauna, zaoza geldirik, / basoan *neurau* bakarrik nago” (21r), “Oi ta, bildurrak ikara nabil, / ez dakit *neurau* nor naxan” (23r).

(b) “Esan badagizu ezta faltako; / *neurk* jakin ez arren, badogu diru / juglare pare bat nogaz konplidu” (14v), “*neurk* ekusirik nola zarean / neskea, bildurrago nax” (23r), “ene laztanak gurarik eta / *neurk* ala trabajadurik” (27r), “Ene bearra da, ezta zurea, / *neurk* konfesatzen dot au a la clara” (39v); “eze an gura dot *neuronek* emun zuk agindu deustazun sobrea” (3r).

(c) “(...) ene semea / *neuri* bano oba deretxudana” (14r), “Aldi bat leku sekreto baten / *neuroni* zidan agindu” (25v).

(d) “zorigatxean oi *neuretako* / amorea dot ezautu” (11r), “*Neuregaz* neben libertadea / eroan zidan berekin” (27r), “zerbait litzana *neuregan* rezeladurik” (45r).

- Bigarren graduan, hitanoz diharduenean *eur-* dugu: erg. *eurk*:

“Igo egin laster, eze / *eurk* dakusken erietan” (43r).

Bigarren graduan, zuka neutroaz ari denean, forma indartu bietarikoak darabiltza: abs. *zeur* ere bai, baina batez ere *zeurori*; ergatiboan *zeurk* eta *zeurrorrek*; benef. *zeuretzat*. Osterantzeko kasuetan, adl. *zeurgana*; abl. *zeurganik*, biak *zeur-* oinaren gainean:

(a) “zure lekuan ederra nor dan / *zeur* ezpazara ez dakit” (41v), “Doristeo, zegaiti zoaz *zeurori*, bada, galdurik” (11v), “Neure begiok goratu neben; / ez neben pensamenturik, / dama galanta, an zeonzela / oi ta, *zeurori* bakarrik” (20v).

(b) “Zegaiti dakizun *zeurk* ekusita / ez naxana min baga kexaetan” (14v), “*Zeurrorrek* emun dozun gero / kausa orejinalea, / remediotzat ar ezazu / *zeurrorrek* sufrietea” (15v), “Oi aserratu deraustazu, (...) / *zeurrorrek* ala gurarik” (47r).

(c) “Kundizio kurelok, nai bekizu / *zeurganik* kenzaitea” (32v), “zeure bularrok jan dagizula / *zeurgana* sartu artean” (30v).

- Lehen gradu pluralean darabiltzan formak, absolutiboan *geur* eta *geurtxeok*; bigarren hau *geurok* formari barruan *-xe-* erantsirik.

“Erabilten gaitu ilabetean / bere tripearenzat errastruan; / *geur* barriz tiri taio konbentuan” (28v), “ene laztana solas daigun / *geurtxeok* biok bakarrik” (21r).

- Bigarren gradu pluralerako, *zeurok* eredia dugu; gorago esan bezala, Orozko, Zeberio eta Nerbioi goienean oraindino bizirik dirauen forma zaharra, funtsean *zeur* + *-ok* osagaiez eraikia. Bizkaiera klasikoan ere, sartaldeko

autoreetan (Añibarro, J. M. Zabala) ondo oinarriturik daude eredu honetako formak.⁴ Beheratxoago dakusagunez, genitibo posesiboa *-en* markaz eraikitzen du, *-on* hurbilaz barik, ditugun datuen arabera behintzat:

“zeruko jaunak, oi, ez liela / amoreokin ditzarik;/ zerren da *zeurok* serbietako / ez daben konstanziarik ” (24r).

- Hirugarren pertsonarako gradu neutroan *bera* dugu singularrean (a), batzuetan aposizio egituran erabilia: *agaz beragaz* eta *jaun zerukoak bertxeak* (b), bigarren hau *-txe-* graduatze-hizkia barruan duela.

Gradu hurbileko formak, *berau* eta *berori* ere badarabiltza. *Berau* eta honen erg. *beronek* lekukotuak dira behin edo behin (c). Eta *berori* 2. gradu-koa, erabili badarabil, baina ez 3. pertsonarako, 2.eko goi tratamendurako baino: *berorika* diharduela, behin gutxienez, *berorren* forma (d):

(a) “Oi, orain barriz nik ifini dot / *bera* kateaz loturik” (27v), “zegaiti *bera* ezta etzingo / oean zabal zabalik” (28v).

(b) “Nik laztan bazaitut, *agaz beragaz* / pagatu bearko dozu zeure zorra” (39v), “Oi, arrezkero *Jaun zerukoak / bertxeak* daki bakarrik, / Katelinatxo, nola nagoan” (20v), “eroan even / *Kristo bera* loturik” (46v).

(c) “ene zaldiau dabilela / *berau* pilotu, *berau* bela, / jan baga fatigadurik” (46v), “Encantadora Medeak baiño denpora baten Jasoni *beronek* bere ezteidio falta geiago damari” (46v).

(d) “*berorren* serbitzaria nax ta, / ez niri barriz burlarik” (41v).

Toki-denbora kasuetan, adberbioetan diren berberak baino ez ditugu idoro: *bertan*, *bertati* ereduak, beheratxoago azalduak.

- Hirugarren pertsona pluraleko mugatzaile biekiko formak dira: *eurak* eta *eurok*, generikoa eta hurbila, nahiz bata eta bestea bakan erabiliak diren:

(a) “*Eurak* biak oi ebiltzen / bapere baga lagunik” (25r), “*eurak* dakie kuraetan / min oria ta gorria” (44v).

(b) “bobedaxeok / itxi dau *eurok* bakarrik” (48v).

- Erakusle bihurkariaren paradigma berekoak dira zenbait adberbio bihurkari ere, *ber-* + *-tan* / *-tati* / *-tara* / *-tako* taiukoak. Izkribuan ageri direnak, ines. *bertan* eta abl. *bertati*, *bertarean* dira. *Bertati* eta *bertarean* denborazko

⁴ Cf. J. M. Zabala: “Aushe berau esan bear deusuet nic bere *ceuroi* neure entzula maite-ai” (Aranz 175). Baina gaur Nerbioi-Zeberio alderdi horretan bizi den *zurok* (zuek) formaren azterrenik ez dugu tradizio zaharrean. Antz osoa du, *zeurok* bihurkariaren analogiaz beranduago sorturiko forma neutroa dela, *zuek/zuok* zaharragoen kaltetan.

aditzondo legez erabili ohi dira, bizkaiera klasikoan ere ugaria den kategoria eta balio berberaz, bat-batekotasun zentzua gordeaz:

(a) “badanik bere *bertan* eben / zerbait litzana somadu” (26r).

(b) “Sirenak bisitadu balegi, *bertati* osatuko zala” (5v), “Neure aragiok dakustanean / (...) / *ber[ta]ti* jasarte'nax eresketan” (27v), “*Bertati* dakar gizonaentzat / ardurea ta plagea” (42r).

Bihurkariok sarri ohi dutenez, apozizio funtzioan ageri dira izkribuan ere behin baino sarriago:

“*orretan bertan*, oi, bear dozu / geratu satisfetxaririk” (41r), “nun idoro eben (...) itxi eben *maneran bertan*” (1v), “puntu artarik *bertarean* / ilundu zidin zerua” (47v).

- Izenordainok direla-ta, *-txe* graduatzailearekin duten erabilera ugaria gogorarazi behar da azkenez, zeren gerora testuetan bakan baino ikusten ez den joera baita. Hala darabiltza: *neurtxeau*, *bertxea* (20r), *geurtxeok* (21r) bereziki. Atzizkiorren balioa ez da hemen gutxitzailarena, beste kategoria batzuekin ohi denez, *nor*-izatea indartzea baino, lat. *ipse* horren hurrekoa:

“Oi, bada bere bizi oi nax / (...) / zitudetxo txikir batean / *neurtxeau* bakar-bakarrik” (24r), “Guztia oiñak garbitu eusten, / *bertxek* umilladurik” (49v).

Adierazgarria da, bestalde, (*h*)*auxe*, (*h*)*axe* ereduko erakusleekiko forma indarturik ez agertzea izkribuan. Bai, ostera, erakusleotarik eratorririko aditzondoekin; hala *ebentxe*, *areantxe* erakusle-aditzondoetan gutxienez:

“Ene semea, / (...) / *ebentxe* bizi da ene laztana” (14v), “*areantxe* bat oi al badozu, / bila ze zatez besterik” (47v).

- Graduatzailaren presentzia dugu izenordainotan beste zehetasun aipagarri bat. Hara *geurtxeok* izenordainean dugun morfologia: *geur* + *-ok* izenordain konposatuorrek *-txe* hizki graduatzailea du erdian. Kategoria horretakoekin nekez gertatzen dena, bestalde; nahiz atzizki hori arrunta izan gaurdaino erakusle motako izenordain edo determinatzaileekin (*hauxe*, *horixe*, *haxe*) intentsitatea sendotzeko:

“solas daigun / *geurtxeok* biok bakarrik” (21r).

1.3. Posesiboak

– Forma neutroetan aipagarri da 1. pertsonarako darabilen *ene*, aldi zaharretan eta gutxienez XVIII. mendera arte forma orokorra euskara osoan, sar-

talde hizkeretan *nire* hedatu eta nagusitu aurretik. Testuan ugaria da eta askotariko inguruneetan erabilia. Aipatzea merezi du *ene bizia* formula barruan duen erabilerak. Hala:

“*Ene bizia*, geratu ninzan / andiro afrontadurik” (24r).

– Bihurkarietarako Lazarragak darabilen eredia, euskara zahar osoan eta gaur egun ere sartaldean dugun beretsua da: *neure*, *eure*, *geure*, *zeure* eta *zeuren/ zeuen* dira 1. eta 2. pertsonetako forma nagusiak, 3.erako sing. *bere* eta pl. *euroen / euren* ditugula. Erabilera nagusitik aldentzen diren forma biak pluraleko *zeuren* 2.koa eta *euroen* 3.koa dira. Bide batez gogora dezagun *neuronen* legezko genitiboko formak pertsona-izenordainen artean sartu ditugula, posesibotzat jo barik. Hara idoro ditugun formak:

Neure:

“*Neure* laztanaen amorearren / egin gura dot negar bat” (6v),
“zorigatxean oi *neuretako* / amorea dot ezautu” (11r).

Geure:

“*Geure* atzean guk darabilgu / mundua katigaturik” (15r).

Zeure:

“pa]pel baten *zeure* eskuz [eskrebidu] degidazula” (2v), “egun askotan bearko dozu / *zeure* aldean medikua” (6r), “*zeure* borondateori bes-tegan daukazuna legez, ezta mirakuru nigaz konturik euki eza” (11v).

Zeuren, *zeuen*. Bigarren forma behin darabil eta lehena, *zeur-* zaharraren gainean eraikia, birritan. Gaur ere oraindino bizkaierarik sartaldeenekoan *zeuron* hurbila indarrean da (Orozko, Zeberio eta Nerbioi aldean gutxienez).

(a) “Ez bildurrik *zeuren* biotzetan artu, artzai amoraduak” (13r),
“*zeuren* ezpataok eskuetan artuta belauriko jarri espilu onetara begira zaozela” (13v).

(b) “A gizon doloraduak eta kruelak *zeuen* bizioendako!” (14v).

Bere 3. pertsonakoak balio bakuna du beti Lazarragaren hizkeran, aniztunerako *euren* darabilen bitartean. Posesibo honek bere forma deklinatu propioak ditu zenbait kasutan; testuan ageri direnak: soz. *berekin / beregaz*, ines. *beregan*, abl. *bereganik*, adl. *beregana*, batez ere; gazt. ‘consigo’, ‘en sí’, ‘de sí’, ‘hacia | para sí’:

“artu eben *berekin* (...) arpa bat” (4v), “nola emazteagaz joan zidin jardín batera eta *beregaz* eroan eben Sirena eta Silbia bere donzeillaak” (6v), “arean da *beregan* biurtu zeitean artean” (6r), “Doristeok ekusirik zala imposible Sirena *bereganik* apartaetea” (11v), “ni legez bizi dala penaetan, (...) zugaiti kruel dala *beregana*” (39v).

Maiztasunez ageri da posesibo bihurkariau *nork bere* egitura barruan. Artean ez zuen lexikalizazio-gradurik hitz-segida honek, gaurko sartalde hizkeretan gertatu ohi denez:

“zan lastima andia *nork bere* biotzean eukan tristezea ekusten” (9r), “zeinzuk bertati *nork bere* espiluak eta ezpatak arturik, joan zirean konfusioko etsera” (13v).

Euren eta *euroen* 3. pertsona pluraleko posesiboak dira, neutroa eta hur-bila, oposizioa argiro markatzen dela. Badira beste aldaera bi ere izkribuan: bata, bitxi samarra, *eueren*, baina akatsezkoa ez dirudiena. Bestea, *euen* edo *eben* irakurri beharrekoa. Bihurkaritasun ingurunean erabiliak dira beti ere. Forma deklinatuetan *eurentzat* (25v) benefaktiboa dugu:

(a) “asi zirean Silberogaz joazen musikoak / ain dulzemente jaiten *euren* instrumentuak” (7r), “lau urtebete *euren* gabakin / zeure oiñetan naukazu” (7r), “Onela, bada, Doristeok eta Sirenak egin even *euren* biajea” (12r).

(b) “(...) al baneza, dakidan legez / *euroen* arteko apetitoa” (12v), “Ni kaso naxala baldin badago / *euroen* artera tentazioa” (26v).

(c) “ekustenean *eueren* oneretxiak remediorik emaita ez eustela, ia eozen *eueren* esperanza galdurik” (14v), “geratu zitezen espantu eta tristeza andiaz, *nork bere even* oneretxia galduagaiti” (13r)⁵.

(d) “Remedioa bila zitezen, / *eurentzat* gora kostarik” (25v).

– Sintaxiari dagokionez, izenaren eskumako lekuan duen erabilera, adjektiboaren kokagune berbera, aipagarri dateke. Ohar bedi behin baino sarriago ageri dela *ama* senidetasun eremuko izenaren edota *biotz* (10r), *begi*, *laztan* afektibitate gradu handiko izenen alboan. Eskuma posizio horrek adierazkortasun berezia markatzen duela deritzagu, gizakiarentzat bere-bere den zerbaitekiko lotura adierazten duena. Hala:

(a) “Ilabete ez egian / *ama berearen* ugatzetan” (43r), “Silberoren partierea / oi, aditurik Silbiak, / damu andia, oi, eben artu / *biotz berean* menetan” (19r).

(b) “*Ama enea* seme бага / zuk ifiniko al dozu?” (7r), “*Ama enea* seme bageaz / oi, zuk zer probetxu dozu?” (7r), “*Laztan enea*” (50r), “liburuan bere jarri oi naiz, / *begi neureok* lausotu” (50r).

⁵ *euen* / *eben* hori *edun* aditzaren 3. perts. pl. adizkia ere izan daiteke, baina kontestuan posesibo izatea hobeto dator.

1.4. *Nor bere* izenordain konplexua

Gaur egun hiztun gehienon senean guztiz lexikalizatuak den *norbera*, *norbere* konposatuon atzean osagai biko egitura dugu, Lazarragaren eta tradizio zaharreko beste izkribu askotan garden ikusten dena. *Nor* izenordain anaforikoa lehen osagaitzat, gehienetan *nork* kasu ergatiboan, eta gutxiagotan *nor* eta *nori* beste kasu oinarrizkoetan ageri dela; eta bigarren osagaitzat *bere* posesiboa. Gure izkribuan *nork bere* erakoak dira erabilerarik gehienak (a); bat bada horraitino *nor bere* eredukoa (b), eta kasu baten behintzat *bere* posesiboa mugatzaileaz eta deklinaturik darabil (c). Lazarragak maiztasunez dakar:

(a) “zan lastima andia *nork bere* biotzean eukan tristezea ekusten” (9r), “eta artu even *nork bere* armak” (13r), “*nork bere* even onerretxia galduagaiti” (13r), “zeinzuk bertati *nork bere* espiluak eta ezpatak arturik, joan zirean” (13v), “asko dabilta / kureldo desterradurik, / *nork bere* etse / apaindurean urtenik” (49r), “Oi, ez kargadu / *nork bere* konzenziarik” (49r).

(b) “el zitezkeano, nun *nor bere* ugazaba banakin” (12r).

(c) “*nork bereari* / oi, ezin kobru emunik” (48v).

2. MUGATZAILE MARKAK

2.1. Mugatzaile oinarrizkoaren erabilera berezi bat edo beste

-*a* mugatzaile bakuna dela eta, aipagarri da *ama* izenari dautsala duen erabilera, *amea* itxurapean, gizaki baten ama izendatzeko kontestuan:

“Badanik bere / *amea* baleu ain onradu” (44r).

Eta, espero zitekeenez, ugariena (*h*)*ain* neutroa dugu. Baina honek, gorago ikusi dugun *ainbat* markaren kasuan legez, sintaxi egitura ugariagoak onartzen ditu. Batetik, goiko biak legetxe, adjektibo-adberbio kategorien graduatzaile zereginetan ageri da, baina berezitasun batekin: /izen + adjektibo/ erako izen multzoei loturik ageri da maiztasun handiz; aurreko biek in nekezag gertatzen dena eta testuan ikusi ez duguna. Hala:

¹⁸ Bakoitzaren adibide bana emango dugu. J.A. Mogel: “ezta pekatu izango biar duin urun eralgitia” (*Doc. Crist.* 120). Pedro Astarloa: “Etzan aurkituten Jaungoikuaren beian, bera pagetako duin zan ondasunik” (UD, I, 70-71). Frai Bartolome: “Ta ez dauka inok zetan pensau, kristinaubak bakijeala salbetako duina dotrina” (Ikasik I, 8).

(a) “akordadu eben joaten artzai baten figuran erri aetarik, ez *ain bizi lazeradua* iragaitarren” (9r).

(b) “*ain andia* dan azkero” (1r), “zuri deutsudan amorioa *ain firmea* dan azkero” (11v).

Baina egitura banakarien lehen marka modura ohi darabil sarriroen, batez ere *ain ... eze* egituran, ondoriozko mende-perpauzak eraikiaz:

“arpea iramo eben *ain* furia andiaz, *eze* utra pedazu asko egin zan” (5r), “urten eben *ain* laster Silbero egoan lekurean, eze ez zan bastadu inorbere biurket[e]a” (6r).

“Eta *ain* da nik deutsadan amorioa andia, eze neure erriari itxirik nator aen eske” (10v).

6. KONKLUSIO GISA

Artikulu honetan Lazarragaren hizkeraren gaineko azterketa izen sintagma eremuko gramatika-kategoria jakin batzuetara mugatu dut, behar zen neurriari kontu eginda. Hemen aipu ditudanez eurez ere gehiago eta sakonago iker zitekeen. Baina, dena den, hautatu ditudan gramatika-formak zehatz eta tstuaren osoari begiratuta aztertzen saiatu naiz. Erreferentzia puntu gisa, ahaztu barik izan ditut garaiko eta ondoko mendeetako testuetako erabilerak, eta arreta bereziaz sartalde-hizkeretakoak zirenak. Aztertu dugun eremu edo barrutian ere daturik deigarrienak jo ditugu begiz, ohikoak eta orokorrak zirenei gainbegirada soila eginez.

Lazarragaren obrak, dena dela, hizkuntzaren aldetiko azterketa sakonagoa eta osoagoa eskatzen du, edozein ertzetatik hartzen dela: lexikoaren, sintaxiaren, morfologiaren zein fonetikaren alderditik. Zenbait azterlan egin dira jadanik, baina egitekoak gehiago dira. Aurreragoan guk geuk ere horretan jarduteko asmoa dugu, geuretzat berariaz interesgarri diren beste puntu berezietan induska. Hala bedi.

7. BIBLIOGRAFIA

- KINTANA, Xabier (2004): “Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan”, *FLV*, 97, 581-595.
- (2005): “Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak”, *Euskera*, 50. znb., 2005-1, 129-159.
- LAKARRA, Joseba Andoni (2004): “Lazarragaren eskuizkribuaren atariko filologia-azterketa”.
In http://www.erabili.com/zer_berri/muienetik/1077268834
- PAGOLA, Rosa Miren (2006): “Lazarragaren eskuzkribua: grafiak, hotsak eta hitzak”, *Oihebart. Cuadernos de Lengua y Literatura*, 21, 539-561.

MILAFRANGA: *DUZÜIK* ADIZKI BITXIAREN IRAUPENA ETA *IZAN = UKAN* IRAGANGAITZEAN

Koldo ARTOLA

Duela hamabi bat urte, Pedro de Yrizar (g. b.) ikertzaile azkoitiarrari lagundu nahiz, Lapurdiko Milafrangan aditzari buruzko inkesta bat betetzen ari nintzela, *duzüik* adizki bitxiarekin topo egin nueneko lekukotasunaren berri ematera nator. Delako inkesta Yrizarrek bere *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* izenburuko lanean argitara eman zuen, euskalki honen baitan sailkatu baitzuen Louis-Lucien Bonaparte printzeak, besteak beste, Errobi ibaiaren sailhetsean kokatzen diren herrietako mintzamoldea.

Aurrekari modura, zilegi bekit 1993ko uztaillean Yrizarri bidali nion adizki horri buruzko txosten txikia hona ekartzea, txostena, hain zuzen, Yrizarren lanak oinarri zuen ohiko esparrutik kanpoko gauza nimiñoa izatean, argitaratu gabe geratu zenez. Honela idatzi nion orduan Yrizar maisu handi, langile nekagaitz –bere adinean!– eta adiskide bihotzekoari:

duela zenbait hilabete bidali zenidan Bonaparte printzearen *Le verbe basque en tableaux* izeneko lanean irakur daitekeenez, iragan mendean –hark bere bilketak egin zituen denboran, alegia– Milafrangako Argintz-Karrika auzoan *duzüik* gisako adizki bitxia erabili ohi zen.

Aurrera egin baino lehenago, baina, eta horri berorri buruz Bonapartek idatzi zuen ohar luzea ere hona ekarri aurretik, ‘nor-nork’ saileko orainaldiko ‘zuek hura’ adizkiak –duzüi, hain zuzen– ari naizela esan beharrean nago. Errobi ibaiak zeharkatzen dituen Itsasutik Milafrangarainoko herri guztietan edo ia guztietan erabilia, orainaldiko emaitzak, zuketan eta singularrean, dut, duzu, du, dugu, duzüi eta dute direla. Iraganaldian, eta hau gehigarri gisa diot, emaitzak honakoak izan ohi dira: nüin, zintüin, züin, ginüin, zinuten eta zuten.

Hona, beraz, eskuartean darabildan gaiarekin zerikusi zuzena izanik, arestian aipatu Bonaparteren lanean (*Observations*, XX. or.) irakur daitekeena:

Nous n'avons trouvé de terminatifs en *züik* que dans cette partie de la commune de Villefranque connue sous le nom d'Argintz-Carrica. A Villefranque même, ainsi que dans les huit autres communes où l'on fait usage de la variété d'Ustarits, la principale du sous-dialecte bas-navarrais occidental du Labourd, on dit *duzüüi*, et non pas *duzüük*. Ce dernier terminatif est donc une exception toute locale et des plus curieuses¹.

Oharra hein batean laburtu dut, Bonapartek, horren haritik, luzeska teorizatu baitzuen, gaiari honako amaiera emanez:

Quant à *duzüük*, ceux qui pourraient être tentés de voir dans ce cas exceptionnel quelque chose de contraire à ce que nous venons de dire, n'aurons qu'à réfléchir: 1°. que l'apparition de *züik*, quoique ayant plusieurs siècles de date, est indubitablement postérieure à l'époque de la manifestation verbale dans le terminatif, puisqu'on n'a commencé à se servir de ce pronom pluriel que lorsque *zu* a été adopté d'une manière exclusive pour le singulier respectueux; 2°. que *züik*, représentant tout aussi bien le sujet qui régit l'intransitif que celui qui régit le transitif, il n'y a rien qui prouve que ce soit ce dernier plutôt que le premier qui se trouve en *duzüük*: *züik züzte*, *züik duzüük* 'vous êtes, vous l'avez'. Si le fait qui a lieu avec *züik* avait lieu avec *zu* et *gu*, pronoms qui font une différence entre le sujet actif et celui qui n'est pas tel; si à Arguintz-Carrica enfin, on se servait de *duzük* comme on se sert de *duzüük*, c'est alors que nos idées sur l'époque de la manifestation du verbe se trouveraient en défaut, mais à Arguintz-Carrica, quoiqu'on se serve de *duzüük* au pluriel, on se gardera bien, comme partout ailleurs, de se servir de *duzük* au singulier ou de *duük*, les terminatifs de cette localité étant: *duzu*, *duu* 'tu l'as, nous l'avons', et *duzüük* 'vous l'avez'.

Honenbestez, Yrizarri bidali gutunari jarraipena damaiot, zeinean adizki horren balizko arrasto bila eginiko saioaren berri ematen den.

Hori horrela, eta gure egunotan ere delako erak bizirik ote dirauen jakin nahiz, handik egun gutxira auzo horretara joan eta bertako hiru etxe euskaldunetan harako galdera egin nuen ezezko borobila jasoz, ez omen dutelako inoiz horrelakorik aditu. Diodan, bide batez, Argin-Karrika dela gaur egun han erabiltzen duten izena nahiz, galdetuz gero, Argintz-Karrika ere bai, aditu egin dutela dioten.

¹ Bonaparteren oharraren honainoko zatia erabili zuen Yrizarrek bere *Morfología...*-n (381 or.).

Alabaina, handik hilabete pare batera edo, artean ezagun berri xamarra nuen Jean Kopentipi Haranbure² jaunak bila genbiltzan adizkiarekiko berri zuzena eman zidan, nahiz berak *duzüik* hori Argintz-Karrikan ez baina, Behere-Kartierean (frantsesez Quartier-bas) kokatu zuen³. Hona, beraz, bien arteko solasaldia nolatan zertu zen:

Aurrera egin aurretik, baina, eta laburki bada ere, datuak transkribitzean erabili dudan zenbait zeinurekiko ohar batzuk egin beharrean naiz:

1. Ia aditzen ez diren hizkiak parentesi artean idatzi ditut.
2. Bokal batzuk, *e* eta *o* zehazki, batzuetan itxi egiten dira *i* eta *u* bezalakoetara hurbilduz. Halakoak *ë* eta *ö* idatzi ditut hurrenez hurren, egitate horien berri nolabait islatzeko.
3. Bi eratako tildeak erabili ditut: indar edo intentsitate handiko azentua aditzera emateko (´), bat, eta hori baino txikiagokoa (˘), bestea.)

Hona, orain bai, Kopentipi lagunak eta biok izan genuen elkarrizketa:

- Joan den mendeko lan batean erraten denez, denbora hartan, Milafrangako Argintz-Karrika auzoan, *züik jan*⁴ *duzüi* errateko partez, *züik jan duzüik* erraten zuten...
- Ah, bai, ói... Beréko Kartiéren berriz: *züik... züik!*
- *Züik*, bai, *züik* (= ‘zuek’); baina *jan düzüi* erran ordez, *jan düzüik*.
- Bai, Behéreko Kartiérëan.
- Egun batez, hona jin aitzin, Argintz-Karrika horretan izan nintzen, baina hango jendeak ez du aditu. Saussie jaunari ere galdegin diot [gizon hau *Eiberattoa* deritzan Jeanen etxetik Hiribururanzko bidean bizi den laboraria da, baina Argintz-Karrikan sortua] eta berak ere: “guk *jan düzüi* erraten dugu; *duzüik* ez.”

² Elkarrizketa hau berriemailea sortu Milafrangako *Eiberattoa* bere etxean, 1993-07-03an, izan genuen, Kopentipi jauna 73 urtetan zela. Haren aita ere etxe berean zen sortua; ama, berriz, Arrangoitzen.

³ Yrizarrek, aipatu *Morfología...*-n (381 or.), Bonaparteren *Manuscrito 51*etik harturiko ohar bat dakar, honela dioena: “*duzüik* – med. XIX: Q.-bas (Villefranche) (Bon-51: ‘*duzüik* au quartier bas seulement’, dice Bonaparte, y en otro lugar de este manuscrito: ‘Milafrangako behereko kuartiera: *duzüik* = vous l’avez’).” Kontraesana agerikoa da Bonapartek emaniko informazio hauetan, aurreneko oharrean era hau Argintz-Karrikan erabiltzen zela idatzia baitzuen.

⁴ Ahoskatu, ‘yan’ ahoskatu ohi da Iparralde osoan, Zuberoan ezik.

- *Jan duziük*, Beré-Kartiéeran.
- Bai? aditu duzu inoiz *duziük* erraten?
- Eh! hémen éz, Behè-Kartiérien! Beréko Kartiérien (h)or... Quartier-bas.
- Han bai?
- Bai; *zeúziük?* *zeúzi* erráteko pása; guk, *zeúzi* errán e... *Zeúziük?* (haiek)
- Bai, e? zuk aditu duzu?
- Ai, bá-bai-bai...
- Alta, orain hilabete batzuk Argintz-Karrikara joan eta han erran zautaten ezetz...
- Izan dút (h)an, han, zéra hilák eta... àuzo hónen e, hilá da oai; hàrreki-láan ta, hàla zíren, hángo zéra... hítzak erràten tzitüín, Beréko Kartiéreko (h)itzak [barrez]. Atèratzen ginüín geo: *záuziük?* (sic)... *èztuziük?*
- Ah, baina erran duzu hura hil zela...
- Ba, bá-bai.
- Baina ez zen Argintz-Karrikoa? Behereko Kartierekoa zen?
- Béreko Kartiérögöa zen. Hemén ebilté zen, áldean, (h)orr etxé (b)ateán. Beré-Kartiéeren... sórtuá (sic) ta handík e... jína... handítüia huná(t).
- Zer zuen izen gizon hark?
- Mendíbur(e).
- Eta izen ttipia?
- Adrie(n). Tá... izan dú⁵ (h)emen, hori dá aspáldi; izàin (t)zitüín laatóin ta hála güt(t)i-góiti!... laetóin ta... hamórtz úrte eo izáin, izàin tzitüín, bai...
- Orain, orain; bizi izanez gero lauretan hogeita hamabost urte izanen zituen...
- Hamáborz bá; en... quatre-vingt-dix-huit sortüia zen, eta... zerá, arnó-martxánköa iten tzüín, iánde góizetan, aizétse⁶ batean, eta... ma(g)ásina

⁵ *du* hori ‘du(u)’ = ‘dugu’ da, antza denez.

⁶ Azkuek, bere hiztegian, honela dio: **aizetse** (R-is, Sc), casa de la villa, de ayuntamiento: *hôtel de ville, mairie*. (De AIZO-ETXE). Hitzaren hedadura, honenbestez, uste baino zabalagoa da, antza.

- (b)átean, lánéan, Bàionán? ta gëó, iànde goizetán? ba, arnó-xági báteta-kó, arnó-martxánt...-zeká, artzén tzén⁷... komànden hártzen, ì(b)iltzé tze(n)... nàhi duzú hunát, e?
- Komandant? [gaizki ulertu-eta, nik]
- Komándak, bai... zérak, nórk nàhi züin árnua! barríkaka saltzén zen órdüian, zién berróita amár pintáko barríkak eta hóla, zéra batzúk, barríkak pinttá batzutan; holàko gauzén iánde góizetan; ta, “Alors, eztúzüik oíno finí arno húa? [barrez], eztúzüik?”
- Ah, interesgarria da hori, e?
- [errepikatuz] “Eztúzüik oíno finí arno (h)úa? ala zeáuzüik? úra eáten?” [barrezka]. Hálantxé!... gáiso gizóna! dénborá pàsa be(h)ár galditzéat (...), àrno-martxánta tze(n). Badít (?) àrno-martxánta erràten gínakon⁸, bai. Ba gizon... gozo át zen. “Alors! éztúzüik oíno finí arno húa? ala úra éateuzüik?”
- Hara, uste nuen hori ez zela jada ezagutzen...
- Ba, oái utziaúte, e? héik e, Bèhe-Kartiére eman, utzia da.
- Ah, ez dute gehiagorik erraten? ez duzu uste?
- Ez, eztúte géhiagoik, éz-ez; léhenó zahárrek, bàldin badiogú zónbet, xahár, bìzi dienák, heék? ba...
- Dena den, nik aditua nuen eta are irakurria ere hori ez zela Behereko Kartierean erabiltzen, Argintz-Karrikan baizik...
- Ez, hòi Beré-Kartiérien pronúntziatzen zuten, Quartier-bas, anótatzen: *duzúik!*
- ‘Zuten’ diozu, ez baituzu uste egungo egunean erabiltzen denik, baina zuk aditu duzu, etsenplu onak eman baitituzu...
- [barrez, onartuz edo] Bá-bai-bai! bai... Bazén or, oái düíla... ezáutu nüín ník e, hiru-làu urtetán híla da; Beré-Kartiérien sortúia zén, ta... hàrrek bazitüín... laètanoi urté inen zitüín áurten.

⁷ ‘aritzen, ari izaten zen’, itxuraren arabera.

⁸ Milafrangan, Bonaparteren eta Yrizarren beraren arabera, Uztaritzeko barietateari dagozkion beste herri batzuetan bezala, ‘diot’ eta ‘dakot’ buru duten gisako adizkiak adi daitezke.

- Lauretan hogei?
- Lauetan (h)ogoi, urté.
- Eta duela lau urte-edo hila?
- Ba, eztákit láu urté ikáro dirén, e? eztakít láu úrte ikáro diren.
- Tira, guti-goitibeheiti...
- Betí, harrék e, hóí, hóla erratén tzüin: *zéuzüik?* *zeúzüik?*
- Hark ere bai? eta ze izena zuen?
- Laborde; Laborde, Jean...
- Eta hura ere Behere-Kartierekoa?
- Bai, bai... Beré-Kartiérien sortüia zén ta hán... (h)án bizi izána betí... Hárrek èiten tzüin hán eta, pronòntziazten züin, ba, *zúik*⁹.

---oOo---

Handik denbora pixka batera, 1995eko udan zehazki, lehenxeagoko urte-etan Yrizarrentzako inkestaren erantzule Jean Kopentipik emaniko lekukotasuna gogoan izanik, Behere-Kartierera jo nuen, auzo honetan lehenagotik egonik banintzen ere, oraingo aldian Pierre Oihenart Durritxaga jauna¹⁰ eza-gutzeko zoria izan nuela.

Eskuartean dudan gaia dela-eta galdekatu egin nuen noski, hark, behin berriro, *duzüik* gisako era eman zuela. Galdera, baina, era ximplean egin nuenez -hau da, adizkiak, erlatibo-esaldi baten barruan txertatuz gero, menturaz sorraraz zezakeen balizko **duzüiken* bat-edo kontuan hartu gabe-, handik lau urtetara, 1999an hain zuzen, beste ikustaldi bat egitera joan nintzaion. Hona xede horrekin nik prestatu galderei hark emaniko erantzunak:

⁹ 'duzüik' esan nahi izan zuen, itxura osoan.

¹⁰ Pierre 1925-11-01ean sortua da aipatu kartiereko Jelosia auzo txikiko *Prostaenia* etxean, gurasoak ere, biak, auzo horretakoak zirela: aita etxe berekoa eta ama *Portüia* etxekoa.

1 - erlatiborik gabeko galderak	erantzunak
vous avez acheté une maison (id. id. id.) vous avez acheté beaucoup de maisons vous avez acheté toutes les maisons	züik eòsi duzúik etxéa züik e ètxe bát eòsi duzúik etxé ánitx eòsi duzúik (singularrean emana) züik ètxe guziák eòsi ditutzüik ¹¹
2 - erlatiboa erabili beharrekoak	erantzunak
le cheval que vous ¹² avez emmené est joli (id. id. id.) le pain que vous avez mangé était bon toutes les maisons que vous avez achetées sont jolies tous les pains que vous avez mangés étaient bons (id. id. id.) le chien que vous avez emmené est blanc tous les chiens que vous avez emmenés sont jolis	zaldía ekàrri duzuná pullíta da züik ekàrri duzúin zaldía pullíta da ogía jan duzúiná oná zen ètxe guziák eròsi tutzúinák pullítá tia ògi guziá jan duzúiná oná zen (singularrean emana) jàn tutzúin ògi guziák onák tzien züik ekàrri duzúin (t)zakurrá xuría da zàkur guziák ekàrri tutzúinák pullíta tia

Erantzunak ikusi ondoren garbi geratu zen zorioneko *duzúik* hori –plurallean *tu(t)zúik*– bakarka doalarik erabiltzen dela soilki, erlatiboko esaldi bat gauzatzeko erabili ohi den *-(e)n* menderagailua gaineratzean, *duzúii* arrunt bati –plurallean *tu(t)zúii* bati, beraz– atxiki behar zaiola.

Horretaz landara, eta sintaxiari behatuz oraingoan, zenbait erantzunek, ekialdeko mintzamolde batzuetan bereziki (R, BN-s...) inoiz agertzen den *gizon xin dena...* moduko esaldian azaleratzen den egiturarekin zerikusia dutela ikusirik –nahiz erantzunotako izenak edo, bere kasuan, izenordeak mugaturik ageri diren– Pierre jaunari zenbait galdera egin nion:

- Batzuetan erraten duzu ‘ekarri duzúin zakurra...’ eta beste batzuetan ‘zakurra ekarri duzúina...’; berdin dea?
- *Ekarrí... duzúin zakurrá?* eo... eta gëó?
- Edo, bestela, ‘zakurra ekarri duzúina...’
- *Ekàrri duzúin zakúrra* polít e... pöllitá baino, *ekàrri zúin, ekàrri duzúin tzákurra*.

¹¹ Objektu pluralarekin erabili ohi den ‘tutzúik’ adizkiaren laburbildu gabeko era dugu *ditutzúik* hau, bistan denez.

¹² ‘Vous’, esaldi iragankor honetan, ‘zuk’ eta ‘zuek’, biak izan daitezkeenez, eta Pierrek bietako lehenarekiko gogoeta egin zuenez, errepikatu egin nion galdera ‘zuek’ izenordea erabil zezala eskatuz.

- Hobeki, ezta? ‘zakurra ekarri duzüina’ ez da hain polita, ezta?
- Eeee? *tzakurrá, ekárri duzüiná* eztá háin pullita.
- Baina erraten da hori ere?
- Baá, *zákurra... ekárri duzüín, ekárri uzüín tzakurrá* pollíta dà; *kárri duzüín zakurrá* pullíta dà.
- Eta ‘zakur ekarri duzüina’?
- *Zákur e... ekárri duzüiná?* pullíta dá.
- Nola dago hobeki? ‘zakurra ekarri duzüina...’ edo ‘ekarri duzüin zakurra...’?
- Ah, éztakit; *ekárri dizüín* (sic) *zakúrre*, pulíta da; è’ba ahál hastétik emán oi?
- Bai, eman duzu baina zenbait aldiz ‘zakur ekarri duzüina...’ eman duzu; honela ere erraten ahal da?
- E... bai, bai...
- Erraten ahal da...
- Bai.
- Baina, bestea da politagoa?
- Bai, bai, oi é erràten ahal dá; errátea... *ekárri duzüín zakurrá* pöllíta da bertzeláz, e... haástetik behar dá erraná, *ekárri duzüiná*, ta geó (e)re, bertzelá erràten ahál da nor dén eo, *tzakurrá...*
- ... Ekarri duzüina.
- *Ekárri duzüik, oui.*

Adizkera bitxi honen egundainoko iraupenaz zein testuinguruaren araberrako erabileraz lekukotasuna emateaz landa, Pierre Oihenart jaunarekin egoniko denboran berak, iragangaitzean, *izan* eta *ukan* adizkiei ematen zien berdintasun-tratueraz ohartu nintzen. *Ukan* honek, honela, *izan* aditzaren sinonimo gisa duen balioaren berri Yrizarrek ematen du lehen aipatu *Morfología...*-n¹³, 1974an Louis Dassance zenarengandik errezibituriko datu batzuk aditzera ematean –zeinetan, bestalde, lehen aipatu balizko *duzüik* era-

¹³ Zehazki ‘Subvariedad de Villefranque’ri eskaini ‘Fuentes’ atalean (369 or.).

rekiko azkoitiarrak egin galderari ezezkoa ematen zaion-; hona Yrizarrek *Morfología...*-n eman datuotatik lan honetarako aukeratu ditudan zatiak:

Villefrange / Milafranga (1974) - LOUIS DASSANCE y l'ABBÉ ETCHEVERRY (designados por DE). *Comunicaciones personales* - Me decía Dassance, en su carta del 23 de enero de 1974: (...) - Decía también: "Milafrangan askotan aditzen da: 'Baionan *ukhan* niz' (j'ai été à Bayonne), guk aldiz, 'Baionan *izan* niz', eta abar" - En su carta de 11 de febrero de 1974, escribía: "Huna, Etcheverry jaun apezaren laguntzarekin, Itsasuko eta Milafrangako galdeketak (...)" - Agregaba, respecto a mi consulta sobre el empleo, en el barrio de Argintz-Karrika, de la forma *duzüik* (flexión II-13-c), registrada por Bonaparte: "Etcheverry apeza ez da orhoit *duzüik* aditurik, bainan bai *duzüi*" - En aquella ocasión, Dassance me envió todas las contestaciones correspondientes a las flexiones de mi "Cuestionario" de formas verbales [*Contribución a la Dialectología de la lengua vasca*, t. I, pp. 296-303], que había obtenido con la colaboración del sacerdote Etcheverry - Como digo en "Fuentes" de Ustaritz, Dassance falleció algún tiempo después, sin haber podido llegar a ver la publicación de los datos que me había proporcionado.

Hori horrela, *izan* = *ukan* honi buruz ere Pierre jauna galdekatzen hasi nintzen, honako elkarriketa laburra izan genuela:

- Errazu-eta, lagun bati galde egiteko ea hemen egon denez, kasu, nola erran behar zaio? 'noiz...'
- *Nóiz eón tziá hémen.*
- 'Noiz egon zira' edo 'noiz ukan zira'?
- Ah, *nóiz ukan tziá* e... ça veut dire... kásik e vous êtes venus, mais... nóla erran duzú gëó?
- Bai, 'noiz izan zinen hemen?', 'noiz ukan zinen?' edo 'noiz egon zinen?', nola erraten du jendeak hemen?
- *Nóiz e... nóiz ukan tzinén...* nàhi dú, *nóiz ukan tziá?* *nòiz ukan tziá?* e... *nóiz ukan tzínen?*
- Hemen horrela, ezta?
- Ba, eta gío...
- 'Noiz izan zinen?'
- *Noiz, nóiz itzan tzínen émen;* e...
- Gauza bera da?
- Baá... bai.

- Hau da, galde egiteko ea noiz izan nintzen hemen, etxe honetan, nola behar dautazu erran? ‘noiz egon zinen?’ edo ‘noiz...’
- *Nóiz izan tzinén émen... nóiz izan tzinén émen.*
- Eta ‘noiz ukan zinen hemen?’
- [errepikatuz:] *Nóiz ukan tzinén hémen? nóiz eo... nóiz izan tziné emé(n), eta... hóla; nóiz itzán tzinén emé(n).*
- Eta ‘noiz ukan zinen’, ez?
- *Nòiz ukan tzinén emén? baá, oi é...*
- Bai? berdín? bata eta bestea?
- Baá, bá-ba-ba-ba, ta *noiz ukan tzinén emén*, ta *nóiz intzàn* (sic) *tzinén émen*; ba... berdín dia oik.
- Eta ‘egon’ ez? ‘noiz egon zinen’ ez?
- *Nóiz egón tzinén emén? eee... nóiz egón (t)zinén emén? eee...*
- Ez da erraten hemen? hemen ez da erraten hola?
- *Nóiz, egún tzínen émen? baa!... nóiz égon tzínen émen, nóiz eón-tzínén emen.* [biziki markatuz]
- Bai? erraten ahal da hori ere?
- Zúk e, *nóiz eón tzinén emén?* eta zúk, erràteúzu *nóiz egón tzinén émen*, ta *nóiz eon tzínen émen.*
- Hori ere erraten da...
- Baá, ba, holá da, bai...
- Orduan hiru gisetara; erraten ahal da ‘noiz egon zinen hemen’, ‘noiz izan zinen hemen’ eta ‘noiz ukan zinen hemen’...
- *Nóiz ukán tzinén emén*, eta *nóiz egón tzinén emén*, (...) eta bertzía nóla zén?
- Eta ‘noiz izan zinen hemen?’
- *Nóiz izan tziné emé?...*
- ‘Egon zinen’, ‘izan zinen’ eta ‘ukan zinen’, hiru gisetara erraten ahal da?
- E... *nóiz izan tziné (h)emén? nóiz egon tzinén émen?* eta giò bertzía, nóla zén?
- ‘Noiz izan zinen’ eta ‘noiz ukan zinen’?

– Nòiz *ukán?* *ukán tzíne*¹⁴... berdín día!

– Berdín dira, e? hirurak?

– Ba... eztía berdín éz, zère(n)-ta hemé(n) e... (zuzenduz:) berdín da.

Hots, berriemailea solasaldiaren amaieran zertxobait nahasi bazen ere une laburto batean kontraesanean erortzeraino –hainbeste erkaketarekin ez da harritzekoa halakorik gertatzea–, galdeketan aipatzen diren hiru moldeak berdintzat jo zituen.

Handik minutu batzuetara, gainera –egonaldi berean beraz– eta Jean Kopentipi herikidearen haurrideez mintzatzen ari ginela, *ukan* horixe, iragan-gaitzean, berez eman zuen nire jarraiko galderari hark erantzuna ematean, zalantzarako tarterik tikiena ere ez utziz. Hona galdera-erantzunak:

– Eta apeza –Jean Kopentipiren anaietarik bat– zein herritan zen?

– Zéee? anéia? (h)oiéna? ba, haástean *ukan tzén* Baionán, *géó ùkan tzén*-eta *Mòncayól*¹⁵, *mendián*, *arrónt eón*, *eón* eta *géó*, *èman tzúín*-eta, *Sáint-Martín-Arbéru oro*¹⁶... *hórrat*, (h)*eméndi*'rat, (h)*eméndi*'at, eta *hán híla da*; han atzéman *tzutén híla ohé*... *ohétik jáustean*.

Eta nire eskuko oharretan, azkenik, zera dakusat berriemaile honixe bildurik ere: *égun eníz ukána* (izana) = 'ez naiz izan / ez naiz egon'.

BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R. M. de: *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil). Edit. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.

BONAPARTE, L.-L.: *Le verbe basque en tableaux*. Londres, 1869.

YRIZAR, P. de: *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Euskaltzaindia, 1999.

¹⁴ *ukán tzeíre* aditzen ote den nago.

¹⁵ Moncayolle da hori, euskaraz Mithikile, jarraian agertuko den Saint-Martin d'Arberoue, euskaraz ere, Donamartiri den bezala.

¹⁶ 'Edo' da hori, nire ustez, erraz ikus daitekeen garapen baten ondorioz.

L'ASPECT SYMBOLISTE DE J. MIRANDE

Gorka AULESTIA

Il y a quelques mois j'ai écrit un article sur le poète basque-français J. Mirande. J'ai fait alors quelques affirmations concernant l'influence des poètes symbolistes français sur J. Mirande. On peut lire dans cet article:

Some modern Basque poets like Jean Mirande do not accept a social or political poetry, but rather prefer simply the art of writing in itself¹

Dans mon article, je n'ai rien prouvé de tout ce que j'ai affirmé. Maintenant je voudrais reprendre ces idées comme hypothèse de ce petit article et tâcher de les prouver. Il est certain que Mirande avait dans sa bibliothèque quelques livres de Baudelaire.

“Frantsesez ere liburu batzu bazituen, Baudelaire olerkariarenak.”²

Il avait aussi quelques livres français de Baudelaire.

Mais cela ne prouve pas beaucoup notre hypothèse. Il faut trouver des relations similaires, les possibles analogies entre le poète basque et les symbolistes français. A mon avis il y a une influence considérable de Baudelaire dans l'art poétique de Mirande; l'idéologie de Rimbaud est aussi très importante. Dans quelque mesure il faut souligner aussi l'influence de la musicalité de Verlaine et l'aspect sexuel de quelques poèmes de Mallarmé comme "*L'Après-*

¹ Aulestia, G. "Poetry and Politics: Basque Poetry as an Instrument of national Revival" in *World Literature Today*, 1981, 1, vol. 55:52.

² Mujica, L. M. *Mirande-ren Poesigintza. Vol I*, San Sebastian. Haranburu Editor, S.A. 1984:89.

midi d'un Faune". Je diviserai cet article en trois parties: a) le portrait de J. Mirande; b) les thèmes de sa poésie et c) son style. Ces parties seront étudiées en relation avec les quatre écrivains symbolistes mentionnés.

I. PORTRAIT DE J. MIRANDE

J. Mirande est né à Paris le 12 Novembre 1925. Ses parents étaient basques. Il est un écrivain basque qui a eu la chance de naître à Paris. Dans sa jeunesse, il s'est mis au courant de tous les nouveaux mouvements littéraires français. Il y a très peu d'influence symboliste dans le reste des écrivains basques de cette époque. La frontière entre la France et l'Espagne était tout à fait fermée en ce qui concerne la culture littéraire. L'Espagne de Franco ne s'occupait que de sauver, "Los valores eternos de la Madre Patria" (Les valeurs éternelles de la Patrie).

Mirande ainsi que tous les symbolistes français avaient été élevés dans la religion catholique. Il y a un parallélisme entre la phrase "Ebili naiz zure elizetan"³ (J'ai fréquenté tes églises) de Mirande et la pensée de Rimbaud de "Les Premières Communions."

"J'étais bien jeune et Christ a souillé mes haleines."⁴

Pourtant Mirande déteste le christianisme. Il l'avoue clairement : "détestant le christianisme, ou du moins la démocratie dite chrétienne"⁵. Mirande comme Rimbaud avait un tempérament de feu. Tous les deux étaient furieux, dépaysés, agressifs et malades. Il y avait deux êtres dans leurs coeurs.

Leurs poèmes étaient d'une étonnante originalité mais en même temps montraient aussi une âme aigrie, revoltée et assoiffée de violence. Le sang de païen et gaulois de Rimbaud ressemble au sang du Basque dépaysé et obligé de vivre à Paris à cause de la pauvreté de ses parents. Mirande se sentait inadapté à la société française et basque où il a vécu.

Les deux poètes ont vécu dans un monde double et irréel. Celui de la vie quotidienne de Paris pleine de misères et la vie irréaliste de leurs rêves. Il y a beaucoup de circonstances qui se répètent dans leur vie. Tous les deux étaient rénovateurs de la poésie moderne. Ils ont laissé peu de livres parce qu'ils ont

³ Mirande, J. *Poemak* (1950-1966). San Sebastian. Erein. 1984:79.

⁴ Rimbaud, A. *Oeuvre Poétique*. Paris. Garnier-Flammarion. 1964:87.

⁵ Mirande, J. *Anaitasuna*. 15 Agosto 1971:5.

abandonné leur art poétique au cours des dernières années de leur vies. Au point de vue de la poésie, ils n'ont écrit que quelques centaines de vers. Ils montrent aussi la même tendance vers l'alcolisme, le pessimisme, le désespoir et la solitude. Il semble que Mirande se suicida précisément la nuit de Noël pour montrer la haine qu'il avait contre Jésus.

LES THÈMES

Pourtant ils ont eu le courage d'être eux-mêmes. On peut le constater en regardant les thèmes qu'ils touchent. Il faut souligner d'abord et avant tout l'athéisme et le paganisme, l'irrégion et la haine contre la civilisation occidentale, Jésus et l'Eglise catholique. Ensuite il faudra aussi remarquer les thèmes en rapport avec le sexe, le lesbiennisme, la prostitution et l'humour noire.

Une des caractéristiques les plus remarquables des écrivains symbolistes est la nouveauté des thèmes. Le poète doit chercher du "nouveau". C'est cela que les symbolistes et Mirande ont tâché de faire. Le poète basque écrit à propos de son sang païen qui l'attache à ses ancêtres païns et aux divinités basques comme Ortzi, Aitor et Mari. Il avait un tempérament de feu et il était toujours debout. Mirande, comme Rimbaud, attaque violemment la civilisation occidentale, la bourgeoisie et le catholicisme; il attaque aussi les dogmes et les mystères. Il élabore peu à peu un immoralisme en employant le vocabulaire le plus grossier contre la religion et le christianisme. Pour la première fois dans la littérature basque, Mirande emploie le mot "putain", comme l'avait fait avant A. Rimbaud dans le poème "L'orgie Parisienne."⁶

"Larunbat-arratsa da;

Paris, puta zahar, lotara doa.

...ni ere bai."⁷

C'est l'après-midi du samedi.

Paris, la vieille putain, va s'endormir
et moi aussi.

En attaquant la civilisation occidentale moderne, Mirande se livre à un autodafé général de tout ce que cette société a voulu lui imposer de force: ses

⁶ Rimbaud, A. *Oeuvre Poétique*. Paris. Garnier-Flammarion. 1964: 70.

⁷ Mirande, J. *Poemak* (1950-1966):124.

règles morales, sa religion et son Dieu bourgeois. Il se dresse d'abord contre la vie monotone et quotidienne, contre son bureau de Paris qui tue sa personnalité. Son esprit critique s'exaspère contre les nationalistes basques qui restent bourgeois. C'est la déchéance d'une civilisation, celle de la bourgeoisie catholique. Mirande s'exaspère aussi contre ceux qui travaillent avec lui dans le bureau de Paris. Dans son poème "Paris-Beuret" il écrit ironiquement:

“Nire lankide bikainak
ditut adixkide minak;
goizero agurtzen naute
ixilik, bai naute maite
nola deabruak Jinkoa”⁸

Ceux qui travaillent avec moi sont des amis excellents. Ils me saluent tous les jours tout doucement, parce qu'ils m'aiment comme le diable (aime) Dieu.

Dans leur révolte ils se tournent vers l'Orient, la patrie primitive où l'homme vivait heureux sans la religion de Jésus. Le jeune Mirande chercha une réponse dans les religions orientales, notamment le Bouddisme. L'expression de Rimbaud "Merde à Dieu" a un écho aux phrases blasphématoires de Mirande.

“Gaur Judu-seme, gutartera itzul bazinde,
gurutzifika zindezaket nik oster!”⁹

Aujourd'hui, toi, fils de Juifs, je te crucifierai encore une fois,
si tu venais chez nous!

Mirande, comme Rimbaud, se proclame antichrétien. “Ni ez naiz kristaua ez fedez ez moralez”¹⁰. (Je ne suis pas chrétien et je déteste la morale et la foi chrétiennes). Les deux poètes se sentent seuls dans ce monde. Cette solitude est due à l'abandon de la part de Dieu. Le “bon” Dieu juif n'écoute pas. “Zeure zerutik deus ez duzu ihardetsi.”¹¹ (Tu ne m'écoutes pas de ton ciel.)

Ils attaquent aussi l'Eglise. Pour Mirande elle est une institution créée par cet homme appelé Jésus, “bar-Joseph” (fils de Joseph). Sa religion a châtré les forces vigoureuses et païennes des citoyens basques.

⁸ Ibid.: 69.

⁹ Ibid.: 80.

¹⁰ Azurmendi, J. *Mirande eta kristautasuna*. Zarauz. Caja de Ahorros de Guipúzcoa. 1978:19.

¹¹ Mujica, L. M. *Mirande-ren Poesigintza*. Vol. II.:195.

“Euskaldun Zaharren gogo basa, bortitz eta handia apaldu, ahuldu,
hobeki erran irendu zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots
egin gaitu”¹²
Sa doctrine a détruit et affaibli, plus encore elle a châtré l'esprit
païen et fort de nos ancêtres basques. Nous étions vigoureux comme
les ours et nous sommes devenus faibles comme des brebis.

On peut trouver dans quelques phrases de Mirande l'influence de l'écrivain Pío Baroja (1872-1956) dans son roman *La leyenda de Jaun de Alzate* (1922)¹³. On voit aussi l'influence du philosophe allemand F. Nietzsche (1844-1900). Pour celui-ci le christianisme nous a apporté la haine contre la vie, la beauté et l'amour en prêchant le pacifisme et la morale de l'Évangile. L'homme a été déplacé par Dieu mai le “super-homme” exige la mort de Dieu. Il prêche le nouvel évangile, celui de la force et de la puissance. Baudelaire subira aussi cette influence.

Mirande attaque Jésus parce qu'il se sent solitaire et abandonné par Lui. Les mots les plus durs vont contre ce juif qui ne répond pas.

“Josu, bar-Joseph, ba dut othoi egin gauerdiz...
eta zuk aldiz utzi nauzu.”¹⁴

Jésus, fils de Joseph, je t'ai prié à minuit...
et tu ne m'as pas répondu.

C'est pour cela que Mirande a détesté la Nuit de Noël où il se suicida en 1972.

“Eguberrri eguna, bestea bezalako edo bestea baino txarrago denentzat.”¹⁵

Nuit de Noël, pareille à toutes les nuits de l'année ou même pire pour tout le monde.

Pourtant il ne pouvait pas se détacher complètement de la tradition chrétienne comme les quatre écrivains symbolistes dont on parle.

¹² “Euskaldungoaren Etsaiak”, in *Gernika* Abril-Junio, N° 23:86

¹³ Baroja, P. *La leyenda de Jaun de Alzate*. Madrid. Espasa - Calpe (8^a ed.) 1983.

¹⁴ Mirande, J. *Poemak* (1950-1966):79.

¹⁵ “Merry Christmas”, *Jon Mirande-ren Idazlan Hautatuak*. Bilbao. Gero. 1976:365.

“Josu, bar-Joseph, gaztaroan maite zindudan.”¹⁶

Jésus, fils de Joseph, je t'aimais quand j'étais jeune.

Le deuxième thème qui est commun à Mirande et aux symbolistes est l'érotisme, l'attraction lesbienne, la prostitution et la pédérastie. La femme pour le poète basque et pour Baudelaire ne peut être prise au sérieux que dans la mesure où on la considère comme un objet esthétique. Ils ont connu trois femmes dans leurs vies mais ils ont détesté les filles honnêtes. Habituellement ils gardaient leurs distances avec les femmes. On peut constater l'influence du poème "Lesbos" de Baudelaire et de "L'Après-midi d'un Faune" de Mallarmé dans quelques poésies de Mirande.

"Lesbos" est un long poème; une suite de comparaisons entre les paysages de Lesbos et les passions des lesbiennes. Grâce au jeu de mots Baudelaire a réussi à faire revivre toute la mystique païenne. Les yeux sont creux pour faire antithèse aux fruits mûrs de leur nubilité. Il y a une relation entre les éléments convexes et concaves.

"Les filles aux yeux creux, de leur corps amoureuses,

Carescent les fruits mûrs de leur nubilité."¹⁷

"L'Après-midi d'un Faune" est plus difficile à comprendre que le poème "Neskatxak" (Les jeunes filles) de Mirande, car le poème de Mallarmé est une symphonie d'images, de mots et de sons. Obsession érotique et obsession littéraire sont les deux sommets de ce paysage. Le langage de Mirande est plus facile, plus clair, plus net. Mais au fond on décrit le même problème. Le faune de Mallarmé découvre deux nymphes que s'aiment. Mirande peint aussi deux filles qui dansent et s'embrassent.

"Ahizpa gazte bi dantzan...

elkharri laztanka, maitez

bulhar zuriak ikhara...

erori ziran neskatxak

elkharren besoetara."¹⁸

Deux jeunes filles dansaient, s'embrassaient l'une contre l'autre étroitement en montrant leur amour avec leurs excitantes mamelles blanches.

¹⁶ Mirande, J. *Poemak* (1950-1966):80.

¹⁷ Hubert, J.D. *L'esthétique des "Fleurs du Mal"*. Genève. P.Cailler. 1953:121.

¹⁸ Mirande, J. *Poemak* (1950-1966):49-50.

Le langage de Mirande est brutal, cru et cruel quand el s'agit de la prostitution. Comme tous les symbolistes il cherche la beauté de la forme. Le sujet est un prétexte; il est la circonstance qui donne au poète l'occasion de s'exprimer. Tout mot ne vaut que par le mystère qu'il aide à pressentir. Le plus ignoble (merde, putain) trouve place dans les symbolistes. La mission du poète est d'ouvrir une fenêtre sur l'autre monde; c'est un monde créé par l'imagination, un monde où même l'ordure est un sujet convenable.

La prostitution de la rue Pigalle de Paris inspira à Mirande le poème "Pigalle" où il montre la détresse et la dégradation des prostituées.

"Puten sabelean arno beltza botz-kantuz."¹⁹

Dans les ventres des putains, le vin rouge chante de joie.

Le troisième thème commun à Mirande et à Baudelaire est l'humour noir pris de E.A. Poe. Ils sont poètes de la lumière noire. Les deux ont traduit quelques pages du fameux poète américain. La mort est présente dans les oeuvres mais souvent elle est présentée de forme grotesque, pleine d'humour noir et tragique. Dans son poème "*Tzakur hil bati*," Mirande nous peint un chien mort qui flotte à la dérive comme un bouchon sur les eaux d'un fleuve. Le poète lui rend les honneurs. L'humour noir ne manque pas dans sa description.

"Nik soilik nire Ekklesian
dut ohorätzen hil anaia."²⁰

J'ai fait seulement l'hommage de mon frère, le chien, pendant la réunion des chiens.

III. STYLE SYMBOLISTE DE J. MIRANDE

L'oeuvre poétique pour Mirande et les symbolistes est d'abord et avant tout un être vivant. La poésie est donc un acte de création. Elle doit susciter la vie. Ainsi la ποίησις edo "poiesis" grecque n'est pas littérature dans le sens romantique. Mirande est contre les romantiques du Pays Basque qui écrivaient de l'extérieur tous les drames. Ils transfiguraient l'homme et la nature à l'image d'un certain idéal voulu. Dès la fin du XIXème siècle la poésie basque était complètement extérieure, engagée, éloquente et apologétique de la culture et du Pays Basque, v.g.: J. M. Iparraguirre (1820-1881) et F. Arrese y Beitia (1841-1906).

¹⁹ Ibid.: 82.

²⁰ Ibid.: 103.

Mirande attaque cette poésie. Il méprise la sensibilité romantique. Il détruit les méthodes traditionnelles du Romantisme. Il lui reproche le pathétique superficiel. Il ne respecte pas les conventions sociales et littéraires.

La poésie ne doit être engagée non plus. Son art poétique n'est pas moralisateur, social et politique. Il aime l'indépendance absolue à l'égard de la morale. Il suit dans ce domaine les règles d'Art Pur de Baudelaire. Sa mission est l'amour du beau. L'art pour Mirande doit être désintéressé. Aucun but utile car, tout ce qui est utile est laid. L'art est à lui-même sa propre fin. Donc la littérature et la poésie ne doivent ni moraliser ni philosopher. Il ignore la politique et déteste l'éthique romantique de la poésie basque comme les symbolistes l'avaient fait auparavant.

Il ne suffit pas de proclamer la vérité ou d'exprimer la réalité. Pour Mirande, la poésie n'est qu'un simple jeu de mots et une recherche de la beauté littéraire. Il se rendait compte de son originalité parmi les écrivains basques. Cette originalité symboliste lui a créé beaucoup de difficultés et d'incompréhension. La société basque était trop traditionnelle pour lui. Mirande a dû attendre pendant quelques années pour voir ses poésies publiées, comme Baudelaire.

Au point de vue de son style particulier il faut faire quelques remarques. Mirande attire l'attention du lecteur par ses images et les métaphores. La rime est importante pour lui parce qu'elle donne au poème la structure sonore. Mais le rythme est beaucoup plus important. Il suit le chemin de Verlaine. La principale originalité de Mirande dans la littérature furent ses nouveautés rythmiques. Il a écarté les rythmes traditionnels basques comme le "zortziko" (strophe de huit vers). Comme Verlaine il introduit l'assonance ou même supprime la rime. Il n'abandonne pas complètement mais il a créé une révolution littéraire à l'égard des rimes et de la poésie en général. Il apparaît comme un précurseur de la nouvelle poésie basque.

Il n'utilise pas la formule de Verlaine "de la musique avant toute chose" mais il suit souvent les règles du fameux poète symboliste. Comme exemple j'apporte deux petites strophes pour voir la musicalité verlainienne. Pour réussir cela Mirande emploie les rythmes courts, la répétition des consonnes (TX, TT, K, N) et l'accent basque.

"Etxe txiki txukun baten
zure aitetamekin
zinan bizi, zintzo bizi
ene maite Kattalin."²¹

²¹ Ibid.:163.

Ma chère Catherine, tu habitais honnêtement avec tes parents dans une petite et jolie maison.

Parfois il change les consonnes mais il utilise le même moyens pour réussir la musicalité de Verlaine. Cette fois-ci il emploie les consonnes L, R, RR.

"Ilerrian bada lore
euzki-lili krabelin
zu zaituzte badut uste
ongarritzat Kattalin."²²

Au cimetière il y a beaucoup de fleurs, de roses et d'oeillets.
Ton cadavre les sert de fumier.

Comme conclusion il faut dire que J. Mirande nous a laissé l'exemple d'une vie brûlée en quelques années, une oeuvre brève mais pleine. Grâce à sa révolution littéraire aujourd'hui la poésie basque garde des traits symbolistes.

²² Ibid.:164.

HITZ-ELKARTE SINTETIKOEN ARGUMENTUAK ETA GERTAERAK

Miren AZKARATE

0. SARRERA GISA

Beste arlo askotan bezala, lexikologiaren arloan ere ikerlan ugari ezagutu ditu euskarak azken urteetan. Azkuek (1923-25) landu zituenetik, hirurogei bat urtean ez dugu berrikuntza handiegirik aurkituko euskal gramatiketan hitz berriak sortzeko euskarak hain bereak dituen hitz-elkarketa eta eratorbideaz. Izatekotan ere, Lafittek (1944) atzizkien sailkapenean egindako ekarpenen bat azpimarratuko genuke.

80. hamarkadan, ordea, Euskaltzaindiaren LEF Batzordeak lan xehe eta neketsuari ekin zion hitz elkartuak sailkatu, mota bakoitzaren nondik norakoak aztertu, eta erator-atzizkiekin ere beste horrenbeste eginaz. Hitz elkar-ketari buruzko lanak dira argitaratu direnak¹; erator-atzizkiez landutako txostenak liburu gisa argitaratu ez, baina ikertzaile bati baino gehiagori lan haiek bide eman zioten, gaurko hizkuntzalaritza teorikoak baliatzen dituen azterbi-deak aplikatuaz, ikerlan teorikoa egiteko², batetik, eta, horri esker, hainbat

¹ *Eguzki-lore* motako elkarteen lanen argitalpena ia prest dago.

² Ikus, besteak beste, Artiagoitia, X. (1995): “-gari atzizkiaren izaera bikoitzaz. Zergatik den *maitagarria* bezain *mingarria*”, ASJU XXIX-2, 355-405; Gràcia, L., Cabré, T., Varela, S., Azkarate, M. (arg) (2000): *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua; Perez Gaztelu E., Zabala I., Gràcia L. (arg) (2004): *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Universidad de Deusto.

atzizkiren erabilera zuzena argitzeko, bestetik. Zer esanik ez, azken urteetan sortutako hainbat hitz eratorriren zuzentasunaz erabakiak hartu ahal izateko erabakigarriak izan dira azterketa hauek.

Ezin uka oraindik ere lan handia dugula, eskerge ere esango nuke, hitz berriak sortzeko ditugun baliabideak –hitz-elkarketa eta eratorbidea– hizkuntzalaritza teorikoaren, eta zehazkiago “morfologia deribazionalaren” argitan aztertzen. Beste hitz batzuetan esanda, argumentu-egitura, theta-rolak, ‘herentzia’, egitura lexiko kontzeptuala, aditzen aspektu lexikoa, esanahiaren araberrako aditz motak... kontuan harturik atzizkiak eta hitz elkartuak iker-tzen.

Azterkizun horren zati txiki bat hartu nahi dut gaur: hitz elkartu sintetikoena. Izan ere, artikulu mordoska aurki dezakegu aditz batetik izena edo izenondoa eratorrtzean, aditz horren argumentu-egiturari zer gertatzen zaion aztertuz³. Hitz eratorrietan, argumentuak gauza daitezke atzizkien bidez. Gerta daiteke, esaterako, argumentuetako bat hitz eratorriak berak irenstea, atzizki baten bidez:

- [Egilea, Gaia] argumentu-egitura⁴ duen *erre* aditzari *-tzaile* eranstean sortzen den izenak, *erretzaile*-k, Egilea argumentua irenste du
- [Egilea, Gaia] argumentu-egitura duen aditz horri *-ki* eranstean, ostera, *erreaki* izenak Gaia irenste du ‘erre dena’ adierazten baitu

Nolanahi ere, adizetik sortutako hitz eratorriek nolako argumentu-egitura zuten aztertzen hasi aurretik kezkatu ziren hizkuntzalariak argumentu-egituraz eta hitz elkarketaz. Bi galderaren erantzuna aurkitzen saiatzen ziren:

- $\{[I] + \{[aditzoina + -atzizkia]\}_i\}$ egiturako izen elkartuetan, zein paper tematiko izaten du izen osagaiak (nahiago bada, buru ez den osagaiak?)
- zer gertatzen zaio buru den osagai horretako aditzaren argumentu-egiturari? Nola ‘asetzen’ du aditz horrek bere argumentu egitura?

Arreta berezia eskaini diote hizkuntzalariek hitz elkartu *sintetikoei*, adizetik eratorritako izena edo izenondoa buru dutenei (Williams 1981, Selkirk 1982, Lieber 1983, DiSciullo eta Williams 1987); behin baino gehiagotan, bate-ra aztertuz hitz eratorrietan (*idazle*) eta horiekin osaturiko elkartuetan

³ Bizpahiru aipatzeko, Varela, S. (1990a): *Fundamentos de Morfología*. Madrid: Síntesis; Piera C., Varela S. (1999): “Relaciones entre Morfología y Sintaxis”, I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa, 4367-4422; Haspelmath, M. (2002): *Understanding Morphology*. London: Arnold

⁴ Ikus Spencer (1991) edo Artiagoitia (2000)

(*nobela-idazle*) zer gertatzen den (Booij 1988, Varela 1990b, Levin eta Rappaport 1988).

Hizkuntzalari hauen proposamenak labur bilduaz:

- subjektu argumentua (edo kanpo-argumentua) ezin da hitz elkartuaren barruan ase (Williams 1981, Selkirk 1982, Lieber 1983, DiSciullo eta Williams 1987). Kontrako adibideak eman ditu, ordea, Kiefer-ek (1992) hungarieraz.
- X_i kategoria lexikoaren subjektu ez diren argumentu guztiak, X_i -en lehen mailako proiektzioaren barruan ase behar dira (Selkirk 1982).
- DiSciullo eta Williams-ek (1987), ostera, diote buru ez den osagaiak ase dezakeela buruaren argumentuetako bat, baina ez duela hala behar nahitaez.
- V+N egituretan ez da adostasunik egon hizkuntzalarien artean: Selkirk-en (1982) ustez, buru den izenak ez du asetzen aditzaren argumentu-egitura; Lieber-ek (1983), berriz, horrelako egituretan, aditzak bere barne-argumentuak 'lotu' behar dituela dio; bestela, eskuineko izena, aditzaren argumentu semantikotzat (lokatiboa, modua, baliabidea... adierazten duen argumentutzat) hartu beharko da.
- Buruak barne-argumentu bat baino gehiago hartzen duenean, hierarkian 'beheren' dagoena egongo da hitz elkartuaren barruan, eta 'goren' dagoena kanpoan (Grimshaw 1990).

Euskaltzaindiaren (1991) sailkapenari jarraikiz, 'Egile-elkarte sintetikoak' aztertu ondoren (Azkarate 1995), interesgarri iruditu zait 'Ekintza-elkarte sintetiko'ei ekitea, zehazkiago esanda, Euskaltzaindiaren lanean 'Ekintza-elkarte osatu' deitzen zaienei:

${}_1[[I] + {}_1[\text{aditzoina} + \text{-tze, -era, -keta, -pen, -kunde/kuntza/dura, -tza}]_1]$
egiturako izen elkartuei, alegia.

1. 'GERTAERA' ETA 'ONDORIO' IZENAK

Goraxeago aipatu ditudan bi galderez gain⁵, badute egitura hauek (*-tze, -era, -keta* edo *-pen* atzizkidun burua duten hitz-elkartee) beste zailtasun bat

⁵ Buru ez den osagaiak zein rol tematiko hartzen duen, eta buru den osagaiko aditzaren argumentu-egitura nola asetzen den.

ere: buru den osagaia gertaera edo ondorio-izen izatetik datorkiona, gertaera eta ondorio-izenen azterketa, gai benetan korapilatsua baita.

Hasteko, euskal gramatikariek berek modu desberdinean sailkatu dituzte atzizki hauek:

- Azkuek (1923-25) batetik “derivativos operativos” sailean ematen ditu *-era* eta *-keta*; “derivativos nominales efectos” sailean, *-ada* eta *-dura*; izen abstraktuak sortzen dituzten atzizkien artean sartzen ditu *-men* eta *-kuntza*.
- Lafittek (1944) bi sailetan banatzen ditu atzizki hauek: ‘ekintza’ edo ‘gertaera’ adierazten dutenak (‘action’ dio berak): *-keta*, *-kunde*, *-kuntza*, *-men/-mendul/-pen*, *-te*, *-tza* eta *-tze*; ‘ondorioa’ adierazten dutenak, berriz, *-men/-mendul/-pen*, eta *-dura*.
- Hualdek (Hualde eta Ortiz de Urbina, (2003)) atal bakarrean bildu ditu guztiak, ‘ekintza’ edo ‘ondorioa’ (‘action’ or ‘result’) adieraz dezaketen atzizkien atalean hain zuzen ere. Batzuek gehien bat ‘ekintza’ adierazten omen dute (*-pen*, *-keta* edo *-mendu-k*); beste batzuek, batik bat ‘ondorioa’ (*-dura*), baina bereizketa ez omen da zorrotza.

Kanpoko hizkuntzalariengana jotzen badugu argi bila, hainbat autorek (Fabb-ek (1984), Higginbotham-ek (1985) edo Sproat-ek (1985)) proposatu zuten aditzek, kanpo eta barne-argumentuei loturiko theta-rolez gain, badutela beste bat, ‘Event’ rol tematikoa (Artiagoitiak ‘gertaera’ deitu diona). Rol tematiko hori agertzen dela erakusten du, besteak beste, lokatiboak edo instrumentalak agertzeak (Fabb 1984). Hori izango litzateke ‘gertaera’ adierazten duen *destruction* eta ‘gertaeraren ondorioa’ adierako *destruction* bereizteko modu bat. Grimshaw-k (1990) dioenez, gertaera-egitura duten izenek, argumentu-egitura heredatu egiten dute, eta, ondorioz, argumentu horiek ase egin behar dira; ‘ondorioa’ adierazten duten izenek, ostera, ez dute argumentu-egitura heredatzen.

Nola jakin, ordea, ‘gertaera’ ala ‘ondorio’ izena dugun aurrean? Grimshaw-k (1990) edo Artiagoitiak (2000), honako irizpideak aipatzen dituzte, besteak beste:

- gertaera izenek ez dute plurala onartzen
- gertaera izenek nekez onartzen dute erakuslea
- gertaera izenak ez dira predikatu gisa agertzen
- gertaera izenek, iraupena adierazten duten modifikatzaileak erraz onartzen dituzte, ondorio izenek ez
- gertaera izenek nekez onartzen dituzte adjektiboak
- gertaera izenek ez dute *bat* zenbatzailea onartzen.

Beraz, hitz elkartuko burua ‘gertaera’ ala ‘ondorio’ izen den argitzen dugun heinean jakin ahal izango dugu egiaz zenbateraino esan dezakegun *eskaintza*, *mindura* edo *itzulpen* moduko izenek argumentu-egitura dutela⁶.

2. ${}_i$ [ADITZOINA + -TZE] ${}_i$ BURU DUTEN HITZ-ELKARTEAK

Euskaltzaindiak (1991: 50) dioen bezala, ‘objektu-aditz-ekintza’ erlazioa ageri da gehienetan.

Bestalde, euskarazko *-tze*, ingelesezko *-ing* atzizkiaren parekotzat hartu ohi dugunez, bat etorri dira hizkuntzalariak, ingelesez ‘gertaera’ izenak osatzen dituen atzizkia dela esatean (Williams 1981, Fabb 1984, DiSciullo eta Williams 1987, Sproat 1985, Booij eta van Haften 1988). Horrek esan nahi du aditzaren argumentu-egitura heredatu egingo duela izenak, eta argumentu horiek ase egin beharko direla.

Adibideak⁷:

adar jotze, aditz-jokatze, andra-ikuste, arbola botatze, arbola mozte(n)⁸, ardi biltze(n), gazta egite(n), ardi-jate, ardo edate(n), arpa jotze(n), arrautza egite(n), arta-jalkitze(n), arta-zuritze(n), artourkultze, ate jote, atun-jate, aurpegi-auste, barau hauste, auzo gobernatze(n), bonba-botatze, buru-lantze, diru kontatze(n), diru xahutze, esker-erakuste, eskola-emote, esne jeiste, etxe eroste, gerra irabazte, gezur kondatze(n), gari-ebagite, giza-iltze, arbi-eraite, indar neurtze, lan-uzte, lio-jotze, mahats biltze, malko-isurtze, odol isurtze, oroimen-galtze, gogo-galtze, patata zuritze(n), pipa erretze(n), postura hartze, poxpolo piztutze, txalo jote, soinu-jotze(ra), txerri-hiltze, zur-lantze(n).

Nahiz burua nahiz buru ez den osagaia izan daitezke koordinatuak ere, baina horrek ez du aldatzen ez aditzaren argumentu-egituraz ez buru ez den osagaiak hartzen duen rol-tematikoaz esan duguna:

⁶ Nolanahi ere kontu honek lan luze eta sakonagoa eskatuko luke, artikulu honetan aztertu nahi diren egiturak baino haratago doana.

⁷ Euskaltzaindiaren (1991: 50) lanetik hartuak, bai hauek, eta bai ‘ekintza elkarte-sintetiko’etako guztiak ere.

⁸ Mota honetako elkarte sintetikoak sarri ager daitezke *-n* lokatibo atzizkia hartuaz, *jar-dun*, *aritu* etab.en. osagarri moduan.

abar eta egur eihar karreatze(n), arau-izte edo aldatze, barku-betetze ta ustutze, ditxo eta pertsu moldatze(n), lan, oliba eta amanda biltze...

Adibide hauetan, aditza iragankorra da, ia beti [EG, GAIA] egiturakoa, baita [ESP, GAIA] egiturakoa ere (*zama-pairatze*); *txerri-hiltze* bezalakoak ikusirik ohartzen gara [ARAZLE, GAIA] egiturakoak ere izan daitezkeela, hau da, ondoan erabilera ez-akusatiboa dutenak. Kasuren batean aditza izan daiteke hiru argumentukoa ere (*adar-jotze*, *aurpegi-hauste* edo *esker erakuste*). Nolanahi den, ezkerreko osagaiak, buru ez denak, ‘gaia’ rol tematikoa hartzen du.

Hiru argumentuko aditza duten egiturek merezi dute bereziki aztertzea eta zein testuinguruan erabili diren ikustea. Izan ere, hitz elkartuan argumentu bakarrarentzako lekua egonik, bigarren barne-argumentuak ez du non gauzaturik. Grimshaw-i (1990) jarraituz onartzen badugu *tze*-ren bidez sortutako izenek *E-*, gertaera-argumentua dutela, eta, horrenbestez, izenak aditzaren argumentu-egitura heredatzen duela, bigarren argumentu hori sintaxian isla daitekeela pentsa dezakegu:

“aspaldi andian egin eustan “Zeleta”k aurpegi-auste edo entrevista bat” (S. Onaindia.(1974) *Eskutitzak. Euskal literaturari buruz*. Bilbo: Egile Editore, 177).

“gure huritarkeriaz, gure adar jotzeaz” (M. Zarate (1980): *Bilbo irribarrez*. Galdakao: Bizkargi argitaletxea, 13).

“nik ere parte artu nai dut, bihotz-bihotzez esker-erakuste horretan” (R. Bozas-Urrutia (1976), *Nere herriaren ibillaldiak eta gorabeherak...* Donostia: SGEP; 15).

Hiru adibideak dagokien testuinguruan ikusi orduko ohartzen gara bakoitza modu batekoa dela, eta ez dagoela guztiak eredu bakarrera ekartzetik. Lehen adibidean, oso esanahi berezia du *aurpegi-hauste* izenak, osagaien esanahitik abiatuaz asma ezin daitekeena. *Hautsi*-ren argumentuak, perpausuan daude “nolabait” islatuak, *egin eustan* aditzaren subjektu moduan, *hautsi*-ren kanpo-argumentua, eta isilpean uzten den, baina aditzaren pertsona-komuntaduran “ikusten” den datibo moduan, bigarren barne-argumentua. Nolanahi ere, Selkirk-en (1982) proposamena, “ X_i kategoria lexikoaren subjektu ez diren argumentu guztiak, X_i -en lehen mailako proiektzioaren barruan ase behar dira” ez da inola ere betetzen.

Bigarren adibidean ere ez da betetzen aipatu berri dugun aurreikuspena; hor, hitz elkartutik kanpo, baina *adar-jotze* izenaren proiektzio gorenaren barruan, kanpo-argumentua asetzen da (*gure*). Bigarren barne-argumenturik ez dagoenez, pentsa genezake Artiagoitiak (2000) dioena gertatzen dela hemen ere, aditzaren argumentu-egitura eta kategoria hautapena eta hortik eratorri-

tako izenarena ez datozela bat; aditzaren kasuan nahitaezkoa dena, aukerako bihurtzen dela izenaren kasuan. Kontua da, ordea, Artiagoitiak dioena *E*-argumenturik ez duten izen eratorrietan gertatzen dela; baina *E*-argumentua dutenek, aditzaren argumentu-egitura osorik heredatuko lukete. Hala ere ohartzen gara Mikel Zarateren adibidea bezalakoak guztiz ohikoak direla euskaraz⁹; ez, ordea, *adarra jo* datiborik gabe erabiltzea.

Hirugarren adibidean ere gauza bera gertatzen da, *erakutsi* aditzaren kanpo-argumentua, *nik*, perpauseko aditzaren subjektu moduan islatzen da; eta bigarren barne-argumentua, ‘nori’ erakusten zaion eskerra, ez da inon islatzen, ez izen elkartuaren lehen mailako proiektzioan, ez eta perpausa bere osotasunean harturik ere. Gerta daiteke testuinguru zabalagoak hartuz gero, aurreko perpausen batean aurkitzea ‘nori’ ematen zaizkion eskerrak, edo ‘nori’ jotzen zaion *adarra*. Baina horrek ez lioke irtenbiderik emango Selkirk-en aurreikuspenak ez betetzeari.

Egia da, bestalde, hiru adibide gutxi direla ondorio sendoak atera ahal izateko. Nolanahi ere, corpus zabalagoaren argitan aurrerago egin daitezkeen ikerketei beti atea zabalik utzirik, puntu hauek aurreratuko genituzke:

- adibideen urritasuna ikusirik, pentsa dezakegu funtsean arrazoia dutela Selkirk-ek edo Lieber-ek esaten dutenean bi barne-argumentu dituen aditzak ezin duela hitz elkartu sintetikorik eratu; agian egokiagoa izango litzateke, debeku zorrotza eman ordez, salbuespenetako atea zabalik uztea. Hizkuntzaz hizkuntza ere ikusi beharko litzateke kontuak nola diren.
- guztiz betetzen da Selkirk-en (1982) lehen aurreikuspena: kanpo-argumentua, edo argumentu gorena ezin dela gauzatu hitz elkartuaren barruan.
- ez du balio, aldiz, bigarren aurreikuspenak, barne-argumentu guztiak lehen mailako proiektzioaren barruan islatu behar dutela dioenak.

Badira, ordea, bestelako adibideak ere, bigarren osagaiaren oinean dagoen aditza bi argumentukoa ala argumentu bakarrekoa den, zalantza sortzen digutenak. Hauen artean, bigarren multzokoak argiagoak direla esango genuke; Euskaltzaindiak (1991: 51) ere hala dio: “beste adibide hauetan, ostera, argiago ikusten da mugatzaileak subjektuari dagokion funtzioa jasotzen duela”.

⁹ Badira beste bi adibide *adarr-jotze* izena dutenak: “adarr jotze lukek orain”, eta “berdin zitezkeen adarr jotze, denbora pasagari...”. Barne-argumentua da islatzen den bakarra.

diru ugaritze, euskalki nahaste, kolore aldatze, giro-berotze, gizon galtze, jendealdatze, kristau-izate, lan-pillatze, prezio-altxatze, prezio-goratze, senatu berritze.

argi haste(an), argi urratze, argi zabaldute, idazle-ugaltze.

“etengabe aldarrikatzen duen gaitza dugu diru ugaritze hori” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 15).

“euskalki nahastea ere saio tankera horretatik datorkio liburu honi [Olabideren liburuaz ari dela]” (K. Mitxelena (1972): *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Etor, 348).

“txikion giro-berotzea gabe” (X. Lizardi (1972): *Itz-lauz*. Donostia: Edili, 36).

“oi nolako sarraskiak! Oi zer gizon galtzeak! (P. Etchamendi, P. Lafitte (1980): *Kantuz*. Donostia: Elkar, 30).

“jendealdatze, presondegia, isun gizeraite” (J. Mirande (1976): *Jon Miranderaren Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Gero, 234).

“aitak zerbaitek eldu balio bezala, ezpain estutze eta kolore aldatze bat izan zuan da onela zion” (Tx. Garmendia (1983): *Bordaberri'ko gozo-mikatzak*. Tolosa: Auspoa (170. zk), 79).

“naiz elizguizona, naiz bestelacoa izan, galtzen duela cristau-izatea” (1884: *Liberalen dotriña pecatu da*. Barcelona, 140).

“lan-pillatze bat baño ez duzu” (S. Onaindia (1974): *Eskutitzak*. *Euskal literaturari buruz*. Bilbo: Egile Editore, 172).

“prezio-altxatze horren eragile, badirudi, eskariaren gehiegizkoa izan dela” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 24).

“Ameriketako inflazioa eta prezio-goratzea” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 10).

“senatu berritze honekin ordezkarien izendatzean” (R. Arregi (1972): *Herriaren lekuko*. Oñati: Jakin, 116).

“biharamun goizean, argi urratzearekin, ikusten dut aita (J. Etxepare (1980): *Buruxkak*. Donostia: Elkar, 33).

“idazle-ugaltze orreri” (X. Lizardi (1972): *Itz-lauz*. Donostia: Edili, 66).

Testuinguruen argitan ohartzen gara hasieran zalantza sortu diguten aditz asko, bi argumentukoak direla, eta, ohikoa den bezala, izen elkartuko lehen osagaiak ‘gaia’ argumentua hartzen duela:

- [EG, GAIA] edo [ARAZLE, GAIA]: *nabastu*, *berotu*, *aldatu* (‘jendea aldatu dute’ ulertu behar dela dirudi). Horrela har daiteke *berritze* ere (‘senatua berritu dute’); bestela, [GAIA] ez-akusatibotzat hartuko genuke (‘senatua berritu da’).
- [ESP, GAIA], nor-nori motako aditza: *pilatu* (‘lana pilatu zaio’), *aldatu* (‘kolorea aldatu zaio’), *ugaldu* (‘dirua ugaldu zaio’, agian horrela uler daiteke). Sail honetakoa litzateke Azkarateren (1990) lanetik hartutako *odol-jariatze* ere.
- [GAIA], argumentu bakarreko aditz ez-akusatiboak: *ugaldu* (‘langileak ugaldu dira’), *hasi* (‘argia hasten denean’), *zabaldu* (‘argia zabaldu da’), *galdu* (‘gizonak galdu dira’); zalantzakoa da nola ulertu behar ditugun *prezio-altxatze* eta *prezio-goratzte*, edo ez-akusatibo gisa, edo [ARAZLE, GAIA] gisa. Lehen balioan hartuz gero, hauek ere ez-akusatiboan sailean sartuko genituzke.

Horrelakoak dira Azkarategandik (1990) hartutako beste hauek ere: *elur-jauste*, *gau-erortze*, *iguzki ilkite*, *iguzki-sartze* edo *lur ikaratze*, egiturako honetako elkarreak aski ohikoak direla erakusten dutenak.

- [EG] argumentu bakarrekoak izan arren, ez-ergatiboak diren *olermentirakite* da salbuespen nabarmenena, bakarra den bitartean guztiz marginalizat har dezakeguna. Bestalde, ez-ergatibotasuna, aditz laguntzailearen aukeran oinarritu beharrean, argumentuaren theta-rolean oinarrituz gero, *irakin*-en subjektuari ez genioke ‘egilea’ rola emango, ‘gaia’ edo ‘jasailea’ baino (hots, barne-argumentua izango luke); beraz, ez genuke inolako salbuespenik izango.
- azkenik, guztiz ihartua dago *izate*, beraz, *kristau-izate* ez genuke elkarre sintetikotzat hartuko, baizik bi izenez osaturiko gainerako izen elkartuak bezala.

Datu hauek ikusirik, argi dago subjektu-argumentua hitz elkartuaren barruan ase ezin daitekeelako baieztapena urratzen dela. Kiefer-ek (1992) ere azpimarratu zituen horrelako adibideak hungarieraz, gure *prezio-jaisiera*, *prezio-igoera*-ren balioak. Kiefer-ek (1992: 67), Selkirk-en baieztapena honela birformulatzea proposatu zuen:

“Argumentu subjektua hitz elkartuan ase daiteke, buruaren argumentu bakarra baldin bada”.

Gogoan izan behar da, ordea, aditz ez-ergatiboak¹⁰ ere argumentu bakarrekoak direla; eta ez dirudi **mutil-eskiatze* edo **izar-distiratzte* zilegi direnik. Azken batean, bai bi argumentuko aditzetan, eta bai ez-akusatiboetan, buru ez den osagaiak ‘tema’ edo ‘gaia’ argumentua hartzen duenez (eta bai batzuetan eta bai besteetan, aditzaren proiektzioaren barruan sortuko litzateke argumentu hori), aski litzateke beste hau esatea:

“Hitz elkartuetan ‘gaia’ argumentua aseko du buru ez den osagaiak”.

“Hitz elkartuetan, ‘egile’ argumentua ezingo du ase buru ez den osagaiak”.

Azken batean, bigarren baieztapena, eta Williams-ena (1981) gauza bera dira:

“External arguments cannot be satisfied within compound structure”.

Subjektu den ala ez den alde batera utzirik, barne-argumentuaren aldeko aukera eginez gero, berdin izango litzazuke *orri-irtete* eta *orri-erorte* nola ulertu behar diren (‘orriak erori/irten dira’ ala ‘orriak erori/irten zaizkio [zuhaitzari]’), bietan ‘gaia’ barne-argumentua legokiokeelako ezkerreko osagaiari.

3. \downarrow [ADITZOINA + -ERA] \downarrow BURU DUTEN HITZ-ELKARTEAK

Hauetan ere nahitaezkoa da *-era* atzizkiaren adiera desberdinak behintzat kontuan hartzea, nahiz azterketa sakonagoa aurreragoko utzi. Funtsean, bi balio bereiz ditzakegu:

- nor-motako aditzei erantsiaz, ‘gertaera’ adierako izenak sortzea, nahiz beti garbi ez egon adiera zein den.

¹⁰ Ez-akusatibo / ez-ergatibo bereizketarako, ikus, besteen artean, Levin B. eta Rappaport Hovav M. (1992): “The lexical semantics of verbs of motion: the perspectives from unaccusativity”, I.M. Roca (ed), *Thematic structure: its role in grammar*. Dordrecht: Foris, 247-269; Levin B. eta Rappaport Hovav M. (1995): *Unaccusativity: at the syntax-lexical semantics interface*. Cambridge, Mass.: MIT Press; Van Valin, R.D. (1990): “Semantic parameters of split intransitivity”, *Language* 66, 221-260; Zaenen, A. (1993): “Unaccusativity in Dutch: integrating syntax and lexical semantics”, J. Pustejovsky (ed), *Semantics and the lexicon*, Dordrecht: Kluwer, 129-161

hasiera, amaiera, igoera, jaitsiera, joanera, etorrera, piztuera, sarrera, irteera, bilera, jarduera, biziera, itxiera.

– aditz-mota zabalagoei erantsiaz, ‘gertaeraren modua’ adierazten duten izenak sortzea (lexikalizazio-maila desberdina dutenak askotan).

janzkera, orrazkera, siniskera, idazkera, erabilera, joskera, jokaera, prestaera; jarrera, egoera, ibilera, izaera (‘modua’ adiera badagoela hauetan esango nuke).

Adibideak aztertuz, honakoak aurkitu ditugu Euskaltzaindiaren (1991) lanean:

arrai-prestaera, bertso-erantzua, hitz joskera, jatordu hasiera, klase-izakera, nobizio-sarrera, odolki-prestaera, sorgin-bilera, ur-sarrera eta XIX mende bukaera.

bakallau, txipiroi ta txitxardin-prestaeretan, Bedayo-ko kamio egite asiera.

Ez da zaila ohartzea, argumentutzat hartzekotan, ezkerreko izena ‘gaia’ dela esateko zalantzarik ez genukeela izango. Nor-motako aditzetan, aditz ez-akusatiboetan, hasieran barne-argumentu izan arren, sintaxian subjektu litzatekeena; nor-nork motakoetan, barne-argumentua.

Zalantzak, beste puntu batean sortzen zaizkigu. Egiaz esan al daiteke ‘modua’ adierarik ez duenean ere, ‘gertaera’ adiera dutela *-era*-rekin sorturiko izenek?

“nobizio-sarrerako paperak letra garbi eta dotorez ditu firmatuak” (I. Goikoetxea Maiza (1983): *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta Bilingüe alavés del siglo XVIII*). Gasteiz: Diputación Foral de Alava . Euskaltzaindia, 177).

“antziñako sorgin-billerak akerraren menpean egin ziran” (Askoren artean (1924): *Itzaldiak (Irugarren saila)*. Donostia, 59).

“esan behar da, Gold Exchange Estándar sistema honek, sorrera eta hasiera, XIX mende bukaeran izan zituela” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 53).

“burnizko ur-sarreraren tapak” (R. Saizarbitoria (1969): *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur, 116).

“Bedayo-ko kamio egite asiera garai artantxe izan zan” (J.R. Zubillaga (1964): *Lardasketa (Parrez ta negarrez, Bedayo'tar batek Argentina'n idatzia)*. Tolosa: Auspoa (40-41. zk), 36).

Horko *sorgin-bilera*-k, ‘sorgin(ak) biltzea’ esan nahi al du? Grimshaw-k (1990) eta Artiagoitiak (2000) aipatutako irizpideen arabera, plural marka hartzeak adieraziko luke ez dela ‘gertaera’ izena (eta, beraz, izenak ez duela aditzaren argumentu-egitura heredatu). *Nobizio-sarrera* elkartean, berriz, buru ez den osagaia, predikatu sintagmari dagokio ‘nobizio sartu’. Beste batzuetan argi dago ezinezkoa dela ‘gertaera’ irakurketa egitea: *burnizko... tapak* ondo asko erakusten du *ur-sarrera* izena ez dela ‘ura sartzea’, baizik ‘ura sartzen den lekua’. Hirugarren sail bat egin dezakegu *mende bukaera* bezalakoekin; hor badirudi errazagoa dela ‘mendea bukatze’ interpretazioa egitea; eta guztiz bitxia izan arren, *kamio egite asiera* ere, ‘kamioa egiten hastea’ izan daiteke, ezkerreko osagaia, *hasi*-ren barne-argumentua izanik.

4. [ADITZOINA + -KETA] BURU DUTEN HITZ-ELKARTEAK

Adibide-sorta ederra aurkituko dugu egitura honetako izen elkartuak aztertzean (Euskaltzaindia 1991):

adimen-azterketa, aitzakia-asmaketa, ardi-erosketa, arropa-konponketa, arta-zuriketa, azeri-lapurreta, diru-kontaketa, egitura-azterketa, etxe-miaketa, gazta-erosketa, gaztain-bilketa, gezi-jaurtiketa(n), ipui-sariketa, izen-apurketa, jantzi erosketa, jantzi-garbiketa, komentu miaketa, kristau heziketa, lan banaketa, mustur astinketa, sari banaketa.

Aditz iragankorrak dira [EG, GAIA] egiturakoak, eta, ohikoa den bezala, barne-argumentua, ‘gaia’, da ezkerreko osagaiak hartzen duena.

Beste batzuetan ez dago hain argi lehen begiratuan nola sailkatu behar dugun buru den izen eratorriaren oin den aditza, ez-akusatiboa den, ala balio arazlea duena:

esku-aldaketa, etxe-aldaketa, gizarte aldaketa, gizarte-banaketa(n), jende-aldaketa, landare aldaketa, langille-aldaketa, liturji berriketa, ostol-aldaketa.

“harek zituen “plantation” delako jende-aldaketak asmatu eta obratu” (J. Mirande (1976): *Jon Miranderen Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Gero, 211).

“esku-aldaketa batean artu nuan jatetxea” (J.-L. Davant (1983): “Udan irakurriak”, *P. Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2. Bilbo: Euskaltzaindia, 80).

“etxe-aldaketa ura 1901’garren urte asieran” (J. R. Zubillaga (1964): *Lardasketa (Parrez ta negarrez, Bedayo’tar batek Argentina’n idatzia)*. Tolosa: Auspoa (40-41. zk), 27).

“gizarte aldaketa edo eta gizarte sozialista bat lortzeko beharrezko den langile mugimenduaren eraketaz” (Elkar-lanean: “5. U.E.U.”, *Zebatz 3* (1978ko urtarrila/otsaila), 29).

“Naparro(a)-mugako landare aldaketa arretzek” (J.R. Zubillaga (1964): *Lardasketa (Parrez ta negarrez, Bedayo’tar batek Argentina’n idatzia)*. Tolosa: Auspoa (40-41. zk), 35).

“tinko edo fijo idukitzen zituela, langille-aldaketan ibilli gabe” (J.R. Zubillaga (1964): *Lardasketa (Parrez ta negarrez, Bedayo’tar batek Argentina’n idatzia)*. Tolosa: Auspoa (40-41. zk), 86).

“ez dakit jakingo dezun liturji berriketa oietarako gauzak gertutzen asiak generala” (S. Onaindia (1974): *Eskutitzak. Euskal literaturari buruz*. Bilbo: Egile Editore, 199).

“udaberriko osto-loraketa miragarria an etengabekoa ezagutu izan dute gizaldi guziak” (S. Mitxelena (1951): *Ama-sembleak Arantzazuko kondairan*. Arantzazu: EFA, 74).

Izen elkartu horiek beren testuinguruan ikusi ondoren, esan daiteke behin baino gehiagotan bi argumentuko aditzak ditugula (‘gaia’/‘jasailea’ izanik elkartuko buru ez den osagaiak hartzen duen argumentua). Horrela interpretatuko genituzke *jende-aldaketa* (‘jendea (lekuz) aldatu dute’), *etxe-aldaketa*, *langile-aldaketa* edo *liturji-berriketa*.

Aldatu aditza bi argumentukotzat hartu arren, berezi samarra da *esku-aldaketa*; ‘jatetxea eskuz aldatu da’ moduan ulertuaz, hala ere, barne-argumentua litzateke berriro ere ezkerreko osagaiari dagokiona.

Bi argumentuko egituratik aldentzen dena *ostoloraketa* da, ez-akusatibotzat hartuko genukeena, duen argumentu bakar hori, ‘gaia’ izanik mugatzaileak hartzen duena. Dena den, eratorpenean aztertzekoa da, berez, *-keta* atzizkiaren kategoria-hautapena, aditz ez-akusatiboak onartzen dituen ala ez.

5. [ADITZOINA + -PEN]: BURU DUTEN HITZ-ELKARTEAK

Atzizki honekin sorturiko izenak ugariak izan arren, urriak dira horrelako izenak buru dituzten hitz elkartuak (beti ere kontuan harturik Euskaltzaindiaren (1991) adibidetegiaz baliatzen garela, eta corpus zabalagoek emaitza joriagoak eman ditzaketela):

Berri-laburpen, diru ugalpen, hats beherapen, maite-aitorpen:

“asteko berri-laburpena” (X. Lizardi (1972): *Itz-lauz*. Donostia: Edili, 67).

“axioma horien arabera, diru ugalpenak zera dakar” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 16).

“maite-aitorpen bat, barru-hustu bat, ordainezko karta-eske bat” (I. Goikoetxea Maiza, (1983): *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta Bilingüe alavés del siglo XVIII*. Gasteiz: Diputación Foral de Alava - Euskaltzaindia, 208).

Hats-beherapen ihartutzat emanda ere, *laburtu* eta *aitortu* bi argumentu-koen ondoan, argumentu bakarreko *ugaldu* ez-akusatiboa dugu. Aurreko egituretan baino indar handiagoz somatzen da hemen *-pen* bera aztertzearen beharra. Hala ere, elkartuko lehen osagaia ‘gaia’ dela esateko arazorik ez dago.

6. [ADITZOINA + -KUNTZA, -KUNDE, -DURA] BURU DUTEN HITZ-ELKARTEAK

Euskaltzaindiak (1991) atal bakarrean biltzen ditu hirurak, emankortasunaren aldetik orain artekoak baino askoz urriagoak direlako:

iraultza-nahikunde, abere-sendakintza, erlijio irakaskintza, folklore ikaskuntza, bihotz erredura:

“USA-n ere irakultza-nahikunde ugari agertzen da” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 50).

“erlijio irakaskintzan enplegatzen da soilik” (I. Sarasola (1971): *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur, 12).

“folklore-ikaskuntzak antziñako erlijio, oitura eta esamesen berriak azaltzen dizkigu” (Askoren artean (1924): *Itzaldiak* (Iruigarren saila). Donostia, 70).

“ordutik iraganxea zukeen gure mirikuak gerla aintzineko bere bihotz-erredura” (J. Etchepare (1980): *Buruxkak*. Donostia: Elkar, 15).

Bestalde, aitortzen da ez dagoela batere argi atzizki hauek duten adiera, nahiago bada atzizki hauen bidez sorturiko izenen adiera, ‘gertaera’ (‘ekintza’) adiera duten ala ez, baina “bilketa zabala eginaz, A-x-kuntza, A-x-kunde eta A-x-dura egiturak ere ekintza-elkarte osatuetan jaso ditugu” (Euskaltzaindia 1991: 53).

Buru den izen eratorriaren balioa albo batera utziaz, ez dago zalantzarik zein rol tematiko hartzen duen buru ez den osagaiak. Aditzak bi argumetukoak dira (*nahi izan* ere aditz konplexutzat hartuaz; eta kontuan izanik morfologikoki behintzat hiru argumentukoa behar lukeen *irakatsi* behin baino gehiagotan erabiltzen dela datiborik gabe), [EG, GAIA] edo [ESP, GAIA] egiturakoak. Eta ezkerreko izena, salbuespenik gabe, aditzaren ‘gaia’ argumentutzat, barne-argumentutzat hartuko genuke.

7. [ADITZOINA + -TZA], BURU DUTEN HITZ-ELKARTEAK

Euskaltzaindiaren (1991: 54) hitzek adierazten digute ostera ere egitura hauen inguruan zer zalantza sortzen den: “Aurreko atalean azaldu dugun atzizkiaren ‘ekintza’ adierari buruzko zalantza bera izan dugu hemen ere: *eskaintze* eta *eskaintza* bereizten ditugun heinean behintzat, *-tza* atzizkiak ‘ekintza’ soila baino zerbait gehiago adierazten duela dirudi eta. Hala ere izenak objektu funtzioa betetzen duenez elkarte sintetikoetan leku izango lukete ondokoek”:

odol eskaintza, lanordu-eskaintza, “lan eskaintza”, gizalantza, birjasotze-ekintza.

“lansariaren gorapenak ez duela “lan eskaintza” handituko” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 28).

“lan-ordu eskaintzaz” dihardugunean” (G. Ansola (1972): *USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia*. Bilbo: Gero, 27).

“odol eskeintza, Altzu’k egina” (S. Onaindia (1974): *Eskutitzak. Euskal literaturari buruz*. Bilbo: Egile Editore, 191).

“gizalantzaren bideetarik ibili nahi badugu” (J. Mirande (1976): *Jon Mirandereren Idazlan Hautatuak*. Bilbo: Gero, 219).

“Cantabria dragaontzia bir-jasotze-ekintzan bere borondatez jardun nai zuten guztiak langille-batalloietatik aske geldituko zizalra aginduz” (F. Artola “Bordari”, R. Artola (1982): *Aritz beraren adarrrak*. Tolosa: Auspoa (156. zk), 41).

Guztiak ere bi argumentukoak dira, [EG, GAIA] egiturakoak (*ekin* ere *dio* laguntzailea hartu arren, ‘nork-zeri ekin’ argumentuak dituena baita, [EG, GAIA] beraz). Eta ezkerreko izena, zalantzarik gabe, ‘gaia’ dela esango genuke.

8. LABUR BILDUAZ (ONDORIOAK)

Azkaratek (1990) osagaien funtzio sintaktikoa kontuan hartuz egindako ‘objektu-aditz’ eta ‘subjektu-aditz’ motako izen elkartuak, eta Euskaltzaindiak (1991) ‘ekintza-elkarte sintetiko’ deiturikoak Morfologia Sortzailearen ikuspegitik aztertuz, eta zenbait hizkuntzalarik eginiko baieztapenak euskal datuekin alderatuaz, honela adieraz dezakegu auzia zertan den.

- a) Buru den osagaiari dagokionez, auzi nagusia da zein motatako izena den argitzea, ‘gertaera’ ala ‘emaitza’ adierazten duena, Grimshaw-en (1990) terminologiaz baliatuaz¹¹.
- b) Mota bateko ala besteko izena izan, ‘argumentu-egitura’rik duen ala ez eztabaida daiteke, eta ‘argumentu-egitura’ hori ‘heredatua’ den ala ez.
- c) Aurreko bi puntuetan argi gehiago egiteko, hitz-elkarteen ondoan, nahitaezkoa da izen eratorriak ere aztertzea. Hau da, *-era*, *-keta*, *-pen* edo *-dura* atzizkien bidez sorturiko izenek nolako sintagmak osatzen dituzten. Eginkizun dugun lana.
 - d) ‘Herentzia’rik dagoen ala ez¹² alde batera utzita, buru ez den osagaia, euskararen kasuan ezkerreko izena, nola ulertuko genukeen azter daiteke. Hau dela eta, funtsean hiru baieztapen jaso ditugu:
 - subjektu argumentua edo kanpo-argumentua hitz elkartuaren barruan gauzatzeko debekuari buruzkoa (Williams 1981, Selkirk 1982, Lieber 1983, DiSciullo eta Williams 1987).
 - subjektu ez diren argumentu guztiak (hau da, barne-argumentu guztiak), X_i kategoria lexikoaren lehen mailako islapenaren barruan ase behar dira (Selkirk 1982).
 - buruak barne-argumentu bat baino gehiago hartzen duenean, hierarkian ‘beheren’ dagoena egongo da hitz elkartuaren barruan (Grimshaw 1990).
 - euskal adibideak ikusirik,
 - guztiz betetzen da Grimshaw-en baieztapena, aditzak argumentu bat baino gehiago duenean, ‘beheren’ dagoena, ‘gaia’ baita ezkerreko osagaiak hartzen duena adibe guztietan.

¹¹ Artiagoitiak (2000) ere horixe aukeratu du.

¹² Eta, orobat, buru den izenak paper tematikorik eman dezakeen ala ez, eztabaida teorikotzat hartu eta alde batera utziaz.

- ezin dira salbuespen marginaltzat hartu aditz ez-akusatiboaren gainean eraikitako elkartuak (*idazle-ugaltze, argi-haste, elur-jauste, lur-ikaratze; sorgin-bilera, mende-hasiera, urte-amaiera; osto-loraketa; diru-ugalpen*, etab.¹³). Euskarazko datuak bat datoz beste hizkuntza batzuetan gertatzen denarekin (Kiefer 1992). Honek eraman gaitu Selkirk-en eta Grimshaw-en baieztapenak bildurik, hitz elkartu sintetikoek ezaugarriak modu honetan birformulatzea egokiago litzatekeela proposatzera:

1. ‘gaia’ argumentua aseko du buru ez den osagaiak.

2. ‘egile’ argumentua ezingo da ase hitz elkartuaren barruan.

- ezkerreko izena ‘gaia’ argumentu gisa har daitekeenez, aztertu ditugun egiturak egiazko ‘elkarte sintetikotzat’ hartuko genituzke, Selkirk-en (1982: 23) definizioa geure egiten badugu behintzat:

“I will use the term *verbal compounds* to designate endocentric adjective or noun compounds whose head adjective or noun (respectively) is morphologically complex, having been derived from a verb, and whose nonhead constituent is interpreted as an argument of the head adjective or noun”.

- datu gehiago beharko genituzkeen arren, badira adibide gutxi batzuk, hiru argumentuko aditzetik eratorritako izena buru dutenak: *adar jotze, esker erakuste*. Bigarren argumentua ez da asetzen lehen mailako islapenaren barruan; beraz, Selkirk-en baieztapena ez da betetzen euskaraz. Argumentu hori edo ez da gauzatzen, edo perpauseko aditzeko argumentuarekin bat dato- rrelako, perpausean islatzen da.

- guztiz marginalak dira *olermen-irakite* modukoak, aditz ez-ergatiboa oin dutenak; salbuespentzat (normalizazioaren ikuspegitik ‘gaizki eraturiko’ elkartetzat) hartzekoak.

BIBLIOGRAFIA

ARTIAGOITIA, X. (2000): *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Arabako Foru Aldundia.

AZKARATE, M. (1990): *Hitz Elkartuak Euskaraz*. Euskal Filologia 3z. Donostia: Deustuko unibertsitatea.

¹³ -Tze-rekin osatutako elkarteak askoz ugariago direnez, aditz ez-akusatiboen adibideak ere ugariago dira talde honetan gainerakoetan baino.

- (1995): “Sobre los compuestos de tipo sustantivo + sust/adj deverbal en euskera” P. Goenaga (arg.) *De Gramática Generativa*, “ASJU”ren Gehigarriak, XXXVIII. Gasteiz, Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea Gipuzkoako Foru Aldundia, 39-50.
- AZKUE, R.M. (1923-25): *Morfología Vasca*. (1969, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca).
- BOOIJ, G. (1988): “The Relation between Inheritance and Argument Linking: Deverbal Nouns in Dutch”, Everaert et al. (arg). *Morphology and Modularity*. Dordrecht: Foris; 57-73.
- BOOIJ, G. and VAN HATTEN, T. (1988): “On the external syntax of derived words: evidence from Dutch”, G. Booij and Marle van J. (arg), *Yearbook of Morphology 1988*. Dordrecht: Foris; 29-44.
- DISCIULLO, A.M. di eta Williams E. (1987): *On the Definition of Word*. Cambridge MA: MIT Press.
- EUSKALTZAINDIA (1991): *Hitz-Elkarketa/3*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- FABB, N. (1984): *Syntactic Affixation*. Doktore tesia. MIT.
- GRIMSHAW, J. (1990): *Argument structure*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- HIGGINBOTHAM, J. (1985): “On Semantics”, *Linguistic Inquiry* 16, 547-621.
- HUALDE, J.I. and Ortiz de Urbina J. (arg.) (2003): *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- KIEFER, F. (1992): “Compounding in Hungarian”, *Rivista di Linguística* 4, 1; 61-78.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire Basque* (NavarroLabourdin Littéraire). (1979, Donostia: Elkar).
- LEVIN, B. Eta Rappaport, M. (1988): “Nonevent -er nominals: a probe into argument structure”, *Linguistics* 26; 1067-1083.
- LIEBER, R. (1983): “Argument-linking and compounds in English”, *Linguistic Inquiry* 14; 251-285.
- SELKIRK, E. (1982): *The Syntax of Words*. Linguistic Inquiry Monographs 7. Cambridge, MA: MIT Press.
- SPENCER, A. (1991): *Morphological Theory*. Blackwell.
- SPROAT, R. (1985): *On Deriving the Lexicon*. Doktore tesia. MIT.
- VARELA, S. (1990b): “Composición nominal y estructura temática”, *Revista Española de Lingüística* 20 (1); 55-81.
- WILLIAMS, E. (1981): «Argument Structure and Morphology” *The Linguistic Review* 1: 81-114.

ANTROPÓNIMOS PRIMITIVOS EN LENGUAS KARTVÉLICAS Y EN EUSKARA

Jan BRAUN
Universidad de Varsovia

La onomástica kartvélica y vasca iba evolucionando durante siglos. Dentro de ella se pueden discernir dos estratos. El primero y más viejo corresponde a los tiempos paganos de la historia de los pueblos en cuestión. El segundo, al período que arranca en el siglo IV y dura hasta los tiempos de la creciente importancia del cristianismo.

El objeto de investigación de este artículo es el primer estrato. Los antropónimos kartvélicos paganos derivan de los nombres comunes que denotan ciertas personas o sus rasgos. En su mayoría son diminutivos (sufijos *-a*, *-na*, *-ka*, *-uka*, *iko*, *-ia*, *-ula*, *una*).

EJEMPLOS

Kac-a (91)¹ - “hombre”

Kal-a (204) - “mujer”

Gogo-a (74) - “muchacha”

Mam-ia (100), Man-uka (101), Man-una (104) - “padre”

3am-a, 3am-ika, 3am-ina, 3am-uka, 3am-ula (149) - “hermano”

¹ Aleksandre *Რlonti*, *Kartveluri Sakutari Saxelebi, Antroponimia Leksikoni*, Tbilisi, 1967. Los números corresponden a las páginas del libro donde aparece el antropónimo en cuestión.

Gul-a, Guliko (175) - “corazón”
 Sul-iko (200) - “ánima”
 Lom-i, Lom-a, Lom-ika (98) - “león”
 Datu-a, Datu-ka, Datu-na (71) - “oso”
 Mgel-a, Mgel-ika (103) - “lobo”
 Šašu-a (142) - “tordo”
 Šava (140) - “negro”
 Lamaz-a (97) - “pulcro”
 Lamaz-a (187) - “pulcra”.

En la lengua de los vascos paganos los antropónimos también derivaban de los nombres comunes que denotaban ciertas personas. En la estructura morfológica lo que dominaba igualmente eran los diminutivos (sufijo *-to, co, xo*).

EJEMPLOS

- 136² Cison = vasco *gizon*, “hombre, varón”
 18 Andere = vasco *andere*, “mujer, señora”
 256 Nesca-to = vasco *neska* “muchacha, dim. *neska-to*”
 310 Seni-co = vasco *sehi, sein, segi*, “niño”
 313 Senius (lat. nom. sing.) = idem
 266 Ombe-cco = vasco *ume*, “niño, crío”
 267 Ombe-xon-is (lat. gen. sing.) = idem
 58 Atta-con-i (lat. dat. sing.) = vasco *aita*, “padre”
 50 Atta-con-is (lat. gen. sing.) = idem
 295 Sembe-ccon-is (lat. gen. sing.) = vasco *seme*, “hijo”
 301 Sembe-xon-is (lat. gen. sing.) = idem
 200 Hanna = vasco *anaia*, “hermano (de hermano)”.
 205 Hanna-x-us (lat. nom. sing.) = idem
 214 Harsi (lat. gen. sing.) = vasco *hartz*, “oso”
 310 Arz-co = idem
 310 Ocho-co (Leire, XII s.), Ochoa (dux Aquitaniae) = vasco *otso*, “lobo”
 344 Sosonn-is (lat. gen. sing.) = vasco *zozo*, “tordo”
 231 Illuna = vasco *il(h)un*, “oscuro”

² Los nombres citados en esta parte del artículo provienen del libro de Joaquín Gorrochategui Churruga, *Estudio sobre la Onomástica Indígena de Aquitania*, Vitoria-Bilbao (s.f.).

- 75 Belex = vasco *beltz*, “negro”
84 Berhaxs-is (lat. gen. sing.) = vasco *beratz*, “blando”
90 Bihox-us (lat. nom. sing.) = vasco *bihotz*, “corazón”.

La antroponimia vasca precristiana, conservada en las inscripciones sepulcrales latinas en el territorio de Aquitania, se asemeja tipológicamente a la antroponimia kartvélica.

TRAD. ZUZANNA JAKUBOWSKA

PIERRE LHANDE ETA EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA

Jon CASENAVE
Université Michel de Montaigne-Bordeaux 3/IKER

Haritschelhar jaunari, estimu handiz.

Egungo egunean doi bat ahantzia baldin bada ere, gogoratu behar da Pierre Lhande, eragin handiko gizona izan dela, XX. mende hastapenean. Orduko euskal kulturaren anitz sailetan ari izana da lanean eta hiztegi egile bezala egon baldin bada gure oroitzapenetan, gogorarazi behar da eleberri eta saiakera egile gisa bildu zuela bere famarik handiena. Ondoko lerroetan ez dugu haren obraren alderdi bat baizik aipatuko, euskal literaturen historian egin duen ekarpen garrantzitsu bezain aurrerakoia, hain zuzen. Bainan, azterketa hortan sartu baino lehen eta kritikariaren lana argitzeko, xehetasun biografiko premiatsu batzu emanen ditugu.

1. PIERRE LHANDE, ITZAL HANDIKO GIZONA XX-GARREN MENDE HASTAPENEAN:

Idazlan honetan ez dut haren biografia eginen, irakurleak bestalde aurkitzen ahalko baititu jakin nahi dituen xehetasunak¹. Gaiari buruzko ohar beharrenak eginen ditut, doi doia.

¹ Patri Urkizu, *Pierre Lhande Heguy (1877-1957)*, Bidegileak, Ed. Eusko Jaurlaritza, 1998.

1.1. Xehetasun biografikoak

Pierre Lhande Baionan sortu zen 1877an eta Atharratzen itzali zen 1957an, luzaz eri handia egonik. 1900. urtean Jesusen Lagundian sartu zen eta 1910ean apaiztu zen. Jesusen Lagundiko kide izanez, formakuntza sakona ukan zuen anitz sailetan eta, batez ere, Letretan (Literatura, Filosofia, Historia). Autore klasikoak baita ere XIX. mendekoak oso ongi ezagutzen zituen, eta bera literatur zalea eta idazlea izanki, garaikideen emaitzak ere guziz hurbiletik jarraituz zituen, frantsesak gehien bat, baina, gazteleraz idazten zituztenak ere bai. Apaiz bezala biziki ezaguna zen, bereziki Pariseko eskualdean jende behartsuen alde egin zuen lanari esker. Bestalde, jakin behar da ere, irrtiaren bidez zabaldu ziren erlisoari buruzko lehen emankizunetan parte hartu zuela *Radio Paris* eta *Radio Luxembourg* irratietan (1927-1933), predikari gisa. Baina, goi maileko intelektual hori, arrakasta handiko idazlea zen ere XX. mendeko lehen laurdenean. Orduko Euskaldunen artean, gutti izan dira hura bezain idazle emankorrak izan direnak, berrogei liburu pasa argitaratu baitu bere bizian, gehienak erdaraz.

1910etik, 1925arte, egonaldi luzeak egin ditu Euskal Herrian eta, munduko lehen gerla aintzin baita ere ondotik, zenbait urtez, Hernanin eta Hondarribian bizi izan da, Jesuiten ikastetxeetan klaseak ematen. Euskara landu zuen urte haietan eta funtsezko idazlanak ondu zituen. Besteak beste, aipa dezagun oraindik erabiltzen den “Lhande“ hiztegia, nahiz ez zuen harek lana bururaraino ereman ahal izan². *Euskaltzaindia*-n ere parte hartu zuen abantxu hastapenetik (1920), Zubereraren ordezkari gisa eta *Euskera*, Akademiaren agerkaria kudeatu zuen bi urtez. Baina, lehenago aipatu bezala, bere obraren parte handiena frantsesez egin zuen.

1.2. Euskal zikloa, P. Lhande-n obran

Liburu multxo nasai horretan, zazpi badira Euskal Herriari buruz idatziak izan direnak. Lehenik, bi saiakera argitaratu zituen Pierre Lhandek bere sorterriari buruz :

- *Autour d'un foyer basque*, (1908).
- *L'Emigration basque*, (1910).

Bi saio horietan, antropologia, etnologia eta historiaren metodologiak erabili zituen gaiari heltzeko.

² Piarres Lafitte-k eta Ph. Aranart-ek bukatu zuten Lhande-k «e» letran utzi zuen lana.

Zenbait urte berantago, hirugarren saioa idatzi zuen, lehen saiakeraren (1908) parte handiena erabiliz, heren batez osatzen zuela hiru kapitulu berriekin.

– *Le Pays basque à vol d’oiseau* (1925).

Bestalde, eleberrigintzaren bidea baliatuz, « euskal ziklo » bat idatzi zuen :

– *Mirentchu* (1914), eleberri kostunbrista, frantsesez.

– *Yolanda* (1921) : eleberri historikoa, frantsesez eta euskaraz.

– *Bilbilis* (1926), eleberri « apokaliptikoa », frantsesez.

– *Le Moulin d’Hernani* (1936), ipuin eta kondeketa bilduma, frantsesez.

Kritika literarioan ari izana da eta sail horretan ere, guziz oroitzekoa da utzi duen lan ederra. Frantses literaturaren aktualitatea jarraikitzen zuen, baita ere gaztelarazkoa ; hain zuzen, hortarako ekarrarazi zuten Euskal Herritik eta Toulouse hiritik Parisera, *Etudes* Jesuiten agerkari famatuan parte hartzeko, literatur kritikari gisa. Bainan, euskal literatura landu zuen ere; urte gutiz (1919-1925), garrantzi handiko lana egin zuen, literaturazale eta kritikari zorrotza baitzen, eta denbora berean, formakuntza oneko aditua, frantses “eskola historikoa” ongi ezagutzen zuena.

2. KRITIKARIAREN EMAITZA

2.1. Idazlan kritiko nagusiak

Euskal literaturaren kritika mailan egin duen lana izanen da aipagai ondoko lerroetan. Nahiz ez ditugun idazlan guzti-guztiak bildu, Lhande-n ikuspegi eta erabiltzen zuen metodologia bilatu ditugu argitaratu dituen idazlan kritiko nagusietan :

RIEV:

1914: . Le théâtre de plein air : Maïtena.

1919: - Bulletin de littérature basque :

. P. Baroja : *Momentum catastrophicum*

. Aranaz Castellanos : « *Begui eder* » (Nuestra Señora de los ojos hermosos).

Cuadros vascos.

. L. Eleizalde : *Landibar*.

. R.M. Azkue : *Ardi galdua*.

. A. Campion : *Euskariana*.

- Bestalde :
- . Replica al señor Baroja.

Ohar bat :

Urte hartan, aitzineko alean Pio Baroja-ren “Momentum catastrophicum” liburua aipatu zuen Lhande-k. Idazlan hortan, garbiki idazten zuen Baroja-k *L’Emigration basque* (1910) saiakeratik testu zati bat hartu ziola *Las inquietudes de Shanti Andia* eleberrian erabiltzeko. Ale berean, Pio Barojak egindako “Contestacion a Mr. Pierre Lhande sobre un supuesto plagio” artikuluari erantzun zion Lhande-k, molde bizi-bizian.

1920 : - Bulletin de littérature basque : Domingo de Agirre.

- Bibliografia :
- . R. Nadaud : *Esquisses basques*. (Aipamen kritikoa).
- . A. De La Sota : *Divagaciones de un transeunte*.

Gure Herria : 1923 : Le barde Etchahoun.

Itzaldiak : (*Euskal-Esnalea* agerkariaren gehigarria):

1923 : Agirre, irakurgaikiña.

Aintzin solasa : Auguste Fourcade, *La nuit étoilée*, 1922.

Le Pays basque à vol d’oiseau (1925) :

- . La littérature et la langue (Chapitre III).

2.2. Krikitariaren ikuspegia

Gaineko zerrendan aipatu lanen aurkezteko, ondoko lau sailak erabiliko ditut.

- Liburu berrien kronika.
 - Lan monografikoak : D. Agirre ; le barde Etchahoun.
 - Bestelakoak : aitzin solasak.
 - Euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra : *Le Pays basque à vol d’oiseau*.
- *Liburu berrien kronika* :

Ez du luzaz eginen 1919an *RIEV* abiatzen duen kronika, 1921etik goiti, Hernanitik Toulouse hirira bidalia baita. Lehen urtean, bi aipamen andana ematen ditu. Lehenean, bi idazlan aurkezten ditu : Pio Baroja-ren *Momentum catastrophicum* eta Aranaz-Castellanos-en *Begui eder*.

1919an, Baroja idazle guziz ezaguna da. Berrargitaratu duen liburutto baten aurkezpena egiten du Lhande-k. Eta lehen lefroetan berean, ez duela batere gustuko ga berbi erakusten du. Barojak erabiltzen duen doinu umoretsu eta ironiko ber berean, Lhande-k dio Berako idazlearen errana alderantziz ulertu behar dela. Baroja-k « euskal nazionalismoa »ri erasotzen dio liburuan, orduan kontrakoa irakurri behar da :

il se déclare l'ennemi absolu du séparatisme : « Esto lo que no sea universal, dit-il, no ha razon de ser ». Cependant, il accepte l'idée de former une petite république indépendante dans sa vallée de la Bidassoa, « un pequeño país, limpio, sin moscas, sin frailes y sin carabineros.

Lhande-k Beratarraren obra eta nortasuna horrela erakusten ditu:

régionaliste et Basque, il l'est en dépit de ses proclamations, bien plus sincèrement que maint auteur d'idylles locales ou maint partisan de l'autonomie basque. Seulement il a pour sa petite patrie l'amour inquiet et douloureux des névrosés.

Baroja-ren baitan ikusten dituen kontradizioak azpimarratu ondoan, segitzen du aurrera beste itzal bat erakutsi beharrez, Berako idazlearen etika falta eta diruaren alderako joera, hain zuzen :

cet écrivain qui se targue de froisser les sentiments de la foule et, qui vise en apparence à l'impopularité, sait fort bien que le programme nationaliste excite de grandes colères et s'attire des haines féroces dans tout le reste de la Péninsule. On proscrie le parti, on l'isole, on le désarme par le vide. Un écrivain « nationalista » est parfaitement sûr de ne pas vendre ses livres, eût-il le talent et la renommée de Pio Baroja. (...) Alors que voulez-vous, pris entre ses penchants nationalistes et ... ses droits d'auteur, l'écrivain préfère sacrifier les premiers aux seconds !.

Denbora joan da anartean, eta Berako idazlearen omena gora dago, Lhande-na aldiz, mendretu da eta, euskal kulturaren ez bada, frantsesezko idazle bezala guziz ahantzia izan da. Oraiko ikuspuntutik badirudi kopeta bazuela Lhande-k Baroja handia molde horretan erabiltzeko, bainan, oroitu behar da Lhandek zer fama zuen orduan. Ez zeukan bere burua, Barojak berea baino guttiago, urrundik ere. Eta bi ohar gehitu behar dira gai horrekin bukatu baino lehen. Gerorago ikusiko dugun bezala, erran behar da Lhande kritikari zorrotza zela eta ez zuela liburu edo gai bati buruz pentsatzen zuena gordezten batere, egilea adiskide mina izanik ere, Azkue-ren kasua lekuko.

Bainan, Baroja eta Lhande-n artean, bazen zerbait gehiago. Bien arteko harremanak guztiz polemikoak izan ziren « plagio » arazo batengatik. Aipatu dugun artikulua berean, Lhande-k ausiki bat botatu zion Beratarrari, baizik eta *Shanti Andia* eleberrian erabili eta itzuli zuela *L'Emigration basque* (1910) saiakeran berak idatzi zuen zati bat. Barojak ihardetsi zion doinu

mindu batez, eleberrigileak ez dituela fikzio batean erabilitako iturriak agerian uzten. Eta gehitzen zuen desafio moduan, bi testuak (frantsesezko originala eta haren “itzulpen-egokipena”) parrez par eman zitzan ondoko RIEV-eko alean. Lhande-k orduan ez zuen dudatu eta, biak argitaratu zituen sartze labur baten ondotik :

el señor Baroja esta perfectamente en su derecho, al pedirme la publicación integra de las dos páginas aludidas en mi nota. Me apresuro a darle gusto. Esta sencilla comparación de textos es de por sí bastante significativa para que me ahorre el trabajo de subrayar o comentarlos. “Replica al señor Baroja”, RIEV, 1919.

1919ko lehen alean, Barojaz gain Aranz-Castellanos-en *Begui eder* eleberria tirokatzen du molde ironiko berdinez. Liburuak, Euskaldunak ditu gai bezala hartzen bainan, haien gutiesteko, Lhande-k dionez, bai pertsonaien sinesgarritasun eskasagatik, baita ere kondaketaren ahuleziarengatik, eleberri txarra da Bilboko kazetari ohiaren lehen eleberri hori.

Urte bereko bigarren alean, Eleizalde-ren *Landibar* eleberria aipatzen du. Oro har, Lhandek uste du idazlan ona dela literatura mailan, Aranz-Castellanos-ena baino aise hobea, omen. Bainan, *Landibar* horretan ere, alde onen artean akats bat aurkitzen du halarik ere :

certes, par la solidité de la trame, la richesse et l’exactitude de la documentation, la vigueur des reliefs dans les caractères et les figures, la finesse psychologique enfin, Landibar est à mille pieds au dessus de Begui-Eder, mais il est impossible au critique impartial de ne pas reconnaître dans l’œuvre du jeune et brillant professeur à l’Institut de Vitoria ce même souffle de sourde haine, ce même ton de sarcasme que nous avons signalés dans le livre de l’ancien journaliste bilbaino. Seulement, ici, les rôles sont renversés. L’objet de tant de traits tour à tour ironiques et mortels, c’est le gouvernement de Madrid, c’est la politique, c’est la religion, c’est l’esprit qui règne au-delà de l’Ebre. C’est l’Espagne moderne, « geolière » et « tyran » de l’antique Euzkadi.

« Chronique de Littérature basque », RIEV, 1919.

Urte bereko artikulu berean, Arturo Campion-en *Euskariana* aurkezten du. Denetarik bildu du liburu hortan idazle nafartarrak eta Lhande-ek ez du espantu handirik bere oharretan. Badirudi, adiskide baten alde egindako aipamena dela benetako kritika baino, eta ohar batzu ez dira neurri txarrekoak...

je me suis souvent demandé en relisant la Bella Easo pourquoi Arturo Campion n’est pas aussi connu en France qu’un Unamuno ou qu’un Pio Baroja. Incontestablement il est égal au premier par l’érudition, supérieur au second par l’éclat du style, la puissance de l’idée, le relief ou la grâce de l’image. Baroja voit le noir du néant : Campion voit la vie.

« Chronique de Littérature basque », RIEV, 1919.

Dudarik gabe, maila handiagoko kritika da Azkue-ri egiten diona. Lekeitioko idazleak *Ardi galdua* argitaratu du aitzineko urtean. Liburu hartan, Ameriketara joana den Euskaldun baten gorabeherak kontatzen ditu, herritarrekin trukatzeko dituen gutunen bidez. Parada baliatuz, euskarazko eleberraren egoera eta poetika aztertzen ditu Lhandek :

assurément, il est impossible de juger une oeuvre comme *Ardi galdua* à la même mesure que celle des grands romans castillans ou français contemporains. Il faut tenir compte des obstacles qu'offrent une langue littéraire très imparfaite, un vocabulaire qui se plie difficilement aux complications psychologiques, la nécessité d'être clair et court devant un public peu habitué à la lecture courante.

« Chronique de Littérature basque », *RIEV*, 1919.

Bera eleberrigile izanki, oso ongi badaki zein diren oztopoak arnas luze-kondaketa irakurgarri eta erakargarri baten idazteko orduan. Horregatik, hizkuntza literarioaren malgutasun eskasa eta maila oneko irakurlegoaren falta horiek behin eta berriro aipatuko ditu bere kritika lanetan. Halarik ere, oso garbi uzten du gerorako bidea apailatzen duela Azkue horrelako lan dorpe batzuen bitartez :

de tels ouvriers sont précieux à l'aube d'une renaissance.

Plus tard, les vulgarisateurs viendront. Profitant du labeur longuement amassé par leurs devanciers, ils écriront aisément des œuvres à la fois pures et faciles, ils manieront avec aisance l'instrument redoutable de la langue euskarienne.

« Chronique de Littérature basque », *RIEV*, 1919.

- *Lan monografikoak* :

Aipamen luze eta sakon horiez gain, bi lan monografiko nagusi egin ditu, bi idazleri buruz : Etxahun-Barkoxe eta Txomin Agirre.

Agirre-ri buruzko lana bi hizkuntzetan agertu zen «Domingo Agirre» izeneko artikulua luzea frantsesez argitaratua izan zen *RIEV* aldizkarian 1920-an. Euskarazko testua, jatorrizkoa iduriz, « Itzaldiak » deitu *Euskal Esmalearen* gehigarrian publikatu zen, 1923-an, *Agirre, irakurgai kiña* titulua-rekin. Ondarruko euskaltzaina hil eta, mintzaldiak antolatua izan ziren Donostian, haren ohoretan. Horiek berak argitaratu zituzten *Euskal esmalearen* gehigarri hortan.

Bigarrena, 1923an agertu zen *Gure herria*-n eta frantsesez egina zen. « Le barde Etchahoun » deitu zuen Lhande-k eta, ordu hartan prestatzen zuen Etxahun Barkoxeren olerki bildumaren edizioan erabili nahi zuen, hitzaurre gisa. Bainan, denbora eskasez, baita ere ez zelakoan gehiago Euskal Herrian bizi, bilketa bukatu gabe utzi behar izan zuen³.

– *Aintzin solasaren funtzioa* :

Lhande-k idatzi dituen aitzinsolasetarik bat hautatu dugu erakusteko zer funtzio kritikoa betetzen zuen harentzat. 1922-an, Auguste Fourcade baionesak *La nuit étoilée* deitu eleberria argitaratzen du. Hitzaurrea, « Pierre Lhande de l'Académie de la langue basque » izenpetua da. Holakoetan erabiltzen diren ele onez gain, Lhande-k *Mirentchu* (1914) eleberrian obratu duen Loti-ren kritika berritzen du ; bainan, aldi honetan ez du fikzioaren bidea hartzen, eraso zuzena botatzen du :

encore un roman sur le pays basque ! » me disais-je avec mélancolie. « Encore une de ces œuvres où, parmi les descriptions des couchers de soleil derrière la Rhune ou Socoa, parmi des scènes de contrebande ou des parties de pelote, éclatera crûment cette méconnaissance profonde du caractère, de la mentalité, de l'âme de notre race, qui nous écoëure et nous révolte. Un pastiche plus ou moins bien troussé de Ramuntcho ; du pittoresque, du superficiel...

– *Ikuspegi orokorra* :

Euskal literaturari buruz Lhande-k eman duen ikuspegi orokorrena, *Le Pays basque à vol d'oiseau* izeneko liburuan aurki daiteke. Liburua 1925ean argitaratu zuen Pariseko Beauchesne argitaletxean, hiztegia (*Dictionnaire Français-Basque*) jalgi zen etxe berean. Lhandek berak hitzaurrean dioen bezala, bi partez osatua da. Liburuaren bigarren partea, laugarren kapitulutik hara, *Autour d'un Foyer basque*, 1908-an publikatu zuen bere lehen idazlana berritz hartu zuen, aspaldian agortua zelakoan. Lehen hiru kapituluak aldiz, berriak ziren eta Toulouse-ko Unibertsitate publikoan eman zituen klaseetarik moldatu zituen. Horieta aurkitzen da euskal literaturari buruz Lhandek egin duen lan luze, sakon eta egituratuena.

Le Pays basque à vol d'oiseau (1925, Ed. Beauchesne)

Table :

Préface

- I. Le décor
- II. Les origines
- III. La littérature et la langue
- IV. Le foyer basque
- V. Le maître de maison
- VI. La femme et l'enfant
- VII. Les domestiques

³ Jean Larrasquet xiberutar apaizak amaitu zuen liburua, eta Euskal-zaleen Biltzarrak argitaratu zuen, 1946-an : *Le Poète Pierre Topet dit Etchahun (1782-1862) et ses œuvres*.

- VIII. Le travail
- IX. La chasse et le jeu
- X. La veillée
- XI. L'idée religieuse
- XII. La part à Dieu
- Conclusion

3. PIERRE LHANDE-REN METODOLOGIA LITERATURAREN HISTORIA SAILEAN

Kritika mailan hiru lan nagusi utzi ditu P. Lhande-k eta banan-banan hartuko ditugu.

– *Agirre-ren idazlanen kritika* :

Hamabi orrialdetan, Agirre-ren obra aztertzen du Lhandek eta, adibide hortan oinarrituz, euskal eleberrigintzaren oinarriak eta norabideak aipatzen ditu. Aitzineko urtean, Azkue-ren *Ardi galdua* aurkeztu zuen eta gisa bereko lana egin zuen, eleberriaren gabeziak eta alde onak azpimarratuz, baita ere generoen poetika landuz.

Oroit gaitezen akatsak ikusten zituela *Ardi galduan*, batez ere kondagintzaren aldetik (gutunen bitartez egituratzeak jarraipena kentzen ziola ekintzari) eta batez ere hizkuntza mailan (hizkuntzalari batena zela eleberrigilearena baino). Agirre-rentzat ez da horrelakorik, *Kresala* eta *Garoa*, bakoitza bere ingurumenean (portuan eta mendian), kausitze ederrak bezala ikusten ditu Lhande-k. Eta hiru ezaugarri nagusi ematen ditu arrakastaren argitzeko :

“*Gai errexa, izkuntza jatorra, arlo goxo eta parrebidetsua*”.

Agirre, irakurgai kiña, Itzaldiak, 1923.

Lhande-n arabera, Agirre-k ez du hizkuntza bortxatzen egin ahala dote-re bilakarazteko. Bere lehen eleberrian hala egin zuen, *Auñamendiko lorea* (1898), hain zuzen. Bainan, ordutik hara Agirre-k ulertu omen zuen “*berak bere begiez ikusitako gertaldi bat zuzentzea, lenagoko kondaira zarrak jostea baiño zurrago izango zala*”. Eta gertaldiekin batean hizkuntza ere hartu zuen portuko kaletik beretik edo menditik. Horrelako zerbait kondatzen zuen Piarres Lafitte-k *Mintzaira, aurpegia, gizon* (Ed. Jakin, 1972) artikuluan antologiaren hitzaurrean : J. Hiriart-Urruty, bere artikulua bidean utizirik, jausten omen zen karrikara eta merkatuko euskaldunen artean murgiltzen zen jende arrunten “ahozko hizkuntzaz” beharriak bete beharrez. “Euskara naturala”-

ren “mito” (?) berbera erabiliz, Lhandek kondatzen du :

belarria erne, begia zorrotz, bazebilen arrantzaileak batu oi diran tokietara. Gogoan lenik ta gero txarteltxoan jende txikiaren esan-erantzunak sartzen zituan, ta bere belarritik xuxen idaztortzara orri batzuetako gaiak lerratu zitayola esan dezakegu.

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, 1923.

Garoa, Kresala baino gorago ezartzen du oraindik Lhandek, gehituz hura dela euskaraz sekula egin den eleberri hoberena, idazle gazteentzat eredugarri bezala gelditu beharra dena.

Halarik ere, ikuspegi baikor horretan ñabardura gisako zerbait ekarri behar da. Nahiz maisuki idazten duen, Agirre-k “*arlo goi ta meyak utzirik sail errex ta adigarriak*” erabiltzen ditu. Eta hori, “*gure baserritarak irakurtzen oitruak eztiralako*” dio Lhandek. Bainan, frantsesezko testuan, irizpide orokorragoetara lerratzen da, idazten duelarik :

la vie fait la langue. Or comme la vie basque est essentiellement simple et rustique, la langue basque, à son tour, doit exprimer nécessairement surtout les concepts simples et rustiques. On ne peut, sans lui faire violence, lui demander encore de rendre des complications sentimentales ou intellectuelles qui n’existent pas dans la vie dont elle est la formule. Si on veut l’euskara plus subtil, il faut que l’euskaldun le devienne davantage.

Domingo de Agirre, « Bulletin de littérature basque », *RIEV*, 1920

Hots, Azkuek kausitu ez zuena -goi mailako gogoetak pasa araztea euskara irakurgarri batean-, Agirre-k ez du bilatu ere. Hizkuntza, jendeek zera-bilaten heinean utzia du, nahi bezain maisuki, bainan maila hartan. Lhandek adierazten duenez, hori gertatzen da euskarak ez duelako oraindik behar zukeen malgutasuna hein horretan erabilgarri bihurtzeko gisa.

– “*Etxahun-Barkoxe*“-ren bertsortze lana. :

Etxahun-Barkoxe-ri buruz egiten duen azterketa luzea, lan mota zinez berria da orduko euskal letretan. Erran daiteke, literaturaren kritikagintzari bihurgune bat ematen diola, ordu arteko kritika moldeak (Urkijo, Etxepare, etb.) kontutan hartzen badira. Bainan, garai berean, Hegoaldeko eskualdean, Aitzol, Orixe eta Lizardi eta multxo bereko idazleen artean, gisa bereko urraspide historikoari buru egin zioten (gai hori, urrunago aipatuko dugu).

Etxahun-Barkoxe-ri buruz egiten duen artikuluan, bi kritika mota nahastu ditu Lhandek, alde batetik metodologia historikoa, bestaldetik hartze edo harrera enpatikoa eta subjektiboa.

Historikoa da Lhandek proposatzen duen azterketa, kronologikoa baita

hastetik buru. Etxahun-Barkoxe-ren bizi guzia kondatuko baitu hiru partetan, eta parte nagusi horietan azpi-parteak eginez : 1. La vie du poète. 2. Le foyer malheureux. La vie errante. Pasatzean, poetaren sorkuntza nagusiak (*Abaide delizius huntan, Bi berset dulurusik, Mündian malerusik, Barkoxeko eliza, Musde Thiraz*) aztertzen ditu, alde batetik, kondaketa historikoaren oinarritzeko eta, beste aldetik, froga gisa, susmatzen eta aintzintzen dituen Etxahun-en motiboen argitzeko.

Beraz, testuen bigarren erabiltze mota horrekin, historiatic hara eramaten gaitu kritikariak ; subjektibotasunean sarrarazten gaitu, hain zuzen. Eta, bide horretan bere burua ere sartzen du : kronologiatik aparte, bada artikuluan beste ardatz bat, guziz egituragarria : Lhande-k bidai bat bezala kondatzen du bere ikerketa. Bidai bat iraganean, baita ere bidai bat espazioan :

pendant les vacances de l'année dernière (1922), j'ai parcouru à dos de mulet les vallées de Gaztelondo, de Jauregiberria et de Malta, m'arrêtant aux seuils des maisons pour interroger les paysans.

« Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

Beraz, bilaketa zientifikoari bigarren bat, guziz pertsonalagoa lotzen dio. Eta, Etxahun-ek kurritu dituen leku guzietarik iragan ondoan, Barkoxeko hilerriraino badoa, eta han, hilobiaren aintzinean, poetari zuzenki mintzatuz, aztertzaileak aztertzen duenarekin komunikazioan sartzea lortu izan balu bezala egiten du:

mon brave Etchahoun, il y a quelque chance pour que, depuis la date de ta mort (...), tu n'aies pas reçu souvent à ta tombe la visite d'un prêtre...

« Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

Bertsolari ahantzi batetik (*Etchahoun n'était guère, en mon enfance, qu'un nom, un souvenir*) edo hobe erranez, kantu herrikoien egile gehienek gisa, erdi ahantzi batetik abiatuz, poeta baten figura sortzen du, euskal literaturan falta zena gainera : Erromantikoek asmatu zuten « poeta madarikatu »-arena. Bi ideia horiek (kritikaria figura literarioen sortzailea neurri batean ; Etxahun-Barkoxe poeta madarikatua) aurkitzen dira Lhanden idazlaneko sartzean berean :

c'est une de ces figures attachantes et pitoyables que je me flatte d'avoir découvert (sic) ...

« Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

Mito literarioen beharra badela, edozein kulturetan badaki oso ongi Lhandek eta, Etxahun-Barkoxe-rekin ikusten du « mito-gai » edo « ihizi » ona duela. Ez ginuke maltzurkeria edo tranpa bezala hartu behar Lhandek (baita ere Aitzolek bere aldetik) obratu duena. Doi doia, bestetan aurkitzen

zena eta gurean eskas zena sortu nahi zuen. Horrengatik, zer nahi alusio edo konparaketa erabiltzen du idazlanean zehar. Sartzean aurkitzen diren batzu altxatuko ditugu :

Le barde Etchaboun = Homero, Ossian, XIX-garren mendeko bardoak (Europako ekialdean, Prosper Mérimée- k aurkitzen dituenak, etab.)

Le sublime avengle de l'Hellade = Homero

Le Villon ou le Verlaine de la littérature basque : Erromantikoek sortu zuten « poeta madarikatuaren » figura.

Beraz, Lhande-k ez du hutsetik asmatzen aurreratzen duen hipotesia: adierazten du ez dugula gure tradizioa ezagutzen, ez dakigula ikusten benetako baloreak non diren, ez dakigula ere bestetan egiten denarekin gurea konparatzen. Hots, literaturaren historia eraikuntza bat dela, beste eraikuntza kultural eta politiko guzien gisa.

– *Le Pays basque à vol d'oiseau* :

Euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra ematea da, dudarik gabe, Lhande-n helburua *Le Pays basque à vol d'oiseau* liburuan. Hara nola aurkezten duen hitzaurrean :

... quelque ouvrage court et gréable qui leur fasse connaître dans leurs grandes lignes la physionomie extérieure, les origines, les traditions littéraires et morales de ce peuple énigmatique dont le premier aspect les a séduits.

« Introduction », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Hirugarren kapitulua, izpiritu berean egina, ikuspegi orokorrarena egina da ; « La littérature et la langue » deitzen da. Lau parte nagusitan banatua da. Lehen partean, nahiz ez duen izendatzen, Julien Vinson-i ihardesten dio. Harek, behin baino gehiagotan (ikus ondoko kapitulua), euskal literaturarik ez zela idatzi zuen. Lhande-k hiru pundutan egituratzen du bere erantzuna. Lehenik onartzen du ez daitekeela aurki euskal letretan obra nagusien zerrenda luze haietarik bat, Europako hizkuntza handietan bezala. Bainan, kontzezioa egin ondoan, bi mailetan aurreratzen du bere ikusmoldea. Lehen argudioa guziz modernoa da ; literaturaren instituzio eza (batez ere itzulpenetarako indar falta) azpimarratzen du. Harek dionez, gabezia hortan da oinarritzen Euskal Herritik kanpo nabaritzen den ezagutza eskasa. Bigarrenik, xeheki zenbatzen du zer den atzematen euskal letren ondasunen artean, poesia, antzerkia eta prosa denak batean emanik :

chansons de geste et mystères
légendes poétiques

oeuvres de prose
poèmes et romans
théâtre populaire et original

« La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Hots, mota askotako obrak badira haren iduriko eta dauka, frogaturik utzi duela euskal literatura bat badela. Halarik ere, konparaketa ausartak egi-ten ditu artetan, adibidez Noruegako Ibsen antzerki egile famatuaren parean ezartzen dituelarik J.B. Elizanburu edo Gratien Adéma «Zalduby».

Bigarren partean, euskal literaturak jasaten dituen ezagutza eta zabaltze falta aztertzen ditu. Euskaldunek berek ez dutela behar bezalako formakuntza jaso bai ama hizkuntza maila, baita ere euskal kulturari buruz, erdaraz eskola-tuak izan baitira eta, bestalde, letretan mail kaxkarra baizik ez dutelako lortu. Ondorioz, Agusti Xaho kendurik, euskal literaturaren aztertzaile gehienak kanpotik etorri direla erakusten du Lhandek. Eta hizkuntza ez baitzuten aski ulertzen (Francisque Michel eta Julien Vinson izendatzen ditu adibide gisa), ez dira gai izan gure ondasunen ezagutarazteko kanpoko erresumetan, erdararen bitartez. Bainan, hortik aparte, beste bi argibide ematen ditu kanpokoan estimu eskasaren azaltzeko :

j'ai dit que le peu d'estime où l'on a tenu jusqu'ici la littérature basque vient de son caractère esthétique très spécial, très différent de ce que nous sommes habitués à admirer chez les littératures des autres peuples. (...) Ce qui fait la vraie beauté de la poésie euskarienne, ce n'est point cela. C'est tout d'abord l'exquise simplicité des sentiments, leur fluidité, limpide et fraîche, leur noble sobriété d'expression. Pour bien comprendre ces choses, il faut faire table rase de toute notre rhétorique altine. Il faut descendre dans l'âme populaire à la faveur de ces mots simples et si spontanés, et chercher à comprendre tout ce qu'ils renferment de naïveté, d'émotion, de douceur infinie.

« La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Horretan, Erromantikoengandik jaso duen eragina -frantses literaturaren historio egileen bitartez- garbi ageri da : berezitasuna, herriko jendeen baitan kausi daitekeen oinarrizko poesia iturria, etab. Eta, bestalde XIX. mendeko filologo gehienek ildotik baita ere, Hipolyte Taine, frantses literaturaren historio egile eta filosofo famatuaren bidetik doala erakusten du :

il faut avoir sans cesse devant les yeux le cadre incomparable où ces mots ont été pris et où, seulement, ils ont tout leur sens.

« La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Eta sorkuntza soil eta xume horren adibide batzu eman ondoan, XIX. mendeko beste topiko bat aurreratzen du, hizkuntzaren « genio »-arena hain zuzen. Euskara guziz berezia den ber, ezin da itzulpen baten bidez muinerai-

no joan, poesia eta kantu baten funtsaren adierazteko. Euskal sorkuntzaren berezitasuna agerian utzi beharrez, bertsolaritzaren aipamenarekin bukatzen du bigarren partea :

ce peuple qui « n'a pas de littérature » est en effet le peuple du monde qui possède le plus grand nombre de poètes. Il n'est peut-être pas un seul village qui ne compte un ou plusieurs improvisateurs : paysan, berger, pêcheur, bûcheron, contrebandier.

« La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Hor, ageri denez, nahitara atxikitzen du « poeta » eta « bertsolaria »ren arteko parekotasuna, bat bateko sorkuntzarena eta poesia idatziarena, preseski, Julien Vinson-ek –hortan mendebaleko kritikagintza modernoari jarraiki- z- onartzen ez zuena.

Hirugarren partean, mendez mende aipatzen ditu euskal letretan agertu diren obrak eta idazleak. Menturaz, ohar interesgarrienak XX-garren mendeari buruz egiten ditu, batez ere Euskal ikerketak aipatzen dituelarik sorkuntzarekin batean. Euskal ikerketen garapena eta literaturaren indartzea elkarri lotzean garbiki erakusten du beste garai batean sartua dela euskal literatura. Ez da ahantzi behar horren berri bazuela orduan, goi maileko euskalzaleen mugimendu horretan parte hartzen baitzuen buru-belarri.

Laugarren eta azken partean, gogoeta luze bat idazten du Lhandek euskal literaturaren geroari buruz. Euskal literaturak, maila herrikoietik kultura pasatzean ezagutzen duen egoera aldaketa onartzen du, bainan, doinu nostalgiko batekin, gustukoa zuena ezinbestean desagertzera doala ikusiz :

la littérature qui renaît accuse et entraîne la littérature qui meurt.
Est-ce un malheur ? Est-ce une aubaine?

« La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925

4. PIERRE LHANDE ETA GARAIKO LITERATURAREN HISTORIA

- *Lhande, biburgune batean : Kronikaren izenburua eztabaida-gai.*

1919tik hara, RIEV-en bere gain hartzen duen saila, “Chronique de littérature basque” deitzen du eta izenburuan berean bada aukera bat guziz interesgarria. Lehenik, “euskal literatura” bat badela baieztatzen du eta oroitu behar da arazoa ez zela oraindik trenkatua adituen artean, iraganari begira batez ere. Behin baino gehiagotan eztabaidatua izan da gai hori XIX. mende ondarrean eta XX. mende hastapenean.

Kanpotik heldu ziren jakintsu eta adituek hizkuntzari ematen zioten lehenetasuna gehienetan. Eta ipuin eta kantutik biltzen ari zirenek, ez zioten beren uztari literaturaren heina ematen⁴. 1882-an, Julien Vinson hizkuntzalariak, *Les Basques et le Pays basque* liburuan idazten zuen zehazki

Plusieurs écrivains de mérite, français ou espagnols étaient Basques. Mais il n'existe pas de littérature nationale proprement dite.

1925.ean oraindik, *Gure Herria* agerkarian, « Y a-t-il une littérature basque ? » galdetzen zuen bere artikulua hastapenean eta, bukatzean, 1882ko liburuan bezala eza ematen zuen, erranez

Mais jusqu'à présent, nous devons constater qu'il n'y a pas véritablement de littérature basque, représentative du caractère basque.

Julio de Urquijo-k, 1907an, J. Etxeberri Sarakoaren idazlanak aurkezte-rakoan ez du « euskal literatura » aipatzen. “Literatura” hitza bera ez du erabiltzen. “Obras de J. d'Etcheberri”, “De Re bibliographica”, eta horrelako erran moldeak baliatzen ditu. Sarako medikuaren hizkuntza xeheki aurkeztu du bainan ez du “Escual-Herrico gazteriarik” bezalako testu baten alde literarioa batere azpimarratzen.

J. Etxepare-k hainbat aldiz liburu berriak aipatu ditu aste oroz *Eskualduna* astekarian eskaintzen zuen kronikan. Axular, J.P. Duvoisin, J. Hiriart-Urruty idazleak goraiatu ditu, Oxobi-ren *Alegiak* (1926) edo J. Barbier-en *Piarres* izeneko eleberriaren bigarren liburukia (1929) aurkeztu ditu guziz xeheki bainan, harek ere ez du « literatura » erran moldea erabiltzen. Haren orde, « euskal liburuak » ezartzen du.

Beraz, Lhande-k bertako gehienek erabili gabe uzten duten hitza eta harekin batean datorren kontzeptua erabiltzen ditu, batere zalantzarik gabe. Eta kanpoko aditu askok erakustera eman duten ikusmoldearen kontra doa, dudarik gabe, « euskal literatura »-ren kronika idekitzen duelarik, 1919-an RIEV aldizkarian, Euskal ikasketen agerkari famatuan. Gainera, zenbait urte geroago, *Le Pays basque à vol d'oiseau* liburuan, Vinson-en ikusmoldeak (Euskarazko literaturarik ez da ; euskal literaturarik –literatura nazionalik– ez da) ezeztatzen ditu, bere ideien aldeko adibideak emanez.

Bigarren ohar bat egin behar da berehala. Euskal literatura badela baieztatu du bainan, erdarazko liburuak sarrarazten ditu sail hortan, euskarazkoekin batean. Hots, orduko aditu gehienek arabera, Lhande-k uste du euskal gaien eremu bat badela eta hemen gairik erabiltzen diren hiru hizkuntzetan sor daitekeela euskal eremu hortako literatura.

⁴ J.F. Cerquand : *Légendes et Récits populaires du Pays basque*, Pau, 1876-1877.
W. Webster : *Basque legends*, Londres, 1877.

- *Literaturaren historia XIX-garren mendean.*

Pierre Lhande-n obra kritikoak garai hartako Jesuiten formakuntzan ditu oinarriak eta iturriak, baita ere frantses literaturaren historialarien baitan. XIX-garren mendean, Frantses historialarien formakuntza hobetzen da eta orduko fama handiko izen batzu ezagun dira oraindik :

J. Michelet (1798-1874), E. Quinet (1803-1875), E. Renan (1823-1892), N. Fustel de Coulanges (1830-1889), E. Lavissee (1842-1922), besteak beste.

Denbora berean, frantses “literaturaren historia » molde segitu batez lantzen hasten da. Orduko izen handien artean, Sainte Beuve (1804-1869), Hipolyte Taine (1828-1893) eta Gustave Lanson (1857-1934) izan dira orain arte gelditu diren izen-deiturak. Beraz, erran daiteke, “zientifiko” kalifikatiboa ez bada erabiltzen ere, kritika akademiko bat egiten dela, unibertsitarioen artean. Frantses eskolak edo tradizio horrek atxiki zuen lehentasuna, 1960ko hamarkadan sortu zen “kritika berria” (Barthes, Starobinski, etb.) nagusitu arte. Tradizio hortan sartzen da P. Lhande, formakuntzaren aldetik baita ere testuen aztertzeko metodologiaren ikuspegitik.

- *Lhande, Hippolyte Taine frantses historiolararen bidetik.*

P. Lhande-n kritika motan suma daitekeen eragin handiena, dudarik gabe, Hipolyte Taine-ena da.

Lhandek, Hipolyte Taine-n erran moldeak erabiltzen ditu errateko lehenik, euskal literatura badela eta, bigarrenik, beste edozein bezalakoa dela, beraz, besteak bezainbat balio duela :

la littérature basque existe ; et non pas seulement la littérature de folklore (proverbes, devinettes, chansons légères) mais la littérature proprement dite, l'expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d'un peuple, d'une race et d'une langue.

« La littérature et la langue » *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Euskal literatura, Jendalde, arraza⁵ eta hizkuntza baten adierazpen gorena da. Eta hori da, preseski, XIX. mendean zehar, Europa guzian zabaldu zen literatur nazionalaren definizioa eta Europako nazioen eraikuntzan ezaugarri nagusi gisa sartzen zena.

Hipolyte Taine-n ikusmoldea guziz murrizturik gelditzen da betiko aipamen bera ematen bada, testuingurua kontutan eduki gabe :

⁵ Taine-n hitzetan, « arraza » da izpiritu nazional bat, nazio baten oinarria, muina.

trois sources différentes contribuent à produire cet état moral élémentaire, la race, le milieu, le moment

« Introduction », *Histoire de la littérature anglaise*, 1866.

Taine, Darwin-en garaikidea da. Haren ustez, gizonak aitzinean ukan dituen guziak biltzen eta bateratzen ditu bere baitan.

on connaissait l'homme, on ne connaissait pas les hommes ; on n'avait pas pénétré dans l'âme ; on n'avait pas vu la complexité merveilleuse des âmes ; on ne savait pas que la structure morale d'un peuple et d'un âge est aussi particulière et aussi distincte que la structure physique d'une famille de plantes ou d'un ordre d'animaux. Aujourd'hui, l'histoire comme la zoologie a trouvé son anatomie, et quelle que soit la branche historique à laquelle on s'attache, philologie, linguistique ou mythologie, c'est par cette voie qu'on travaille à lui faire produire de nouveaux fruits.

« Introduction », *Histoire de la littérature anglaise*, 1866.

Harek, ondokotasun kulturala sumatzen du Darwin-ek ondokotasun genetiboa ikusten zuen bezala. Nortasun biologikoak (“arraz”) eta zibilizazio baten ezaugarriek (ingurumen fisikoa eta kulturala) bat egiten dute une berezi batean (“mementoa”). Eta, metodologia mailan, fruituetarik (sorkuntzatik eta obretarik) erroetara joan daiteke, Taine-k dioenez. Ohar orokorretatik landa, hara zein den haren lanerako egitaraua :

a ce moment et dans ces pays, les conditions se sont trouvées remplies pour un art, et non pour les autres, et une branche seule a bourgeonné dans la stérilité générale. Ce sont les règles de la végétation humaine que l'histoire à présent doit chercher ; c'est cette psychologie spéciale de chaque formation qu'il faut faire ; c'est le tableau complet des ces conditions propres qu'il faut travailler à composer.

« Introduction », *Histoire de la littérature anglaise*, 1866.

Lhande ere, ingurumen fisikotik eta jendaldearen berezitasunetarik abiatzen da bere ikerketan barna, “Le décor” et “Les origines », lehen bi kapituluetan :

ce pays, tour à tour riant et sauvage, sert de gîte (depuis les temps les plus reculés qu'atteignent les données un peu sûres de l'histoire de Gaule) à une race, ou peut-être à un reste de race parlant une langue mystérieuse, sans analogie bien établie avec les langues actuellement connues sur notre globe.

« Les origines », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925

Eta, euskal literaturaren funtsezko erran nahia aipatzen duelarik, Taine-k berak idatz zezakeen ondoko ohar orokorra botatzen du bere deskribapenaren bukatzeko :

la littérature d'un peuple, expression de son activité intellectuelle et morale, reflète toujours ce qui, dans la vie de ce peuple, est le point central des préoccupations, des travaux, des tendresses et des passions, ce qui dans son organisation, est le rouage central et la clé.

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925

Frantses literaturaren historia egile nagusien gisa, ikuspegi orokor bat eman nahi du euskal literaturari buruz. Bera baino lehen, sail horretan ari izan diren hiru jende izendatzen ditu : Augustin Chaho, Francisque Michel eta Julien Vinson. Bainan, haren gostuko, hiruek zerbaitetan huts egin dute (ikus: «La littérature et la langue», *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925).

Gisa bereko lana bilatzen bada Euskal Herrian, bi urte gehiago igurikatu behar, Orixe-ren *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* (*Euskal esna-lea*, 1927), argitaratu arte preseski. Idazlan horrekin, Lhande aitzindari izan zen dudarik gabe.

5. LITERATURAREN HISTORIA : GARRANTZI HANDIKO KULTURA SAILA. 2 PP

– *Literaturaren historia eta eraikuntza nazionala Europan.*

Gauza jakina Europako nazioen eraikuntzan parte handia hartu dutela XIX. mendean literatur sortzaileek, hala nola Alphonse de Lamartinek eta Victor Hugok Frantzian. Politikan sartuz, lege biltzarrean jarleku bat hartuz, eta, behar orduan, oposizioan jarriz, hala nola Hugo Napoléon III.arekin, benetako egile eta langileak izan dira. Sortzaile gisa ere asko ekarri dute, Hugo-ren adibidearekin segituz, *La Légende des Siècles* (1856) neurtitzetan eman duen legendarioan, Frantziaren historia (Frantzia ez zelarik oraindik) eman du berreraiki duen egituraketa batean, Karlo Handitik hasiz XIX.garren mendea arte.

Literaturaren historia egileek ere eraikuntza nazionalean parte harte dute Europako erresuma anitzetan, sortzaile eta obra nagusien bitartez, nazioaren funts edo esentziaren garapena erakusten baitzuten. Nortasun kolektiboa bere hein gorenean zegoen neurritz kanpoko gizon emazte horietan (sortzaileak) eta gizarte baten muina eta berezitasuna (beste nazioetarik bereizgarri ager zitezkeen ezaugarriak) biltzen zituzten beren sorkuntza lanetan⁶. Eskolaren bitar-

⁶ Paul Bénichou, *Le sacre de l'écrivain*, Ed. J. Corti, 1973 ; *Le temps des prophètes*, Ed. Gallimard, 1977.

tez biziartzten zen Obra nagusien zerrenda (Kanona) eta Idazle handien multzoa (Panteoia) eredu gisa erabiliak ziren, idazterakoan baita ere bizitzerakoan.

– *Euskal literaturaren eraikuntza lana* :

Euskal Herriaren inguruan Nazioak badira eta bakoitzak eraiki du bere literatura nazionala. Badirudi xede hori duela gogoan Euskal Herriarentzat, Lhande-k erraten duelarik :

la littérature basque existe ; et non pas seulement la littérature de folklore (proverbes, devinettes, chansons légères) mais la littérature proprement dite, l'expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d'un peuple, d'une race, d'une langue.

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Ez da ahanzi behar, Lhande abertzaleengandik oso hurbil zegoela eta horrelako aukera ageri da ondoko lerroetan :

langue basque ! Langue basque ! Parais donc au dehors !⁷ », nous appartenons nous aussi au libre domaine qu'ont le droit de fouler les grands peuples. La jeune et ardente école nationaliste a soif de jeter notre nom aux échos du monde.

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Txomin Agirre-ren *Kresala* eta *Garoa* edo Etxahun-Barkoxe aztertzen dituelarik, euskal kanon-a eta Panteoia lantzen ditu molde zientifikoa (orduko moldean, noski) bainan, ez da dudarik, helburu edo xede didaktikoak badituela gogoan. Euskaldunek ez dituzte beren ontasunak ezagutzen ; beraz, erakusten dizkie. Kanpokoek ez dute uste Euskaldunek literatura bat badutenik ; beraz, ezagutarazten die, jakintsun baten moduan, hots modu sinesgarri batean.

– *Pierre Lhande-n garaikideak* :

Pierre Lhande-z bestalde, bakar batzuk baziren kritikagintzan ari zirenak garai hartan. Aitzol, Etxepare, Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Urquijo, eta beste batzuk⁸ ari ziren liburu berrien eta berrargitalpenen aipatzen. Frankotan,

⁷ Aipamen hortan, B. Etxepare-ren lelo famatua itzultzen du : “*Eskuara ! Eskuara ! Jalgi hadi kanpora !*“

⁸ Ikus : *Gerraurreko literatur kritika*, (I. Aranbarri eta K. Izagirre-ren edizioan), Ed. Labayru ikastegia, 1996.

Kritika literarioaren lehen saioak, (P. Iztueta-ren edizioan), Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

azterketak luzeak eta sakonak izaten ziren eta, ohar interesgarri asko aurki daiteke hizkuntzari buruz adibidez, hizkuntza literarioaren eztabaida baitzen orduan betebetea. Hor daude lekuko Jean Etxepare-ren asteroko kronikan irakurtzen ahal ziren aipamen mamitsuak⁹, Lizardi-renak¹⁰ edo Lauaxeta-renak¹¹ Bainan, gehienek ez zuten literaturaren historiari buruz ikuspegi orokorrik ematen. Biga badira Hegoaldean, gisa bereko lana egin dutenak : Aitzol eta Orixe. Nahiz ez duen euskal literaturaren historiari egin, Aitzolek ikuspegi sakonak, guziz landuak eta erreferentziaz josiak eman zituen olertia eta ahozko literaturari buruz batez ere, bere lankide eta adiskideen liburuentzat idatzi zituen hitzaurretan (Lauaxeta, Lizardi, Otaño, Zaitegi, etb.)¹². Orixe-k aldiz, *Euskal Esnale*-an eman zituen idazlanetan, benetako Euskal literaturaren historia egiteko asmoa ukan eta obratu zuen, P. Iztueta-k, testu horien bigarren edizioaren aitzin-solasean¹³ dioen bezala :

eta hor tartean, erdi-galduta bezala, Orixeren Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra (1927) daukagu, bere laburrean, euskal literatura bere osotasunean hartzen duena, ahozkoa bezala idatzizkoa, nola Iparraldekoa hala Hegoaldekoa.

P. Iztueta, "Irakurtzeko gomendioa", in Orixe, *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002.

Lhande-k xede berarekin argitaratu zuen bere kapitulu luzea *Le Pays basque à vol d'oiseau* liburuan, bi urte lehenago. Nahiz biek Jesuiten formakuntza klasikoa ukan zuten, ez dituzte metodologia eta ikuspundu berdinak erabiltzen beren lanetan. Lhande-k ikusmolde konparatiboa erabiltzen du : euskal literaturaren berezitasuna erakutsi nahi du eta beste Europako emaitzen parean ematen du hemengoa. Erdaraz ari da, Euskaldunentzat, bistan dena ; bainan, beharbada kanpokoentzat gehiago oraino, euskal literaturari buruz duten ikuspegi ezkorra aldatu nahiz. Orixe-k aldiz, euskaraz egiten du bere aurkezpena, Euskaldunentzat. Barnetik ari da, barneko ikuspegia ematen du eta horretan mugatzen du bere azterketa. Xede berdina izanik ere, emaitza desberdina ematen dute, bainan, egungo begi batentzat, ongi osatzen dute elkar.

⁹ Ikus : Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak, 1. Euskal gaiak, (P. Charritton-en edizioan), Ed. Elkar, 1984.

¹⁰ Xabier Lizardi, *Kazetari-lanak*, (L. Otaegi-ren edizioan), Ed. Erein, 1987.

¹¹ Estepan Urkiaga « Lauaxeta », *Gure aberriaren elea*, (X. Altzibar-en edizioan), Ed. Labayru ikastegia, 2005.

¹² Jose Ariztimuño « Aitzol », in *Literatura inguruan* (edizioa, askoren artean), Ed. Erein, 1986.

¹³ Nicolas Ormaetxea « Orixe », *Euskal literaturaren historia laburra*, (P. Iztuetaren edizioan), Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

– *Pierre Lhande-en ekarpena* :

Zer ekarri du euskal literaturaren kritikagintzan Pierre Lhande-k XX.garren mende hastapenean? Galdera horrekin bukatzen ahal dugu Lhande-ren kritikagintzaren errepaso hori.

Dudarik gabe, frantses kulturaren ereduak erakarri du euskal alorrera eta, hartzen dituen erreferentziak (Frantses historia egileena, H. Taine-na besteak beste) ez ziren oraindik sartuak ez eta ere biziki ezagunak Hegoaldean. Erreferentziekin batean, funtsezko problematika batzu ekarri ditu mahaira. Ordu arte, ikuspegi filologikoa nagusi zen euskal kritikagintzan, hala nola Urkijo-ren kasuan. Literaturari buruzko galderak hizkuntzaren menpe egoten ziren komuzki. Lhande-k aldiz, gai berriak aipatzen ditu (Ahozko literatura eta idatzizkoaren arteko harremanak ; itzulpengintza eta literatura nazional baten ezagutza ofiziala ; elizako literaturaren tokia ; irakurlegoaren arazoa ; mito literarioen beharra, etb.). Galde oso teknikoak egiten ditu ere ; adibidez, eleberrigintzari buruz (Agirre, Azkue) edo hizkuntza literarioaren osatzeko moldeari buruz (Agirre, Azkue). Lhandek egiten duen hirugarren ekarpena, metodologia mailan aurki daiteke. Erran dezagun kritika erdi zientifikoa, erdi subjektiboa dela, hots historikoa eta enpatikoa.

ALEMANEN DENBORAN IPARRALDEKO IHESLIARREK ESPAINIAKO PRESONDEGIETAN EGIN KANTUAK

Pierre CHARRITTON

Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren ohoretan aipatu delarik gutartean, esker onez eta adiskidetasunez, IKER saileko liburu berri baten argitaratzea, gogoratu zait berehala, II. mundu gerlaren ondotik, gazte denboran, merkatu egun batez, Hazparneko plazan, Xarlex Etchegaray deitu Zelaitar bertsolari gazte bati erosi nizkiola, berak onturik eta berak inprimarazirik, berak saltzen zituen zenbait bertso.

Ez ziren lehenak, herri literaturan horrela agertzen zirenak, eta ez badut orain arte bederen gai horretaz aita Zabalaren pareko lanik, ez nihonek egin, ez ikasle bati, ez lagun bihi bati eginarazi ahal izan, baditut halere jadanik, gure ezin ahantzizko Jean Hiriart-Urruty Abittu zenaren bidetik, P. Broussainen edo S. Lardapiden paperetan aurkiturik, Katxo, Otxalde, Xetre, Mendiague anai-arrebak, Aña Debrua, Erramun Darraidou eta aspaldiko gure hazpandar galeriano famatuaren bertso paper asko eskuraturik. Iduritzen zait bizkitartean, Xarlex Etchegaray zenaren bertso hauek izan direla, gure eskualdean bederen, ene oroitean, egileak berak saldu dituen gisa horretako azken bertsoak.

Eta, menturaz hainbeste paper kurrutu dituen Jean Haritschelhar adiskideak berak, atseginekin haztatuko ditu eta parekatuko sasoi berean eta hazpandarren kasu berean gertatu zen Frantxua Bidart Kuxkurriok eman zizkion izenik gabeko baigorriarren koplak.

Hona beraz lehenik, beihalako bertso paperaren *fotokopia*, gero berriz gaurko ortografian idazki bera, ohar batzuez eta argazki zenbaitez argiturik eta, azkenik, Ibarrarten eskolatik etorririk, behar bada landuago eta laburrago, Baigorriko kopia firmarik gabea.

XARLEX-EK SALDU BERTSO PAPERA

ESPAINIAKO PRESONDEGIKO KANTUAK

I

*Milla bederatzi ehun eta berrogoita hiruan
Lanian ari ginelarik etchean gostuan
Factura jin zeraukun paper bat eskuan
Hobeko zuen utzi balu bai hartu lekuan.*

II

*Nahi baduzire jakin zer zuen barnian
Langilia eskas zutela bai Alemanian
Bisitaren pasatzia biharamunean
Ez ginuen urun yuaiterik herian berean.*

III

*Hiru medikuetaarik bat zen hautatua
Hau denek ezagutzen Mathieu medikuya
Hunek egin behar du gutartean hautua
Deurin lanetan duteezaria gaztua.*

IV

*Biharamunean joan ginen medikuaren ganat
Ber bera jin zeraukun bortha aitzinerat
Jinen zirezte bederazka gaiztuak barnerat
Gebienak harturik gaitu egori etcherat.*

V

*Eskualduna ez baita zozaaren erdia
Zombaitek egin dugu joan aitzin bilzara
Behar diuk ezari salbuan bai gure bizia
Eta inhala fite pasatu mendia.*

VI

*Hora zer funtsean utzi dugun gure familia
Ichtant batez bazen han bihotz min handia
Zombaitek beritz emaztia eta haur tipia
Yainkoak konserbatuko ahaldu gu jin artio bizia. Eta azkartzeko orde autchu leherina.*

VII

*Orai hora nun giren beraz Espainian
Nahi baduzue yakin Pamplona hirian
Ongichko zeraturik bai presondegian
Hiru hilabete huntan celula batean.*

VIII

*Nahi baduzue yakin celulako beri
Hortakotz erangodut abian deneri
Leiho ttipi bat gora deusik ez ageri
Gizona han egoiteko ez da behar eri.*

IX

*Huna bertzalde beriz hango mubleria
Taula zar bat muruan berdina mahia
Gu hamar lagun betan han egonak gira
Kuvertura zar bat eta zimenta ohia.*

X

*Hiru hilabete pasaturik hola
Janedanendako irris eta ura
Gebienek ukan dugu artetan bits-dura
Eta Eskualduneri churita sudura.*

XI

*Gusartean badugu hainitz Donibandar
Ispura, Uharte eta Arnegi-tar
Lehen denak ordoki orai denak patar
Horen gatik baitaude ono denak azkar.*

XII

*Bat Donazahareko, Mathero bargina
Gerla denbora huntan zer nahi sos egina
Orai presondegian da gurekilan jina
Eta azkartzeko orde autchu leherina.*

XIII

*Denen ezagutzun Daguerre Ispura herian
Kantari charmanta zen bai Eskual herian
Boza arunt galdu du orai Espainian
Ur sobera edanik bai presondegian.*

XIV

*Bertze bat beritz badugu Behorlegikoa
Sobera amentz eginik galdua burua
Ustez biltzerat zohan bai Miguel gaizoa
Bisia pasaturik da tranquilisatua.*

XV

*Hamabotz garen bertsua huna libratzia
Kitatu behar dugu guk presondegia
Badaki zite zoin airos den kampoan choria
Hala hala zen orduan bai gure begia.*

XVI

*Gure plazera ez baitzen gau hartan ttipia
Biharamunean goizean argiko jeikia
Birazka estekaturik pasatu bidia
Ez da segurki Espainian jandarme eskasia.*

XVII

*Bethi juban eta nehorke ez jakin norat
Azkeimian aribatu ginen han nunbeit lekurat
Auto batzuetan sar eta jin Celanovarar
Burdin eskasik ez den etche batetarat.*

XVIII

*Bi egun pasaturik guk hola treinian
Bakotcha bere tokian jaririk gostuan
Zortzi jandarme bederen wagon bakotchear
Harmak eskunyan eta zer kara zarean.*

XIX

*Espainian ez da presendei eskasik
Hiri bakotchian ez baita bi edo biru baisik
Zazpi urthe huntan gizona han dago hetsirik
Hobe bailuke aise sarthu aitzin hilik.*

XX

*Huntan hobe dut beraz orai ichilzia
Eta inabala fite leku hok hustia
Noiz kartuko othe dugu Afrikako bidia
Alemanen eskutik kentzeko Frantzia.*

XXI

*Hitler Alemanian, eta Franco Espainian
Sorthuz geroz ari dira bethi zarkerian
Noiz ezariko othe ditugu biak uztarian
Leher egin aratzeko guk Eskual-herian.*

XXII

*Bertzu hon emailia Charlech Haspandara
Sortzez izana gatik bera Makeara
Hunat jinez geroztik jastatzekoa nafara
Halera kontzolatzen da ez baita bakara.*

Charlech

IDAZKI BERA GAURKO GRAFIAN ETA ZUZENKETAK EGINIK

Espainiako presondegiko kantuak:

1

Mila bederatzi ehun eta berrogoita hiruan¹,
Lanian ari ginelarik etxean gostuan,
Fakturra² jin zerakun paper bat eskuan,
Hobeko zen utzi balu bai hartu lekuan.

5

Eskualduna ez baita zozoaren erdia,
Zonbaitek egin dugu joan aitzin biltzarra³:
« Behar diauk ezarri salbuan bai gure bizia
Eta, ein-ahala fite pasatu mendia ! »

2

Nahi baduzie jakin zer zuen barnian,
Langilia eskas zutela bai Alemanian,
Bisitaren³ pasatzia biharamunean ;
Ez ginuen urrun joaiterik, herrian berean.

6

Horra zer funtsean utzi dugun gure familia,
Ixtant batez bazen han bihozmin handia,
Zonbaitek berriz emaztia eta haur tipia :
Jainkoak kontserbatuko ahal du, gu jin artio bizia!

3

Hiru medikuatarik bat zen hautatua,
Hau denek ezagutzen Mathieu medikua⁴:
Hunek egin behar du gutartean hautua ;
Debruen lanetan dute ezarria gaizua.

7

Orai horra non giren beraz Espainian,
Nahi baduzue jakin Pamplona hirian⁶,
Ongixko zerraturik bai presondegian,
Hiru hilabete huntan zelula batian.

4

Biharamunean joan ginen medikuaren ganat,
Ber-bera jin zerakun borta aitzinerat :
« Jinen zirezte, bederazka, gaizua barnerat! »
Gehienak harturik, gaitu igorri etxerat !

8

Nahi baduzue jakin zelulako berri,
Hortakotz errango dut abian deneri :
Leiho ttipi bat gora, deusik ez ageri,
Gizona han egoiteko ez da behar eri.

¹ 1943 izan zen II. mundu gerlaren Erdiko bihurgune nagusia, ordukotz hogeitaz arteen artean helduak ginenok, ikusi genuen bezala, «Bortxazko Lanetara» Service du Travail Obligatoire (S.T.O.) delakora, Alemaniara joaiteko aginduekin adin bereko guztiak postarietara deitu gintuztelarik.

² «Fakturra» , postaria.

³ «Bisita»: Osagilearena, jakina, honek behar baitu lehenik ikusi zertan den bakoitzaren osasuna.

⁴ Hippolyte Mathieu medikua, Clément Mathieu (1882-1963) Akizeko hazpandar apezpiku bipil eta ezagunaren anaia zen.

⁵ Ikus beherago argazkia bere oharrekin.⁶ Iruñea edo Pamplona hirian, hiru hilabete luze, hazpandarrek ezagutu zuten presondegi garratz hori, San Kristobal deitu gaztelu famatu hura izan zen menturaz, nor jakin? Ezen ez zen ordukotzat presondegi eskasik Espainiako lurretan: ikus 19. bertsoa.

9

Huna bertzalde berriz, hango mubleria⁷ :
Taula tzar bat murruan, berdina mahaia,
Gu hamar lagun, betan, han egonak gira,
Kubertura⁸ tzar bat eta zimenta⁹ ohia.

10

Hiru hilabete pasaturik hola,
Jan-edanendako irris eta ura,
Gehienek ukan dugu artetan histura
Eta, eskualdunerri xuritu sudurra.

11

Gutartean badugu anitz donibandar¹⁰,
Izpura, Uhartea eta Arnegitar ;
Lehen denak ordoki, orai denak patar,
Horrengatik baitaude oino denak azkar.

12

Bat, Donazaharreko, Matheo hargina¹¹,
Gerla denbora huntan zernahi sos egina,
Orai presondegian da gurekila jina
Eta, azkartzeko orde, abantxu leher-eina.

13

Denek ezagutzen Dagerre Izpura herrian,
Kantari xarmanta zen bai Eskual Herrian,
Botza arrunt galdu du orai Espainian,
Ur sobera edanik, bai presondegian.

14

Bertze bat berriz badugu Behorlegikoa,
Sobera aments eginik galdua burua,
Ustez hiltzera zohan bai Migel gaizua
Bizia pasaturik trankilizatua.

15

Hamabosgarren bertsua, huna libratzia :
Kitatu behar dugu guk presondegia,
Badakizie zoin airos den kanpoan xoria,
Hala hala zen orduan bai gure begia !

16

Gure plazera ez baitzen gau hartan ttipia,
Biharamun goizean argiko jeikia,
Birazka estekaturik pasatu bidia,
Ez da segurki Espainian jandarme eskasia !

⁷ «Mubleria», altzariak.

⁸ «Kubertura», estalgia.

⁹ «Zimenta», zementua.

¹⁰ «Donibandar», Donibane Garazi aldeko herri zenbaitetan sortuak, hots Donazaharren, Izpuran, Uhartean, Arnegin edo Behorlegin.

¹¹ Mateo «Hargina» delakoaz hura ezagutu zuen Donazaharreko Alexis Inchauspe adiskideak eman dizkigu, Mañez Etxelekurekin bildurik zenbait xehetasun: palote guti erabilia gatik hargin izaiteko, jats eta saski gehiago eginik arrantzan eta ihizin zebilelarik gazte denboran, bere hartan norbait izan omen zen Mathieu Lasserre deitu gizona, 1923ko martxoan Donazaharren sortua eta, 1984eko urtarrilean Donapauleko klinikan zendua; Tamundeia izeneko etxea erosi zuen eta 1967ko lur ikarak haren hormak urratuak, etxe berria eraiki zuen eta Jean Kurutxary jaun erretor eta idazkariari esker errenta ederra ere ardietsi zuen familiak.

17

Beti joan eta, nehork ez jakin norat,
Azkenian arribatu han nunbait lekurat,
Auto batzuetan sar-eta, jin Celanovarat¹²,
Burdin eskasik ez den etxe batetarat.

18

Bi egun pasaturik guk hola treinian,
Bakotxa bere tokian jarririk gostuan,
Zortzi jandarme bederen wagon bakotxean,
Harmak eskuan eta zer kara tzarrean !

19

Espainian ez dute presondegi eskasik,
Hiri bakotxian ez baita bi edo hiru baizik,
Zazpi urte huntan gizona han dago hetsirik,
Hobe bailuke aise sortu aitzin hilik !

20

Huntan hobe dut beraz orai ixiltzia
Eta, ein-ahala fite leku hauk hustia.
Noiz hartuko ote dugu Afrikako bidia,
Alemanen eskutik kentzeko Frantzia ?

21

Hitler Alemanian eta Franco Espainian
Sortuz geroz ari dira beti tzarkerian ;
Noiz ezarriko ote ditugu biak uztarrian ?
Leher-eginarazteko guk Eskual Herrian !

22

Bertsu hauen emailia Xarlex Hazpandarra¹³,
Sortzez izanagatik bera Makearra,
Hunat jinez geroztik jastatzekoa nafarra,
Halere kontsolatzen da, ez baita bakarra.

Xarlex Etxegaray

¹² Portugaleko mugan, Galiziako Ourense probintzian dago Celanova herria: gure Iparraldeko beste ihesliar batzuek bezala Nafarroako Iruñea edo Pamplonatik eta ere Gaztela Berriko Mirandako kanpotik urrun aurkitu zituzten, harriturik, 1936-1939ko gerla bururatuz geroz, 7/8urte hartan goseak hilik eta beti preso zeuzkaten errepublikazale espainol «Gorriak» eta euskaldun «Separatistak».

¹³ Xarlexen bertsoen ondotik hona haren alabari mailegatu argazkiak.

GERLAKO ETA GERLA ONDOKO ARGAZKIAK :



Sei hazpandarren argazkia :

Xarlex Etxegarai (1910-1964) kantu hauen egilearekin elkarretaratu, hitzartu eta Arizkuneko herrira iragan ziren beste bost hazpandarrak, hauetxek ziren :

- *Lehen lerroan, ezkerretarik*, Xarlex bera, Zelai Urkodoitik 1937an Ermindeiz auzoko Etxetipira ezkondua, Kattin Lafitte (1908-1977) Printxianeko alabarekin eta honekin izan seme gehiena Xan Etxegarai (1942-1987) ondoko bertsoan aitak dioten bezala, behintzat amarekin etxen utzia ; Xarlex Çaldiboure Peña Attiinekoa, donapauletar baten ondoan jarria.
- *Bigarren lerroan aldiz, ezkerretatik, xutik*, Ithurbide gereziatarra, gerlan hilen dena, Beñat Lohiague (1923/05/12an sortua, zapataina, 1955/11/18an ezkondua Mayi Hargindeguyekin 1935/12/22an) eta Punttoteikoa † 1965/05/13 zendua. Mattin Loume eta Ttote Mongabure Hazketa Atsoteiko bi kusiak, lehena Labiry ta Urkuraiko juntan bere Izotzxolan familiarurik bizi dena eta bere lekukotasun hau eman duena, bigarrena zorigaitzez gerlan hila.


PIERRE CHARRITON



Xarlex Afrikan soldado



Gerlako ziloetan



Etxeko lanetara itzulia



Etxera itzuli eta, Xarlex Etxegarai eta Kattin Lafitte emaztea hiru haurrekin (Xan 1942an sortua eta 1987an hila, Roger 1945ean sortua, Maite 1948an sortua bere bi alabekin Angelun bizi dena eta argazkien eta xebetason guzrien emalea).

BAIGORRIKO KANTU IZENGABEAK (1943-III-10)

Baigorriarrak Iruñean¹⁴

1

Mila bederatzi ehun eta berrogoita hiruan,
Iduriz mundua da bethikotz guduan,
Etsai beltza sartu da gure sorlekuan,
Eta hargatik gira gu kanpora joan.

2

Zenbeit pertsuño beraz gure buruari,
Begira, hemen gaude hamarrak elgarri,
Martxoaren hamarrean utzi dugu Baigorri,
Arinkara pasaturik muga izkin hori.

3

Pertsu bat beraz orai guk Espainiari,
Horrek egin derauku oi ongi ethorri,
Gauaren pasatzeko hotelean ezarri,
« Hauxe duk hau bizia ! » ginion elgarri.

4

Plazer hori ez zen ez guretzat egina,
Laster hartu baitugu Iruñeko treina,
Guardiaz inguraturik arribatu gira,
Hek eraman gituzte oi presondegira.

¹⁴ Hazpandarraren bertsoekin parekatzeko, hona gai berari buruz eta sasoi beretsuan, mendiz bestaldera eta Xarlexek bezala, emaztea eta haur ttipia etxean utzirik, Iruñera joan behar izan zuen Frantxua Bidart Kuxkurriok, Jean Haritschelhar bere herritar gazteari eman zizkion bertsoak, «Galerianoaren kantua» airean ontuak.

5

Sartu baginen sartu, bazen gero jestu,
Gaietik behereraino gaituzte ikertu
Hemendik batek mana, bertzeak hantik oihi,
Gauzen arranjatzeke kaskoak pelatu.

6

Makurrik ttipiena da hori erraiteko,
Ez baginu bertzerik gero kondatzeko :
Tripa arinik gaude gauari lotzeko,
Manta txar bat daukute eman etzateko.

7

Igande goizean goizik joiten du apela,
Heldu zauku guardia, meza badugula,
Hortan piztu da gure Eskualdun odola,
Jainko Jaunaren hitza dezagun ohora !

8

Othoitz ere egin dugu kartsutasunekin,
Bihotzez ginelarik oi etxekoekin,
Kaiolarat itzuli susmo tzar batekin
Jestu horiek zer diren nahi ginuke jakin !

9

Gure bizi moldea azkena ditake,
Gaixtagin batzuen pare tratatzen gaituzte,
Nihon deusik ebatsi, gizonik hil gabe,
Libratzeari begira egun oroz gaude.

10

Oi etxeko gaixoak zuen penarekin,
Gure maite pollitak zuek ere heiekin,
Gorphutzez urrun bainan bihotzez zuekin
Noiz izanen girare oro elgarrekin !

11

Kantu hauk eman tugu oi presondegian
Oihu bera dugularik orok bihotzean :

PIERRE CHARRITTON

« Jauna lagun gaitzazu, oi suerte tristian,
Sar gaiten elgarrekin Baigorri herrian ! »

«Biba Baigorri!» (1943-IV-07)
Baigoriarrak egina Iruñen, asti baitzuten.
Ez kanta, gu jin gabe!

JEAN HARITSCHELHAR ETA ZUBEROA

Jean-Louis DAVANT

Jean Haritschelharrek fama handia du Zuberoan. Lehenik zor dio Pierre Topet-Etxahun Barkoxekoaz egin duen lan erraldoiari. “Etxahun Xaharraren” bizia eta obra sakonki aztertu eta ikertu ditu, eta horien berri eman digu bi liburu lodi eta marduletan: bata, *Le poete souletin Pierre Topet-Etxahun (1786-1862), Contribution a l'Étude de la poesie populaire basque du XIXème siècle*, 1969an agertua Baionako Euskal Museoa; bestea, “L'oeuvre poetique de Pierre Topet-Etxahun (texte-traduction-variantes-notes)”, *Euskera* Agerkaria XIV-XV, 1969-1970, Euskaltzaindia, Bilbo.

Zuberoan zebiltzan istorioen azpitik eta gainetik, Etxahunen egiazko historia berpiztu du, haren kantuekin batean. Hamar urtez gora pasa ditu lan horretan, bereziki Barkoxen, baina ez hor bakarrik: aipaturiko lehen liburuko aitzin-solasean, “Avant-propos” delakoan, jende eta erakunde zerrenda luze bat ematen baitu esker onez, hortik agerian dago egin dituen urratsen ezin kondatuzko neurria: *Barkoxe, Eskiula, Arrokiaga, Maule, Garindaine, Urdinabarbe, Lorraine, Urdatx/Santa Grazi, Mendikota, Altzürüküko* auzapez eta udal idazkariak Zuberoan, baita *Irulegi* eta *Donapaleu*koak Nafarroa Beherean, gainera *Basses-Pyrennes, Landes, Lot-et-Garonne* Departamendue-tako artxiboak, Baiona eta Paueko udal bibliotekak, Parisko Bibliotheque Nationale delakoa, eta bestalde jende andana handi bat...

Izigarriko lana beraz, fruitu jori eta emankorren iturri. Hauts eta lanoen artetik, Haritschelharrek Etxahun Barkoxe ipuinetik historiara ekarri digu, haren obra zehazki eta zorrozki ezagutarazi, eta ekarpen bikain horrez gain-gainetik eskerrak dizkio gure Zuberoak.

Gainera pastoralaren maitale sutsua da Haritschelhar, eta ez du bakar bat ere ikusi eta entzun gabe uzten. Bakoitzaren berri ematen du lumaz, bereziki

Herria astekarian. Artikulu eta mintzaldi anitz egin du antzerki motan horrez, hots gure trajeriaren aditu hoberenarik da, eta horrez ere eskertzen dugu zuberotarrok, gure teatro zahar eta beti berriari noblezia bat ematen baitio, unibertsitateko beste doktore askok ez bezala.

Berak erranik badakit gain-gainetik estimatzen dituela *Ibañeta* eta *Antso Handia* piezak. *Ibañeta*, Junes Casenave Harigilek idatzia, berriz eman behar litzatekeen antzerkia da, zeren 1978an, Orreagan jende asko bildu bazuen ere, ez zuen zorte onik ukan Zuberoan, Garindaineko bi emanaldietan, aroaren kausaz itxura guzien arabera, eta Haritschelharrekin osoki ados nago, berriz antzeztea hartze lukeela.

Artetik errateko, pastoral antolatzaileek aldikal istorio berri bat nahi dute, baina horretan oker dabilta nire gustuko, zeren batetik geroago eta nekezago gertatzen ari zaigu merezi lukeen heroi baten aurkitzea, bestetik iraganeko trajeria batzuk berriz gogotik ikusi eta entzun litzake publikoak, ene ustez. Horren lekuko da bereziki *Etxahun koblakari*, Pierre Bordazarre-Etxahun Irurik idatzia: Barkoxeko herriak behin baino gehiagotan errepikatu du arrakasta handiarekin, azkenik 1986an. Hor zegoen bistan dena Haritschelhar, nahiz 1953an ipuinetik idatzi zuen Irurikoak, egiazko historia geroztik zilatua baitu gure garuko “sujetak”.

Etxahun Iruri aipatu dut, eta horren adiskidea ere izan da Haritschelhar. Gogoan dut bereziki Atharratzen 1977ko uztailaren 24an Pierre Bordazarrek ukan zuen omenaldia, “Xiberuko zohardia” kultura elkarteak antolatua bere urteko beste nagusiaren baitan. Eguerditan, pilota plaza jendez betea zelarik, mintzaldi hunkigarri bat egin zion Haritschelharrek, beti bezala paperik gabe, eskuen libreki erabiltzeko bezala. Ene familiarekin, eguerdi eguzkitsua baina ez beroegi hartan, horren hitzak arras preziatu nituen, han bilduak zeuden jende guztiek bezala.

Etxahunen ehorzketan ordea, 1979ko urriaren hiruan, ezin izan nintzen gertatu, eskolako lanaren gatik. Baina *Herria* kazetan, urriaren hamazortziko zenbakian, berriz irakurtzen dut orduan leitua: Haritschelharrek Iruriko hilarrietan egin zuen mintzaldi mamitsua, lehen orrialdean agertzen baita “Etxahun Iruri-koa” izenburuaz hasia. “Agur Etxahun” azpigituluaren segidan, mintzaldia honela burutzen du zubereraz:

eta orai Euskaltzaindiaren eta euskaltzaleen izenean eginen deizüdan
azken agurra zihauri hartüko deizüt, Etxahun Barkoxeri egin deiozün
omenaldian huntü düzün berset sarkor eta maitagarria eskeiniz.

Zihauerek beste Etxahuni eskeinia, zihauerek orai hartüko düzü:

othoitzerik den gozuena
eginik zur(e) ilherrian,

JEAN HARITSCHELHAR ETA ZUBEROA

nahi zütügü Etxahun zena
bethikoz izar herrian,
zeren zure orhitzapena
argi da Eskual Herrian,
adioz koblar(ri)k ederrena
zaude zelüko lorian.

Ene lantto honek ez du leku handirik beteko. Egia da Zuberoak bere aldetik ez duela eremu gehiegi eta sobera hartzen Euskal Herrian. Halere balio du zuberotarrek Jean Haritschelharri diogun zorra hemen aitor dezagun, gure atxikimendua halaber agertuz.

BITORIANO GANDIAGAREN *HIRU GIZON* *BAKARKA* POEMA LIBURUAREN METAMORFOSIA

Sebastian GARTZIA TRUJILLO

Hiztegien arabera, metamorfosia “gauza baten izaera aldatu eta beste bat bilakatzea” da¹. Hori gertatu ote da Bitoriano Gandiagak, 1968ko Lekeitioko lehiaketan, *Txakolinaren Ospatzea* izenburuaz, aurkeztu zuen eta 1974an, *Hiru gizon bakarka* izenburuaz, argitaratuta agertu zen poema liburuarekin? Baietz uste dut. Are eta zehazkiago ere. Ez dut uste Lekeitioko testua poema liburu bat dela esan dezakegunik, olerki multzo bat besterik ez. Gandiagari esatea gustatu zitzaion bezala: olerki-ontzi bat. *Hiru gizon bakarka*, haatik, poema liburu dugu, bete-betea, trinkoa, ordenatua, progresiboa, non arazo latz bat aurkeztu, desbiribilkatu eta apoteosi batean bukatu egiten baitu. Poema liburua ez izatetik poema liburua izatera. Prozesu horri jarraitzea eta prozesu horren eragileen lana markatzea da lan honen helburua; edo, bestetara esateko, olerki solte batzuk nola bilakatu ziren poema liburu. Ez edozein poema liburu, gainera, XX. mendeko euskal poema libururik ederrenetarikoa baizik.

Harrigarria da olerkiak idazteko erraztasun handia (dena da erlatiboa²) izaten zuen Bitoriano Gandiagari zenbat kostatzen zitzaion liburu batean

¹ Lur Hiztegi Entzikopedikoa.

² ARRUTI, D., *Argia*. 01.06.10, 41. or.: “Gandik idazten zuen dena landuta zegoen, pape-
rera pasa aurretik barruan ongi landuta baitzeukan”. GANDIAGA, B., “Poesia ederra izan eta
atsegin eragin behar du”, *Argia*, 77.11.30, 25. or.: “beharbada izaten pixka bat perfekzionista ere
naizelako”. “Elorri. (Egilearekin izketan)”, *Jakin*, 16, 1964, 70. or.: “Lantze ta ontze kontu ori
ez det beingoan bukatzekoa izan. Askotan aztertu ditut, askotan desegin, askotan berriztatu.
Nere iritziekin sekula ez naiz lasai egon. Sarri galdetu diet lagunei berena. Bai zenbait gizon
argiri ere (Aita Karmelo Iturria, Aita Kandido Zubizarreta, Aita Ormaetxebarria). Baña, batez
ere, honako bi hauek: Don Manuel Lekuona eta Aita Astigarraga”.

argitaratzeko olerkiak aukeratu eta sailkatzea³. Hautaketa eta sailkapen lan hori ez egitearren, ez zuen, agian, Bitoriano Gandiagak, inoiz, olerki libururik argitaratuko: “Nik ez daukat liburuak idazteko amorru handirik. Irteten bada, ongi. Poemak pilatzen badituz, ongi. Bestela, ez argitaratu eta kitto. Neuk baneki zergatik nagoen isilik hainbeste denboran!”⁴.

Gandiagaren lehen olerki liburua den *Elorriko* poemak Joxe Azurmendik “bakandu, sailkatu eta sortatu zituen”, *Hiru gizon bakarkakoak* Mikel Lasak “bahetu eta zatikatu” zituen eta Pello Zabaletak “multzotxoka ipini eta ordenu bat eman”, *Ahotsik behartu gabe* “Dionisio Arrutiren ardurari esker argitaratu zen” eta *Poema argitabageak* Paulo Agirrebaltzategik, Patxi Ezkiagak, Inaki Sarriugartek eta laurok bahetu, zatikatu, multzoka ipini eta liburukien izenburuak asmatu genituen⁵. Hala eta guztiz ere, ohiko metamorfosi hori Bitoriano Gandiagaren beste olerki liburuetan baino askoz zabalago eta sakonago izan ei zen *Hiru gizon bakarka* liburuan: “*Hiru gizon bakarka* besteak baino askoz gehiago landu zuen. Nik uste hiru-lau aldiz kopiatu genuela. *Denbora galdu alde*, berriz, behin bakarrik”⁶.

Hiru gizon bakarka poema liburura ohituta ez dagoena nahas ez dadin, artikulu honetan erabiliko ditudan bai liburuaren, bai kapituluaren izenburuak argitu nahi ditut, aurrera jo baino lehen.

Testu mekanografiatua

Hiru gizon bakarka (5. olerki)

Txakolinaren Ospatzea

- Lehenengo + Bigarren + Hirugarren zatia
- 1... 126 olerki: Giroa, Jatortasunaz, Euskera, Zoritzarra, Arrailak, Arrazoia, Gerorantz, Txakolina, Ezina, Txoriak, Ibaia, Horma, Alegia.
- Bai: ikusten dut. Ala itsu nagoala uste al duzu?.

³ GANDIAGA, B., “Nere obraz”, *Hegats*, 4, 1991, ekaina, 215. or.: “Elorri ez zen izan liburu bat egitea: poematxoak elkarren ondoan segidan jarrita daude 8 ataletan, elkarren arteko korapilago nabariago gabe. *Hiru gizon bakarka*, nahiz eta ez liburu bezala kontzebitua egon, kondizioek berek batasun batekin sorrerazi dute: kondizio horiek, Oteitzarekiko harreman hori eta momentu hartan Euskal Herria bizitzen ari zen bizitza-eranda espresatu nahia da, besteak beste”:

⁴ GANDIAGA, B., “Poesia ederra izan eta atsegin eragin behar du”, *Argia*, 1997ko azaroaren 30a, 24. or.

⁵ Paulo Agirrebaltzategiren ahorik hartu dut *Adio* poemategia, olerkiaren heriotzaren ondoren argitaratua zen lehen poemategia, Gandiagak berak hautatu eta anatolatu zuela. Salburespen horrek erregela berresten du.

⁶ ARRUTI, D., “Nire isiltasun hau hitzetan jarriko dut”, *Argia*. 01.06.10, 42. or.

Inprentako testua = Hiru gizon bakarka

Txakolinaren Osparkuntza 1
 Txakolinaren Osparkuntza 2
 Hiru gizonak bakarka
 Alegiak eta beste
 Korupekoak
 Hamaseiharrieta
 Artaso-ko salmuak

1. HIRU GIZON BAKARKAREN METAMORFOSIAREN KRONOLOGIA

Asko ez badira ere, baditugu nahiko datu jakiteko testu mekanografiatua nola aldatu zen inprentako testu bilakatzeko bidean. Hasieran, hots, “1967-tik 69ra bitartean”, ez zen libururik izan, olerki multzo bat baizik: “*Hiru gizon bakarka* ez (zen) liburu bezala kontzebitua egon”. “Ez dut uste (Bitoriano Gandiagak) aurrena liburu bat ideatu eta gero hura zatika egiten joaten zenik. Alderantziz, zatiak egin, bildu, eta horra liburu bat. Baina hori ere ez da guztiz egia. Asmo orokorra, interes alorra –tematika bat bezala edo- hasieratik izaten zuen aurrean, Baina holakoak beti zerabiltzan bat baino gehiago buruan, eta, gero, gehienetan arrazoi nahiko zirkunstantzialengatik, proiektu batean biltzen ziren asmo diferenteak, besteak sakrifikatuak gelditzen ziren”⁷.

Halako batean, hots, 1973. urtean, Euskaltzaindiak “Eusebio M.^a Azkue olerki saria” antolatu zuen, eta Bitoriano Gandiagak, bost edo urte zirela, idaztiak zituen olerkiren batzuk bildu eta Euskaltzaindian aurkeztu egin zituen (erregistro data, 81.11.26!). 1973ko abenduaren 11n, Eusebio M.^a Azkueren heriotzaren 100. urtemugaren oroimenez, Lekeition egindako bilean, Euskaltzaindiak Bitoriano Gandiagari eman zion lehiaketa horren lehen saria eta aipamenezko sari bana X. Letek eta A. Urretavizcayak eskuratu zuten. Handik urtebetera edo (1974an), poema liburua argitaratua izan zen Bilboko Gero argitaletxean, *Hiru gizon bakarka* izenburuaz. Distribuzioa hasi baino lehen, norbaitek, liburu hori dela eta, Bitoriano Gandiaga salatu zuen “de hacer política”. “De qué política es el árbol? erantzun zion Bitoriano Gandiagak epaileari – Yo soy un árbol... a este árbol se le va negando la tierra. Se le va negando el aire. Se le va negando el cielo. Se la va matando. Y entonces este árbol cruje. Eso es todo”. Dena den, urtebete edo egon behar izan zuen

⁷ GANDIAGA, B., “Nere obraz”, *Hegats*, 4. zk., ekaina, 1991, 215.or. eta AZURMENDI, J., “Autorearekin solasean”, 01.12.04.

liburuak banandu ezinean. “Halaz guztiz urtea baino lehen poema liburua agortu zen, kantari guztiek kantatu zuten hemengo fruituetatik”⁸.

Esan berri dudanez, Bitoriano Gandiagak Lekeitio aurkeztu zuen testu mekanografiatuak hiru zati ei zituen: sarreratxo bat (5 olerki), olerki multzo handi bat (130 olerki bainoago) eta epilogoaren antzeko olerki luze bat. Sarreratxoak “*Hiru gizon bakarka*” zeukan izenburutzat, olerki multzo handi horrek “*Txakolinaren Ospatzea*”, eta epilogo antzeko olerki luzeak: “*Bai: ikusten dut. Ala itsu nagoala uste al duzu?*”. Argi dago testu nagusia “*Txakolinaren Ospatzea*” zela. Nagusia eta seguru asko (makina letra lekuko) zaharrena ere bai. Poema liburuaren izenburuak, beraz, *Txakolinaren ospatzea* izan beharko omen zuen. Idazleak berak interpretazio horretara makurtzen bide zen, Lekeitioko lehiaketarako aurkeztu zuen testuaren ikurritzat “Egarri” idatzi baitzuen gutun-azalean, “*Txakolinaren Ospatzea*”ri erreferentzia zuzena egiten duena eta ez “*Hiru gizon bakarka*”ri. Hala ere, soilik sarreratxoari zegokion *Hiru gizon bakarka* izenburua testu osoaren lehen orrialdean agertzen zen (sarreratxoari zegokion orrialdean, alegia) eta (hori dela eta?) testu osoaren izenburutzat hartua izan zen inprentako argitalpenean. Baina ordurako beste aldaketa asko sartuak izanak ziren testu mekanografian, *Hiru gizon bakarka* izenburua berma omen zezaketenak.

2. METAMORFOSIAREN ERAGILEAK

Aldaketa horretan parte hartu zituztenen izen-abizenak ezagunak ditugu: lehena, testuaren autorea, materia prima jarri zuena eta zerbait (zenbat?) gehiago ere bai; bigarrena, Mikel Lasa: “Mikel Lasa ere ezagutu nuen eta hari utzi nizkion paperak, eta hark bahetu eta zatikatu zizkidan, baita hitzaurre androso batez apaindu ere”⁹; hirugarrena, Pello Zabaleta: “Multzotxoka ipini

⁸ AZURMENDI, J., “Epilogo”, in *Hiru gizon bakarka*, Elkar, Donostia, 1991, 185-214. orr.

⁹ GANDIAGA, B., *Hegats*, o. cit., 214. or. AZURMENDI, J., o. cit., 208-209. orr.: “Hautalana Mikel Lasarekin egin nuen. Nik paperak bete eta bete egiten nituen, Oteizari eramateko, egunean egunekoa, eta hor konpon. Oteizak bere lantegian gorde eta pilatu egin zituen. Gero, argitaratu egin behar zirela eta, denak ikusi beharra zegoen berriro eta batzuk hautatu. Ez diot inoiz nahikoa eskertu baina arratsalde bat berarekin egin nuen. Zuk badakizu Mikel Lasa kritikoa dela, kritikoa ona dela, falta zaizkigun kritikoa literario horietakoa baino, kritikoa literarioa. Kriterio oso onekoa eta informazio onarekin. Nik nahiago nuke gehiago egingo balu publikoan. Hark nire basotxoa bakandu egin zidan. Poema batzuk bota egin zizkidan, ikusten zuelako errepikapenak zirela, edo adierazita zedela lehen, edo ez zutela ezer esaten. Bakantze-lana berak egin zuen”.

eta ordenu bat ematen, Pello Zabaletak ere lagundu zidan. Eta *Ozpakizunetan* asko lagundu zidan¹⁰. Hiru horiei beste bi erantsiko nizkieke: 1.a, B. Gandiagaren lanik gehienetan finkotzat jo dezakegun Dionisio Urruti: "Idatzi, idazten ditut paper puntak, baina ez naiz gauza garbira aldatzeko. Garai batean Dionisio Arrutik lagundu zidan horretan. Bazekien nire jokabidea eta aldi bakoitzean izkiro-miriorik eskatzen zidan. Garbian jartzen zuen eta..."¹¹; eta 2.a, 1968an, Arantzazun "A sako sartu zen" Jorge Oteiza, betiko isilean jarraitzeko asmoa zuen Bitoriano Gandiagari olerkiak idatzi eta argitaratzeko ekin eta ekin ibiltzen zitzaiona: "Idatzi egin behar nuela eta idatzi egin behar nuela. Eta horrela atera zen *Hiru gizon bakarka*"¹².

Baina zehatzagotu behar ditut arestiko datu horiek. Artikulu hau idatzi beharrean, harremanetan jarri nintzen Mikel Lasarekin eta Pello Zabaletarekin, Bitoriano Gandiagari eman zioten laguntza zertan gauzatu zen neurtzeko. Lasak laster erantzun zidan telefonoz. Ez zen ondo gogoratzen, baina uste zuen bera izan zela poemak *bahetu* eta *zaticatu*, hots, olerkiak hautatu, atalburuka banandu eta ordenatu zituena. 'Eta atalburuen izenburuak?' ekin nion: 'Seguru asko nik neuk ere asmatu nituen', erantzun zidan Lasak. Pello Zabaletak ez zidan ezer erantzun, baina aurreko paragrafoaren arabera, Zabaletaren lana *Txakolinaren Ospakuntza* 1 eta 2an gauzatu zen, nagusiki bederen, bakarrik ez bazen.

Atal bi horietan (*Hiru gizonak bakarka* delako atalean ere?) pilatzen dira testu zaharrari erantsitako aldaketarik nabarmenenak. Oteizak jo eta ke ekiten zion Bitoriano Gandiagari pastoralak idatz zitzaizkion. Bitorianoek ez zuen bere burua horretarako prest ikusten, baina, hala eta guztiz, zerbait egin beharke Oteizaren behin eta berrizko jotze horretatik libre geratzeko, eta *Txakolinaren Ospakuntza*-ko solte idatziriko zenbait olerki antzerki laburrera moldatzea erabaki zuen: "Estos últimos años he andado un poco como huyendo de ti. Tú me pedías que escribiese pastorales y yo, por una parte, porque no me siento atraído por la poesía dramática, hice dos pequeños ensayos en el libro "Hiru gizon bakarka", y, por otra parte, porque ya llevo muchos años sufriendo un cáncer de vejiga, no me sentía con arrestos para adentrarme en el estudio de los diversos sujetos posibles de ser tratados en el hermoso género

¹⁰ AZURMENDI, J., "Epilogo", o. cit., 208. or.

¹¹ "Hark osatzen zidan liburua. Oraingoan ere aurretik mekanografiatuta zegoena irten-go da". 25. or. "(Dionisio Arruti) argia eta azkarra da. Dioni izan dut idaztera ekarri nauen azken urteotako zirikatzaile bakarretakoa".

¹² GANDIAGA, B., "Bitoriano Gandiaga. Ama hizkuntzaren seme kezkatia", *Punto y Hora de Euskalherria*, 423. zk., (1986). "Nere obraz", o. cit., 214. or. "Oteizak berak adierazi zidan pastoral txikien moduan era nintzakeela zenbait poema, eta antzezpen gisako bi osatu nituen Pello Zabaletaren laguntzaz".

de las pastorales"¹³. Lan horretarako Pello Zabaletaren laguntza erabakiorra izan ei zitzaion Bitorianori.

Zein izan zen Gandiagaren papera testuaren metamorfosi horretan? Ez dut uste ikusle pasibo hutsa izan zenik. Aldaketak garrantzi handikoak izan ziren, autoreak protagonismo handia ez bereganatzeko. Ikus ditzagun zehazkiago.

3. METAMORFOSIAREN ALDAKETAK

Txakolinaren Ospatzea-ri gaineratu zitzaizkion aldaketak honako lerro hauetan bil ditzakegu:

- 3.1. Testua arindu eta homogeneizatu
- 3.2. Testua berrantolatu
 - 3.2.1. Olerkien hurrenkera aldatu
 - 3.2.2. Atal zaharren izenburuak desagertarazi, atal berriak sortu eta atal horiei izenburua jarri
 - 3.2.3. Herri abestiak sartu
- 3.3. Testuaren berrantolaketa (sintaxi) horretan, testuaren interpretazio (semantika) ardatz berria sortu.

3.1. Testua arindu eta homogeneizatu

Ez da erraza, ez testu mekanografiatuan, ezta inprentakoan ere, irizpide homogeneo baten arabeko olerkien zenbaketa zehatza burutzea. *Txakolinaren ospatzean* olerki solte modura agertzen ziren poema batzuk, osorik zein partzialki, antzerki modurako testuetan, bateratuak agertzen zaizkigu *Hiru gizon bakarka* liburuan, *Txakolinaren ospakuntza 1 eta 2*an eta *Hiru gizonak bakarka* atalburuetan batik bat. Testu mekanografiatuan agertzen ez ziren poema batzuk, inprentako edizioan agertzen dira lehenengoz, bai olerki solte gisara, bai antzerki antzerako testuetan: “Bazen Xherrian Xgizona”, 34-39. or., Artasoko Salmuetako laugarrenetik aurrerakoak, 179.-189. or. eta abar. Zelan zenbatu batzuk eta besteak? Dena den, olerkiak, gutxi gora behera, zehazteko orduan, Bitoriano Gandiagak *Txakolinaren ospatze*-rako prestatu zuen aurkibidean, *kurtsibaz* azpimarratu ditut inprentako testuan agertu ez ziren olerkiak (Ikus Eranskinak: 2). Horrelaxe, arazoak sortzen

¹³ *Gara*, 01.02.22, 60. or.

dituzten kasu gutxi salbu, nahiko argi geratzen da nola ‘antolatzaileek’ orraztu zuten testu mekanografiatua inprentako moldetan agertu baino lehen. Erkaketa horren ondorioz hauxe esan dezakegu: Testu mekanografiatutik inprentako testuetara, paperontzian, gutxi gorabehera, poemaren %40 geratu zela.

M. Lasari zor ei zaion inausketa zorrotz horren ondoren, ezin dezakegu esan testuak mami handirik galdu duenik. Alderantziz. Testua trinkoago bihurtu zaigu, mamitsuago. Errepikaketa asko kendu dira, arreta guneak markatuago geratzen zaizkigu, eta testu osoa askoz homogeneizatuago ere bai. “Zuk badakizu Mikel Lasa kritikoa dela, kritikoa ona dela, falta zaizkigun kritiko literario horietakoa baino, kritikoa literatua. Kriterio oso onekoa eta informazio onarekin. Nik nahiago nuke gehiago egingo balu publikoan. Hark nire basotxoak bakandu egin zidan. Poema batzuk bota egin zizkidan, ikusten zuelako errepikapenak zirela, edo adierazita zeudela lehen, edo ez zutela ezer esaten. Bakantze-lana berak egin zuen”¹⁴.

3.2. Testua berrantolatu

3.2.1. Olerkien hurrenkera aldatu

Arestian azpimarraturiko inausketaz gain, liburuaren antolatzaileek olerkiren batzuk leku batetik bestera eraman zituzten. *Txakolinaren Ospakuntza 1ean eta 2an*, batik bat, baita *Hiru gizonak bakarka* eta *Alegiak eta beste* atalburuetan ere.

Lehendabiziko atal bietan, hots, *Txakolinaren Ospakuntza 1ean eta 2an* (*Hiru gizonak bakarkan* ere?), aldaketen arrazoia testua pastoral modura bideratu nahia izan ei zen, horretarako olerkariak eta laguntzaileek (laguntzaileak? P. Zabaletak bakarrik?) pertsonaiak: BAT-GIZONA, BI-GIZONA, HIRU-GIZONA, GIROA-ARAZLEA, DEIEMAILEA, TXAKOLINMAIXUA, DENAK EDO HERRIA sortu eta testuan sartu behar izan zituzten, baita pertsonaia horiek burutu beharko ekintzak ere: txurrutak, tinbal kolpeak, isil-uneak, eszenak edo zatiak. *Alegiak eta beste* atalak, ostera, izenburuak adierazten digunez, ‘saski-naski’ funtzioa betetzen du eta hortxe bilduak ziren, beste lekuetan sartzen ez ziren *Txakolinaren Ospakuntza*-ko poema adierazgarriren batzuk, beste atalburuetan, homogenoagoak izateagatik, lekurik ez zutenak.

Geroago atalez atal aztertuko dudan arren, gera bedi esanda, olerkien biltze eta berrantolatze edo *sintaxi* berri horretan, testuaren *koherentzia* gau-

¹⁴ AZURMENDI, J., “Epilogo”, o. cit., 208.-209. or.

zatzen ari dela, baita testuaren esanahi edo *semantika* berria ere, ez baitio berdin, esaterako, euskal lurraren sortzearen mitoaz jardutea, itobeharrean dagoen gizarte batean (horrelaxe *Txakolinaren Ospatzea*-n, 93-97 olerki zenbakietan) ala gizarte sortu berri baten atarian (horrelaxe *Hiru gizon bakarka* bertsoan): “ikus berpiztea egia dela” (161. or.), bertsoek eurek oihartzun ezberdina daukate bertso batean zein bestean, garrantzi handikoa dena olerki adierazian.

3.2.2. *Atal zabarrak desagerrarazi, atal berriak sortu eta atal berrioi izenburua jarri*

Testu mekanografiatuko hiru zatiak guztiz independenteak izan ei ziren: 1.a, Sarreratxoa, “Hiru gizon bakarka” izenburupean, 2.a, Testuaren *corpus* nagusia: “Txakolinaren Ospatzea”, eta 3.a, Epilogo: “Bai: ikusten dut”. Sarreratxoan (ikus, 1. Eranskina) ez dago atal zehatzik; ezer egotekotan, multzo batean bildutako bost poema autonomo: a) GIZON BAT, BESTE GIZON BAT HIRUGARREN GIZON BAT, eta b) “Txakolinaren Ospatzea-ko” olerkien zerrenda luzea, Gandiagak burututiko iruzkin labur banarekin lagunduta. “Epilogo” edo poesia inprekazio luze bakarra (profezia deitzen dio Paulo Agirrezabaltegi) izenbururik gabeko zazpi zatitan banatuta dago (I, II..VII). Testu mekanografiatuan, atalka edo kapituluka banatuta agertzen den zati bakarra “Txakolinaren Ospatzea” da (guztira 126 olerki eta gehiago, olerkiren batzuk ez baitaude zenbatuak): GIROA (olerki 1-7), JATOTASUNAZ (8-12), EUSKARA (13-24), ZORITXARRA (25-37), ARRAILAK (38-50), ARRAZOIA (51-56), GERORANTZ (57-64), TXAKOLINA (65-73), EZINA (73-83), TXORIAK (84-91) IBAIA (92-99), HORMA (100-113), ALEGIA (114-126).

Oso zaila da atal horiek guztiok interpretazio ardatz baten inguruan txirikordatzea. Arrazoi du J. Azurmendik Gandiagaren ahoan esaldi hau jarri duenean: “*Hiru gizon bakarka*, nahiz eta ez *liburu bezala kontzebitua egon*, kondizioek berek batasun batekin sorrerazi dute: kondizio horiek, Oteitzarekiko harreman hori eta momentu hartan Euskal Herria bizitzen ari zen bitzitza-eztanda espresatu nahia da, besteak beste”¹⁵.

Atalak kendu, sortu eta izendatze berri horretan nabarmentzen da gehienik Gandiagak, *Hiru gizon bakarka* liburua antolatzerakoan, izan zituenen laguntzaileen eskua, inprentako argitalpenean nabariak baitira *Txakolinaren Ospatzeako* olerkien banaketa berria. Ohar bedi irakurlea

¹⁵ AZURMENDI, J., “Epilogo” 208. or. GANDIAGA B., “Nere obraz”, o. cit., 215. or.

Txakolinaren Ospatzeako olerkiez bakarrik aritzen naizela, “Sarreratxo” olerkiak ia guztiz desagertu baitziren inprentako testuan, baita “Epilogo”ko poema luzea ere.

Mikel Lasari zor ei zaion olerkien banaketa berriak honelaxe utzi digu *Hiru gizon bakarka* liburuaren atalak: “Txakolinaren Ospakuntza 1”: LEHENENGO ZATIA, BIGARREN ZATIA, HIRUGARREN ZATIA, “Txakolinaren Ospakuntza 2”: I, II, III, “Hiru gizonak bakarka”, “Alegiak eta beste”, “Korupekoak”, “Hamaseiharrieta”, “Artaso-ko salmuak”.

Eta hala ere, aurreko perpausean esana ez ei da egia osoa, *Txakolinaren ospakuntza 1an* eta *2an* Pello Zabaletaren eskua nabarmena baita. Besterik ezean, honako sekuentzia hau proposatzen ausartuko nintzen: lehen antolakuntza Mikel Lasak burutu omen zuen (Gandiaga alboan zegelarik?), eta, gutxi gorabehera, sei ataletan banatu zituen testu mekanografiatutik hautatutako olerkiak: “Txakolinaren ospatzea”, “Hiru gizonak bakarka”, “Alegiak eta beste”, “Korupekoak”, “Hamaseiharrieta”, “Artaso-ko salmuak”. Hautaketa eta banaketa horiek egin eta gero, Gandiagak Oteizaren presioei amore eman eta “Txakolinaren ospatzea” pastoral modura moldatzea erabaki zuen, eta orduan konturatu zen “Txakolinaren Ospatzea” atal batean bildu beharrean, hobe zela atal bitan banatzea. Eta halaxe egin. Lan horretan, guztiz erabakiorra izan zitzaion Gandiagari Pello Zabaletaren laguntza. Prozesua alderantziz gerta zitekeen (lehendabiziko lana Zabaletarena izatea, eta bigarrena Lasarena), baina, horretan ere, faktoreen ordenak emaitza aldatzen ez duelakoan nago.

Dena dela, argi dagoena zera da: atalen banaketa berriak ez duela zerikusi handirik *Txakolinaren Ospatzeako*arekin. Ba ote gaude, beraz, liburu berri baten aurrean? Baiezkoan nauzue. Bada, orduan, nor da *Hiru gizon bakarka* delako liburu berriaren autorea? Bitoriano Gandiaga ala Gandiagaz, Lasaz eta Zabaletaz osaturiko triunbiratua? Badakit galdera hori guztiz probokatzaila dena, baina ez arrazoirik gabekoa, zeren banaketa berriari atalen izenburu berriak jarraitzen baitzaizkio eta horrek testuaren interpretazio berri batera garamatza, aldaketa lodiak direnak olerki testu batean.

3.2.3. Herri abestiak sartu

Inausketa eta berrantolaketa berrioi esker sortzen ari den testuaren interpretazio berriari buruz aritu aurretik, *Txakolinaren ospatzeatik Hiru gizon bakarka* testura aldaketa edo gehiketa berri bat markatu behar dudala uste dut: hots, euskal herri kantuen. Izan ere, antzerki moldeetara aldatze horretan, *Txakolinaren Ospakuntza 1en* eta *2ren* antolatzaileek euskal herri abesti bi sartu zituzten testuan, atal honetako poema osoaren *ardatz* bihurtzen direnak: “Txakolin, txakolin, / txakolinak on egin. / Guztiok edaigun alkarrekin”

delakoa eta “Matsaren orpotik dator / mama goxua, mama goxua...” delakoa, osoki ala partzialki, hamabi bider edo errepikatzen direnak bata eta bestea, hogeita lau, beraz, guztira, testu nahiko labur batean.

Herri abesti horiek testuan barruratzea ez da funtsik gabekoa, beraien bidez idazleak a) olerkia ikuskari orokor bilakarazten du (musika, dantza, abestiak...), errepresentazioa *herri jai* bihurtzen, b) irakurleak, hots, euskal herrikoak eta errepresentazioan sartzen gaitu: errepresentazioa *historia* bihurtzen da¹⁶, eta, batez ere, c) testuaren mezua idazlearena bakarrik ez dela azpimarratzen digu, Euskal Herri osoarena baizik, hots, herri baten esperientzia zein jakituria, zeinen bidez, antzerkiaren (Euskal Herriaren) *protagonista* herria dela (gu geu garela) eta errebindikazioa herri osoaren dela markatzen baitigu.

3.3. Berrantolaketa horretan, testuaren interpretazio ardatz berria sortu

Testua arindu, atal berriak sortu eta berrantolatu, atal berri horiei izen berriak ipini... ez dira aldaketa ‘inuzenteak’. Azkenengo(k), batez ere. Azken orduko antolatzaileek arre eta zurrunbiloka zetozen *Txakolinaren Ospatzea*-ko urak, bereiz, motel, garden, berbidera eta ubide berrian sarrarazi egin dituzte. Berrezagutu ahal dugu lehengo testua testu berrian? Bai eta ez. Hain dira nabarmenak eta garrantzi handikoak aldaketa hauek ezen M. Lasarekin berbertan egon nintzenean, behin eta berriz galdera bera egiten bainion: “Baina atal berriak nork antolatu zituen? Eta atal horiei nork jarri zizkien izenburu berriak?”. Ez zen Mikel Lasa horretaz guztiz ondo gogoratzen, baina bera izan zelakoan zegoela errepikatu zidan, behin eta berriz.

Izan ere, atal berriak antolatzerakoan, testua atal homogeneousetan banatzea beharrezkoa ez ezik, onuragarria ere badela uste dut. Hala ere, ezin dezakegu esan aldaketa horiek aldaketa eraldatzaileak direnik, azken buruan, olerkiek, kenketak kenketa, jatorrizko hurrenkera gordetzen baitute, gutxi aurrera atzera. Nire ustez, inprentako *Hiru gizon bakarkan*, aldaketarik garrantzitsuena, baita sakonena ere, atalei izenburu berriak ipintzerakoan suertatzen da, izen berrioi izate berria baitarraie, eta izate berri horri interpretazio berria ere bai, olerki testu batean guztiz determinantea dena. Ba ote gaude, beraz, liburu *berri* baten aurrean?

¹⁶ KEHL, M., *Escatología*, Sígueme, Salamanca, 1992, 92. or.: “la comunidad en fiesta realizaba a Israel en el sentido pleno de la palabra a través del 'mimo' y el rito; entraba de hecho y de verdad en la situación histórica, tal como había sido determinada por la fiesta respectiva”.

Testuaren atal banaketari eta atal horien izen berriei arretaz begiratu gero, antolatzaileak (antolatzaileek), daki(t)ela ez daki(t)ela, Bibliaren segida edo sekuentziari (jausiak tarte) jarraitzen dio(te)la ohartzen gara, sakonean eta urrundik agian, baina nahiko esplizituki ere bai:

Testamentu Zaharra
Mahats biltze jaia ¹⁷ → <i>Txakolinaren ospakuntza</i> 1 eta 2 Profeten hautaketa → <i>Hiru gizonak bakarka</i>
Testamentu Berria
Jesusen jende aurreko ikasketak → <i>Alegiak eta beste</i> Jesusen kontrako polemikak → <i>Korupekoak</i> Jesusen nekaldia eta heriotza → <i>Hamaseiharrieta</i> Jesusen piztuera eta Espirituaren etortzea → <i>Artasoko salmuak</i>

Ardatz sintaktiko berri horrek ardatz semantiko berria sorrarazten duela argi dago. Atalen taxuera eta, batez ere, izenburu berria jartzearen bidez, antolatzaileak (antolatzaileek) Euskal Herriaren (herri baztertu guztien) egoera kulturala zeinena?... eta Israelen eta Jesusenaren ildoan bertan jartzen du(te), ez erlijio edo sinesmen-zentzuan noski, kultura edo etnografia zentzuan baizik.

Aldaketa horrek polisemia esanguratsua sortu eta indartzen du *Hiru gizon bakarka* testu berrian, zeinen arabera poema liburuaren protagonistak, euskal edota herri minorizatuen kulturaren bultzatzaileak, alegia, zeinekin eta Bibliako pertsonaia miretsienekin (Jesukristo barne) berdinduta agertzen zaizkigu.

4. ONDORIOAK

- 1. Liburu berri bat.** Ikusi berri dugunez, testu mekanografiatutik inprentako testura *Hiru gizon bakarka* poema liburua aldaketa handiak jaso zituen, bai forma edo adierazlearen aldetik, bai eduki edo esanahiaren aldetik ere. Errealitatea larregi behartu gabe, esan deza-

¹⁷ Mahats biltze jaia Isaïsen 5 atalburuan agertzen da: “Poema compuesto por Isaías al comienzo de su ministerio, probablemente con ocasión de la fiesta de la vendimia”. Isaïas (765-740 K. a.) kronologikoki lehen profeta handia dugu. Mahats biltze jaia, beraz, profeten lehenagokoa da.

kegu liburu berri baten aurrean gaudela edota testu mekanografiatua eta inprentako testua liburu ‘diferenteak’ direla. Egia esan, hori askotan gertatzen omen da literatura liburuekin (olerki liburuekin, batez ere). *Hiru gizon bakarka* kasuaren berezitasuna, haatik, zera da: Hautaketan, atalka zein kapitulukako sailkapenean eta atalei izenburuaren jartze lanetan protagonismo handia hartu zutela, olerkien autoreaz (Bitoriano Gandiagaz) aparte, Mikel Lasak eta Pello Zabaletak.

2. **Autorea nor?** Kontestu horretan, nor da testu berriaren autorea? Bitoriano Gandiaga ala Mikel Lasa eta Pello Zabaleta bikotea? Delako bikote hori gehi Bitoriano Gandiaga? Ez nuke hitz ‘potolorik’ erabili nahi. Olerkiak, dudarik ez, Bitoriano Gandiagarenak dira. Baina testu poetiko batean, horren garrantzi handikoak dira antolaketa eta izenburuen jartzea nork (nortzuek) burutu zitu(zt)en?
3. Nire iritziz, Bitoriano Gandiagak laguntza handia hartu zuen kolaboratzaile biongandik, baina, poema liburuaren antolaketa eta izenburuak finkatzerakoan, bera izan zen, aldez edo moldez, *aginte makila eraman zuena*. Egia da, asko azpimarratu dela bai Mikel Lasaren bai Pello Zabaletaren laguntza: batetik, handia izan zelako, eta bestetik, Bitoriano Gandiagak berak, bere herabetasunean, abagunerik galdu ez zuelako kolaboratzaileon lana azpimarratu, goraipatu eta bioi eskerrak emateko.
4. Badirudi egia dela Bitoriano Gandiagari zaila egiten zitzaioela olerki liburuak bukatutzat jotzea. Baina a) ez dugu oztopo hori muturreraino eraman behar. *Adio*, bere ‘post mortem’ lehen liburua, guztiz antolatuta utzi omen zuen berak bakarrik (antza), guztiz modu txukun, zehatz eta zuzenean, eta b) Oztopo horretatik ateratzea, *Hiru gizon bakarka* kasuan (Bitoriano Gandiagaren libururik konplexu eta adore handikoena, seguru asko), hautaketa, berrantolaketa eta izenburuak ipintzeko lanetan, Bitoriano Gandiagak jarrera pasibo hartu izanak ez dut uste euskarri nahiko duenik.
 - Lehenik: “Txakolinaren Ospakuntza” 1ean eta 2an, olerkariaren jarrera aktiboa erakusten diguten honako hitzak jarri zituen J. Azurmendik Gandiagaren ahoan: “*Nik eginda neuzkan zatiak*, baina ez nuen asmatzen muntaia nola egin. Distribuzioa... Pello Zabaletak asko lagundu zidan”¹⁸.
 - Bigarrenik: “Txakolinaren Ospakuntza 2” rako, olerkariak *ex professo* idatzi zituelako “Bazen Xherrian Xgizona... Orpo herririk gabe /

¹⁸ AZURMENDI, J., “Epilogo”, o. cit., 208.

- ez dago gizonik” bertsoak (34-39. or.). Poemaren mamiari gehitu ziotenaz landa, zaila da pentsatzea, bertso berriak idazten dituenak ez duela poemaren distribuzioan parte aktiborik hartzen.
- Hirugarrenik: “Txakolinaren ospakuntza” 1ean eta 2an nobedaderik adierazgarrienetariko herri abestiak sartzea izan zen. Abesti horiek, inork hautatzekotan, olerkariak (eta Pello Zabaletak?) hautatu behar izan zituen. Distribuzio lana egin aurretik, abesti horiek, era estilizatu batean. presente baitzeuden aspaldian idatzitako bertsoetan, horrexegatik, hain zuzen, izan zen, antzerki modura antolatzerakoan, horren erraz tartekatzea abesti horiek *Txakolinaren ospatzeako* bertsoekin.
 - Laugarrenik, *Hiru gizon bakarka* ↔ *Hiru gizonak bakarka* jokuan, heteronimoez ohartzea Bitoriano Gandiagaren aitortzean oinarritu behar ei da.
 - Bosgarrenik, “Korupekoak” izenburuak B. Gandiagaren esperientzia guztiz pertsonal batean du oinarria. Kapituluako izenburu hori B. Gandiagak asmatu behar izan zuen edota B. Gandiagaren konfidentzia batean du jatorria.
 - Seigarrenik, “Artasoko Salmuak” izenburua B. Gandiagarena da, *Txakolinaren Ospatzean* agertzen baitzen. Hala ere, *Txakolinaren ospatzean* soilik lehendabiziko lau salmoak agertzen ziren. Salmoez atal berri bat sortu eta atal horri izenburu hori jartzeak B. Gandiagaren protagonismoa eskatzen du, derrigorrez, V. VI. eta VII. salmoak idazteko konpromisoa olerkariak berak hartu behar izan zuen, zeren bakarrik lehendabiziko lau salmoekin ez baitzuen antolatzailerak atal berriak sortuko. Beraz atal berri hori osatzeko eta atal horretarako lau olerki berriak idazteko eginbeharra B. Gandiagari dagokio.
 - Zazpigarrenik, zergatik zazpi salmo? Erantzunak abadeek egunero erabiltzen duten “Orduen Liturgia” delako liburua ezagutzea eskatzen du. Abadeek salmoekin egunero egiten dute otoitza. Horretarako salmoak *astea* banatzen, eta, astearen barruan, salmoak egunero aldatzen dira. Beraz, salmoez egindako otoitza aste *zazpi* egunetan oinarrituta dago. Hortik “Artaso-ko Salmuak” atalean ‘zazpi’ salmoak agertzea. M. Lasak ezagut zezakeen errekurtsu hori, baina Gandiaga abadeari hobeto dagokio horretaz konturatzea. Horrez gain, atal horretan oso esanguratsua den “Lurra hartu dut esku barruan” (188.-189. or.) delako olerkiaren existentziaz berrikerik ezin izan zuen Lasak, B. Gandiagak azaldu ez bazion, olerki hori ez baitzegoen testu mekanografiatuan.

- Zortzigarrenik, azaldu dudan legez, *Hiru gizon bakarkako* atalen segida edo sekuentzia, hutsuneak tarte, Bibliaren antzerakoa da. Nori zor zaio gehiago Bibliaren jarraipen horren arabera liburua antolatzea, M. Lasari ala B. Gandiagari? Erantzuna ez da erraza, baina, edozein kasutan, logikoa da pentsatzea fraide teologoak zeresana izango zuela sekuentzia esanguratsu horretan.
- Bederatzigarrenik, *Hiru gizon bakarkaren* metamorfosia aztertze-koan, logikoa da Lekeitioko testua abiapuntutzat hartzea eta liburu-aren azken muga lehen argitaldian kokotzea. Beste gauza bat da argitaraturiko liburuaren autoretzaz aritzen bagara. Ez dugu zertan pentsatu behar Bitoriano Gandiagak Lekeitioko testua eman ziela laguntzailei, hauek zuzenketak egin zitzaizten. Logikoagoa da, besterik ezean, pentsatzea Bitoriano olerkiak hautatzen eta sailkatzen saiatu zela, eta, prozesu horren une batean, laguntza eskatu behar izan zuela. Noraino iritsia zen Bitoriano inauste eta sailkatze lanetan laguntza eskatu zuenean?

Labur-zurrean, beraz, eta amaitu beharrean, *Hiru gizon bakarka* olerki liburuari dagokionez, nire iritziaren arabera, hauxe esan dezakegu: testu mekanografiatutik inprentako testura izugarrizko aldaketak sartuak izan ziren. Hain sakonak ezen inprentako testua liburu berri bat dela esan baitaiteke, bai adierazlearen aldetik (olerki kopurua eta olerkien distribuzioa), bai adieraziaren aldetik ere (atalen izenburua). Aldaketa horietan, neurri ez txikian, Mikel Lasak eta Pello Zabaletak (azken honek soilik, omen, lehendabiziko bi edota hiru kapituluetan) izan zuten protagonismoa. Dena dela, Bitoriano Gandiagak ere parte hartu behar izan zuen aldaketa horietan guztiotan, aldaketen mamia azalgaitza baita, olerkariaren presentziarik gabe. *Hiru gizon bakarka*, beraz, Bitoriano Gandiagarena da, arrazoi eta ondorio guztiaz, nahiz eta Lasa zein Zabaletaren ekarpenak oso determinanteak izan.

ERANSKINAK

1. TESTU MEKANOGRAFIATUAREN ETA INPRENTAKO TESTUAREN ARTEKO ERKAKETA

1.1. Testu mekanografiatuaren sarrera

HIRU GIZON BAKARKA
<p><i>Hiru bertsolariren borobiltako</i> hitz-aspertu bat. Off-abotsak <i>dio zertaz ari diran.</i></p> <p>Nahi ta ezinaren // Herriaz ari dira / <i>harritik Herria</i> / Herriko hiru gizon / bakarka.</p> <p>1.- <i>GIROA. Euskalherriaren iratzarte berri bat aitortzen du.</i> 2.- <i>Kanpokoz liluratu...</i> 3.- 126.- <i>Gora txakolina.</i>¹⁹</p> <p><i>GIZON BAT (Pello Zintzo Bainabildurti)</i>²⁰ <i>BESTE GIZON BAT (Jonas Norazoaz Nahitaezprofeta)</i>²¹ <i>HIRUGARREN GIZON BAT (Joxe Tentatueta Garailetakoa)</i>²²</p>

- Letra etzanetan idatzitakoa soilik testu mekanografiatuan agertzen da.
- Testu mekanografiatuko ‘Hiru gizon bakarka’ delako sarrera hau ia guztiz desagertu zen inprentako testuan. “Nahi ta ezinaren...” olerkitxo mantendu zen bakarrik (63. or.), “harritik Herria” bertsolerroa kenduta.
- Harrigarria, haatik, hauxe da: inprentako argitalpenean ia guztiz desagertzen den sarrera horrek ‘izenburua’ ematen diola inprentako testu osoari.

¹⁹ Zerrenda osoa 2. eranskinan.

²⁰ Zortziko handiko 2 estrofa

²¹ Molde txikiko 2 estrofa eta 2 lelo

²² Kopla nagusia gehi kopla

– Azpimarragarriena da GIZONA BAT, BESTE GIZON BAT eta HIRUGARREN GIZON BAT desagertzea (izenak eta ezaugarriak) eta inprentako testuko *Txakolinaren Ospakuntza 1 eta 2*an Bat-Gizona, Bi-Gizona eta Hiru-Gizona agertzea, behin eta askotan (izenik eta ezaugarriarik gabe). Nortzuk ote dira? Zein zerikusi dute testu mekanografiatuko GIZON horiek inprentako Bat-Gizona, Bi-Gizona eta Hiru-Gizona direlakoekin? Testu bietako gizonen arteko egokitaisunik ezak inprentako testuaren zuzentzaile(ar)en eta olerkiaren arteko adostasunik eza agertzen digu? Kontuan hartu behar dugu GIZON BAT, BESTE GIZON BAT eta HIRUGARREN GIZON BAT kentzea M. Lasari zor zaiola, eta Bat-Gizona, Bi-Gizona eta Hiru-Gizona sartzea Gandiagari eta P. Zabaletari. Testu mekanografiatuko GIZON BAT, BESTE GIZONA BAT eta HIRUGARREN GIZONA BAT gizon zehatz edo jakinak dira, eta inprentako testuko BAT-GIZONA, BI-GIZONA eta HIRU-GIZONA anonimoak edota izengabekoak, zeini Zaitegik, “Personajes innominados del Poema” delako artikuluko batean, Orixeren *Euskaldunak* poemari buruz esandakoa egoki baitieziaiekegu: “Erri osoa ari da an (*Euskaldunak* poeman) izketan; erria da ango gizuren edo *héroe*. Akiles’ik, Roldan’ik edo Cid’ik ez dugu guk izan, eta izan ditugun aundienak kanpoan egin dira gizon aundi. Beste aldera, erri-erriari axola gutxi dio Roldan’engandik. Erriak bere burua naiago du ikusi. Bera da *personaje*. Epopeya *erudita* ez-baña *popular*’en maillean dago”²³.

1.2. *Txakolinaren ospatzea* delako testu mekanografiatuaren bigarren zatiko olerki zerrenda

1. *GIROA*. Euskalherriaren iratzarte berri bat aitortzen du.
2. *Kanpoko z liluratu zutela Herria, inorena bakarrik erakutzi az.*
3. Herri ta harri bakoitzak bere zer-izate ta halako-izate bereiziak dituala.
4. Jentea palta dela euskaldunen sortan.
5. Gernikan erre ez zena.
6. *Osatzen duten guztiekin eta guztiarekin maite duala Herria.*
7. *Herri maite ta arinaren bila dabilela.*
8. *JATORTASUNAZ. Jaiotetxearekin orhoitzen da.*
9. Herriaren zoriak kezkatzen du.
10. *Herria eske etortzen zaiola gauero.*

²³ *Orixe Gutunak (1917-1961)*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2006, 224. or.

11. *Ez duela idazteko astirik.*
Gehiegiraino omen
Gizonak bildur dio ()*
Euskal Herria ona da
Hemen euskeraz ez dakienak
12. *Gure Herriak kulturari Herri-kutsurik ezarri al ote dioten, galdetzen du.*
13. *EUSKERA. Estaduak ez duala entzun euskera galtzen dagoanik.*
14. *Euskaldunak, bizibide errez bat hartu-ala, euskera utzi egiten duala.*
()*
15. *Euskalherri ongi dagoala diotenentzat.*
16. *Arantzadun esi batetik ikusten duala Herria.*
17. *Herria hondatzen ikusita, ezin duala lorik.*
18. *Herriak euskerarik ez duala iztimatzen diotenentzat.*
19. *Euskerarik ez zekiten jakitunak egin dutela gaizki hitz euskerataz.*
20. *Nunahiko euskera dela ona.*
21. *Euskaldunok hilten dugula euskera.*
22. *Euskerak mintzaera bat baino gehiago izan behar lukeela euskaldunontzat.*
23. *Euskeraren kerak keratu behar duala euskalduna.*
24. *Harriak ere landu ditezkeela euskeraz.*
25. *ZORITXARRA. Ederra dela Herriko agurra entzunda pozten den jendea.*
26. *Ez dela inola ahaztu behar nola hemen betiko Herria ta hizkuntza bizi diran oraindik.*
27. *Baina euskeraz ezin dugula agurtu hertzainik.*
28. *Papeletan ifini ezin diteken egia bat.*
29. *Euskaldunen alde motel jokutzen dutela ahaldunak.*
30. *Euskaldunen itxaropenaren berri.*
31. *Oinharrizko eskubide bat ukatzen zaigula.*
32. *Aitzaki ederrekin izarratu dutela euskera.*
33. *Birtuteen izenean hil zutela justizia.*
34. *Gure Herria munduaren zati aitortzen dugula.*
35. *Edukazioa lotsagaldukoa dela.*
36. *Pa...khea.*
37. *Arrazoia zaukana hil zenekoa.*
38. *ARRAILAK. Nahi duguna lortzeko gutxi dala nahi izatea bakarrik.*
39. *Ikusten duan argia argia ez ote dan dagoela.*
40. *Itzaltzen dijoan gizonen argi bat.*
41. *Baina oraindik euskeraz esango dituala zerbaiztuk.*
42. *Bajuen deadarrik ez dijoala inora. (*)*

43. *Herri-kontzientzia duan Herri bat gerala, dio.*
Erregeren profetak ohe zabala dute (**)
44. Euskal-izenak euskal-izana eskatzen duala.
45. Euskal-kantuak sortu dion oihartzuna Herrian utzi nahi duala.
46. Ura galtzen ari den osina bezala gerala.
47. Morozerrak hainbat erru haritzak duala.
48. *Bekoitzkeriaren arraildu ginala.*
49. *Haritzaren pitzetan beste landare batzuek sortu dirala.*
50. *Lege-obituran ez dagoen lege bat.*
51. *ARRAZOIA.* Gure egia gure Herria dela.
52. Euskera dugula kondaira ta kondaira-giltza.
53. Hizkuntza dugula herri-espíritu-zubi.
54. *Herrian euskal giroa nahi dugula.*
55. *Arrazoen indarra galdetzen du.*
56. Handiari arrazoia ematen diotenak, gehientsuenak dirala.
57. *GERORANTZ.* *Euskaldun nahi ditugula eskola ta kale.*
58. *Gerokoan ere Euskal Herri bezela irauñ dezala, opa dio Herriari.*
59. *Euskaldun izatearen poza gerokoak ere izan ahal dezatela.*
60. *Gure haurrei euskera uzteko zorra dugula euskaldunok.*
61. *Euskera gabe moztuta geratuko litzakela euskalduna.*
62. *Pakeari pakean deitu behar diogula.*
63. *Euskaldunak euskaldun ditezen ordua ba dala.*
64. *ONU ta Uneskoren arnasa ta estalpea ditugula.*
65. *TXAKOLINA.* *Euskal Herrian mahastiak eta euskera lantzen dituztenak ere ba dirala.*
66. *Txakolina eskeintzen die erregeren profetei.*
67. *Mahats-ondoak bezala euskera ere idealen parralera jaso behar dugula.*
68. *Bihotz-errea.*
69. *Euskal herriko mahasti zaleei kantatzen diela.*
70. *Txakolinak berri-grina pizkortzen duala.*
71. *Euskal-mina txakolina baino ardoago dela.*
72. *Aho-erre pizkorra duala txakolinak.*
73. *EZINA.* *Mordo garratzez egiten dugula Herriko ardo txakolina.*
74. *Ez diogula antzik ematen gainean dugun gaitzari.*
75. *Zentralismuaren eta uniformismuaren aurka.*
76. *Hala-beharra heriotza baino gebiago dela.*
77. *Baina gizonaren izaera bera ere petrala dala.*
78. *Gogorrigo batekin burrukan ari dena bezala.*
79. *Hitzek eta irudiek ere alde egiten diotela behar dituanean.*
80. *Herriari buruzko bideetan ere zalantzak dituala.*
81. *Egin-gogoaren eta ezinaren artean.*

82. *Baina jardun behintzat.*
83. *Behar bada hauxe izango dela gure helburua: ezinarekin bururukatzea.*
84. *TXORIAK. Gure burua geuk bakarrik behar dugula askatu.*
85. *Katua ere sasiko txorien askatzaile dela.*
86. *Erpeetan baino sasi artean lasaiago.*
87. *Txoriak ez dakitela sasian libre dirala oraindik.*
88. *Sasiak mugitzen dituan aizea ez dala gauza erpeak zabaltzeko.*
89. *Sasitzara ba datorrela esku askatzaile erpe bat.*
90. *Sasiak eta katuak-eta entzun dezaten, txoriak diotena.*
91. *Sasitik geuk bakarrik askatu behar dugula gure burua.*
92. *IBAIA. Herriaz errukituta hasi zala idazten.*
93. *Jentilen Ama Artasoz.*
94. *Artaso loak hartu zuenean Arantzazu iratzarri zela.*
95. *Artason jaiotako ura handitu egin dala.*
96. *Ibaiak itxasoan ere ibai jarraitzen duela.*
97. *Ibaiaren zaratak dariola.*
98. *Euskal Herriko ibarrak Españako urez bete dala.*
99. *Hitz urri batzuek eta ia berea ez duan Herri bat.*
100. *HORMA. Ezin duala kantatu Herriari laido eta bortxa egiten zaiola ikusita.*
101. *Ezinaren kaleak luzatzen dijoazela.*
102. *Gure nabigabeak noiz arte iraungo ote duan ez jakitearen desoseguz bizi gerala.*
103. *Gure nahiaren sutan erretzen dirala gure amesak.*
104. *Gure egoeraren larriak gure etsipena gizentzen duala.*
105. *Seme hil baten Ama.*
106. *Etsipen kolpeak.*
107. *Herriko bakardadearen horma.*
108. *Herrian ere pena.*
109. *Tristearen erretratu tristeaz.*
110. *Baina hemen ez dela inor antolagabetzen.*
111. *Dramari minez begira.*
112. *Euskeraz bakarrik ulertu diteken hitz gurutziltzatuz.*
113. *Horma hau igaro ta berpiztea ikustera deitzen gaitu.*
114. *ALEGIA. Bertsu ok ez dirala esku finak dituztenentzat.*
115. *Baina itxaropen eguna gaueko itxaropen dugula oraindik.*
116. *Heriotzaren susmoak zergatik larritzen ote duan.*
117. *Niniveren beldur dala dio Jonasek.*
118. *Hil ondoren poza dedila lurrean, opa ahal izatearen atsegina duala.*
119. *Gauzetatik Jaunganainoko zubi dela bere lur txikian.*
120. *Lurrai zor zaiola Jainkoari eskerrak.*

121. *Hilgo danean lurrago jarraituko duala lurrean.*
122. *Ixasoak ez dezaiola izkuta ilusioen amua.*
123. *Euskeraren arazoa arazo bat besterik ez duala Herriak.*
124. *Hil usaia uxatzeko txakolina eskatzen du. (***)*
125. *Txakolina herritar egarrien ardo dela.*
126. *Gora txakolina. (***)*

*Txakolin bondar hau*²⁴ (**)

*Euskal Herrian ardo /txartel guztietako*²⁵ (**)

Bai: Ikusten dut. Ala itsu nagoala uste al duzu?

- Letra etzanetan idatzitako lerroek testu mekanografiatuan agertzen eta inprentako testuan agertzen ez diren olerkiak adierazten dituzte. Mikel Lasak kenduta omen.
- Zenbakirik gabeko olerkiak, zenbakidun olerki guztiak bildu eta gero, testu mekanografiatuari gehituak izan ote zizaizkion?
- Olerki zerrenda horretan ez dira *Txakolinaren ospatzea*-ko olerki guztiak agertzen. *Txakolinaren ospakuntza* 1eko olerkiren batzuk ez baitira zerrenda horretan agertzen.
- (*) Izartxo bakarrez markaturiko olerkiak testu mekanografiatuan agertu eta inprentako testuan soilik partzialki erabilitako olerkiak dira.
- (**) Bi izartxoz markaturiko olerkiak, testu mekanografiatuan zenbakirik gabe agertu eta inprentako testuan osorik agertzen diren olerkiak dira.
- (***) Hiru izartxoz markaturiko olerkiak testu mekanografiatuan bi aldiz agertzen diren olerkiak dira: 124 eta 126 zenbakidunak eta *Txakolinaren ospatzea*-ren hirugarren zatian (ikus 13).

²⁴ Bi aldiz *Txakolinaren ospatzean*: sarreran eta amaieran.

²⁵ Bi aldiz *Txakolinaren ospatzean*: sarreran eta amaieran.

1.3. “Txakolinaren ospatzea”-ren eta “Txakolinaren ospakuntza 1” atalaren arteko erkaketa

TESTU MEKANOGRAFIATUA	INPRENTA TESTUA
TXAKOLINAREN OSPATZEA	TXAKOLINAREN OSPAKUNTZA 1
<p>LEHENENGO ZATIA</p> <p>(Giro-arazleak irakurtzeko)</p> <p>1. <u>Euskalerria eta txakolinaren arteko berdintza</u> A. Euskalerria Herri da B. <i>Baskondadas Espainian dago (8 lerro)</i></p> <p>2. <u>Txakolina ta Baskongadasetako ardoak</u> A. Txakolina ardo da B. Ardo onak ba ditugu: Capa Negra, Campanas... (5 lerro)</p> <p>Euskalerrriaren mikaztasunak</p> <p>BIGARREN ZATIA (Deiak eta erantzunak) (Deiemaileak egokitasun ageriak kendu egingo ditu)</p> <p>Heltzera heldu ez den... Herri griña. (Lehenengo zurruta eta itxant isil bat)</p> <p>-Herriak bildur dio heriotzari. (*)</p> <p>-Gu gara heriotzari bildur dion Herria. (*)²⁷</p> <p>Deia. Nahi ta ezina... ardoago da. <i>(Bigarren zurruta eta isil-unetxo bat)</i></p> <p>-Herriak bildur dio heriotzari. (*)</p> <p>-Gu gara heriotzari bildur dion Herria. (*)</p>	<p><i>Anjel Azkarate eta Isabel Garai adiskideei.</i></p> <p>ESZENARIO ETA OHARRAK (15. or.) LEHENENGO ZATIA Entzuteko belarririk duenak entzun beza. <i>(Giro-arazleak irakurtzeko)</i></p> <p>Euskal Herria ardo²⁶ Euskalerria eta txakolinaren arteko berdintza Euskalerria Herri da</p> <p>Txakolina ardo da</p> <p>Euskalerrriaren mikaztasunak</p> <p>BIGARREN ZATIA (Deiak eta erantzunak) <i>(Deiemaileak egokitasun ageriak kendu egingo ditu)</i></p> <p>Heltzera heldu ez den... Herri griña <i>(Lehenengo zurruta eta itxant isil bat) (19-21 or.)</i></p> <p><i>(Pentsamendu altu esanaz)</i></p> <p>DEIEMAILEAK: -Herriak bildur dio heriotzari. 1.2.3. GIZONAK: -Gu gara heriotzari bildur dion Herria. (21. or)</p> <p>Ogiemaileak? Nahi ta ezina... ardoago da. (21-22. or.) <i>(Bigarren zurruta eta isil-unetxo bat) 22. or.</i></p> <p><i>(Pentsamendua altu esanaz)</i></p> <p>DEIEMAILEAK: -Herriak , hil ez, baina bizi nahi du.. 1.2.3. GIZONAK: -Gu gara inoiz hil gabe bizi nahi duen Herria.(22. or.)</p>

²⁶ Olerki hori *Txakolinaren ospatzearen* zerrendan agertzen da, 126. olerkiaren ondoren eta zenbakirik gabe.

²⁷ Izartxoaz markaturiko bertso horiek testu mekanografiatuan zenbakirik gabe agertzen zen “Gizonak bildur dio” olerkitik ekarritakoak dira.

...

HIRUGARREN ZATIA (Asmoak eta berriketa)	HIRUGARREN ZATIA (Asmoak eta berriketa)
<p>126. Txakolin ondar hau ... gaituen gaitza. 124. Txakolin, etzazu... heldu ezinez egina.</p> <p>(Gora txakolin askatuta).</p>	<p>TOPA: Txakolin ondar hau / bizi gaituen gaitza. (23. or.) Txakolin, etzazu... heldu ezinez egina (24-26. or.)²⁸</p> <p>(Pentsamendua altu esanaz)</p> <p>DEIEMAILEAK: -Herriak betirako bizi nahi du... 1.2.3. GIZONAK: -Gu gara bizitzen bizi bizi nahi duen Herria.. (27. or.).</p>

- ‘Txakolinaren ospakuntza 1ean barneratutako aldaketak ez dira asko eta berorietaz erraz ohar daiteke irakurlea, zutabe bien artean dife-rentziei erreparatuz gero. Aldaketarik nabarmenenak hauexek ditugu: “Txakolinaren ospakuntza 1”eko eskeintza, eszenarioa eta oharrak, herri-kantak, soinu tresnak, pertsonaiak: Deiemaileak, Bat-Gizona, Bi-Gizona, Hiru Gizona, Guztiak, Pertsonaiok egin beharreko ekintzak (*Isil-unea* 25 eta 26. or.)... testu labur batzuen kenketa, testu gutxi batzuk lekuz aldatzea, baita testu aldaketa gutxi ere. Adierazgarriena *Gora txakolin askatua* kentzea, politikoki ez-zuzena ei baitzen.
- ‘Nork asmatu zuen “Txakolin ospakuntza 1” eta “Txakolin ospakuntza 2” izenburuak? M. Lasak, B. Gandiak edo Pello Zabaletak? Izenburu berri horiek asmatu bide zuten testu mekanografiatuko zati batzuk Pastoral modura bilakarazi nahi izan zituztenean. Testu bakar batean agertzekotan, ez da ikusten “Txakolinaren ospatzea” izenburu zaharra

²⁸ Testu mekanografiatutik inprentako testura, olerkariak olerki horren testuan aldake-taren batzuk sartu zituen: Testu mekanografiatuan: “Txisparekin. Ea txispa” / Txiparekin. Alaxe./ Inprentakoan: “Txispaz. Ea txispa. / Txipaz. Halaxe./ Testu mekanografiatuan (neke-modoekin... dijoan arte) kako artean. Inprentako testuan, kakorik gabe. Testu meka-nografiatuan: bertso berriekin. Inprentakoan: bertso berriz. Testu mekanografiatuan: erten dezan noizbaiten. Inprentakoan: erten dadin noizbaiten. Testu mekanografiatuan: mintzatu dadin noizbaiten. Inprentakoan: mintza dadin noizbaiten. Testu mekanografiatuan. Aitortu dezan aidean. Inprentakoan: Aitor dezan aidean

aldatzeko arrazoirik. Bai, haatik, ‘pieza’ bitan agertzea hobesten denean. Pieza bitan banatzea nori bururatu zitzaion? B. Gandiagari? Pello Zabaletari? Kolaboratzaileen artean lana nork burutu zuen lehenik: Lasak ala Zabaletak?

1.4. “Txakolinaren ospatzea”-ren eta “Txakolinaren ospakuntza 2” atalaren arteko erkaketa

TESTU MEKANOGRAFIATUA	INPRENTA TESTUA
TXAKOLINAREN OSPATZEA	TXAKOLINAREN OSPAKUNTZA 2
68. Hara: ... eta humore txarra.	<p><i>Pello M. et Jexux M. Zabaleta anaiei esker onez</i></p> <p>NORTZUK ETA NOLA (31. or.) TXAKOLIN-MAIXUA-k: Hara: ... eta humore txarra (33. or.) Bazen Xherria Xgizona (34- 39. or.)</p> <p style="text-align: center;">I</p> <p>Matsaren oropotik... Berriz bai,... Pentsateko garaia da (<i>ta isil-unea</i>) (40-42.. or.)</p> <p style="text-align: center;">II</p> <p>D.E.: Erregeren profetek / txakolin zahar zatarturik (43-44. or.)</p> <p>DENAK Hagaitik, / / eskaintzen diegu / euskal / .../ txakolin zahar zatarturik.²⁹ (44. or.)</p>
66. Erregeren profetek / txakolin zahar zatarturik.	<p>Mahasti gorrindutik / herritar egarrien. (45-46. or.)</p>
125. Mahasti gorrindutik... herritar egarrian.. (eta darrai) Txakolin hondar hau /aidean dudala,/ Herriko ardoari / nahi diot kantatu. / Mahastian goratzen dut / gorrinakin burrukan; / tolerako nahigabe / gorrien harrian; / upeleko ilunbe / hotz eta luzean / eta ontzi hontan / jadanik aidean, / jadanik txisparen / poza dizdizari / duen ordu hontan. / Gora txaoлина / ta demaidan poza / ta pozaren hitza / ta hitzaren bizitza / ta bizitzaren bitsa / dugun bizi-nahiezko / bizi gaitun gaitza.	<p>Mahasti gorrindutik / herritar egarrien. (45-46. or.)</p> <p>Garratz puntu larri bat dario, ukigarri, gure ardoari; nahi ta ezin herri diren lur hauetako abestiei iduri.. (46. or.)</p>

²⁹ Aurreko estrofaren errepetizinoa, aldaketa gutxirekin.

<p>70. Txakolina... Herri-griña.</p>	<p>Txakolina... herri.griña. (47. or.) <i>(Tinbalak topean)</i> ERANTZUNA <i>(Baterako isil-unea: oso laburra)</i></p>
<p>71. Baina... ardagoa da.</p>	<p>Baina... ardagoa da. (47-48. or.) <i>(Bigarren zurrutada)</i> Sakon pentsatzeko garaia da. Erabakiak hartzeko garaia da.(48. or.)</p>
<p>67. Mahats ondoak... / ... / lurrean, / narrasean. Baina... parralera. Jaso dezagun... idealen parralera. Euskalerrri.. parralera.</p>	<p>III Matsaren orpotik dator... beharko da ipini (49. or.) Mahats ondoak / ... / lurrean / bertanbehera. (49. or.) Baina... parralera. (50. or.) Jaso dezagun... eskolako parralera. (50. or.) Euskalerrri.. parralera. (50. or.) Matxaren orpotik dator... beharko da ipini (51. or.)</p>
<p>73. EZINA... / heldu ezinez egina. 72. Baina.../ ezartzen diote.</p>	<p>EZINA... / heldu ezinez egina. (51-52. or.) Baina.../ ezartzen diote. (52-53. or.)</p>
<p>69. Euskalerriko / mahasti zaleei bai.../ bada/ ere.</p>	<p>Txakolin, txakolin... beharko du ipini. (53. or.) Gaur <i>Urriaren hamalau</i> ... euri eta iturri. (53-54. orr.) BATERAKO KANTUA Nik zuri... beharko da ipini. (54. or.)</p>
<p>42. Bajuen deadarra... ez dijoa inora.</p>	<p>Euskalerriko / mahasti zaleei bai.../ bada/ ere. (54-56. or.) <i>(Tinbala) (Tinbala crescendo, fortissimora arte)</i> <i>(Tinbala kolpera ixildu) (Isil unea)</i> Bajuen diharra, / ez dihoa inora. (56-57. or.) Herri bat bizi dugu... beharko du ipini. (57-60. or.)</p>

- *Txakolinaren ospakuntza* 2an, testu mekanografiatuari egindako aldaketak asko dira. Aldaketa horietaz ohartzeko, aurreko kasuan bezala, zutabe bien arteko diferentzietz balia gaitetzke.
- Bilketaren irizpidea, testu mekanografiatuan ‘Txakolina’ren gaineko olerki solteak (ez guztiak, baina) biltzea ei da.
- Aldaketarik nabarmenenak hauexek ditugu: a) Pertsonaiak (BA-G, BI-G, HI-G, D.E...), b) herri kantuak, c) antzerki ekintzak: Tinbala, tinbalak topean, Isil uneak... eta abar), d) ospakizun 2rako, ‘*ex professo*’ egindako zati berriak (I, II, eta III). Hauetariko I: “Bazen Xherria Xgizona”... gutziz berria da.

1.5. HIRU GIZON BAKARKA-ren eta “Hiru gizonak bakarka” atalaren arteko erkaketa

TESTU MEKANOGRAFIATUA	INPRENTA TESTUA
HIRU GIZON BAKARKA	HIRU GIZONAK BAKARKA
Hiru bertsolarien borobilduta hitz-aspertu bat. off-abotsak dio zertaz ari diran..	OFF-ABOTSAK:
Nahi ta ezinaren... bakarka.	Nahi ta ezinaren... bakarka. (63. or.)
1. Zerbait dijoa sortzen... uberka ohierekin...	HIRU GIZONAK: Zerbait dihoa sortzen... <i>oikerizko uberkaz</i>
Herri bat dugu... Ez bi oinen gainean garaunak baleuko.	BI-GIZONAK: Herri bat dugu egin... Lehendabizi bala Gaitezen etxeko.
Gure herriak ba zitun... asterren larriaz.	BI-GIZONAK: Herriak bazitun... asterren larriak.
Euskaldun jaio nintzen...	HIRU-GIZONAK: Euskaldun jaio nintzen...
Evaren ume honek... / ... / ez zuen uste txarra / ministeriuan. ³⁰	HIRU-GIZONAK: Evaren ume honek... / ... / Kredoa erreztatzen / Bizi dxa infernuan.
Handikientzat berriz... / ... inungo	BI-GIZONAK: Gure handikientzat... / ... inungo
2 ³¹ . Loa zioten sartu,, Esnatu zaitetz, Herri... Zer pekatu ote du... Iturria ba doa...	
3. Bildur naiz erreKaren.. / ... ez dut...	BAT-GIZONAK: Bildur naiz erreKaren... / ... ez dut...
Mila tajuz han zeuden...	BAT-GIZONAK: Mila taxuz han zeuden...

³⁰ Kredoa erreztatzen /dago infernuan. Aldaketa hori eskuz dago sartuta testu mekano-grafiatuan.

³¹ Hamarreko txikian lau estrofa.

<p>Harri banintz ez nuke...</p> <p>4. Garai honen kontra nik...</p> <p>Plazan ezagutzen da... / ... ditezen.</p> <p>45³². Nik herriari zor diodala... utzi nahi diot bere kantuak</p> <p>Barrentzen naute nere lurrean... behartzeraino. alperrik begi hauen aurrera pilatu gandu ta laino behar dut jardun neure kantuan geroaz adoltzeraino.</p> <p>Oi arnasa haura bizitza batez.... Ezin ukatu dezaioket hau datorren gero goiari aurrerapenen barru argian bezate sustrai on hori kulturalak agur egiten dio arima bidariari gizaldi.mendez euskal arima dator direnen kantari.</p> <p>5³³. Doinu zahar baten inguruz dator... haien oihartzun-azi hedatuz Geroztik erne zitzaidan neri... gerra-boladak ez zidan erre nere Gernika sutuan izotzak arren gorritik dago ondoko giro nahastuan gogorra goa giroa-eta odol gehiagoz orduan</p> <p>6³⁴. Herri dut maite Maite dutelakotz</p> <p>7³⁵. Eta maite dur Herria Ikusten ditut neuregan Ta hala maite dut Herria Eta maite dut Herria Begiak malkoz begiratzen dut</p>	<p>BAT GIZONAK: Harri banintz ez nuke...</p> <p>BI-GIZONAK Garai honen kontra nik...</p> <p>BI-GIZONAK: Plazan ezagutzen da... / ... daitezen.</p> <p>HIRU-GIZONAK: Oi arnasa haura, bizitza batez..</p> <p>Nik herriari zor diodala... utzi nahi diot, dardara gisa...</p> <p>Barrentzen naute neure lurrean... behartzeraino. <i>Hartutakoa eramango dut</i> geroaz odoltzeraino.</p> <p>BAT-GIZONAK Doinu zahar baten inguruz dator... <i>Haien oihartzun eraginazalez</i> Geroztik erne ta hazi zitzaidan... gerrako garrak ez zuten erre <i>Gernika kixkaratuan</i> izotzak arren gordinik dago ondoko giro nahastuan gogorra goa giroa-eta gorriagoa orduan.</p> <p>HIRURAK: Iraun nahiaren pena larriak...</p>
--	---

³² Estrofaren ordena aldatu egiten da testu mekanografiatutik inprentako testura.

³³ Estrofaren ordena aldatu egiten da testu mekanografiatutik inprentako testura.

³⁴ Bi ahapaldiko poema

³⁵ Bost ahapaldiko poema

- Testu mekanografiatuari egindako kenketa, aldaketa eta gehikuntzen ondorioz, inprentako testuan nahasketa bat sortzen zaigu: Nortuzk dira “Hiru gizonak bakarka” horiek? zein erlazio dago inprentako izenburuko *Hiru gizon(en) bakarka* eta atal honetako “Hiru gizonak bakarka” horien artean? Badute elkarrekiko zerikusirik testu mekanografiatuko GIZON BAT, BESTE GIZON BAT eta HIRUGARREN GIZON BAT, inprentako BAT-GIZONA, BI-GIZONA eta HIRU-GIZONA horiekin? Inprentako testuaren anbiguotasuna *berariaz* bilatu zuen olerkariak zein antolatzaileak ala testu mekanografiatuari egindako kenketa eta aldaketen ondorio hutsa da?
- Nire ustez, a) atal honetako “Hiru gizonak” Bitoriano Gandiagaren heteronimoak dira (baita testu mekanografiatuko GIZON BAT, BESTE GIZON BAT eta HIRUGARREN GIZON BAT ere), eta b) Inprentako izenburuko hiru gizonen anonimotasunak (baita *Txakolinaren ospakuntza 1 eta 2*.ko BAT-GIZON, BI-GIZON eta HIRU-GIZONenak) joku interesgarri bati bidea zabaltzen dio: olerkariaren (eta irakurlearen) indibidualtasunarena eta euskaltzale guztien arteko kidesun edota berditasunarena, Bitoriano Gandiagak “euskal errealitatearen (kulturaren) aurreko “nahi eta ezina”ren inguruan laburbiltzen duena.

1.6. “Txakolinaren ospatzea”-ren eta “Alegiak eta beste” atalaren arteko erkaketa

TESTU MEKANOGRAFIATUA TXAKOLINAREN OSPATZEA	IMPRENTA TESTUA ALEGIAK ETA BESTE
<p>122. Euskal Herri</p> <p>84. Baina gu... / ... / geu gera, geu; / edo / heriotza.</p> <p>85. Kateatu zen txoria</p> <p>86. Baina katuak</p> <p>87. Baina txoriak sasian</p> <p>88. Kontuak eginda</p> <p>89. Esku bat dator sasira</p> <p>90. Sasiak entzun dezaten (<i>Hamar lerroko 5 ahapaldi</i>)</p> <p>14. 18, 9, 15 lerroko <i>hiru ahapaldi kenduta</i>; laugarrena: Euskaldunak dirurik</p> <p>17. Erregeren profetek / ez dute minik</p> <p>16. Ez dut nik</p> <p>42. Erregeren profetek / ohe zabala dute</p> <p>56. Handiaren arrazoiak</p> <p>28. Guk dakigun egia bat</p> <p>9. Kezkatzen bai nau</p> <p>98. Ibarrera</p> <p>51. Bladi Otero-ri</p> <p>52. Hor duzu kondaira.</p> <p>53. Niganaino zara heldu</p>	<p>Kaiolan jaio ziren...</p> <p>Euskal Herri,</p> <p>Hainbeste...</p> <p>Baina gu... / ... / geu gara, geu; / ala / inor ez..</p> <p>Kateatu zen txoria</p> <p>Baina katuak</p> <p>Baina txoriak sasian</p> <p>Kontuak eginda</p> <p>Esku bat dator sasira. + Sasian entzun (lehen 4 ahapaldi kenduta)</p> <p>Euskaldunak dirurik</p> <p>Erregeren profetek, ez dute minik</p> <p>Ez dut nik</p> <p>Erregeren profetek / ohe zabala dute</p> <p>Handiaren arrazoiak</p> <p>Baina gu / nahastaile omen gara</p> <p>Guk dakigun egia bat</p> <p>Kezkatzen bait nau</p> <p>Ibarrera,</p> <p>Bladi Otero-ri + Hor duzu + Niganaino...</p>

41. Baina / oraindik euskeraz 40. Itzaltzen dijoan 47. Motozerrak, rra, rra 46. Errezera goaz 123. Baina nik. 44. Ta diot:	Baina / oraindik euskaraz Itzaltzen dihoan Esperantzari leiho bat Motozerrak, rra, rra Errezera goaz. Baina nik Ta diot:
---	--

- Atal honetan, testu mekanografiatuan nahiko sakabanatuta agertzen ziren olerkiak bildu eta berrordenatu ditu(zte) antolatzaileak (antolatzaileek?).
- Azpimarratzekoa hauxe da: “Alegia” zen testu mekanografiatuan agertzen zen azken atal edo kapitulua (114-126 olerkiak). Testu mekanografiatuko atal horretatik soilik olerki (alegi) bi, 122a eta 123a, aukeratu ditu antolatzaileak, eta, halaz ere, titulua gorde egin du: “Alegiak eta beste” (73-110. or.).

1.7. “Txakolinaren ospatzea”-ren eta “Korupekoak” atalaren arteko erkaketa

TXAKOLINAREN OSPATZEA	KORUPEKOAK
EZINA	
74. Ez gara ohartzen 75. Halaxe: / latza da kateari 76. Gure aurreko frentea 77. Zenbat bider, oraindino 78. Iraunkortzat naukee, 79. Ikusten dotanak 80. Galduta nabil herriazko 81. Jauna: / zer gura dozu 82. Egiteko gogoa damostazu 83. Baina aurrera.	Ez gara ohartzen Halaxe: / latza da kateari Gure aurreko frentea Zenbat bider, oraindino Iraunkortzat naukee + Ikusten dotanak Galduta nabil herriazko Jauna: / zer gura dozu? + Egiteko gogoa... Baina aurrera.
IBAIA	
99. Hitz urri batzuk	Hitz urri batzuk
HORMA	
100. Kantar behar nuke, bai 101. Nire herriak bezala 102. Ez aingeruk eta ez arranok 103. Egon gaude. 104. Begira gaua... / ... aingeruen ixila. Baina ez zaio antzik ematen asko Jainko beraren erruki handiari ere.	Kanta behar nuke, bai, Nire herriak bezala Ez aingeruk eta ez arranok Egon gaude, Begira gaua... /... aingeruen isila.
ALEGIA	
115. Arratsaldea, kolore gorriz, 116. Zergatik / itotzen nauen larri hau, 117. Eguzkiz eta itxasoz	Arratsaldea, kolore gorriz, Zergatik / itotzen nauen larri hau, Eguzkiz eta itsasoz

1.8. “Txakolinaren ospatzea”-ren eta “Hamaseiharrieta” atalaren arteko erkaketa

TXAKOLINAREN OSPATZEA	HAMASEIHARRIETA
ARRAILAK	
38. OTEIZA-ri Begiek dakustenetik 39. Gatzinadi zen basoko	OTEIZA-ri Begiek dakustenetik Gatzainadi zen Basoco
IBAIA	
92. – Nik ez dut orain idazten 105. Beha aldean zirenak 106. Tiriki, tauki, tauki 107. Bakardadea ez da 108. Nun zegoen bakardadea 109. Triste atera da 110. Ikusi horma 111. Dena bukatu da 112. Hutsune nabarmen 113. Ikuste duzu	- Nik ez dut orain Tiriki, tauki, tauki, Beha aldean zirenak Bakardadea ez da Non zegoen nahigabea? Triste atera da Ikus horma. Dena bukatu da. Hutsune nabarmen bat Ikusten duzu Herriko
ALEGIA	
114. Esku finak badituzu	Esku finak badituzu

1.9. “Txakolinaren ospatzea”-ren eta “Artaso-ko Samuak” atalaren arteko erkaketa

TXAKOLINAREN OSPATZEA	ARTASO-KO SALMUAK
IBAIA	
93. Elgea mendiko 94. Artaso / lotan geldi 95. Gallautik behera 96. Menditik dator erreka 97. Errekak harkaitzetara	Lurrean / etzan zen (167. or.) Elgea mendiako Artaso / lotan geldi Gallautik behera Menditik dator erreka +. Errekak harkaitzetara
ALEGIA	
118. (Artaso-ko lenengo salmua) 119. (Artaso-ko bigarren salmua) 120. (Artaso-ko hirugarren salmua) 121. (Artaso-ko laugarren salmua)	(Artaso-ko lenengo salmua) (Artaso-ko bigarren salmua) (Artaso-ko hirugarren salmua) (Artaso-ko laugarren salmua) (Artaso-ko bosgarren salmua) (179.-182. or.) (Artaso-ko seigarren salmua) (183.-185. or.) (Artaso-ko zazpigarren salmua) (186.-187. or.) Lurra hartu dut esku barruan (188.-189. or.)

2. LAGUNTZAILE BIEN LEKUKOTASUNA

Bilbon, 2006ko azaroaren 20an.

Mikel Lasa

Pello Zabaleta

Lagunok,

Euskaltzaindia Jean Haritschelharren oroimenez prestatzen ari den liburu baterako idatzi dudan artikulua baten zirriborroa bidaltzen dizuet. Artikulu horretan Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* olerki liburuak esperimentatu zuen metamorfosiaz dihardut. Metamorfosi horretan zuok biok protagonismo handia izan zenuten.

Gustatuko litzaidake zuek zirriborro hori irakurtzea eta nire hipotesiari buruz zuen iritzia jasotzea, karta antzerako testu labur batean. Zuek nahi izanez gero, zuek idatzitako kartak nire artikuluekin batera argitara daitezke, eranskin modura. Dударik gabe karta horiek erreferentzia testu bihurtuko dira gai horretaz.

Hiru gizon bakarka liburuan zuek parte hartu izanaz gorde duzuen isiltasuna jakinda, ausardia iruditzen zait eskakizun hori. Baina gauza bik bultzatu naute eskakizun hori egitera: bata, eskatzen dizuedan testua oso laburra ahal izatea (zuek laburra izaterik nahi ez baduzue askoz hobeki), eta bestea, B. Gandiagari merezitako ordaina eskaintzea.

Dagizuen dagizuela, nire esker ona zuekin, euskaltzale zintzookin, berba egiteko (idatzi bada ere) izan dudana aukeragatik.

Agur bero bat.

Sebastian Gartzia Trujillo

Hona nire erantzuna. Ez nuen gogorik auzi honetaz hitz egiteko. Gandiagaren obra zinez errespetatzen eta kasik beneratzen dudalako. Puntualizazio zenbait dira, besterik ez.

Sebastian Gartzia Trujillo
Bilbo

Jaun agurgarria:

Ez nuen idatzi nahi. Ez baitut sekula kontatu zernolako harremana izan nuen Bitoriano Gandiagarekin. Lagundu niola, berak aitortzen duen zerbait da. Lagun ginela ere bai. Eta hartaz, ez nuen gogorik ezer kontatzeko haren HIRU GIZON BAKARKA liburuari buruz. Baina, bihoa nirea.

1. HIRU GIZON BAKARKA goitik beheraino Gandiagaren obra da. Goitik beheraino, eta lerroz-lerro. Eskua sartu banuen nik, eta ezer egin banuen, aukera berak eman zidalako egin nuen. Ez beza inork ahantzi nire aitorpen hau, hala da-eta. Eta inoiz inor hasiko balitz Gandiagaren poema arakutzen, ez beza ondoriotzat atera Pello Zabaletak hau edo beste egin zuela. Hara printzipioa emana! (Txakolinaren ospakizunetan lagundu nion nik batik-bat, beste atalen batean ukituren bat egin banion ere). Txakolinaren ospakizuna ospakizuna zen zinez, liturgia kasik (geroago datu gehiago).

2. Hona, orain, historia, nik gogoan dudanez (bestela ere izan zitekeen, hogeita hamabi urte igaro baitira argitaratu zenetik). Garai hartan ni Arantzazun bizi nintzen, fraile frantziskotar, teologia moraleko irakasle, eta ez dakit ez ote nintzen ARANTZAZU aldizkariko zuzendari ere. Ni behean bizi nintzen, komentuan; Gandiaga, berriz, goian, kolejoan, nahiz lotara komentura etorri. Egun batez, beraz, karpeta handi bat eskutan zuela etorri zitzaidan gelara. Eta argitu zidan, hura argitaratu egin nahi zuela, Mikel Lasari utzia ziola eta honek hainbat gauza zuzendu zizkiola (Mikel Lasa Friburgon, Suitzan, ezagutu nuen nik, unibertsitatean ikasketak egiten ari ginela). Karpeta niri ekartzetako, oker ez banago, ospatuak zituen Gandiagak Txakolinak bere lagunekin, behin baino gehiagotan, bai kolejoan, baita Plentxiko bere lagunekin ere.

3. HIRU GIZON BAKARKA tituluak berak eman zidan aukera pertsonaien izenak aldatzeko (berriro diot, Gandiagak bedeinkaturik, eta onartuz nik ematen nizkion argibideak). Argi dago *Pello Zintzo Bainabildurti*, *Jonas Norazoaz Nahitaezprofeta* eta *Joxe Tentatueta Garaitetako*a deskribatuegiak, zertuegiak geratzen zirela izenetik bertatik eta, nire iritzian bederen, kalitatea murrizten ziotela obrari. Gizon arrunta hobesten nuen nik, eta horretarako zenbakietara jo nuen: Bat-Gizona, Bi-Gizona, Hiru-gizona, hain zuzen ere gaurko gure gizartean izen-deiturak ez direlako beharrezkoak, eta aski delako zure nortasun agiriaren zenbakia, edo kalearen izena eta zenbakiak zurekin topo egiteko. Gizartean, alegia, zenbaki garena (nik gerora nire poemetako batean esaten dudanez). Ez genituen hartu zenbaki ordinalak (lehen, bigarren, hirugarren), zenbaki biluziak baino. Eta ondoren, zenbaki bakoitzari zer zegokion, hala partitu genituen zatiak ere Txakolinaren ospakizunetan. Partizioak nik eginak dira, Dei-emale etabar nireak diren bezala, eta tinbalaren zarata eta gainerako apaingarriak orobat. Era horretan, BAT-GIZONA nor den jakin nahi duenak, lasai irakur dezake BAT-GIZONARI dagokiona.

4. Nire gelan egiten genuen lan, eta nire idazteko makina erabiltzen genuen gauzak zehaztu ondoren, garbian jartzeko (ez pentsa egun bateko lana izan zenik, eta Gandiagaren Hiru Gizon Bakarka bakarrik erreparatu genuenik: beste norbaiten poesiak ere mahai hartatik pasatuak dira). Nire gelan lan egiten genuela esatean, esan nahi dut elkarrekin egiten genuela lan: nik hari zuzendu, hark niri zuzendu (pasadizo bat: euskaraz “bat” gehiegi erabili ohi dugu, eta nik mordoa kendu nizkion; hurrengo nire poesiak irakurri zitue-nean, berak ere zakukada kendu zidan).

5. “Harrigarria da –diozu- zenbat kostatzen zitzaion liburu batean argitaratzeko olerkiak aukeratu eta sailkatzea”. Harrigarri ez da. Gandiagaren ELORRI, Joxe Azurmendik antolatu zuen; HIRU GIZON BAKARKA, Mikel Lasak eta biok, nire anaia Josu Zabaletak ere ikusi bat eman zion, berak argitu didanez; UDA BATEZ MADRILEN, Joanmari Lekuonak; Joxe Azurmendiren HITZ BERDEAK, nire anaiak apailatu zuen, e.a. Garai hartan, nork daki, hori zatekeen biderik egokiena. Bagenuen, inolaz, liburua gizarterako den kontzientzia, eta liburua egile batek sinatzen badu ere, hobe dela askoren eskutatik pasatua izatea, guztien ekarriek osatzen eta hobetzen dutelako. Eta bestalde: Gandiagak erraztasun handia omen zuela olerkiak idazteko ere... nik dakidanez, nahikoa kostata idazten zuen sarri. Eta zuzendu, atertut gabe zuzentzen zuen. Areago, lehenbiziko poemak idatzi zitueanean, euskal hiztegirik eskura ez zuenez, bere baitan bildu ohi zen, harik eta behar zuen hitza aurkitu arte (hala aitortu zidan berak behin baino gehiagotan, eta grabaturik egon behar du horren lekukotzak Euskadi Irratiko artxibategian).

6. Hartaz, ez da harritzeko baldin liburuko poesia bat edo beste nik idatzia bada. Baina, bihoa berriro oharra: ez bedi inor hasi bila: hau Pellok egina da, hau Gandiagak: Gandiagarik gabe, nik ez nuen deus idatziko. Beraz, Pellorenik ez dago ezer liburu horretan. Sentiera eta hitzak eta joskera... dena da Gandiaga, Pellorik gabe (Oteitzak eragin handiagoa du liburuan, nire aldean).

7. Gerora, nik ere ospatu dut -ez Gandiagarekin, tamalez- Txakolinaren ospakuntza. Ezin uka baduela erlijio kutsurik. Are, badela erlijiozko. Eta geldialdietan, hitzen erritmoan, zurrutetan, komunio moduko bat sumatzen da. Horrela ulertu behar dira bi kantak ere: “Matsaren orpotik dator” eta “Txakolin, txakolin”. Ospakizunean atsedean hartzeko dira batetik; elkarteak, euskaldunak kantuan elkartzeko, bestetik; eta txakolinaren eragina areagotzeko hurrenik.

8. “Korupeko Salmoak”: atal honek badu bere historia Gandiagaren historian. Alegia, fraileek koruan brebiarioa gazteleraz errezatzen zuten bitartean, Bitoriano Gandiaga koru azpira joan ohi zela bere otoitzak egitera, eta euskaraz egitera, noski.

9. Artasoko Salmuekin gorabehera gehiago izan genituen: salmo bat falta zitzaigun Artaso paganotik Arantzazu kristaura igarotzeko, erdian dagoen amila gaindituz. Hark bat egin, nik onartu ez; nik beste bat egin, hark onartu ez... horrela ibili ginen puska batean, harik eta berak bostgarrena asmatu zuen arte. Orduan bakea! Ez baitzen Gandiaga berehala mantsotzen zen ireinduetakoa.

10. HIRU GIZON BAKARKA eta HIRU GIZONAK BAKARKA: alde handia dago bien artean. Hiru gizon horiek Euskalerraren historia eta kezkek kontatzen, nekaldi bat ospatzen eta bilbatzen bezala (ez ahantzi, Salvatore Mitxelena Arantzazuko frailea izan zela, eta haren iztala oso zabala zela gure garaian oraindik) ari dira elkarrekin, baina bakoitza bereari eutsiz.

HIRU GIZONAK BAKARKA ari direnean, bakoitza bere bakardadea osatuz ari dira.

11. Atalen izenei dagokienez, nire irudipenerako, Gandiagak eskuratu zizkidanerako jarriak zeuden. Ez dira nik ipiniak, beraz. Esan dudan bezala, nire hatzamarrak ospakizunetan nabarmentzen ditut gehienbat.

12. Liburua amaitu ondoren, argitaratu zen. Eta nik ez dut alerik izan, Joseba Etxeberria adiskide eta fraile frantziskotar zintzoak bere alea eman zidan arte. Lehen argitalpenekoa daukat soilik, eta ez daukat, hartaz, Joxe Azurmendik argitalpen berrirako egin zion epilogo, eta ezin juzka dezaket nire adiskideak esana (adiskide dut Joxe, eta hark esana ondo egongo da segurur).

13. Azken oharra: Nik egina gaingiroki azaldu dut, gehiegizko zehaztasunik gabe, Hiru gizon bakarka Gandiagaren obra delako, guztiz berea, berak sortua eta mamitua. Beraz, mekanografiatutik argitaratura, ez dago liburu berririk: berbera da, zuzenketak zuzenketa. Eta egilea, egile bakarra, Bitoriano Gandiaga, Orbelaungo semea da. Nik idatzi edo gaineratu nuen Gandiagarena osatzeko idatzi nuen, hark baimena emanik ezezik eskakizuna ere eginik. Berririo diot, halere: eskertzekoa dela, atzo bezala gaur ere, zure lana aztertu eta zuzenduko dizun lagunik alboan izatea. Urguilu handiz esan dezaket, harrokeriarik gabe ordea, ni tokatu nintzela Bitoriano Gandiagaren lagun aukera horretan, ez haren ordeko.

Pello Zabaleta
Cajar (Granada)

Mikel Lasa
i.ansorena k/ z^a 1.esk.1 b-b
20018 Donostia

2006ko abenduak 21.

Adiskidea:

Nik ez nekien Gandiagak 1968ko Lekeitioko lehiaketara aurkeztu zuen bere poema sorta delakoa. Hori jakinda orain oso ondo ulertzen dut zure azterketaren nondik norakoa eta interesa. Hare gehiago harrigarria egiten zait zein ondo asmatu duzun poema multzoak jasandako (zuk egoki diozunez) metamorfosian aurkitutako bidekurutze bakoitzean egin izan behar dituzun aukerak. Azterketa guzia oso argi emana dago, hainbeste zein orain arte ez bainintzan jausi zer nolako balio erantsia artu zuen poema pilaketa hark egilea eta bi laguntzaileon bakanketa eta birmoldaketari esker.

Telefonoz esanda bezala, soilketa itsu itsuan egin nuen aizkolariak ezpala ebakitzean duen begikolpe doi eta kupidagabez. Txakolinaren ospakuntza

1 eta 2 salbu, gainontzeko atalak nik moldatu nituen eta izendatu Gandiagarekin batean.

Hori esan ondoren, aitortzen dut nire erakarpenaren balioaz edo ezbalioaz ez naizela konziente izan eta egiletasuna Gandiagari dagokiola ezpairik gabe. Nik ez nuke nahi inoren ahotik entzun behar izatea Shakespearri arerio batek bota zion hura: “an upstart crow beautified with our feathers that with his tiger’s hart wrapped in a player’s hide”.

Bukatzeko, zure azterketa bere horretan eman behar duzu oso ondo baitago.

Zorionak lanagatik eta berriari begira. Besarkada batez

Mikel

EUSKAL NEURRI SINTAGMEN AZTERKETA BATERAKO: ZENBAT X, ZENBAT X-AGO, ZENBAT X *GEHIAGO* ...

Patxi GOENAGA

Lan honetan zenbatzaileez eta zenbatzaileok agertzen diren zenbait egituraren azterketa egin nahi da. Batetik, izen sintagmaren barnean ager daitezkeen neurri sintagmak aztertuko dira eta hauek dituzten ezaugarriak, kokaguneak eta debekuak.

Bestalde, neurri sintagma hauen antzekoak adjektiboen inguruan ere agertzen dira, konparatiboetan bereziki. Hauetan ‘koska’ bat gertatzen da eta hau da neurri sintagmek neurtzen dutena. Esamolde hauen sintaxiaren azterketara hurbiltzea da lan honen helburua.


1. ZENBATZAILEAK IZEN SINTAGMAN

Abney-k (1987) bere proposamena luzatu zuenetik, hizkuntzalaritzan erabat onartutzat ematen da ohiko izen sintagmak, egiatan, ez direla izen sintagma, alegia ez direla izenaren islapen, determinatzailearen islapen baizik, eta, horrenbestez, determinatzaile sintagma. Bestalde, artikulua gainera zenbatzaileei ere leku egitearren, DS-ren eta IS-ren artean beste islapen batzuk badi-rela onartzen da, bereziki Zenbatzaile sintagma dei genezakeena. Honen ardatza zenbatzailea izango litzateke. Dirlako zenbatzaile sintagma hauek zenbatzaile soilaz osatuak egon daitezke (numeral, esaterako), edo sintagma konplexuagoak osa ditzakete (neurri sintagmak deitzen ditugunak, adibidez). Gainera, batzuek izen sintagmaren ezker aldean agertu behar dute eta beste batzuek izenaren eskuinaldean:

- (1) a. [_{DS} [_{ZenbS} BOST] gizon (-ak)] / [_{DS} [_{ZenbS} BOST KILO] irin]
 b. [_{DS} Gizon [_{ZenbS} BAT]] / [_{DS} Irin [_{ZenbS} PIXKA BAT]]

Euskararen kasuan, Artiagoitiak (2004) aldarrikatzen du euskaraz ere IS-ren eta DS-ren artean badela delako Zenbatzaile sintagma hori. ZenbS horren kokagune desberdinaren berri emateko, berriz, ezkerraldean agertzen direnak ZenbS-ren espezifikatzaile gunean sortzen direla dio. “Sintagma itxura” omen dutenak (*honenbeste, hainbat, bost litro, kolkoa bete ...* modukoak) dira ezker-ralde horretan agertzen zaizkigunak. Numeralak ere, *bat* eta *bi* (hau aukeran) izan ezik, ezkerrean ematen ditugu. (2)ko sintagmen egitura (3)koaren antzekoa izango da:

- (2) {Honenbeste / hiru / hiru litro} ardo
 (3)



Artiagoitiak (2004: 33) zenbatzaileak ezkerrean agertzeko arrazoitzat zenbatzaile horiek duten “sintagma itxura” ematen du. Arazoa, hala ere, numeralak sortzen dute, hauek, BAT eta BI salbu, sintagma itxurarik izan ez arren, kokagune horixe baitute. Hala ere, lan berriago batean (Artiagoitia 2006: 120), aurrekoan aipatzen ez den beste arrazoibide bat zabaltzen du, nire ustez, oso itxura ona duena. Honela dio: “zenbatzaile edo numeral gehienek (*bi, hiru, lau ...*) sintagma-itxurarik ez duten arren, ez da ahaztu behar batzuek euren baitan juntadura edo egitura luze samarrak onartzen dituztela (sintagmak balira legez) eta guztiak (...) banaketa osagarrian daudela neurri-sintagmekin.” Egituraren luze-laburrak ez dut uste ezer adierazten duenik, baina sintagma izateak, eta maila batean behintzat taxu bereko sintagma izateak, bai. Eta ez da bakarrik maiz juntadura bidezko osaera izaten dutela direlako numeral horiek (*hogeita bat <hogeita eta bat*). Hori baino garrantzizkoago den zerbait bada hor eta da, behin zenbaki batetik gora, juntadura ez ezik, neurri-

sintagmen tankera bete-betea hartzen dutela numeralek berek ere: *hirurogei* <*hirur hoge*i; *hiru mila*; *hiru milioi* eta holakoek *hiru litro*, *hiru dozena*, *hiru pare*, *hiru botila* eta abarren pare-parekoak ditugu. Ez da numeral hauek 'sintagma balira legez' jokatzin dutela, baizik egiazki sintagmak direla, neurri sintagmak. Beste hizkuntza batzuetan ere, gaztelaniaz esaterako, zenbaki altuak agertzen diren egiturek ('tres millones', esaterako) neurri sintagmak dira: *tres millones de estudiantes* (cf. *tres autobuses de estudiantes*). Gauzak horrela, numeral 'txikiak' ere, behar bada, numeral konplexuen gisa berean azter litezke: *hoge*i artekoetan banakoak adieraziko lirateke (*hiru* = *hiru 'banako'*) eta hortik gorakoetan bestelako unitateak (*hirurogei* = '*hiru hogeiko*'; *hirurehun* = '*hiru ehuneko*' eta abar). Honek erakusten duena da bai numeralak, bai neurri sintagmak, funtsean, kategoria berekoak direla.

Arrazoiak gorabehera, zalantzarik ez da zenbatzaile gehienak, neurri sintagma deituak barne, ezkerraldean agertzen zaizkigula. Zenbatzailetzat hartzen ditugun zenbait eskuinean agertzearen arrazoiak, beren adjektibo izaera izan liteke (*asko*, *gutxi*, *dezente*, *ugari* ...). *Bat*, berriz, determinatzailetzat ere har liteke. *Bi*-k ere, behar bada, antzeko izaera luke.

Izen zenbakarriak (*gizon*, *etxe*, *liburu*, *egun*, *litro*, *urte*, ...) zuzenean zenbatzaile numeral baten bidez zenbatu daitezke: *bi gizon*, *hamar etxe*, *laurogei urte*... Edo zenbatzaile zehaztu gabeen bidez: *gizon asko*, *etxe ugari* ...

Izen zenbakaitzen zenbatasuna ere adieraz daiteke, baina orduan, multzoko aleak zenbat diren esan beharrean, gaiaren edo masaren neurria adierazten dugu. Horretarako, alde batetik 'neurri sintagma' deitzen ditugunak izango dira (*bi litro*, *hamar zentimetro*, *bost eskukada* ...). Dirudienez, euskaraz, neurri sintagma horiek edo antzekoek eskuinaldeko egongunea ere har dezakete. Zenbatzaile partitiboek (*erdi*, *heren*, *laurden* ...) eta biderkatzaileek ere (*doble*, esaterako) jokabide horixe dute. Hauek izenaren eskuin aldean kokatzen dira.

Kokagune desberdinok aztertuko ditugu eta hurrenkera bataren eta bestearen zilegitasunaz eta bataren eta bestearen arteko desberdintasunez argi pixka bat egiten saiatuko gara. *Bi metro*, *hamar dozena*... modukoak batetik; *erdi*, *laurden*, *pixka bat*, *pila bat* ..., bestetik, eta *pare bat*, *makina bat* bezalakoak ere bai. Adjektibo sintagmetan ager daitezkeen neurri sintagmez, bigarren partean jardungo dugu.

1.1. Neurri sintagmak ezkerrean

Euskaraz zenbatzaile moduko determinatzaile gehienak izenaren ezkerrean kokatzen dira. Errepara diezaiegun honako adibide hauei:

- (4) a. Bost litro olio
- b. Hamar botila ardo
- c. Bi gramo azukre
- d. Hiru dozena arrautza

Sintagma hauek sintagma kuantifikatuak dira. Sintagmaren ezker aldean kokatzen da neurri sintagma, espezifikatzaile gunean, Artiagoitiaren arabera. Beste zenbait neurri sintagma, berriz, eskuinaldean ikusiko ditugu. Hauek, behar bada, izen elkartu modura edo analiza daitezke, baina, zenbaitetan behintzat, (4)koen ordain ere izan daitezke:

- (5) a. Bost [ardo botila]
- b. Bi [poxpolo kaxa]
- c. [Azukre eskukada] bat
- d. [Arrautza dozena batek] hiru ogerleko balio zuen.
(J. Sarrionaindia, *Kolosala izango da*, 97)¹

Erdibidean egongo lirateke, berriz, honako hauek:

- (6) a. Baso ardoa
- b. Dozena porrua

Azken itzuli hauek badituzte debekuak: beti mugatuak dira, esaterako. Bide aski mugatua eskaintzen dute, nolana ere.

Har ditzagun kontuan (4)ko esamoldeak. Honako hitz hurrenkera aurkitzen dugu:

- (7) [Numerala + I₁ + I₂] (Hamar dozena arrautza, bi litro ardo ...)

Holakoetan zenbatzaileak numeral kardinala edo banakaria izan behar du:

- (8) a. {Bi / bina} kopa xanpain edan gen(it)uen.
- b. *Botila {batzuk / asko} txanpain edan genituen.

Zatikiz osatutako sintagma ere zilegi dira, beti ere zenbateko zehatza adierazten duten neurrian:

- (9) Litro erdi (bat) olio behar da horretarako.

¹ Baina "saldutako lehen [arrautza dozenaren] diruarekin" ere aurkitzen dugu (*Berria* 2004-02-03)

Baina zenbatzaileari berari dagozkion debekuez gainera, badira I₁-i eta I₂-ri dagozkionak ere. Lehenbiziko izenak neurria adierazten duena izan behar du (*litro, metro, kilo* ...) edo neurritzat har daitekeena (*baso, botila, eskukada, autobuskada* ...). Stavrouren (2003: 333) arabera, egitura hauetan I₁ gisa ager daitezkeen izenak mota jakin batzuetakoak dira: a) izen kardinal bat izan daiteke (*dozena, ziento* modukoak); b) zenbatzaile tankerakoak (*pare* ...); c) edukiontzi adierakoak (*botila, kaxa, kopa*, ...) nahiz ‘multzo’ baliokoak (*pila, mordo, sorta* ...); d) neurria adierazten duten banakoak (*kilo, litro* ...) eta e) partitiboak (*pittin, xerra* ...). Euskaraz, sintaxiaren ikuspegitik, zerrenda horretan bi klasetako elementuak ditugu. Batzuk izen nagusiaren ezkerretara kokatzen dira. Bereziki zenbatasun adiera garbiena dutenak (*dozena, botila* eta *litro* saillekoak) dira hauek. *Makina bat* esamoldea ere ezkerzalea dugu. Ez dakit garbi zergatik. *Pare*-k bitara jokutzen du eta agian beste bakarren batek ere bai. Gainerako guztiek, izenaren eskuinaldea dute maite.

Bestalde, bi izenen artean hautapen erlazioa dago: neurri-banakotzat LITRO hautatuz gero, I₂ klase batekoa izango da (*ardo, ur, kafe* ...) baina ez beste batekoa (*sagar, liburu* ..., adibidez). Azken batean, zenbatzaileen eta izenaren artean dagoen hautapen erlazioaz gainera (*bost liburu, *bost ur*), neurri sintagmaren eta izen nagusiaren artean ere bada hautapen semantikoa.

Bigarren izenak, bestalde, zenbakaitza izan behar du. Zenbakarria ere izan daiteke, baina, orduan, masa izentzat hartzen da, neurri sintagma honek laguntzen dionean. Baina, izen nagusia zenbakaitz gisa ulertzen bada ere, aditzak sintagma osoa pluraltzat hartzen du:

- (10) a. Sagardo {ugari / asko / dezente ...} edan genuen / *genituen.
b. Bi botila sagardo edan {ditugu / ?dugu}²

Hemen galdera asko egin daitezke. Bat, ea zergatik numeralak edo zenbatzaile zehatzak bakarrik ager daitezkeen egitura hauetan. Alegia, zergatik diren okerrak (11a eta b):

- (11) a. *Bi botila {-ak / hauek} sagardo edan genituen.
b. *Botila {ugari / asko / dezente ...} sagardo edan genituen.

Neurri sintagma hauek DS-ak barik ZenbS-ak badira, kuantifikatzaile soilen pareko lirakeke: [*botila {ugari / asko / dezente}*] modukoak DS lirakeke,

² Hegoaldeko euskaldun gehienok *bi botila sagardo edan DITUGU* esaten dugu, *bi liburu erosi DITUGU* esaten dugun bezalaxe.

Intuizioz ere, ikusten ahal dugu *baso bat* osagai dela eta ez *baso ardo*. (6)ko itzulien kasua besterik litzateke.

Euskaraz, gainera, bada orain arte aipatu ez dugun beste neurri sintagma bat ere, genitiboan ematen duguna:

- (13) a. Ipin ieza(zki)dazu [_{DS} berrogei euro gasolio]
 b. Ipin iezadazu [_{DS} berrogei euroren gasolio]

(13a)ko neurri sintagmak ohiko taxua du (*berrogei euro gasolio/berrogei litro gasolio*). Biek ere *zenbat gasolio?* galderari erantzuten diote. Neurritzat, kasu honetan prezio-banako bat hartu dugu, *euroa*, alegia. Baina (13a)k badu parean guztiz baliokide den (13b). Hemen [berrogei euroren] osagai dela ez da inolako dudarik. Beraz, pentsatzekoa da (13a)ko [berrogei euro] ere hala dela.

Osagai-analisi honen alde etorriko litzateke sintagma hauek adjektiboekiko duten jokabidea:

- (14) a. baso handi bat ur ≠ b. *baso bat ur handi
 (15) a. *baso bero bat ur ≠ b. baso bat ur bero

Adjektiboak bi lekutan ager daitezke, (14-15)en arabera. Baina eskuin muturrean doanean, bigarren izenari buruzkoa izan behar du. Horregatik, (15b) zuzena den bezala, (14b) okerra gertatzen da: ur beroaz hitz egiteak badu zentzua, baina ur handiaz hitz egiteak, testuinguru honetan, ez. Aldiz, lehenbiziko izenari buruzkoa bada adjektiboa (14a eta 15a), *baso handi* zuzena da, baina *baso bero*, testuinguru honetan, ezina da. Jakina, basoa handia izan daitekeen bezala, beroa ere izan daiteke, baina egitura hauetan, BASO ez da edalontzi materiala, neurri bat baizik, BASOKADA esaten dugunean bezala. Horregatik, neurri horren *handiaz* hitz egiteak badu zentzua baina, **baso(kada) bero* batez aritzeak ez du zentzurik. Kontua da, ezkerrean diren neurri sintagma hauetan ageri den izena neurri-izena izan ohi dela. Eskuinaldean doazenean, beste kontu bat da.

1.2. Izenaren eskuinaldean kokatzen diren zenbatzaile sintagmak

Eskuinaldean agertzen diren zenbatzaile soilez gainera (*bat, bi, asko, gutxi, batzuk, ugari, dezente ...*) izen elkartu tankera hartzen duten zenbata-sunezko egiturak ere sortzen dira euskaraz.

Gure gramatiketan maiz samar aipatu dira holakoan artean dauden diferentziak. EGLU-I-en (183. orr.) “sarritan ez dira zuzen erabiltzen” esaten zaigu. Eta aurreraxeago: “Horrela, bada, baztertu behar genituzke, “porru dozena bat”, “arraultze dozena bat” eta antzekoak ...” (185. orr.)

Zuzentasunari buruzko iritziak gorabehera, ezin uka zenbatasuna adierazteko beste modu bat dela. Hain zuzen, goiko (7) hurrenkeraren ordeztan, beste honako hauek ere zilegi dira, zenbaitetan behintzat:

- (16) a. [(Numerala) + I₂ + I₁] (Hamar ardo botila, bi txokolatin kaxa ...)
 b. [I₂ + I₁ + Det] (Pastel erdia, pastelaren erdia, pastelen erdia(k))

Botila, kaxa izen ‘lexikotzat’ hartuta, (16a)ko perpausek ez dute inolako akatsik. Kontua da ea izen horiek erdi-lexikotzat ere har ote ditzakegun. Alegia, ea bi modutara interpreta ote daitezkeen. Ezkerraldean doazenean, argi dago interpretazio bakarra ‘neurria’ dela. Baina eskuinaldean doazenean, ‘edukiontzi’ interpretazioaz gainera ‘neurri’ interpretazioa ere izan ote dezake? Neurri interpretazio hau ezinbestekoa da, *pixka bat, pila bat* modukoe-kin, baina baita *erdi, laurden* eta gainerako zatikiekin ere. Aldiz, gramatikarien iritzi zuzenak ez diren beste egiturez ere galde egin behar genuke. Adibidez, *baso, botila, eskukada* eta abarrek izen elkartu modura ematen ditugunean horixe gertatzen da. *Baso ura/baso bat ur* izan daiteke hotza, beroa, eta hola, baina ez *kristalezkoa edo *gorria, adibidez. *Ur basoa* edo *xanpain kopa*, bai, hauek izan daitezke Bohemiako kristalez eginak, hauts daitezke ... Kasu honetan *baso*-k edo *kopa*-k neurri izen izateari utzi eta bere balio lexiko osoa hartzen du, edukiontzi bezala interpretatzen da.

Esamolde hauen zilegitasunaz gramatiketan esan izan dena gorabehera, bi modutara uler daitezke, zenbaitetan behintzat. *Xanpain kopa garbi bat* eta *xanpain kopa goxo bat* sintagmetan *kopa* izena modu desberdinean ulertzen dugu. Batean ‘edukiontzi’ gisa, bestean neurri sintagma edo (sasi)partitibo gisa.

Edukiontzi gisako interpretazio bikoitz hau ez da gertatzen ‘neurritasuna’ berezkoa duten izenekin, *litro, metro, kilo* eta holakoekin. Hauek, beste determinazioen bat ezarri nahi ez bada behintzat,⁴ ez dira izen nagusiaren eskuinaldean kokatzen.

⁴ Perpaus erlatibo baten ondoren eman nahi ditugunean, adibidez, horretarako ezintasuna ez bada, zailtasuna behintzat sortzen da. Nolanahi ere, egiazko neurri diren izenekin zailago gertatzen da holakoak osatzea. Honako bi adibide hauek, esaterako, maila desberdina dutela esango nuke:

a. ??Egunero edaten dituen hiru ur litroak kalterako dira.
 b. Egunero edaten dituen hiru ur baso horiek kalterako dira.

1.2.1. *Pare bat, pila bat, pixka bat ... bezalakoak*

Hauek ere zenbatasuna adierazteko baliabideak dira, osaera guztiz garde-na dutenak: [[₁ pare/pixka/pila/mordo] [_{num} bat].

Hauen ohiko kokagunea, sintagma itxura izan arren, izen nagusiaren eskuina da:

- (17) Diru pixka bat / idi pare bat / galtza pare / harri pila bat ...

Hitz elkartu itxura guztia dute. Hala ere, neurri sintagmen interpretazio bera izan dezakete. *Harri pila*, esaterako, bi modutara interpreta liteke: batean *zenbat harri?* galderari erantzungo lioke. *Pila bat*, orduan, neurri sintagma izango da. Baina izan liteke ere harriz egindako pila bat. Hori da, adibidez, nagusitzen den interpretazioa zenbait adjektibo tartean denean:

- (18) a. Harri pila handi bat (≠ Harri handi pila bat)
b. Bertso pila polita (a. bertso politez osatua; b. pila polita)

(18a)n *harri-pila* batez ari garela ematen du eta *pila* hori handia dela. Beste batzuetan, aldiz, adjektiboa ez dagokio neurri izenari (*pila, pare, mordo ...*) baizik izen nagusiari.

– Hauetako zenbait, bestalde, izenaren ezker aldean ere koka daitezke beste neurri sintagmak bezala. *Pare bat* dugu arruntena. Ezker aldean kokatzeko joera bizkaieraz nabarmentzen omen da, OEH-ren arabera. Hala ere, batzuetan hurrenkera desberdinak adiera desberdina dakar. *Pare bat*, ‘bi’ izan daiteke edo ez. Bi atal berdinez osatuak edo diren izen pluraletan erabiltzen dugunean, adibidez, (*galtza pare, betaurreko pare, idi pare*, eta abar) benetako izen elkartuak ditugu eta, horrenbestez, [izena + pare] modura eman beharrekoak gertatzen dira. Adibidez, *bost betaurreko pare, bost idi pare*, ez dira, besterik gabe, ‘hamar betaurreko’ edo ‘hamar idi’, ‘bost betaurreko-pare’ edo ‘bost idi-pare’ baizik. Izenak denotatzen duena berez pareka ez doanean, orduan, aski arrunta da zenbatzaile sintagma modura ematea, izenaren ezker aldean. (19a) bezain arrunta gertatzen da (19b):

- (19) a. [masaje- igurtzialdi pare bat] hartu eta segi lanean.
b. Pare bat harri ditut. (*Berria*, 2004-04-15)

Egitura desberdinak ditugula pentsa liteke. Izan ere, *zapata pare, idi pare, galtza pare, betaurreko pare...*, eta abarretan, izen elkartuak eman beharrean, *pare bat* ezkerrean ezartzen badugu, izen elkarketa hausteaz gainera, neurri sintagma bihurtua gelditzen da. Alegia, *zapata pare* gauza bat da eta *pare bat zapata* beste bat. Lexikalizaziorik ez denean, alegia pareka eman ohi ez diren izenekin ari garenean, ez dago inolako alderik hurrenkera bataren eta bestea- ren artean. *Pare bat harri* eta *harri pare bat* berdin-berdinak direla dirudi.

Hala ere, izenaren ezker aldean dagoenean sintagmaren zenbatasuna agerriago gelditzen dela esango nuke eta, horregatik, aditz komunztadura ere pluralean egiteko joera nabarmena dute zenbait hiztunek:

- (20) a. Pare bat zapata ikusi NITUEN vs. Zapata pare bat ikusi NUEN.
 b. Pare bat harri bota NIZKION vs. Harri pare bat bota NION.

Egitura desberdina izan behar, hortaz:

- (21) a. [_{DS} [_{QS} [_{ZenbS} pare bat] [_{QS} [_{IS} zapata] [_Q Ø] [_D Ø]]]
 b. [_{DS} [_{QS} [_{IS} zapata pare] [_{Zenb} bat]]]

– PILA BAT-ek ohiko lekua izenaren eskuinaldea du, baina ezkererako joera hartzen ari dela dirudi, gaurko ahozko euskararen behintzat. Hona hemen luma beretik sortutako bi esamolde eta bi esateko modu:

- (22) a. Baina belar pila bat dago zelai horretan!, protesta egin zuen haurrak. Belarra besterik ez dago. (K. Santisteban, *Ipuin kontalaria*, 8)
 b. Bai! Arraultze ustelak, kaleko borroak eta pila bat buru apurtu egongo da! oihu egin zuen Erikek. (K. Santisteban, *Ipuin kontalaria*, 40)

– MAKINA BAT ere sail honetakoa dugu, baina alderantziz, hau beti izenaren ezker aldean kokatzen da:⁵

- (23) makina bat atal-zatiz adobaurik dagozan soñekoak (Añibarro, *Lora sorta espiritual*, 98)

– Beste guztiak, izenaren eskuin aldean kokatzen dute:

- (24) a. Eskolak galdera berri mordoa dauka (K. Izagirre, *Sua nahi, Mr. Churchill?*, 8)
 b. *Mordo bat galdera berri

Horrenbestez, ikusten dugu zenbatasun ideiatik zenbat eta hurbilago dagoen izen baten esanahia (*dozena, ziento, pare* ...) hainbat errazago izenaren ezker aldean kokatzea neurri sintagma modura. Zenbatzaileen joera da hori, nonbait. Aitzitik, kardinaltasun garbia ez dutenek eskuinaldea dute atsegin. Ondoren hizpide izango ditugun kasuan bezala.

⁵ Ordea, salbuespen gisa edo, alderantzizko hurrenkera ere ematen digu Juan Mateo Zabalak:

(i) ilten eben gizon makina bat (Zavala, *Alegiak*, 534)

Hala ere, rimak eskaturik dator, behar bad, hemen hurrenkera hori.

1.2.2. *Erdi, laurden, heren ...* zatikien jokabidea

Erdi, laurden, heren, hamarren eta holakoak partitiboak direla esan ohi da gramatketan. Hauek ere, izen kategoriakoak dira eta osatzen dituzten egiturak, oraingoan ere, izen elkartutzat har litezke (*pastel erdi(a), ordu laurden(a) ...*) edo izen sintagmaren ardatzean aurki daiteke (*liburuaren erdia, ikasleen erdiak ...*). Elementu hauen izentasunaz ohartzeko aski da pentsatzea zenbatu daitezkeela eta, era mugatuan bada ere, kalifikatu ere bai:

(25) {pastel erdi bat / pastel erdi asko / (pastel) erdi desberdinak / ...} egin dituzu.

a) ERDI-ri buruz, Lafittek (1945: 80) ezartzen duen oharra esanguratsua da: “Si la partie est prise sur un tout unique, le mot fractionnaire se met au singulier (...) Si la partie est prise sur un tout multiple, le mot fractionnaire se met au pluriel”.

EGLU 1-en ere (200-201 orr.) *liburuaren erdia* eta *liburuen erdiak* bereizten dira. “Bigarren adibide honetan, liburu multzo batetik, multzo honen erdia edo irakurri duela adierazi nahi da. (...) Hala ere, ‘liburu erdiak irakurri zituen’ baldin badiogu, beste zerbait adierazi nahi dela dirudi: liburuak erdizka irakurri zituela, liburu bakoitzaren erdiraino baizik ez zela iritsi”.

Hemen bi kontu ditugu: batetik, *erdia* (sing.) vs. *erdiak* (plur.) arazoa eta, bestetik, genitiboaren agerpenari dagokiona.

– Izena zenbakaitza bada, ez dago arazo handirik, singularrean eta artikuluz horniturik joan behar du ERDI-k:

(26) a. Azukrearen erdia/ *azukre erdi nahikoa zenuen.

Eta zenbakarria izanik, banako baten erdiaz ari bagara, orduan *erdia* nahiz *erdi* soila ere bai:

(27) {Sagarraren erdia / sagar erdia / sagar erdi} nahikoa zenuen.

Bestalde *erdi*-ren ezkerrean kokatzen den osagaiak genitiboan agertu behar du baldin eta izen hori zenbakaitza bada: hori da (26a)k erakusten diguna. {*Ardoaren, olioaren, mahatsaren ...*} *erdia* zilegi den bezala, ? *ardo erdia, olio erdia, mahats erdia* zalantzarriak behintzat badira. Pentsa dezagun zer gertatzen den *ogi* bezalako izen batekin. Hau zenbakarri nahiz zenbakaitz gisa interpreta daiteke:

(28) Ogiaren erdia sobratu da.

(28) bitara uler daiteke: a) *ogi erdia* sobratu da, ez *ogi osoa*; edo b) *neukan ogi guztiaren erdia* sobratu zait).

Ostera, honako honek interpretazio bakarra du:

(29) Ogi erdia sobratu zaigu.

Goiko (28)ri eman diogun lehenbiziko interpretazio bera izango luke, ez genuke ulertuko ogi kopuru baten erdia sobratu denik.

Hortaz:

- (30) a. [genitiboa + ERDIA] : ogiaren erdia (ogi: [± zenb] izan daiteke)
 b. [[izen₁ + ERDI] + -A] : ogi erdia (ogi: [+ zenb])
 c. [izen₁ + ERDI] : ogi erdi (ogi: [+ zenb])

– Izena zenbakarria bada eta plurala, *erdiak* da forma hedatuena, baina gramatiketan beste zerbait iradoki arren, *erdia* singularra ere zilegi da:

- (31) a. EAEn etxebizitzarik ez duten pertsonen erdiak atzerritik etorritakoak dira. (Asier Iturriagaetxebarria, *Berria*, 2006-01-27)
 b. Herritarren erdiak uste du ingurumenaren egoera hobetu egin dela udalerrian eta EAEn. (Asier Iturriagaetxebarria, *Berria*, 2004-06-01)
 c. Ume orien erdia ez da zurea, eta beragatik ondu, edo pagatu bear diozu beiak dauzkanari (J. B. Agirre, *Erakusaldiak II*, 192)

(31a)n [*pertsonen erdiak*] plurala dugu, (31b eta c)n, aldiz, singularra.

Ohikoena, nolnahi ere, Lafittek ongi zioen bezala, *erdiak* plural gisa ematekoa da.

– Izen nagusiari dagokionez, berriz, genitiboan ez ezik, inolako mugatzailerik ez kasu markarik ez duela ere ager daiteke, *EGLU*-k dioena gorabehera, baina orduan *erdiak* behar dugu, ezinbestean, multzo batez ari bagara.⁶

- (32) a. Egun erdietan ez duzu egurrik ekarri ere egiten (M.E. Laboa, *Astotxoaren burezurra*, 59)
 b. Telebista horietan ia programazio erdiak erdaraz izan ahalko dira. (Agurtzane Solabarrieta, “Euskaldunek ez dute legez bermatuta euskarazko katerik”, *Berria* 2006-03-14)

⁶ Egia da, *EGLU*-k aipatzen duen interpretazioa izan daitekeela. Honako honetan bezala:

Bajaren lehen lau egun erdietan edo lehen bi egunetan, %75a ordainduko zaie (GAO 1989-04-13)

Baina hemen [egun-erdi] izen elkartu arrunta daukagu.

– Ezkerreko osagaia erlatiboa ere izan daiteke:

- (33) Mediku batek dio (...) larrialdietara joaten diren erdiek ez luketela joan behar. (*Berria*, 2004-11-21)

Noski, erlatibo hori genitiboan ere eman daiteke:

- (34) Larialdietara joaten diren (gaixo)en erdiak

– Partitiboan ere joan daiteke, Bizkai aldeko euskaran bereziki (cf. OEH):

- (35) Arin-arin eitten dau / soloan erbiek:
Utsik egitten deittu / punturik erdiek.
(Manuel Lekuona, “Cantares populares”, *Anuario de Eusko Folklore*, 1930, X, 038)

b) *Laurden*-ekin ere beste horrenbeste gertatzen da, funtsean. Baina hemen, *laurden* batez ari bagara eta ez bi edo hiru *laurdenez*, singularreko komuntzadura eragiten du (36a), baina plurala ere eragin dezake (36b):

- (36) a. Batzarrean bildutakoen laurdenak, berriz, aurkako boza eman zian. (Aitziber Laskibar, (*Berria*, 2004-07-04)

b. Zerbitzuan dauden langileen laurdenak (...) euskara ikasten aritu ziren. (*Berria*, 2004-03-07)⁷

– LAURDEN, ERDI bezala, inolako artikulurik gabe ere erabiltzen da, neurria adierazten denean bereziki:

- (37) Ordu laurden, kilo erdi, metro erdi, litro laurden ...

Hauetan zenbatasuna adierazten da baina inolako artikulurik ez da, BAT zenbatzailerik ere ez. Hortaz, benetako zenbatzailatzat hartzeko eskubidea genuke.

c) Adibide hauek denek erakusten duten anabasa gorabehera, joera nagusiak zein diren argi dago: izena zenbakarria denean eta pluraltasuna agerian badago, joera da *erdiak* (plur.) erabiltzekoa (*ikasleen erdiak*), eta, horrenbes-

⁷ Baina egunkari horretan bertan, idatzi berean, honako hau aurkitzen dugu:

(i) 2002an Justiziako langileen laurdenak euskara ikasi zuen.

Behar bada, horren azalpena izan liteke ergatiboaren agerpena. Plurala erabiliz gero, *laurdenek* beharko zukeen, baina *laurdenek* bezalako formarik nekez aurkitzen da corpusetan. *Ereduzko prosa* izenekoan, adibidez, kazetaritzako testuetan bizpahiru adibide baka-rik aurkitu ditut, ‘hiru laurdenek’ modukoak alde batera utzita:

(ii) Australian, adibidez, haurren laurdenek dute gaixotasun hori (*Berria*, 2004-09-14)

Honen ordez, txukunago edo ematen duela esango nuke beste honek:

(iii) Australian haurren laurdenak du gaixotasun hori.

tez, aditz komunztadura ere pluralen egitea. LAURDEN-en kasuan, aldiz, badirudi *laurdena* (sing.) erabiltzea dela joera nagusia, izen nagusiaren pluraltasuna gorabehera.

Baina nola justifikatzen da pluralaren presentzia hori? Multzo batek –eta multzo ez denak– gehienez ere bi erdi ditu. *Ikasleen erdia* diodanean, multzo horren erdietako batez ari naiz. Baina *ikasleen erdiak* diodanean ere bai. Pentsa liteke lehenbiziko osagaiaren pluraltasunak *erdi* zenbatzailea “kutsatu” duela. Alegia [ikasleen] sintagma pluralak eta hau menderatzen duen [[ikasleen] erdiak] sintagma numero komunztadura dutela. Benetan multzo baten erdi BATEZ ari bagara, sintagmaren numeroa [+sing] izango litzateke. Baina erabilera nagusia ez da hori. Bestalde, komunztaduraren hedapen hau aditzera ere iristen da. Behin *erdiak* forma plurala dugunean, nahitaezkoa da, aditzak honekin komunztadura izan behar badu, pluralekoa izatea komunztadura hori.

Komunztadurak, hortaz, hedapen desberdina duela esan genezake.

(36) a. [[pastel(aren)] erdia] lizundurik zegoen. (cf. pastel gehiena)

[+sg] [+sg] [+sg]

b. [[pastel(en) erdiak] lizundurik zeuden. (cf. pastel gehienak)

[+plur] [+plur] [+plur]

c. [[hauetatik] erdia]] matrikulaturik dago.

[+plur] [+sing] [+sing]

d. [[hauetatik] erdiak]] matrikulaturik daude.

[+plur] [+/- sing] [+plur]

GEHIEN(A(K)) zenbatzailearen antz handia du ERDI(A(K)) honek. Azken batean, multzo edo kopuru baten parte bat adierazten ari gara: *ikasle(rik) gehienak* diogunean, ‘ikasleen multzo horretatik gehienak’ esaten ari gara, eta *ikasleen erdiak* diogunean ere, beste horrenbeste, ez ikasle multzo horretatik gehienak, baina bai erdiak. Horrenbestez, modu bertsuan analizatu beharko genituzke, nahiz eta oraingoz ez dudan analisi hori eskainiko. Egitura dela eta, kontu eman beharreko arazo bihurriena, seguru asko, komunztadurarena da. Batez ere, [ikasleen] eta [erdiak]-en artekoa.⁸

⁸ Bide batez, ohar gaitezen gaztelaniaz gertatzen denaz. Izan ere, hizkuntza honetan, gure inguruko besteetan bezala, ‘la mitad de los alumnos ha(n) llegado tarde’ esaten da. Ez, euskaraz bezala, ‘*las mitades’. Baina aditzak *ad sensum* komunztadura egin dezake edo ez. Euskaraz komunztadura berezi hori, nonbait, bi aldiz gertatzen da.

Nolanahi ere, hauetan guztietan daukagun esanahia antzekoa da: multzo bateko gehienak, multzo baten erdia, laurdena edo dena delakoa.

2. ADJEKTIBOEN MAILAK ETA NEURRIA

EGLU V-ean (404-405 orr.) esaten zaigun bezala, adjektiboen eta adberbioen maila adieraz daitekeen bezala (*oso pozik, nabiko gaztea* ...) desberdintasunezko konparazioa ezartzen dugunean ere, desberdintasun hori zenbatekoa den adieraz daiteke, 'A B baino zenbat X-ago' den esaten ahal dugu, alegia.

Izenei zenbatasuna bezala, Adjektiboei, berez, maila dagokie. Hala ere, zenbakaitz diren izenei 'neurri sintagmen' bidezko zenbatasuna ezar dakiekeen bezala, adjektiboei ere, nolabaiteko neurria ezar dakieke. Maila ezartzeko inolako arazorik ez da (*oso handia, biziki interesgarria, nabiko polita, txukun samarra* ...). Baina ezinezkoa gertatzen da neurri zehatza ezartzea ia adjektibo guztiekin, konparatiboak ez badira.

2.1. Adjektibo soilen neurria

Hizpide izan ditugu izen sintagmen inguruko neurri sintagmak. Adjektibo soilei gagozkiela, eskuarki, neurri zehatza ezartzea ez da zilegi euskaraz. Luze-zabalera adierazten dutenek bakarrik onartzen dute holakorik:

- (39) a. BI METRO {luze/zabal}
b. *BI URTE {zahar/gazte}
c. *BI KILO {astun/arin}

Konpara hauek honako beste hauekin:

- (40) a. Luze SAMARRA / DEZENTE luzea / IKARAGARRI luzea
b. OSO zaharra / gazte SAMARRA
c. BIZIKI astuna / arin SAMARRA / DEZENTE astuna ...
d. ERABAT ezinezkoa /GUZTIZ egokia ...

Maila adierazteko arazorik ez da, (40)k erakusten duen bezala. Baina adjektibo soilak ez du onartzen neurketarik, neurketa zehatzik alegia.

Salbuespen bakarra aipatu ditugun luze-zabalerak dira (39). *Luze* eta *zabal*-ekin aski arrunta da. *Sakon* eta *altu/garai* ere multzo berekoak dira, antza:⁹

- (41) a. Sahara (...) bost milla kilometro zabal da ta milla ta bosteun kilometro luze (Anabitarte, *Aprikako basamortuan*, 8)
- b. Ez bakarrikan marka orretan jokatzeko prestatu, zeñek geiago altxatu ere nai nuke berriz probatu; lenagoko pisuan bertan ogei ta bi ontza altu, libre kanterak ateratzeko, gero nai deguna artu (Bilduma, *Zab* – 41)
- c. Irudia, 0,40 metro garai da. (Erkiaga, *Arr* – 195)
- d. pus bat lodi den adar bat (Duvoisin, *La* – 386)
- e. Lurra berrogei bat zentimetro sakonean ondeatu (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 149)

Adjektibo soilei egotzi diegun debeku honek izan dezake azalpena. Pisua edo luze-zabalerak konparatzen baditugu, adibidez, bata kiloka, gramoka, arroaka edo nahi den moduan ematen da, baina beti ere neurritzat aipatutako hitz horiek hartuta, ongi dakigu pisuaz ari garela. Alegia, *liburu hori bost kilo bada* diodanean, argi da pisuaz ari naizela. Ez dago beste ulerbiderik. Pisua beti pisu. Aldiz, metroak edo zentimetroak, kanak, oinak edo nahi dena hautatuz, beti gelditzen da zehaztu gabe neurri hori luzerari ala zabalerari dago-kion, adibidez. Hortik datorke, behar bada, *luze* eta *zabal* adjektiboekin neurria zehazturik eman ahal izatea: *bost metro luze, kana erdi zabal, pus bat lodi* ... Dioguna frogatzeko, aski dugu *lodi* adjektiboari erreparatzea. Lodiera neurtzen ahal dugu metroka, adibidez, eta, orduan zilegi da *bost metro lodiko arbola* (< *arbola bost metro lodi* da) moduko bat esatea. Pertsona baten loditasuna zenbatekoa den esateko, aldiz, kiloak erabil ditzakegu, esaterako, baina orduan ez dirudi zilegi denik *lodi*-ri neurria ezartzea:

- (42) a. Arbola haren gerria hamar metro lodi zen. / Hamar metro lodiko arbola zen
- b. *Mikel 120 kilo lodi zen./ *120 kilo lodiko gizona (cf. 120 kilo gizona)

Beste hizkuntza batzuetan, ingelesez, esaterako, neurria onartzen duten adjektiboak ugariago dira, jakina denez. Horietako bat, tipikoa, *old* adjektiboa da, ez *young*. Euskaraz, adjektibo soilak, aipatutako luze-zabalak izan ezik, ezin dira neurtuta eman. Gaztelaniaz ere ezin da holakorik esan (Bosque 1999: 231)

⁹ Galde egin diedan hiztun gehienek, hala ere, azken kasu hauetan nahiago dituzte honako hauen antzekoak:

- (i) Jokalari honek bi metroko altuera du / ?? Jokalari hau bi metro altu da.
 (ii) Armairu honek 50 cm-ko sakonera du / ?? Armairu hau 50 cm sakon da.

2.2. Konparazioetako “koska”

Adjektibo soilak izan beharrean konparatiboan ematen baditugu, neurri sintagmak agertzea zilegi gertatzen da:

- (43) a. Bi metro {luzeago / laburrago}
 b. Bi urte {zaharrago/gazteago}
 c. Berrehun gramo {astunago/arinago}
 d. {Dezente/askoz} luzeagoa

Baina hauetan ez dugu ematen egiazki kasuan kasuko adjektiboaren neurria, adjektibo konparatiboak berekin duen 'koskaren' neurria baizik.

Bestalde, (44)koak okerrak dira. SAMAR, IKARAGARRI, OSO ... ez dira maila hitz egokiak, nonbait, konparatiboaren 'koska' zenbatekoa den aditzera emateko:

- (44) a. *Luze samarragoa
 b. *Ikaragarri luzeagoa
 c. *Oso luzeagoa

Konparatiboan eta neurri sintagma hauen arteko jokia dela eta, zenbait galderari erantzun beharko litzaioke: 1) Zergatik dute jokabide desberdina adjektibo soilek eta konparatiboek? 2) *Gehiago* zenbatzaile bat bada, nolatan ager daitezke batzuetan sintagma berean bi zenbatzaile ({*BI libururu GEHIAGO / libururu BATZUK GEHIAGO*}), beste batzuetan holakoak zilegi ez diren bitartean (**BI libururu ASKO / ??libururu ASKO GEHIAGO*)? 3) Zein da, azken batean, sintagma hauen guztien sintaxi egitura? Dena dela, galdera horien erantzunen bila hasi baino lehen, ikus ditzagun konparatiboaren ezaugarri batzuk.

2.3. -AGO, -EGI eta -EN

-AGO atzizkia adjektiboei eta aditzondoei¹⁰ erasten zaie, konparazioa adierazteko. Konparazioan, A-ren ezaugarri bat ematen dugu aditzera, horretarako, B-ren ezaugarri beraren maila oinarri hartu eta koska erantsita:

- (45) A [B (den) baino] (bi metro) luzeagoa da.

¹⁰ Aditzei ere erants dakieke, baina nagusiki adjektiboei eta aditzondoei erasten zaie atzizki hau.

–EGI-rekin ere, funtsean beste horrenbeste gertatzen da: ‘*A handiegia da*’ diogunean eredutzat hartzen dugu zerbait, eta hau oinarri hartuta, A nolakoa den esaten dugu. Superlatiboarekin ere gauza bera: ‘*A da handiena*’ esaterakoan, oinarritzat hartzen den handitasun maila bat badugu eta oinarri horren gainean ezartzen dugu A-ren tamaina. Oinarri hori, –AGO konparatiboarekin ari garenean, [... BAINO] perpausaren bidez ematen dugu aditzera. –EGI atzizkiarekin ari garenean, berriz, oinarri hori ‘xede baterako behar den edo komeni den maila’ izan ohi da. Sintaxian helburuzko perpaus baten bitartez eman ohi dugu:

(46) Liburu hori handiegia da, {zorroan eramateko, haur batentzat ...}

Egitura hauek, ordea, ez dute onartzen euskaraz inolako neurketarik. Ez –EGI-k, ez superlatiboaren –EN-ek:

(47) *Liburu hori bi kilo astunegia da zorroan eramateko.

Holako zerbait esan nahi izatekotan, –AGO konparatiboaren bidera eraman behar da perpaus hori, ‘behar den baino’ edo ‘komeni litzatekeen baino’ edo holako zerbaiten laguntzaz:

(47’) Liburu hori behar baino bi kilo astunagoa da, (zorroan eramateko).

Astunegi diogunean alde zuzenetik ezarritako estandar baten arabera konparazio bat ezartzen dugu, hots, behar den edo egoki den neurria gainditzeko duela esaten ari gara, estandar hori baino astunagoa dela, alegia. Kontua, azken batean, da ezin dela kasu honetan neurria ezarri.

Eta superlatiboarekin ere (–EN-ekin, alegia), ezinezkoa da neurketa egitea:

(48) Liburu hori inoiz irakurri dudana ederrena da.

Hemen oinarritzat hartzen dena ez da beste liburu jakin baten edertasuna, irakurri ditudana guztiena baizik. Nolanahi ere, ezinezkoa gertatzen da oinarriaren eta unean uneko konparagaiaren artean dagokeen ‘koska’ zenbatekoa den esatea:

(49) *Liburu hori da denetan bi kilo astunena.

Oraingoa ere, koska hori zenbatekoa den esateko modu bakarra konparatibo gisa ematea izango litzateke:

(49’) Liburu hori beste guztiak baino bi kilo astunagoa da.

Edo, bestela, mailakatze lausoa adierazteko eskura ditugun adberbioez baliatuz:

(50) Liburu hori da, askogatik, denetan astunena.¹¹

Hiru atzizki hauek oinarria modu desberdinez ematea eskatzen dute:

- (51) a. [_{Pos} [_{KompS} ... -(e)n] baino] ... -AGO
 b. [_{Pos} {... -(e)ntzat / -t(z)eko}] ... -EGI
 c. {[_{KompS} ... -(e)n] / [_{Pos} ... {-ko / -(r)ik / -etan]}] ... -EN

Hiruretan dugu konparazioaren oinarria adierazteko aukera, baina -AGO-ren agerpenak bakarrik egingo du zilegi oinarritzat hartzen dugun perpaus edo postposizio sintagma honezaz gainera, neurri sintagma bat. Honek bakarrik hautatzen du neurri sintagma hori.

2.4. Zertan dira diferente adjektibo/adberbio sintagma soilak eta -AGO konparatiboak?

Baina neurri sintagmok zergatik, *astun* adjektibo soilarekin ez, baina *astunago* adjektibo konparatiboarekin bai? Eta, oro har, edozein adjektiborekin, konparatiboan emanez gero, zilegi gertatzen da neurria adieraztea. Erantzuna bi egituren artean dagoen diferentziatik etorriko zaigu. Konparatiboak funtsezkoa du ‘koskaren’ ideia. (Brucart 2003). *Luzeago* konparatiboak, *luze* soilak ez bezala, koska bat badela adierazten du:

(52) A, B baino luzeagoa da.

Holakoetan, B-ren luzera hartzen dugu oinarritzat eta oinarri honen arabera, A-ren luzera zenbatekoa den esaten, bi luzeren artean ‘koska’ bat badela onartuz eta, nahi izanez gero, koska hori zenbatekoa den adieraziz. Zeren adierazi gabe ere utz daiteke, (52)an bezala, edo zehaztu daiteke neurri sintagma baten bidez, (53)an bezala:

(53) A, B baino bi zentimetro luzeagoa da.
 (alegia, A-ren luzera = B-ren luzera + 2 cm).

(52)an eta (53)an gauza bera diogu, funtsean. Alde bakarra da, (52)an koska hori zenbatekoa den zehaztu gabe utzi dugula eta bestean, bi zentimetrokoa dela diogula.

¹¹ Baina hemen perpaus osoa besarkatzen duen adberbio batez baliatu behar izan dugu, ez egiazki adjektibo sintagmari datzekon neurri sintagma batez.

Gaztelaniaz ere gauza bera gertatzen da:

(i) Ese libro es el más pesado que he leído, con diferencia.

Hor dago adjektibo soilaren eta konparatiboaren arteko diferentzia. Koska neurtu edo zenbatu daiteke. Adjektibo soilek, aldiz, ez lukete ‘neurri’ argumenturik hautatuko. Konparatiboetan daukagun koskak, ostera, neurtzea eskatzen du, koska zenbatekoa den esatea. Arazo lexiko gisa ikus daiteke: *pisatu*, *neurtu*, *iraun* eta abarrek bezala, X-ago-k ere neurri sintagma bat hautatzen du:¹²

- (54) a. [Hiru hilabete] iraun zuen gure egonaldiak.
b. [Hiru hilabete] geroago etorri zen Joseba.

2.5. Osagaien hurrenkeraz

Beste hizkuntza batzuei gagozkiela proposamen desberdinak egin izan dira sintagma hauen taxuaz (Abney (1987), Larson (1991), Brucart (2003) ..., adibidez). Sakonean egitura abstraktu samarra ere izan daiteke. Adibidez, -AGO atzizkia buru hartuta, honek bere inguruan hiru osagarri izango lituzke: adjektibo sintagma bera, neurri sintagma eta konparazio perpausa. Beste plan-teamendu bat izan liteke X-ago bezalako konparatiboak osagai bakartzat hartzea, dagozkion tasunekin. Honek orduan bi osagarri izango lituzke.

Izen sintagmetan ageri diren neurri sintagmek espezifikatzailearen lekua hartzen badute, bidezko dirudi egongune bera izatea konparatiboaren koskaren zenbatekoa ematen digun neurri sintagmak ere. Beste kontu bat da [p_{OS} ... baino] perpaus konparatiboaren¹³ lekua zein den jakitea. Gainerako perpaus konparatiboetan zer gertatzen den ere kontuan hartu behar da. Hau dena xehekiago aztertu bitartean, Brucartek gaztelaniarentzat proposatzen duen analisiaren antzeko bat proposa genezake, soilagoa bada ere:


- (55) Haria jostorratza baino [bost zentimetro] luzeagoa da.

Perpaus honentzat honako egitura hau proposa genezake:

¹² Hemen ez gara hasiko eztabaidatzen ea PISATU edo NEURTU bezalako aditz bat neurri sintagma batekin ematea ‘kalko desegokia’ den ala ez (ik. J. R. Etxebarria 2006: 140, 155-160). Edozein modutan, IRAUN aditzak holako neurri sintagma hautatzen duela ez da dudarik.

¹³ BAINO-ren estatusa dela eta, gure hiztegieta juntagailutat hartu izan da inoiz. Juntagailuak juntadura bideratzen duten morfemak badira, kasu honetan beste zerbait daukagula ematen du. Uste dut postposiziotzat hartzea zilegi dela, perpausa gobernatzen duen postposizio bat. Horrenbestez, Po(stposizio)S(intagma) baten aurrean geundeke. Esan liteke -AGO konparatiboak hautatzen duela PoS hau, konparazioaren oinarri gisa.

(56)



Azken batean, egitura honek perpaus hauei buruz dakigunaren berri modu argian eman dezakeela dirudi: a) ardatza -AGO izango litzateke, konparatiboaren atzizkia; b) honek batetik predikatu bat izango luke osagarri [_{Adjs} luze] eta bestetik, konparazioaren oinarria den [_{poS} orratza baino] postposizio sintagma. Koskaren zenbatekoa erakusten duen neurri sintagma ere -AGO-k hautatua dago; c) bestalde, -AGO maila hitzak berezkoa du [+koska] tasuna. Hau baldin bada egitura guztiaren ardatza, buruaren eta espezifikatzailearen arteko lotura ziurtatua geldituko da. Hala ere, neurri sintagma hauek osatzeko, kuantifikatzaile guztiak ez dira baliagarri. Izenen kasuan bezala, hemen ere neurri sintagma zehatzak izango ditugu aukerakoak ([Numerala + neurri izena] modukoak. Neurri izen honek (*litro, metro, kilo, ...*) adjektiboaren izaera semantikoaren (edukiera, luzera, pisua, ...) araberakoa izan behar du.

Baina oso, *izugarri, erabat, guztiz* bezalako maila-adberbioek ez dute balio:

(57) {*Erabat / *oso / *izugarri} astunagoa da.

Modifikatzaile hauek ez dute adierazten 'koskadun' egitura hauetan espezifikatzaileak eman behar duen zenbatasun ideia eta, horrenbestez, ezin dira -AGO-dun adjektiboarekin konbinatu (Brucart 2003: 45).

Aldiz, beste batzuek (*asko(z), bi aldiz, are, nabarmen, dezente, zer(txo)bait, pittin bat, pixka bat ...* bezalakoek) adjektiboaren maila edo neurria, modu lausoa bada ere, adierazten bide dute, eta, horrenbestez, bat egin dezakete -AGO konparatiboarekin:

(58) Liburu hori {are/askoz/dezente/zertxobait/pittin bat/pixka bat/nabarmen ...} astunagoa da.¹⁴

¹⁴ Gaztelaniazko 'sensiblemente'-ren ordezkatat eman dut *nabarmen* maila-hitz hori. Corpusean honako adibide hau aurkitu dut, bakarra:

(i) 1986an Estatu osoan 25-29 urte bitartean ezkonduetako gizonzkoen kopurua, %51,73koa zen, nahiz eta Nafarroan datu hori nabarmen baxuagoa izan. (*Euskaldunon Egunkaria* 1992, 0009)

Adberbio edo determinatzaile hauek, lehenbizikoek ez bezala, berekin daramate mailaren edo koskaren ideia. Horregatik dira erabilgarri konparatiboekin.

(56)ko egitura gorabehera, konparazio perpausaren ohiko lekua ezkerrean du, mintzagaiaren gunean. Nolanahi ere, perpausaren kanpo aldean mugitzeko ahalmen handia du perpaus honek. ERE lokailua lagun duela, maiz. Horrek, behar bada, beste egitura bat proposatzera eramán beharko gintuzke. Gaia azterkizun uzten dut, nolanahi ere.

- (59) a. Harri hau [[beste guztiak baino] astunagoa] da.
 b. Harri hau [__ astunagoa] da [beste guztiak baino].
 c. [Txoria baino ere] ederragoa zen / Ederragoa zen [txoria baino ere].

Ohar gaitezen mugikortasun hau ez dutela beste konparatiboek. [... BEZAIN] perpausa, adibidez, beti, dagokion adjektiboaren ezkerrean agertuko zaigu, honen ondo-ondoan.¹⁵

Neurri sintagmari dagokionez, aldiz, esan behar da beti adjektibo konparatiboaren ondo-ondoan, ezkerrean, egon behar duela, adjektibo konparatiboarekin batera osagai bakarra osatuz:

- (60) a. Haria jostorratza baino [bost cm] luzeagoa da.
 b. *Haria [bost cm] jostorratza baino luzeagoa da.

2.6. GEHIAGO konparatiboa

Adjektiboan mailan dugun koska hori kantitateetan ere gertatzen da. GEHIAGO eta GUTXIAGO zenbatzaileetan ere –AGO atzizkia dugu, GEHI- edo GUTXI elementuari atxikia. Hemen ere GEHIAGO konparatiboak [... baino] perpausaz gainera, neurri sintagma hautatzen du:

¹⁵ Errepara diezaiogun honako perpaus pare honi:

- (i) a. Harri hau [[beste edozein bezain] astuna] da.
 b. *Harri hau [__ astuna] da [beste edozein bezain]

Hemen morfologia arrazoiak izan daitezke (BEZAIN ezin banatuzkoa da), baita sintaxizkoak ere: BEZAIN-en atzean HAIN osagaia dago, genitiboa jatorriz, eta horrenbestez, ezin da adjektiboaren ezkerreko kokagunetik atera.

Arrazoi bera izango litzateke superlatiboetan PoS bere lekuan uzteko, hau ere izenlagun gisa agertzen baita (-KO bidez, nahiz erlatibo gisa). Baina bestelako postposizioen bat dugunean, ezintasun hori desagertzen da:

- (ii) a. Eskolako hoberena / *Hoberena eskolako
 b. Hau da ikasleetatik hoberena / Hau da hoberena ikasle guztietatik.


(61) Zuek baino hamar {cm, litro, gizon, liburu, isilune ...} gehiago

Neurri sintagman zenbakarri den edozein izen agertuko zaigu, neurri izena (*cm, litro, kilo...*) nahiz bestelako edozein izen (*gizon, etxe, harri ...*). Izen hori zenbakarri ez den kasuetan, zenbatze hori bideratzen duten neurri sintagmez baliatu beharra dago:

(62) a. [Bi litro ardo] gehiago

b. [Bi gizon] gehiago

(63)



Baina (62b)-n bi zenbatzaile (*bi* eta *gehiago*) elkartzen dira. Horrek azalpen garbia du baldin eta ontzat ematen bada zenbatzaile horiek ez daudela zuzenean izen berari atxikiak baizik eta alde batetik [*bi gizon*] neurri sintagma dugula eta [*gehiago*] konparatiboa bestetik.¹⁶

Bada (63) egituraren aldeko arrazoirik:

(64) a. Zuk baino [[zenbat litro ardo] gehiago] edan ditu?

b. [Zenbat litro ardo] edan ditu zuk baino gehiago?

c. *[Zenbat litro ___] edan ditu [[ardo] gehiago] zuk baino?

Bestalde, (64)ren parean beste honako hau ere esan daiteke. Eta biek izan beharko lukete egitura bera:

¹⁶ *Gizon gehiago* bezalako sintagma soil batek, aldiz, bestelako egitura izango luke: [_{QS} [_{IS} gizon] [_Q gehiago]]. Hemen ez guke neurri sintagmarik izango. Koska bai, -AGO konparatibo guztietan bezala, baina koska hori zenbatekoa den zehaztu gabe utzia egongo litzateke. Azken batean, [gizon gehiago] eta [gizon asko], biak egitura bereko lirateke. Brucart-ek (2003: 31), hala ere, beste modu batez ikusten ditu kontuak. [más días] bezalako batez ari dela, honela dio: “*Las conversaciones durarán más días de los previstos* pone de manifiesto que el SCu *días* es el representante del diferencial”. Hemen proposatzen dudana, aldiz, da [[egun bat] gehiago] eta [egun gehiago] taxu desberdineko sintagmak direla.

- (65) a. Nik baino [pastel bat/batzuk] gehiago jan du/ditu.
 b. [Ardo pixka bat] gehiago eskatu zuen.

Hemen [pastel bat(zuk)] edo [ardo pixka bat] osagai direla dirudi. Hortaz, goian ere [[bi litro ardo] gehiago] izango da analisi zuzena. Baina osagai hau determinatzaile sintagma bat dela dirudi, mugagabea, baina DS bat. Eta honen barruan neurri sintagmatzat eman dugun [bi litro] horretan, aldiz, DS-ren itxura guztia badu ere, ZenbS bat izango genuke.

Gauzak horrela, *gehiago*-k beregan duen ‘koskaren’ balioa [bi litro ardo] sintagmak emango digu. Analisi hau zuzena izanez gero, lan honen lehenbiziko atalean aztertu ditugun neurri sintagmak eta hemengo [bi litro ardo] modukoak izaera desberdinekoak izango lirateke. Haiek QS baldin baziren, hauek, behar bada, DS ditugu. Izan ere, oraingo egitura hauetan aurrekoetan zilegi ez ziren determinatzaile/zenbatzaile batzuk ager daitezke:


- (66) a. Litro batzuk gehiago (cf. *litro batzuk ardo).
 b. Metro bat zabalago / kilo batzuk lodiago / asko gehiago / metro mordo bat gehiago/bi litro ardo gehiago ...

Eta, jakina, orain ere, neurri sintagmaz gainera, konparazio perpausa ere agerian eman daiteke:

- (67) Mikelek [[Jonek baino [bi litro ardo] gehiago] edaten ditu astean.

Hortaz:

- (68)



2.7. Azken ohar bat maila, neurria eta zenbatasuna batera adierazteaz

Konparazio egitura hauetan, mailakatuak agertzen diren adjektibo sintagma guztietan bezala, debeku handiak daude maila- eta neurri-sintagmak beste zenbatzaileekin eta mugatzaileekin konbinatu ahal izateko (EGLU V; Artiagoitia (2004, 2006)):

- (69) a. *Oso bi neska polit / ?Bi neska oso polit / *Hainbeste oso neska polit.
 b. *Oso neska polit hau.

Aipatutako lanetan debeku hori bi osagaiak kokagune beragatik lehian ibiltzeari egozten zaio. *Hainbeste* eta *oso*, adibidez, biak 'kako' beretik ezin dira eseki. Hori litzateke sintagma horien makurra:

- (70) a. Hainbeste neska polit ez dut inoiz ikusi.
 b. Oso neska polita da hori.
 c. *Hainbeste oso neska polit ez dut inoiz ikusi.

Konparatiboekin ere arazo bera dugu:

- (71) a. *Zu baino hainbeste neska politago ez dut inoiz ikusi.
 b. ?Miren baino neska politago asko ikusi ditut.¹⁷

Hala ere maila eta zenbatzailea bateraezin horrek kokagune bakarrarena ez ezik, beste sustrai batzuk ere izan ditzake. Izan ere, zenbatzaileekin agertzeko ez ezik, erakusleekin agertzeko ere antzeko debekuak ditugu eta kasu honetan ez dago inongo lehiaketarik kokagunea dela eta:

- (72) a. *Oso liburu eder hau ekarri didate (cf. Oso liburu ederra ekarri didate)
 b. *Zu baino ikasle saiatuago hauek aipatuko dizkizut.
 c. *Gurea bezain liburu eder hauek daude salgai. (cf. Gurea bezain liburu ederrak daude salgai.)

Kokagune falta izan liteke arrazoi bat. Izan ere, hemen hizpide ditugun neurri sintagmekin jokatzeko hasten garenean, are arazo larriagoak sortzen zaizkigu:

- (73) *Zu baino bi zentimetro neska altuagoa aurkeztu didate. (cf.)
 Aurkeztu didaten neska zu baino bi zentimetro altuagoa da.

Baina egitura hauen beste ezaugarri batzuk ere kontuan izan behar direla dirudi. Horietako bat dugu sintagma hauen zehaztasun eza. Erreferentziatzeko balioa barik zenbatusun balioa dute. Alegia, predikatu osagarriek dituzten eskabide bertsuak dituztela pentsa liteke:

¹⁷ Hau beste modu honetara emanaz gero, arazorik ez:

(i) Neska polit asko ikusi ditut, Miren baino politagoak.

- (74) a. *Gero* oso liburu ederra da / **Gero* oso liburu eder hau da
 b. Gure etxea [zuena baino hamar urte zaharragoa] da./ *Gure etxea [zuena baino hamar urte zaharrago bat] da. /*Gure etxea [zuena baino hamar urte zaharrago hura] da.
 c. Gure etxea ez da hain zaharra / *Gure etxea ez da hain zahar bat.

Kontua da holako konparazio egiturak oso ‘gustura’ aurkitzen direla predikatu osagarriaren gunean, eta hortik kanpo ezarri nahi ditugunean, arazoak ematen hasten direla. Horregatik, hain deseroso sentiarazten gaituzten (72-74)ko perpaus batzuek erabat aldatzen dute beren onargarritasun maila predikatu osagarritzko egiturara berriro eramaten ditugunean, erlatiboa tarteko. Adibidez:

- (75) a. Gurea bezain ederrak diren liburu hauek daude salgai.
 b. Hain ederra den liburu hau opari egin didate.
 c. Zu baino bi zentimetro altuagoak diren hamar neska aurkeztu dizkirate.

Edo aposiziora joaz:

- (76) a. Liburu hauek, gurea bezain ederrak, daude salgai.
 b. Hamar neska aurkeztu dizkirate, zu baino bi zentimetro altuagoak.

Ildo honetatik joan beharko luke, nire ustez, gure azalpenak.¹⁸

3. ONDORIOAK

Izen sintagmaren barnean ageri diren neurri sintagmak aztertu dira lehenbizi. Osagaien hurrenkera ez da beti bat. Batetik, [[Zenbatzailea + I₁] + I₂] dugu. Honek dituen debekuak aztertu dira. Ezin da edozein zenbatzaile ezarri: numerala edo zatikia edo multiploa behar du. Lehenbiziko izenak ere multzo jakin bateko kide izan behar du (neurria, zatia, multzoa nahiz ‘edukiontzi’ balioa dutenak behar dira). Bigarren izena, berriz, zenbakaitza da.

¹⁸ Bide batez, hainbeste buruhauste ematen diguten egitura hauek, gaztelaniaz ere, esaterako, taxu berezia dute. Artikulu mugatua ez dute onartzen, mugagabea baizik:

(i) Me presentaron unas chicas, dos cm. más altas que tú./*Me presentaron estas chicas muy majas.

Beste aukera bat ere bada: $[[I_2 + I_1] + \text{zenbatzailea}]$. Hau teoriaran zilegi da neurri izenekin izan ezik. Gainerakoekin errazago onartzen dira holakoak (ur trago bat / trago bat ur). Hala ere, maiz anbiguotasuna sortzen da neurri izena ‘edukiontzi’ baliokoa denean (botila, kopa, kaxa ...). Taxu hau erakusten dute zatikiek (*erdi* eta *laurden*, bereziki). Hauen jokabide berezia aztertu dugu singular/plural arteko interpretazioari dagokionez.

Adjektibo soilekin ere erabilgarri dira neurri sintagma, baina bide honek debeku handiak ditu. Frogatu uste izan dugu luze-zabalera adierazten duten adjektiboekin bakarrik direla zilegi. Baina -AGO konparatiboarekin gauza erabat aldatzen da. Honen arrazoia -AGO atzizkiari egotzi behar zaio. Elementu hau zenbatzailetzat har daiteke eta pentsa daiteke, batetik konparazioaren oinarria hautatzen duela ($[_{\text{pos}} \dots \text{baino}]$). Bestetik, adjektibo edo adberbio bat hartzen du osagarri gisa eta, [+koska] adiera duenez, koska horren neurria adierazten duen neurri sintagma ere hautatzen du. Horrenbestez, -AGO-ren mende agertuko dira adjektiboa, perpau konparatiboa eta neurri sintagma. Neurri sintagma hau izen sintagmetan agertzen dena ez bezalako dela iradoki dugu. Dena dela, hau hobeki aztertu beharreko kontua litzateke, sintagma hauen egitura zehatza bezalaxe.

Azkenik, perpau hauek zenbatzaileekin eta erakusleekin agertzeko dituzten zailtasunez mintzatu gara. Honetarako eskaini diren azalpenak aztertu dira baina arazoa sintagmaren egituren gertatzen den leku faltaz gainera, bestelako arrazoirik ere badela iradoki dugu, sintagma hauen zehaztasun eza-rekin lotuta. Kontu honek ere azterketa xeheagoa eskatzen du.

4. BIBLIOGRAFIA

- ABNEY, Steven Paul 1987. *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*. Doktore tesia. Cambridge: MIT.
- ARTIAGOITIA, Xabier. 2004. “Izen Sintagmaren birziklatzea: IS-tik inguruko funtzio buruetara”. In Albizu, Pablo & B. Fernández (arg.) *Euskal gramatika XXI. Mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 11-38.
- 2006. *Euskarazko izen sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala*. Argitaragabeko eskuizkribua. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AZKUE, Resurrección M^a. 1923-1925. *Morfología Vasca*. (2. argitalpena, 1969. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca).

- BOSQUE, Ignacio. 1999. “El sintagma adjetival. Modificadores y complementos del adjetivo. Adjetivo y participio”. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.) *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa-Calpe, 217-310.
- BRUCART, Jose M^a. 2003. “Adición, sustracción y comparación: un análisis composicional de las construcciones aditivo-sustractivas del español”. Eskuizkribua. Univ. Autónoma de Barcelona.
- EUSKALTZAINDIA 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- 1999. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ETXEBARRIA, Jose Ramon 2006. “Neurri-izenak eta neurri-esamoldeak euskaraz”. *Euskera* 51, 123-161.
- ETXEBERRIA, Urtzi. 2005. *Quantification and Domain Restriction in Basque*. Argitaragabeko doktore tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- HUALDE, Jose Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (2003) (arg.). *A Grammar of Basque*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- LAFITTE, Piarres 1944. *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Livrairie “Le livre”.
- LAFON, René. 1957-58. “L’expression de la comparaison en basque”, *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* LIII, 234-256. (Berrargitaratua: Euskaltzaindia (1999). *Vasconiana*. Iker 11. 649-666).
- LARSON, Richard K. 1991. *The projection of DP (and DegP)*. Eskuizkribua. Suny – Stony Brook.
- LÖBEL, Elisabeth. 1989. “Q as a Functional Category”. In Crhista Bhatt, Elisabeth Löbel & Claudia Schmidt (arg.). *Syntactic Phrase Structure Phenomena in Noun Phrases and Sentences*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- MICHELENA, Luis & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia. (OEH)*. Bilbo: Euskaltzaindia, Desclée de Brouwer, Mensajero.
- STAVROU, Melita. 2003. “Semi-lexical nouns, classifiers, and the interpretation(s) of the pseudopartitive constructions”. In Coene, Martine & Yves D’hulst (arg.) *From NP to DP*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company, Vol I, 329-353.

Corpusak:

Orotariko Euskal Hiztegiaren Testu Corpora. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindiaren XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoa
(www.euskaracorpora.net)

Ereduzko prosa gaur. (www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/)

EUSKAL ALMANAKA ETA EGUTEGIAK (1815-2006)

Joseba INTXAUSTI

Euskarazko egutegi, almanaka edo urtekariak ez dira izan batere arrotzak euskara idatziaren historian, eta tradizio hori ez da izan pisu gutxikoa ere euskal irakurleen artean. Izenburuan bi data eman ditut mugarrizat (1815-2006), baina Leizarragaren idazlanak ezagutzen dituenak badaki askoz ere historia zaharragoa izan daitekeela hori.

Egia esan argitalpen-mota horren balioa ez da erreparatu gabe pasatu gure artean; adibidez, 1996an Arantzazuko Egutegiari Abadia Saria eman zion Gipuzkoako Aldundiak; hala ere, euskara idatziko jarduera horren guztiaren azalpen orokorrik ez dut ezagutzen, eta ondoko orrialdeen bidez ekarri nahiko nuke argitara iragan gutxi ezagun hori. Lan erabat burutua ez izan arren, balioko ahal du, behintzat, hurrengo iker-urratsak emateko.

Kultura handi eta hizkuntza idatzi normalizatuetan, egutegiena bazterreko kultur gertaera izan ohi da itxuraz (nahiz eta tamaina handikoa izan), baina gurea bezalako batean besterik dela pentsa daiteke, irakurlego zabal bat sustatzeko baliozko lanabesa izatera iritsi izan baitira egutegiak. Euskal Herrian ere irakurle leialak izan dituzte, liburuek baino areago. Hori horrela izanik, gaiaren aurkezpen xume bat egiteko balio dit J. Haritschelhar adiskidearen omenaldi-egokiera honek, beti ere Hegoaldearekin batera Iparraldea ere gogoratzuz.

URTEALDI OROKO ALDIZKARIAK (1848...)

Argitalpen-jenero honek historiaurre luzea izan du gure artera iritsi aurretik. Egutegien historiak, eta berorien bidezko kultur, erlijio- edo politika-

hedapenaren jardunak biziraupen handiko kondaira bete du, herri eta kulturetan.

Batez ere tresna praktikoak zirelako iraun izan dute horrelakoek, halako segidarekin. Baliagarritasun hori, beren baitan zekartzaten argibide praktikoaetik zetorkien: denboraren neurketak, eguraldiaren iragarpenak, iraganurtearen oroimenak, hurrengo urtealdiko aste eta egunen gobernu hobeak, lanen eta uzten ardurak, edo elizako urte-zikloa, etab. Hori guztia herritarren eskueran jartzeko balio izan dute egutegiek. Hortaz, gizarte-bizitza kodetuan guztiz baliagarriak ziren.

Arazoi horiengatik, herritarrek gogoz bilatu ohi dituzte honelako argitalpenak. Eta hortik zetorren almanaka eta egutegien bestelako baliagarritasun praktikoa: beren hedapenagatik, ideiak erakutsi eta zabaltzeko ere balio zuten, eta herritar xumearenganaino hainbat mezu interesatu pasarazteko tresna eroso bilakatu ziren. Eta halaxe izan zen, adibidez, Leizarragaren Eliza kalbindarrentzat bezala katolikoarentzat, nahiz talde kultural edo politikoentzat.

Nazio handi eta txikietan aurki daitezke honelako adibideak, baina Euskal Herrira hurbilduz, frantsesez argitara emandako bat gogoraz genezake: Baionako Elizbarrutian, besteak beste Napoleon Handiaren politika erlijiosoaren bertute onak aldarrikatzeko erabili zen *Almanach Ecclésiastique du Diocèse de Bayonne* hura (1806). Iraultza-urteetako jukutriak ahortzi, eta aro berrien leuntasun eta itxaropenak zabaltzeko, esan nahi da.

1806ko hori erdaraz bazen, euskarazkorik ez da falta izan geroztik, Iparraldean noski, baina baita Hegoaldean ere. Ez naiz hasiko almanaka haien guztien historia egiten, baina merezi du iruzkin labur bat honek.

LIBURU GISAKO ALMANAKAK (1848-2007)

Egutegi-takoak agertu aurretik, liburu gisako egutegiak izan ditugu Euskal Herrian. Leizarraga izan zen lehenengo euskarazko egutegia eman ziguna, Bibliaren ondoan bere *Kalendrea* argitara ematean, “Bazko noiz daten” jakiteko (1571).

Bibliografoen arabera, gure euskal egutegi modernoetan lehena 1815ekoa da, Bilbon inprimaturiko *Egutegia eusquerascoa* zeritzana, Jose Pablo Ulibarri idazle arabarraren ardurapean kaleratutakoa. Aipu bibliografikoa ezaguna dugun arren, ez zaigu geratu liburutegietan honen ale bat bera ere.

Geroztik, argialetxe, talde sozial edo pertsonaia eragileren baten inguruan sortu eta zabaldu izan dira almanaka, urtekari, egutegi, agenda eta antzeko aldizkariak. Gogoratu besterik ez dago: Iparraldean xuriek bezala gorriek, Hegoaldean kolore ezberdinetako abertzaleek, *Argia*-k bezala *Eskualduna*-k, Duvoisin kapitainak legez J. Hiriart-Urruty-k, S. Arana-Goiri-k ez ezik A. Campion-ek ere, Gregorio Mujika-ren antzera I. López-Mendizabal-ek eman zituzten argitara Egutegiak. Bakoitzak bere gisara, eta bere xedeekin.

Egutegiok sarrienik bizialdi laburrekoak izan ziren (J. Gorosabel-en *Eusquerasco pronosticua*, adibidez, behin agertu zen bakarrik: 1860), baina bada domina mereziko lukeen historia luzeagorik ere: J.-B. Etxeberri Uztaritzeko omonier ibartarrak 49 urtez atera zuen, berak bakarrik, *Eskualdun laborarien adiskidea* (1848-1897). 1854ko goseteak eragin zion atzera, behin; bestelakoan, gogor eutsi zion lanari. Etxeberri hau da Iparraldean “Almanakaren aita” deitu izan zutena.

Gerora, Almanakaren lanari hamarkadetan heldu zion Piarres Lafitte mirespenez mintzatu izan da J.-B. Etxeberri horretaz (1806-1898), birritan (almanakaren mendeurrena betetzean, 1949, eta geroago ere, 1970)¹. Eta J.-B. Etxeberri hau hiltzean, Almanaka ez zen desagertu, baizik eta M. Landerretxe-k eta Etxepare-tarrek (apezak eta medikuak, biek) eramanik 1914raino iraun zuen bederen. Lafitte-k ateratako *Gure Almanaka*-ren gurasoetako bat Etxeberri-ren hartan ikusi zuen Lafitte berak (Lafitte 1949, 1970).

Azken hamarkadetako almanaka eta egutegiaren guraso nagusia *Eskualduna* eta *Herria*-ren ondoko urtekarietan ikusi behar da. Dena den, honek ere bere aurrekina izan zuen: Duvoisin-en *Eskualdun almanac edo egunari berria* deituan (1884-1887). Vinson eta Lafitte-ren esanetan, “enperadoretiarra” zen hau, baina 1888an *Eskualdun gazetaren almanaka* bilakatu zen, hau da, izen bereko astekariaren argitalpen.

Hortik aitzina, astekariko irakurleen artean, ia beti izan zen urteko argitalpenen bat, noizbehinka huts egin arren (1901-1902.etan, adibidez, 1903koan esaten zaigunez: 22. or.), eta bizpahiru alditan izenburuz aldaturik. Bildu ahal izan ditugun datuen arabera, kronologiarik ziurrena ondoko hau izan daiteke: *Eskualdun Gazetaren Almanaka* (1888-1904), *Eskualdun Onaren Almanaka* (1905, 1908) eta *Eskualdunaren Almanaka* (1910-1925).

¹ J.-B. Etxeberri-ren lan nagusia Almanaka izan zen, baina bestelako idazlanik ere eman zuen. Horietan mardulena, *Testament zaharreko eta berrico istoria* (1874 eta 1877: 284 orrialde). Beste aipagarrienak: *Miguel Garicoitz aphezaren bizitzea* (1882) eta *Maiatzeko bilabete chumea* (1877). (J.-B. Etxeberri hau ez da nahasi behar P. Lafitte-ren izen bereko lankide eta beste almanaka-egile donostiritarrarekin).

Azken helburuak espreski erakusteko, almanaka honek bazituen bere esloganak, argitalpenaren pentsamendua nolabait laburbiltzen zutenak; bata Iparragirri hartua zen, bestea Gr. Adema “Zaldubi”-rena: “Herrialde guzietan toki onak badira; / baina bihotzak dio: zoaz Eskual Herrira!” eta “Laborantza gauza handi / eta botheretsua: / Hartan da lanean ari / Jainkoaren eskua, / Gizonaren eskuari / berma dadin lothua”.

Gure Herria aldizkariak, Gerrate Handiaren ostean, *Gure Almanaka* atera zuen (1924), baina 1925etik aitzina *Eskualduna*-ren almanakarekin bat egin zen. Eta ekimen bateratu hori da gerrateraino (1939-1944) luzatu zena, eta haren ondoren (1946) Piarres Lafitte-k eta beronen lantaldeak 1984raino ekarri zutena. P. Xarriton euskaltzainak esan didanez, *Herria*-ren zuzendaritza utzi eta gero ere bihotzez arrunt maitea zuen almanaka ez zuen utzi nahi izan bere eskutik Lafitte-k. (Baionako Euskal Museoa ikus daiteke argitalpen hau: gerra-aurreko gehienak eta 1956-1984. etakoak).

Eskualduna eta *Herria*-ren almanaka “handi” horien ondoan, bada besterik ere Iparraldean, arrazoiren bat edo bestegatik interesgarri gertatzen dena.

Zuberoak historia beregaina du honetan ere: xuriek bezala gorriek beren almanakak izan zituzten. Berdoly-ren inguruko errepublikazaleek izan zuten aski indar berariazko urtekari bat kaleratzeko (*Almanaka berria edo Ziberouko eta Basa-nabarreko egunaria*: 1879tik 1890eraino agertu zena). Errepublikaren ongiak eta Konstituzioaren bikaitasunak aldarrikatzen zituen, halako zuhurtasun zaindu batez badaezpada.

Aldi berean, xuri elizkoiek Iribarne Zalgizeko erretorearen eskutik *Armanak uskara edo Ziberouko egunaria* argitaratu zuten (1887-1906)², eskola eta kongregazioen alde/kontrako borrokarik gordinenean xurien ahotsa goraki jaso zuena, Euskal Herria ahantzi gabe: kasu honetan, “Jinkoua eta herria! Zuhurtarizona eta lana! / Eta bizi bedi Uskalduna! Iao! Iao!” zioen ikurburuak.

Iparraldeko tradizioa izan zen hori dena. Hegoaldea beranduago, eta ziurki askoz motelago, ibili zen almanaken argitalpenetan. Aipatu dugu segidarik gabeko Ulibarri-rena (1815). Mende-erdia geroago etorri ziren hurrengoak: Hiru Probintzietarako *Eusquerasco pronosticua* (Bilbo, 1860), Tolosan argitara emandako *Euscaldun necazarien adisquidea* (1865-1866) eta Donostian S. Baroja-ren bi almanaka elebidunak (1877, 1878). Hortik aitzina, «calendariyo»-ak nagusitu ziren (iradoki zaigunez, *Calendario Zaragozano* ezaguna zen hori, gaur egun ere Donostian salgai dagoena). Erdal egutegi horiek desagertaraztea izan zen gero, ikusiko denez, euskarazko lehenengo egutegi-takoen xedea.

² *Armanak uskara*-ren bilduma oso bat Baionako Udal Liburutegian ikus daiteke, liburu bakarrak batean koadernaturik.

Urteroko horiek guztiek Euskal Herriko bi aldeetan ere utzi zuten gizartean ildorik urratuta, beren kopuruagatik, noski, eta baita zabaldu zituzten mezuengatik ere.

Iparraldeko almanaka haien hedapenaz ez dut aurkitu estatistikarik; hala ere, badakigu, Lafitte-k idatzi zuenez, *Eskualduna* astekaria 1908an 7.000 harpidedun izatera iritsi zela. Galde liteke horietarik zenbatek jaso ohi zuen almanaka ere. 1896an zera idatzi zuen Almanakak bere orrialdeetan (3-4. or.): "...kazeta baino anhitz gehiago hedatzen delakotz Almanaka..." honetan zenbait informazio errepikatu egingo zituela, alegia. Uste daiteke, gainera, 1900-1910. etako borroka ideologikoen garrantza ezagutuz, ez zuela zabalkunde hark batere behera egingo 1896tik aitzina, alderantziz baizik.

Baina baliospen koantitatiboen ondoan, ezin da ahantzita utzi almanaken alde koalitatibo soziala. Garaiko mentalitateen gain lan bortitza egin zuten, batzuetan jaun eta jabe izaki (*Eskualduna*-ren Almanakaren kasuan bezala), eta inoiz bertatik bertarako borroka politiko-erlijiosoan sarturik (Zuberoan gertatu zenaren arabera).

Hortaz, garaiko eta ondoko mentalitate herritarraren moldakuntza ezagutzeko, almanaka hauek aztertu beharra dago, lortu zituzten leku eta garrantziagatik. Berariazko balio historiko eta soziala ezagutu behar zaie urtealdi oroko argitalpen hauei, ezagumendu historiko-sozialerako.

EGUTEGI-TAKOAK (1898-2007)

Almanaken saioaren ondoren asmatu eta zabaldu zen egutegi-takoen ohi-tura, lehenik Hegoaldean, eta Iparraldean gero. Egutegi-molde berri honek sekulako arrakasta ezagutu du, eta izan badu oraindik ere, argitalpenen artean ediziorik handienak dituela eta irakur-egunerokotasunik leialenarekin, gainera.

Oro har, almanaken eta zehazkiago egutegi-takoen katalogatzeak, eta izandakoen bilduma osoak jasotzeak, aparteko zailtasunak dituzte, arrazoi ezberdinengatik: a) Luzaz iraundakoek, tituluz maiz aldatu izan dira (argitalpen beraren segida ezkutatuz), b) Urte jakin baterako balioa zutenez, jendeak ez ditu gorde izan, c) Takoak, gainera, egunez egun azkeneraino desegiteko sortuak dira, eta liburutegietan ere ez dira jeneralean gorde izan³.

³ Hiru liburutegitan daude batez ere egutegi-tako hauek: Urkixo Liburutegian (Donostia), Baionako Museoan eta Lazkaoko beneditarren euskal liburutegian.

Ziurki tako izandakoak aipatuko ditugu ondoko laukian. Zaila da horrelako besterik ez dela izan baieztatzea, baina bibliografia eta liburutegi pribatuetan ikusitakoen ostean, ondoko laukiko horretara mugatuko dugu egutegi-takoen zerrenda.

EUSKAL EGUTEGI-TAKOAK (1898-2007)

1898	<i>Lenengo Egutegi Bizkattarra</i>	S. Arana-Goiri
1909	<i>Euskal-Esnalearen Egundiya</i>	Euskal-Esnalea
1910-1936	<i>Euskal Egutegia</i>	I. López-Mendizabal
...1933...	<i>Eskual-Egutegia</i>	J. Elizalde "Zerbitzari" ⁴
1947-2007	<i>Arantzazuko A.M.ren Egutegia</i>	Garate/Zurutuza, etab.
c.1950-1957	<i>1950. Urthe Saindua</i>	Narbaitz (ACF) ⁵
1952-1981	<i>Arantzazuko A.M.ren Egutegia</i>	Frantziskotar bizkaitarrak
1958...	[Almanaka]	Eskualdun Gazteria
1974-1976	<i>Erri-Egutegia</i>	Goiz-Argi/Agur ⁶
1981-2007	<i>Euskerazaleak Alkatea: Egutegia</i>	M. Olazar eta beste
1985, 1987	<i>Akademia sekretuaren egutegia</i>	Erein; Pamiela.
1992...	<i>Argia. Egutegi.</i>	Argia Taldea
1996	<i>Literatur Egutegia</i>	Euskal Idazleen Elkartea
2007...	<i>Jesusen Bihotzaren Egutegia</i>	Mensajero argitaletxea

Gerra-aurrean bizpahiru tradizio ezberdin dituzte egutegi-takoek. Arana-Goirik hasi eta Euzkeltzale-Bazkunak segurtatu zuena (1908-1912, 1918, 1932, 1934, gutxienez), b) Euskal-Esnaleak sustatu eta I. López-Mendizabal-ek zuzendu zuena (1909-1936), eta Iparraldean Elizalde idazlearen ingurutik hedatutakoa (...1933...).

Gerraondoan, nahitaez franko aldatu ziren gauzak. Elkarte kultural eta politikoek isildu egin behar izan zuten Hegoaldean (Bizkaian Euzkeltzale-Bazkunaren gune politikoa desagertu zen, noski), eta López-Mendizabal Argentinan zegoen, egutegiari segida emateko modurik gabe. Iparraldean, oster, *Eskualduna*-ren desagertzeak, zeregin kulturalak birbanatzera behartu zuen euskaltzalegoa.

⁴ Egutegi honen oroitzapena hainbat lagunengatik baita bizirik dago oraindik ere, baina ez dut bilduma osorik ikusi ahal izan. Hemen eman dudana data ikusitako ale bakarrarena da (Baionako Museoko egutegi-sailean, hain zuzen); baina jakin badakigu zenbait urtetako biziak izan zuela Zerbitzari-ren honek.

⁵ Sortze-urtea ezin izan dut zehazki jakin.

⁶ Lazkaoko beneditarrenean ikusi ahal izan dut bilduma osoa.

Baina garbi zegoen, egutegiaren tradizioa ezin zitekeela zokora edo isil araz. Aipatu dugun betiko *Gure Almanaka*-ren kargu egin zen Lafitte. Bestalde, bi aldeetan, egutegi-takoen tradizioa indarberritu egin nahi izan zen: elizgizon euskaltzaleek hartu zuten beren gain eginkizun hori. Hegoaldean frantziskotarrek (J. A. Garate, 1947), eta Iparraldean Narbaitz-ek (c. 1950). Arrakasta luzeko bizitza izan dute, eta hamarkadatan zehar eskaintza bakar bana izan dira, bi aldeetan.

Arantzazuko Egutegia Hegoaldean kasik hogeita hamar urtetan bakarra izan eta gero, 1970.etan agertu zen beste egutegi-takorik (*Erri-Egutegia*, 1974). 1980.etatik hona osatu da, azkenik, Hegoaldeko egoera berria, egutegi-takoen aukera inoiz baino irekiagoa izateraino. Iparraldean, Narbaitz-en hura Eskualdun Gazteriaren eskuetara pasatu zen 1958an, handik hona urteroko emanaldia segurtatuz. Oro har, egutegi-tako politikoak desagertu egin dira, egutegi erlijioso eta euskaltzaleen mesedetan.

Egutegi-tako sabindarrak (1898...)

Laukian ikus dezakegunez, egun bakoitzerako orri eta testuekin osaturiko lehenengo “tako” Sabin Arana-Goiri-ri zor zaio, eta gaur egun ere eskueran dago haren *Obras Completas* deritzan edizioan (liburu gisara emana, noski: Buenos Aires, 1965: 1.401-1659). *Lenengo Egutegi Biskattarra* (s eta tileta eta guzti) zuen izenburua tako horrek, eta 1897an prestatuak, hurrengo urterako egutegia zen (1898). Izenak dioena gorabehera, *Lenengo Egutegi Biskattarra* Sabin-en bigarren egutegia zen, ordea.

Garaiko kanpaina-ekimenen artean lekutu behar ditugu bata eta bestea. Arana-Goirik egutegiaren lanari lehenengoz heldu zionean (1896), *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*-ren emanaldien barnean zabaldu zuen bere *Egutegi Bizkattarra* (1896) (ik. O. C. 983-1.015). eta xede jakin eta mugatu batekin egin zuen argitalpena: honen bidez euskal izendegi asmatu berria hedatu nahi zuelako. *Miren, Koldobika, Kepa* eta *Josu* aipatu zituen, adibidez, hitzaurrean, eta gero gainerako guztiak bildu egunez egun. Mende bat geroago gureak ditugu izen horiek, sortzaileak nahi izan zuen bezala.

Baina Arana-ren “tako” gisako egutegia, *Egutegi Bizkattarra* ez (1896), baizik aipatutako bigarrena izan zen: *Lenengo Egutegi Biskattarra* zeritzana (1897/1898). Tako honetan ere izendegiak leku nabaria zuen, baina baita euskal historiak eta geografiak, eta ideia politiko abertzaleek ere (ikurrina, Gernika, debeku politikoak, Bergarako Ituna, etab.). Tresna politiko baliagari bezala ikusi zuen, bada, Aranak egutegia, baina ez berak bakarrik.

Ezin izan dut jakin Arana-Goiri-ren egutegi-takoak zenbaterainoko segi-da izan zuen; baina, 1907 edo 1908an berriz ekinda, urte batzuetan luzatu zela bederen badakigu (Elexpuruk inprimatutako *Egutegi Bizkattarrak* 1910ean “III Urtealdija” esaten baitu). Gutxienik, 1932an agertu zen berriro (Arana-ren 1898ko ale batean Urkixok idatzitako oharrari sinetsi nahi badiogu, behintzat), eta 1934rako ere argitara zuen Euzkeltzale-Bazkunak *Egutegi Bizkattarra*-ren beste urtealdi bat.

Elkargo horrek berak emandako *Egutegi Euzkotarra* ere bada, uste dudanez, urte batzuetan bederen horrela deitu zena. Izenburu honekin eskue-tan izan ditudanak 1911 (?), 1912, 1914 eta 1918koak dira (J. U. 571, lehenen-go biak eta azkena; Baionako E. Museoan 1914koa). Guztiok ere, egutegi-tako bat bera direla esan beharko litzateke, tradizio-arrasto berean, irizpide eta xede berekin eta familiarte politiko beretik sortuak direlako.

1914koaren arabera, *Egutegi Euzkotarra*-k badu bereziki azpimarra daitekeenik: Bizkaian ateratakoa izanda ere (baina aurreko *Bizkattarra*, *Euzkotarra* bihurtuz), euskalki denei leku eman nahi die tako honek, eta tes-tuak nonahitik jasotzen ditu, baita Iparraldetik ere, kasu bakoitzean zein euskalkitakoa den propio aditzera emanaz.

Tolosatik bezala Bilbotik, egutegi-takoek Euskal Herri osora begira jarri nahirik zebiltzan 1910. haietan. Dena den, Bilboko sabindar hau ildo politiko jakin batean zihuan, eta inondik ere ez da harritzekoa agian Diktadurapean isildu behar izatea (1924-1930)⁷.

Euskal-Esnalearen asmoa (1909)

Euskal-Esnalearen egutegi-takoa izan zen urte haietan (1907-1914) berori batez ere euskararen aldeko tresna kultural bezala erabili nahi izan zuena. Elkarte hau jaio eta berehala heldu zitzaion *Egundiya* prestatzeari (1908), eta hurrengo urtean kalean zen egutegi berri hau, batik bat Gipuzkoara begira egina.

Euskal-Esnalea Elkartearen ekimenak historia honetan azpimarragarria den alde jakin bat gogoraraztera garamatza: euskal egutegi eta almanakak aldizkari eta elkarteen emaitza izan dira sarritan, eta batzuetan egutegi horixe gertatu izan da taldearen urteko lan nagusia ere.

⁷ Egindako kontsulta eta bilaketan artean ez dut lortu egutegi-tako sabindarrek jarrai-pen osorik (1910-1936) izan zutenaren segurtasunik; horregatik iradokitzen da hemen baliz-ko eten horren hipotesia.

Eliza erakundeenak izan dira zuzenean egutegi-tako batzuk: karmeldar edo frantziskotarrenak, nahiz laiko-elkarte eliztarrenak (Eskualdun Gazteria). Hizkuntzaren inguruko lagunarteetara gatozela, kultur elkarte ezagunak ibili ziren egutegi-tako batzuk egiten (Euzkeltzale-Bazkuna sabindarra, Campion/Mujikak gidaturiko Euskal-Esnalea).

Euskal-Esnaleak bere egutegi-takoa sortzea erabaki zuenean, Elkartearen eta bertako gidarien ideia-zabalkunderako deliberatu zen hori. Arana-k izen-degia hedatzeko aukeratutako bide bera, G. Mujikak euskal irakurlegaiak irabazteko pentsatu zuen, eta bide batez euskal sukaldeetatik erdal *calendariyo*-a desagertarazteko:

¡AGUR! Ona ni hemen, irakurlea, egundiya naiz eta euskaldunen echietatik aspaldiko calendariyoak betiko urrutiratzeako asmoak dakarzkít [...], begiratzen didazun bakoitzean amak erakutsi zizun izkeran zerbait izango det zuretzat. [...]. Ni nagon gelan, egundiya dagon tokian, calendariyorik ez det nai. Bakarrik bear det nik.-- Ara bada esan zertara bidaldu naun Euskal-Esnalea-k zure echera: urte askotan erderaz esan dizutena euskeraz esatera. ¡Gora euskera! (Ilbeltzak 1, atzealdean).

Euskaldunen irakur-ohiturak euskaldundu nahi zituen egutegi horrek. Ikusi besterik ez dago, testu horretaz gain, Elkartearen aldizkarian emandako arrazoiak: “Dicha Sociedad ha considerado, en efecto, que un calendario completamente euskérico puede ser un poderoso medio de propaganda del Euskera, fin al que dirige sus constantes esfuerzos. [...] Todo él está escrito en euskera”. Kanpaina aurrera eramateko, 2.000 aleko edizioa egin zen (*Euskal-Esnalea*. 1908, 155, 175, 181).

López-Mendizabal-en leialtasuna (1910-1936)

Esan bezala, egutegi-takoen artean, jarraia izan duen historia 1909an hasi zen Euskal-Esnalea elkarte eta aldizkariak ekinda, baina Elkarte horrek ez zion jarraipenik eman. Hau da, segur aski, X. López-Mendizabal-ek bere aitaren lehenengoa bezala gogorarazi digun edizioa: bi mila argitara bai, baina milaren bat bakarrik saldu zirenekoa, alegia. Baserritarrek ez omen zuten nahi euskarazko egutegirik, erdarazkoa baizik! (Ik. *Euskal-Esnalea*, 1909, 180-181).

Euskal-Esnalea Elkarreak bazituen bere ezin ekonomikoak argitalpenak aitzina eramateko (aldizkaria une batez desagertzearaino: 1910), eta lehen edizioeko salmenta-porrot horrek ez zion, noski, egutegi-takoari batere lagundu. Handik aurrera, Euskal-Esnaleak eskutik lagata eta aitaren baimenarekin,

Ixaak López-Mendizabal gazteak hartu zuen bere gain egutegien ardura⁸; ez zen bat bakarra, bi baizik López-Mendizabal-ek kaleratu ohi zituenak: bata, hormarako takoa (*Euskal-Egundiya*), eta patrikarako egutegi txikia bestea (liburuxka: *Euskal-Egundi txikiya*). Biak elkarren osagarri ziren, eta erosle bat berarentzakoak baina erabilera ezberdinekoak.

Garaiko abertzaletasunari berea eman zion noski, baina egutegiaren zereginean lehentasuna hizkuntzarenak zuen López-Mendizabal-entzat, horretan Euskal-Esnalearen arrasto bera segiz: “Gaurko euzkeldun geyenai galde egiyozute euzkera ez idazten, baizik irakurtzen badakiten eta ezetz erantzungo dizute. ¿Lotsagarriya ez al da au?”, galdetu zuen 1911ko lehen orritxoak. Egoera horri aurre egin nahirik eman ziren, bada, hurrengo pausoak.

Salmentan jasandako eskarmentuaren ondoren, egutegi euskaltzalearen asmoari jarraipenik ematekotan guztiz premiazkoa zen egutegi-takoaren eskaintza merkatu ahalik zabalenera egitea. Eta, horra, hamarkada dezente geroago eskola-liburuen produkzioak behar izan duen hizkuntzaren batasuna López-Mendizabal-ek espresuki nola aipatu zuen:

Harira gatozela, zientziaren, zehaztu-nahiaren edota merkataritzaren premiak kontuan hartuta, begien bistan dago ezin direla sinonimoak eta erdi-sinonimoak edonola erabil, ondorioz nahasbidea sortzea nahi ez bada behintzat. Hortxe dugu, adibidez, gure *hizki* famatua. Hitz hori, jatorriz, hitzaren morfema berezi batzuk adierazteko asmatu zen, hitz eratorrien sorrarazleak (erdarez *afijo*, *affixe*) batez ere, aurrean (*aurrizki*), tartean (*artizki*) zein atzean (*atzizki*) joan daitezkeenak, baina garbizaleek beste esangura ezarri nahi izan diote, hots, ‘letra’rena, eta hortik nahastea sortu zaigu. Horrela, gramatika arlo berezian nahitaez aipatu beharreko balio biko berba hori inolako irizpiderik gabe erabiliz, era honetako perlak sor litezke: “-tasun *hizkia bost hizkirekin idazten da*”, zeini bere izen propioa eman ez erraz sai-hets daitekeena: “-tasun *hizkia bost letrarekin idazten da*”.

Gauza bera gertatzen zaio, mendebaldeko euskaran bederen, *behar egin behar da* edo *behar handia daukat* gisako esaldien lekuan, gero eta gehiago entzuten dira *lan egin behar da* edo *lan handia daukat* modukoak, edozein tokitako euskaldunentzat ulergarriagoak. Anfibologi arrisku berberagatik, segur asko, galdu du hitz horrek behiala zeukan beste esan-nahi hura, ‘errua’ alegia. Izan ere, Lazarragaren testuetan (1564) ongi dokumentatzen den arren: *ene bearra da, ezta çurea* (1193v), 1596ko esaera zaharretan jada gaizki uler-

⁴⁴ “Badakigu Euskal Herrian eta Britainian badiren epailerik aski beren hizkuntzaz egin itzulpen horren ezartzeko?” Michel de Montaigne, *Entseinak I, LVI*, Klasikoak, Bilbo, 1992, 276. orr.

tua zen: *Odol bearbagea* “sangre sin ser necesaria” 208 RyS, eta arkaismo horrek Mogelen garaian sinonimo argigarria behar zuen: “*Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo culpa*” (*Conf. ta comuniocio sacr.* 189).

Puntu hau bereziki ukitu behar dela uste dut, euskaraz, oraindik, erabateko normalizazioa ez dugulako, hitz mordoa baitago, tokian tokiko erabilera bereziagatik, esangura ezberdina eta zehaztu gabea duenik, eta inoiz elkarren kontrakoa ere bai. Nabarmenenetako bat *loba, iloba, biloba* hirukotea dugu, euskalkien arabera ‘neba-arreben haurra’ edota ‘seme-alaben haurra’ eta are ‘seme-alaben haurren haurra’ ere esan nahi dutenak. Txillardegik behin baino gehiagotan azpimarratu duenez, arazoaren sustraia antzinako familiaren kontzeptuan datza, zeinetan hitz horrek ‘senide hurbil baten haurra’ esan nahi baitzuen, senide hori haurridea zein norbere haurra izan zitekeelarik.

Kontua, ordea, hauxe da: gaurko euskaldunok aspaldiko mendeetan mendebal zibilizazioan garatu den famili egituran murgildurik gaude, eta hor ongi bereizten dira, alde batetik neba-arreben haurrak (esp. *sobrino, -a*, fr. *neveu / nièce*, ing. *nephew / niece*, al. *Neffe / Nichte*) eta bestetik norbere seme-alabenak (esp. *nieto, -a*, fr. *petit-fils / petite-fille*, ing. *grandchild [grandson / granddaughter]*, al. *Enkel(in)*), eta horrek, nahitaez, senidetasun-harremman horiek zehatz adierazteko hitz homologatuak edukitzera behartzen gaitu, ez baitu hor ezertarako balio euskalkien ugaritasuna aipatzeak, delako aberasatasun horrek iluntasun eta nahasbidera garamatzanean. Beraz, korapilo hori askatzeko, lehenbailehen, arbitrarioki bada, ere, erabaki bat hartu beharko da, hizkuntza estandarrean bederen, hitz horietako bakoitzaren esangura behin-goz finkatzeko.

Beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, aditzen ondoan *orduko* jartzen denean. Horrela, *etorri orduko* perpausak leku batzuetan ‘etorri baino lehenago’ esan nahi du, baina beste batzuetan, aldiz, ‘etorri bezain laster’. Ondorioz, argitasunagatik, entzule edota irakurleak mezua oker uler ez dezan, jendeak era horretako esaerak baztertzeko joera du. Ordea, esangura hedatuenaren edota literaturako ohikoenaren arabera, *orduko* hori finkatuko balitz, bi esangura horietako bakarra ukan lezan, ez legoke arazorik mundu guztiak lasai erabiltzeko. Horrelako zerbait gertatu zen, adibidez, hilabeteen izen batuak erabakitzeko orduan *garagarrila* hitzarekin. Gipuzkoan ‘ekaina’ eta Bizkaian ‘uztaila’ esan gura zuela eta, azkenean, arazoa saihesteko, bazterturik gelditu zen, beste bien fabore.

Alderantzizko kasuak ere baditugu geure hizkuntzan, hots, berez sinonimo ez diren arren, halakoak balira bezala erabiltzen ditugun hitzak alegia: *zur / egur, jokatu / jolastu, haragia / okela, hodei / laino, ibai / erreka, ala / edo*. Hauen arazo nagusia hauxe izaten da: toki batzuetan, bi hitzak jakinda, hiz-

tunek biak balio banaz erabiltzen dituzte, baina beste leku batzuetan, ordea, horietako bat besterik ez dakite, eta bakar hori esangura bietan erabiltzen. Kasu hauetan, zeini bere esangura zehatza ematen ez bazaio, azkenean bikoteko bata nagusi geldituko da, aspaldian *egur*, *jolastu*, *laino* eta *edo*-rekin gertatzen hasi den bezala, *zur*, *jokatu*, *hodei* eta *ala* jatorrak ia erabat bazterteraino heldurik, orain arteko euskara aberatsagoaren kaltean.

Hizkuntza askotan gertatzen da hasieran sinonimo hutsak izandako hitzak denboraz espezializatorantz joatea, azkenean errealtate antzeko baina ezberdinei atxiki arte. Gaztelaniaz, adibidez, *tortuga* eta *galápago* hitzak sinonimo hutsak ziren, bata latinetik eta bestea, bide bitxietatik bada ere, arabieratik heldua. Izen horiekin narrasti oskoldunak adierazten dira, bai lehorrekoak (*Testudo graeca* eta *Testudo hermani*) eta bai uretakoak ere (*Emis orbicularis* eta *Mauremis caspica*). Espainolak Amerikara heldu, Ekuatore aldeko artxipelagoa aurkitu eta bertako dortoka handiak ikustean, *Islas Galápagos* deitu zieten, gaur arte dirauen izenaz. Geroago, ordea, Espainian *galápago* berba eskuarki erabiltzen den eskualdean nagusiki aurkitzen diren dortoka bakarrak uretakoak direnez, herpetologoaren artean *galápago* uretako dortokei hasi zitzaien esaten, eta gaurko erabileran, *tortuga* eta *galápago* ez dira jada erabat sinonimo espainieraz, lehena generikoa eta bigarrena aurrekoaren talde mugatuago bat izanez, hots, erreka-aintziretakoak, euskarazko *ume* eta *haur* hitzekin gertatzen den bereizkuntza bezalako bat sortu arte⁴⁵.

Era berean, gure haurtzaroan irakasten ziguten *mariposas diurnas* eta *mariposas nocturnas* bereizketa hura, oraingoan ingelesaren eraginez (*butterflies / moths*) *mariposas* eta *polillas* bilakatu da, inoiz euskaraz mimetikoki *tximeletak* eta *sitsak* gisa itzuliak. Bestetik, intsektu odonatuen bi talde nagusien kideak izendatzeko orduan, inguruko erdaretan beren *caballito del diablo / libélula* eta *demoiselle / libellule* bikoteekin oso bereizketa aproposa lortu dute, lehenak airean saltoka bezala hegaz dabiltzan eta pausatzean hegoak bertikalean uzten dituzten sorgin-orratz meheagoak (Isopteroak, Agrionidoen familiakoak) adierazteko, eta bigarrenak intsektu handiagoak eta pausatzean hegoak horizontalki uzten dituzten burrunziak (Anisopteroak, Libelulidoen familiakoak) aipatzeko utzirik. Euskaraz, neke handirik gabe,

⁴⁵ Euskal Herrian aurkitzen den kelonio bakarra *Emis orbicularis* da, Nafarroa eta Arabako urmael batzuetan basa bizi dena. Horren euskal izen klasikoa, gutxienez XIX. mendearen erdialdetik dokumentatua, *apoarmatua* da, alemanezko *Schildkröte* (= ‘ezkutu(dun) apoa’) antzera osatua, eta, berez, gaztelaniazko *galápago*-ren kidea da esanguraz. *Dortoka*, itxura denez, gure literaturan berriagoa da, eta erabilera orokorra du, gaztelaniazko *tortuga* bezalatsu.

gauza bera egin genezake geure *sorgin-orratz* / (*txitxi*)*burruntzi* ezagunekin ere.

Terminologia ez finkatzeak, gainera, arazo handiak ekar diezazkiguke. Pentsa dezagun zer nolako nahastea sor litekeen gure zoologi liburuetan euskaraz *ziraun* izena, oro har *Anguis fragilis* musker apodoa esan nahi duena⁴⁶, aldi berean zenbait lekutan daukan ‘sugegorri, bipera’ balioaz erabiliko balitz⁴⁷. Eta Ibon Sarasola lagunari, ingelesezko *shrimp* hitzaren balio anitza aipatuz, euskal *izkira*, oro har, erdarazko *quisquilla*, *camarón*, *quisquillon*, *gamba* eta *langostino*-ren balioaz erabiltzea proposatu digunari, adiskidetsuki esango nioke joan dadila edozein arrandegitara horrelako euskara “jatorra” erabiliz, ea zer ulertuko lioketen, ez baitut uste, euskaraz izen berbera dutelako aitzakiaz, zikalak ganben prezioan salduko dizkietenik⁴⁸. Edonola, *beharrak zaharra merkatura* delakoagatik, zuhurrago dabilta, oro har, gure gainerako hiztegieleak.

Antzeko arazoa gertatzen da *ekilore*, *eguzki-lore* eta *eguzki-belar* hitz itxuraz sinonimoekin ere, hiztegien arabera, hiru izenok bai eguzki itxurako lore handiak dauzkan eta jateko haziak eta olioia ematen duen landarea

⁴⁶ Bilboko erdaran ene haurtzaroan euskaratiko hitz batzuk bizi-bizirik zeuden oraindik: *saguchu*, *sogalinda* ‘*sugandila*’, *no dejar ni los ondaquimes...* . Horietako bat *sirón* zen, hots, euskarazko ‘zirauna’, beti ere pozoirik gabeko narrasti hankagabea adierazteko, frantsesez *orvet* deitua. Horren erdal izen “garbia” ez genuen ikasi askoz ere beranduagora arte. Alde batetik *enánago*, eta berorren aldaera *enano*, Enkarterri, Burgos eta Santander aldean erabiliak, eta bestetik *lución*, liburuen bidez finkatu dena. Narrastiei buruzko ikerketak eta bibliografia handitu ahala, zehaztasun-nahiak eta beharrak beste erdal sinonimoak erabat bazterturik utzi ditu aspaldion, adibidez *culebr(ill)a frágil* edo *culebr(ill)a de cristal*; seguraski izenaren desegokitasunagatik, izan, ez baitira sugeak. Bestea, *culebrilla ciega* alegia, okerragoa zen. Animaliaaren hedadura-mapari begiratzuz gero, argi dago *zirauna* penintsularen iparraldeko eskualde hezeetan bizi dela (Galizia, Asturias, Kantabria, Euskal Herria...) eta erabat falta dela erdialde eta hegoalde lehorrean. Hor baina, bada begirik gabeko beste narrasti hankagabe bat (*Blanus cinereus*), anfisbenidoen taldekoa, eta horko erdaldunek, gure zirauna inoiz ikusi gabeek, biak animalia bera zirelakoan, horrexen izena ematen zioten gureari ere. Gaur, ordea, gauzak zuzendu dira, eta fauna-eskuliburu guztietako *culebrilla ciega* esandako *Blenus cinerea*-ri egokiarazten zaio. Halere, RAC-en hiztegiak dioena egia bada behintzat, *lución* hitza azken buruan latinezko **luscidus* <*luscus* ‘itsu’ baldin bada- tor, izen horretan ezkutaturik dirauke gorago aipatu den okerrak.

⁴⁷ Arrazoi berberagatik, *salamandra* eta *salamandria* berbak hiztegieta oraindik *salamanquesa*-ren sinonimotzat agertu arren, erabat bazterturik daude literatura berezitutik hormetako dragoitxoei (*Tarentola mauritanica*) izena emateko, *salamandra*, soilki, euskaraz *arrabio* deritzon anfibioari baitagokio.

⁴⁸ Beherago azalduko denez, euskaraz izkiren itxurako krustazeoak bereiztekotan, ganbak eta zikalak izenak hobetsi beharko genituzke, *otarrainxkak* espainolez *cigalas* deritzenentzat utzirik.

(*Helianthus annuus*) eta bai gure baserrien ateetan jartzen den kardu zapal handia (*Carlina acanthifolia*) adierazten dituztelako. Azaleko itxura gorabehera, genero erabat ezberdina duten bi landare izendatzeko izen guztiok berdin erabiltzen diren bitartean, ez dira baliagarriak izango, nahasmendu-iturri baizik⁴⁹. Hortaz zentzuak eta premiak eskaturik, badirudi, jadanik hiztegi batzuetan egiten hasi denez, egokiena litzatekeela *eguzki-lore* tradizionala karduari esateko uztea, eta *ekilore* moldatu berria⁵⁰, aldiz, atzerritik ekarritako oliolandareari deitzeko, berau, laburragoa izanik, egokiagoa delako *ekilore-olioa* bezalako elkartuak egiteko, bestea baino⁵¹. *Eguzki-belar* delakoari dagokionez, bai erabilera urriagoatik eta bai landare hori deskribatzeko hitz elkartu aski desegokia delako (nekez esan dakioke *belar* metro bat baino luzeagoa den landare bati, edota, zurtoinik ezaz lurretik altxatu ere egiten ez den besteari) agian onena saihestea litzateke, erdaraz, adibidez, ‘erlea’ esateko, nonbaiteko *moscas de miel / mouches à miel* eredukoak baztertuz edo bigarren mailara iraganez joan diren bezala, *abeja* eta *abeille* estandarizatuen mesedetan.

Jean-Henri Fabre entomologo ospetsuak intsektuez idatziriko obra famatuan, txitxarrari eskaintzen dion kapituluan⁵², La Fontaine-ren alegia eza-

⁴⁹ Eta okerrago dena, azkenean elkar ulertzeko, inguruko erdaretara jo beharko, beroriek, orain arte bezala, hizkuntza serio, segur, arautu, argitzaile eta zehatz nagusizat kontsokratuz.

⁵⁰ Izatekotan, birmoldatua da *ekilore*, Zuberoa aldean, karduari esateko bederen, *eki-lilia* baita. Gogoan izan, bestalde, gure *ekilore*-ren bidetik sortuak direla, halaber, ing. *Sunflower* eta al. *Sonnenblume* ere.

⁵¹ Hitz bat aukeraterakoan, hitz elkartuetan maiz ukan dezakeen jarrerak ere bere garrantzia dauka, eta ez txikia. Gaztelaniaz, adibidez, errepikapena ekiditeko, *aceite de oliva* esaten da, hitzik arruntena *aceituna* den arren. Halaber, *Leopardo* eta *pantera* animalia berberaren izen sinonimoak izan arren, *pantera negra* besterik ez da erabiltzen gaztelaniaz, eta ez *leopardo negro* forma luzeagoa.

⁵² Ikus J.-H. Fabre, *Souvenirs entomologiques*, XIII, Ed. Robert Laffont, Paris, 1989, 1052-1054.orr. “A qui revient la responsabilité de ces étranges erreurs? La Fontaine, qui nous charme dans la plupart de ses fables par une exquise finesse d’observation, est ici bien mal inspiré. Il connaît à fond ses premiers sujets, le Renard, le Loup, le Chat, le Bouc, le Corbeau, le Rat, la Belette et tant d’autres, dont il nous raconte les faits et gestes avec une délicieuse précision de détails. Ce sont des personnages du pays, des voisins, des commensaux. Leur vie publique et privée se passe sous ses yeux; mais la Cigale est une étrangère là où gambade Jeannot Lapin; La Fontaine ne l’a jamais entendue, ne l’a jamais vue. Pour lui, la célèbre chanteuse est certainement une sauterelle. / Grandville, dont le crayon rivalise de fine malice avec le texte illustré, commet la même confusion. Dans son dessin, voici bien la Fourmi costumée en laborieuse ménagère. Sur le seuil de sa porte, à côté de gros sacs de blé, elle tourne dédaigneusement le dos à l’emprunteuse qui tend la patte, pardon, la main. Grand chapeau en cabriolet, guitare sous le bras, jupe collée aux mollets par la bise, tel est le second personnage, à effigie parfaite de sauterelle. Pas plus que La Fontaine, Grandville n’a soupçonné la vraie Cigale; il a magnifiquement traduit l’erreur générale”.

guna luzaz maiseatzen du, hots, *La cigale et la fourmi* deritzona, euskaraz eskuarki *Txitxarra eta inurria* gisa itzulia, eta hartan badiosku bai idazleak eta bai haren obren irudi-apaintzaileak ere, hots, Grandville-k, biak Frantziaren iparraldekoak izanez, ez zutela inoiz jakin txitxar delakoa egiazki zer den, intsektu hori, bereziki, hegoaldean bizi baita, eta horren orde, matxinsaltoa zerabilte la buruan.



Ene ustez, horixe bera gertatu zaigu euskaraz ere, eta oraingo honetan erremediorik gabe. Izan ere, gure euskara tradizionalki gorde izandako eremuan bizi den *Cicada* generoko intsektu bakarra, euli handi baten neurrikoa da, oso hegalari eta geldigaitza, eta horrexegatik gizabanako arruntentzat eskuarki ezin ikusizkoa⁵³. Egiazko txitxarra, mediterranearra, intsektu handiagoa da, oso zaratatsua, eta ez da hain izutia izaten. Horixe zen, hain zuzen, greziar alegialariek aipatzen zutena, geroago, La Fontaine-ren gaizki ulertuaz, gureganaino matxinsalto mozorroaz heldua. Gauzak horrela, ene ustez, *txitxar* izena, euskaraz konbentzionalki erdarazko *cigarra* edo *cigale* deritzonari esateko ohi darabilguna, berez ez zegokion intsektu hemiptero horri, ortoptero kantariren bati baizik, hots, kilker edo matxinsalto itxurako bati, *txirrita* bezalatsu⁵⁴. Edonola ere, hoberik eta egokiagorik ezaz, bego horretan euskaraz espaldion finkatua duguna⁵⁵.

⁵³ Egia esan, intsektu hau ikustea guztiz zaila da entomologo eta bildumatzailarentzat ere, bera kantatzen ari den zuhaitz abarrera norbait hurreratu bezain laster bat-batean isiltzen baita, eta gorputza marroixka eta hegalak gardenak dituenaz, ez da erraza non kokatua den antzematea. Gehiago hurbilduz gero, hegaz egiten du, urrunera ihesiz.

⁵⁴ P. Xarritonen zuzendaritzapean Elkarrek 1997an ateratako euskara-frantsesa /frantsesa-euskara hiztegian oker ulergarri berbera ageri da: **cigale**: tirritta, kilker. txitxar.

⁵⁵ Cfr. Bizkaiko *txirri-txirri* 'kilker', onomatopeia-hitza izanik, georgierazk **ჭრიჭინა** *č'rič'ina* –rekin antza duena. Segur aski *txitxarra* izena hasieran *Ephippiger* generoko kilker berde potolo hego gabeari zegokion euskaraz. Horiei penintsulako leku askotan “cigarras, chicharras o cigarrones” deitzen zaiela azaltzen du Espasa Entziklopediaren lehen edizioak.

Gaztelaniaz, dena den, gauza bera gertatzen da, eta jende gehienek ez dute behin ere benetako txitxarrrik ikusi. Are gehiago, asko dira *cigarra* arkanbeleari (= *Lucanus cervus*) deitzen diotenak, agian kakalardo horrek beren baraila luze eta sendoen artean batzuek jartzen dizkioten zigarroak hartzen dituelako, *cigarro-cigarra* izen-kidetasunean oinarriturik nonbait. Gogoratu behar da, bestalde, izen-jatorri bera duen itsaski ezagun baten kasuan, *zigala* izkira edo ganba handi eta zapal bati esan zaiola tradizionalki Euskal Herrian. Aldiz, *otarrainxka* edo *langostino* erreka karramarro edo abakando itxurako beste txikiago bat adierazteko erabili da, oskol gogor eta pintza zorrotzak dauzkana, frantsesez *langoustin* deitua, hain zuzen. Azken hamarkadetan baina, espainol erdararen eraginez, berorri *zigala* irizten hasi zaio, absurdoki *langostino-otarrainxka* izkira handientzat utzirik. Ene ustez, itxura-kidetasunaren logikaren arabera, euskaraz lehengo erabilera jatorra gorde beharko genuke⁵⁶.

ITZULGAIA ONGI ULERTU BEHARRAZ

Itzulpen-kontuen haria berrarturik, ez genuke ahantzi behar Georges-Louis Leclerc frantses ilustratuak, Buffon kondeak alegia, bere *Discours sur le style*-n (1753) ongi idazteaz zioena, hots, “*Pour bien écrire, il faut donc posséder pleinement son sujet...*”. Hori ondo itzultzeari ere aplikatu dakioke, eta gogorarazi, itzultzaileak, jatorrizko eta helburuzko hizkuntza biak ongi jakiteaz gainera, itzuli behar duen gaiaren jabe ere izan behar duela, gaizki ulertuak saihestu ahal izateko.

Xota Rustavelik, XII **არ ძალ-უც სრულ-ქმნა სიტყვათა გულისა** ^{ela} **გასაგმირეთა** n zituen: *ar dzal-utz srul-kmna sit'qvata, gulisa gasagmireta*⁵⁷ “Horrek ez daki zein hitzek hunkitzen duen bihotza”⁵⁸, eta esaldi hori ere, itzultzailei

⁵⁶ Mikel Morrisek bere euskal-ingeles hiztegian erdarazko ‘cigala’ *Norwegian lobster* itzultzen du, hots, ‘norvegiar otarraina’, krustazeo hori, itxuragatik, ganbekin ez baina otarrainekin elkartuz, hau da, gure otarrainxkekin, frantsesez bezala. Erdal *langostino*-a, aldiz, hots, gure *zigala*. ainatu hiztegiaren arabera. ingelesez *brawn* deitzen da.

⁵⁷ **ძოთა რუსთაველი, ვეფხისტყაოსანი, ტექსტი და ვარიანტები, გამომცემლობა მეცნიერებათა აკადემიისი 1966** (Sota Rustaveli, *vepxis-t'q'aosani, t'ekst'i da variant'ebi*, gamomcemloba mecniereba, Tbilisi, 1966) Edizio kritikoa, 16. berts. 2. ler.

⁵⁸ Ikus Rustaveli, Xota, *Zaldun tigrelarruduna*, X. Kintanaren itzulpena, Alfaguara-Zubia, Madril, 1999, 16. or.

egokiaraziz, zinez esan genezake itzultze-lana hitzez hitzeko aldatze lana barik, berba eta esaldi egokien etengabeko aukera dela, urreginak bere lanerako harribitxiak maisuki hautatzen duen xehetasun eta arta berberaz. Horrez gainera, itzultzeko lana literaturazko obra garrantzitsua baldin bada, itzultzailea egilearen barruan sartzeko ahalegina egin behar du, aktore ona bere pertsonaiarekin identifikatzen saiatzen den bezala

Gauza jakina da azteken apaizek piramide erpin motz itxurako beren tenpluetan jainkoei giza sakrifizio odoltsuak opetsi ohi zizkietela, inoiz biktimen bularra ebaki eta barrutik bihotza oraindik taupadaka atereaz. Bazen ordea, hori baino sakrifizio lazgarriagorik. Holakoetan apaiz nagusiak pertsona bat hil eta kontu handiz hari larrua kentzen zion, eta ondoren, oraindik odola zerion larru horrekin jantzirik agertzen omen zen tenpluaren goialdea, zereoniarekin segitzeko⁵⁹. *Mutatis mutandi*, –eta barka nazazue hain ekintza odoltsu eta makabroa hemen aipatzeagatik– itzultzaileak antzeko zerbait egin behar duela esango nuke, hots, bere gainean jatorrizko idazlearen larrua jantzi, edo haren barruan sartu eta hark bere hizkuntzan jardun bezala beste hizkuntzan aritu, bere pertsonaiaren psikologia ongi barneraturik daukan teatro-antzezlea bezala jokatu.

Gure hizkuntzari doakionez, horrek esan nahi du, euskaratzaileak, itzuli edo moldatzeko eman dioten gaia, ongi ulertzen ez badu, gutxienez horretaz diren hiztegien eta are bibliografia bereziaren berri ere ongi jakin eta horiek behar bezala kontsultatu beharko lituzkeela, bestek aspaldian aurkitu eta jada ongi bataiaturiko kontzeptuak berriro asmatzen ibili gabe. Eta Mediterraneoan aspaldian aurkitua dela gogoan izan⁶⁰.

Izan ere, askotxo dira, beren buruak profesionaltzat dauzkaten itzultzaileek egiten dituzten okerrak, eta hor argi ageri da, dirudienez, euskaraz tutik jakin gabe gure mintzairan liburuak argitaratzen dituzten argitaratzaileen kali-

⁵⁹ LEONARD, Jonathan Norton, *América precolombina*, Time-Life books, Amsterdam, 1979, 63. eta 67. orr.

⁶⁰ Inoiz sinesgaitza izaten da noraino hel daitekeen beren burua itzultzailetzat daukaten pertsona batzuen zabarkeria. Orainsu Banaka Multimedia argitaldaria haurrentzat plazaratu duen liburu ongi apaindu batean, *-Olentzerori buruz jakin behar duzun guztia* deritzo- gure ikazkinak, guztiok dakiguna errepikatuz, ardoa edaten duela esaten da, eta haren ondoan kokaturiko zahato arruntaren azpian *zahagia* hitza jarri da, *zahatoa* eta *zahagia* gauza bera balira bezala. Liburu berean, *txuletoia*, *txuletona* eta *txuletatzarra* irakur daitezke, inolako batasun eta koherentziarik gorde gabe. Edozein hiztegi ireki izan balu, euskaratzaileak erdaraz ere *pellejo* eta *bota* artean dagoen aldea ikas zezakeen. Eta beti ere haurren mundutik irten gabe, ez dut hemen gogoratu nahi *Erpurutxo* eta *Mari Errauskin* ipuin ezagunak lasai aski *Pulgarzito* eta *Zenizienta* izenez plazaratu zituen editoriala.

tate-kontrolik eza. Haurrei eta gaztetxoei begira egindako itzulpen batzuk aipatzera noa, Gabon-jaiotan opariak egiteko asmoz esku artean erabiliak.

Aurten Tarttalo argitaldaria *1.001 galdera eta erantzun. Ezagutzaren mundua* izeneko liburu eder eta ilustrazioz betea plazaratu digu, zazpi itzultzailearen artean euskaratua. Alde batetik, intsektu famatu batzuen izenak, inongo hizkuntzatarara itzultzen ez diren arren, euskaraz eman dira, eta gaizki. Eskuarki bere izen zientifikoaz aipatzen den *Dynastes hercules* hori ez baita “errinozero kakalardo” (40. or.), izen hori *Oryctes nasicornis* deritzonari ematen zaio eta. Era berean, 57. orrialdean *Sarracenia purpurea*-tzat erakusten den landare intsektu-jalea, izenak dioena barik, *Nepenthes* generokoa da, eta 45. orrialdean ageri den anfibioa euskaraz *uhandrea* deitzen da, eta ez “tritoia” erdarakada merkea.

Argialetxe berberak, urte berean, haurrentzako beste bi liburu ilustratu bikain eskaini dizkigu: *Haritza bizileku* eta *Larrea bizileku* deritzenak. Kortesian orrian obra horien jatorrizko izenburuak italieraz agertzen badira ere (*Vita intorno a un albero* eta *Vita in mezzo a un prato*), badirudi euskaratzaileek beren lana ingelesezko itzulpen batetik burutu dutela, ondoren esango dudanaren argitan. Liburutxo horretako batean Euskal Herrian bizi den sugerik handiena aipatzen da, hots *Elaphe longissima* deritzona.

Narrasti hori Aesculapius edo Eskulapioren maskotatzat hartzen zen Erroman, hots, medikuntzaren jainkoaren gogoko animaliatzat –grezieraz Asklepio deitzen zenaren latin-aldaera– eta hori gogoratzen digu oraindik Farmazia askotan kopa baten inguruan horrelako sugea agertzen duten irudiek. Tradizio luzeko sineskera horretatik heldu da Europako hizkuntza askotan suge eder horrek duen izena: gazt. *Culebra de Esculapio*, fr. *Couleuvre d’Esculape*, al. *Aeskulapnatter*, ingelesez jainkoaren izena era adjektibalean emanik: *Aesculapian snake*. Gurean U.Z.E.I.k, oso egoki, duela hogei bat urte jada *Eskulapioren sugea* gisa eman zuen, eta ez, bibliografia ez mitologia jakin gabe, aipaturiko liburu horren itzultzaileak jarri duen *Aesculapian sugea* !! bezalako xeblekeria.

Bestalde, harrigarria dirudi, non eta mikologo eta perretxikozaleen aberri den Euskal Herri honetan, *Morchella* generoko zizak gure hizkuntzan *kar-raspinak* deitzen direla ez jakitea, edota edonondik garo-usaina darigun euskaldunok *hirusta zuria* eta *sekula-belarra* bereizten ez jakitea.

Baina, xeblereena, segur aski, beste hau dateke. Euskaraz, gaztelaniaz bezala, hitz bi ditugu geure faunako bi narrasti ezagun izendatu eta elkarrengandik bereizteko: batari *muskerra* deritzogu eta besteari, aldiz, *sugandila*, espainolez *lagarto* eta *lagartija*, hurrenez hurren.

Lehena narrasti handi eta berdea dugu, eta eskuarki gure ipar eta erdi aldeko zelai eta txaradietan bizi da (*Lacerta viridis* eta *Lacerta schreiberi* espezieak). Arabaren eta Nafarroaren hegoaldean, aldiz, bada beste mota bat, bertakoek *gardatxo* deitua⁶¹. *Sugandila*, ordea, narrasti txiki eta marroixka bati esaten diogu (normalean *Podarcis* generokoa), eta hiri eta baserri inguruko hormetan erraz aurki daiteke.

Europako beste hizkuntza batzuetan, ordea, bi-biek izen generiko berbera daukate eta adjektibo edo ‘berde, esmeralda’ edo ‘hormetakoa’ esan nahi duen eranskinen batez bereizten dituzte elkarren artean: fr. *Lézard vert* / *Lézard des murailles*, ing. *Green Lizard* / *Common wall Lizard*, al. *Smaragdeidechse* / *Mauereidechse*. Esandako *Larrea bizileku* liburu horretan, itzulpena, dirudienez, zuzenik ingelesetik egin da, eta gure arteko edozein haurrek izen banaz ongi bereizten dakienaren kontra, ilustrazioan ageri den musker politari “sugandila berdea” deitzen zaio, harrigarriro.

Muskerraren izena dela eta, lehenago *galápagoa*-z esandakoaren ildotik, Amerikan gauza interesgarria gertatu da. Hara helduriko lehen kolonizatzaile espainolek bertako kaimanak ikustean, horiek izendatzeko erdal hitzik ez zekitenez –beren kultur maila eskaseko erregistroan ez baitzeukaten *cocodrilo* hitza, garai hartan gaurko *okapi* edo *tuatara* bezain jaso– beren herriko *gardatxoekin* konparatu zituzten, eta *lagarto* izena eman. Horrela deitzen zioten duela gutxi estatubatuarrek Mexikoko erdarara itzuliriko marrazki bizidunetako pertsonaia bati, gure telebistetan orain zenbait urte agertzen zenari: *El lagarto Juancho*; baina izan, krokodiloa zen.

Ez da baina, *lagarto* horien kontua hor gelditu. Ingeles kolonoek ere ez zituzten krokodiloak ezagutzen eta horien izena espainolengandik mailegatu zuten, hura beren erara ahoskatuz. Horra hor *alligator* ezagunaren etimologia, azken buruan, erdarazko *el-lagarto*-tik abiatua. Eta ondoren ingelesetik berriz ere gaztelaniara itzuli da, *aligator* gisa.

Agian norbaitek pentsa lezake, –horixe izan baita orain arte euskaldunok era honetako arazoetan izaten dugun ohiko jokabidea– salatzen ditudan “okertxo” hauek, azken buruan, arlo bereziegiei dagozkiela, eta itzulpenok,

⁶¹ *Gardatxo* izena erdaraz ere oso arrunta da Nafarroaren hegoaldean eta, itxura osoaren arabera, bideren batetik katalanezko *llangardaix*-etik iritsi zaigu, hasierako silaba galduz, berori artikulutzat harturik, nonbait (Cf. Valentziako katalanerazko *fyrdatxo*). Gure herpetofaunako musker erraldoi honen zientzi izena, –muturretik buztanaren puntaraino 70 cm ukan ditzakeenarena– *Lacerta lepida* izan da oraintsura arte, baina azken taxonomi aldaketaren arabera badirudi hemendik aurrera *Timon lepidus* deitu beharko diogula.

segur aski estuegi juzgatzen ditudala. Bada garaia, ordea, kontura gaitezen testu berberoriek inguruko erdaraz eskaintzen direnean, horrelako xehetasunak banan-banan oso ongi zaintzen direla, haurrek eta gazteek gauzak zuzen, argi eta zehatz irakur eta ikas ditzaten. Zehaztasun eta normaltasun-kontuoi jaramonik ez egitean, gure utzikeriarekin, azken buruan, euskaldunok kultura eta zientziarako erdara horien nagusitasuna bermatu besterik ez dugu egiten, gure hizkuntza, aldiz, bigarren mailako, gutxi gorabeherako tresna eta zale gutxi batzuentzako bitxitzat zokoraturik, eta gauza serioak zehatz jakin nahi ditugunean, erdara horietara jotzea nahitaezko bihurtzen.

Beude bada hemen hitz-mitzen arteko kontsidero nahasiok, irakurleari gogoeta eta kritika eragiteko asmoz idatziak. Bukatzeko, hel bekizkio Jean Haritschelhar jaunari, Euskaltzaindiaren gidaritza hainbeste urtetan duintasun handiz eraman duenari, beti ere ipar eta hego Euskal herriaren kultur eta sentimenduen lotura nabarmentzen egin duen ahaleginagatik, ene goresmenak eta esker oneko goraintzirik bihotzetikoenak.

ARABAKO EUSKARA XIX. MENDEAREN HASTEAN. PRESTAMEROREN ARGIBIDEA HUMBOLDT-EN ONDAREAN

Henrike KNÖRR

1. Krakowian gordetzen den Humboldt-en ondarean bada dokumentu interesgarri bat, Arabako zer herritan euskara mintzaten den esaten diguna.¹

Argibide hori emateko, egileak Diputazioaren inprimaki ofizialeko zerrenda bat erabili zuen. Zerrenda hori administrazio zibilari zegokion, eta ez elizaren administrazioari. Hau da: herriak ez datoz bikarien arabera, baizik talde (gaztelaniaz *cuadrilla*) eta hermandadeen arabera. Taldearen edo hermandadearen izenaren eskuinaldean eskuz idatzi zituen datuak, hizkuntzari buruzkoak, batetik, eta gehienetan talde edo hermandadeetan zenbat familia-buru (*vecinos*) ziren, gehi batzuetan bestelako informazio bat. Hogeita hiru orrialde ditu dokumentuak, zenbakiz hornituak 751etik 773ra; garai hartan ezarri zenbakiak dirudite.

Zalantzarik gabe, Lorenzo del Prestamero (1733-1817) dugu argibide-emailea; letra harena da (nahiz bigarren pertsona bat tartean datekeen). Urizaharreko semea, apaiza, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kidea eta idazkariordea eta Espainiako Historia Akademiako urgazlea, Prestamerok lan handia egin zuen eta, besteak beste, Akademiak 1802an atera zuen *Diccionario Geográfico-Histórico* izenekoan. Pentsatu behar dugu Humboldt-ek eskatu ziola informazio hau. Urterik ez du izkribuak. Litekeena da Humboldt-en bigarren bidaian egina eta bildua izatea, hots, 1801ean.

¹ 5.166 zenbakia darama dokumentu honek. Euskaltzaindiaren liburutegiko mikrofil-maz baliatu naiz.

2. Ezaguna da Prestamerok Arabako euskararen egoeraz egin zuela lan bat, adierazteko zer herritan mintzatzen zen gure hizkuntza. 1803 ingurukoa da lan hori. Orain, Angel Ibisateren artikulu bikainari esker (ikus Ibisate 2001) ongi ulertzen dugu zerk eraginik idatzi zuen Prestamerok lan hori. Gatazka-giro zail batean bizi zen Araban Eliza, eta auzia zen nork izendatu behar zituen erretoreak eta apaiz-lagunak; dokumentu hark “carácter dialéctico” zuela dio Ibisatek, arrazoi osoz. Beste hau, aldiz, Humboldtten jakinminari dagokio, seguru aski.

3. Gure dokumentuaren lehen orrialdean, letra handiz, eta gurutze baten azpian, hau irakurtzen dugu:

LISTA
DE LAS QUADRILLAS, HERMANDADES
Y PUEBLOS
DE QUE SE COMPONE ESTA M.N. Y M.L. PROVINCIA
DE ALAVA

Eta ondoren hasten da herrien zerrenda. Zazpi taldetan daude hauek banatuak. Gure edizioan testua dagoen dagoenean ematen dugu, oharrez hor-nitua, behar denean. Eskuzko informazioa guk letra etzanez ematen dugu. Originalean italikoz dagoena guk letra normala bihurtu dugu, biak nahas ez daitezten. Laburdurak garatu ditugu (adibidez, *Hermd.* > *Hermandad*), salbu M.N. Y M.L., hots, “Muy noble y muy leal”. Puntuazioa errespetatu dugu, bai eta letra larriz eta xeheaz, baita zenbakien ondoan (“2198. vezinos”, adibidez).

4. Dokumentua.

LISTA
DE LAS QUADRILLAS, HERMANDADES
Y PUEBLOS
DE QUE SE COMPONE ESTA M.N. Y M.L. PROVINCIA
DE ALAVA

QUADRILLA PRIMERA DE VITORIA²

Hermandad de Vitoria *En muchos pueblos de esta hermandad particularmente en los situados el norte se habla bascuence y romance y en Vitoria por razon del comercio casi todos le hablan. 2198. vezinos ind. [?]³ 1769.*

² Lehenik “QUADRILLA DE VITORIA” inprimaturik zegoen, eta gero zuzendu eta “PRIMERA” azpiko gezi baten bitartez sartu, batetik, eta “DE” tatxatu. “PRIMERA” eta “DE” eskuz idatziak dira, irakurleak argazkiak ikus dezakeenez.

³ Ez da ongi irakurtzen eta ez dago garbi laburdura hau.

1

ABechuco ⁴
Aberasturi
Ali
Amarita
Arcaya
Arcaute
Arechavaleta
Argandoña
Armentia
Arriaga
Ascarza
Berrosteguieta
Betoño
Bolibar
Castillo
Cerio
Crispijana
Elorriaga
Gamarra mayor
Gamarra menor
Gamiz
Gardeliguí ⁵
Gobeo
Gomecha
Junguitu
Lasarte
Lermanda
Lubiano
Matauco
Mendiola
Miñano mayor
Miñano menor
Monasterioguren
Retana
Oreytia
Otazu

⁴ Lehenbiziko bi letrak larriz hemen eta pareko kasuetan, hots, talde bakoitzeko lehen herrian.

⁵ Aski arrunta izan da forma hau, *i* -*i* bukaeran asimilazioz

Villafranca
Vitoria
Ullibarri-Arazua
Ullibarri de los Olleros
Ilarraza
Subijana
Zuazo
Zumelzu

Hermandad de
Añana.

2

Añana
Astulez
Atiega
Caranca
Puente-Larrá
Sobrón

Hermandad de
Bernedo.⁶

3

Angostina
Bernedo
Navarrete
Villa-Fria

Hermandad de Guebara *se representa por Procurador o Diputado Provincial que envía esta Hermandad desde el año de [sic] se habla el bascuence y romance [sic]. 90. vezinos.*

Elguea
Etura
Guebara
Urizar

⁶ “Hermandad de Bernedo”-ren gainean 3 idatzi zen lehenik, eta gero gainmarratu zen.

Hermandad de *Envia Procurador por acuerdo de la Junta de 20 de*
Berguenda y *Noviembre del 1799. 102. vezinos.*
Fontecha

5

Berguenda
Fontecha

Hermandad de Estavillo y
Armiñon.

6

Armiñon
Estavillo

Hermandad de
Morillas.

7

Morillas
Ormijana
Subijana

Hermandad de
Labraza.

8

Barriobusto
Labraza

Hermandad de Tuyó.

9

Tuyó

Hermandad de Portilla.

10

Portilla

Hermandad de
Ijona

11

Ijona *se habla el bascuence 20. vezinos*

Hermandad de
Martioda

12

Martioda *se habla el bascuence 20. vezinos.*

Hermandad de
Oquina

13

Oquina

Hermandad de
Bellogin

14

Bellogin

Hermandad de
Larrinzar

15

Larrinzar *se habla el bascuence 8. vezinos.*

Hermandad de
Andollu

16

Andollu

Hermandad de *se habla el bascuence 5. vezinos.*
Lacha y
Barria.

17

Lacha y Barria

*Hermanidad de San
Juan de Mendiola
Extinguida*

QUADRILLA SEGUNDA DE SALVATIERRA⁷

Hermanidad de
Salvatierra.

1

ALangua
Arrizaga⁸
Eguilior
Opaqua
Salvatierra

Hermanidad de *se habla en la mayor parte de estos Pueblos 328. vezinos*
Iruraiz.

2

Acilu
Alayza
Alegria
Añua
Arbulo
Argomaniz
Arrieta
Eguileta
Esquerecocha
Gaceo
Gaceta
Gauna
Guereñu
Herenchun
Jauregui

⁷ Aurrekoan bezala, lehenik “QUADRILLA DE SALVATIERRA” idatzi zen, eta gero gezi baten bidez “SEGUNDA” sartu.

⁸ Sic (*Arrizala* espero zen).

Langarica
Luscando
Troconiz

Hermandad de
Arana.

3

Alda
Contrasta
San Vicente
Ullibarri de Arana

Hermandad de *se habla bascuence 395. vezinos*
San Millan.

4

Adana
Albeniz
Aspuru
Chinchetru
Eguilaz
Galarreta
Luzuriaga
Mezquia
Munain
Narbaja
Ocariz
Ordoñana
San Roman
Vicuña
Ullibarri-Jauregui
Zuazo

Hermandad de
Arraya, y la
Minoria.

5

Alecha
Apellaniz
Arenaza

Arlucea
Atauri
Azaceta
Berroci
Cicujano
Corres
Leorza
Maestu
Onraita
Roytegui
Vurgala mayor
Vurgala menor
Urarte
Ibisate
Igoroin
Izarza

Hermandad de
Campezo

6

Antoñana
Bujanda
Orbisu
Oteo
Sabando
Santa Cruz de Campezo
San Roman

QUADRILLA TERCERA DE AYALA⁹

Hermandad de Ayala.¹⁰ *se habla bascuence y se hace mayor uso del romance 1884. vezinos*

AGuiñiga
Añes
Amurrio

⁹ Hemen ere, lehenik “QUADRILLA DE AYALA” idatzi zen, eta gero gezi baten bidez “TERCERA” eskuz tartekatu.

¹⁰ Hemendik aitzina zenbakirik ez.

Astobiza
Barambio
Costera
Echegoyen
Erbi
Larrimbe
Lecamaña
Lexarzo
Lezama
Llanteno
Luyando
Luxo
Madaria
Maroño
Menagaray
Mendieta
Menoyo
Murga
Oceca
Olabazar
Oquendo
Quejana
Respaldiza
Retes de Llanteno
Retes de Tudela
Salmanton
Santa Coloma
Saracho
Sojo
Sojoguti¹¹
Veotegui
Izoria
Zuaza

Hermandad de *se habla bascuence y romance* 94. *vezinos*
Arciniega

Arciniega
Campijo
Gordeliz

¹¹ Hutsa da: Sojoguti Artziniegako hermandadeari dagokio (ikus beherago, hermandade horretan).

Sojoguti
Villasus

Hermandad de *bascuence 476. vezinos*
Llodio.

Quadrilla de Gogenuri
Idem, Larra
Idem, Larrazabal
Idem. Olarte

Hermandad de *bascuence y romance 144. vezinos*
Arrastaria.

Aloria
Artomaña
Delica
Tertanga

Hermandad de *bascuence y romance 115. vezinos*
Urcabustaiz.

Abecia
Abornicano
Apreguindana
Beliunza
Gujuli
Larrasqueta
Ondona
Oyardo
Unza
Uzquiano
Izarra

QUADRILLA CUARTA DE LAGUARDIA¹²

Hermandad de
Laguardia.

Baños de Ebro
Cripán

¹² Lehenik “QUADRILLA DE LAGUARDIA” idatzi zen, eta gero gezi baten bidez “QUARTA” eskuz tartekatu.

Elciego
Elvillar
Laguardia
Lanciego
Moreda
Navaridas
Oyon
Leza
Paganos
Puebla de la Barca
Samaniego
Villa-Buena
Yecora

Hermandad de
Tierras del
Conde.

Baroja
Berganzo
Faydo
Labastida
Lagran
Loza
Montoria
Ocia
Payueta
Peñacerrada
Pipaon
Villaverde
Zumento

Hermandad de
Salinillas.

Salinillas de Buradon

Hermandad de
Marquinez.

Marquinez
Quintana
Urturi

Hermanidad de
Brantevilla.

Brantevilla
Escanzana
Lacervilla
Mijancas
Santa Cruz
Santa Maria
Santurde
Tobera
Zambrana

Hermanidad de *bascuence y poquisimo romance 440. vezinos*
Aramayona.

Arejola
Azcoaga
Barajuen
Echaguen
Ganzaga
Olaeta
Uncella
Uribarri
Zalgo, ó Ibarra

Hermanidad de *bascuence y romance 240. vezinos*
Villa-Real.

Elosu
Gojain
Nafarrate
Villa-Real
Urbina
Urrunaga

QUADRILLA DE MENDOZA¹³

Hermanidad de
Mendoza.

¹³ Hemen, berriz, taldea ez da zenbakiz hornitu.

Estarrona
Mendoza

Hermandad de Cigoytia *basquence y romance 393. vezinos*

Acosta
Apodaca
Berricano
Buruaga
Cestafe
Echaguen
Echavarri
Eribe
Gopegui
Larrinoa
Letona
Manurga
Mendarozqueta
Murua
Olano
Ondategui
Zaytegui

Hermandad de
Ubarrundia.

Betolaza
Ciriano
Landa
Luco
Ullibarri-Gamboa

Hermandad de Arrazua. *basquence y romance 97. vezinos*

Arroyabe
Arzubiaga
Durana
Mendivil
Zurbano

Hermandad de Badayoz.

Antezana
Aranguiz

Artaza
Asteguieta
Foronda
Guereña
Legarda
Lopidana
Mandojana
Mendiguren
Otaza
Ullibarri de Viña
Yurre

Hermandad de
Los Guetos.

Gueto de Arriba
Gueto de Abajo

Hermandad de *bascuence y romance 66. vezinos*
Iruña.

Ttespuentes
Villodas
Iruña

Hermandad de
Lacozmonte.

Artaza
Barron
Cárcamo¹⁴
Escota
Fresneda
Guinea

Hermandad de *bascuence y romance 262. vezinos*
Barrundia.

Audicana
Dallo

¹⁴ Azentudun originalean.

Echavarri
Heredia
Hermua
Larrea
Maturana
Otaza
Ozaeta
Zuazola

Hermandad de *bascuence y romance*¹⁵
Asparrena.

Amezaga
Andoin
Araya
Arriola
Eguino
Gordoa
Urabain
Ibarguren
Ilarduya
Zalduendo

Hermandad de *bascuence y romance 161. vecinos*
Gamboa.

Azua
Garayo
Marieta
Mendijur
Mendizabal
Nanclares
Orenin
Zuazo

Hermandad de
Ariñez.

Ariñez
Esquivel
Margarita

¹⁵ Biztanleriaz daturik ez.

QUADRILLA DE ZUYA¹⁶

Hemadad de *bascuence y romance 373. vezinos*
Zuya.

Amezaga
Aperregui
Arechaga
Domayquia
Guillerna
Jugo
Luquiano
Marquina
Murguia
Sarria
Vitriano
Zarate

Hermanadad de
Quartango

Anda
Andagoya
Apricano
Archua
Arriano
Catadiano
Echavarri
Guillarte
Jócano¹⁷
Marinda
Santa Eulalia
Sendadiano
Tortura
Villamanca
Ullibarri
Urbina de Basabe
Urbina de Eza
Inurrita
Zuazo

¹⁶ Besterik gabe.

¹⁷ Azentudun originalean.

Hermandad de
la Ribera.

Antezana	
Anucita	
Arbigano	
Arreo	
Basquiñuelas	
Carasta	
Castillo	
Caycedo de Sopena	
Caycedo de Yuso	
Comunion	
Hereña	
Lacorzana	
Lasierra	
Leciñana del Camino	
Leciñana de la Oca	
Mantuvite	
Manzanos	
Melledes	
Molinilla	
Nanclares	
Nuvilla	
Ollabarri	
Paul	
Pobes	
Quintanilla	
Ribaguda	
Ribabellosa	
Salcedo	
San Miguel	
San Pelayo	
Turiso	
Viloria	
Villambrosa	
Villa-Lengua ¹⁸	
Villabezana	
Igay	

¹⁸ *Villa-Luenga* behar zen.

Hermanidad de
Baldegovia.

Acebedo	
Alcedo	
Bachicabo	
Balluerca	
Barrio	
Basabe	
Bobeda	
Corro	
Espejo	
Gurendez	
Mioma	
Nograro	
Osma	
Pinedo	
Quejo	
Quintanilla	
Tovillas	
Tuesta	
Villamaderne	
Villanañe	
Villa-Nueva	

Hermanidad de
Balderejo.

Lalastra	
Laoz	
Ribera	
Villamardones	

[Humboldten oharra, Nafarroari buruz, izkribuaren azken orrialdean. Ezagutzen ez dugun beste zerrenda baten gainean mintzo da.]

In allen angezeigten Orten predigt man Vasquisch. Navarra hat 300000 Einwohner. Man spricht im ganzen Norden in den an Alava, Guipuzcoa und die Pyrenaeen angränzenden Theilen, und auch in Pamplona Vasquisch¹⁹]

¹⁹ Hots: "Ezarriak diren herri guztietan euskaraz predikatzen da. Nafarroak 300.000 biztanle ditu. Euskaraz mintzatzen da Araba, Gipuzkoa eta Pirinioen mugakide diren aldeetan, bai eta Iruñean ere".

4. Nabari da dokumentuak baduela halako zirriborro itxura. Argibidean ez da sakontzen. Harrigarria da, demagun, Kanpezuko hermandadea guztiz erdalduna agertzea, dakigularik Sabandon, 1870 inguruan, euskaraz hitz egingen zela²⁰.

BIBLIOGRAFIA

- BARANDIARAN, José Miguel. 1926. "El euskera en Alava a fines del siglo XVIII". *RIEV* 17, 464-467. Facsimile moduan egile beraren *Obras Completas*-en, III: *Ikuska 1º (Artículos y conferencias)*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo 1973. Osorik argitaratu zen *Geografía histórica de la lengua vasca liburuan, Auñamendi, Donostia 1960 (2. argitaraldia 1966)*, 361-365.
- IBISATE, Angel. 2001. "El euskera en Alava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiaran de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado". *Euskera* 46:2, 783-803.
- KNÖRR, Henrike. 1998. *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Alava / Arabako euskarari buruz jakin behar dena*. Caja Vital, Gasteiz.
- OTSOA DE ALDA, Jabier, eta Estibalitz BREÑAS. 2002. *Arabako euskal hotsak. Antecedentes del euskera en Alava*. GEU, Gasteiz.

²⁰ Ikus Knörr 1998, 17, eta 9. oharra.

50 BAT APEZ PILOTARI

Emile LARRE

Euskal Herriaren berri eman nahi diozularik arrotzari lasterbidez, ez ibil mila xendra eta jakingarritan gaindi iduri-ta denak salatu beharrez. Aitzitik, hobe duzu, non ez duzun argazki tresna on bat eskutan, plazako karta postal saltegrainoko bat egitea. Joan Ainhoarat, Iholdirat, Urruñarat, Ortzaize edo Barkoxerat, edo nahi duzunerat, Iparralde huntako herrietan baita segur hautua.



*Ezkerretik eskuinerat: P. Damestoy, Fr. Harriet - M. Gozterratxu bi apezak,
Durruty, lau profesionalak*

Bakoitxak ikusia du hor, batere herri huntan ibilia den ber, bi seinale badi-
tuztela herritoeak, elgarretarik ezin berexiak, eliza batetik eta plaza bestetik.
Ez, ez baitzuen ustegabetarik asmatu lehenagoko kantuzaleak kantatu zirto
hau, hain ezagutua: « *Elizatikan konbentaraino egin digute galtzara !* »
Nork ez asma hor erreki begi kliska batean, bazuela bien arteko galtzara hor-
rek ostatuño bat ere bihurgunean, eta plaza ez urrun ! Eta ez dugu arrazoin
hori hor bakarrik ikusten, Etxahun- Irurik polliki osaturik duguna : « *Zer
lizateke Euskal Herria pilotarik gabe !* »

Eta eliza-komentu-plaza arteko galtzaran nork ez du kurutzatu apeza !
Heletako Bestaberri hartan adibidez, sakramendu sainduaren ospakizunean
doatzilarik apeza eta oro kantari eta soinulari. Halaber Baigorri, Aldude, edo
Saran bazoalarik urrats berean gizonen lerroa elizako kalerietarik plazako ha-
rrimailetara bezperen ondoko partidarat deplauki. Jaun ertorak hor, denen
erdian, bazaukan bai bere mailaren patxada sotana beltz luzean, noiz eta xape-
la kendurik xutitzen baitzen eguerdiko 12ak jotzean xuxen anjelusaren haste-
ko, jende hauek guziek apalagotik murmurikatuz mariasainduak barbarbar
pilota partida gelditurik.

Horiek oro jakin behar zituen arrotzak, ondotik jinen diren hauetaz jabe-
tzeko : Euskal Herrian apezak berak pilotan eta jokoan, apez jauntzi edo galtza
xuritan, ez baitzuen harek egundaino holakorik ikusi beste edozein kiroletan,
dela rugby, futbola, lasterka, jauzika, boxeoan edo beste. Eta zergatik ote bitxi-
keria hori ? Lehen arrazoina haxe naski : ez dela batere berdina pilota ez eta
pilotariarena. Hasteko ta bat, holakoa baita pilota bera, joko sano eta garbia bat
baldin bada, eta errespetuz bete ez batere tirabiraka, ez elgarbotaka, eta ez bo-
rroka edo muturrekoka, are gutiago. Bainan gizona lerdan, ontsa emana, ederki
jauntzia, beti xutik eta nobleki ibilki ezteietarat doan jaun edo andere esposaren
pare. Horiek dazkienak badaki zertako duen pilotak orai eta aspaldian bere pla-
zagizon saria, eta plazamutilarena, hau berriagoa gaztetxoan sustagarri, izarra
gora erakusten deiela Etxahun batek berak kantu-olerki apainduan , hots pilo-
taria « *aingüriaren pare eta khorpitza sano , zohardi begia* » eta holakoak
nola ez du izanen legetzat « *leialki plazan jokatzia !* »


Pilotaren maila bai batetik, Elizarena bestetik, alta Xalbador batek ere
beha nola dituen errespetu berera goratzen, Baigorri herriari egina dion gores-
men hartan, erakusten dituelarik « *astean lanean, igandez elizan,* » eta :

« *Igande aratsaldez zoin den zoragarri
Baigorriko gazteak plazan pilotari
Handik etxerakoan euskaraz kantari
Etsenplu har dezagun zu baitan, Baigorri* »

Bai, zinez, Xalbadorrek erakusten duen hats bero hortan berean ginen gu
hazi bimilagarren urterainokoa ezagutu ginuen hok. Suerte onez nihaur ape-

zai nintzalarik ikasi izan dut nik ere, ene lagun frangok bezala, banuela oseba, otto Piarre, 14eko gerla aitzinean makila ferratua irabazia zuena, Maulen, Baigorriko luzeko taldearekin botari jokaturik. Amede Arce baten adinekoak ziren horiek bainan ez zitakeen han Amede haundia, ber hura izanen baitzen orduan Baigorriko botaria eta ez Baigorri-Bidareko.

Bakotxak bere deia eta bidea, gure apez pilotarietara itzul gaiten, zenbat ez ziren ordu hartan apezaren bidea hartzen zutenak zeinek bere haineko dohainekin. Baigorriin gaudeno, Jean Haritschelhar eta niharen herrian, nola ez sala hemen bost herritar gazte sartu zirela urte bat edo bitan apezeskoletarat 1924-26 urteetan, gehienak herrietan erretor izan direnak, oro pilotari ez baziren ere, Anttoneneko Jean Leon Etcheverry sare jokolaria bezala, beti pilotazale giiazko edo sustatzaile bederen.



Uztaritzeke San Frantses ikastetxearen aitzindegia bere hamasei pilotalekuak sorka-sorka zituela eskuhuskako, pilari horiez denez mugatu eta gibel huntan futbolzelaia.

Semenariorat hel-eta, hemengoak ziren han ere. Funtsean, tokiari eta herriari zoakiona egina zieten hogeigarren mendeko gazteeri beren molda-etxea, 1926 urtean ideki behar zuena hots, duela 80 urte. Gogoan har beza irakurleak ehun eta hogeituro metroko aitzindegi pareta duela beti Uztaritze gaineko barnetegi xurigorriak pentze pareta berde heien buruan, Errobizelaiari eta Jatsu-Haltsuko gaineri beha dagoena bere patxadan. Eta huna zertako dudan luzetasun oso hori aipatu gure pilota solasean : aitzindegia oso horrek baitauzka hamasei pilotaleku, sorka- sorka litazkeen behiak beren jantegimañateran bezala lerrokatuak, pilotaleku bakoitxa bere aldekoarekin trenkada-marra batez mugaturik. Horrek erran nahi du beraz eskolarte denboretan hamasei partida batean jokatzeko gisan zirela. Eta ez baitzuen adin hortako nehork aski beso korralearen zabaltasuna pasatzeko, horra oraino bazela gibelean futboleko lekua ere, pilotalekuen gibelean hartakoak zirenendako. Heldu da beraz bazutela denen lekua ehun eta hogeituro metra luze eta berrogeita hamar

zabal bederen zaukaten arte horiek bainan ez zela segur pilota ere ahantzia. San Frantses Xavier Jatsukoaren Etxe berri horrek (Xavier edo Txaberri ez dea ere berez Etxeberri ?) geroko mutil erneak behar zituen hor bidean ezarri eta heietan apez pilotariak ere halaber.

Eta ez dugu oraino dena errana geroko apez pilotariak ere abiatuko zituen obra hortaz. Hezkuntza horren osagailu, hor zituzten San Frantses ikastegiko putiko gazteek ortzegun aratsaldeko ateraldiak. Asteko promena-darentzat, hola deitua baitzen, hor zuten, Uztaritzen berean, Freretako anai erakasleen barne ederra, geroztik herriko plaza bilakatua, bere hiru plazekin eta eskolako aterbea bestalde. Ateraldi horrekin aldizkatzeko, han ziren ere Larresoroko lurrian Ezkandako eremuak, denak ere ala pilotako ala futboleko jostalekuekin. Eta azkenik erakutsiko duguna berriz, 20 bat urtekoentzat, Baionako semenario haundian, harrizko errabotea zelaiaren erdi-erdian zaukana : apal aire bat bazuela onetsirik, kondatzen du beti A. Etchegorry apezak, nola zuen beste harri lerro batez goratu jaun ekonomak jo-murrua gure denboran. Han zituen egia-erran lukuztarrak beste lagunak ere, Erramouspe, Salette, Etchegaray, Apaule, Diharce, Lekuona, Camino pilotarigaiak eta abar... hoberen batzu baizik ez aipatuz. Zenbait haatik Hazparne edo Mauleko ikastegietarik etorriak.

Horiek oro bazirela erran ondoan, nola ez sala ere, emeki emeki direla, eta beldurka bezala, plazarat atera herri huntako apezgai ixtudiantak. Sotana haren gatik lehenik. Sinets lezaketea oraiko gazteek 16 urte ez ginituela oraino beteak sotana hartu nuenean ene klasako lagunekin ! Hastean igandeetako doia hori, egia erran, bakoitxak berak galdea egin eta baia ukanik, ez baldin bazen ere gehiagoko engaiamendurik oraino, 24-25 urteak jin artean sotana horrekin.

Denborak ziren holakoak eta herriak ezagutzen ginituen gu eta onartzen ere, ginen bezala : hau ez da pilotakoa bainan hurbila nolazpait, oroitzen naiz mutxikoak dantzaturik 20 urte gabe apezgai lagun batzuekin Barkoxeko plazan sotanan Eskualzaleen Biltzarra egun batez. Eta pilotari gazteak ere hartzen zuen naturalki bezala sotana beste apezgaien arabera. Ikus orai ere argazki famatu batean hala-nola, Leon Erramouspe apezka arrabotari goiti aztaparka edo jauzian joana, ikusteko ez dela ezin eginik adin batean zombaiten dohanarekin. Zoazte zuek argazki horren erakustera oraiko tenizlari bati !

Gainerat, oro bazeramatzan orduko giroak, han zirelarik ere, partida bukatu bezain sarri, soinua eta dantzariak, neska eta mutil, iduri oro estaltzen zituela apez batzuen beneizoneak, aldiz beste erretor bipilago batzuek beste burrunbarik balinbazuten ere. Orduan ikus zitazkeen batzuen hautsi-mautsi plaxentak bezala besteen uko egiteak ere : ikusi ditugu bai ikusi ere apez gazte batzu pilotaren sakrifizioa egin dutenak erretor xaharraren baimen eskasian

edo... beren hautu hutsez. Pantxo Harriet apezarena aipatuko dugu urrunago, erakutsiko diguna pilotari bezain haundi agertu zela ere apez bezala.

Halere aitortu behar da sotanak, trabatu bezenbat, lagundu ere duela denbora batez apez pilotaria, edo bederen bere gazteriari hurbil hurbila egin bere apeztasunetik deusere galdu gabe. Galdegin behar zen denbora batez jaun bikari arnegitar Leopold Auzqui baten berri Urruñan, edo, Baigorri halaber Xemartin Lagrenade apeza nor zen, Urdozeko mezatik landa, Manexene ostatuko plazan gelditzen zelarik goizmeza eta mezanausien arteko epean, bizikleta hantxet utzirik partida errabiatu baten egiteko muntra eskuan edo sake-lan. Gazteek beren meza entzuna zuten Urdozen, bikarioak bigarrena zor, gorribelzturik izerdi lapetan gaizoak Baigorriko elizan, hantxet edaten utzirik Makozaingo Pazkal, Martin Arretxe, Janpier Chenitz eta besteak, hauek luzaz kondatuko baitutuzte egin ahantzizko bikarioarenak. Eta nun ez da herria, edo Diharce Beskoitzeko bikario batekin, edo Zuhubiet Ibarlako erretorarekin, edo Uhart Aldudeko batekin, holako oroitzapen sanoak dituen. Eta nola ahantziko da ere Irungo partida oroigarri hartako kantuaeren jaun apez baztandar hura, frantsesekin arizan zela baitio historiak ! Zinez egia da bai, eta osoki goresgarria gure herritar egiazko bat, erroraino herritartua, bilakatu dela hemen ainitz apez eta pilotari. Urrun ginen orduan, urrun, beren zaia luze, zapel haundi, lepo tinki eta xutarekin haurrek “kasu apeza !” harriturik, urruntzerat egiten zieten apezetarik. Guhaurek segur, begi hobez ikusi izan dugu, beste gizaldi batean, Luhusoko Sauveur Bisquey apez bat gure erakasle zorrotz bezain amultsua, eta jada pisutzen hasia, hantxetan Uztaritzen, pilota berri batzu aurkitzen zizkigularik gure esku ttipien izarikoak. Eta berdin estimatu ere, Larzabaleko Landetcheberry erretora, pilota larruztatzen ziguna, berdin tabako paketa batean truk, edo gabe.

Sotanak zenbaitetan lagundu, hori erran duguia ? Hori ere egia zen denbora batez, ezin ukatua. Aski litake beste herri zenbaitetako bikarioez oroitzea, edo bereri galdatzea zenbat aldiz izan duten pilotarako galdea udako sasoiari Sarako J. Etcheverry batek, edo Senperen zen Aphaule batek, eta zer erran P. Lazcanoteguy apez erakasle xixterariaz ! Holakoak bai izan direla, partida batzuen jokatzeko, pilotari haundienekin orobat, berdin esku-huska, Josep Laduche, Garmendia, edo J.B. Aguerrekin, edo jokogarbian Unhassobiscay anaiak Barhennekin Miarritze, Donibane Lohizune edo Arcachonen , haatik gomendio hunekin ondarrerat, apezak galtza xuritan abiatzearekin : sotana ekar zezatela, pilotako arin hura. Ez zuten ez lehenagoko Bidegain Gozterratxu apezek gomendio horren beharrik, apez guziak zaia luze beltzekin ziren denboran, elizan bezala kanpoan berdin. Adinekoek gogoan dituzte beti Bidegain, Hasperue, Harriet apez famatuak, papoa doi bat zabaltzea aski zutenak hatsaren hobeki hartzeko arropa beltzaren azpitik, eta ere zaia hura doi bat laburtxe erabiliko zutenak Harriet edo Sussuarreguy bezala. Baina sotanaren traba

zuten ttipiena behin usatuz geroz, Erramouspe batek lañoki aitortzen zuena. Gisa guziz ikuslearen galdea hor zen eta hortarik behar pasatu. Funtsean, izan dira bi ikusle mota. Ikusle arraro eta noiztenkakoa zen uda beteko paristar edo nunbaiteko hura. Gure herritarrekin aldiz ez zen batere berdin. Gure kasu xumea baizik ez aipatzeko, elizako herritar hilen meztatik jaun ertoraineko plazarat urrats batean soineko beretan joaiten ginen J. Gozterratxu eta nihaur laugarrentzat bi herritarren kontrako partidaren jokatzeko besta biharamunean etxeko etxeko. Aise geroago dira Erramun Caracotche, Ttote Saldubehere ta holako batzu jauntzi xuritan hasi plaza eta trinketetan, eta ederki ere gainerat.

ASPALDIKOAK ZIRENAK BAINAN EZIN AHANTZIAK

Bixtan da arras argalak eta mugatuak izanen direla hemen oroit arau eta gehiagoko artxiborik gabe nahas mahas lerrokatuko ditugun apez pilotarien egintzak edo balentriak. Banabanaka eta onjoketa bezala ibili behar izan dugu ofizialtasunik gabeko gai eta lantto huntan. Eginak egin denaden, agian beste batek osatuko edo zuzenduko dituelakoan gure makurrak edo ziloak.

Aspaldikoeri aipamen xoilak emanen diegu, hala-nola, berriz erran-eta ere, joanden mendeko Irungo partida hartan, bermatu baitziren apez izengabea barne. Geroago baitu pilotak egin bere jauzia, horra, argal argala, izen batzu bederen : Laborde apeza, ezkerre xuxen banaiz eta xixteraz ari zena, eta ere Doyhenart apeza eta Lonpageu ere, eta Falxa apeza, hau doi doia Lasako erretor ezagutu dugun bankar semea. Ezpeletako Darraidou pilotari ederrarekin jokatu zituenen kondatzen entzun dugu gazte denborako oroitzapen solas. Eta ezagutu ditugu, pilota utzia zutenak, Leon Leon apez hazpandarra, eta Jean Elissalde Zerbitzari Gerezietao erretor azkaindar seme xixteran arizana. Hau, ordukotz adinean aitzinatua nahiz berri kondan eta lumaz bere euskararen paregabea, beti bertsulari munduan ere berekin karreatzen zuen famattoarekin, Mehaineko apez Oxobi beste idazle famatu lagunarekin, zer arraintzariak bestalde Lekuine ta Haltxuko errekatto horietan ! Apez ezagutuak ere bai haatik bat ala bestea. Ez ahal zituen igandez bezperak ere hutsegitekoak Gerezietaoak, eguerdi aitzin meza nausitik landa emanen bazituzten ere aitzintzerat herriko elizan, aratsaldeko pilota partida hura ezin utzia izanki-eta Hazparne alde hortan.

Beste xixterari apez ere ezagutu duguna, Milafrangako erretor Etcheverry jauna, hau Itsasuko seme eta Hazparden bikari egona, Francis Jammes idazle erdaldunak bere frantses lumarekin errespetuz apaintzen zuena.

Hazparden preseski, eta hau ere xixtera laburrean arizana, ikusi dugu Beñadin Darraidou apeza, Baionako bere parropian. Lehenxagokoa zuen

Darraidouk, gorago jada aipatua dugun Leon Leon apeza, Uztaritzeko erretora. Uztaritzen hain zuzen, ikusia eta ezagutua ginuen guhaurek lehenagoko Blazy apeza, pilotaria hau ere bere denboran eta pilotaz liburu ederra idatzia zuena. Beste gai eta dohainik ere bazuela Blazyk erran baitugu ez zirena Greciet Kalonjea, eta biak ibiliak Uztaritzeko semenarioko elizarentzat, hau ere pilotaren berri zahiena, euskal arima onetan gaindi diru eske, beste izenik ez baitu, obra eder eta balios horrentzat, Ameriketako eskaldunetan

Nornahik zernahi erranik ere, holakoa dugu gure Euskal Herria, aspaldiko arbasoek egin bezalakoa. Zenbaitek nahi bailuzkete oro zatikatu herri batean, hemen bizipideak, hor sinesteak, han kulturak, eta kirolak edo herrigintzak, ez dutea horiek herri huni bekoz beko behatu sekulan, ikusiz hoik direla herri baten bizia, ez batere nahasketan saltsatuak bainan, aitzitik, elgarri polliki lotuak eta josiak, gu aldiz, giren bezala, herri horren seme alabak. Beha gure mendigoren bortuetan, adibidez, nola ikusten ditugun, Baiguratik Okaberaino mairu harri eta harrespilak batetik eta lehengoan pilota plaza eta soroak bestetik, horietan orotan hasi zirela gure arbasoen herriak. Horrek zituzken eman, jendea herritartzearekin, gure herri ttipiak lehenik, haundiagoak gero, beren plaza eta elizekin, hantxetan sortzen eta garatzen zela elgarren eta herriaren bizia.


EZIN AHANTZIZKO IZARRAK

Kirola guziek badituzte beren izarrak, gazteagoen eredu eta landare berrien sustagailu daudenak. Orotako dena jainko, guk aldiz hiru joko motetan ditugu hautatu gure herri huntako izarrak, apez pilotarietan : esku-huskan bixtan dena, bainan ere xixteran eta palaz dauzkagu fama oneko pilotariak, aldiz pasakariak, sarelariek eta beste batzuek barka otoi aldi huntakotz.

Esku-huskan, bego lehen Harriet apeza, profesionalen mailerat ere hupatu zutena, geroxago Goztarraxurekin. 15 bat urteren buruan bederen, jin ziren Erramouspe–Etchegorry apezak, Euskal Herriko plaza guzietan jendeak txalotu eta maitatu dituenak. Palaz, plaza laxoan, ezagutu zen Idiarregaray apeza, indar beldurgarriko ahastar Donagaiko semea. Xixteraz aldiz, joko garbian, Pierre Lazcanotegui hutsegiten ez zakien ekartzale bipila. Haatik horiek berexi baditugu hemen, ikusiko dugu izan dituztela lagun hurbilak eta guziz, xuritan ari direnetan, pilotari haundiak ere, bainan ez ahantz apez pilotariena dugula hemengo gaia.

Hemeretzigarren mende hori, hogeigarrenarekin bixtan dena, deitu behar dugu, pilotaren mendealdi haundia, agian bere segida gaur ahal duena eta luzazko. Mende pare horri dituzkegu zor orai gure herrietako arrabot koloretsuak eta ere azken hamarkadetan xutitu diren trinket andana, Toulet–Eskutik baten pre-

diku hau sinetsirik ainitzek : “Herri bakoitxak bere trinketa !” Trinket xaharrak Bastida, Baionattipi, Baigorri, Luhuso, Bidarrai, Aiherra, Hazparne, Ziburu, Urruña, Ezpeleta, Sara batzuetan baginituen, piztu dira piztu beste frango, Xubero gainerainokoan. Heien betetzea eta biziareztea besterik da. Falta baitira falta orai lehenagoko bikari gazteak ere, gorago aipatuetarik haste, pilotaren alde hainbeste egin zutenak. Ala ez ote da hor elizaren etsenplua segitu beharko ! Eliza ere langile eskasiaren gaitz beraz joa baitugu, beha nola ari dituen sustatzen harek, ez aski bainan sustatzen halere, laikoak, animatzaileak orai erraiten den bezala, eta katexiztak eta diakreak eta beste sustatzaileak. Pilotak ere, halaber, beharko ditu bere erakasleak, jadanik kausituak dituenen gainera, eta hori ere mende berri batek ekarriko.



*Pantxo Harriet apez pilotari
haundia*

HARRIET APEZA

M. GOZTERRATXU eta denekin

Zertako ez sala hastetik nola goiz batez, egiak diren famen arabera, Arnegi edo Luzaideko Lakeleku bere etxean, puskak bildurik bat-batean, hartu zuen Lazkaorat beneditar komenturako bidea betikotz Harriet Apezak, pilota, herria eta laguneru uko eginez alde bat. Hori ere da apez pilotaria, Jainkoaren gizona

orozlehen, plazagizentasunak sortu dizkion traba eta eraginetaraino, baina bere naturaren gustu eta tirantza heietarik deus ahanzi gabe.



Pilotarat airekoz abian Harriet (beherean), Gozterratxu (gorago), Damestoy, Durruty... eta besteak

Plazan sortua baitzen berez gure Pantxoa, Arnegi-Luzaideren zubia pasatzea aski pilotarako, elizaren pean : 1909 urtea zen, Pazkal Damestoy, Saint Martin edo Ibarburu apeza sortu ziren hura bera. Berez kantari pollita, Baionako katedralearen kantari ttipietan hasi zituen bere apez eskolak, Arnegiko herri-eskolatik landa. Pilotako lehen bidea ere hor berean zuen Ph. Escapil eskolako errient suharrarekin hartu. Eta pilotako lagunak nondik ez ? Bercetche eta Polit hor berean zituen, Ibañetaz haindiko pilotarien desafiatzeko, hiru arnegitar eta hiru auriztar jokatuz. « 17 urteko bat izan beharko

ginuen, Auritzen elgarren bete hango pilota pisuekin, lehen partida batean euriz gelditu baginen ere eta gero hangoak nausitu. Haatik beha ginauden kitarako Arnegin gure pilotekin eta hemen aise irabazi ginuen. »

« *Ez ote ziren orduan desafioen denborak ?* »

Jakizu baietz, frangotan ! Donibane Garazin hala-nola : hango Bergerot eta Antoniori ginen aihar, hek Frantziako xapeldun atera berriak. Bainan Kanboarrak zitzauzkun lehenik atera : Camadro, Jaureguy eta Boudon. Guk irabazi. Hazpandarrek altxatu zuten gero eta hura ere guk, arnegitarrek, irabazi. Azkenik huna Garazi, donibandarrak ariko zirela, salburik Bergeroten partez Maurice Celhay, errugbilari famatua bainan pilotari ederra orobat. Hauekin lanak izan ginituen bainan irabazi halere.

« *Denbora hortan ez zinen apeztua ?* »

Soldadugoa egin nuen Bordelen eta jakizu Ares karrikan trinketeko bidea laster ikasi nuela. Denbora berean hor nuen aurkitu “Sport Athletique Bordelais” taldea, han ukan bainuen sartzeko galdea pilotari bezala. Nik, oraino apezgai herabe, ez nuen onartu ene apezgai sailaren gatik. Bainan horra ixtante heldu zaizkidala buruzagiak apezpikuaren baiarekin. Han kausitu nuen Ledesma, pilotari bat berdin trebe zena esku-huska ala palaz. Harek eta biek 9 tan utzi ginituen Barneto eta Dourisboure, 40etarat, eta gure izenak orduan agertu ere ! Bainan geroko partida Akizen, eta gure partidak Goizeko Izarra taldekoak, Bergerot eta Aphetsetche garaztarra. Hor sortu zen kalapita, pilota baten gainetik, eta denak keXu, nehork ez amor eman nahi, ni garaztarra garaztarren etsai aterarik eni oldartuak heiek. Ez dakit zer gertatu zen orduan, heiek kanporat izanik, 20-16 zirela. Nik orduan, kintzea utzi heieri eta berriz itzuli ziren plazarat, atera ondoan bainan guk, entzunez gaitziturik, berdindu gintuen eta partida ereman furia gorrian ! Finalerdia ginuen hori. Ondotik zen finala Donibane Garazin, Azkaingo Ibarburu anaien kontra, Ganix famatua eta Pantxua apeza, 40etarat irabazi ginuen, ez dakit 34 ala 36 egin zuten. Uste dut jendea polliki harritu zela guk xapelgo hortan Ledesmak eta biek egin ginuenaz.

« *Zuk guti salatuz ere segur naiz baduzula beste holakorik?* »

Ni ere besteak bezala, irabaziez hobeki oroitzen. Michel Gozterratxu ene apezlagun aldudarra ere behar dauzut aipatu, ene gibleko lagun segura : jokatu ginituen bi partida Amikuze aldeko Etcheverry eta Irigoien kontra, hau bereziki luzaz eta luzaz pilotako arduradun ezagutu dena: erran behar dut bai bi partida irabazi ginituela bi apezek horien kontra bainan ez sobera errexki, bost tan-toz bakarrik biak ere. Handik harat, eta beste partida batzuetan oraino trebatu

ondoan, izen haundikoen aitzinean ere ezarri gintuzten. Durruty- Damestoy parearen kontra arizan gira, irabazle hor ere, bai-eta berdin Durruty eta Aguer pilotari zailen kontra. Apez pilotarien fama ateraia zen orduan, ala ez dakit pilotari ala gure sotanari zenetz jendea xaletuago, ala bieri batean ?

BIDEGAIN APEZA... BEÑAT SEIN GIBELETIK

« *Apez pilotarietan hain zuzen, ez ote zinezten, famatuenetan, Harriet eta Gozterratxu izan bi lehenak ?* »

Michel Gozterratxu bai, sortzez aldudarra, 1913an sortua, ni baino lau urtez gazteagoa zen eta erran dautzutan bezala nik behar nuen bezalako lagun pilotaria. Nik aitzinean jokatzea maiteago, hura fidagarria nuen gibeletik, behar zen besoarekin eta segurtamena gainerat.



Pariseko plazan Gozterratxu eta Bidegain, aita Chabagno aldudar misionesta zutelarik jujari.

Horra beraz nor izan diren bi apez pilotari lehenak, haundienen mailekoak, eta bakarrak ere apezetan “profesional” maila ezarri zaienak. Halere, gure gostuko, eta geroago aipatuko ditugun beste batzuen gisan, ez dute aski urgulu izan, ez batek ez besteak goreneko mailerat jotzeko beren oldar guziez.

Lehenik errana dugu nola zen Harriet ondarrean komentuan sartu, betikotz. Eta Gozterratxurena ez da hortarik hain urruna. Hau ere, lehenik erretor Labetzen Itsasuko bikariogotik landa, Uharte-Garazin eta gero Arrosan higitu da herri hortako artzain. Ainitzen arabera hupa zitakeen gorago parropia handiagoetan ere bere fama onen arabera bainan herri horri eman zion bere hoberena osasun arazo batzuek goizegi jo zuten artean. Hor hunkitzen dugu apeztasunaren mugatto bat kirola mailean: berek diote bi mailak, apeztasuna eta pilota elgarri arras ontsa josi dituztela bainan guk aldiz erranen dugu: hein batetaraino haatik, gero beste apez batzuekin ere ikusiko dugun bezala heltzen baita egun batez bien arteko hautu baten hozka !

JOSEP GOZTERRATXU ERE

Aldude Auzkiriko bigarren seme apeza ez dugu anaiarenganik berexiko... hemen berean aipatuz. Michel baino zazpi bat urte gazteagoa, pilotaria dugu hau ere, erran dezagun, amaturretan. Erakasle eta bikario lehenik, Hazparne, Baigorri, Irisarri, Garroan, beti gazteriarekilakoa, ondarrean 20 bat urtez Urruñako erretor, denetan pilotari mundukoa, maiz haren eskuari torraka artze harek erakusten zuen bezala, azken heietan ginuen elgar jastatu, hura erretor eta ni bikario, igande eta astelegunetan Urruñako elizan eta “kaperan” berriz asteartero, Dongaitzen trinketean, hango bereko Leon Dongaitz haundia bazterretik, so, etxeko gidaria, edo orobat, laugarrentzat ere bera sartuz bere zaharrean. Adixkide errespetu batetaraino helduak ziren han Leon haundia eta Josep jaun erretora. Hunek, ainitz partida jokatu ondoan gazteekin igandetan, eta astearte horietan berriz, Bercetche, Etchenic, Londaiz, Bessonart, Panpo, Ussaralde, Vignau, Elissalde edo Aguinaga batzuekin, horietarik denetarik da jujatzen ahal nolakoa zen Josep Gozterratxu jaun erretor pilotaria, hau haatik lehenik apez eta astean behin pilotari, Dongaitz trinket hartan lehenago Baxenabarre alde hartan plazetan eginak zituen partiden ondotik. Hots ez zuen arras merezi Josepen etxeko batek egun batez bi anaia horien mailaz erran zuena : « *Michel ba, hura zen pilotaria !* » Guk aldiz errefera ginezoken : « *Josep ere bai, euskaldun ainitz gure herrietan ziren bezalakoa.* »

BIDEGAIN XUBEROTARRA

Apez pilotariak jendearen gustuko zirela, ezin ukatua, beltzak batetik eta xuriak bestetik. Huna beste bat Harrietek bere gustukoa izan duena, Arnaud

Bidegain muskildiarra eta, gerlan presuner egon ondoan, Barkoxeko erretor izanen dena. Aipatua dugu haren beso azkar, zafra izigarria, iduri pilotaren puskatzeko egina. Asurtimendua ez zuten hor osoa bi apezek, biak aitzineko botariak izanez. Egin behar halere elgarrekin, maizenean Harriet gibeletik. Galdatuak izan ziren Xuberorat, Zalgizeko arrabotearen estrainatzeko, Leonis eta G. Ibarbururen kontra, eta hau aski errex irabazi ere. Haatik Akizen galdu zuten hiru tantom Durruty-Damestoy bikote arraroaren kontra. Ordainez, trukatu ziren gero aitzin-gibel Atharratzen kontrario horien beren kontra, eta irabazi ere Harriet hor aitzinean emanik. Bixtan da beren jukutriak badituztela pilotari guziek eta ez zirela apezak holakorik gabeak : Harrietek berak kondaturik jakin dugu, Salegi eta Atano IV ekarrarazi zirela hegoaldetik Mauleko plaza ederrerat, bi apezek kontra neurtzeko. Partida aitzinatuz bezala, denak elgarren bete eta nehork ez galdu nahi, orduan Harrietek aitortu ere ahoan bilorik gabe, pilota aldatu, eta bizixago bat hautaturik, ereman zutela partida, ondarrean apezek.

« Zein zinuen, denaden, zuretzat gibeledko hautuzkoena, apez edo ez apez ? »

« Ene ustez Beñat Sein senpertia. Hau bere onean zelarik, ez baitzen nehoren beldur bere tokian. Nork amor emanaraziko zion ote ? Eskuinean zuen pilota joko zuen ezker, eta eman eskuin ezkerrean zuena, punpea azken metra hartan egin eta pilota jendearen gainerat, eta beti neurri onean, beti barnean eta kasik sekulan ez faltarat. Jainkoak beira ikusleak marrari hurbil-xka baziren. Holaxet ditugu Laduche eta Saint Martin garaitu Ezpeletan, eta hola-hola ere jo hek berak Uztaritzen, 35-31, hor hasarre gorrian joan baitzen Prosper Saint Martin, jujearena ez nahiz onetsi. »



J. Gozteratxu apez anaia

« *Hor ez girea goreneko mailean ?* »

« Beñat Sein horrekin berarekin zerbait bazen Arrayet anaien kontra ar-tzea ere. Hauk Saran garaitu ginituen, Edouard Arrayet, ikustekoa baitzen hunen karra, anaia Ernest, hau eztiagoa, akulatzen zuelarik, alta hau ere zer artista ! Eta guk irabazi heieri. Haatik Saran irabazi ginuena Arrangoitzen galdu ginuen bi anaien kontra.

Ganix Ibarbururen lekua ere hor da. Eta J.B. Harambillet zimela ! Ganix Ibarbururekin beraz, profesionalen plaza laxoko lehen partida irabazten genien eta ezin bururatu, euritirik, aitzinean ginelarik Saint Martin eta Harambilleten kontra. Berriz ondoko igandean jokatu beraz, eta hura guk galdu, finalerdian. Finala ez da egundaino jokatu, gerla orduantxe hasi baitzen, eta orduan izan zen beste partidarik. »

« *Plaza laxoan zen hori, bainan trinketa ?* »

Harriague presidentak galdeginik, sartu behar izan omen zuen Harrietek lehiaketa zail hortan, plazalaxoan trebeagoa zelarik bietarik batean. Lehena irabazi Durrutyren kontra bainan ahalgetuz bezala aitortzen zuen Harrietek lañoki, bigarren partida Harambilleten kontra gertatu zela eta hura galdu, 50-15. Ari denari gertatzen holakoak ere.

Denaden, nahiago zuen arnegitar semeak plazako solasetara itzuli berriz. Erraiteko Saint Martin zaukala hor haundiena bere denboran eta, berriz ere, Arrayetarrak, bereziki Edouard, ahantzi gabe. Durruty Dextima, eta, onetan hau ere, Gustave Garmendia orotako on zena, trinket, ezkerpareta, plaza. Bainan etzitzaion ahazten errepikatzea Michel Gozterratxu apez lagunarekin garaitu zituztela Saliesen Durruty-Damestoy, orduan hoberenean zirenak 45-43, luzamenarekin.

Ez da arizan Harriet gure ustez Mondragones famatuaren kontra, ez-eta Amede Arce, Leon Dongaitz izar paregabeen kontra, ez ere Leon Erramouspe apezaren kontra, damurik ! Salbu izaitekotan beren artean lau apez eta beste mailean, Belokeko komentuan, orduan hango fraile gazte zen Arño Irola apezgaia eta Harriet beneditanoa arizan baitziren apez biltzarre batean Erramouspe-Etchegorryren kontra. Nor izan zen xuxen orduan irabazle ? Ene oroitzapenez, lau Apezak, eta Pilota ! Eta, holako apezekin, Eliza ere !

ERRAMOUSPE- ETCHEGORRY

Leon Erramouspe batetik

Hemen ditugu bai 81 urte iragaiten ari, xut eta zerbitzuan Bankako eta Arruntzako apezak, azken hau Urruñako erretorgoan bere sail ederra beterik

Uztaritzeko hegal huntara bildua eta hor osasun ederrean beti bere apezlana daukana. Erramouspek berea Bankan bezala.



Apez pilotariak badaki airatzen ere lurra baino gorago

Biak adin berekoak ziren eta dira beti, zinez elgarrekilako eginak pilotan ere. Bigarren hau, Etchegorry, gibeleskoak, atxiki behar baitu partidaren maila eta iraupena, mendia bezalako (nork mugituko du mendia ?) arrabotea bezain zuta gizona eta lurraren gainean ontsa finkatua, eta bi eskuak palak bezalakoak, sekulan minik ez, bainan beti jo eta jo ariko zirenak iluna jin artean behar bazen, lagunari beti « *bego* » eta « *bego* » ziola. Holako harrokari emozue aldiz aitzinean Erramouspe sakaria, batean luze, bestean zirritzaka botako duena, eta bera erreferan hutsik gabea bainan gutienik ustean, brixtez, airetik edo pereka milinga batean pilota marra gainean erdi-hilik lehertaraziko duena... non ez dion haatik esku minberos batek aski zauritzearekin hutsegiten, hori ez balitz izan ez baitzuten galtzen ere jakinen gure bi apezek.

Beren apez bokazioneak zituen holako bi lagun elgarretaratuak. Oraiko gaintar langile ainitzek bezala, Baionan zuten junt egina 20-21 urtetan, semenario haundian. Uztaritzeko semenario ttipian ibilia zen Leon Erramouspe, Hazparneko Gastellu zenaren ikastetxean hezirik. Ttipitik pilotako eginak emaiten zuten aztapar karabilkatu batzuekin, bera espaldaz ongi, gatua bezain zalua, Toulet Eskutik batek zion bezala, goizik begiztatu zuten erakasleek ere eta bere auzo herriko bankar Xemartin Hirigaray-Premuño gaztearekin igorri

ere lehen xapelketarat : botari on horrekin, giblean ezarri zuten behin Leon baina zer munta zuen holako gaiarekin ? Etchegorry aldiz, geroago landare eder ontsa errotuen gisan, ez bide zen naski hoin goiztiarra agertu bainan adinak ekarriz indartu haatik, emeki eta segurki Mauleko San Frantses ikastetxean eta Alzumarta-Lukuzen, Pochelu-Guillenteguy eta geroago Etchegarayen herri gunean, hau ere apezak, berriki zendua.



Erramouspe eta Etchegorry apezak

Alta Erramouspek bere aldetik ez zuen ere sustatzaile eskasik pilotarako bide idekitzalez. Aldudeko Esnaasu bere sorlekuan eta Alduden berean ez zituen orduko putiko guziak pilotari, ala Monlongtarrak, Argagnon, Aderiz, Zubillaga, Harriet bat edo holakoak, lehen horien pilota lekutik haste. Eta ez ahantz jada ere zer pilotari herria izana zen Aldude, Gozterratxu apez anaiekin, Mutuberriatarrak eta holako !

Tituluan guk binazkaturik ezarriagatik hemen bi apezak ez dugu hutsegiten ahal Erramouspe apezak bere aldetik egin duen bidea, Munduko Xapelgo eta beste. Hautan ezkerparetako jokoak bere parte haundia izanez Espainia aldekoen eta Hego-Amerikarren parteetako pilotariekin jokatzeagatik, ohartu zitazkeen berehala Erramouspek joko hortan Monlongen

pilotalekuaz geroz zuen trebeziari eta hori izan zen bietarik munduko xapelgoetarat hautatua. Galde hau egin diogu berari Toulet-Eskutik jaunak eta biek, nola joan ziren mundialerako hautu horiek eta huna Erramousperen ihardespena: « 1955 ondarrerat, lehiaketa bat xutik ezarri zuen Pilotako Federazioak, Montevideon, Uruguaien beharrak ziren mundialetako hautaketa-erentzat, ezkerparetarako. Lau bikote ginen : Behengaray-Laco, Olhasso-Etchepare, Laxague-Etchemendy, Henri Dunat eta ni, Dunatekin ere ainitz arizana bainintzan urte hartan, ainitzek beren hautuzkoak zituztelarik Garazi hortan Laxague-Etchemendy lehen horren bote izigarriarekin. Eta guk hauen kontra ari behar ginuen lehenik. Norbaitek erran zautan airetik har nezan botea, Laxaguen lehen botetikako kintzearen ondotik. Eman nintzan erdiz-erdi, airetik lotu, eta irabazi, 22-13. Finalean Olhasso-Etchepare garaitu ginituen, 22-17, eta hortan irabazi Montevideorako txartela. Han, Olhasso-Etchemendy izan ziren finaleko hautatuak, eta galdu zuten, 15-22. 1955ean zen hori. »

Kondatu dizkigu Erramouspe apezak nola eman zuen pidaia hartan meza Montevideon, Etchemendy, Desire Olhasso, Emile Arce baigorriarra (hau palaz arizan zena), beste pilotari eta hemengo pilota arduradun guziekin. Pilota solas berriz, kondarazi diogu Leon apezari Mauleko finala famatu hura:

« 1955 urte hartan, Lekorneko “Urtsuko Bildotsak” batasunak eta Germain Lafitte jaun merak galdeginik, Henri Dunatekin arizan nintzan. Euskal Herriko xapelgoa irabazi ginuen 30-11 Bidarteko Larroque-Michelenaren kontra, parioak hauen alde zirelarik, alabainan, orduan zituzten joak Laxague-Etchemendy garaztar ezin garaituak. Heldu da gero Frantziako xapelgoa deituaren finala nagusia, beti Bidartarren kontra, eta, Mauleko plazan. Ontsa arizan omen nintzan orduko apez kasetalari lixtafin baten baten arabera, hunek erran baitzuen bere kasetan graziazko estatuan nintzala egun hartan ! Agian bai, eta beste orduz ere halaber ! Denaden 30-13 irabazia ginuen finala. »

Baluke zer sala Erramouspe apezak, oro salatu nahi balitu. Bainan apezaren apaltasuna ere berdin gustagarri zaigu aitortzen duelarik bere biziko ahalgea noiz ukan zuen:

« Badut bai, haatik, partida bat oraino iretsia ez dudana, Garcia Ariño haundiaren kontra arizan baiginen M. Etchemendy eta biak Miarritzeko Plazaberrian eta irabazi baitzigun 22-13, zer ahalgea ! Eta ere beste bat, Sarako plazan galdua, Dunatekin, Laxague-Etchemendyren kontra. Gu gaizki arizan ginela ? Bainan zer zen egun hartan Laxaguek atera zigun pilota kanika hura ? »

Oroitzapen hoberik ere badauka Leon apezak, beharrik, lehenik zer aita ona izan zuen Itsasun Diesse kalonjea, bere erretor xaharra, beti bere bikario

pilotariaren alde atera zaiona pilotarat uzteko. Eta ere beste bi oroitzapen eder hauk, pilota, hots, elizaren edo parropiaren zerbitzari erakusten dutenak :

« Bi obra egin ditugu ene apeztasunean pilotaren eta pilotarien laguntzaz. Bat, Donibane Garaziko bikario nintzalarik, hor 1964 an sortua nuen “Centre Aéré” libertigailuko plaza ttipia, han ikusi baititut astezken aratsetan, udan, pilotariak jiten obra horrentzat lagunarteko ase batean truk, udatiarrentzat jokatzera. Eta bestea Itsasun : pilotako Ezkerpareta baten egitea herritarrek galdeginik, eta berek gain-gainetik parte harturik egina, Baztan Bozateko 13 harginekin, lehen partea kasik hilabete batez altxatua. Eta ahantzi behar ez dena hau : pilotari haundien urrikako parte hartzea, Gallastegui, Harambillet, J. Laduche, Garmendia, Zugasti, Vivier, Aguer, Garcia Ariño. Eta beste adixkideak, nolakoak ? »

Beste elkarrizketa luzetto bat ere izan dugu, balio baitu, zorionez bi apez-zen berriez **Antton Etchegorry** apezarekin.



Ezkerretik... Atano 8 eta 10, Garmendia, Erramouspe

ANTTON ETCHEGORRY

Aingeru begiraleak

«Donibane Garazin, zu laborantzako eskola Frantsesenearen buru zinela, egin duzue hor partida ederrik arrabot eder hortan, Etchegorry apezaz?»

« Bai, hala-nola 1960an, Andredena Mari besta aratsaldean, hor ginituen, Etchandy jaun errientea batetik, Pilotaren eta Besten ardura-dun paregabea, eta bestetik J. Lecuona jaun erretora, pilotariekin plazer zuena. Hartu zituzten bi pilotari haundi, bat lekukoa, Michel Etchemendy, Euskal Herri guzian eta Ameriketan ere pilotan ibili gibelesko hoberenetarik, eta bestea Pierre Vivier milafrangarra. Hiru apez, horien kontra : ene lagun Leon Erramouspe-Luixene eta ni. Hirugarrentzat eman zaukuten urte hartan apeztua zen apez bat, garaztarra, Ezterentzubi Etxegoineko semea, Arño Irola, oraino eskuak apez ordena krisma sainduaz markatu berriak zituena, eta hamabost urte Belokeko fraidegaitan egona : hunek Baionako diosesan derama bere apezgoa, Katedralean eta beste. »

Donibaneko plazan aratsalde hartan mundua bazen, garaztar, ezterentzubitarrak, udatiar eta oro. Jarri zen Erramouspe aitzinean, gibelean ni ezker eta Irola eskuin, hunek ere errauts artetik sakeak biltzen, punpe makur batzu goiti-beheiti. Bi xuriak goiti joz ari, Erramousperen airearen beldur baitziren, bainan guk ere ez amor emaiten gibelean eta, azkenean , xantza ere alde, hiru punduz irabazi ginuen. Bainan beste partidarik ere egin dugu hor berean.

« Eta Parisen ere ibili zinezten pilotan ? »

« Segurki, eta frangotan. Bazen han pilota plaza, Chikito famatuaren izenekoa, euskaldunendako 1939 aitzin egina. Eta zenbat euskaldun gazte 1945 ondoan irabazpide zerbaiten menturan joanak ! »

« Eta zuek han, haundienekin arizanak naski ? »

« Bai, bai ! Urte ainitzez, buruilako ilabetean, Erramouspe apezarekin joaiten nintzan harat. Han jokatu gira Harambillet, Prosper Saint Martin, Etcheberry, Bidegainberry ezkerrean, Elgorriaga... eta nor ez gure alde edo kontra ? Azkenik oraino 18 urteren buruan, Beñat Vicenti eta Lacoren kontra, hauk biak xapeldun zirelarik. Pentsatzen

ahal duzu urte oroz hango kasetek, irratiek aipu zituztela bezperatik partida horiek. Azken aldi batez telebixtan izan ginen : Jean Havart garruztarrak eremaiten gaitu larunbat eguerditan "Paris Magazine" emankizunerat. Hamar minuta aitzin han behar ginen. Bat-batean, hor ikusten dugu Serge Gainsbourg oraino guti ezagutua, etzen segur pollita, ez dakit musikari haundia zenetz, kantatzeko haatik alderdi guti orduan, gure gustuko, eta gure aldia etorri zen, argiak begietarat, 30 segunda doi-doia, hunen erraiteko « Nous allons faire une bonne partie ! » Funtsean egin ginuen biharamunean partida bortitz bat, jendea ere xoratuz, ondarrean kopa bat hartu baiginuen Darricol zinemalari famatuaren eskutik. »

« Horiek haundietan, bainan zuek Parisen ere sanoki, hemengo gisan ? »

« Sinets azu baietz. Haatik hau bederen hutsegin zuen ene lagun Erramouspe gaizoak. Arrosako plazan jokatu partida baten ondorioz. Hor, Dorre eta Borda bikotearen kontra, biak xapeldun izanak, ari ginelarik gogotik, Erramouspe salto bat egitean pilotaren biltzeko, gaizki erori zen eta zangoa behartu, partida mainguka bururatuz. Medikiak hamabortz egunen pausan ezarri zuen. Eta ondoko igandean guk Parisera joan behar. Jean Pierre Iratchet apez hartu ginuen orduan, Bidarra Elixaldekoa, pilota gogotik jotzen zuena eta bote bipila.

Parisen Aita Chabagno apez misionest Aldude Xotroinekoak ongi-etorria eginik, hau beraz Asian ibilia, lagundu gintuen bera ere jinez partidaren ikustera, eta oroit naiz han zela ere Narbaitz Jauregy labeztar apez misionesta. Partidak izan ginituen hango biga, ez segur normahi : Hirigoyen senpertz pilotari ona eta haren lagun, Panpale Larralde lubustarra, orduan Parisen soldadu zena. Jende ainitz, kondaria xuriz, gapelu-zinta gorriak, jende ainitz, Aita Chabagno juje, plaza alimalea, ikusleak oihuka « Allez les noirs » (gu sotanarekin alabainan, beti bezala !), Domec jauna pilota batasuneko buruzagia ere han eta guk, doi doia berdinurrik tanto xoil batez joan ginuen egun hartan. Orai salatzen ahal dut egia : Iratchet bidarritarrak Erramouspe izan zuela izena egun hartan. Izena eta izana ere, harek bezala irabazi ! »

« Denak ezin aipa, bainan Afrikaraino ere ereman duzue, zuek, apezek eta besteek pilota naski ? »

« Marokako berriez ere baginuke segur zer konda. Han ala nunahi, aski da euskaldun multxo ttipi bat elgarretaratzea, lehenik

plaza bat egiteko. 1950ean egin zen plaza haundi bat Casablanca hirian, xixteraz estrenatu eta ere Rabat, Fez eta Marakex hirietan soldadu euskaldun, langile eta besteekin, Iriart baigorriarra, Azkaingo anzapez Sauvet jauna eta beste batzu buru. Han ere galdatuak izan gira gu bi apezak bikari ginelarik bat Itsasun eta bestea Urruñan. Eta norekin ? J.B. Harambillet bera. Hunek ez ote ditu bi trufa ere naski hor entzun, fida zenetz, aireko horietan. Bainan ezpeletarrak behingoan azken hitza, berekin zituela apezak bere aingeru begiraletzat.

Haatik aingeru horiek ere ez ote ziren doi bat deubrutu ? Denaden larunbat batez lehen partidari ezpeletarra apezaren kontra, mundu bat plazan eta Harambillet bazoan punpeka aitzin eta gibel, gu aldiz indarrak atxikiz biharamuneko ere. Beraz lehen partidari harek eta gero kittara gurea, Pierrot Haltsoet urruñar gaztea xixtulari. »



Anton Etchegorry, Urruñako erretora Pilotarien Biltzarrean eta Federazioak omendua (erdian) Plazagizon sariaz, Martiarenarekin, hau Mexikan izanez bere andreaz ordezkatua.

Donibanetik Donibaneraino

Garazin hasiak, eta gehienik hor ikusiak, segi ditzagun gogotik gure bi apezak Ziburu aldeko itsas hegiraino. Etchegorry entzunez beti : « H.

Dargain Donibane Lohizuneko jaunarekin, horra kosta alde hartako pilotariak, Oyhanto, Etcheverry, Gozterratxu Urruñako apeza, Ibarburutarrak eta holakoak, Azkaine, Senpere, Urruñako plazetan gaindi. Pantxoia Ibarburu pilotari apeza ere hor zen, Biriatur erretor, oraino ari, Ganix haundiaren anaia. Arizan gira lau apez aratsalde bero batez gure sotanekin, jendea lorios eta urrikaldua Ibarburu izerdi lapetan eta hats behartua, eta batzuetan ttotto-tzen eta eni ari « atxiki, atxiki ! », Gozterratxu bixi bixia eta serio, irri guti pilotan ere ! »

Holaxe ziren gure apez pilotariak orduan. Eta hor ikusi dituzten euskaldun ala arrotzek orok erranen zuten aho batez : bazuela apez ederrik, orduan, Euskal Herriak, euskal elizetan bixtan dena, bai-eta herriko plazetan ere.

Beti irabazle

Betikoa da ateraldia. Ez dugu erranen zoin pilotarirena den hau, Toulet-Eskutik adixkidearen ahotik daukaguna : oroitzapen xorrotxa zaukan lehenagoko partida guzietaz, hau hunenbertzez irabazia bere partidari, eta hemen hola, eta han hala. Baina Touletek : « *galdu ere ez ote duzu zombait aldiz ?* » galdegin-eta ? : « *hori galda zozu hari berari.* »

Gure apezendako aldiz aise erran ditake gisa batez beti irabazle zirela, zeren ikuslea maiz alde baitzuten, bereziki arrotzetan eta holakoak baitziren berak, plazagizonak eta errespetu bezenbat atxikimendu zariotenak. Huna, denaden, han hemenka, Beñat Erviti eta holakoeri esker ahantzi ez diren partida batzuen emaitza batzu, irabaz ala gal, hainbeste baitakar Beñatek bere liburuan, hemen eskertzen diogunik.

Donibane Garazin, Harambillet neurrigabekoaren kontra 29 egin zituzten 35 tarat Erramouspe eta Dorre garaztarrak, 25-10 ere izanik irabazlea aitzinean. Miarritzeko Parc Mazon delakoan 27 tan gelditu apezak 35 tara. Baina Parisen 35-31 irabazi ere apezek, 22 tan eta 27 tan berdindurik, jendea xutiturik txaloka behin baino gehiagotan. Casablancan oraino, Marokan, lehen galdu (29-35) erretzeko beroarekin, eta bestea irabazi 35-30 bi apezak osoki jokoan sarturik, betiko Harambillet berari. Haatik irabaz ala gal bada hor pilota baino gehiago. Beti ere erlisione baten pare aipatzen badute pilota kantu batzuek, hau zion Harriet apezak : « *Gureztat bat izan dira apeztasuna eta pilota eta gurea dugu pilota bera, euskaldunen pilota,apeztasunarekin biak elgarri josiak* ». Ez ote luzkete hitz horiek berriz entzun eta ikasi behar hemen, apez izan gabe ere, euskaldun sortu ziren haurrek, herri hunen haurrek !

FRANTXUA IBARBURU APEZA BERANTEAN

Goazen beraz zerrenda horietako aipatuen batzu hemen hobeki ikusterat.

Azkaingo seme hunekin arizan gira pilotan aspaldi, ber hau Biriaturko erretor zelarik, orduko pisutua, bainan oraino begia xorrotx eta gizona jokotsu, gu ginen Lapurdi hegal hortako apezak, ez ordea klasa berekoak. Bixtan da holako pilotari batek ez zuela jasta ere izanen gurekin pilotan, bera bere anaia Ganixekin profesional artean ari izanik. Baina pilota beti maite, badakigu gurekin egin zuela naski bere azken partida 58 urtetan Senperen, Amotzeko trinket pollitean, eta guk berrogei pasa doidoia.

Beste xixturik ahal zuen pilotak lehenxago, Ibarburuk bi eskuz aise zera-bilan denboran pilota xokoetarat, batzuetan goixko tiratuko bazuen ere moztera. Denaden, gutik dute adin hortaraino iraun jokoan, eta gutiagok beste edozein kiroletan.

BIDEGAIN APEZ XUBEROTARRA BERRIZ

Muskildin sortu zen 1908an. Itxuratik beretik hartzeko, gizon guti horren indarrekorik. Bere sotanak lepoa tinke tinkia betetzen zion eta erdiko botoietarik urratzen ere zuen betearen beteaz. Pentsa beraz zer zitakeen holakoa lehenago pilotan, zituen zain-doble heietaz armaturik. Aitzineko pilotaria, sartzen zitzaion oso osoa pilotari gainerat eta kasik jo-paretari hala-hala. Ez zutena erraiten besoa ere hautsi zuela holako oldar batean sakatzean !

Harriet apezarekin nola egin bikotea halere erakutsia dugun bezala biak aitzinetik ari izanki-eta ! Orduan gibeletik ari behar arnegitarrak. Bainan zoazte zuek, holakoa dutelarik gaia eta maila ! Irabazi zuten Zalgizen, herriko plaza berria estrainatu zutelarik, Leonis eta Ganix Ibarbururen kontra jokatuz. Urte berean Akizen eraman zuten partida hiru tantoz Durruty-Damestoy pare famatuaren kontra 40-36. Eta irabazi ere, berriz, Atharratzen, Sein eta Titiren kontra. Huntan Harriet aitzinetik arizana zen, bere lekuan beraz, eta Bidegain giblean. Maulen ere arizan zen Harrietekin Muskildiko xuberotarra, Salegi eta Atano IV en kontra. Haatik suertea izan zutelarik pilotaren aldatzeko, bi apezan beso bizek hartu zuten gaina ondarrerat. Ez dugu segur ahanztekoa, ez-eta Xuberoko jendeak ere, Barkoxeko erretor bizi, koloretsua, bere sotana beltzean zafrazafra zabilan apez suharra, pilotan suhar izana zen bezal-bezalakoa, azkeneraino bere herriaren zerbitzari paregabea.

JAKES CHIRUMBERRO ERAKASLEA

Duzunariztarra zen Jakes Chirumberro apeza, 1920 an sortua, Xalbador bertsulariaren urte berekoa, baina haren gisa zahartu gabe joana mundu huntarik. Erakaslegoan eraman du bizia, dohainak halakoak baitzituen. Goizik apeztua, hartze onekoa, itzal haundia izan du Mauleko San Frantses kolesioan. Larderia bazuen haur eta gazteetan baina denbora berean maitatua ere zen bere ikastetxeko gazteria hortaz. “Zorrotza baina zuzena” zela, hori zuten erraiten hauek berek. Haurrak haur direla, kolesioaren buru ezarri zuten hango bereko buruzagiek baina ez luzazko, damurik bere osagarri mendrea hantzetan higatu baitzitzaion halako barne txarrarekin.

Eta pilotari ona halere ! Finaletako irabazpen guti bildu badu ere gorenean, galde asko bazuen pilotako herriko bestetan Xubero hortan, bezperak ondoko partidari. Hasperue xuberotar apezak maite zuen harekin artzea, sakea biziki bortitza baitzuen Jakesek eta luzea. Jada semenariokotz beren balentriak bazituzten biek : nola 1939an, lehen urtean zirelarik, ikasle gazteetan Chirumberro eta Hasperue apezgaiek (20 bat urte) jo zituzten P. Larzabal eta H. Etcheverry azken urtekoak, berak baino zaharragoak. Haatik xapelgoan galdu zuten Donibane Lohizuneko Olascuaga eta Sarlanguen kontra. Jean Salha arrangoiztar apez pollita ere gogoan zuen Hasperue gero aipatuko dugun harek berak, Biarnoan gertaturik apez erakasle, hango xapelgoan eta kermezetan aritzen zena. Eta halaber Marcel Larralde Lekunberriko garaztarra hau, Hautxaineko semea, Oloron, Bedous, Larunsen gaindi, pilotari ala predikari bezala eta Hazparneko misionestetan berdin arrakastatua zena. Horra hura ere, beste bat gehiago apez pilotarietan.

EDOUARD HASPERUE

1920an sortu zen hau ere, Urrustoi Larrabilen, Xiberun, Jean-Louis Davant gure euskaltzain lagunaren herrian. Preseski hango bereko herritar hunek zer estimutan zaukan, beste ainitzen gisa funtsean, erakutsi izan dio beti. Zendu zelarik Hasperue apeza, 2001 urteko azaroaren lehen egunetan, artikulu eder eta sentitu bat egin zion *HERRIA* kasetan Davantek. Hasperue pastoralzalea ere zela, ikustera joaile jarraikia erran-eta, hunelaxe segitzen du : « *Pelotakari bezala ere hanitx preziatu dügü herrian igante arrunt elibatez mezperetarik landa, ordüan erraiten güniän bezala, herriko bestetan. Bestalde amatur hobereenen artean zen, üsiän gibeletik, joile azkarra beitzen. Haatik aitzinean ere gustuan aritzen abal zen, bere ukarai biziari esker* ».

Eta segitzen du Davantek erranez : « *Laborantxako eskulanetan berdin azkarki parte hartzen züala, lehenik gazteko opor eta bakantza denboretan, etxondoan gero. Eta hau aitzina, auzo hunek bera baino zaharragoa zuenari : Haatik jauna erraiten genion gazteagoek. Errespetüa karreatzen zian eta karrearazten bere indar nasai eta baketsüaz, bere bizitasun gordeari beti giderak atxikiz* ». Apez hori ez da halere herritarren artean baserrian higatü euskaldun erretorak bezala, bai haatik erakaskuntzan, matematika lizentzia ardietsirik Okzitaniako Tolosan. Erakaslego hori Olorueko eta Mauleko ikastetxe katolikoetan eta ondotik Baionako Villa Pian.

Beste ainitzek bezala, 1939ko gerla luze eta latz haren gorabeherek trabatü bizi bat ereman du apez horrek ere: eta hori bere lan eta eginkizunetan alde batetik bainan ere pilotariaren segidan. Hogeï urte zituelarik hain zuzen, Frantzia guzia urratu zuen iparretik eta Zuberoko lurreraino, alemanek ezarri muga tzar haren eraginez, “*ligne de démarcation*” izendatu zutena, haatik markatzea ez aski, zinezko berexkuntza muga bat ere egin zuena gerla ondarreraino. Orduan ziren herriak berak urraturik gertatu zenbait aldiz, parte bat alemanen aztapar pean zen, “okupatua “ eta bestea “*libro*” : Lapurdi eta Baxenabarre gehiena okupatuan eta Xuberoa libroago parte bat bainan ez dena.



Hasperue xuberotar apeza. Laborde, Irigoin eta Hiriart Durrutyrekin Atharratzen

1941ean hasi zen Hasperue Xubero librean pilotan. Berak zion bezala, gerla denbora hartan pilota zen ahusagailu bakarra herrietan. Denbora hartan

miliunka baitzituen Frantziak presunerak bere soldadoetarik Alemanian, egunak ziren orduan presuner haientzat pilota partidak eta kermeza moduko antzerki batzu egiteko, hango gure gazte dohakabeeri “koliak” deitzen ziren laguntzatto batzu igortzeko. Eta Zuberoa eta Biarnoraino ziren orduan alemanen ihesi eskapatu pilotariak, Harambillet, Frederic Dongaitz, Saint Martin, Irigoïn donapaleutarra, Hiriart-Durruty uztariztarra eta beste.

Hasperue apezaz ezagutu baitugu guhauk Baionako Villa Pian ez aspaldi oraino, harek kondatzen zaigun nola egin zuen, Maulen naski, bere lehen partida Zuberoako lehiaketan : Jean Pierre Iriart Aldude Mieleneko apezaz eta Edouard Hasperue arizan zirela Mauleko Serbielle bi anaien kontra (J.B. Serbielle zen oraiko Peio kantari ezagutuaren aita). Eta irabazi zutela bi apezek. 41eko urte berean zuten haundiekin ezarri Hasperue. Ez zuten arras hola abiatua : Harambillet bera nahi zuten ikusi mauletarek orduko Hiriart-Durruty eta Irigoïn bi amatur onen kontra. Bainan Harambilletek ezetz, laguna behar zuela. Eta mauletarek Hasperue eman zioten laguna. Bai-eta zenbait harritu ere : Hasperue apezak bere beso biziarekin Hiriart-Durruty zuten gibelean kontrario eta partida aise irabazi zuten Harambilletek eta biek.

Ondoko irailan, Hasperue apezaren ahalak ezaguturik jendeak, horra beste partida antolatzen dutela, biga hiruren kontra : Harambillet-Hasperue batetik, eta Laborde, Irigoïn, Hiriart-Durruty bestetik. Hau ere biek irabazi : 35-30. Hartan hedatu zen zinez Hasperue apezaren fama, kaseta batzuek hura deitu ere zutelarik “Urteko pilotaria”. Bainan ez zuen berak urgulurik hartzen hortaz, ziolarik jendea pilotarat heldu zela, edo neguan errugbirat, beste jostetarik ez izanez, ez-eta dantzarik ere, gerla egun haietan.

Hasian hasi, bego gure apezaz haundietan : Nabarregosen ezartzen dute Harambilletekin, Saint Martin eta Hiriart-Durrutyren kontra. Bainan ipurdia lastoz orduan urrustoitarrak, eskutik arras nekez baitzabilan. Beharrik, berak zionaz, « *Jainkoa ene alde izan zen... euritu baitzuen egun hartan* ». Erran behar da ere burua xuxen zuela gure apezak hori kondatzen zuelarik 80 urtetan. Ez zaukan, hori kondatzean ahantzia batere, 1942ko irailean bazutela biarnesek, Paueko Stadium ederreko arrabot haundian, orduko “Chantiers de jeunesses” zirelakoan fagoretan partida eder bat antolatua, Harambillet eta Hiriart-Durruty artzeakoak baitziren Frederic Dongaitz eta Laborden kontra. Hor haatik Hiriart-Durruty, orduan Louvie Juzonen errefusiatua zenak, bideko traba zenbait izanik, gure Hasperue bera ezarri zuten ordaintzeko. Eta hau ere irabazi zuten. Hasperue apez onarenik batere ez galtzeko, bera joana dugun huntan goazen erran, aipamen xoila bederen, apez xuberotarrak zion hau oroitaraztera : Tolosan (Okzitaniakoan) jokatzeko zuela, bazkalondoko epe laburrean bederen “Emulation nautique” Kiroldegiaren plazan, preseski guk, soldado euskaldunek ere geroxago hastiro ez ginuenean pilotako.

Bidegain apeza aipatua baitugu bestalde, bazituen hartaz ere, bera harekin arizanik Hasperue berak bere oroitzapenak eta iritziak : bai-eta nolako pilotaria zen aitzinean eta zer izigarriko sakea, botatzean egiten zuen “tta” harekin animatzen baitzuen jendea. Urrustoikoaren arabera, ez omen zuten arerio edo kontrariorik, erraiteko maneran Bidegain aitzinean eta Harriet gibelean elgarrekin jarritz. Oroitzapen hau kondatzean pitzen zitzaion begia Hasperue gaizoari : hiru bitoria bazauzkan ezin ahantzizkoak, bi apez hoberenak, Sein eta Titi-ren kontra. Lehenik Zalgizen (40-36) eta gero Saliseko plaza ederrean (40-37), eta hirugarrena Mauleko plaza haundian Salegi eta Atano IV hegoaldekoen kontra. Alemanian preso egon denboraren ondotik ere arizan da oraino Bidegain Muskildiarra baina ez baitzen gehiago lehengo hura, guti ikusi dela geroztik eta gehienik ere apez lagun xahar batzueri zerbitzu egitea gatik eta hola, horra zer zion geroztik hartaz.

MARTIN PEBET GARAZTARRA

1939ko gerla harek, zenbat bizi errebelatu dituen, desmasia haundiez kanpo ere, nor jakin sekulan ? Hainbeste gazte, herritik urrundu behar izan zutenak, Hasperue batekin aipatua dugun herri urratze eta aleman okupazione harekin edo beste, mugen gainetik herbesteratuen gainera ! Gerlan gerlako gisa, egun dorpeak ziren, pilotari batzuek, apezgai batzuek, ezkongai batzuek Alemaniako presondegietan eta gaztigutegietan utzi eta galdu izan dute beren biziko amets ederrik. Gu orduko apezgaiak aterbetu gaituzte oihaletxola batzuetan gure lagun helduagoen apezordenakari, Baionan semenarioa aleman soldadoek harturik berentzat. Aldiz Pebet apez Duzunaritze Iturbideko semeak, Alemaniako presunergo latza ezagutu zuen, Bidegain, Harambillet eta beste ainitzek bezala. Pebet hau eskapatu ere zen Alemaniatic, han eta gero ezagutu osasun trabak bestalde. Baina gosta ere! Osasuna mendraturik 63 urtetan hil zen. Ez alfer egonik halere: Hazparneko San Josep ikastetxean erakasle eta Lehuntzan erretor, ezagutu dugu haatik euskal plazetan : pilotari segura, ekartzale ona, ez beso haundia baina fina, ez ditu xapelgoak aski gozatu, gerlagatik eta apezgoagatik ere, baina izan du ainitz galde plazetan, Xuberoan guziz eta Baxenabarretik Lapurdi hegi hortarainoko arraboteetan ere herriko bestek beren partidatua behar zuten denboran. Trinketetan gutiago baina hor adiskideen artean. Garazin geldituak dituen iloba eta ilobatxoek ez dute ahanztekoa.

ANDRE BEHERAN EZPELETARRA

Apez erne ta jendakin agrados hau zen J.B. Harambillet pilotari haundiaren Ezpeleta herrikoa, 1912an sortua, hura baino lau urte lehenago baina bera

ere pilotari goizik ohartua. Berak zion sei urtetan abiatu zela plazarat, pilota eskuan. Eta hau ere : « *Eskola hanta izan duela berak pilota apeztasunerako bidean* », Chilhar, Darraidou, Harambillet aitasemeak ikusiz eta zenbait lauzkatuz pilotan eta izerdi ederrik ixuriz bere “liburuekilako borroken” artetik. 1937an apezturik, horra gure apez pilotaria Uztaritzeko semenario ttipian erakasle, guhaur aldiz haren ikasle girelarik, Erramouspe, Oxarango, Lazcanotegui eta gu beste apezgaiak. Uztaritzeko Kapito-Harri piloteskolan hartu omen zuten bere lanarte eta eta igande aratsaldeetako. Huna zer zioen Beheranek :

« Laguna nuen mutiko bat plantakoa, Hiriart-Durruty arrunztarra, mutil fina eta, bixtan dena, pilotaria, joko buruzagia aldiz Alzuyeta jauna, 1938 urtea zen. Egin partida guziak irabazi ditugu, azkena haatik, finala, galdu, Uztaritzeko fraideen eskolako plazan, sekulan oroituko niz, zer mundua ! Hori ikusiz, doi bat durduzatua izan nintzan. Bi oren arizanik bat bertzearen bete, hilka, galdu ginuen, bi punduz Frantziako xapelgoa. Handik zortzian Parisen galdatu gintuzten buruzagiek. Nik ezetz, sobera akitua nintzela ».

Bixtan da, beste partidarik egin duela Beheran apezak bainan han ere, beste batzuen gisa, ez zuen apezteak hanbat lagundu pilotako, ez-eta, menturaz jokoaren alderdiak ere. Joan behar izan zuen Miarritzeko lizeorat omnier, geroxago erretor, Mugerrerat, Donibane Garazirat eta beste... denetan apez xehe, mintza errexa, alegera eta ainitz maitatua.

PIERRE ETCHEBARNE

Lekorne Leizarragako seme apez hau aurtengo G. Etchebarne xapeldunaren oseba, ez da hanbat ibili plazetan bere buruaren erakusten bainan Lekorneko berriak segitzen dituztenek, pilota eta beste, aise konprenituko dute. Lehentxago Urtsuko bildotsak deitzen zirenak Germain Lafitte jaun mera suharraren denboran, orai Airetik Elkartea dela orok badakite eta Etchebarnetar ilobak direla hor beti ere, pilotari eta pilotazale. Guk aldiz ez dugu urrun ibiltzerik izan Echebarne apezaz zenbait berri jakiteko : baietz bai, beti eta luzaz sotana soinean ikusi dugun apez predikari haundi hori bera izan zela ere pilotari ixil eta doi bat gordea. Berak berriz nahiago izan dizkigu bes-teren berriak eman, bereak baino. Arditeiko apez xaharren arduradun luzaz egona, eta beti han dena, gomendatu dizkigu hango bi lagun, ez ahanztekoak. Aspaldikoetan batto zuen Pierre Labadie bardoztar seme apeza, gorputzez luze, lerdin, argitu eta abertzalea izana, eta orobat pilotari pollita, gibeletik atxikitzen zakiena. Hau bederen jakin ere dugu : behin segurik bi apezek, Etchebarne eta Labadie, jokatu zutela Bardozoko plazan hango bereko hiru

herritar hoberenen kontra. Ezagutu baitugu guhauk pilotari onik herri hortan, Diribarnebarrak, Dirassartarrak eta beste, ikus beraz hortarik beretik ez ahal zirela txarrak partida hori bururatu zuten bi apezak. Orain ez dira, damurik, hanbat aipu Bardozeko pilotariak. Egungo huntan goraintzi guk, beste batzuen aldia jin artean, Kanbo Arditeiko apez xaharri, Aramburu, Lekuona, Arbeletche, Olhagaray eta beste pilotari ohiak. Ai, denbora joana ez balitz, izanen zuela arrabotetto bat ere Arditeiak ! Bainan zer diot nik berriz ? Jakiteko edo pentsatzeko ahal da ez dela pilota partida eskasik etxe maite hortan, espartin eta eskuxatertonekin ez bada, asteroko telebista harekin bederen, Titin, Xala, Gonzalez, Aimar eta besteen balentrieri beha loriatuak daudelarik apez xaharrak.

JEAN PIERRE IRATCHET

1939ko gerla aitzinttoan sortuak ziren Bidarrin Iratchet anaiak. Gehiena, Pettan, ez dugu pilotarietan kondutuko, nahiz Euskal-Herriko erretoretan (Alduden bereziki) izan duen bere itzal haundia. Jean Pierre, Pettanen anaia bai pilotaria eta zer pilotari sana, gorago aipatua ! Bidarriko plaza gainean, eta Artetxeko trinket zahar lauza gorridunean nondik ez ! beti prest, nor-nahirekin jokatzeko. Eta geroago, Landesetan, zelai horietako gune euskaldunenean segitu zuen bere apez kargua, pilota, eta bereziki esku-huska ainitz jokatu eta jokatzen den alde hortan ere.

Geroxago landestarrek, eta guziz Landesetako euskaldunek (asko baitira harat pino oihanetarat joanak eta han esposatuak ere frango), heiek bai erran lezakete nolako apez sano, alegera, kantaria, jendakina zuten Jean Pierre apeza. Ondarrerat, herriz herri predikari, pilotari eta denen lagun sutua izan ondoan, Buglose herriko beilatokian bururatua du bere zerbitzua, hainbat adixkidek ez baitute segur ahanztekoa. Iratcheten pilotako balentrien kondatzen ez ginakike, urruntxetzen ari baitira oroitzapen hauek orai eta joanak ere hango lekuko gehienak.

Bainan hemen erran behar dena hauxe da : pilota mundu bat zela apez hori bera berekilakoekin, oroitzapen kondari xarmegarria gainerat, eta pilota bizi-arazten zuela berak bezala besteekin. Pilotarietan bi moldetakoak izan dira betitik : lehen mailekoak, herrikoiak, gustu eta atsegin hartuz ari direnak, libertitzeko, lagunekin konpainiatzeko eta goragoko ametsik gabe. Eta bigarrenak gorako mailakoak, hots, xapel eta omen ondotik dabiltzanak, ahalak ere izanez hortako. Engoitik konprenitua duke irakurle onak, lehen horietakoa zela Jean Pierre Iratchet apeza, eta holakoek ez dutela gutiago merezi, batere.

Adibidez, hauxet erantsiko diogu gure erranari: pilotari batzu badira beste dohain bat lotzen diotenak jokoari, hala nola kantari, edo bertsulari edo

musikari eder izanez partida ondoetan. Iratchet zenari arras egoki zitzaizkion horiek guziak, hain zen lagun xarmegarria konpainian ! Beste dohain bat ere bazuen arraroa : kondatzaile ona eta idazle paregabea, liburuak eta oro eginak zituena, euskaraz bixtan dena, eta kasetalari bikaina ere bai. Doala hemen, xoilki, *HERRIA* kasetan bilatu haren artikulutxo hau beste askoren artean hautatua, hain zuzen pilota solas ari zelakotz Bidarrai Artetxeko trinketaren Ganix nausi zenaz : aise ezagutuko duzu zuk, irakurlea, bera zela, Jean Pierre gaztea, Otto Piarre, horgo bi gazte horietarik bat. Horra beraz hemen Bidarraiko berrietan 1980ko Apirilaren 24an zer zion “otto Piarrek”.

« *Ganix Artetxe*

Pilotari gazteak, pilotari zaharrer jokatzen bazirezte, kasu partida egitean, hartan buruz irabazten baitute gehiago besoez irabazten ahal ez dutena.

Bidarriko bi gaztek uste ukan zuten bi zaharrer irabaziko zutela. “ Lasterkaraziko ditiuk, ez die irauten hastean besoez nagusi badira ere.”

Eta kontent ginen zaharrek hitzemanik pilotak ekarriko zituztela, guk ez baiginuen pilotarik, heien erostekoa zuen gure bankoak falta arranda ttipiak zituelakotz.

Bidarriko pestak, gure partida. Urdiak ! Pilotari zaharrak heldu zauzku nehorat ezin altxatuzko pilota español pisu batzuekin eta besoz guri nagusi, errausten gaituzte. Jukutriari ohartu orduko, ikusten dut Artetxeko leiho batean Ganix, zer ari giren egoki baititake bere buruarekin murmuran. Igortzen dakot mezulari bat, lehen bai lehen igor dezan pilota arin bat. Gaixoak, igortzen dauku Pazkal zaharrak Bidarraineko lasto metak bezain gora punparazi zuen pilota bat, dener irri-eginarazi eta gu gehixago ahalgearazi baiginituen.

Gaixo Ganix !

Zoin maite zuen pilota ! Zer ez du egin, ixil ixila, bere ahalen arabera, pilotaren fagoretan, Klodinak denak jakin gabe. Haren zoriona bere seme Beñat ikusi zuelarik hoberenen artean pilotari. Bainan, min tzar batek hil zuen gazterik Beñat, eta Ganix hautsi zen. Lotsatu gabe halere-halere, Dominixenea atxiki zuen. Zonbat aldiz ez du egin bi etxeen artean joan-jina, ondoko norbaitentzat. Bainan, arte zuen guziez trinket xokoan zen haur eta gazteeri beha nor aterako zen pilotari. Eta pilota onak bazituen beti seriozki ari zirenendako.

Merexidun ttipiagorik ospatu dute pilotako Biltzar ala Federazioneek. Bidarraitarrek ez dezatela ahantz. »

Eta milesker zuri, Jean Pierre Iratchet, Otto Piarre, apez pilotari suharra !

PIARRES LARZABAL

Azkaindarra zela hau, 1915an sortua, eta herriko seme arrazakoa, gorputzez apal baina bere erroetan ongi finkatua, erraiten badugu, irakurleak badaki jadanik pilotaria ere zela gaztean, gainerat bere euskal nortasunari errotik atxikia zelarik. Baionako semenariokotz erakutsiak zituen bere pilotako dohainak beste jitearen ixurgiekin batean. Norakaturia ote dugu semenarioko argazki ttipi xahar hura, berekin baitzauzkan, sotana bapoak erdi-zabalik, Piarres hau, Henry Etcheverry, Frantxua Perugorria, Jakes Chirumberro eta orduko apezgai errabiaturien batzu, semenarioko finala baten ondotik gorri belzturik hartuak ?

Hazpainen bikario, han ukan zituen Larzabalek bere dohainen erakusteko paradak, Ximun Duhour, P. Trolliet, Luma, Sarasola, J. Etcheverry, Pallaciotarrak, Laco-Behengaray gazte gazteak eta beste hanbaten artean. Bainan beste dohainik ere erakutsi du Larzabalek Hazpainen, pilotaren osagailu Iratcheten gisa : apez suhar eta xeheaz bestalde, antzerki idazle eta moldatzaile famatua, eta langilearen aldeko, orai erran litakeen bezala, noiz edo noiz nausieri bekuntzea ilun eginaraziko bazien ere. Hots, pilotaz bestaldeko ainitz dohain izaiteak, idazle, antzerkilari, gazteriarren apez suhar, abertzale, langileriarren eta euskal nortasunaren aldeko militante, euskaltzain eta beste zaletasun batzuek ez diote kenduko ere pilotari bipila bezala kristau argitzaille zela Piarres Larzabal azkaindar apez bere izeneko Ikastola baduena itsashego hortan : Piarres Larzabal Ikastegia. Eta Anai-arte, herritar iheslari eta presoan aldeko Elkartearen sortzetik izanen zena, Piarres, zu gabe?

ERRAMUN CARACOTCHE

Beso on eta azkarreko apez pilotaria

Ahatsa Mendian (etxearen izena) sortu zen Erramun 1952an, Domingo eta Denisen semea, bi burasoak ere Ahatsan sortuak zituelarik. 11 urtetan apez eskolarat joana, pilota maitatua zuen ordukotz mutil azkar horrek. Baionan, katedraleko kantari ttipietan lehenik, Uztaritzeko eta Baionako semenario ttipi-handietan gero, 27 urtetan apeztu zen. Pilotari arraza, bere osaba Jean Aldacourrouz bereziki, berak dio harek gogotik sustatu zuela pilotarako. Funtsean, Ahatsako seme, ez zituena hor, haurretik plazetan ikusiak eta txalotuak, Olhasso anaiak, eta geroago hauen seme bat bai-eta, lehenagoko fametan bederen, Idiartegaray apeza, Donagaiko seme suharra, pala jokoan Etcheverryrekin xapelduna, baldin-eta hura gutiago ikusia bazuen ere berak

joko hortan ari, Donibane Ziburu itsas aldeko hegian baitzituen hunek aspaldi bere ibilpide eta balentriak. Bainan bego Erramun apeza bera mintzatzerat, Garaziko euskara garbian :

« Pilotan hasi nintzan, jendearen aitzinean bixtan dena, Villa Piako ikastetxean nintzalarik Baionatik Angelurako hartan, lau kide bagindoatzin handik Aviron Baioneseko trinketerat astezkenetan, eta gure aitzindaria zen Jean Etcheto Baionako pilotari ohia. Lizentzia bat hartu ginuen Baionako sozietate hartan eta Kadet mailan han arizan niz Baionako Michel Etcheverryrekin. »

« Baionan ez duta entzun pilotaz besterik ere jastatu duzula zure ahal eta dohainekin ? »

Egia da Akizeko semenarioan sartu nintzalarik, errugbian arizan nizala U.S. Garazirekin. Berriz hola Garazi jastaturik, berriz ere pilota banuen hor Goizeko Izarrarekin. Andre Ardohain kausitu nuen hor laguna, duela zenbait urte zendua dena zorigaitzez. Hautu bat egin behar nuen eta pilota hautatu dut. Semenarioko ixtudioak eremaiten nituela, Goizeko Izarra elkartearen arizan niz.

« Preseski, hor ezagutarazi duzu zure burua, izen bat ere zuten pilotarien artean ? »

Neure Garaziko Goizeko Izarra elkartearen ari izan naiz hain zuzen. Edouard Mayterekin bi titulu bildu ditut. Eta arizan niz Choutchourrou Lasakoarekin, Olhasso ene herritar Ahatsakoarekin, eta Irumerekin eta Maitiarekin. Plaza laxoan hiru finala galdu ditut, bat Maitiarekin beste bat Olhassorekin eta bestea Irumerekin.

« Hori haatik ederra dugu. Beste guziek irabaziez dute espantu egiten eta zuk galduak ditutzu tarratarra kondatzen lehenik. Bainan baduzketzu zuk ere zure bitoriak kondatzeko ? »

Irabaziez mintzatu behar badut ere, bitoria solas goazen ene apeztasuneraino. 1979an apezte nintzan eta pilotaz bainuen zure galdea, bixtan da ez zautala apezteak pilota kendu. Etchandi ginuen orduan pilotako buruzagi arduraduna. Eta huna irabazi solas bat : 1979ko urte hortan berean plaza laxoko xapelgoa irabazi nuen bai, Maulen nintzalarik bikario, hango xubero-tar J.P. Etchegarayekin. Gero segitu nuen J.P. Espelekin, hau ere, nik behar nuen bezala, gibe-leko pilotaria.

« Haatik izan dituzu zure aldakuntzak, alde batetik zure apezleketan eta, ondorioz, zure pilotako elkarte eta arduradunetan ere ? »

Dakizula baietz. Orduna eta Etchecopar jaunak izan ginituen Maulen, heien gerizapean arizan baigira. Bainan huna Baigorriat izendatzen nautela gero. Hor ere pilotako lagun berri bat, Jean Paul Jaunarena ortzaiztarra. Hunekin finala bat irabazi nuen. Eta negua jitearekin trinketeko finala bat galdu ginuen Erramouspe zenarekin, ez haatik Erramouspe apeza bainan Michel, gure pilotari lagun pollit eta ixila. Gure erakasleak orduan : Jean Mari Berterretche, Bascans, Arrosako Alexandre Iputcha.

« Horiekin denekin zu berdin trebe plazan ala trinketean ? »

Adinean aitzinatuz gehiago arizan niz trinketean, bereziki gazteekin, batean partidari eta bestean hauen moldatzen, Jean Etcheverry eta Beñat Urruty gintuela gidari Armendaritzen. Hor xapelgoak bururatu ditut, Jutsirat izendatua izan nintzalarik erretor. Artetik, zenbait lehiaketa jokatu ditut, eta irabazi ere bai Irisarrin, Garikoitzenean (Donapaleu) eta hola, gorputzak oraino segitzen zueno, Jean Pierre Urruty armendariztarrarekin eta hola.

« Hots, iduri zait ez dela traba izan zuretzat pilota zure apeztasunean eta jende artean ere ? »

Ez dut ez urrikirik batere. Ainitz lagunekin ari izan niz pilotan eta denbora goxo frango ereman ere. Osagarriarendako ere on, astean behin edo bietan pilotan artzea. Behar bada ez niz aski trebatu gorago joaiteko. Bainan ene helburua ez zen gorago joaiteko pilotan. Denaden uros nintzan artzeaz, hatsa ez banuen ere beti trenpu hoberenean.

« Eta zuretzat pilota gaurko egunean ? »

Ohartzen niz telebixtari esker ainitzek hegoaldeko pilotarier behatzen dietela. Eta ere hemengo presuna andana batek segitzen dituela trinketeko partidak ez badira sobera urrun. Haatik plaza laxoko partidek gibelatze handia eginga dute. Gure denboran plazetan bestakari amaturrak ari ziren eta biltzen ere zuten, besteak beste, doi bat fresen pagatzekoa, herritarreri ahusamendu eskainiz.

Bihar aldiriz pilota ? Ez dakit. Ainitz pilota eskoletan erakasle batzuk indar egiten dute haurrak pilotan ar diten esku-huska bainan bada beste hainbeste kirola, errugbi eta beste eta talde haundiek emeia ere bere ganat tiratzen.

Solas horien ondotik ikasi dugu nola konpondu den Caracotche apeza bere lanean ere pilotarekin. Orohar, ederki hots ! Seinalatuz ondarrean diruari eta laudorioeri hartu behar zeizela izaria eta neurri ona. Horien gainera, huna guk aldiz urte horietako *HERRIA* kasetan Caracotche apezaren partidez kausitu dugun bildumatxo hau. Erramun Caracotchekin erabili solas horien osagailu, baginituen ere ainitz partidaren berriak eta ondorioak *HERRIA* kasetan urte batzuez agertuak. Ez ditugu hemen heietarik zenbait baizik aipatuko, aski erakusteko doia bakarrik, nola josi duen, bikario gaztedanik eta herri zenbaiten erretorgoaraino Erramunek pilota maitatua bere apeztasunarekin. Gisa guziz jakin beza irakurleak, badaukala oraino gehiago gogoan Domintxaineko erretorak pilota solas.



Duela 20 urteko gazte hauek beren erakaslea bazuten baina herriko erretora ez urrun. Ala ez Ospital, Bidart, Biskay, Oihenart gazteak ?

1976an, oraino apezgai zelarik Erramun, 24 urte, Edouard Mayte Garaziko Goizeko Izarra elkartearen buru beharra zenarekin arizan zen ezkerparetan orduko trebatu hauen kontra, Yustede-Zubizarreta, eta irabazi ere 25-21. Hau haatik galdu Maitia-Caracotchek, 26-30, Bereau-Harisgain senpertainen kontra. 1978an hautatuak izan ziren Kaliforniako euskaldunetarako, hango arraboteetan, Boisen irabazi ere Caracotche Ithurralde 30-23 Bereau-Lissar pilotari onen kontra. Eta 1979 urtea dute oroitzekoa Caracotchek eta J.P. Etchegaray xuberotarrak. Orduan zuten plazako xapelgo nagusia irabazi Cigarroa-Hiriart Hendaialdekoen kontra, 30-25. Alta aitzine-

ko egunetan Euskal Ligako xapelgoaren finala galdua zuten horien beren kontra, 21-30. Hola da jokoak. Bere lagun Etchegaray berarekin jo zituzten Dubois-Thicoipe amikuztarrak trinketea, 50-31. Eta, beti trinketea, hementz bote sartu Caracotche apezak Erramouspe gaztearekin Mugordoy eta Etchegaray lagun ohia joz 50-34. Inchauspe-Carricart famatuak ere orduantxe jin eta gure bi xapeldunek heien kontra galdu 18-50, trinketea : orduan ziren haundienen mailera atera garaztar horiek.

Lasako bestetan dugu gure apeza 1983an. Eta hor ere irabazi G.Urrutia herritar bipilari eta hunen lagun arizan zen G. Duhalde suhaskundarrari, ez baitzen batere errex bi Gabi horien meneratzea. Buruzburukari samina ere izan da gure Domintxaineko apeza, geroztik Caracotche jauna, deitzen dugun bezala : 1985ean Mattin Garat senpenter buruzburukari famatuari ere behin segurik irabazi diola erraiten ahal du, 40-28.

Gehiagoko xehetasunik gabe, iduripen huntan gaude Ahatsako seme hau, halaber artzain eta laborari laguntzetan ere prezatua, apez pilotari onen le-roan aipatu beharra zela baitezpada, baldin-eta, mendea aldatzearekin, sotanarik plazarat ekarri ez badu ere.

TOTE SALDUBEHERE APEZA

Aldude Uhaldeko semea dugu Tote edo Josepe Saldubehere Apeza. 1952an sortua Erramun Caracotche bezala, biak ditugu plazetan xuriz bezti jokatzeko ikusi ditugunak beste pilotariekin, eta ez sotan. Gauzak aldaturik, ez dute biek ere sotana jauntzia erabili, ez plazetan ez-eta jende artean. Hunekin ere izan dugu bera mintzarazteko parada guk galdetxo batzu eginez bakarrik.

« Zuk aldiz, baduzu berezitasun bat, Tote, lehen pilota moldatzailea ere apeza izan duzula. Eta besteak nor, sustatzaileak eta pilotari lagunak ? »

Aldudeko eskolan ahal guziz pilotan ari ginen Léon Labayen gure apez-bikari-errieta ginuelarik sustatzaile eta erakusle. Zoingehiagokak muntatzen zituen eta errabiatiak ginen, bixtan da, eskolan ikasteari baino gehiago !

Uztaritzen sartu bainintzan 6-garrenean han ere baginuen ezker pareta bat eta errekreazioneetan lasterka joaiten baiginen lekiaren hartzera... Han ene lehen xapelgoetako laguna ezagutuko dut : Erramun Caracotche. "Aviron Bayonnais" hortan hasi ginen, Max Duguet ginuelarik gidari (gure bila jiten zen, bixtan da, eta berriz

ekartzen) ez dut oroitzapenik batere denbora hortaz... bizpahiru urtez ari izan ginen. Haatik, Erramunek baitzuen osaba bat Baionan, oroitzen niz bazkari eder batzu biltzen ginitiola Saint André xoko hortan gure pentsioneko menuetarik kanbio baitzen... berdin hortako ere ez niz oroit irabazi handirik eskuraturik trinketetan ! 17 urtetarik goiti serioski hasi ginen. Aldudeko lehiaketa eta Zaharrer Segirenak Baigorriin... Marcel Monlong zen president... gure bila jiten zen Aldudera (gure etxeetan ez zen autorik...) Jeannot Joalgin (Dendarieta), Albert Markitxa (Hualde), Daniel Mutu (Mutuberria), Mizel Mate (Arraras), Noël Apezteguay eta Jan Battitt Xanfermin (Hasquet) besteak beste. Gure presidenta mediku ere izanez beti prisan zen, autoa ziztian erabiltzen (bainan xofurra zen !) eta zenbat aldiz ez gira nahasiak arribatu pilota lekietara, ni bereziki, baita ere Mizel eta Albert. Eta gure medikiak bazien guretzat erremedio magiko bat arraroa orai aitortzen dutana : « Zauzte hunat, rhuma hurrupa batek arrañatuko zauzte ! » Erran behar dut egia ziola eta geroztik ene biziko gustu hartu dutala.

Xapeldun izan ginen 1970ean, xuxen balin baniz, junior-etan Jeannot Joalginekin Baionan Senpereko Bereau eta Harisgainen kontra. Egun hartan, batere espanturik egin gabe, gaitzeko forman nintzan, joitzen azkar, airea ontsa, sarea miatzen indarrean... orduan Beaudonnen (semenarioan) nintzen eta ebiakoitz aratsean (bezperan beraz) Pauen izana nintzen M.E.J. gazte moimendu baten besta bate-tan beste gazte batzuekin eta berant sartiak ginen handik Peio Irigoyen apeza ginuelarik gidari... eta goizean berant arte lo eder bat eginik nintzan eguerdi arte ! Ez zen ordian oraike preparazionerik : egiten zen jiten zen bezala egin eta jo aitzina ! Gazte ginen... (artetik erraiteko, enetako ez da pilota sekula lehen izan, zonbat partida ez dut galdu ene faltaz, bezperan edo antzerki bat eman behar Aldudeko taldearekin, edo M.R.J.C. gaztekin aste ondar bat izanez nunbait gauaren parte bat galdua...) Jin nadin berriz Baionako pilota partida hortara hauxe kondatzeko : Jeannot-ek ontsa baino hobeki ezarria zien espalda berotzeko pomada bortitz bat (Algipan ?) eta ohartu gabean bisaian ere pasatu zuen eskia aldi bat baino gehiago ontsa garbitu gabe izerdia xukatzeko eta... sutan zen ! Hortakotz egin zituen segur ere 9 sake falta pilota jendeetara eskuineko galeriara igorritz ! Bainan bestenaz sare zaintzeko paregabea zen eta huts guti egiten. Dena den irabazi ginuen. Gure bi aitak ere jin ziren Baionara gure ikustera : erran nahi du zonbatetaraino gertakari bat zen bi Aldudar finalean izaita ! Beraz, goizetik abiatu ziren Aldudetik, ardiak bazkaz izanez Joalginekin Ahetzen, handik pasatu, nunbait bazkaldu bixtan da eta... gure partida finitu ondoan arribatu gutaraino. Bainan fierxko halarik

ere bien semeek irabazirik ! Beraz etxera bildu ziren, joan bezala, erran nahi baita egin ginuen banketa bitoria ospatzeko Juantorena ostatuan Baigorri... Gu denak kafean ginen bien aitak gutaratu zirelarik azkenean.

« Pilotari bideak beraz ordutik, gazte gazterik? »

Gero izan ziren Alduden eta Esnaasun zenbait desafio, xapeldunen kitzikatzeko (gu, beraz) ez ditut denak aipatzen ahal hemen... Pariatzen ginituen bazkariak edo afariak, sanoki, adixkidantza hobereanean... baziren sosa ere pariatzen zutenak. Aldudeko trinketeko lehiaketak ere arrakasta gaitza zuen denbora hartan : gazte hutsa nintzalarik arizan nintzan Henri Lubet-ekin haundien artean eta irabazi! Lubet ez zen normahi bixtan da... Perkain kopa, mereximendu handiena zuenari emaiten zutena, urte hartan neri eman zautaten. Beste batez, finala irabazi eta banketaren ondotik desafiatiak izan ginen eta segidan joan ginen trinketera, argiak piztu eta partida egin beroan bero, goizeko hiriak ziren. Pentsatzen ahal duzie ez ginela barurik eta taula azpian bazela arrabots eta berdin zenbait pario ere. Gu bizi hortan hazi eta haunditu gira sanoki eta ezin hobeki !

« Horiek hola, oraino ikasle, eta jada pilotari ? Bainan beste kirolak ere ? »

Akizeko Semenario handian sartu nintzalarik urrundu nintzan Euskal-Herritik, han bi urte egon, rugbian eta footean ari ginen aste barnean, pilota ez... bainan astero jiten ginen etxera : ni Filipe Bidartekin ari nintzan. Urte batez, Peio Etchemendy Suhuskundar pilotari fina gidari Larzabaleko trinketea finalean galdu ginuen Ligako finala Azkaineren kontra eta ez normahiri : Xan Urdampilleta eta Panpi Laduche, gu baino gazteago zirenak eta biak pilotari haundi beharrak... Igandetean, sartu behar ginuen aratseko otoitzarendako 7etako. Ez zen posible igande batzuz. Superiorrak deitu ninduen bere bulegora astelehen goiz batez eta erran zaidan : « Tu dois choisir entre la pelote ou le séminaire » eta... nik, biak atxiki ditut ! kasko gogorra edo... zihauk ikus !

Bi urtez Tahitin egon ondoan, adinik hoberenean (kooperazionean) hor gibelatze bat egin nuen, bixtan da, gizendu (eskola emaile nintzan). Hortaz oharturik, Aldudar batek, berriz sartu nintzalarik 1975ean, Robert Xantrea-k (Arambel), desafiatu ninduen buruz buruka, nik uste nuen lehengoa nintzala eta, bixtan da, galdu nuen, leher egin, bainan gero serioski berriz hasi nintzan, ene urgulian hunkia izan bainintzan. Jan Battitt Sabarots-ekin urteak ari izan gero,

Baigorriko Jean-Marie Berterretche president zelarik (artetik erraiteko Monique eta Jean-Marie-k zenbait bazkari eta afari badaukute emanik eskolatik landa etxera joaiteko orde pilotara joan aitzin !)

« Huna orai Tote pilotari- katexista ! »

Berhouet eta Housset-en kontra Larzabalen irabazi ginuen Ligako finala eta ber finala galdu Hazparnen, Frantziako finala, ni trixtea izan nintzan eskutik minez, alta arraro gertatzen zitzaitan, beti esku azkar-rak ukan baititut, beti esku huts ari nintzan trapu eta loturarik gabe. Urte hortan diakre nintzan Hazparnen... azkar, osagarrian, denbora erdi, bi urte hartan, laborantxan ari. Camino erretor zen Hazparnen. Presentatu ninduen katiximako haurrer erranez : « Huna Tote... » Haur batek etxean erran zuen « Badugu katixima egile berri bat, diakre da, pilotan ari da, Tote izena ». Amak erran zion : « Tote ez da pollita... Ttote pollitago da erraitea. ». Mutikoak berriz : « Ama, ikusiko duzularik gizona, ikusiko duzu Ttote baino hobeki joanen zaiola Tote ! » Haurren abotik egia jaltzen omen da, beraz...

« Pilotak eta Apeztasunak Baigorritik, Lapurdi eta Amikuzeraino, Xuberora ereman ? »

1980ean, apeztu eta 12 urtez Urruña eta Senperen eta hor gaindi: zernahi partida egin dut : Mixel Cleidon Donapaleukoarekin Donibanen bizi dena edo Senpereko Paxkal Haroçarene, Gregoire Sein (hunekin ikasi nuen ikasi nuena errebotean) Mendy, Behasteguy, Mattin Garat (zer katzakak hunekin buruz buruka) Jean Iturria eta Mattin Sanchez ginituelarik gure arduradunak (bat beti serio, bestea omore ona zariola). Maite izan dut pilotan artzea, lagunekin har emanak ukaitea, Euskal Herriko izkin batetik besteraino zernahi lagun eta adixkide ere egin ditut eta beti baditut pilotari esker. Pilotak ere salbatu nau emanez ene gazte biziari seriositasun bat, neurri batzu, behar baitzen forma izan pilotan artzeko : oroz gainetik maite nuen buruz buruka artzea eta, hortakotz, lasterka edo mendian ibiltzea beharrezkoa baitzen, gustu hartu dut hola aritzea eta bizitzea, beharrez ere besta edo mahain bat tenorez utziz pilota partidari pentsatuz... ez dut batere urrikirik, eta geroztik usaia berak segitzen ditut, kirolari gehienek gauza horiek badazkite. Ez da mirakuilurik : nahi duenak zerbait egin kirolan hortarik pasatu behar du.


Milesker zuri denetaz, Tote, bero-beroki ! Zure balentriak sanoki eta apal apala kondatu dituzu, menturaz ederren batzu baztertuz. Zuhaurk errai-

ten duzun bezala, kirola da pilota, ahusagailu bat, gizontasunaren eta zerbait gehiagoren lagungarri, guziz apezarentzat, eta horri denak ohartzen dira. Barkatu bainan zertako ez sala nik ere zutaz dakitana. Orai 54 urte ditutzu, aintz adiskide orotan, Xubero gaineraino. Huna, zutaz, berriz ere, barka, batek erran didana : « Ez zian orobat haundien batzuen klasaraino heldu, bainan langilea zian eta plaza gizona, lagunarendako ona. » Hori baduenak!

*NB : « Ene hitzño huntan ahantzi tudanak barka otoi !... ez dut memo-
rio gaitza ! Bainan plazer izan dut lerro hauk idatzirik, pilota neretako konda
baita. Orai, 54 urtetan gozamen berak ditut bainan galerietarik... ahal dudan
guziz, partididen ikustera joaiten bainiz... Duela 10 bat urte utzia dut pilota,
azken partidak Peio Bera (Ardans)-ekin Aldudeko lehiaketan. Hasi lekutik
finitzea... Alduderi beti leial ! » Tote !*

TOTE SALDUBEHEREN PARTIDA BATZU HERRIAN

Erran behar da Saldubehere eta Caracotche bi apezek eskukaldi ederrik ere eman diotela gainera kaseta euskaldunari, bereziki bigarren hunek, kasetan idatziz asko aldiz.



*Saldubehere gazterik hasia
Urruñako Bideondorekin*

1979an zen Sabarots eta Saldubeherek finala laurden hau irabazi zuten Caracotche-Etchegarayen kontra, gero Buenos-Aireserat joan baino lehen. Orduantsu ere, 40-39 joan baitzen Mattin Garat eta Saldubehere beraren artekoa. Bainan 40-34 ere izan zen partida bera, alta apezak joa zuelarik Berhouet. Bainan galdu Dargelen kontra, 23-40. Eta irabazi Michel Etchetori 40-31. Eta irabazi halaber Sabarotzekin Etcheverry-Lascorri 50-36. Berhouet-Etchegaray ere, oraino gazteak, jo zituzten 50-33 Sabarotz-Saldubeherek. 1986an Harisgain senperrarekin dugu Saldubehere eta galtzen dute trinke-tean 37-50 Dibar eta Arotzarena pilotari bipilen kontra. Aldiz joanen dio 1980ean gure aldudar apezak Mattin Garat senperrar abilari 40-29 Hazparneko Berrian. Eta hau ? Huna Inchauspe-Carricart dituztela, oraino gazteak, Sabarots-Saldubeherek kontrario, eta irabazten 50-48. Bainan galdu behar du buruz-buru apezak 37-40 Sanzberro itsasuarren aitzinean. Escozen kontra aldiz batez galtzen, apezak xapelgoan.


1985ean gira orai, martxoan galtzen apezak, Irumeren kontra. Eta galtzen ere Forgues koparen finalerdia Bidondorekin bi tantoz Diribarne-Duhalden kontra. Bainan irabazten, 50-22, Larronde-Ibarren kontra. Baigorriin jokatu zen urte hartan eta Dibar-Arotzarenak garaitu Saldubehere-Harisgain. Alta ez du hor oraino amor emana Tote apezak eta huna A. Aguerre gaztea garaitzen duela 40-38. Horra : ez dugu hauturik egin, bazitakeen besterik ere erraitea merezi zuenik.

PIERRE APHAULE APEZ ALAIA

75 urte ditu orai garaztar hunek eta badu zer konda bere pilotari denboraz. Behorlegin sortua eta Donazarren haunditua, hor zen pilotan hasi Belokeko fraidetxerat ikasle gazte joan aitzin. Huntarik Ahurti ez urrun, horra hor lehen xapelgoak Curutchet bat eta bere hainekoekin desafioan hantotarrak beti alde ez bazituen ere komentukoak. Soldadogoa Parisen, eta han ere pilotariak izaki, Lalanne hazpandarra, Guichanducq amikuztarra eta beste, bainan ere Olier, Bidegainberry eta holakoak han ditu ezagutuko.

Halere, apez gazteak Baionako Semenari haundian ditu ezagutuko, Beloketik landa, Beñat Etchegaray Behauztar apezka eta besteak. Pilotan, batean gal eta bestean irabaz, hori betikoa, huna oroitzapen batzu berak erranik : « *Union Basque batasunak muntatzen zituen udako xapelgoetan, Beñat Etchegaray behauztar apezarekin ari nintzan. Oroit niz Donazarreko plazan nausitu ginela Etchegaray eta Arambel aldudarren kontra, ez bainintzan guti fier. Eta xapela ereman ginuen Itsasuko plazan Gaston Detchart eta*

Christian Laxague Hazpandarren kontra. » (G. Detchart hori da orai, eta aspaldian, Pilotako Federakuntzaren xatxari-kondaria urteroko finaletan).



Aphaule apeza, Martinon, Daguerre eta Elissaldekin

Ez horiek bakarrik : « *Aburtiko plazan arizan nintzan Duguin beskoiz-tarrarekin Ximun Haran eta Etchegoyenen kontra eta, galdurik ere, ohore zitzaitan Haran baten kontra ari izanik behin bederen.* » Hor jakin dugu ere orobat Hontebeyrie eta Chacon landestarren kontra jokatu duela Aphaulek bere haurreko lagun batekin. Artetik erraiteko, beren fama haundia ukana zuten bi landestar horiek, Hazparnen bi oren eta gehiago jokaturik galdu baitzuten Behengaray eta Lacoren kontra hiru ponduz beren urteko finala nausia.

Eta bego bera kondari donazahartar apeza : « *Pascal Damestoyekin ere, hau ez ordukotz hain gazte, ari izan niz M. Minondo eta Lassusen kontra, Saint André de Seignanx eta Mont-de-Marsan landestar herrietan egin ditugun partidetan, irabaz edo gal aldizka. Halaber Etchegaray apeza eta ni Londaitz eta Larrea urruñarren kontra. Eta ere, gertatu gira, Etchegorry apeza eta biak, hau ez orduan Erramousperek bainan enekin. Donazaharre-Madalenako bestetan, Habas eta Haramboure orduko amatur onen kontra. Hor, gu arras herrebeski hasirik, 0 eta 13, ohorezki bururatzerat heldu ginen, bi xuriak 35-32 nausituz bi apezari. Baginuen orduan arrakasta, batzuek erra-*

nik ere gure sotanak zuela biltzen jendea, ala Miarritzen, Baionan, Hendaian, Capbreton, Bordele edo Euskal-Herriko bestetan. Halakoak ziren egunak bainan ari ere behar zen. Ene azken partida 39 urtetan egin nuen Altzaiko besta egun batez, Xuberoan : ni Olharanekin eta besteak Nabarra eta Eppherre. Gero Hazparneko misionest predikari etxerat ukan nuen galdea eta han beste pilotarik zen, alabainan !

Pilota utzi, bainan pilotari jarraiki... partidetan, denetan, ezagutu lagunak hor aurkituz, eta adiskidetasun bero hura, atzoko ixtorio xabarrekin, pilota gure joko zahar eta ederraz, ala trinketean, ala plazetan ala herriko bestetan, pilota egonez zahar eta gazteen batasuna orai eta beti agian ! »

PIERRE LAZCANOTEGUI ETA APEZ XIXTERARIAK

Laguna izana ginuen Uztaritze ta Baionako semenarioetan Pierre Lazcanotegui 1939ko gerla hasterakoan, L. Erramouspe, A. Etchegorry, M. Hirigaray, L. Oxarango, J. Camino eta pilota munduko apezgai guzien denboran. Orduan esku-huska zen bakarrik, pilota joko guzien ama eta erroa. Hartan ez zuen jada nehoi zorrik urruñar hunek ordukotz, ez-eta beste edozein kiroltan ere halaber. Haatik, Urruñatik Donibane Lohizune ez urrun, ohartua zen ere goizik gure Pierre xixterari : ez zituena han, Josep Mourguy, Beñadin Solaberrieta, Errotaberea, Nazabal, Bermejo donibandarrak, geroxago Battitt Garra ziburutarra eta Mixel Lecuona biriatuarra eta beste zenbait, bera bezain azkar eta zenbait jada trebatuago !

Pierre Lazcanotegui, 1925an sortu lagun goxoa, zernahi dohainen jabea gainerat, semenarioko ixtudio, ala kirola, matematika, musika edo kantuz paregabea, 78 urtetan galdua dugu damurik ez hain aspaldi. Lagun leial eta plaxenta, mintza gintazken adin aitzinatu batean harekin lañoki :

« Heure haineko lagunik ez izanagatik pilotari apezetan, beti eta luzaz aurkitu dituk pilotakideak, hain galdatuak zinezten plaza guzietan. »

Bai, segurki ! Eta bakoitza bere jokoaren araberako tokian. Hiru donibandar apez, hirurak nere aitzineko lau-bost urteetakoak ; Mixel Lecuona biriatuarra geroago, nahiz gutiago ere, hau esku-huskatik etorria. Beraz, Mourguy izan dut maizenean laguna, binazka ari ginelarik, ni ezker aitzin eta hura eskuinean, bera ezkerra zelarik eta lanjerosa ere bere makoan. Errotaberea aldiz, hau izan dugu gibelegoa, jarraikia eta segura, hirutan ari ginelarik bereziki lehen denboretan.

Erran behar dut Solaberrieta ere hor ginuela, hau aitzineko jokalaria, beso onekoa eta kirolari trebea zernahitan.

Horiek oro apez lagunak banituen, hor dauzkat ere beste guziak, orduko pilotarietan, maiz eta maiz plazetan kurutzatu ditugunak: horietan, Alaman Kanbokoak, hunekin Euskal Herriko finaleraino heldu ginen eta halaber Frantziako xapelgo nagusiaren finalarat ere bai. Eta zer erran Pixtia Sarakoaz, hau ere gure partida ofizialetako kide izan dena ! Bainan, xapelgoetaz mintzo gareno, aitortu behar Unhassobiscay anaiak (lehenik hiru eta geroxago lau zirelarik), horiek aurkitu ditugula maizenik trebes, bai xapelketa nagusian eta bai mundukoan ere 1940etik 1960 artean.

« Hogei bat urtez bederen beraz ? Eta zuek heieri hurbil hurbilak ? »

Egia da bai gorenean ginela luzaz, baina haiek Unhassobiscay !

Eta haundienak ere gure beharretan izaki, haundi egoteko ! Horren gatik, Pilotako F.F.P.B. Federazioak Berezkoen mailerat goratu gintuen denak. Aurkitu ginuen beste kide bat ere orduantxe. Hura zen Bixente Barenne uztariztar pilotari ezagutua, esku-huskalari profesionala, lehenxago Pier Vivier milafrangar ezagutuaren lagun izana Harambillet eta guzien denboran. Barenne beraz, berak zazkien lagunarteko arrazoinez, xixteran trebatu zen eta gure ganat etorri ere bere kidegoa eskainiz. Guk atseginekin hartu holako eskaintza, ikusiz hor izanen ginuela gibelesko lauzkatzaile bat mailez doi bat gorakoa. Afera bat egin ginuen harekin aski ona, hamabost bat urtez ederki baliatu duguna, anaia famatu horien kontra eta frogak hor daude : harekin anaiak garaitu ditugu aldi parrasta batez. Hauek berek erranen dute naski galdu ere dugula maizago eta hori ere nork uka ?

Egun haundiak izan ziren horiek eta uste dut Euskal Herriko plaza gehienek ikusi gaituztela, bederen xixtera jokoarentzat egokiak ziren arraboteetan.

« Bai, eta Euskal Herritik haratago ere bai, dakigunaz ? »

Nundik ez ? Ibili gare Parisen, urtean bietan bederen, eta Casablancan (Marokan), Bordele, Royan, Hossegor, Capbreton, Vieux-Boucau, Akize, Brive, Paue, Lourdes, Tolosa, Luchon, hoik oro udako sasoiak bakantzatiar ainitz biltzen den lekuak. Eta bildu da jende ainitz gure partidetan, sekulan baino gehiago.

« Bainan erran nezakek aise ari zinez tala urrunagoko jende horrekin, eta errexa zela kanpotiarra partida baten itxuraz ilusitzea, partida antolatuta batzuekin ere ? »

Itxura eta jukutria guti halere gurekin. Egiari berea, erran behar da xapelgoaz kanpoko partidetan ere, oro baino lehenago zela gure jitezko nahikeria, irabazteko errabia, ez dakit urgulua erran behar den ! Galdegin behar beharri xokorat Mourguy bati, edo berdin nero-niri, uzteko besteak irabazterat ! Eta Barenne bati beraz ? Ez ! Ez zuen itxurak egiten gure partiden arrakasta bainan geronek partida horietan ginuen su biziak !

« Horiek hola, zein ziren orduko pilotariak, bederen ezagutuenak ? »

Nik ene bidean aurkitu ditut ordu hartako amatur eta Berezko gutiz gehienak : Parisen, erran dena, U.S. Metron jokatuak, eta Jeannot Salaberry hazpandarra eta Jean eta Etienne Urruty donapaleutarrak, J. Lemoine eta J. Fagoaga saratarrak, Felix Boudon, Mixu Etcheverry, Chatelain, Poulou, Guilçou, Hastoy etab... Nork erran zenbat ikusle biltzen zen Pariseko Chiquito de Cambo plazan Jean Urruty haundiarekin eta apezekin !

« Ahal duzue oroitzapen ederrik ? »

Pentsa beraz ! Zerbait izan zen guretzat bitoria hau ere : J. Urruty eta M. Etcheverry garaitu gintuelarik hiru bien kontra (Larrabure eskuinean, ni ezkerrean eta Barenne gibelean, 50-41.

Eta hau berriz Miarritzeko Plazaberrin, ezker paretan jokatu Berezko guzien arteko finala : 50-49 J. Salaberry eta biek batez irabazia, Mixu Etcheverry eta Ph. Miralen kontra.

Aratsetan, gauazko asteroko partidak ere zerbait ziren udan, Hendaiako Gazteluzabar, Getaria, edo Capbretonen leku guziak hartuak zirelarik.

Halaber Royan udalekuan eta Tolosan (huntan 1500 ikusle) estraina egunean : hau futbaleko profesional partida haundiaren ondotik izan zen, hango entzungailuan bietan iragarria izanik apezten partida.

« Baina hor ez ote gira Euskal Herritik urrunduak ? »


Baratxe, baratxe ! Itzul gaiten beraz herrirat, izan gintuelarik Baigorriko Bestak, eta Hazparnekoak, Donapaleukoak, Donibane Lohizune, hor hiru lau urtez jokatu baiginen Unhassobiscay-tarrekin, eta Jean Urruty, Lemoine eta Boudon. Horien gainerat, Donibane Lohizunen, Arin Batasunak deitzen ninduen hiruzpalau ostegunez Lemoine, Urruty eta Boudonekin.

« Bururatzeko otoi, Pier, hire oroitzapen txar bat eta on bat ? »

Hau bat, ez baitakit nola galdu nuen : Miarritzen, Plazaberrin, 40etaraino ni aitzinean joan bainintzan ezkerparetan buruz buru Mixu Etcheverryren kontra eta gero galdu, 43-50.

Kontsolamendu gisa aldiz, ez haatik kontrario berekin, Arrosan egin nuen partida hau : herriko bestetan Loustalot bi anaiekin irabazi nuen partida hau, Unhas obiscay hiru anaia hoberenen kontra. Hor egun hobea.

Milesker Pier, ene eskolako laguna, begi oneko pilotari, kantari eta lagun goxoa. Geroztik urak bide egin dik. Ez ahal dituk haatik agortuko agian lehengo iturri on aberatsak!



Ezkerretik... Lazcanoteguy, F. Boudon, J. Urruty, Mourguy

Baginuen egia erran beste ainitz eta ainitz kondatzekorik Pierre Lazcanotegui eta J. Mourguy apez xixterariez. Urruñarraz hauze zor diogu egari : gauzak eta jendeak hainbeste aldatu diren mende hortan, bere barneko galernak izan dituela Lazcanoteguik : inarrosaldi hartan bere apeztasunetik baztertu zen Pierre adin batean, ezkondu ere elizako legeetan gauzak konpondurik Christinekin, giristino onaren bidean egonez ondarreraino. Arte hortan, bizitzeko, erakasle ofizioan gora joan ere da Miarritzeko Ikastegiaren

(FAL kolesioa) buruzagitzako Printzipal maileraino. Osoki estimatua eta maitatua, ikustekoak eta oroitzekoak izan zituen hor erretretan sartzeko ikustateak eta bestak ondarrean. Hor ere pilotan bezalakoa izana baitzen, adreta eta zintzoa. Apez lagun ohientzat aldiz, betiko laguna, ezin-ahantzizkoa, eta lehengo apez laguneri fidela bururaino, Pier ! Eta, azkenik, ez dugu ahantziko salatzea, bere erakasle lan eta munduan pilota sailari leial egon zaiola bururaino bere dohainak ezarriz pilotari gazteen formakuntzan bere goreneko mailatik, tokian zituen Biarritzarrak eta beste Batasunekin, F.F.P.B. gorenarekin eta oro ! Eta Urruñako elizari leial, ondarreraino.


BEÑAT ETCHEGARAY

Behauztar adixkide hau goizegi joana dugu. 1930ean sortu lagun arraia, eliza-batasunetako eta plazako egina zen orobat : Euskal Herriko bezala, Biarno aldekotz ere bai berdin berdina. Apeztu ordu Paue alde horietan ukan zuen bere zerbitzua, Nay, Gan, Paue, batean erakasle bestean bikario eta beti pilotari ere berdin trebe. Eta ondarrean Amikuzeko Arruta- Martxuta gain horiek, eta Kanbo ere bai, hango seroretan. Sallette apez biarnesa lagun, edo berdin M. Algueyru bikarioa, ereman du Frantziako kopa 1963an, lehenarekin, jokatu Biarnon eta Landesetan, eta Cannes udaleku aberatseraino, Arno Ouretekin ere batzuetan. Pilotari bixia zen, dena zaina, kexuarena egiten jakinki beharrez, eta berehala irria, dena arrailleria, hori ere da jokoa. Pilotari bikoteetan ez dute ez beren lekua ebatsia historiarako : Harriet-Gozterratxu lehenago bainan ere Bidegain-Hasperue, Etchegorry-Erramouspe, Etchegaray-Salette, Beheran-Ibarburu eta beste hanbatek.

ETA JEAN PIERRE ETCHEVERRY ERE

Sarako erretorgoa egiten digu orai Jean Pierre Etcheverry apezak, beste asko kargurekin, gainera : Kristau laikoen formakuntzako ainitz biltzarre, zernahi artikulua *HERRIA* eta beste kasetetan, gehienak euskaraz, liburuak moralako eta gaurko asko gaiez, ez baitezpada Elizako gaiak bainan gizonak bere bizian dauzkan mila gorabeheretz, denetako zailenataraino. Bazaukan orotaz zer erran eta zer erakats, berak bildua duen esperientzia zabal eta hedatuarekin. Ez dea izan Jean Pierre apeza, orotan berdin barna, ala gazterian, familietan, ala semenarioetako hezkuntzan beti kontseilu onekoa! Horiekin guziekin batean apez zintzo bezain lagun goxoa, lehengo osasun arazo batzu ere gain-

ditu ondoan pilotari segur eta asko ahalekoa ibili da plazetan 1937an Domintxainen sortu teologiano hau. Eta pilotan, besterik ez kondatzeko eta oro laburtuz, jokatu zuten Etcheverry eta Ouret apezek Idiart azkaindarra eta Arbillaga haundiaren kontra Baionan, jaun mera Grenet eta beste buruen aitzinean, arrabotaren estrenatzeko partida eder bat : xuriek irabazi haatik 30-23, arduradunen eta beharien goresmenak merezituz lau pilotariek.



Ouret eta Etcheverry apezak eta Arbillaga eta Idiart

GILEN DIHARCE APEZA

Gilen Diharce apezak, bere 88garren urtean, xuxen dauzka Donapaualeko xaharretxean bere apez eta pilotari oroitzapenak. Domintxaineko seme, Beskoitzetik eta Amikuzerainokoan betea du bere saila, beso bizi eta iraukorkin batekin, beharrez marrarat xixtatzen zakiena. Ez da ustegabetarik atera holarako pilotaria, arabera herri eta plaza-trinketetan. Zerrenda luzeetan lerrokatzea merezi dute segurki A. Etchegorry, J.B. Etcheverry, P. Mogaburu, J.P. Peyroutet, B. Miremont, Amestoy eta guziek Amikuze-Oztibarre aldetik, hoik denak ere apez eta pilotari izanak. Holako ziren ere, bi dohainen jabeak, F. Harriet, B. Setoain, L. Auzqui, Josep Camino eta beste apezak, azken hau oro arnegitarrak eta nundik ez aldudar lerrotto hau, Gozterratxu anaiekin, Saldubehere oseba-ilobekin, eta L.P. Iriart, batzu bizi et zenbait joanak. Ene

lagun batek ziona, badituzte gure herriek eta elizaitzinek beren gerlarien oroi-
tarriak, eta noizko ote lehengo pilotarienak, gaurkoen sustagarri ?

Azken orduko hitz: huna nun jin zaion beraz azken deia adin haundi hor-
tan Diharce apezari. Goian bego. Gure doluminekin Domintxineko familiari.



*Diharce apeza, Behauzeko erreter
zelarik, herri hortako bereko Pilla
Etchegaray gaztea zuela lagun, Beñat
Etchegaray apezaren anaia gazteena.*

ARÑO OURET SUHUSKUNDARRA

1940ean sortua zen eta nor ez zen pilotari Suhuskunen Arñooren denbo-
ran ! Bere denborakoak zituelarik Gabi Duhalde, Peio Etchemendy eta hola-
ko pilotari ezagunak ! Maule ta Uztaritzeko ikasketen ondotik, geroxago
Kanboko bikario, horra Charles Bergara makila egile pilotaria nun aurkituko
duen pilota erakasle paregabea. Arñooren sake bortitz eta luzea, beso azkarra
eta xixtatzaille samina, nork balia hobeki, edozein lagunekin eta etorriaren ai-
tzinean ! 1963an Frantziako xapelgoaren finalerditaraino izana dugu Arño,
eta Vicenty-Lacoren kontra, gainera. 1964an F. Forgues koparen irabazle D.
Carricaburu jatsuarrekin Baionan. 1966an F. Daguerre berezko beharra
oraino gaztea lagun, finala haundi bat jokatzen dute Remi Hirigoyen eta
Edouard Detchart hazpandar arraroen kontra, gutiz galduko badute ere.

1967an Donazaharreko plazaren estrena dute, finalerdi bat ezinahantziz-
koa jokatuz Ouretek Daguerrekin, Sauveur Mayte eta Laurent Carricarten



Ezkerretetik eskuinerat : Darrigol, Harismendy, Ouret, Salette


kontra, ordu hartan lehen maila zaukatenak : hiru kintze xoz galdututa, aitzinean izanik. Izan da gero Ouret Pauen, Salette apez biarnesa lagun. Eta ere Hendaian ber harekin, finalaren jokatzeko Darrigol eta Harismendiren kontra, aisexka galdututa haatik hor. Eta berriz horra Larresoron 1971an, Dominique Garat lagun, sasoin haundi batean berriz ere. Kontrarioak, Duhalde eta Urrutia, ez dituzte nornahi, alta biez bakarrik galdututa finalla, 38-40 kasetetan laudorio aski ez dutela apezak lehenik eta biek ere.

Eta zer erran partida huntaz, moda xaharrean, suhaskundarrak batetik (Ouret eta G. Duhalde) senpertarrak bestetik (Mattin Garat eta Gregoire Sein), bi partida gogor herri batean eta bestean, biak suhaskundarrek irabaziak. Urte hartakoa dute ere Kaliforniako ibilaldia, B. Pagola, G. Duhalde eta guziekin.

Amerika han utzirik horra nun zuen beste suhaskundar laguna, Peio Etchemendy, hunekin berriz irabazteko Ouretek F. Forgues kopa Aiherran hazpandarren kontra. Bat irabaz, bestea gal, galdututa dute ere hiru tantoz, Garatekin Bidarrin Larresohorrek (Ouret-Garat) Urrutia-Duhalden kontra, luzaz irabazia zaukatena (25-15). Ibili da ere Cannes Probertzakoaan Arño jada aipatu ditugunak eta beste batzu lagun, bai-eta berezko haundien aitzinean, biga hiruri eta hola.



Hirigoyen eta Detchart irabazle izan ziren Hazparnen Ouret eta Ferdinand Daguerre-ri



Ouret Hendaian, 1968

“Orotako sasoi bat”, Liburu Sainduen erran hori badakite apezek eta besteek. Arño Ouret ere, aldatuak aldatu, doala agian bereari lehengo kuraiarekin, bere oroitza eta lagun onekin.

Azken hitza... gabea baino hobe !

Jean Haritschelbar adixkideari eskaini lantto hau bururatzean, erran dezaket griña batekin gelditzen naizela, hobeki eta luzeago merezi zuelakotz gai hunek erabiltzea, beti norbait eta zerbait ahanzten baita holakoetan. Hala-nola iparralde xoil huntan mugatu dudalakotz ene behakoa. Bazen alabainan beste kondatzekorik euskal hegoaldeko pilotaz ere, han ere izan diren apez pilotarien sailean. Baztango xokoa aipatu badugu hemen, eta hori ere aipatu baizik ez, hor izanen zen Nafarroa guzia ere, Errioxaraino. Eta Gipuzkoa ta Bizkaia nundik ez, urrunago joan gabe ? Hantxetan Larrañaga apez, orain adin ederrean Zumaian duguna lehenik, gure Erramouspek Azpeitiko pilotalekuan frogatu zuena, eta holakoak.

Horien gainera, gure estimuzko agur bero hau Jean Haritschelbarren-tzat, ber hunek, luzazko Euskaltzainburu izanik batetik, eta orobat Pilota agerkariaren eta Pilotarien Biltzarraren kudeatzaile prestatua halaber, eta lehen lehenik gure Baigorri bera pilotari, izana, Herriarena trinketa eraiki artean, iduritu zaigu on izanen zuela pilotako sail aberatsaren eranskin hau, goraintziekin, bixtan dena.

* * *

APEZ PILOTARIAK...BAZTANEN

Guk Iparraldean mugatu dugu lantto hau, ezinbertzez. Bainan jauzi bat egin dugu ere Baigorri eta Izpegitik Baztanera Josetxo Mendioroz apezaren etxeraino, hango apez pilotarien berri jakin beharrez, bera ere pilotari izan baitzen gaztean. Doala hemen Josetxo jaunaren eskutikako bildumatxo hau.

« *Baztan Euskal Herria izanik, betidanik pilotazalea izan da. Horregatik Apez Baztandarrak pilotazaleak izan dira denak. Eta Batzuek pilotariak ere. Eskuz, palaz, eta guantez, “laxoa” deitzen den pilota moldean.*

Herri guztietan laxorako pilota-plazak izan dira. Baita auzo eta baserrietan ere, mendi lepoetan. Apez batzuek aipatzera... (1920 urtetik aitzinerat), Migel Iturralde, Oronozko Erretora ; eta Zigako Leandro Lazkoz... laxoan aipatuak izan ziren : Migel sakalari eta Leandro... Cuarto. Urte haietan, maiz pilota-partidak moldatzen zituzten, gehienetan desafioan , apostuak tartean. Hemen eta Baigorri aldean ere.

Orain dela 50 urte, pilotari ezagunak izan ziren ere apezten artean : eskuz Martin Barberena, Berroetako erretora ; palaz Arizkungo Bernardo Sokobehere eta Erratzuko Eujenio Urrutia. Eta laxora itzuliz, Josetxo Mendioroz, Gartzain eta Lekarozko erretora.

Aipatu beharra ere pilotaren alde lan berezia egin zuena, batez ere laxoa berpiztu nahiez : Iruritako Jesus Jaimerena. Haren eskutik pilotari aunitz (batzuek... laxotik erremonista profesionaletara pastuak) atera dire. »

* * *

Apez pilotariak

(Doinua: *Euskaldun seme*)

1

Apezak pilotari herriko plazetan
Zaia beltzekin edo pantalon xuritan
Mundu guziak ez du holakorik ukan
Hoi xoilik ikusten da Euskal Herrietan

2

Harriet-Gozterratxu, biak haundi ziren
Garazi Alduden ta halaber Parisen
Haundienekin ziren denetan negurtzen
Jainkoa bera ere zuten plazaratzen

3

Bestorduz Etchegorry eta Erramouspe
Esnaasu gainari josiz Amikuze
Bat harroka, bestea mimena nik uste
Biekin ukana du herri hunek ospe

4

Halaber Etchegaray eta Sallet' ere
Biarno zolaraino famaturik daude
Lehen Arnegin Auzqui, Setoain baitare
Herriak hoikin badu ukanik ohore

5

Muskildiko Bidegain baten betekorik
Ainitz atera dea ote Xuberotik
Urrustoiko seme zen Hasperue salburik
Ordaintzat Chirumberro, hau Manexiatik

6

Gozterratxu anaiak, bi apez Alduden
Sussuarregui-Pebet, hauk jokatuz Maulen
Beheran-Ibarburu plazan norbait ziren
Arño Ouret xapeldun, bestea Garat zen

7

Iratchet-Iriarte, Sala ta Larralde
Larzabal-Etcheverry, Diharc'et' Aphaule
Palaz Idiarregaray, hau onenen pare
Xuriz bezti Caracotx ta Saldubehere



Caracotxe pilotari beso onekoa

8

Lehen ziren apezak oro pilotari
Nor jarriko zen heien guzien kondari
Xixteraz famatua zen Lazcanotegui
Lecuona lagun ta, ezkerreta, Mourgui

9

« *Apezak azken bitza* » nork zuen jalia
Partidan haren gisa da pilotaria
Aldarean kartsu ta plazetan aria
Bietan gai beretik delarik haria

10

Berrogei ta hamar bat, gehiago berdin
Elizatik plazara ziren apezak jin
Bien ezkontza zerbait beharrez hor egin
Agur Euskal Herria errespeturekin

-ENA ATZIZKIA MENDEBAL OIKONIMOETAN

Jose Luis LIZUNDIA ASKONDO

Matiena da nire herriko, Abadiñoko elizateko, auzorik populatuena, hiritartuena eta industrialena. Bertan hasi nintzen eta hezi ere, ama hizkuntza propioa izan arren, gaztelaniaz derrigortutako “Escuela de barriada de Matiena”n, 1937an frankistak herriarekin jabetu zirenez mailukadaz desagertu bai zen “Auzo ikastola” euskarazko errotulua. Eta nire ia berrogei urtetako Matienako egonaldiaren oroimenez, otu zait *-ena* atzizki honi buruz euskaltainburuorde, euskaltzainburu eta euskaltzainburu-ohi ezagutu dudan Jean Haritschelharri ongi merezita eskaintzen diogun omenaldi-liburu honetarako idazlana.

Askok uste izan dute *-ena* atzizki hori, oikonimo edo etxe-izenak izendatzeko Ekialdekoak izendatzeko erabili direla batez ere edo, gehienik ere, Gipuzkoako Ekialdean. Ez da horrela Euskal Herriaren mendebaldean, hots, Debarroan eta Bizkaian ere aski hedatua da eta aspalditik. Urietan (hiribilduetan) batez ere, zeren eta elizateetan etxeak “Baserrian” sakabanatuak baitaude, alegia. Horrek ez du esan nahi, elizateetan ere, biztanlegoa ugarituz eta hirigune gisakoak sortuz, *-ena* atzizkidun oikonimorik ez daudenez, alderantziz ugaritzen joan dira, XVIII. mendea geroztik. Gainera, harrigarria badirudi ere, mendebalderen dagoen eskualde euskaldunean, Jaurerriko Uribe merindadean, aurkitzen ditugu gehien : Getxo, Leioa, Mungia, Erandio... Geroago zehaztuko dugu.

Matiena izena aski berandukoa da, María Angeles Larreak, bere *Caminos de Vizcaya en la segunda mitad del siglo XVIII. Apéndice segundo a la historia del Señorío de Vizcaya*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, doktorego tesian, honela dakar, Durangotik Probintziarako errepide berriaren kapituluan :

Establecimiento de barreras. Este hecho tuvo lugar, en la mañana del 24 de Febrero de 1789. La primera junto a la casa de “Adorriaga”, más conocida por “Iturricoa” a la entrada de Eibar, jurisdicción de Ermua. La segunda cerca de la casa de “Mati”, contigua al puente de este nombre, de la anteiglesia de Abadiano.... Por Real Provisión se señaló también qué debiera pagarse por el peaje (bidesaria) Barrera de **Mati**... Igual que en la anterior barrera (Adorriaga, cada cabaallería mayor cuatro maravedís... “El puente de **Matie**.

(eskuan gehienetan) zenbait morfema eta azterketa egokiaren bidez atziki horiek isolatu daitezke, elementu funtzional bakoitzari dagokion forma fonikoa atera daitekeelako. Hau argiago ikusteko, har dezagun, adibidez, latinaren *rosae*. Berba honek forma berean adierazten ditu hiztegi-elementu bat *ros*= “lore”, eta zenbait kategoria gramatikal, hots, femeninoa, singularra eta genitiboa; baina multzo horren barruan (*-ae*) alegia, ez daukagu biderik aipatutako kategoria bakoitza forma fonikoaren bidez identifikatzek. Bestela esanda, ezin dugu jakin zein den femeninoari dagokion zati fonikoa, zein den singularreri dagokiona edo zein genitiboari. Ezin ditugu morfemak isolatu, denak *amalgama* batean lotuta daudelako. Oso ezberdina da euskararen *semearengana* hitzaren egitura, non azterketa egoki batek zatiketa baimentzen du (*seme-a-ren-ga-n-a*) eta jakin badakigu zein zati foniko dagokion mugatzaileari, zein posesioari, etab. Hori dela-eta, euskara ez da hizkuntza flexiboa, latina bezela: euskarak ez dauka deklinabiderik eta nozio eta izendatze hauek txarto erabiliak izan dira (eta dira) ideologiagatik (Darrigol, (1827) gramatikariarengandik hona, cf. Rotaetxe, 1977, 264) edo latin-gramatikaren eraginagatik. Gure hizkuntza ez baita flexiboa, eranslea baino. Bestalde, argi utzi behar Humboldt-ek esan zuenez, ez dagoela hizkuntzarik tipo batekoa edo bestekoa, hutsik, denik eta kontuan hartu behar dena da zein den joera nagusia. hizkuntzen gramatikan.

Geroago, Edward Sapir-ek (1921) delako sailkapen hirukoitza aberastu zuen: beste parametro baten bidez: sintesi-gradua, baliotsua dena batez ere hizkuntza eransleak ezagutzeko eta deskribatzeko. Hain zuzen ere, hizkuntza tipo horietan, berbetako elementuak hizkuntza-barietate idatzian isolatu ahal badira ere, hitzunek ahoskatzen dituzten formetan halako zatiak ez dira hain argi nabaritzen. Ahosko barietatearen formak askoz ilunago ageri dira haien osagarriek dagokienez; esaterako Ondarroako *gixonandik* dugu ahosko forma *gizonarengandik* adierazteko. Berba horren barruko osagarriek ukipen handia dute-eta, fenomeno foniko eta morfofonologiko ugari jazoten dira (kontrakzioak, \emptyset errealizazioak, etab.) eta erakusten dute oso sintesi-gradua altua. Orokorrean, parametro hau beharrezkoa da ahosko formen berri emateko. Hizkuntza-teknika nagusia eta sintesi-gradua kontuan edukiz, bistan dago euskara hizkuntza eransle garbienetariko bat dela, bere sintesi-gradua oso altua duelarik..

3.3. Greenberg-en Unibertsalak

Tipologiak aurrerakada handia eduki zuen Joseph H. Greenberg-en ekarpenari esker. (1978 [1963], 1976 [1966]) Hizkuntzalari honek ikerkuntza-bide bi aurkeztu zituen kuantifikatzailea deritzona eta hitzen ordenari buruzkoa. Lehenak abiapundutzat hartzen ditu hamar indize, hizkuntzen gra-

matika-ezaugarriari aplikatzeko, honela:

- Sintesi-indizea: M/H⁵;
- Eransketa-indizea: Er/J ;
- Konponketa-indizea: S/H:
- Eratorpen-indizea: Et/H; - Flexio-indizea: Fl/H; - Aurrizki-indizea: Au/H;
- Atzizki-indizea: At/H; - Isolatzile-indizea: O/N; - Flexio hutsa-indizea: : Fh/N;
- Komunztadura-indizea: K/N.

Indizeek erlazioak azaltzen dituzte, ikusten denez, eta zenbakien bidez kuantifikatzen dira. Gure artean, Antonio Tovar-ek (1977) atara zituen euskararen indizeak.

Bigarren metodoaren izendatzeak azaltzen du bere helburua: “Some universal of grammar with particular reference to the order of meaningful elements”. Munduko hizkuntzen neurketa errepresentatiboan oinarrituta, oso ezaguera enpiriko balioetsua eskaintzen du eta, lehenbizi, Unibertsal inplikati-boa edo inplikazio-unibertsala deitutako nozioa. Ikus dezagun zertan datzan. Datu enpirikoek erakusten dute hizkuntza batzuetan joera nagusia dela Determinatzailea Determinatuaren aurrean kokatzea eta beste batzuetan alderantziz. Erainkuntza mota bi hauen muturrak turkiera dugu, alde batetik (Izenondo-Izen; Objektu-Aditz; Genitibo-Izen eta Aditzondo-Izenondo, eta Posposiziodun hizkuntza da) eta thailera non aurkako ordena dugu: Izen-Izenondo; Aditz-Objektu; Izen-Genitibo; Izenondo-Aditzondo eta Preposiziodun hizkuntza da. Parametro honen arabera, talde handi bi ditugu munduko hizkuntzen artean.. Eta informazio horren arabera, hiru funtsezko datu enpiriko irizpidetzat hartzen dira unibertsalak azaltzeko, era honetan:

a) Preposizioak/Posposizioak erabiltzen dituzten hizkuntzen arteko bereizketa. Datuek erakusten dute hizkuntza batzuk preposiziodunak direla eta beste batzuk posposiziodunak (*Pr/Po.*) eta hizkuntza berean posibilitate biak ez direla ematen.

b) adierazpen esaldietan, subjektua eta objektua nominalak direnean, Subjektu, Aditz eta Objektu elementuen arteko ordena oso garrantzitsua da.

⁵ Siglen esangura: M =morfema (hiztegia zein gramatikakoa); H = hitza; Ek = eransketarako elementuak; J = juntura edo nabari den lotura; S = sustraia; Et = eratorpenerako elementuak; Fl = flexio- elementuak; Au = aurrizkia; At = atzizkia; O = hitzen ordenan oinarritutako nexoa; N =nexo (edozein prozeduraren bidez lortutakoa); Fh = flexio hutsa; K = komunztadura-markak.

Datuek erakusten dute ematen diren ordena posibleak hauek direla: *A S O* (VSO, Greenberg-en terminologian), *S A O* (SVO) eta *S O A* (SOV). Datu hauetatik ateratzen du Greenberg-ek bere Lehen Unibertala, honela dioena: *Adierazpen esaldietan eta subjektua eta objektua nominalak direnean, nagusitzen den ordena, honako hau da behinik behin: subjektua objektua baino lehenago kokatuta daukana.*

c) Hirugarren irizpidea izenondoa eta izenaren arteko ordenari dagokio. Hemen, Greenberg-ek espezifikatzen du izenondo kalifikatiboaz ari dela, soilik. Ordena posibleak bi dira: *Izenondo-Izen* (A, Greenberg-entzat) eta *Izen-Izenondo* (N, Greenberg-entzat). Hizkuntza berean, posibilitate batek bestea baztertzen du.

Hiru irizpide hauen artean inplikazio-erlazioak ematen dira. Adibidez, *Po* hizkuntzak dira –eta ez *Pr.* hizkuntzak– SOV tipokoak eta *Pr-N* hizkuntzak dira, nagusiki SVO hizkuntzak.

Beste unibertsal batek dio genero gramatikala markatzeak inplikatzeko duela numero gramatikala ere markatzea eta honek ere zentzu bakarreko inplikazio mota dauka; izan ere, bistan dago numero gramatikala markatzeak ez duela inplikatzeko genero gramatikala markatzen denik: euskararen edo ingelesaren adibideek azaltzen dutenez. Ezin dut xehetasun gehiagotan sartu baina esan beha da Greenberg-en ekarpenak argi frogatu duela hizkuntzen propietate eta ezaugarriak ez direla ematen era aleatorio batean. Gehienetan multzoka ageri dira eta horregatik hizkuntzen tipoak bereizi ahal dira. Unibertsalei dagokionez, zerrenda luze aurkezten eta aztertzen du bigarren metodo honek: 45, alegia.

Lan honen ekarpenik handiena inplikazio-unibertsal nozioan datza, zalantza barik. Eta nozio honetaz, aipatu behar da Greenberg-ek aitortzen duela asko zor diola Pragako Eskolak landutako eta transmititutako *markatu/ez markatu* terminoen arteko oposizioari (delako *terme marqué/non marqué*, neutralizazio-nozioarekin lotutakoari). Adibidez, esaten denean ez dagoela hizkuntzarik “trial” numero duenik “dual” numeroa eduki barik eta “dual” numero duenik plural numeroa eduki barik inplikazio nozioak erabiltzen ari gara, zeren, trial” numeroak “dual” inplikatzeko du eta “dualak” plurala inplikatzeko du baina ez alderantziz. Bide batez, azken hauek markatuak dira eta “plurala” ez markatua (cf. honetaz, Greenberg, 1966: 9-13).

Hiru ataletan banatuta dago idazkia: 1 – *Oinarrizko ordenaren Tipologia*; 2 – *Sintaxia*; 3 – *Morfologia*, Fonologiaren arduratu barik. Baina ez da pentsatu behar maila horretan ez dagoela unibertsalik: (cf. Greenberg, 1966: 13-25. edo, beste askoren artean, Hockett, 1978 edo Soporta, 1978).

3.4. Gaurko egoera

Gaur egun, Hizkuntzalaritza Orokorraren zeregin garrantzitsuenetarikoa bat Tipologian dago, aplikazio mota nagusi bitan; alde batetik hizkuntzen sailkapena, zenbait parametroren arabera eta, bestetik, unibertsal motak lantzea eta azaltzea.

Lehenengo kasuan, deskripzioek azaldutako erregulartasunei esker, tipoak mugatzen dira. Unibertsalei dagokienez, ikerkuntza handia izan da eta da oraindino (cf. adibidez, Mairal –Gil, 2003). Bestalde, Tipologiak azaldu du hizkuntza-kategoriak ez direla beti dikotomikoak; pentsatzen den baino maizago eskalarrak dira eta egiaztapen honek aurrerakada handia suposatzen du teoriarako. Hori dela-eta, hizkuntzen sailkapena izan da proiektu sendo batzuen helburua. Adibidez, *European Science Foundation* Erakundeak aurrera eroandako EURO TYP Proiektua (1990-1996) Europako hizkuntzak sailkatzeko tipoen arabera eta maila denetan (morfologian, sintaxian, fonologian eta pragmatikan). Ezberdinak izan arren, Europako hizkuntzetako ezau-garri ugari errepikatzen direla maila denetan ikusi zen. Zehatzago esateko, azterketek azaldu dute hizkuntza denek kodatzen dutela datibo kategoria funtzio berbererako eta, gainera, kodatze horrek, kasu batzuetan, beste funtzioen bat adierazten duela (cf. Rotaetxe, 1998). Ez dago esan beharrik, Tipologia arduratzen dela hizkuntzen egituraz eta ez denboran zehar gertatutako antzekotasunez: tipologiaren ikasketa gehienak sinkronikoak dira-eta. Hau esanda gero, ikusi da tipo bereko hizkuntzak ez direla urrun egoten sailkapen genetikoari dagokionez.

Azkenez, esan behar da eremu geografiko konkretu batean, tipo desberdinetako hizkuntza bi ukipenean daudenean, bien arteko nahasketa ez dela izaten ondoriorik arruntena. Adibidez, euskara-espainiera/frantsesaren arteko ukipenean, lehenak tinko mantendu du bere egitura zeharo desberdina delako. Halako kasuetan, dialektalizazio fenomeno gertatu ordez, errezago jazoten dena da hizkuntza gutxituaren ordezkatzeko-prozesu motela. Gertaera posible horri aurre egiteko, hizkuntzen deskripzioa eta sailkapena ondo ezagutu behar dira.

Beraz, goiko lerrook azaltzen dute hizkuntzak sailkatzeko ahaleginak konstanteak izan direla hizkuntza-ideien historian. Abiapuntu eta helburu desberdinetan oinarrituta, sailkapen mota bakoitzak bere garaiko interesak azaldu ditu. Eta denek dute eragin bera, behar bada: hizkuntza-aniztasunaren misterioaren gainean izan dugun eta dugun harridura eta, noski, jakingura.

BIBLIOGRAFIA

- BIERWISCH, Manfred, 1979, *El estructuralismo – Historia, problemas y método*, Ed. a cargo de Gabriel Ferrater, Barcelona: Tusquets Editores
- CARO BAROJA, Julio, 1972, *Los vascos y la historia a través de Garibay*, San Sebastián: Txertoa. .
- CASTEX PIERRE et PAUL SURER, 1949, *Manuel des études littéraires françaises XVIIIè. siècle*, Hachette, Paris
- DERRIDA, Jacques, 1974, *De la Grammatologie*, Paris, Les Editions de Minuit.
- ECHENIQUE ELIZONDO, M^a Teresa, 2001, “La lengua vasca y el estudio de su historia”, *Hispanica Polonorum*, Chenstokova: 87-101.
- FEUILLET, Jack (ed.), 1998, *Actance et Valence dans les langues de l’Europe* (EUROTYP, 20-2, European Science Foundation), Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- GREENBERG, Joseph H., [1963] 1978, “Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements”, in J. Greenberg, 1978, ed.: 33-60.
- [1963] 1978, ed, *Universals of Language*, The M.I.T. Press: 33-60.
- [1966]1976, “Introduction: Marked and Unmarked Categories”, in Greenberg, J.H., [1966] 1976, ed.: 9-13.
- [1966] 1976, ed. *Language Universals*, The Hague, Paris: Mouton.
- HOCKETT, Charles F., 1978, “The problem of Universals in Language”, in Greenberg, J.H. [1963] 1978, ed.: 1- 29.
- VON HUMBOLDT, Wilhelm, 1949, *Über die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues*, Darmstadt; itzulp.: G.C. Buck eta F.A. Raven, *Linguistic variability and intellectual development*, Coral Gables, 1971.
- JAKOBSON, Roman, 1963, “Poétique”, in *Essais de linguistique générale*, Paris, Les Editions de Minuit: 209-249.
- JUARISTI, Jon, 1976, *Euskararen Ideologiak* (Karmele Rotaetxe Irakasleak zuzendutako Lizenziatura-Tesiaren Laburpena), Donostia: Kriselu.
- LAGARDE, André et Louis Michard, 1965, *Collection littéraire XVIIIè. siècle*, Paris: Bordas.
- LAW Vicent, 2003, *The History of Linguistics in Europe, From Plato to 1600*, Cambridge: Cambridge University Press.

- MAIRAL, Ricardo, Juana GIL (eds.), 2003, *En torno a los Universales lingüísticos* Madrid: Cambridge University Press.
- ROTAETXE, Karmele, 1977, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Durango: L. Zugaza.
- 1983, *Lingüística General* – Apuntes para la asignatura troncal de todas las Filologías, Fac. de Filología, UPV/EHU, Vitoria/Gasteiz, argit. barik.
- 1988, *Sociolingüística*, Madrid: Síntesis.
- 1993, “Tipología lingüística”, in *La Gran Enciclopedia del Mundo*, Apéndice 1993, Bilbao, Editorial Durvan.
- 1998, “Constructions triactanciellles et Datif”, in Feuillet J.(ed.): 391-456.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, 1976 *Essai sur l'origine des langues*, - Texte intégral reproduit d'après l'édition A. Belin de 1817, Paris: Bibliothèque du Graphe.
- SAPIR, Edward, 1921, *Language, An Introduction to the study of Speech*, Nuew York; itzulp.: S.M. Guillemin, *Le Langage*, 1970, Paris: Payot.
- SAPORTA, Sol, 1978, “Phoneme Distribution and Language Universals” in Greenberg, J.H. [1963] 1978, ed.; 61-72.
- STEINER, Georges, 1998, *Après Babel*, (traduction de L. Lotringer et P.- E. Dauzat), Paris: Albin Michel.
- TOVAR, Antonio, 1977, “Comparaciones tipológicas del euskera”, *Euskera* XXII, : 449-476.
- 1980, *Mitología e Ideología sobre la lengua vasca*, Madrid: Alianza Editorial.

ALTXORRAREN BILA: LIZARRAGA ELKANOKOAREN ABERASTASUNAK KAUSTU NAHIZ

Patxi SALABERRI ZARATIEGI

Beti gogotik irakurri izan ditut Joakin Lizarraga Elkanoko idazlearen izkribruak, ez, jakina, erakusten duten ortografia ederragatik edo egileak gaiak erabiltzeko zuen antze eta trebetasunagatik, han-hemenka aurkitzen ditugun bitxi linguistikoengatik, Iruñerriko euskararen berri ematen diguten erranairu, itzuli eta hitzengatik baizik. Iñaki Caminok eta neronek behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala (ikus, adibidez, Camino, 2004: 28-31, 151 edo Salaberri, 2002: 231), ez dakigu nafar hiriburuko euskara xuxen nolakoa zen; baditugu zantzuak, hori bai, eta zantzuetatik haratago doazen inguruko herrietan opaturikako testuak ere bai, Bonapartek bildu eta Ondarrak argitara emandako materialak (1982), eta toponimia ikerketak (Jimeno & Salaberri, 1994 eta 2006), baina, erran bezala, gauzak nola ziren xeheki ez dakigu, eta Lizarragaren idazkiek, arretaz eta sakonki aztertuz gero, laguntza handia eman diezagukete Iruñeko euskararen gorabeherak ezagutzeko tenorean.

Egia da Elkanokoaren hizkera eta Bonapartek bildutako materialetakoa ez datozela zeharo bat eta, egoera honetan, logikoena Lizarragak, idazle zen aldetik, bere euskara *goratu* nahi izan zuela pentsatzea da. Goratze nahi hori zenbaterainokoa den oraino azterkizun dago, eta, era berean, elkanoarraren idazkietan Axularren eta Iparraldeko literaturaren eragina noraino iristen den ikusteko dago. Lizarraga urdazubiarraren liburuaren jabe izan zela badakigu (ikus Apezetxea, 1978: 211), eta franko garbi dago haren eragina suma daitekeela leku batean baino gehiagotan. Erraterako, ahoskabe aitzinean txistukari afrikatuak idazteko Elkanokoak duen joerak (*aiotska*, *ametsketan*, *beltzkara*, *errautstu*, *gaitzki*, *itzketa*, *itzkuntza*, *izotzketan*, *moldegaitzki*, *ortotsketan*, e.a.) Axularrena dakarkigu gogora (*bekhaitzkoa*, *bortitzki*, *buru-eragotzkarri*,

hatskeria, hautskorra, hitzkuntza, hortzkitzeintu, likitskeria, onhetski, e.a.). Era berean, elkanoarraren «*an izanen da negarra ta ortze(n) karratskotsa*» (UIGPL, 306)¹ pasarteñoak gure klasiko nagusiaren «*han izanen dela nigar eta hortz karraskhots*» oroitarazten digu, zeinek, menturaz, Joanes Leizarragaren «*han izanen da nigar eta hortz garraskots*»-en (San Mateo, VIII, 12) baituke iturrama². Halaber, *begien ertxi-idiki batean* (DCC, 230) esamoldeak erdarazko *en un abrir y cerrar de ojos* baliokidearen itzulpena dateke, baina Axularren “*begi herts-ideki baten bitartea*” eredia ere hor da (1976: 221), eta, orobat, Leizarragaren “*begi erts-ireki arte baten seguranzarik ez tuen (gorputz miserable eta gaixo hunen zerbitzatzegatik)*” pasarteñoa. Halaber, elkanoarraren «*dionak gero dio bego*» (UIGPL, 85), egileak «errefran»-tzat hartzen badu ere, Axularren «*gero dioenak bego dioela erakustea*» (Irakurtzaileari, 13) esaldiaren kopia dateke, ordena iraulketa goiti-beheiti.

Lizarragaren lanean Euskal Herriko ekialdera garamatzaten adizki, hitz eta esamoldeak ez dira bakanak; Caminok (2004: 10, 35) Aezkoako eta Artzibarko hizkeretarik dakusa hurbilenik Eguesibarkoa. Mendibururen jokabidea gogora dakarkiguten forma bikoitzak badaude Elkanokoaren izkribuetan, oiartzuarraren kasuan, ezaguna den bezala, erdi aldeko eta nafarrerazko eleak izaten badira ere elkarren aldakan agertzen zaizkigunak. Hona Lizarragaren etsenplu zenbait: «*Gaitz ta malhur guzietaik*» (JMESB, 35; *malhurreria* eta *malhurusa* ere badu, JLEL, 344, Iraizotz, 1979: 134), «*trabaju eta malhur agitzen direnes*» (JMESB, 423), «*...klabelinas ta lili lorees egiten den girmaldas edo arramilletas*» (Satrustegi, 1976: 218), «*tortxa edo zuzi andi miragarri bat itxekirik*» (JMESB, 171; dena dela, «*zuzi edo antortxa*» ere opatzen dugu, ibid., 441), «*ertxirik dendak, botigak*» (ibid., 453, 461), «*urtzintz edo atrija*» (ibid., 460). Beste batzuetan bi eleak ez daude bata bestearen aldameanean, baina biak ageri dira: *Martxant* (inoiz) (ibid., 423) / *merkatari* (usukarra) (ibid., 94), edo erdarazkoa eta euskarazkoa elkarren jarraian azaltzen dira, irakurleari lana errazte aldera, itxuraz: «*Venus, ta goizeko luzero artizarra*» (ibid., 537).

Antzetsukoa da *elemenio* ‘jende handia’, ‘jendetzea’ (JMESB, 457), baina honek, OEH-ren arabera, hedadura zabala du, baita Hegoaldean ere; *kaustu* ‘kausitu’ ere opatzen dugu Lizarragarenean (DCC, 88), Eguesibarren ibilia zelako seinalea datekeen sinkopa eta guzti; alabaina, *nor* adiztako hartzen du Elkanokoak, Luzaiden, errate baterako, *kausitu* beti *nork* aditza bada ere. Bestalde, Garaziko *errefusa* ‘erosleak ezin aukera dezakeen ardia’ (Kamino &

¹ DCCb 167n beste hau ageri da: «*Prosegitzen du lamentuan ta ortzen karratskotsan*».

² Diodan, bidenabar, Haranederrek honela itzultzen duela: «*...eta han izanen dire nigarrak eta hortz karraskatzeak*».

Salaberri, 2006) elearekin erlazionaturik dagoen *rebus* eta *errebus* ere badu Elkanokoak (*Koplak*, 133, 184). Nolanahi ere, hitz hori, beste azal batzuekin, Iberiar Penintsulako erdaretan ere erabilia da, Coromines & Pascualen hiztegiaren arabera (*fundir* sarrera).

Ekialde-Iparraldera garamatzaten beste hitz batzuk hauek dira: *Barber* («*eta bein zegolaik barbera emateko sualeak zango batean*», *JMESB*, 142), *begitarte* (ibid., 172), *kredita* («*ta gendearen kredita ona zuena*», ibid., 162), *otoi* ‘mesedez’ («*guarda benaza, otoi*», ibid., 345), *surnatural* («*gero birtute surnaturalak grado goran*», ibid., 526. Honekin batean *sobrenatural* ere badu, jakina). Mugaz haraindian eta Lizarragaren izkribuetan opatzen dugun beste ele bat *ukaldi* da, aitzinean beti kolpea zerekin jotzen den adierazten duen objektuaren izena heldu dela: *Adarrukaldi*, *arrukaldi* ‘harriukaldia’, *azotukaldi*, *eskukaldi*, *lixtukaldi*, *makilukaldi*, *palokaldi*, e.a. Guztiaz ere, Caminok (1997: 423) Aezkoan *adukaldi*, *makilukaldi*, *pizukaldi*, *sardukaldi* eta *ukaldi* bildu zituen, eta, beraz, kasu honetan Euskal Herriko ekialdeko ezaugarri baten aitzinean garela pentsatu beharko dugu, ez Lizarragak berariaz eta jakinaren gainean beretutako Iparraldeko atzizkiaren edo hitzen aitzinean. Iparraldera begira dauden beste ele batzuk ondokoak dira: *Ajent* («*Zein ajent ibiliko diren aingiruak...kuidatzen eriotzeko tranzean limosnagilleak*», Iraizotz, 1978: 250. Autore honek ‘diligente’, ‘solicito’ erran nahi duela dio), *alert* («*egones alert beira*»; ikus hirugarren oin-oharra), *errebel* ‘rebelde’ eta *konsient* ‘jakituna’, ‘ohartuna’.

Bestalde, gure autoreak Larramendiren hiztegia ezagutzen zuela bistako gauza da, ondoko ele hauetan ikus daitekeen bezala: *Zenakulo edo afaltegian*; *aldiritan*, *aldirita*, *aldiritar*; *arageitia* (ikus Iraizotz, 1978: 256), *arrustai* ‘zubi-arkua’, *atzeki* ‘buztana’, *diabetatu* ‘populatu’, *ezinde* ‘ezintasuna’, *galkidakor* ‘corruptible’, *gozande* ‘delectación’, ‘deleite’, *jakinde*, *jaundi*, *jomuga*, *legaraukiro* ‘zilegitasunez’, ‘legearen arabera’, *legenartsu*, *lekeltxor* ‘lentisco’, *lenijaio*, *nabarri* (*edo jaspe*), *neurkai*, *ondekidatu* ‘fundatu’, ‘zimendatu’, *urbagadak* (eta *urain bagadek*). Inoiz edo behin, gainera, burutara Beriain nafarra dakarkigun pasarteren bat badu: «... *zeñi erraten diogun Aita gurean, eman drazaguzu egunorosko ogia egun eta beti*» (*HGN2*, 655). Aipu honetako *drazaguzu* hori, dakigula, ez da berriz agertzen Lizarragarenean, baina **erazan*-en adizkiak ohikoak dira Utergakoaren izkribuetan, *eun*-enekin batean, hurrengo honetan erraterako: «*Zer eskazen diozu erraten duzunean gure egunorosko ogia eman drazaguzu egun?*». Dena dela, honelako adizkiek zenbait autorek uste baino luzazago iraun dute bizirik Nafarroan (ikus Salaberri, 2004: 546). Badaiteke, orobat, biek, Beriainek eta Lizarragak, iturri beretik edan izana. Zernahi gisaz, bigarren idazleak bere ohiko hizkerarekin akortago den «*eman dezaguzu gure egunoroko ogia*» dakar beste batean (*HGN3*, 1090).

Lizarragarenak irakurri dituenak ongi daki itzultzeketan ibiltzen dela, usu asko pentsatu gabeko iraultze lanetan aritzen dela, ezin baita onartu, Mitxelenak noizbait erran zuen bezala, gure apezaren eskuizkribu ugariatian kausitzen ditugun ezaugarriak Iruñerriko euskara *gaizkara*-ren isla direla. Ez dut ukatzen Iruñearen hurbiltasunagatik Kokoerriko hizkera kutsatuxe zego-keela, baina ez dut uste eguneroko solasean gure idazleak ibiltzen dituen moduko erdarakadak ibiltzen zirenik. Maiz ezinezkoa da, gaztelaniatikako maileguak maila jasokoak direlako, hizkuntza horretan eguneroko jardunean erabiltzen ez direnak, eta lehen ere erabiltzen ez zirenak, itxura duenez. Nolanahi ere, lan honetan Lizarragaren aberastasunak nabarmentzera mugatuko naiz, batez ere hiztegiaren arloan dituenak azpimarratzera, beste mailetako ezaugarri batzuk ere notaraziko ditudan arren.

Hasteko fonetika kontu bat aipatu nahi dut, Elkanokoaren lanetan eta egungo ekialdeko hizkeretan aurkitzen dugun hitz hasierako txistukari afrikatua hain justu ere, huts egiteko beldur handirik gabe handigarritzat har dezakegun *tz-* soinua alegia. Elkanokoak *zakur*, *tzakur*, *txakur* eta *txakurtto* ibiltzen ditu bere idazkietan. Lehena eta hirugarrena neutroak dira berez, baina bigarrena eta laugarrena beti adierazkorak dira; bigarrenak mespretxua adierazten du eta laugarrenak, aldiz, maitasuna, errukia, e.a.: «*Ezta arrazio umeen ogia ematea tzakurrei. Andre umilak erran zio: Bai, Jauna, ezi txakurttoek ere jaten tute nausiaren maieko apur erortzen direnak*» (Apezetxea, 2001: 144), «*aingiruak okatzen ziren iago ezi zapo likitsas ta tzakur ustel urrinduas*» (DCC, 226).

Digrama hori bera beste hitz adierazkor batzuetan ere kausitzen dugu: «*Dira ja sei gizatzar*» (Koplak, 166), «*eztigu eman nola zezenei adarrak, nola artzei atzapar fuerteak, nola otsoei ortz sendoak, nola arranoei piko tzorroztak*» (UIGPL, 72), «*agertu tu bere besoko indarrak, / urratu tu ere / suber aundi tzarrak, / bota goratuak, / ta goratu txarrak, / entenda dezan munduak*» (Koplak, 34), «*tzorrozturik dauzkite beren miak*» (DCCb, 320), «*errepara bortz edo sei gaizki-eginak: 1^a. Tzut-tzuto egote gura tieso antustes*» (HGN2, 670; eskuarki *txutirik* ibiltzen du), «*kontatzen da monje bates Kredoaren itz gaietara tzut-tzuta paratu gabe belauriko*». Inoiz ibiltzen duen <z>-dun aldaera ere ez dabilkio hagitz urruti <tz>-ri: «*Errebelatu zio goart egin zezala non in zutenazienda gaiek muzurka zulo andi bat*» (JMESB, 153). Prozedura hau bizirik dago oraino, eta bizirik egon da Nafarroako beste alderdi batzuetan, euskara onik egon den bitartean, Artzibarren eta mendiz Eguesibartik biziki hurbil dagoen Esteribarko Ilurdotzen, adibidez. K. Artolak (2006) *tzakur*, *tzerri* (Arrieta eta Ilurdotz), *tzori* (Ilurdotz) bildu ditu.

Orain euskal gramatiketan hainbeste aipatu den puntu bat ukitu nahi dut, hain zuzen ere bokalez eta horzkari ahoskabez bukatzen diren adlatiboen artean datekeen aldeari dagokiona, hots, *-(er)a* eta *-(er)at*-en artean dagokeenari buruzkoa. Egileak arrunki erabiltzen duen aldaera bokalez bukatzen

dena da, baina *-t* duena ere badarabil, bestea baino gutxiagotan bada ere. Lekukotasunak ikusirik irudi luke horzkariduna gehienbat aditzondo sortzaile diren hitzekin azaltzen dela, baina izen arrunt eta bereziekin ere ager daitekeela, eta zenbaitetan hurbiltze adlatiboaren adiera ohi duela. Franko aldiz, ordea, hau ez da garbi ikusten: «*Ezi emengo bizia da bide eternidaderat, eta bizimoduaren ariora diogu zer bides doaien, ta norata doaien*» (DCC, 47), «*kangrejo edo karramarroa dabila gibelka edo atzerat. Nai omen ziote bein erakutsi karramarro amak umeei ibiltzen alzinerat, gaizki irudi zuela ta peligroso aien ibiltze modua*» (JLEL, 336), «*barnatu beitirat zimendua*» (UIGPL, 75), «*utzis berzeak pasatzera alzina, gelditu ze atzerat bera*» (JMESB, 44), «*... erran ta atra ze kanporat baratzera*» (ibid., 58), «*ta tiratu zue leorrerat sarea*» (ibid., 60), «*azkenerat manifestatu zekiote zazpi diszipuloeri*» (ibid., 60, 247), «*ala ere, etze itzultzen, alik eta enkomendatu arteo Jangoikoai gau batez ososoa. Lokumatu zelaik goizerat, aingiru batek erran zio [...]*» (ibid., 252), «*sandak ontan zuen sineste bizia gerorat ezta ain admiragarri*» (ibid., 273), «*oneki agitz kontent Auriato paraturik abre zalui prestatuetan eskapatu ze Nafarrora Leire alderat*» (ibid., 284), «*infernurat bera pausu adiña pausu (sic) da zerurat gora*» (DCCb, 176).

Aditzaren arloan harrigarri eta are miresgarri da, oraingo euskararen aldean, Lizarragarenak nolako aberastasuna duen, bai laguntzaile adizkietan eta bai trinkoetan. Autoreak berak dio euskara *gaizkara* egiten duela, ez biziki euskara ona alegia, baina hau ez dator bat aditzetan eta hiztegian erakusten duen ugaritasunarekin. Hona adizki trinkoen etsenplu batzuk:

- 1) Atxiki: «*Bere gizontasuna datxikola*» (DCC, 37), «*birtutea datxiko arimai betikos*» (ibid., 52).
- 2) Eduki: «*Ertxirik dauzki*» (JMESB, 208), «*gaixtotako dauzkizu berzeak*» (DCCb, 314), «*emen nauka errenditurik*» (JMESB, 339), «*ona, emen naukaze*» (ibid., 94), «*ni arrazioreki naukate emen*» (UIGPL, 121), «*zer ere bekatuetaik gelditzen zaizun biotzean, artaiek zauzki arrapaturik deabruak*» (HGN1, 327), «*guziok umeak / gauzki kontaturik*» (Koplak, 49), «*zein lotsaturik gauzkiten demonio goiek*» (JMESB, 526), «*alako ona zindeuka etxean, ta ixildu diguzu?*» (ibid., 352), «*berze monje batek zeuzkie altxaturik irur dukat*» (ibid., 336), «*orra guk ofenditurik gindeukan Magestadea*» (ibid., 22), «*bazindeuka zuk, ene umea, kandela bat itxekirik eskuan*» (HGN3, 990), «*ta ezpaleuka Jaunak bere eskutik, kapatz lizakela egiteko munduko maldadeak*» (JMESB, 455), «*baleuzki batek berregun milla dukat*» (HGN3, 811), «*komunkiro gelditzen ze komekaturik argis inguraturik, nola kristalesko urna bat barnean iruzkia leukena (sic)*» (JMESB, 526), «*bagindeuzki argi arimaren begiak!*» (HGN3, 891), «*eskaida goi baleukate purgatoriokoek*» (UIGPL, 99).

- 3) *Egon*: «*Eztagokida ongi*» (DCC, 150), «*ene Aitari dagozkion gauze-tan*» (JMESB, 213), «*kontino dagozkigu egiten gerra*» (ibid., 412), «*eta zegozkiolaik errelijiosoak asistitzen*» (UIGPL, 17), «*beira zegokiote ustez atra zerbait*» (JMESB, 213), «*ja ez nagoke ni iago emen*» (ibid., 431), «*etzaudezke, dio, bustarri edo sujeziorik gabe*» (HGN1, 31), «*ta ain guti ontzea zertan dagoke?*» (UIGPL, 163), «*Jangoikoas seguro gau-dezke guziok, baña nior ez bere buruas*» (DCC, 47), «*bi amore elka-rren kontrakoak eztagozke biotz batean*» (DCCb, 347), «*zergatik nin-degolaik goseak eman zidaten jatera; egarriak nego, ta eman zidate edatera*» (ibid., 261), «*ongi negokelaik / gaizki paratu naiz*» (Koplak, 120), «*baña nola zegoke ain eri, sor ezpalitz?*» (UIGPL, 250), «*oh banego mundurako / ilik emen ta orzirik, / ala obeki zerurako / nin-degoke bizirik*» (Koplak, 154), «*ni negoke obligaturik*» (ibid., 153), «*bazindeude bekala purgatorioan*» (Iraizotz, 1979: 131), «*istante zin-deuzke barkatua*» (HGN1, 276), «*balego arren eskuan*» (JMESB, 409), «*bagindeude, justizia eginik, leku triste gartan*» (DCCb, 166), «*baña arriturik gindeuzke pensatzen, nola edo zer gisas*» (HGN3, 978), «*espiritu gau legoke ilik*» (DCC, 199), «*ta milagroak ere baleude kari-dadeik gabe*» (UIGPL, 292), «*baut uste anitzes, eta seguroago leudez-kela aien eskuetan gauzak senarrenetan baño*» (HGN1, 492), «*agitiz obeki legokida (sic) izatea itsu*» (JMESB, 500), «*zaude, nik egiten dute-na zuk eztakizu orai*» (ibid., 211), «*bego emen*» (DCCb, 196), «*gauden firme beraren grazian*» (ibid., 197), «*zauzte geldi, ez beldur*» (JMESB, 159), «*beude, dio Jaun andiak*» (UIGPL, 72).
- 4) *Ekarri*: «*Ortako dakarrat abitu gau*» (JMESB, 417), «*guziendako dakarra mats*» (DCCb, 223), «*ta dakarzuki orazioak*» (JMESB, 443), «*zer akusazio dakarrazte gizon gonon kontra?*» (ibid., 49), «*oraiko arantzeek dakarzkite ango loreak*» (UIGPL, 76), «*olio ta argi zekarra-la*» (JMESB, 450), «*an zoeielaik oroitu ze zekarzkiela bereki bere eli-zako errelikarioain gilzak*» (HGN1, 272), «*bi korona zekarzkiola autara*» (UIGPL, 326), «*zeren ezi zekarrate ordena*» (JMESB, 462), «*bazindekarzki onara zuk mundu guziko bekatuak*» (HGN1, 276), «*baña ori baizik ezpalekar, falta lekiok obena*» (HGN3, 865), «*baña zetozonek balekarte batak zerillatto bat, berzeak zirio andi bat*» (ibid., 990).
- 5) *Erabili*: «*Eta ala zeabilatat erdi zoraturik ingur-ingur*» (DCCb, 277), «*dabilate bat ala nola zanbalabuzkan, aurren joku gartan, gora bera, ja kanonizatzeunte, ja kondenatzeunte*» (ibid., 316), «*Jesus onaren odol preziosoa bekala, oinpetan zebilatena*» (JMESB, 159).
- 6) *Eraman*: «*San Lorenzo, daramana bere izenean bere triunfoaren lau-rela*» (JMESB, 492), «*nik gorputzean ere badaramazkit ene Jaun Jesu*

Kbristoren markak» (ibid., 476), «*zer damazu or?*» (ibid., 434), «*one-txeke narama infernura*» (DCCb, 321), «*uzbezkitte, ezi naramate izatera martir*» (JMESB, 362), «*namate ebek arturik*» (Koplak, 176), «*beti zerama bereki*» (JMESB, 87), «*baizema bereki*», «*sanduak bereki zemazkie*» (ibid., 432), «*utzi zizkio zamazkien tresenak ere*» (ibid., 517), «*ontas landara kanzer idor batek zeramazkio xanes petxoa, besoak ta aurpegia*» (HGN1, 456), «*bazemate*» (JMESB, 418), «*zeramazkite justiziatzera karro batean bi gaizkiegille famatuak, ta zemazkite tormentatzen bidanabar*» (ibid., 175), «*balema bekala indio bat bere soñean ezin jasis*» (ibid., 84), «*balemate arrapaturik*» (ibid., 47).

- 7) Erauntsi: «*Abenduaren erditsutan elurra zreunsala*» (JMESB, 248), «*ortara zoeielaik bein Rabenara, berandurik bidean ilundu zekio elurra zreunsala*» (ibid., 441).
- 8) Etorri: «*Andik datorkio arimari infinizio bat on*» (JMESB, 538), «*eta orgatik datozi plagak*» (UIGPL, 164), «*eska zozie zuek Jangoikoai, eztatorkidan diozenetaik deus ere*» (JMESB, 474), «*...zeñen medios datozkigun ondasun guzia!*» (DCC, 37), «*gaitzak permititzen baitu datozkioten*» (ibid., 52), «*bakarrik daudelaik ere datorzkioten gogorazio gaixtoak*» (Satrustegi, 1976: 222), «*nondik datorke batere onik?*» (OILI, 79), «*ez erran ta ez egin beñere deus, nondik datorzkiuguen (sic) estimazio*» (HGN2, 535), «*gu nor bagara, bagatozke seguro kon-tuetara*» (HGN3, 858), «*ezi gorputzarenak baitatozke nai eztugulaik*» (UIGPL, 345), «*...seguraturik Adrianok abisatuko zuela noiz bear zen izan martirizatua, zetorren egotera presente arren martirioan*» ‘etor zedin’ (JMESB, 249), «*obe da itz batez erran, zetozin guziak sandagana*» (ibid., 445), «*... dio Elizak, zetozkigungatik bizitza nondik etorri zekigun eriotzea*» (DCC, 84), «*etzute ikusten zetorkiotena*» (UIGPL, 242), «*baletor ilas geros bizturik norbait berze mundutik*» (ibid., 278), «*zenbat on letorken, ongi guarda baledi, oraiko, geroko ta betiko!*» (JMESB, 32), «*ta baletozki guziak artan itxekitzera beren kandelak*» (HGN3, 990), «*bera baletorkizu amoroso*» (ibid., 1055), «*bagindeude iletsiturik erremediorik gabe; ta derepente baletorkigu bat kofretto bateki ongi ertxirik eskuan, ta erran balezagu: Torizie*» (HGN1, 114), «*baletozkio bere etxera, ez neike admira*» (HGN3, 1013), «*Lazaro, atoz kanpora*» (UIGPL, 57), «*zato erdira, erraten dio gizonai*» (ibid., 55), «*betor, ikus bez*» (JMESB, 417), «*baña gatozin bere eriotzera*» (ibid., 430), «*atozte ene Aitaren bedeikatuak*» (DCC, 265), «*zatozte bada enegana*» (ibid., 64), «*betoz xakintsuak, lei bezadate zer dion an*» (UIGPL, 43), «*betozki munduko pobreak*» (HGN3, 912).

- 9) Etzan: «*Zerengatik ura gabe ila baitatza gure arima*» (HGN1, 37).

- 10) *Eun edo ukan*: «*Garbiena, sanduena, faltarik ta sobrarik eztuena ta eztukena*» (JMESB, 309), «*eta bildu tukenak noren izanen dire?*» (DCCb, 308).
- 11) **i*- 'eman' (ikus Lafon, 1980: 228 eta hurr.): «*Idazu, seme, zeure biotza niri*» (Iraizotz, 1978b: 474), «*idazie gizon bat estena inkietatzen*» (ibid.), «*bida bizpirur egun biltzeko*» (JMESB, 493), «*gure Etxokandre dibinoak bigu grazia*» (DCC, 207), «*orai bada, seme, Jangoikoa biz zureki, ta dizula fortuna*» (Iraizotz, 1978b: 474), «*Jangoikoak digula argi*» (JMESB, 140).
- 12) **io*: «*Eztiot nik solamente zazpi aldis*» (JMESB, 211), «*baña laburtzeko solo tiot pausu prinzipal(en)ak*» (UIGPL, 49), «*gaizki diozu*» (JMESB, 238), «*au ziola, dio S. Juanek*» (ibid., 41), «*Marineo Sikulok tio itz gebek*» (ibid., 451), «*ze fortuna! dioze*» (DCC, 72), «*deus ezute balio zuen onetsiek enearen aldean, ta ez present tiozen guziek niri eman didanaren aldean*» (JMESB, 301), «*ezaunduko duzie egia dela diotena nik, ta falsu diotena herejeek*» (ibid., 240), «*nio nik len*» (UIGPL, 324), «*ala zindio orai zenbait urte, ala zindio joan den urtean*» (HGN1, 233), «*gorputzas dena dela, biz salbo arima, zio*» (OILI, 81), «*ebek bidean asi zire mar-mar goseak, ziotela elkarri [...]*» (JMESB, 429).
- 13) *Ibili*: «*Nabila xakin naies zergatik*» (JMESB, 388), «*an zebiltza bisitatzen pobreak*» (ibid., 423), «*balebila ain hurbil atarirat*» (HGN3, 1012), «*pensa nola lebilzke(n), ezpalitz*» (UIGPL, 100), «*baña bebil-tza xakin naies alako medioes*» (DCCb, 196).
- 14) *Ikusi*: «*Bide erreala dakusat eta ez bidexenda*» (DCCb, 175), «*bada ezta kusazu ori dela imposible?*» (DCC, 119), «*nork ezta kusa emen Jangoikoaren eskua?*» (ibid., 113), «*badakusaze ja*» (UIGPL, 359), «*bizikideak zekusalaiak ain liberal*» (JMESB, 361).
- 15) *Iraun* (*iraun, iraundu*): «*Ta itz errealararen birtutez dirau, eta irauen du*» (JMESB, 44), «*eztira pasatzen, betikos diraute*» (DCC, 240), «*arriturik nola zirauen ainberze*» (HGN3, 811).
- 16) *Irudi izan*: «*Neke dirudi*» (DCCb, 254). Honelakoetan *irudi* zue-ren modukoak ibiltzen ohi ditu.
- 17) *Izan*: «*Garade lurreko animaltoak*» (eskuarki *gara* badu ere, jakina; UIGPL, 130), «*nondik dateke deus onik?*» (Koplak, 58), «*banitz persona nukena autoridade eskribitzeko*» (JMESB, 427), «*ortako beira nola zaren, ta nola zinazken*» (UIGPL, 243), «*guziok ginazke sandu*» (UIGPL, 168), «*alfer lirazke*» (DCCb, 362), «*biz bekatu originala petxa bat*» (JMESB, 18).

- 18) *Jakin*: «*Guk bazeakitau Moisesi mintzatu ziola Jangoikoak, baña au nondik den etzeakitau*» (JMESB, 36), «*au zio, baizekie nor zen traidorea*» (JMESB, 471), «*ta zekizkienak sandu izanen zirenak*» (ibid., 425), «*ezkindekite lurrekoek nola kuadratu Jangoikoai*» (HGN2, 656), «*etzindekite zuen iltzea sentituko zutela zeuren propioek?*» (JMESB, 390), «*nik barin baneki Jangoikoak ala erran duela, sinesta nezake*» (DCC, 112), «*bazindeki Jangoikoak in dizun faborea*» (JMESB, 39), «*oh ene Ama ona, baleki on egin didana azione gorreki!*» (UIGPL, 25), «*ditxosoak gizonok, bagindeki estimatzen ongi gizon dibino gura!*» (DCC, 37), «*balekite, zuek bekala, ebek, an esperatzen duguna*» (JMESB, 119).
- 19) *Jarduki*: «*Zertako dardukat klaro dena?*» (JLEL, 332), «*onek blasfemia darduka*» (JMESB, 35), «*berzea gurutzea; eta ontas dardukagu*» (DCC, 82), «*bada aditze gontas (aditzeas obeditus) nerduka*» (JLEL, 345), «*etzekiela zer zerdukan*» (UIGPL, 93), «*erik aiturik, ta entendaturik S. Malakiasen zerdukatela [...]*» (JMESB, 289).
- 20) *Jario (jarin)*: «*Borboraka zerio odola*» (JLEL, 338), «*bi begietaik negarra zeriola*» (JMESB, 24), «*abuña zeriola agotik*» (ibid., 123), «*odola zerio barrataka alde guzietaik*» (ibid., 318), «*erdea zeriola agotik*» (ibid., 408), «*zerura beiratzeas ere zerizkio negarrak*» (ibid., 383), «*orazioaren sutegian gorituak atratzen zitue sua zeriotea, urratzeko, peñak ere, bronzeak ere*» (ibid., 441).
- 21) *Jarraiki (xarreki)*³: «*Jangoikoaren amoreari darraio proximoen amo-*

³ Pagolak eta bestek argitaratutako lanean (HGN4, 1519) *barraio* forma ageri da, zein egileek *jarraiki*-ri atxiki eta *nor-nori* sailaren barnean kokatzen baitute. Lekukotasuna, hots, forma hori azaltzen den pasartea hau da: «Segitzen da atenzioa, egones alert beira nor nori ta nola mintzatzten garen, zeren ezi emen gorputza ta gogoia barin badago *barraio*, nola bear du aditu alako orazioa, eztuelaik aditzen iten duenak berak?» (HGN2, 628). Etzana gurea da. Bistan denez, *barraio* honek ez du zerikusirik *jarraiki* edo *xarreki*-rekin, ez baita aditza, adberbioa baizik, barratu 'barreiatu'-rekin lotua dagoena, jakina, *marranko* adberbioa *marrankatu* aditzarekin dagoen era berean. Honelako hutsak badira adizkiak sailkatzen diren lanaren atal honetan. Beste batzuk: *bazindauka* eredu batuan *bazinduzka* erranen genukeena dela idazten dute, hots 'hark zu bazinduzka, bazintu', berez izkribuetan opatzen ere dugun *bazindeuka* bezala 'bazeneuka' 'bazenu' besterik ez bada ere; *banezkike* 'bane-kizki' dela uste dute autoreek, baina euskara batuko *banitza* (*ikus banitza* 'ikusiko banitu') baizik ez da, *para balezki*, errate baterako, 'para balitza' den modu berean. Azkeneko bat, zerrenda sobera ez luzatzeagatik: *nindegoken* iraganaldiaren barruan sartzen dute, baina testuinguruak alegiazkoa dela garbi samar adierazten du: *Oh, bizitu banitza sanduetaik bat bekala beti! Nola nindegoken, ta nola nagon!* (HGN2, 700), hots, 'Oh bizi izan banintz sanduetako bat bezala! Nola nengokeen eta nola nagoen!'. Hiztegian ere badira zuzendu beharreko gauzak; adibidez, *kuntze* 'zulo', 'arraildura' dela diote, baina testuak ikusirik argi dago

rea» (JMESB, 185), «*baña darraizkio atzetik bakotxai bere obrak*» (UIGPL, 15), «*naiz emen zenbait gaixtoei darraioten beren gaizki egimen kastigoa*» (DCC, 186).

- 22) Joan: «*Inporta da anitz noaien, itzuliko naiz fite*» (JMESB, 422), «*ilarazi benaza fite, eztoaien bakarrik ene aizpa*» (ibid., 283), «*norengana doazin*» (DCC, 33), «*nola doakizu?*» (OILI, 78), «*nola doakio?*» (JMESB, 189), «*badoakiotela idikitsera ataria*» (UIGPL, 272), «*nora ni, ja nora / noake galdurik / ezpada amaren mantora?*» (Koplak, 65), «*oneki bazoazke seguro logratuko uzula nai duzuna beraganik*» (HGN2, 629), «*eta ala guti-guti doake emendatus*» (UIGPL, 162), «*bazoazkete nauzen lekura*» (JMESB, 283), «*dire bide diferenteak, nondik doazken guziak*» (HGN1, 473), «*galdegin zio probinzialeak nola zoekion*» (JMESB, 204), «*bazoekiotela beren aita*» (ibid., 422), «*konbeni zaize noaien ni, zeren ezi ezpanindoie [...]*» (HGN4, 1265), «*berla balidoeie mundutik, lidoake zerura zuzenean*» (DCCb, 368), «*oroat nola bagindoezi atrazera geuren eskus suertea edo boleta*» (HGN1, 301), «*nola gindoazke guziok boladan adoratzera gure Erreina soberana?*» (HGN3, 1064), «*nola balidoazi (sic) kuarto bate-tik bestera*» (HGN1, 236), «*zein laster lidoazken arren atzetik ebek?*» (DCCb, 326), «*ala balidoekio kontatus gañarako gauza munduan diranak*» (DCC, 109), «*baña berla eman zio eskritorioko giltza, bidoeie Jangoikoreki, ar bez nai duena*» (JMESB, 89), «*biek dugu intenzio bera, goazen uniturik batean*» (JMESB, 229)⁴, «*bidoezi, bidoezi fede gutitakoak ikustera begis*» (HGN3, 1053).

Ez dira gutxi, ezta ere, trinkotu diren aditz perifrastikoak, gehienak edo denak ahaleran edo agindu adiera duten subjuntiboko adizkietan: «*etxok etxok guti bat*» ('itxoin, itxoin pixka bat', JMESB, 331. Cf. Intzak [1974: 141] biltzen duen *autxok, autxok: orain (sic) artuko tuk ireak*), «*etxek, etxek Martiniano*» ('itxoin, itxoin', JMESB, 410), «*egizu hori ta salbatuko zara*» (UIGPL, 254), «*eramazu bularretan*» (DCCb, 190), «*errazu aitu duzula*» (DCCb, 204), «*idukazu presente eriotzea*» (UIGPL, 341), «*itzulazu ezpata goi bere magira*» (JMESB, 212), «*izazu Jesus onari amore ta fede bizia*» (OILI, 79), «*zauzte erne, ta orazio egize, etzaizten erori tentazioan*» (JMESB, 212),

'marka' dela, eta *zukure*, gure irudiko, ez da autoreen «*zuzkur, arto-lasto, txorkotx*» (HGN4, 1686), 'azukrea' baizik. Testuinguruak argi samar uzten du: «... eta arrazioak ere moztazen du, ezi gizonkia da animale jenero bat ez palos, ez bortxas, ez furias domazen dena, baizik dulzuras ta modu onas; dulzazeko idisagarra, usatu bear da almibar ta zukure». (HGN1, 489).

⁴ Ilurdotzen *gõazin* bildu du Artolak (2006: 412).

«*ikasazie eneganik*» (ibid., 31), «*izazie beldur Jangoikoai, ta emozie dagokion honra*» (ibid., 432), «*gorazkize, o prinzipeak, zeuren atariok*» (DCC, 176), «*uzkizie ebek doazila*» (JMESB, 46), «*emagun, diote, pregonariaren kontra*» (UIGPL, 337), «*erakutsagun zeñatzen eta santiguatzen*» (DCC, 86), «*erragun diote, erregla dela makur*» (DCCb, 176), «*jardukagun lenik amoreas*» (ibid., 183), «*garaizkigun gure jenio gaixtoak*» (UIGPL, 326), «*aipazkigun batzuk*» (DCCb, 189), «*kontazkigun zenbait*» (JMESB, 38), «*au arturik emozute nere eta zure partez*» ‘*emaiezu*’ (ibid., 471).

Iruñerriko hikako alokutiboa ere maizxko agertzen da Lizarragaren lanean, egileak aipatzen dituen bi pertsonaiaren arteko jardukian, bistan denez, toketan partikularzki, baina noketan ere bai, zenbait aldiz. Hau, berriro ere, ez da ongi konpontzen euskara kaskarra egitearekin, erregistro aberastasuna azken batean hizkuntza aberastasunaren seinale delako. Hona hemen tokako etsenplu batzuk: «*Guk justoki pagatzen tiagu pena merexi tugunak, baña onek ezтик kulparik*» (OILI, 80), «*nora joan aiz? Non aurkituko aut? Ator ta il nazak*» (DCC, 279), «*ago or [...], or egon bear duk, madarikatua, ez aiz atrako [...]. Madarikatu orrek emen emen egon beauk [...]. Eztuk il bear*» (DCCb, 167), «*goaie ordik Satanas, eskribiturik zeagok [...]*» (ibid., 187), «*oh gizon gezurti falsua, ire andrea ekartzeko erran nia eta dakarrak ene tormentu dena, Jangoikoaren ama. Esker emok, ezik ezperen pagatuko zindute emen ik ta ire andreak*» (ibid., 200), «*goaie i, arren diszipulo izan adi, ezi gu Moisesen diszipulo gaituk. Guk bazeakitau Moisesi mintzatu ziola Jangoikoak, baña au nondik den etzeakitau*» (JMESB, 36), «*S. Pedrok erran zio serio: “Ire dirua biz ireki perdiziotako, uste baituk Jangoikoaren donoa erosten dela dirus. Itz goiek eure kontra tuk, ezi ire biotz goi eztuk zuzen Jangoikoaren alzinean. Intzak penitentzia gaixtakeria gortas, nai badik barkatu Jangoikoak, ezi ikusten diat agola loturik gaixtakeriaren lakioan”*» (ibid., 474), «*enegatik in bazue alakorik, egonen nuta gogotik kur-kurra juizioko eguneraño*» (DCC, 137), «*etxek, etxek, Martiniano, nik eroriaraziko aut, ta joanaraziko ordik konfuso, naiz agon konfiaturik dioken gortan*» (JMESB, 410), «*iltzikik, ebakizkiolek buruak*» ‘*hil itzak, ebaki iezazkiek buruak*’ (ibid., 533), «*ekarrak onat*» (HGN3, 883), «*to, leitzak*» (UIGPL, 235).

Noka gutxiago agertzen da Lizarragaren izkribuetan, baina badira leku-kotasun batzuk, ondoko hauek besteak beste: «*No!, bolsa txerriak jan din baña ik erran zon bere andreak artu duela gastatzeko urliareki, baitu adiskide*» (DCCb, 196), «*nola ilaraziko dun ene semea?*» (JMESB, 122), «*goaie ordik, eztun zer urbildu enegana*» (ibid., 481), «*utzan, sorgina dun, ta deabrua zeagokion mintzatzen*» (ibid., 532), «*edan zan deabruareki*» (Iraizotz, 1979: 134).

Beroriketa ere frankotan azaltzen da elkanoarraren idazkietan, erdal tes-tuko tratamenduaren ordaintzat behar zuelako, jakina: «... *baña ez nautena*

nik, baizik orrek nai duena egin bedi» (OILI, 82), «ar bez au, kuidado ez solta, ezi joain zaio birtutea; para bez begien gañean eta ikusiko du» (DCCb, 191), «Jauna, para bezo ene agoari guardia bat» (ibid., 209), «oh!, Jangoikoak permiti balez orrek urteak egun adiña ume izan dezan!» (ibid., 212), «zergatik galdegiten dida niri? Galdegin bez aditu nautenei» (JMESB, 47), «Jangoikoai erraten zio, Jauna, guarda benaza, otoi, ta iduki benaza bere eskutik, ezperen itzuliko nazaio traidore» (ibid., 345).

Guztiarekin, hiztegiaren arloa da, nire ustez, elkanoarraren lanetik gehienik baliatu behar genukeena. Arlo honetan atzizki bakan zenbait ukitu nahi ditut; lehena Nafarroan hain erabilia den eta izan den *-kara* dugu. Azkueren arabera (1969: 19, 201-203) anitz ibiltzen da atzizki hau goi eta behe nafarrean, lapurteran, erronkarian eta zubereran. Iñaki Caminok, bere tesian (1997: 425), Aezkoako erabileraren adibide batzuk jasotzen ditu: *Azkarkara, debilkara, txikikara, zaharkara* eta *zelaikara*, Elkanokoaren *bezperakara, gogorkara* eta *neketankara*-z landara. Salaburuk eta Lakarrek ere Baztanen bildutako sail ederra dakarte (2005: 392-393): *Auzelankara* ‘auzolanean-edo’, *bizikara* ‘nahiko bizia’, *kezkatukara* ‘kezkatu itxura’, *maingukara* ‘maingu airean-edo’ eta *zakurkara* ‘nahiko zakurra’, besteak beste. Luzaiden Peio Kaminok eta biok (2006) *ilunkara* («denbora hau ilunkara diagok») eta *zalu-kara* («mutiko hura zalukara joan zen») bildu dugu.

Lizarragaren lanetan ondoko hauek ditugu, besteak beste: *Arinkara* ‘arin antza’, *axalkara* (‘un tanto superficial, poco profundo’: «Gasteak axalkara du orañ birtutea», Iraizotz, 1978: 265), *beltzarankara* ‘beltzarankxa’, *beltzkara* ‘beltz antza’, *berantkara* ‘beranduxe’, *deskoloritukara* ‘koloregabea bezala’, *desobedientekara, dudankara* ‘zalantzan bezala’ («*dudankara* egon ze», JMESB, 437), *epelkara* ‘franko epelkiro’, *errukara* ‘franko gogorra’, *ertxikara* eta *mear ertxikara, eutxikara* ‘zeken antza’, *gogorkara* ‘gogorxko(a)’, *gorrikara* ‘gorri antza’, *gutikara* ‘gutixko’, *ilkara* ‘nahiko hila’, *ilunkara* ‘ilunxkoa’, *kariokara* ‘garestitxoa’ *lazkara* ‘nahiko latza’, *luzekara* ‘luzexkoa’, *nagikara* ‘nagi antzean’, *nekekara* ‘neketsua, nekeza’, *neketankara* ‘zail’ («*Beira: beñik bein bidea bide erreala da berez, baña pasatzea neketankara dago, zeren bidean persegitzen gaituten etsaiek*», DCC, 50), *penosokara* ‘franko gogorra’, *sorkara* ‘franko gor’, *txipikara* ‘tipixkoa’, *txurkara* ‘urri antza’ eta *urrunkara* ‘urrunxko’.

Ikusten den bezala, adjektiboak eta adberbioak dira *-kara* atzizkia ezarritakoan ateratzen direnak, oinarrian zegoenaren arabera. Erranahia, *nik* uste, garbi gelditu da itzulpen-azalpenetan. Nolanahi ere, hiru lekukotasunetan mintzagai hartu dudan atzizkiak beste erranahi bat du, Iparraldean ibiltzen den *-kari* “denborazkoaren” parekoa. Alegia, Lizarragak «*eta proponitu ziote bazkoa-bezperakara libratu behar zelaik preso bat haiek nabi zutena, ia zein nahi zuten libre, Jesus edo Barrabas*» (UIGPL, 50), «*eta bazkoa-bezperakara*

libratu bear delaiak preso bat» (DCC, 162), «*proponitu zioten judioei bazkoa-kara zein nahi zuten bietaik libre, Jesus edo Barrabas*» (UIGPL, 143) dioenean ‘pazko bezperakari’, ‘pazkokari’ erran nahi du, hots, ‘pazko bezperaren karietara’, ‘pazkoa iristean’ edo antzeko zerbait. Modu berean «*horreki utziko dut doaien libre bazkoa-egunkara*» (JMESB, 50) dioenean ‘horrekin utziko dut joan dadin libre pazko egunean’ adierazi nahi du.

Elkanokoak ibiltzen duen beste atzizki bat *-zutu* ‘-aro’, ‘-zaro’ da, ondo-ko hitz hauetan: *Aurzutu*, *estudiantezutu*, *gastezutu*, *mutikozutu*, *mutilzutu*, *txikizutu* edo *txipizutu*, *zarzutu* (UIGPL, 42). Atzizki hau ez zen bakarrik Elkano aldekoa, Bonaparteren materialetan (Ondarra, 1982: 167) Eguesibarko herriko *aurtzutu*, *gastezutu* eta *zartzutu*-rekin batean Garesko *aurtzuta*, Oltzako *aurtzitu*, *gazteztu* eta Goñiko *aurtzutu*, *gazteztu* ageri direnez geroztik, nahiz hondarreko hiru herriotan *zartzaro* erraten zen, ez *zartzuta*, *zartzutu*, edo *zartzitu*; Garesko *gaztetasun* espainoleko *juventud*-en itzulpena da, hau gutxienez bisemikoa baita. Irudi duenez atzizkia Nafarroako ekialdekoa zen; Caminok Hiriberri Aezkoan *aurzutu* bildu du (1997: 430).

Linguae Vasconum Primitiaeko lehen hamabi koplak Erdi Aroko erre-aula bezala aurkez daitezke; izan ere, koadro zehatza atzeman daiteke, baina, baita erreaula ere bere osotasunean. Koplak bakoitzak erakusten duen autonomiak ez du galarazten egitura handiago batera egiten duen ekarria. Gaiaren aldetik erlijiozko eta maitasunezko bezala bereizten direnak elkarrekin harremanetan daude: bada batasunik lehen hamabi koplen artean. Langaiak ordenatu ez izana behintzat ezin lepora dakioke Etxepareari. Gainera, lekzio bat emateko moduan ordenatu ditu langai horiek. Oso egituratutako lekzioa da: ikuspegi panoramikoetik ikuspegi monografikora jauzia eginaz, Andre Mariaren arartekotasunaz eta maitasunaz diharduen lekzioa.

Hitzaurrean dioenez, “eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragaiteko materia” (79. or.) izan dezaten idatzi du. Juntagailu kopulatiboak lotzen dituen “doktrina” eta “plazerra” elkarren ondoan badoaz, katea sintagmatikoak aldi berean ematea eragozten duelako da, zeren eta idazlanen barrena ez ditu aurkeztuko batuketa moduan, baizik eta fusio moduan. Bat egiten dute biek.

Lehen itxura batean iduri du erlijiozko koplak lituzkeela doktrina emateko bide eta maitasunezkoak, berriz, “plazer hartzeko”. Haatik, maitasunezko koplak hauetan gozamenaren bilaketa nabaria den arren, doktrinaren zerbitzura jarri zituen. Maitasun profanoan aurkez daitezkeen egoera desberdinak azalduz

paratutako koplak maitasun sakratura erakartzeko bide ditu Etxeparek: egin behar ez dena erakutsiz, egin behar dena erakartzea du jomuga⁶.

Lehen koplak, “Doktrina Kristiana”n kristau doktrinako gai desberdinak jorratzen ditu: Jainkoak gizakia sortu duela eta honen eginbeharra Hura zerbitzatzea dela gogoratzen du; arratserako eta goizerako otoitzak ematen ditu; hilerri, ponte, sagrario eta gurutzea gogora ekartzen ditu; Ama Birjina eta Santuen laguntza eskatzen du; igandetarako otoitz bat aurkezten du eta, hiru egiez, hamar aginduez eta Judizio jeneralaz jardun ostean, salbazioa eskuratzeko laguntza eskatuz, Andre Mariari zuzendutako otoitz batekin jartzen dio amaiera lehen koplari. Amaiera honen aurretik ere, behin eta berriz eskatua zuen Andre Mariaren laguntza: Judizio jeneralari buruzko ikasgaia bera “zure ama anderia dakigula balia” (I, 388) esanaz bukatzen du. Ikusten denez, lehen koplari honetan bertan Andre Mariari salbaziorako laguntza eskatzea gai errepikari du.

Hurrengo koplak, “Amorosen gaztiguia”k Andre Mariaren figura du erdigune: Ama Birjinaren ezaugarri eta ahalmenak erakutsiko ditu. Ezaugarri horietako bat aurkeztua zuen, baita adierazpen-modu desberdinetara joz, behin eta berriz errepikatua ere, “Doktrina Kristiana”ko leku desberdinetan. Andre Maria gu gizaki bekatarion eta Jainkoaren artean arartekoa dela esana ez ezik, azpimarratua zuen lehen koplari bertan:

Jeinkoak zuri eman dizi potestate handia,
haren ama ziren gero, ama ere maitia,
zeru eta lur orotan duzun hanbat balia,
zer zuk galde baitagizu, den konplitu guzia,
eta zure eskutik duten berze orok grazia
eta salba zuk dezazun zuri gomentatuia (I, 413-418).

Bigarren koplak ezaugarri hau berau nabarmentzen jarraitzen du:

Orai egiten diraden gaizki handiegiatik
Jeinkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
balinetan zu ezpazina ararteko gugatik (II, 136-139).

Haatik, oraingoan, batik bat beste berezitasun bat garatzen du: Andre Mariaren maitasunaren izaera betegina du gune. Maitasun leiala, partekatzen dena, inor baztertu gabe, guztiei eskaintzen zaiena da Zeruko Andrearen ematen duena. Andre Mariaren maitasunaren ezaugarri hau gardenago eta azpimarratuago gera dadin, aurkakotasuna bide aurkeztea hautatu du, zehazki, lurreko amorosen arteko maitasun-harremanen aurrez aurre jarritz:

⁶ “El predicador medieval echaba mano de malos ejemplos para mostrar al público lo que había que evitar”. DEYERMOND, A. D.: *Historia de la literatura española. La Edad Media*, Editorial Ariel, Barcelona, 1973, 191. or.

Berze amoreak baten bezi eztirade perestu,
nork beria berziari eztu nahi partitu;
ama birjen gloriosa hanbat bada konplitu,
ororentzat bera baita, leial dela abastu (II, 41-44).

Andre Mariaren motiboa da lehen bi koplak uztartzen dituen. “Doktrina Kristiana”n erabilitako gaietako bat Andre Mariaren arartekotasuna izan da. Bigarren koplara, “Amorosen gaztiguia”ra igarotzean, gai monografiko bihurtzen du Ama Birjina eta aurreko koplan atxikitako ezaugarriari, beste bat eransten dio: maitasun betegina. Hau da, lehen koplatic gai bat jaso eta, hurrengoan jarraipena emateaz gainera, osatu egiten du, ordu arte azaldu gabe zeukan alderdi bat gehitzean.

Koplak kateatuz jarraitzen du Etxeparek; izan ere, andre kate-maila “Amorosen gaztiguia”tik “Emazten fabore”rako iraganbide du. Bigarren koplan gune zuen Zeruko Andrearengandik lurreko andrearenganako jautzia egin hirugarren koplan eta, andre honen ezaugarri eta ahalmenak azalduko ditu. Andre elementu komunak lotzen ditu bi koplak:

Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gainetik;
zerutika jaitsi zedin harzaz amaturik;
emaztiak ezarri du gure anaieturik;
andre oro laudatzeko haren amorekatik (III, 47-50).

Alderdi komunak ez du estaltzen apartekoa den alderdia. Ama Birjina laudatzen duen bigarren koplan, “Amorosen gaztiguia”n, esana zuen lurreko andreak ez dituela zerukoaren dohainak:

Berze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren
eta gero obororik punzela ezin dirate;
zu, anderia, ama zira birjinarik Jeinkoaren
eta geroz erregina zeru eta lurraren (II, 104-107).

Etxeparek ez du etsi Erdi Aroak Ama Birjinarengan miresten zuen kalitate agerian jarri gabe, aurkakoak diren ezaugarriak batzean erakusten duen osotasuna, hain zuzen ere: birjina eta ama da aldi berean. Ez du horrelako berezitasunik lurreko emakumeak, aurkakoak diren ezaugarri horietako bakarra bereganatzen baitu: ama da soil-soilik.

Lurreko andre honek huts bat besterik ezin egin dezake, “andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite” (III, 6). Honenbestez, lurreko amorosen arteko maitasun-harreman faltsu eta traidoretan parte har dezake, bekatuzko amorearen uretan murgil daiteke. Gizonezkoa da, ordea, bekatu horren erantzule; izan ere, “gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik” (III, 2). Alegia, gomita onartzeagatik huts egingo luke, ez horrela gizonezkoa gonbidatzeagatik.

Laugarrenetik hamabigarrenera doazen koplek maitasun mundutarrean aurkezten diren egoera desberdinak adierazten dituzte. IV-XII koplek artean erakutsitako etsenpluek frogatuko dute; batetik, amorosen arteko maitasuna ez dela Zeruko Amarena bezalakoa; bestetik, gizonak direla andrea bekatu bidean jartzen dutenak⁷.

“Doktrina Kristiana”n ikuspegi panoramikoa eman eta, monografiarako bidea hartzen du. Erlijio gaien zabaltasuna utzi eta erlijio gai zehatz batera igarotzen da: Mariaren arartekotasuna eta maitasuna. Murriztuz doa ikuspegi, izaki zerutiar jakin batera biltzera arreta. “Doktrina Kristiana”n erabilitako gai desberdinetan gai errepikari izan den Andre Mariarena hautatzen du garatzeko. Gai horrekin berarekin ixten du kristau doktrina eta irekitzen hurrengo koplak, “Amorosen gaztiguia”: Andre Maria eta beronen arartekotasuna da kristau doktrinatik “Amorosen gaztiguia”rako iraganbidea.

Kopla solteak paratzeko lantegia baino gaitzagorik hartu du esku artean. Lehen bi koplek arteko lotura erlijioa gaia erabiltzeak eragindakoa baino bilatuagoa, egituratuagoa, estuagoa, zehatzagoa da. Izaki zerutiar baten laguntza eskatuz eman amaiera “Doktrina Kristiana”ri eta izaki zerutiar hori gune bihurtzen du hurrengo koplak, “Amorosen gaztiguia”n. Andre Mariari buruz lehen koplak emaniko azalpenak osatzen ditu, ararteko ez ezik, maitasun betegina eskaintzen duena baita. Maitasun betegina lurreko amorosen arteko maitasun-harremanei aurkajarriz aurkezten du eta, hala, osagai berriari egiten dio tarte: lurreko gizon-emakumeen arteko maitasuna. Gisa honetan, bigarren koplak maitasun mundutarraren gaiari irekitzen dio bidea, IV.etik-XII.erarteko koplek artean garatuko den gaiari, prezeski.

Andre Maria da lehen bi koplek arteko lokarria, baita IV- XII koplak eragiten dituen ere. Andrea da, berriz, bigarren eta hirugarren koplak kateatu ondotik, VIII, IX, X, XII koplak sorrarazten dituen.

Maitasun mundutarrean jokabide desberdinak atzematen ditu gizon-emakumeen artean. Gizona da haragizko bekaturako gomita luzatzen duena, gizona da aurea hartzen duena. Hirugarren koplak honetan azaldutako ikuspegia VIII, IX, X, XII koplek zabalduko du, andrearen ahotsa zuzenean ekartzen duenean, hain juxtu. Kopla horietan gizona da andrea gonbidatzen duena maitasun mundutarrak gozatzen. Baita honen ezezkoa jasotzen duena ere.

⁷ TOLEDO, Ana M.: “Maitasun mundutiarra Etxeparerengan: ‘baskoen gaztiguia’”, *Euskal Gramatika eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendean*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

Erretorika klasikoan baliabide ezaguna zen eta Erdi Aroko artearen teorian sustraitzen den “amplificatio” printzipioaren aplikazioaz baliatzen da⁸.

Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere;
amoretan plazzer baten mila dira dolore (II, 7-10)

dio bigarren koplari, “Amorosen gaztiguia”n. Ideia hauxe da hedatzen duena. Pentsamendu bakar eta berbera errepikatzen du zabalduz. Laugarrenetik hamabigarrenera doazen koplek zerbait erakusten badute zera da, maitasun mundutarrak dakartzan doloreak. Pentsamendu honi beste bat gehitzen dio hirugarren koplari, “Emazten fabore”n –“gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik” (III, 2)–. Aurrekoari bezala “amplificatio”aren printzipioa aplikatu eta, VIII. koplari XII.era errepikatuko du hedatuz; izan ere, koplari horietan maitasun mundutarrak gozatzeri gonbidatzen duen gizonaren eskaerari ezezkia emango die emakumeak, arrazoi sozial eta erlijiosoetan oinarrituz erantzuna.

Beraz, lehen hamabi koplak ez dira bata besteari atzetik doazen koplari solteak. Ez dute osatzen koplari solteen segida bat, elkarrekin harremanetan dagoen koplari-multzoa baino. Koplari horien arteko lotura, berriz, gisa honetan eratu du: aurreko koplari elementuren bat hartu, osatu eta hurrengo koplari baterako hazia eredu: lehen koplari, “Doktrina Kristiana”tik Andre Mariaren arartekotasunaren gaia hartu eta osatu egiten du “Amorosen gaztiguia”n Andre Mariak eskaintzen duen maitasun betegina azalduz. Azalpen hau emateko aurkakotasunaz baliatzen da: maitasun mundutarraren izaera faltsu eta traidoreari aurkajartzen dio. Horrela, IV.etik-XII. koplari erakutsiko duen maitasun mundutarraren gaiari irekitzen dio bidea. Aldi berean, Maria andrea izatea, hirugarren koplariako, “Emazten fabore”rako iraganbide du. “Emazten fabore” honetan maitasun mundutarrari harremanen eragiletzat gizonezkoa jotzeak, VIII, IX, X, XII koplarietarako hazia ereingo du. Ez dago etenik: iraganbidez iraganbide segida bat eratzen dute.

Andre Mariaren motiboa da lokarri moduan darabilena, motibo honek uztartzen baititu lehen hamabi koplari. Koplari erlijiosoak eta maitasun mundutarrak dihardutenak kateatzeko eginkizuna du: horra hor lehen hamabi koplari arteko batasun-gunea. Erdi Aroko literatura erromantzeetan maiz azaltzen den motibo batera jotzen du Etxeparek lehen lekzioa emateko, zehazki, herri-hizkuntzetan egindako literatura erlijiosoan zabalkunde handia izan zuen motibo batera.

⁸ BUCK, August et alii: *Literatura universal. Renacimiento y Barroco*, Editorial Gredos, Madrid, 1982, 109. or.

Oso bestela jokatu zuen Oihenartek *O.ten gaztaroa neurthitzetanen*. Berezi egin zituen neurtitz profanoak eta erlijiosoak. Argi eta garbi berezi ere. Neurtitz profanoen saila ixteko bide du XVII. poema, “Joana”, musen kontra idatzia. Musen arnasapean idatzitakoei amaiera jarri eta, beste nonbait jar dezake etorria. Jatorri desberdinetakoak izaki neurtitz batzuk eta besteak etena ezartzen du beren artean. Ez da horrelako hausturarik Etxeparerengan: Andre Mariaz igorri nahi duen lektzioa da koplak profanoei bidea irekitzen diena eta, gisa honetan, mundu sakratua eta mundu profanoa uztarturik azaltzen dira. Azken batez, mundu profanoko maitasunaz emandako ikasgaia mundu sakratuko maitasuna hobesteko bitarteko du. Anplifikaziorako, jakina, inolako irabazirik gabe, penak soilik eragiten dituen maitasun mundutarra hautatzen du. Etxeparek Andre Mariaren maitasun beteginaz lektzioa emateko, amorosen arteko maitasun akastunak dakartzan penak eta minak erakusten ditu.

Lektzioa emateko azalpen eta etsenpluetara jotzen du. Azalpenak hirugarren koplari utzi eta, hortik aurrera, maitasun mundutarretik ateratako zortzi etsenplu ekarriko ditu. Etsenplu horietan barrena, amorosen arteko maitasunak eragiten dituen penak eta minak erakusten ditu, harik eta etsenplu guzti horietan esperientzia ezkorrak bizi izan dituen “ni”ak etsitzen duen arte:

Andre faltaz eniz hilen balinba ni lehena;
 oroz etsi behar dizit, non baitate hobena;
 heki ezin medra naite, bai gal neure arima (XII, 53-55).

Probetxurik ez ateratzea eta arima galtzeko arriskua: horra hor maitasun mundutarrari uko egiteko arrazoiak. Maitasun mundutarrean hain esperientzia ezkorrak izan dituen “ni” horrek Andre Maria besterik ezin dezake eduki gogoan. Berez, iragarria zuen “Amorosen gaztiguia”ko lehen bertso-lerroan bertan:

Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria (II, 1).

Erdi Aroko sermoilariak legez jokatzeko bidetik hartutako etsenpluak agertuz, saihestu behar den hura azaldu jendeari. Andre Mariak eskaintzen duen maitasunari buruzko lektzio monografikoa helarazteko maitasun mundutarretik jasotako etsenpluak darabiltza, maitasun beteginera erakartzeko akastun maitasuna ezagutaraziz.

1.1. Giza bizitzatik mamitutako gaztiguia

Maitasun akastuna etsenpluetarako iturri bihurtzean, lektzioa giza baldintzatik bertatik moldatzea erabaki du: hamabi koplak hauek giza bizitzatik egindako lektzio errimatua osatzen dute. Andre Maria gogoan daukan “ni”

horrek maitasun mundutarra ezagutu duela aitortzen du: “Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore” (II, 7). Hots, lekzioa emateko hartzen duen jarrera ez da tentazioak beti gainditu dituenarena eta garaipen horren itzalean herri-bekatariari zuzentzen zaionarena. Aitzitik, elizaren doktrinaren lerrorik ortodoxoenean kokatuz, –“Kulpa gabe ehor ezta, haur da segur egia; / bekhatuiaz damnatzen du Jangoikoak mundua (II, 88-89)– gizaki bekatari legez aurkeztuz ontzen ditu bere koplak. Ez du ukatzen haragia burmuinetan eraman izana. “Ni” horrek gizakiaren ordezkari legez hitz egiten du: badaki zer gertatzen den gizakiaren barnean eta barnean gertatzen den hori, hain juxtu, kanporatu nahi du.

Andre Mariari buruzko lekzioa eratzeko azalpenak eta etsenpluak elkar-tzen ditu. Egin behar dena adieraztea azalpenetara mugatu eta egin behar ez dena darama etsenpluetara. Mundu ezagunaz, gizakiak bizi duenaz baliatuz, –maitasun mundutarra–, mundu ezezagunak, bizi eta ukitzen ez denak dituen onurak jakinarazten ditu. Giza esperientziatik ateratako etsenpluak erabiltzean, gizakiari hurbildu eta, bere barnean gertatzen denaz jakitun dela aditzera eman nahi dio. Bertutera erakartzea xede, gizakiari bere mintzairan hitz egiten dio, gizaki bezala ulertzen duen mintzairan: haragizko bekatua erakutsi, bizi eta sentitzen dena erakutsi, hain eskura sentitzen ez den Andre Mariaren maitasunaren abantailez konbentzitzeko.

Konbentzitzeko asmoarekin idazten du. Asmo hori agerian utzi zuen nola hartzailearen borondatea irabazteko egindako ahaleginean, hala logika kausalaz baliatzean.

Konbentzitzeko asmoaren menpe dago komunikazioaren hartzailea konfidantzako lagun legez hartzea. Bigarren pertsonaren erabileraren bidez hartzailea deitu eta, testura bertara darama. Irakurle-entzuleen borondatea eta arreta irabaztea bilatzen du, kontaktzen ari denaren kide emozional egitea. Tratamendu-formak (zutanozkoa, hitanozkoa), agintera... ditu hartzailearekin harremanetan jartzeko bide, helburu jakin bati erantzunez: mezura erakarri, mezua beregana dezan eta, hala, bere portaeran alda dezan. Honela, oso markatua den funtzio konatiboa helburu moralizatzailea eskuratzeko lagun-garri du.

Logika kausalak gobernatzen ditu hamabi koplak hauek. Arrazoiaren gidaritzapean paratutako koplak dira. Argudiatu, ondorioztatu, laburbildu... eragiketak ditu oinarri nola koplak ontzerakoan, hala koplak-multzoa egituratzerakoan. Laugarren koplak hamabigarrenerainoko etsenplu guztiak tesi bat argudiatzeko darabiltza: maitasun mundutarretik biltzen den uzta “probetxurik batere; / anhitz pena, arima gal” (II, 8-9) dela.

Arrazoiaren agindupean egindako koplak hitz bihurtzeko eguneroko hizkeraren ordenari lotu zitzaion. Mintzaira mintzatuko joskerari eutsiz, zan-

galatrau eta hiperbaton bortitzetatik urrutiratzen da. Hitz neurtua adierazpide izan arren, hitzen ordena mintzaira mintzatuan bezalakoa da:

Esaldia bi lerrotan edo gehiagotan barna hala luzatzen denean, hitzen ordena egunoroko hizketan bezala, prosazkoan bezala, jarriotzen da batere bortxarik gabe, hitz bakoitza dagokion lekutik atera gabe, hitz-katearen maila bakoitzak bere lekua gorderik. Hainbestearino da hori egia, non baldin erritmoa oso markatua ez badu, ez eta puntua oso aberatsa, hura entzuten duenak pentsa bailezake hitz lauuko testua entzuten ari dela⁹.

“Mitxelenak ‘hitz-andana’ izendatu zituenak oso-osorik” gordetzea¹⁰, hitzen ordena eguneroko hizketan bezala jarriotzea, ez ote lekzioa azaltzen jardutearen eskakizun? Giza portaeran eragiteko eratu duen lekzioa argudioaren gain eraikitzen bada, aukera batzuen onurez hartzailea konbentzitu nahian badabil, eguneroko hizketaren ordena gordetzea aurreko baldintzekin bat egitera dator. Nola uztartu, bestela, lekzioa ematea xede izan eta adierazteko orduan eguneroko mintzairatik urrutiratzea?

Azken finean, lehen hamabi koplak hauek Erdi Aroko sermoiaren egitura erakusten dute, zehazki, herri-sermoiarena¹¹. Herri-sermoia, bai, baina ez horregatik eragin eruditurik gabea. Herri-sermoia herri-hizkuntzaz baliatzen den neurrian; izan ere, latinaren erabilera, hizkuntza landuaren erabilera izenburura mugatu eta, herri-hizkuntza batean dihardu: euskaldun elebkarrek ulertzen duten hizkuntza bakarrean; alegia, euskaldun gehienak ulertzen duten hizkuntza bakarrean. Herri-sermoia, halaber, bere doktrina modu atseginean aurkezten duen neurrian. Hitzaz baliatuz sortutako produktuen artean lekuren bat lortzeko, hartzaileak eskura zeuzkan eskaintzekin lehia-tzeko, doktrina modu atseginean eman beharra zegoen. Etsenpluek lagundu egiten zuten doktrina erakargarriago egiten eta, ondorioz, hartzailego zabalagoa heltzeko aukera gehitzen. Are gehiago lagun zezaketen gizakiak sentitzen duen hartan oinarritutakoak izanik.

Erdi Aroko errealista eskolastikoentzat bezala unibertsalak, klaseak edo abstrakzioak eta ez zentzuek atzematen dituzten subjektu partikularrak edo zehatzak dira benetako errealitateak *Linguae Vasconum Primitia*eko koplak

⁹ ALTUNA, Patxi: “Etxepareren 450. urteurrenaren hondakinak”, PEREZ, Elixabete; ZULAIKA, Esther (Ed.): *Haizeak ez eramango!*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 2002, 85. or.

¹⁰ ALTUNA, Patxi: *Ibidem*, 86. or.

¹¹ “Dos clases principales se daban de sermones: los cultos (*divisio intra*), dirigidos a una congregación de clérigos normalmente en latín, y los populares (*divisio extra*), en romance, concebidos para una asamblea de laicos y letrados en su mayor parte” DEYERMOND, A. D.: *Historia de la literatura española. La Edad Media*, 114-115. orr.

hautan. Etsenpluetan egoera-klaseak aurkezten ditu: “Ezkonduen koplak” deritzanean, maitatutako andrea besterekin ezkonduta egon ezkerro jasaten diren penak; “Amoros secretuqui dena” izenburua daramanean, bere maitasuna deklaratzera ausartu ere egiten ez den maitaleak pairatzen dituen minak; “Amorosen partitzia”n, berriz, maitearengandik banatzeak dakarren sufrimendua, berriro elkartu arte dirauen sufrimendua; “Amoros jelosia”n beste egoera bat, maitea leial ez izateak eragindako doloreak... Egoera desberdin hauek eragindako penak adierazi dituen “ni”ak, maitasun mundutarrak gozatzea bilatuko du hurrengo kopletan, “Potaren galdatzia”n, “Amorez errekeritzia”n, “Amorosen disputa”n... zehar, baina, arrazoï sozialetan eta erlijiosoetan oinarrituz, emakumeak ez du onartuko gomita. Bortxaketaraino heltzen da “ni” hori, harik eta, azken koplari, “Amore gogorraren despita”ren amaieran etsitzen duen arte: “oroz etsi behar dize, non baitate hobena; heki ezin medra naite, bai gal neure arima” (XII, 55-56).

Etsenpluetan aurkeztutako egoerak “ni” batek bizi izandakoak dira. Haatik, “ni” hori ere, ez da subjektu partikular bat, zehatz bat: gizakumea ordezkatzeko du. Gizonezkoaren esperientzia azaleratzeko bitarteko da. Gizonak barne-barnean daramanez maitasun mundutarraren erakarmena ez du erraza gaintzea, “ni” horrek bizi izandakoak, ordea, lagun diezaiokie; izan ere, ez du eskuratu erabat asegarri izan zaion egoera bakar bat ere. Hain indartsua da maitasun mundutarrak gizonezkoarengan eragiten duen lilura, berebiziko sufrimenduetatik igarotzeaz gainera, burua galdu eta bere maitalea bortxatzera hel daitekeela: arrazoia galdu eta basati bihurtzera ailegatzeko da. Arima galtzeko arriskuak bakarrik dauka sen hori zentzatzeko ahalmena. Gizonezkoak, gizonezkoaren senaz dihardu Etxeparek eta ez banakotua dagoen gizonezko jakin baten, gizonezko partikular, zehatz baten senaz.

Gizakumea ez ezik, emakumea ere erakartzen du maitasun mundutarrak. Emakumeak, oster, erakarmen horri aurre egiteko beste indar du: norberaren eta etxekoen izen ona gordetzean eta Jainkoaren gogoko ez izatean aurkitzen du tentazioari uko egiteko kemen. Horra hor andreak ematen dituen arrazoiak gizonezkoak maitasun mundutarrak gozatzerako gonbidatzen duenean: hala dio bere ahotsa zuzenean jasotzen duten lau kopletan. Lau koplari hauen forma dramatikoak “maitasun mundutarrak gozatu” gaiak bi ikuspuntuak –gizakumearena eta emakumearena– aurrez aurre jartzeko bide du Etxeparek. Ikuspuntu desberdinak agertuko direla lau koplari horietako biren izenburuek jada iragartzen dute, –“disputa” (X) “despita” (XII)–: Erdi Aroak gogoz landu zuen genero baten izena bera darama izenburura. Dialektikak bazuen garrantzirik Erdi Aroko hezkuntza-sisteman: elkarren kontrakoak topaketatik sortuko zela egia uste zen.

Maitasun mundutarrak gozatzearen gainean bi ikuspuntu aurkajartzen dira, gizakumearena eta emakumearena. Ez dira bi subjektu partikularrek

azaldutako ikuspuntuak, generotik azaldutako iritziak baino: gizona klasearen ikuspuntua, emakumea klasearen ikuspuntuaren aurrean.

Andrea da gizonezkoa zorutzen duena. Prezezki, izen propio baten jabe izatera ere iristen ez den andrea. Dante, Petrarka edo Garcilaso de la Vega zoratuak zituzten Beatrizek, Laurak, edo Isabel Freyrek... Oihenart, berriz, Grazianak, Margaritak, Argiak, Xuriak... Etxepareengan klasea –emakumea– zena, subjektu partikular bezala atzemana zuten poesian eta, euskal poesian bertan, geroago, hala atzemango du Oihenartek berak.

“Andre eder eta jentil” (V, 1) batek ebatsi dio bihotza gizonezko honi. Ezaugarri horiek ditu maitemindua sena galtzera eraman du(t)en emakumeak: “hanbat da eder eta jentil” (V, 23); “Amore bat ukhen dizit miragarri jentilik” (VII, 3); “Zure irudi ederrak eta maina jentilak” (IX, 37); “Andre eder jentil batez hautatu zait begia” (XII, 1). Ederrak dira, halaber, Oihenarten neur-titzetako maitaleak maite dituen Argia, Xuria... eta horiek, baina, orain zehaztu egiten da edertasuna: gorputz atal desberdinen neurriak (oinak, eskuak, bularrak...), gorputzaren luzera, azalaren kolorea... Edertasunaren kanon bat dago indarrean. Kanona baldin bada ere, eder kategoria zehaztu egiten da. Azalaren koloreak, begienak, ilearenak... eta gorputz atalen neurri jakin batzuk mugatzen dute gorputz ederra. Etxepareengan ez bezala, edertasuna partikularizaturik azaltzen da.

Etxeparearen etsenpluetan ez dago subjektu partikularrik: ez “ni”a eraitkitzen da subjektu partikular moduan, ezta “ni” hau zorutzen duen andrea ere. Are gutxiago dago subjektu partikularrik etsenplu hauen aurretik doazen kopletan: “Doktrina Kristiana”n lehen pertsona pluralaren erabilerari nagusitu egiten zaio lehen pertsona singularraren erabilerari; “Amorosen gaztiguia”n edo “Emazten fabore”n ere bada lehen pertsona pluralaren erabilerarik. Abantailak besterik ez dizkio eskuratzen lehen pertsona pluralaz baliatzeak; izan ere, batetik, hartzailearengana hurbiltzeko baliabide du; bestetik, ez du inolako eragozpenik lehen pertsona singularra plural horretara biltzeko, giza-ki legez hitz egiten ari baita eta ez subjektu partikular gisa. Etxeparek ez darma bere koplelara bere esperientzia erlijiosoa edo emakumeari buruzko ikuskera berezia, baizik eta kristau doktrinak irakatsi diona edo emakumearen alde emanda zeuden argumentuak. Ez dago modu berezian bizi izandako esperientzien adierazpenik; adierazpen pertsonalik, berezitasunik, indibidualismorik¹². Ez dago “ni”a abiapuntu duen koplari, “ni”ak beti klaseren bat

¹² Honela dio J. A. Maravall-ek: “un aspecto del Renacimiento que siempre se cita, pero muchas veces sin darle la hondura que le corresponde. (...) Hablamos ahora del *individualismo*. [...] Ese individualismo va de lo religioso a lo científico, a lo económico y jurídico”. MARAVALL, José Antonio: “La época del Renacimiento”, LÓPEZ ESTRADA, Francisco (Ed.): *Historia y crítica de la literatura española. Siglos de Oro: Renacimiento*, II. liburukia, Editorial Crítica, Barcelona, 1980, 51. or.

ordezkutzen duelako: kristauak, emakumeak defendatzen dituztenak, giza-kumea, emakumea... Erdi Aroko arte klerikala du oinarri eta ez Errenazimenduko humanista.

Honela bada, Etxeparek bat egiten du Erdi Aroko literaturaren zentzu moralizatzailearekin. Etxepare elizgizonak munduan bizi den gizakiari aholku bat eman nahi dio: utzi ezazu maitasun mundutarra eta bizi zaitez Andre Mariaren maitasunean. Horretarako, sermoiaren egitura zuen lektzioa mamitu eta, sermoietan bezala, doktrina ongarri arinagoekin uztartu zuen. Sermoia logikaren legeen arabera eratu zuen, arrazoiaren agindupean paratutako hamabi koplak bidez. Arrazonamendu-modu eskolastikoak erabilitako baliabideak ditu euskarri, dela amplificatio printzipioaren aplikazioa, dela logikaren egituratik eratortzen den eztabaida, dela subjektu partikularrak gabe, klaseak atzematea...

2. LEHEN PARTEKO BIGARREN GAZTIGUA

Amorez eta amoresez diharduten koplak ostean datorren “Mosen Bernat Etxeparere kantuia”k, izenburutik bertatik kontrastatzen du, nola aurreko koplekiko, hala ondokoekiko ere. Honainoko koplak izenburuetan ez zen izen propiorik, ezta bere jarraian etorriko direnetan ere. Koplan barrena, gainera, bada beste zehaztasunen bat edo beste ere: Jaun Erregek deitu zuen Bearnora...

Alde horiek, haatik, ez dute estaltzen hamahirugarren koplak honek aurreko hamabiek duen harremana: hauetan bezala maila esperientzietik adierazten du gertaera, hauetan bezala mezura erakarri nahi du hartzailearen arreta, hauetan bezala aholkatzea du xede.

Maila esperientzietik aholkatzeko jarrera hartzen du Etxeparek lehen hamahiru kopletan, nahiz eta alde txiki bat egon badagoen: lehen hamabi kopletan “ni”a zen igorlea, orain, “Mosen Bernat”.

Hala, “Mosen Bernat Etxeparere kantuia” aitortzen moduan jo da: bere bizitzako pasarte bat kontatuko luke, nola Jaun Erregek Bearnora deitu zuen eta justiziarik egin ez zuen epai baten ondotik espetxeratu izan zen.

XIX. mendeko kritikak hamahirugarren koplak hau ez ezik, aurreko hamabiak ere aitortzen moduan jo zituen. Indarrean zegoen ikuspegi erromantikoaekin bat egin zuen: idazlana barne hustuketaren emaitza da, poetak bere barnean gorde ezin ditzakeen sentimenduen leherketa. Idazlanaren ulerkuntza honetatik eratorri zen kritika biografikoa, idazlanean agertutako “ego” lite-

rarioa “ego” biografikoaren argitan atzematen zuen kritika-modua, hain juxtu.

Baina, Etxepareren bizitza ez zen ezagutzen eta “ego” literarioaren adierazpen soila abiapuntu hartuz, “ego” biografikoa eraiki zuten. Alegia, Etxeparek utzitako dokumentu literarioari, besterik gabe, dokumentu historikoaren balioa egotzi zioten: egilearen aitortpenak jasotzen zituen *Linguae Vasconum Primitiaek*. Gerora ere ezezaguna izaten jarraitu du Etxeparek, ez baita eskuratu biografia xumeena egiteko beste dokumentu eta, dokumentu literarioak segitu du dokumentu historikoaren iturri izanaz, dokumentu literarioak, historikoak ez bezala, historia eta fikzioa nahasteko daukan lizentziari jaramon handiegirik egin gabe.

Hamahirugarren koplak hau autobiografikotzat jo da. Oso datu gutxi ematen ditu, ordea, eta berez dokumentu historikoa eraikitzeko bitarteko sendo baino gehiago espekulaziotarako bitarteko izan da: zein izan ote zen egin zuen ogena, zein espetxeratzeko arrazoia¹³, non eta noiz izan ote zen giltzapetua, zenbat denboraz luzatu ote zen aldi hori...

Biografia baterako datu-iturri baino gehiago galdera-iturri da. Ehun eta bi bertso-lerro horien jomuga ez zen biografia baterako datuak uztea; izan ere, hala nahi izanez gero, bazuen lekurik emandako xehetasunak ugaltzeko, baina bestetarako erabili du leku hori: gertaera mingarri baten berri zehatz-mehatz igortzeko baino gehiago, bere burua zurrizteko eta, batik bat, gisa honetako bidegabekeria paira dezakeenari lekzioa emateko.

Biografikoa izan eta, bere burua zurrizteko asmoz idatzia balego ere, beste xede batek darama berri hori ematera: aholkatu. Hamahirugarren koplak honek egilearen zeinahi asmori erantzunda ere, gaztigitzeko idatzi izanean justifikatzen du gertaeraren albistea adieraztea: aitzakia izan ala ez, babes moduan erabili ala ez, aholkatu nahiaren janzkerarekin aurkeztu zuen. Hots, Erdi Aroko literaturaren zentzu moralizatzailearekin bat eginaz jarraitzen du: literaturak zerbaitetarako balio behar du. Oinarri autobiografikodun lehengaia bada ere, irakaskuntzarako bitarteko bihurtzen du:

Berzen gaitzaz zenzatzia zuhurtzia handi da;
izterbegi duien oro nitan bedi gaztiga (XIII, 15-16).

Aurreko hamabi koplekin bat egiten du lehen eta bigarren pertsonen arteko komunikazioa euskarri izatean. Horietan bezala bigarren pertsonaren

¹³ “Se han hecho dos suposiciones sobre las posibles causas de la condena: motivos políticos, por inclinarse en favor de Fernando el Católico en sus aspiraciones al trono de Navarra, o bien inmoralidad de algunos de sus poemas”. ALTUNA, Francisco María: *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Mensajero, Bilbao, 1979, 17. or.

erreferentea ez da beti berdina, Jainkoa, nahiz bere burua, nahiz entzule-irakurle inplizitua izan daitekeelako erreferente hori. Baina, hamahiru kopla hauetan, –jarraian datozen bi koplekin kontrastatuz–, beti pertsonaren baten arreta erakarri edo deitu nahi du, testura bertara eramanaz pertsona hori.

Jainkoari zuzentzen zaionean edo Jainkoaz diharduenean Etxepareri darrion mundu-ikuskerak sekularizazio-prozesutik iragazi gabea da. Oso agerian uzten du giza bizitzak ez duela eratzen barruti autonomo bat: giza bizitza Jainkoaren borondatearen esku dago. Jainkoak eragin zuzena du giza ibilbidean:

Penak oro jiten dira Jeinkoaren nahitik
eta berak permititzen oro hobenagatik (XIII, 47-48).

Koplaren amaierak ere bete-betean erantzuten dio ikuspegi honi:

Jangoikua, zuk begira niri ere zuzena (XIII, 102).

Bere eskubidea zaintzeko Jainkoari eskatzen dio: giza bizitzan eragin dezakeenari, hain juxtu.

Aurreko lekzioa ere maila esperientzialetik emana zuen. Maitasun mundutarrean hain esperientzia ezkorrak izan dituen “ni”arentzat ere ikasteko bide izana zen bizi izandakoa. Horregatik, hain zuzen ere, has zezakeen “Amorosen gaztiguia”, “Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria” (II, 1), esanaz. “Ni” hori berori izan da lehen ikaslea, aholkua entzun duen lehena. Hamahirugarren kopla honetan ere “Mosen Bernat” da lehen aholku-hartzailea:

Berzen gaztigari inzan, orai adi gaztiga;
pena honez orhit eta hangoa ezak kojita (XIII, 72-73).

Beraz, aholkatzeko helburuarekin idatzitako bi lekzioetan aholku-emaile ez ezik, aholku-hartzaile ere bada. Bere burua barneratzen du aholkuan eta, hala, gizaki moduan aurkezten da, aholku-emaile – aholku-hartzaile harreman bertikala gaingaituz.

Lehen hamahiru kopla hauetan hartzaileari begira jartzen du komunikazioa Etxeparek. Jainkoa, Ama Birjina, maitea, bere burua, entzule-irakurle inplizitua... daramatza testura. Funtzio konatibo oso markatuarekin unean uneko hartzailearen arreta erakarri nahi du adierazten ari zaionarekin bat egin dezan. Guzti hori, euskaldunaren portaeran eragiteko bitarteko du.

Honela bada, zentzu moralizatzailearekin idatzita daude lehen hamahiru koplak. Gaztigua da aldagai bakarra; izan ere, batean, maitasun mundutarra Mariaren maitasunagatik ordezkatzeko aholkatzen du; bestean, bidegabekeriaren bat pairatuz gero, kontu guztia Jaungoikoari gomendatzeko ohartarazten du.

3. GAZTIGUETATIK DANTZARA

Lekzioak amaitu ostean, dantzara igaroko da Etxepare: “Kontrapas” (XIV) eta “Sautrela” rekin (XV) osatuko du obra. Bi dantzen izenak daramatzaten koplen bidez, euskara mundu idatzira jaio izana ospatuko du.

Dantzetara jotzen du, euskara idazketaren iragazitik iragazi izanak sorrarazi duen transformazioa adierazteko: herri-hizkuntzatik hizkuntza landurako jauzia. Jaio berriak eragindako ospakizuna da: euskara birjaio da. Errenazimenduak esan nahi baldin badu, lehen aldiko errautsetatik denbora berriak azaleratzen direla, giro horretan euskara zaharra estatus berrira darama Etxeparek:

Lengoajetan ohi inzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria rotan (XIV, 14-17).

Jaio berriak badu gurasorik; bata, “Garaziko herria” (XIV, 3; XV, 2), “Garaziko natura” (XV, 14) da; bestea, “haren adiskide orai Bordelen” dena (XV, 15): idazlea eta inprimatzailea dira guraso. Alegia, euskara idatziz eman duena eta idatzia argitaratu duena. Euskarak idazketaren estatusa ez eze, argitaratutako liburuarena eskuratu du. Errenazimenduko aurkikuntza den moldiztegiak aldi horretako European eragindako mirespenari batzen zaio Etxepare:

Oraidano egon bahiz
inprimitu bagerik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik (XIV, 30-34).

Idazketaren ekintzarekin batera argitara ematearena azpimarratzen da; idazketa eta liburua. Berritasuna ez dago bakarrik idatziz ipintzean, baita Errenazimenduak harrotasunez begiratzen duen moldiztegitik iragaztean ere.

Bere ekintza gogoangarriaz jabeturik zegoen Etxeparek ez zituen bere bizitzari buruzko arrasto asko utzi edo aurkitzeko zorterik ez da izan. Ezaguna den datu bakanenetakoa 1518an Eihalarreko erretore zela da. Beraz, XV. mendean jaiotakoa da Bernard Etxepare. Moldiztegiaren sorrera ere XV. mendekoa da, zehazki, erdi ingurukoa. Beraz, bere jaiotzaren bezperakoa den aurkikuntza batez baliatzera doa.

Erroak Errenazimenduan dituzten bi ekintza azpimarratzen dira bi koplauetara: idatzi eta inprimitu. Erro errenazentista du, halaber, ekintza omentsu horien subjektu izateak balioa hartzea eta, ohore, ondra eta ospe hori beren buruari aitortu nahi izana.

Paratestuan ez ezik, (liburuaren izenburuan, hitzaurrean, erregistroen laburpenean...), testuan bertan izendatu ditu ekintzok eta ekintzon subjektuak.

Ekintza ospetsua azpimarratzeaz gain, ekintzen subjektuak aipatzen dituzte koplek: bi lekutan egilea “Garaziko herria” (XIV, 3; XV, 2), “Garaziko natura” (XV, 14) eta behin inprimatzailea (XV, 14). Zinez, Garaziko herrira hedatzen du Etxeparek jauzi kualitatibo honek atxikirik daraman ohorea, baina,

Desir hura konplitu du Garaziko naturak
eta haren adiskide orai Bordelen denak (XV, 14-15)

dioenean, garazitar bakarra du gogoan: bera, noski.

Bi kopen gaia (baita hitzaurrearena ere) nobedadearen eta nobedade hori sorrarazi dutenen berri ematea da. Kodea bera dute gune bi koplek, kodeak eskuratu duen estatus berria. Horregatik nagusitzen da funtzio metalinguistikoa.

Ez dago funtzio metalinguiskoaren arrastorik aurreko kopletan. Funtzio honen presentziak / ez presentziak bereizten ditu batzuk eta besteak. Bigarren pertsonaren erreferentea kodea bera denez, funtzio konatiboa, funtzio metalinguistikoa indartzeko bitarteko bihurtzen da. Besterik zen funtzio konatiboa horren zeregina aurreko sailean: pertsona desberdinak testura erakarri eta, batik bat, pertsona horietako baten portaeran eragin: entzule-irakurlearengan. Erdi Aroko literaturaren zentzu moralizatzailearekin bat eginaz, kopen hartzaileari aholku batzuk luzatzen dizkio bere jokabideetan gogoan har ditzan.

Gutxienez bi alditan ondutako koplak lirateke. Hipotesi bezala bederen, Etxepare elizgizonak euskaraz idatzitako “liburuxka” bat zeukala defendatzea onargarria da. Herritarrek ezagutzen zuten hizkuntzan egina, giza portaerari buruzko ikasgaiak ematen zizkien herritarrei. Ondare hori esku artean zuela bere garrantziaz jabetzen da –herri-hizkuntza bat, euskara, idatziz ipinita dauka– eta garrantziaz jabetzeaz gainera, argitara emateko babeslea aurkitzen du. Bi koplak hauek liburua argitaratzeko erabakia hartu ondoren idazten ditu, orduan bakarrik uztar baitaitezke euskara idatzi izana eta berau argitaratzea.

Lafonek grafia eta hizkuntzaren erabileraz eginiko azterketak, azken bi kopletan –besteetan ez bezala– funtzio metalinguistikoa nagusitzeak, kodeari estatus berria eskuratu diotenak izendatzeak, azken bi koplak hauek liburua argitaratzera doala jakitean idatzitakoak izateak, honako ondorioari irekitzen diote bidea: *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratzen duen Etxepare, kultura errenazentistak ekarritako sentsibilitate berrian zeharo murgildurik ez egonda ere, sentsibilitate berriaz ohartzen da eta hainbat alderditan behintzat bat egi-

ten du berarekin. Argitaratzearen urrats hori emateko jada idatzita zeukan “liburuxka” batetaz baliatu zen. Erdi Aroko arte klerikalean hezitako idazle baten liburuxka zen eta ez Errenazimenduko humanista batena, baina bere garaiaren zigilua erantsiz argitaratzen du.

Adierazpen errenazentistaren garairik bereizgarrienean (1450-1550) argitaratu zuen. Gauza jakina da, berriz, aldi errenazentistari mugak jartzea zaila dela; izan ere, bere garapena ez zen eman aldi berean Europako herrialde desberdinetan: zenbait herrialdeetan XIV. mendearen lehen erdian kokatzen da aldi honen hastapena, bestetan, XV. mendearen bukaeran. Etxeparerentzat testuingururik hurbilena izan zitekeen Frantzian, adibidez,

La ruptura con la tradición medieval se consuma muy lentamente. Esta tradición es todavía muy viva en la primera mitad del siglo XVI¹⁴.

Gainera, Errenazimendua ez da heltzen urtealdi horietako adierazpen oro barneratzera: XVI. mendearen lehen hamarkadatan beraietan ez da aurkitzen Europa osoan leku bat agerkari oro berrikuntza honen ildoan kokatuta daukanik¹⁵.

Etxepareren agerkariaren lehen parteak Erdi Aroko pentsamendua du euskarri, baina bigarren parteak eguneratzeko ahaleginaren emaitza erakusten du.

¹⁴ BUCK, August et alii: *Literatura universal. Renacimiento y Barroco*, 128. or.

¹⁵ MARAVALL, José Antonio: “La época del Renacimiento”, LÓPEZ ESTRADA, Francisco (Ed.): *Historia y crítica de la literatura española. Siglo de Oro: Renacimiento*, 46. or.

ROLAND GESTA KANTETAN, ELEBERRIETAN, TEATROAN ETA ZINEAN

Patri URKIZU

ROLAND pertsonaia historikoa da, baina ezer gutxi dakigu benetan bere bizitzaz. Legendak, aldiz, kontu pila utzi dizkigu. Lehen aipamena Eginhard abadeak IX.mende hasieran ematen digu *Vita Karoli Magni*¹ deitu biografian, non beste ixtorioen artean kontatzen den ere nola euskaldunek Karlomagnoren gudaosteetan atzealdea suntsitu zuten 778. urtearen abuztuaren 15ean eta *Hruodlandus* Britainako mugetan buruzagi zena hila gertatu zen bertan:

In quo proelio Eggihardus regiae mensae praepositus, Anshelmus comes palatii et Hruodlandus Brittannici limitis praefectus cum aliis conpluribus interficiuntur.

Erdi Aroko beste pertsonaia ospetsuen moduan Roland ez da heroi guztiz garbia, enperadorearen legenda beltzak dioskunez honen eta bere ahizparen arteko intzestu harremanen fruitu bailitzateke. Baina batez ere 1100. urte inguruan idatzitako *La Chanson de Roland* poemaren asmakizuna dugu, eta nazio baten kulturarekin, eta espreski Frantziakoarenarekin lotuta dagoen heroia.

Oxford-eko Eskuzkribua deitutako poema, 1170-1180 urtetan idatzi omen zena, alegia, Bodleian liburutegian aurkitutakoa eta lau mila eta bi bertsolerro

¹ Eginhard, (c. 770-840), *Vita Caroli Magni Imperatoris*. Ed. Halphen. H. Champion, 1923, 28.or.

hamarsilabakoz osatua dena Francisque Michelek² argitaratu zuen lehen aldiz 1837an, Parisen Silvestre-ren moldiztegian bere poltsikoko diruz ordainduz, berrehun ale soilik, Ministerioaren ezetzaren ondoren. Thuoldus normandoak idatzia, omen.

Hona bertsolerro hauetan haren heriotza nola kontatzen den:

*Li coms Rodlanz se jut dessoz un pin,
 Envers Espagne en at tornet son vis.
 De plusors choses a remembrer li prist:
 De tantes terres come li ver conquist,
 De dolce France, desomes de son ling,
 De Charlemagne, son seignor, quil nodrit,
 E des Franceis dont il est si cheriz.
 Ne puet muder ne plort e ne sospirt;
 Mais sei medesme ne vult metre en oblit:
 Claimet sa colpe, si priet Dieu mercit:
 "Veire paterne, qui onques ne mentis,
 Saint Lazaron de mort ressurrexis
 E Daniël des lions guaresis,
 Guaris de mei l'aneme de toz perilz
 Por les pechiez que en ma vide fils!"*

² Francisque Michel (Lyon 1809- Paris 1887), Bordeleko Unibertsitateko irakaslea, testu zaharren argitaratzailea da batipat, hala nola: *Chronique des ducs de Normandie [Texte imprimé] / par Benoît, trouvère anglo-normand du XIIe siècle, 1836-1844*; *Collection de documents inédits sur l'histoire de France. Histoire de la guerre de Navarre en 1276 et 1277, 1857*; *Collection de documents inédits sur l'histoire de France, Gérard de Rossillon, 1856*; *Le Prince Noir : poème du héraut d'armes Chandos, 1883*; *Chanson de geste ancienne / Gérard de Rossillon ; publiée en provençal et en français, 1856*; *Théâtre français au moyen-âge...*, 1874; *La Chanson de Roland et le Roman de Roncevaux. , 1869*; *Chronique des Abbés de Saint-Ouen de Rouen, publiée pour la première fois d'après un manuscrit du XIVe s. de la Bibliothèque du Roi, 1840*; *Les Voyages merveilleux de Saint Brandan à la recherche du paradis terrestre : légende en vers du XIIe siècle, 1878*; *Recueil de farces, moralités et sermons joyeux, 1831-1898*) eta beste liburu askoren artean honakoen egilea: *Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne (1847)*, *Recherches sur le commerce pendant le Moyen Âge (1852-1854)*, *Les Écossais en France et les Français en Écosse (1862)* ; *Études de philologie comparée sur l'argot (1856)* ; *Histoire du commerce et de la navigation à Bordeaux (1867-1871)*, Édouard Fournier-ekin batera, *Histoire des hôtelleries, cabarets, hôtels garnis (1851-1854)*; eta Euskal Herriari buruz, *Le Pays Basque (1857)*, eta *Le Romancero du Pays Basque, 1859...*

*Son destre quant a Dieu en porofrit,
E de sa main sainz Gabriels l'at pris.
Dessour son braz teneit lo chief enclin:
Jointes ses mains est alez a sa fin.
Dieus li tramist son angele cherubin
E saint Michiel de la mer del peril;
Ensemble od els sainz Gabriels i vint;
L'aneme del comte portent en paredis³.*

Alegia, pinu baten pean etzan eta Espainiara begira jarriz gauza zenbaitez oroitzen hasi zela: irabazitako lurraldeez, Frantziaren eztiatz, bere leinuruko gizonez, hezi zuen Xarlemaina bere jaunaz, eta hainbeste maite zuten frantsesez. Negarra eta suspirioak eten ezinik ez zuela bere burua ahantzi nahi ere. Bere hobenez damu eta Jainkoari barkamena eskatu ziola hitzokin: “Jainko benetazkoa, hilen artetik Jundane Lazaro biztu zenuena, eta Daniel lehoietatik aske utzi, arrisku orotarik ene arima eta nire bizitzan egin ditudan bekatuetarik libra ezazu”. Jainkoari bere eskuineko eskunarrua zuzendu ziola, eta Jundane Gabrieleke onartu. Burua besogainean etzan zuela, eskuak bildu eta azken arnasa eman. Jainkoak bere aingeru kerubina Jundane Mikel Itsasperiletarikoa igorri ziola, Jundane Gabriel hurbildu zitzaizela eta elkarrekin kontearen arima paradisura eraman zutela.

Gaston Paris irakasleak komentatzen digunez bitxia da nola ez den ageri Rolanden pentsamenduetan hainbeste maite zuen Aude anderea, zeinek adierazten duen poemaren zatirik zaharrenetarikoa zela bukaera hau, eta amodio horrek ez zuela lekurik lehen poemetan. Bestalde, aingeruak zaldunaren eskunarrua hartzearen detailea XI. mendeko irudimen batentzat gauzarik goitarrena bezala har zitekeela. Eta Jundane Mikel Itsasperiletarikoa aipatzeak esan nahiko luke egileak ezagutzen zuela VIII. mendean eraikitako Britainako monastegi ospetsua.

Girart de Vienne (XII-XIII.m.), *Pèlerinage de Charlemagne à Jerusalem* (XII.m.), *Aspremont* (XIII.m.), *Entrée en Espagne* (XIII. mende bukaera), *La prise de Pampelune* (XIII-XIV.m.), eta *Chronique du pseudo-Turpin* kronikan eta beste poematan Rolanden irudia gero eta fantesiaz beteagoa ageriko zaigu.

Baina ez bakarrik Frantzia Erdi Aroan zehar Roland pertsonaia ospetsu bilakatu zen europar literatura anitzetan, eta horrela aurki daiteke Konrad der Pfaffe-k 1170. urte inguruan *Das Rolanslied* poema epikoa alemanez moldatua 9094 bertsolerro dituen, eta zeinak *Waschonier* delakoak aipatzen

³ Gaston Paris & Ernest Langlois, *Chrestomathie du moyen âge*. Hachette, Paris, 1965, 24-25.or.

dituen eta honela bukatzen den latinez: *tu autem domine, miserere nobis*. Jauna, gutaz urriki!

Karlmeinet germaniarra XIV.ean egile anonimo batek burutua, non kontatzen den Karlosek andere hil batekin izandako amodioa, eta nola apezpiku batek harrieder magiko bat atera zuen andere hilaren ahotik, eta nola bota zuen Akisgrango iturri batera, zein lekurik maitatuena bilakatu zen enperadorearentzat. Gertakizun magiko hau epistola batean Petrarca erabili zuen eta XVIII. mendean Southeyk beraren gainean erromantze bat moldatu⁴.

Bada ere *Xarlemainaren Saga* bat XIII. mendean Noruegako Haakon IV erregeak moldarazi zuena, Frantzia ohi zirenen eran konposatua, non aipatzen den Karlosek bere ahizparekiko izandako intzestu harremana, zeinetarik jaioko zen Roland, eta zazpigarren kapituluan Xarlemainaren batailak Espainia eta Orreagan.

Hala nola ingeles zaharrean idatzi poema bat XIV. mende bukaeran, *Roland and Vernagu* deituan, besteak beste, non irakur daitekeen honako bertsoa:

*For onour of Rouland
Donked God, old & Song,
& Sede a procesioun
Wiþ croice & gomfaynoun
& salue miri song⁵.*

Esan dugunez eta jakina denez, Rolanden inguruko ixtorioak literaturan oso hedatu ziren bai epikan, bai nobelan, bai eta teatroan. Heroi miresgarri izatetik poliki-poliki pertsonaia herriko batean bilakatzen bide da eta Italian jada Dantek *Divina Commedia*-n aipatzen dizkigu osaba-ilobak:

*Dopo la dolorosa rotta, quand
Carlo Magno perdè la santa gesta,
Non sonò sì terribilmente Orlando. (Inferno, canto XXXI, V, 16.)*

Geroago XV. mendean 1460-70 urte inguruan Luigi Pulci-k *Il morgante maggiore* poema irrigarrian ageri zaigu, bertso hauetan:

206. bertsoa	<i>E po distese, ridendo, la mana E rendigli la spada Durlindana.</i>
...	
220. bertsoa	<i>Uno Dio, uno Orlando e una Roma.</i>

⁴ Elisabeth Frenzel, *Diccionario de Argumentos de la Literatura Universal*. Gredos, Madrid 1976, 79. or.

⁵ *The Auchileck Manuscript*, ff. 261-262, Athin stub. The National Library of Scotland.

Obra honek edizio ugari izan zituen eta Italiako plazetan komediagileek eta saltinbankiek errezitatzen zituzten bertako zati handiak. Geroago Boiardok *Orlando innamorato* (1494) plazaratu zuen. Hemen Orlando monstroekin eta genio gaiztoekin borrokan ageri zaigu. Baina bere arima sinpleak, kastitateak eta ezjakintasunak amodio kontuetan Anjelikaren eskuetan jostailu bide bilakatuko du, honen edertasun zerutiarrak barne hotz eta kalkuluz betea estaltzen baitu. Eta idazle ospetsuenetarikoa den Ariostok *Orlando furioso* (1532) moldatu zuen, non amodioak zoratu egiten duen heroia. Orlando Anjelikaz maitemindua eta ondorioz zoraturia eredu unibertsala bilakatzen da, bere gizatasunaz deusik galdu gabe. Honetan oinarritu ziren Siziliako txontxongiloak ere.

Ikonografia aldetik arrakasta handia izan zuen eta modan jarri ziren zaldunen arteko borroka, amodio kortesaren jokoak, dekoratu irudimenez jantziak, eta oihan lilurez beteak. Besteen artean hor daude Jacopo Berthoulet eta Girolamo Minardo margolarien *Fleurdelys, Roland, Roger eta Brandimart oihan liluratuan* (1569-1570) koadro famatua; Battista Dossena *Roland eta Rodomonte dueloa* (1527-30); Jean Bouchard-en *Roland amodioak zoraturik* (1650-52); Arold Böcklin-en *Roland haserre* 1885an, hala nola Albeto Savinioren *Zalduna iturrian*, Ariostoren omenaldi gisa, 1949an burutuak.

Frantzia 1640an Mairet-ek *Roland* tragedia eman zuen. Lully-k Quinault-en libretoz beste opera sortu 1689an, non alferrik Anjelikaz maitemindua ageri zen, honek Medorri hobesten baitzion. Roland gisa jokatu zuen berrogei urtez jarraian Thévenard kantari ospetsuak eta honen parodia asmatu zuten Panard eta Sticotty-k Pariseko Antzoki italiarretan 1744ean. Eta XIX. mendean Mermet operagileak *Roland à Roncesvaux*, lau ekitalditan idatzi zuen (Paris, 1864), zeinak halaber beste bertsio satirikoa izan zuen *Les Buffes Parisiennes* antzokian jokatu zena.

Espainiako literaturan XIV. mendean Iruñeako katedralean aurkitu zen 43 bertsolerroko poema, zeini *Cantar de Roncesvalles*, deitu zaion⁶, eta non Karlomagno Rolanden heriotza deitoratzen duen. *Estoria de Bernaldo* jasotzen zuten kroniketan eta erromantzeetan bildu zen Roldanen istorioa, non heroi frantsesari beste bat gaztelarra kontrajartzen zen. Ospetsua da, adibidez, erromantze anonimo hura Cervantesek *Don Quijote*-ren bigarren partean jasotzen duena eta honela hasten dena:

⁶ Ramón Menéndez Pidal, “Roncesvalles”, un Cantar de gesta del siglo XIII”, *Revista de Filología Española*, Madrid 1917, 105-204. or.

*Mala la hubisteis, franceses,
La caza de Roncesvalles,
Don Carlos perdió la honra,
Murieron los doces Pares...*

Gaiaren inguruan sortu eleberri eta erromantzeak izan ziren Urrezko Aroko teatroaren iturburu. Hala Lope de Vegak *La Mocedad de Roldán*, *Las mocedades de Bernardo del Carpio* eta beste hamaika antzeztarazi zituen gaiaren inguruan, Calderón de la Barca-k *La puente de Mantible*, Francisco Bances Candamo-k *Orlando furioso*, Lope de Llano-k *Bernardo del Carpio en Francia*, Cubilo de Aragón delakoak 1654ean *El Conde de Saldaña* izenaz, Bernardo de Valbuenak 1674ean *Bernardo o la victoria de Roncesvalles*, antzerkigile anonimo batek *La Batalla de Roncesvalles*, eta beste asko burutu zituzten eta jokarazi.

Badirudi fama Errusiaraino ere iritsi zela edota Siberiaraino, non 1831an honako balada aurkitu zuen bidaiari aleman batek:

*Chudo, chudo, o frantsusi,
V'Ronzevalie bilo vam!
Karl Veliki tam lishilsa
Luchig ritsarei avaig⁷.*

Bestalde, XV. mendean, eta justuki 1478. urtean Genèven argitaratu zen, Adam Steinschaber-en moldiztegian *La conquête du grant roy Charlemagne des Espaignes. Et les vaillances des douze pers de France. Et aussi de Fierabras*, nobelatxoa⁸, ixtorioa hitz lauz, zeinek izugarritzko arrakasta lortuko zuen.

Xarlemaiereren konkistak kontatzen dituen eta Jean Bagnyon-ek XV. mende bukaeran idatzitako nobela honek hiru parte ditu. Lehenbizikoa (13 kapitulu) Vincent de Beauvais-en *Speculum Historiale*⁹ delakotik aterata dago.

⁷ Pierre Narbaitz, *Orria ou La bataille de Roncevaux (778)*. Zabal, Bayonne 1978, 145. or.

⁸ Hans-Erich Keller (ed.), *Jehan Bagnyon, L'Histoire de Charlemagne (parfois dite Roman de Fierabras)*. Droz, Genève, 1992.

Alfred Morinek bere *Catalogue Descriptif de la Bibliothèque Bleue de Troyes (Almanachs exclus)*. Droz, Genève 1974, 1705ean hasita bederatzit edizioen berri ematen digu. Hona baimena C. Malleman-ena eta 1705ekoa duenaren titulua osorik:

LA CONQUESTE / DU GRAND / CHARLEMAGNE / ROY DE FRANCE. / & d'Espagne. / Avec les faits, & gestes des douze pairs de France / & du grand Fierabras, & le Combat fait par / lui contre le petit Olivier qui le vainquit. / Et des trois Frères qui firent les neuf épées, / dont Fiérabras en avoit trois pour combattre / contre ses ennemis, comme verrez ci après. / (Bois 55x78: femmes attaquées) / A TROYES, / Chez JACQUES OUDOT, Imprimeur & / Marchand Libraire, rue du Temple, / Avec Approbation & permission.

⁹ Vincent de Beauvais (+ 1264), *Speculum Historiale, Bibliotheca Mundi*-ko IV. tomoa. XV. mendean frantseratu zuen Jean de Vignay-k.

Bigarrena (49 kapitulu) *Fierabras*¹⁰ poema frantsesaren prosazko moldaketa da. Eta hirugarrena (21 kapitulu) *Chronique de Turpin*¹¹ deritzan ixtoriotik hartua da.

Fierabras gesta kanta Karlomagnoaren ixtoriak kontatzen dutenen sailekoa da, eta frantses zaharreen 6200 bertso hamabisilabadun baino gehiago baditu, pertsonaiak izan zuen ere eleberrri bat okzitaneraz XIII. mendean, eskuzkribu bezala iraun zuena XIX. mendean plazaratua izan zen arte, beste askori gertatu zitzaizen bezala.

George Hérrelle-k euskal pastoralen eskuzkribuez eginiko katalogoan¹² *Roland ou Les douze paires de France* bezala izendatzen duen obraren zazpi eskuzkribuz mintzo zaigu. Hiru Pariseko Liburutegi Nazionalean daude, bat Bordeleko Herri Liburutegian, eta beste bat Jean Héguiaphalena da, eta hiru Larriue Doktore jaunarenak. Batzuek XVIII. mende bukaerakoak eta besteak XIX. mendekoak. Aipatzen digu ere nola Alozen 1796an apirilaren 4ean Iraultza garaian antzeztu zen bat.

Hauetako batean gainera, antzerkiari *misterio*¹³ deitzen zaio, hain zuzen.

Jean Saroïhandy irakasleak burutu zuen frantsesez ikerketa interesgarri bat prestatu edizioan zenbait eskuzkribu ezberdin erabiliz¹⁴. Bata Héguiaphalena, bestea Pariseko Liburutegi Nazionalean 138 zenbakiduna, hirugarrena Larriue doktorearena, zeina 1811ko urrilaren 27an antzeztu zen Onizepian, eta laugarrena Bordeleko Liburutegikoa. Tamalez ez zuen eskuzkribu osoa argitaratu baizik eta eskuzkribu ezberdinak erabiliz 343 bertsoke testu fiktizio bat.

Hala bada, guk hemen Saroïhandyren ustez eskuzkribu zaharrenaren, alegia, Pierre d'Arhex¹⁵ larrañetar zapataginak XVIII. mende bukaeraldean

¹⁰ *Fierabras*. Lyon, P. Maréchal & B. Chaussad, Lyon 1497.

¹¹ *Chronique de Turpin* delakoa edo *De vita et gestis Caroli magni*, testu faltsu bat da Reims-eko artzapezpikua omen zen Turpin delako batek idatzia 800. urte inguruan, eta gesta kanten iturburu izango zena. Baina bilduma nahasi bat besterik ez da, hasieran latinez idatzia XI. mendean eta geroago, XII. mendean beste fraide batek frantseseratu.

¹² George Hérrelle, *Catalogue sommaire des toutes les pastorales connus à ce jour*. H. Champion, Paris, 1922.

¹³ *Misterio admirableriq / representatu ukhen dugu*. BNP, FCB, MS n° 138, 1029. b.

¹⁴ Jean Saroïhandy (ed.), *La pastorale de Roland. Texte basque établi à l'aide de plusieurs manuscrits. Avant Propos. Traduction Française- Commentaire*. Bayonne, Imprimerie de Courrier, 1927.

¹⁵ Bada beste Bernard Arhex bat XIX. mende erdikoa.

idatzi eta 1324 zituen eta egun 1047 bertso gelditzen zaizkion antzerkiaren gainean gogoeta batzuek plazaratuko ditugu.

Kontatzen da, beraz, nola Xarlemaina Iruñeatik igaraitekoan Zaragozako errege moroaren kontra borrokatzera bertako murruak suntsitu zituen, eta nola Zaragoza setiatu ondoren ezin harturik itzuli beharrean aurkitu zen, eta Pirineoak igaraiterakoan moroek eta euskaldunek bat harturik haren armada desegin zuten bertako triskantzian Roldan hil zelarik.

Esan bezala Bagnyon-ek egin ohi bezala burutu zuen Pierre D'Arhex errejentak XVIII. mendean, Ferragut eta Rolanden arteko borrokari hala nola gristino eta Türken arteko batailei garrantzi handia emanez.

Turpinen Kronikan Ganelon traidorea lau zalditara atxikia eta lotua laurdenkaturik izanen da Pastoralan bezalaxe. Baina bitxia da ikustea nola Kronikan esaldi bat soilik dena bertso mordoska bilakatzen diren.

Bitxia da ere ikustea nola Rolan heriotzaz zauriturik egarri den. Bere anaia Balduenari edateko eskatzen dio ur bila joan dadin, eta aurkitzen ez duenez edatekorik, kontutan hartuta Durandarte ezpatak birtute handiak dituela, harkaitza gainean kolpea ematen duela eta honi ura jariko diola.

Hauxe da, hain zuzen, maiz ageri den iduria, zein gertakizunaren beste gertaerekin batera pintaturik dagoen Chartreseko katedraleko beirategian, eta zeina XIII. mendeko hasierakoa den.

Jean-François Cerquand-ek bildu euskal ipuin eta leienda artean bada bat gertakizun miresgarri hau oroitzen duena ere, eta Katalunia aldean ere Gironako eliz-barrutian kontserbatzen dena. Urtarrilaren 28an ospatzen zen, San Xarlemainaren Ofizioak, honela zioen:

*Ergo rupem ferro fode,
Fontem vivum nobis prode,
Ora prece pia Deum
Eta fac pium nobis eum*¹⁶.

Hona nola jaso zuen Cerquandek leienda hau XIX.mendean, eta nola ematen duen Anuntxi Aranek grafia egokituz:

... Egün batez etsaiak erramü adar bedera eskietan presentatzen düütüzü bakearen egitera, eta bakea eginik, Charlemagna bere kartielat heltü züzün; batere phentsatü gabe etsaiak jiten zietzü gaina eta sei mila gizon ehaiten diezü. Ordian Arrolanek hartzen dizü

¹⁶ Sébastien Ciampi (ed.), *Chronique de Turpin*. Florence, 1822, 97. or.

Charlemagnak eman ezpata, eta belhar epaile batek belharra muzten dian bezala, egoizten zitizün gizonak, eta etsaiak, oro ehaiten ditizü. Bena hanbeste züzün akhitü, nun egarriak failitürrik, zühain baten pean beitzaguan ezin bestean. Charlemagna heltzen ziozü eta, ikhusirik haren egarria erraiten diozü:

Ez dakika hire ezpatak badiela pothere hanitz? Sar zak harpe abortan eta jalkhiren zaik hur harrokatik.

Arrolanek sartzen dizü ezpata ondoala artino harpen, eta elkhiten ziozü ezpataren zilotik üthürri abundant eta fresko bat. Bena bere egarri handian hur hotz hartarik sobera esan zizün eta han berean lehertü züzün.

Egün ere orano üthürri hura deithürrik düzü Arrolanen üthürria¹⁷.

Kontua da Turpinen kronika edota Orreagako leienda Jundane Jakoberen bide osoan kontatzen zela, Vincent de Beauvais-ek erabili zuela bere *Speculum*-ean XIII. mendean eta gero Jean Bagnyon-ek bermoldatu zuela, honen *Conquêtes...* delakoek izugarritzko arrakasta lortu zutelarik XV eta XVI. mendeetan, eta gero kolporterrek, liburu saltzaileek zabaldurik *Bibliothèque Bleue* delakoaren maiteenetakoa gertatu zela.

Saroihandyren ustez pastorgileak erabili zuen eredu edo begibistako liburua bere moldaketa egiterakoan, gaztelaniaz Nicolás de Piamonte, hau badirudi seudonimoa dela, delakoak frantsesetik itzulitakoa izan zen. Liburu hau maiz argitaratu zen (Sevilla, 1528; Barcelona, 1612; Madrid, 1657...; Iruña 1758; Valladolid, 1765...) eta zenbait detaileren arabera garbi dago Saroihandyren ustea.

Adibidez, *Oliveros* ageri da eta ez *Olivier*, *Zaragoza* ageri da eta ez frantsesezko ale guztiek dakarten *Cesarie*, *Baland* ez da ageri *amiral* gisa baizik *Larmirant* (< *almirante*, gazt.) baizik, etabar.

Bestalde, pastoralan Xarlemainak eta Ganelonek kartetan jokatzeko dute, gaztelaniazko *Historia...*-n bezala, eta hau ez da inolaz ere frantses bertsiotan agertzen.

Ikus dezagun adibide bat. Alegia, konpara dezagun Rolanek eta Ferragus jigateak egiten duten borroka frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz:

¹⁷ Anuntzi Arana (ed.), *Jean François Cerquand, Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak. Basajauna, laminak, Tartaroa...* Txertoa, Donostia, 2. T., 1986, 87. or.

...Rolan se vint seoir au près de luy et luy dist: "Je suis tout esbahis de ton fait, comme tu es tant fort et sy terrible qu'on ne te peult blesser ne faire grief au corps ne pour espee ne pour baston ne pour pierres ne aultrement." Le jayant, qui parloit espanil, luy dist: "Je ne puis estre occis sy non par le umbril."¹⁸

Y Roldán se assentó cabe él y le dixo:

Mucho estoy maravillado, Ferragús, de tus grandes fuerças y cómo puedes comportar el peso de tus armas.

Y Ferragús le dixo:

Sepas que tengo la fuerça de quarenta hombres y allende de desso, no puedo morir de ferida sino por el ombligo¹⁹.

ROLAN

58 *Espantagarri zitadak hire handitarzūna
Eta espantagarriago orano armen sorhartarzūna.*

FERRAGUS

59 *Jakin ezak badiüdala berrogei gizunen indarra,
Eta enizala ihuren lotsa khunbatiala jalkhitera.*

60 *Eztük posible hatzaman nadin abilitatez baizi,
Ez eta kolpüz hil nadin sabeletik baizi²⁰.*

Eta beste bat gaztelaniaz eta euskaraz:

- Señor Dios, mi criador y redemptor, hijo de la gloriosa María de Consolación, tú sabes lo que yo he hecho y pensado [...]

- ¡O, espada de gran valor, la mejor que fue forjada!, gran esfuerço me davas siempre que te mirava, muchos arneses he despedaçado y muchos yelmos cortado, contigo he muerto grande número de paganos. [...]

Tomo el cuerno por fazer señal algún christiano si en el monte se

¹⁸ Jehan Bagnyon, *L'Histoire de Charlemagne (parfois dite Roman de Fierabras)*. Publiée par Hans-Erich Keler. Droz, Genève, 1992, 195-196. or.

¹⁹ Nicolás de Piamonte (tr.), *Historia de Carlomagno...* Sevilla, 1528. Ed. Nieves Baranda, op. cit., T. II, 601. or.

²⁰ Roland, 58-60b.

oviesse escondido y taño dos vezes [...]

Y llegó aquella boz a oídos de Carlo Magno, que estava dos leguas de aquel lugar, y estava jugando con Ganalón. Y conosció que era Roldán el que tañía, y Ganalón le dixo:

Señor, Roldán ha ido de caça y avrá muerto algún osso o puerco, y de plazer tañó su cuerno, que así lo suele fazer.

Y Carlo Magno creyó que sería así y se estuvo jugando²¹.

Zein pastoralan honela ageri den:

Bataila. Marzerius eror hilik. Thiro. Rolan khordokatzez eror. Sonü. Xarlemaine eta Ganelon jokian has.

ROLAN

948 Eskerrak nahi deritzüt
Ene Jinkua eman,
Zeren kofesatü nizan,
Igaran astian.

949 O ene Jinko Jauna,
Eta salbazalia
Birjina ganik sorthü zira,
O ene kontsolia,

950 Zure begi pietatusez
So egin izadazü,
Uhuin hunari bezala,
Othoi erran ezadazü.

f.55

Trunpeta eragin eta pot egin ezpatari

951 O ezpata baliusa,
Hire parerik eztük,
Hanitx arnes azkar,
Hik trenkatü duk.

952 Infidelen odolak,
Hik iradoki dütük,
Etsaiak hanitxetan
Suspreni erazi dütük.

²¹ Nicolas de Piamonte, op. cit., T. II, 610. or.

- 953 Helas, ene Jinko huna,
Ederra eta emia,
Othoi, eman ezadazü
Egun zure argia.

Berriz trunpeta eragin.

XARLEMAINA

- 954 Helas, ene Jinkua,
Zer berri othe dügü?
Rolanek trunpeta
Tristeki sonatu du.

GANELON

- 955 Gaiza segürra sira,
Ihizera jua direla
Eta zunbait ihize arraro,
Hatzaman ahal diela.
- 956 Basurde edo
Orein zunbait hatzaman die,
Gero boztarioz,
Trunpeta eragin die.
- 957 Dügün kuntinua sira,
Plazer badüzü jokia.
Ingoiti trunpetatzez,
Huna heltzen dira.

Jokha berriz. Sonü.

XARLEMAINA

- 958 Jokü gaizto deritaka,
Ganelon, egiten,
Kokiek baizik ez tie
Sekula arrafusatzen.
- 959 Hireki orai haboro,
Eruk jokhaturen,
Nun eta berri hunik
Eztudan jakiten.

GANELON

960 Trankilisa zite, sira,
Ni berme jarten nüzü,
Rolanen trunpetotsak oro,
Alagrantiatako dütüzü.

Nabarmen denez badirudi Saroihandyren hipotesiak arrazoi duela, eta Pierre d'Arhexek bistaurrean izan zuen liburutxoa gaztelaniazkoa izan zela, zein ez den batere harritzekoa Iruñea gertuago zuenez Akitaniako Tolosa baino.

Roland ospetsua izan zen Frantzia osoan, breizeraz antzerkiratu zen ere eta okzitaneraz *Rencesvals* deitu poema sortu. Halaber Castet herrian 1883an antzeztu zen gaiari buruzko antzerkia.

Euskarazko bertsioan ageri diren satanak, Satan, Jupiter eta Aztarot, ikusleak irrierazteko ezarriak dira, batipat. Noski, gaiztoei aholku gaiztoak ematen dizkiete eta kritikoak zioen bezala satan baino *sautants* dirudite, hots, saltalariak.

Pertsonaiak honela daude banatuak:

Khiristiak : Xarlemaina, Reiner, Patriarka, Rolan, Oliberos, Oger, Beranger, Gideburgoina, Balduena, Ganelon, Nemas, Ebarista, Gerin, Tierri, Rixart.

Türkak : Larmirant, Fierrabras, Floripa, Klarion, Brutto, Ferragus, Sortibrán, Galafra, Margariz.

Satanak : Satan, Jupiter, Aztarot.

Hizkerari dagokionez Saroihandyk aztertu zituen eskuzkribu ezberdinetako grafiak, hala nola, besteak beste, maileguok.

Adibidez latinetikakook: *desertu, ifernu, mendekatu, mirakuilu, mundu, populu, sakratu, saintu, sekula...*

Gaztelaniatikoak: *artificio, açote, campo, degoilla, desditcha, despedi, dozepare, emperadore, justo, leqhaio, martirio, misterio, moro, pagano, palacio, phegna, pilar, traidore, tropa, verde...* Gure partetik, bertsoaren zenbakia duten beste hauek ere topatu ditugu: *arre burra* (MS 138, b.250), *buska* (< *mosca* b. 153), *ladron* (b-65), *trunko* (b.1017), *truzatu* (b.732)...

Frantsetik hartuak: *bataila* (antzezoharra turken eta gristinoen arteko gudak adierazteko), *duz* (< *douce*, b. 112), *espiagle* (< *espiègle* < *Eulenspiegel* al., 'bitxi' b.13), *esseia, fizela* (b. 1016), *flateria* (< *flatterie* b. 364), *jenatu* (< *gener* b. 435), *jigot* (< *gigot* b.656), *larde* (b.878), *letera* [*har*] (*antzezoharra*), *par la sacre blu* (*bleu*-tik, eta hau *Dieu*-ren ordezkio

eufemismoa), *pillatu* (< piller b.154), *plenta, sone* (antzezoharra musika sarrarazteko), *txerka* (biarneraren *cerca* eta frantsesaren *chercher*-en gurutzatzetik sortua), *ziflet* (< giflet, b. 103,)...

Biarneratik: *butiga* (b.304), *deskarati* (< deskarat b.268), *ephantxu* (b.466), *eskerniatu* (b.222), *kohat* (b.356), *pihu*, ...

Hitz berezien artean hor dugu *mairasa* (b.905), mairu anderea adierazteko

Izen propioei dagokionez ageri dira parekatuak adibidez *Orriaga* (b.906) / *Roncesvaille* (b.872), *Rol(l)an* (b. 7...) 46 aldiz ageri da eta *Arrolan* (b.946) behin bakarrik. *Durandala* da ezpataren izena (b.371..). Badira ere zenbait, astolasterretakoak lirakeenak eta erantsi direnak ixtorioan hala nola *Peirotina* (b.27), *P(e)irot* (b. 296), *Rekokilot* (231), *Arieder* (b.234), eta beste.

Azken finean honako ondorioetara iristen da Saroïhandy:

La langue, tout en conservant beaucoup d'archaïsmes, n'a pas laissé de se moderniser et souvent les formes les plus anciennes sont employées à côté des formes les plus récentes. Ce qui montre que le travail d'adaptation ne s'est fait que d'une façon très lente et qu'il est loin d'être complètement achevé. Qui pourrait dire sur combien d'années il a pu s'écheloner? Personne, croyons-nous, ne songerait s'étonner si le hasard permettait d'établir que *la pastorale Roland* est l'une des plus anciennes du répertoire basque et qu'elle a été composée dans la première moitié du XVIe siècle²².

Euskal antzertiaren etorkia dela eta hemen nire iritzi kontrajarria nahi nuke adierazi Baionan 2004eko azaroaren 18an eta 19an *XVIII. mendea Euskal Herrian letretan eta historian* gaitzat harturik izan ziren Jardunaldietan Beñat Oyharçabal eta Jose Maria Lasagabazter ikerle eta irakasleak aurkeztu zituzten iritziekin. Honakoxea dio Oyharçabalek²³:

La tragédie Sainte Elisabeth de Portugal que nous avons brièvement présentée à partir du manuscrit de 1750 est bien la pièce du répertoire des tragédies populaires traditionnelles la plus ancienne quit soit parvenue jusqu'à nous.

Ez gaude konforme egiten duen grafien interpretazioarekin, <k>-ri dagokionez, hain zuzen, gure irudiko zaharragoak baitira *Jundane Jakobe*

²² Aip. lib., 21. or.

²³ Beñat Oyharçabal, "Place de Saint Elisabeth de Portugal (1750) dans l'histoire des tragédies traditionnelles en langue basque", LAPURDUM IX, Bayonne 2005, 210. or.

Handiaren Tragedia-n ageri zaizkigunak, hala nola *Jan de Parise*-koak. Hala 1634ko data *Jakoberentzat Hérelle*-k eta Omont-ek onartua zuzena dela uste dugu, eta bai kasu honetan bai eta Oiharçabalek ikertzen duen *Santa Elisabethe*-ren kasuan, eskuzkribuetan ageri diren datak beste kopia zaharrago batenak lirakeke, noski, azken honenak garbi baitago aperitifak eta beste gastuen berri ematen duen bigarren folioak dioenez, *1er aout 1834... 1350, 1er aout 1835... 100...*, hala nola grafiak eta hizkera aztertuz ere XIX. mende hasierakoa dela.

Beraz, gure aldetik esango genuke Pierre d'Arhex larraintarraren *Jan de Paris* eskuzkribua izan daitekeela, agian, antzerki testurik zaharrena (ez bada *Jundane Jakobe*²⁴, *Espilaren Ester*²⁵, edo besteren bat) eta beste zenbait bezala (*Jean de Calais, Les Quatre fils Aymon, Roland...*) eleberrietarik antzerki modura egokituak. Eta eskuzkribu zaharrenaren data zehatzarik ematekotan, beste daturik ezean, 1760koa beharko genukeela eman, hots, Oiharçabalek proposatzen duena baino hamar urte beranduagokoa.

Bestalde Lasagabazter²⁶ irakasleak honela argudiatzen du:

Si no hay constancia ninguna de que Gabonetako ikuskizuna se hubiera representado, ni siquiera en Mondragón, de donde era escribano Pedro Ignacio de Barrutia, y si la hay en cambio de la representación de las piezas teatrales de Peñaforida, se puede decir en buena lógica que el teatro vasco sube por primera vez a los escenarios de la mano del Conde.

[...]La única vida estrictamente literaria en el XVIII vasco es la que se desarrolla a través de los Amigos del País, en la Real Sociedad Bascongada y en el Real Seminario de Vergara, y de la que Xavier María de Munibe, Conde de Peñaforida, es inspirador y protagonista principal a un tiempo.

Badirudi Lasagabazterrek ez duela irakurri duela zenbait urte argitaratu nituen XVIII mendeko astolasterrak²⁷, hala nola beste eskuzkribuak zeinetarik jada hamar ikertu eta editatu ditudan (UNED, 2007) hauek argi eta garbi adierazten baitigute bazela Azkoitiko zalduntxoek 1765 inguruan biziartzten

²⁴ Patri Urkizu (ed.), *Jundane Jakone Handiaren tragedia*. Errenteriako Udala, 1996.

²⁵ Patri Urkizu, "XVIII. Mendean Jean Espilek zubereraz moldatu Jean Racineren *Esther*", LAPURDUM IX, Bayonne 2005, 311-321. or.

²⁶ Jesús María Lasagabazter, *La Ilustración en la vida literaria vasca del siglo XVIII*. LAPURDUM IX, Bayonne 2005, 155-157. or.

²⁷ Patri Urkizu, *Zuberoako Irri-Teatroa. Recueil des farces charivariques basques. Préface de Jean Baptiste Orpustan*. Izpegi, Baigorri, 1998.

hasi ziren, baina bizitza laburra izan zuena baino antzerti bizitza zaharrago bat²⁸.

Rolandek Zuberoan izan zituen antzezte emanaldiekin artean honako zerrenda bederen osa dezakegu Hérellek eman albisteen arabera: 1796 Aloze; 1811 Omizepia Jean Mecol errejentaren zuzendaritzapean; 1849 Guabat; 1872 Liki; 1883 Muskildi; 1887 Arrokiaga...

* * *

XIX. mendean ossianismoaren eraginez ez da harrigarri gertatzen, Euskal Herrian bi kazetari saltsa-maltsari handik, Eugène-François Garay de Monglavek eta Agosti Chahok bere hondar alea erromantizismoa sortu pizkunde berrian ezarri nahi izatea.

Garay de Monglave (1796-1873) Baionan jaioa, Parisera joan zen bere ikasketak egitera eta hemen poeta eta nobelista batekin ezkondu zen, Julie-Delphine-Octavie De Casso-rekin. Bere biografia eta historia lanak pila dira eta denak aipatzea luzexko joko bailiguke hemen, hona batzu: *Histoire de*

²⁸ Euskal Herrian izandako antzezemanaldien artean honako zerrenda osa dezakegu bederen. Noski, ez ziren falta Errege-erreginen Gorteetan, ez gaztelaniaz ez eta frantsesez burutu antzerkiak, besteak beste honako hauek:

1498, Juan Albretekoa eta Katalina Foix-ekoaren koroatze bestetan egin komediak Iruñean.

1530, Komediak, fartsak eta beste Eleonora erreginaren Baionaratzean.

c. 1565, Jean Etchegaray, *Arzain gorria*, Donibane Garazi.

1565, Trissino / Melin de Saint Gelais, *Sofonisba*. Baiona.

1566, Diego de San Pedro, *Passion de Nuestro señor Jesucristo*, Lesaka.

1568, Anónimo, *Autos sacramentales por la cofradía del Sto Sacramento de la Iglesia de San Vicente* de San Sebastián.

c.1580, Joanes Larrumbide, *Abraham, Job, Judith, La Josefina*, etc., Oiartzun.

1599, Anonimo, *La conversión y penitencia de la Magdalena*. Erreenteria.

1600, Anonimo, *Vida y loas de San Juan*. Erreenteria.

1602, Anónimo, *La Pasión y remembranza de Nuestro Señor Jesucristo*, Hondarribia.

1643, Martín Ochoa de Capanaga, *Danzas, comedias y autos sacramentales del Corpus Christi*. Durango.

1660, Pierre Corneille, *El Mentiroso (Le menteur)* ... eta beste komediak Donibane Lohitzunen.

Eta debekuen artean hona batzuk:

1695, Zuberoako erregelamendua, *on ne fera plus de ccharibaris et cours d'ânes...*

1753, Jean Revol, *Nous déclarons que nous priverons de grâces de L'Église les paroisses où on aura fait de charivaris, cours d'ânes, masquerades, pastorales et autre tumultes.*

1765, Carlos III, *Prohibición de representar Autos Sacramentales*

...

L'Espagne (1825), *Histoire du Mexique* (1825), *Conspiration des Jésuites en France* (1825) eta *Histoire de Turquie* (1826). Eta eleberrien artean aipa ditza-kegu ere: *Mon Parrain Nicolas* (1823), eta *Octavie, ou la Maîtresse d'un prince* (1825)...

Pariseko *Journal de L'Institut Historique* delakoan 1835ean argitaratu zuen *Altabizkarrako Kantua* edo *Chant d'Altabiscar* edo akats eta guzti egi-leak idatzi zuen bezala *Altabiçar*²⁹. Roland hilik gertatu zen Orreagako bataila famatuaz ari zen. Kanta aurkezten zuen artikuluan lehenik euskaldunetz mintzo zen, hauen hizkuntzaz eta erabiltzen zituzten abestiez. *Altabiçar* delako kantaren kopia Garat kontearen etxean aurkitu omen zuen, eta honek La-Tour-d'Auvergne famatuari zor omen zion. Hau Iraultza Frantsesaren garaian Donostiako kapitulazioaz arduratu zen 1794ko abuztuaren 5ean, eta zioenez, hiriko kaputxinoen komentuan aurkitua zuen, eta bere ezaugarrien arabera XII edo XIII. mendeetakoa zitekeen, beraz, gertakizunaz lauzpabost mende geroagokoa.

Garbi dago Dominique Joseph Garatek ezin ziola ezezkorik eman 1833an hila baitzen Uztaritzen, eta Théophile Malo Corret de La Tour d'Auvergne, zelten kontuetaz arduratu zen militarrek ere ez, 1800ean zendua zenez. Donostian, aldiz, ez zen kaputxinoen komenturik garai hartan.

Dena den, hasieran idazle eta jakintsu zenbait engainuan erori ziren, hala nola Mary Lafon, A. du Mège eta Francisque Michel. Ziria ontzat jo zuten idazle guztien zerrenda eta zango-sartze galantak punduz-pundu salatzen ditu Vinsonek, eta frogatzen nola kanta Parisen konposatua izan zen 1834ean.

Baina Vinsonek³⁰ salaketa egin aurretik, Michelek *ancien popular poetry*, antzinako herri poesiaren mostra bezala kontsideratu zuenean *Gentelman's Magazine*-n 1858an, Anton Abbadiak 1859an errebista berean erantzun zion argi eta garbi testu hura lehenik frantsesez moldatua izan zela hogeitau urte lehenago eta gero beste batek euskarara itzulia. Ez zuela euskarak, Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoak horrelako asmakizun eta zaharreria faltsuen beharrik. Berehala Michel konturatu zen erruaz, idatzitakoa zuzendu zuen, eta aitortu zuen bai *Altabiscarraco cantua* bai eta *Abarcaren cantua* apokriforik zirela, *are forgeries*.

Iritzi hau zabaldu zuten geroxeago xehetasun guztiak emanez Bladé historialariak 1866an bere *Dissertation sur les Chants héroïques des basques*, dela-

²⁹ Eugène-François Garay de Monglave, *Chants nationaux basques et chants nationaux béarnais*. MS Bibliothèque Nationale de Paris, naf, n° 3340, 3342.

³⁰ Julien Vinson, 1884, *Notice Bibliographique sur le folklore basque*. Maisonneuve frères. Paris.

koan, Wentworth Webster ipuinbiltzaileak bere *Basque Poetry*³¹ txostentxoan 1879an eta Vinson hizkuntzalariak 1884ean, bere *Les Chants Historiques Nationaux* izendatu artikuluetan.

Dena den apokrifo horrek bazuen ziria sartu ahal izateko zati bat benetazkoa, hau da, zenbakien zerrenda, zein benetan herriak kantatu egin izan duen.

Frantsesetik euskarara itzuli zuena Louis Duhalde izan zen. Hau ez zen inoiz haurtzaroan ikasitako euskaraz arduratu. Itzulpena aztertuz gero ikusten da, beraz, aski kaxkarra dela darabilen euskara, eta gainera ez neurri ez eta errimarik gabe dagoela itzulita. Badirudi Duvoisin eta honen lehengusu zen Duhaldek irri aski egin zutela asmakizunen kontura, zein engainarrezak ziren hainbeste ospe eta fama zuten idazle jakintsuak ikusiz.

Garay de Montglave-k ez zuen aski izan behin ziria sartu nahi izatearekin eta 1852an Villemain Heziketa Publikoko Ministroari bidalitako gutunean zioen, kantua itzulpena, *si remarquable par son élégance et son exactitude*, berea zela. Loreak bere buruari asmakizunarekin batera . Alajaina !

Ministroak agindu zion Euskal Herrira joan zedin eta bertako artxiiboetan bila zitzala euskaldunen kanta zaharrak. Monglave-k burutu bidaia honen fruitua igorri zion. Hemeretzi *chants nationaux*, tartean hiru apokrifo: *Lelo*, *Altabiçar (sic)* eta *Annibal*-en kantuak. Halaber beste bi kanturen itzulpenak omen zirenak: *Urthubiako alhaba* eta *Domingoren eresia*. Hau 1853ko maiatzaren 9an gertatzen zen. Ministroak abuztuaren batean orijinalak eskatu zizkion, eta orduan bai benetazko itzulpena egin behar izan zuela, zein abuztuaren 12an igorri zion.

* * *

XX. mendean 1908an Atharratzen abuztuaren 31an antzestu zen *Uskaldunak Ibañetan* obra Justin de Mendittek eta Clement d'Andurainek idatzia³². Egileek igande goizetan jokatzea debekatzen zuten (*jakinerazten degu, eztugula utziko hunen jokhatzera behinere igante edo besta goizez*), baina jada ez da pastoral tradizional bat modernoa baizik, Pierre Lhandek³³ kritikatzan duenez, eta non Arrolanen azken hitzak honakoak diren:

(*Chutitzera iseiatzen delarik besañoaren gaña, botz flakatu bateki erraiten du plañuz bezala, baratch baratcha:*)

Jinko Jauna!... Pharka ene bekhatiak!...

Adio...Frantzia!... Adio... Charlemaña!...

³¹ Wentworth Webster, 1879, "Basque Poetry", *Basque Legends*. London, 235-276. or.

³² Zibero, *Uskaldunak Ibañetan*. Trajeria hirur phartetan. Behar da burhagertu bethi Uskaldun! Eskaldun ona kasetaren moldetegian. Bayonan 1906.

Adio... ene emazte eta haur maitiak!...
Zier doluz hil da... Arrolan kapitaña!...

Adio ...Durandal!... Hire besarkatzez,...
Besarkatzen tiat... maite nutianak!...
Hitan erreliak... dutien saintiez...
Ukhen beza... zelia... ene arimak!...

(*Arra-etzaten da, Durandal besarkatzen du, eta besoak haren gañetik khurutchaturik hiltzen da.*³⁴)

Menderdi geroago Pierre Larzabek idatzi zuen *Orreaga, pastoralara gisarako ikusgarria*³⁵, zein Roger Idiartek muntatu zuen eta zeinen emaila azkaindar antzetzalde bat izan zen, lehen aldiz jokatu Donibane Lohizunen 1964ean Pazko egunez. Eta non gertakizunez aparte kanta hauek entzun ziren: *Aurtxoa-aurtxoa, izu egin lo...; Zer duk nigarrez, zer duk ain ilun...; Gu gira Euskadiko gazteri berria...; eta Bakearen urtxoa, oi urtxo eztia...* Garaiko giro politikoaren isla.

Eujenio Arozenak, Intxixu, Oiartzungo antzetzaldearen zuzendariak 1974-75ean *Orria 778 edo Altabizkarko kantua*³⁶ izeneko antzerkia idatzi eta zuzendu zuen berrogeita zazpi aldiz jokaraziz herri antzetzan.

Halaber Junes Casenavek abadeak ere idatzi zuen *Ibañeta* pastoralara, zeina Garindañen jokatu zen 1978an, eta non honela hiltzen zaigun *Erroldante*:

317. b. *Ezpata ehaile batez
Aldez-alde bulharra joile,
Haitzarte horietan niz
Arrunt bedaillo etzanik.*

Erroldante hil³⁷.

Zinean Louis Feuillade hasi zen heroia erreibindikatzen *Roland à Roncevaux* (1913) obrarekin baina oso filme mutu laburra izan zen hau, egin zituen beste milatik gorakoak bezalaxe, eta geroago italianoak ohiko zine historikoarekin izan ziren gehien erabili zutenak, hala Pietro Francisci, *Orlando e i Paladini di Francia* (1956) obrarekin, eta Franck Cassenti Klaus Kinski aktore ospetsu, harro eta irudimentsuarekin *La Chanson de Roland* (1978).

³³ Pierre Lhande, "Uskaldunak Ibañetan" par Zibero. Euskaldun ona, 1906.

³⁴ *Uskaldunak Ibañetan*, aip. lib., 139. or.

³⁵ Pierre Larzabal, *Azkaine 1964. Orreaga*. Goiztiri, Baiona, 1964.

³⁶ Eugenio Arozena, *Altabizkarko kanta*. Antzerti zabalkunderako aldizkaria. Eusko Jauriaritza, 64. zenb., Donostia 1983.

³⁷ Junes Casenave Harigile, *Ibañeta pastoralara*. Jakin, Arantzazu, 1978, 287. or.

Francisci-k zine historikoan sinesten zuen eta obra horretan parte hartu zuten aktoreen artean Rik Bataglia (Orlando), Rosanna Schiaffino-k (Angelica), eta Vittorio Sanipoli... daude.

Aitortu behar da, ordea, Cassentiren filma, Kinskik jokatariko txarrenetakoa dela. Gaia interesgarri zirudien, baina filmea aspergarriena, anbiziotsuena eta gaizkien burututakoa dugu. Hona gaia.

Komediante talde bat Donejakuerantz doazen erromes batzuekin doa, eta bizi duten miseriaz ahanztarren, *La Chanson de Roland* antzeztan die. Kinski antzeztearrik bat da, Klaus izenekoa Roland jokatzan duena. Gidoia irakurri zuenean Kinskik pentsatu zuen bortizkeriaz eta odolez beterikako bataila epikoak irudikatuko zituela, erdi aroko giroan eta gogoz sartu zen abenturan. Baina errodaian etsipena handia izan zen, Cassentik batailak hurrundik filmatzen baitzituen eta plano batean. Haserretu egin zen benetan Kinski ikustean Cassenti arratsalde osoak pasatzen zituela zaldien zango-ipurdiak filmatzen. Philippe Setbon-ek esaten digunez³⁸, tamalgarria izan zen Kinskiren genioa horrela galtzea, *Agirre, Jainkoaren kolera*-n zeukan indarra deusetan hondatzea eta filmerik gogaikarriena egitea.

Bukatzeko Rolandi buruzko aurkezpen hau ez zaigu gelditzen Francisque Michelek duela mende t' erdi baino gehiago Prosper Mérimée-ri adierazi eta euskaldunek beren ondarearekiko izan duten ezaxolakabekeriak baina azken urteetan konpontzen bide ari den arren oraindik bete ez den desio hura plazaratzea baizik.

*Je n'ai plus, monsieur, qu'un seul vœu à former: c'est que le théâtre basque, déjà amoindri par des pertes inévitables, soit bientôt publié, avec une traduction et des notes, par un homme familiarisé avec les ouvrages analogues que nous a légués le moyen-âge*³⁹.

Alegia, galera saihetsezinez jadanik aski pobretua den euskal teatroa lehen baitlehen argitaratua izan dadila behar bezalako aurkezpen, ohar eta ikerketekin, honela bai belaunaldi berriek bai munduko antzerti ikerleek ezagutu ahal dezaten euskal tradizioaren altxorra.

Eta bego amaitzeko artikulua hau sinalaturik hemen, Jean Haritschelhar irakasle eta adiskideari nire esker onen eta errespeturik adeitsuenaren adierazpena.

³⁸ Philippe Setbon, *Klaus Kinski*. Éditions PAC, Paris, 1979.

³⁹ Lettre de Francisque Michel à Prosper Mérimée sur les représentations dramatiques dans le Pays Basque (*Athenaeum français*, Paris, 12-XII-1854, 1133-1135. or.; 27-I-1855, 86-88. or.).

AXULAR-en ZUZENBIDEA: *JUSTIZIA MIN DA, ETA GARRATZ ...*

Andres URRUTIA

1. ATARIKOA

Ezaguna da euskal letretan Axular-en itzala. Izan ere, euskal literaturan barrena ikertzaile ibili direnentzat ezinbesteko mugarria da idazle nafarra. Pedro Agirre izenez eta *Axular* izenordez¹, *Gero* (1643) liburuaren egileak noranahi zabaldu ditu bere sona eta ospea, gaztelaniaz ere ezagutarazi zuela Aita Villasante zenak. Berrikitan argitaratu da katalanezko testua², eta arian-arian aipatua eta aztertua da lan hori, filologia nahiz literaturaren ikuspegitik.

Badira, alabaina, osterantzeko aukerak *Gero* horretan. Gaiari dagokionez behinik behin, begien bistakoak dira teologiak dituen pisua eta esanahia, Axular zenarentzat norabide eta zeregin nagusi zirenak. Horixe aztertu zuen, aztertu ere, I. Balenziagak, Axular-en teologia azaldu zuenean³.

¹ VILLASANTE, Aita L. *Axular. Mendea. Gizona. Liburu*. Arantzazu/Oñati: JAKIN liburu sorta. Historia saila, 7. zk., 1972. Orobat, ETCHEPARE, J. *Axular (1556-1644)*. Herria idazkiak, 1956.

² AXULAR. *Després*. Bartzelona: Clàssics del Cristianisme, 86. zk., Facultat de Teologia de Catalunya. Fundació Enciclopedia Catalana, 2001. Jean Haritschelhar euskaltzainburua izan zen katalanezko itzulpen horren aurkezlea. Hona hemen, haren hitzetan, *Gero*aren nondik norakoak: *El gran mèrit del llibre és el de ser una obra original que, amb els seus nombrosos exemples o anècdotes trets de la vida corrent, parla amb entusiasme al lector, l'immergeix en l'àmbit quotidià basc tot comunicant-li la moral clàssica de l'Església catòlica del segle XVII; un model, a més, de prosa, que fa del seu autor un mestre de la literatura basca*.

³ BALENZIAGA, J. M. *Axularren teologia ("GERO"ri zenbait oharpen)*. Bilbo: Ediciones Mensajero, 1990.

Horrek ez du agortzen, ezta hurrik eman ere, Geroren esparrua. Haatik, norberaren ogibidetik abiatu eta zuzenbidea jarri da abiapuntuan, zer non bilatu nahian Axular-en liburuan. Hori egiteak, gainera, ez gaitu okerreko bideetara eraman behar, zuzenbideko liburuak ez baita nafarrarena. Horren zuzenbideko edukiak, alabaina, argi erakuts diezazkiguke XVII. mendeko euskal idazle ikasi batek zuzenbidearen inguruan zeuzkan jakituria eta erabilera. Hori dugu jakin-minekoa, eta horixe da, berez, ohargarri izan dakigukeena. Horren bidez ere, bestelakoa zehaztea, alegia, euskara juridikoaren arrastoak bilatzea liburuaren lerrokadetan. Horren erakusle, liburuan zehar ageriko diren erakunde juridikoek ildo fidagarri eta bilbatua emango digute, gurea egoki zertzeko.

2. AXULAR: ZUZENBIDEA ETA TEOLOGIA MORALA

Geroren aipamen juridikoak ulertzeko saihestezina da Axular-en jatorria eta formazio-prozesua elkar erkatu eta ondorioztatzea. Horrek dakar, besterik gabe, zuzenbidearekin izan zuen ukitua plazaratu aitzin, haren ezaupide juridikoak aipatzea, eta, ahal dela ere, haren iturburuak eta erro juridikoak zehaztea.

Puntuz puntu jarrita, hauek izango lirатеке eztabaidatuena:

A) Axular teologo genuen, eta, jakina, garai hartako askoren antzera, teologia-ikasketak egin zituen. Hortaz, haren prestakuntza teologikoa zen, eta, teologia sakon ezagutu zuela baieztatu badaiteke ere⁴, pentsatzekoa da

⁴ MICHELENA MTZ. DE ILLARDUYA, I.: "Sobre la estancia de Axular en la Universidad de Salamanca". *Fontes Linguae Vasconum studia et documenta*. Número extraordinario (Homenaje a Axular). Iruñea (1974), 16. zk., urtarrila-apirila, 85. or.: *La dificultad estaba en que, aunque hay un fichero completo de todos los licenciados y doctores o maestros por Salamanca, no lo hay de bachilleres, y la mayor parte de los que allí estudiaron no pasó de ese grado. Una vez comprobado que Axular no figuraba entre los primeros, busqué, gracias a la inestimable ayuda de Don Florencio Marcos, su nombre en las listas anuales de alumnos matriculados y acabé por encontrarlo. Primero, entre los alumnos del curso 1592-93 y luego, con fecha 29 de noviembre de 1594, entre los del curso 1594-95. En esta última encabeza la lista como puede verse en el grabado: "Pedro de Ajular, natural de Urdax diócesis de Pamplona. 4.º año". No aparecieron, por haberse perdido o traspapelado, las listas correspondientes al curso 1593-94.* MITXELENA MZ DE ILARDUYA, I. "Axularren titulua". *Fontes Linguae Vasconum*, 1977, 25. zk., 57. or.: *Orain, aurkitu berria dudana dokumentuari esker, esan dezakegu Axularrek Teologiako istudioak hasi ez ezik, bukatu ere egin zituela; 1595ean batxiller egin zirenen artean gure idazlearen izena agertzen baita, eta euskal deiturekin maiz, lehen eta orain, gertatu ohi den bezala, gaizki idatzia. Honela dio "Acta de bachilleramiento" honek: Pº dealuxar.*

zuzenbide kanonikoa eta zibilaren zerbait ere ezagutu zuela. Arean ere, hainbatetan nahasi eta gurutzatzen ziren bateko eta besteko hariak, teologia eta zuzenbidearen esparruetan. Beste horrenbeste, zuzenbidearen barruan, ohiko zela ikasleen artean eta gizartearen barruan baieztatzea juristak bi zuzenbideotan, alegia, *iuris utriusque* direlakoetan, jakintsuak zirela⁵. Ez dago, bistan denez, inongo argumenturik Axular juristen artean kokatzeko. Ezta ere, maila berean, haren ezaupide juridikoak baztertzeko, Geroren baitan eskaintzen direnak aintzat hartuz gero.

Begien bistakoa da, hortaz, Axular-en aipamen juridikoak, zuzenekoak baino, zeharkakoak zirela⁶. Teologia baliatu zuen hark, zabal eta oparo, bere liburu sonatuan. Hala ere, teologia-ikasketa horiek, aldi berean, zuzenbidearekikoa ekarri ahal zioten, batez ere, zuzenbide kanonikoaren ukitua. Gai horretan Salamancako Fakultatea ospe handikoa zen, eta, areago, zuzenbide zibila ere landua zen bertan. Hortaz, Axular-entzat ezagun izan zitezkeen, orduko, zuzenbide kanonikoa, eta, agian, zuzenbide zibila ere.

B) Orduko zuzenbide kanonikoak (*Grazianoaren Dekretua* eta *Dekretalak*) eta zibilak (*Corpus Iuris Civilis*) zuzenbide erkidea, *ius commune* delakoa, osatzen zuten, hain zuzen ere, Salamancan entzute zabala zeukana eta teologiarekin batera erakusten zena. Hartara, lege eta kanon fakultateak

⁵ ALVARADO, J. (arg.). *Historia de la literatura jurídica en la España del Antiguo Régimen (volumen I)*. Madrid: Marcial Pons, 2000, 128 eta 129. orr.: *Si el nombre de Salamanca suena en el mundo se debe a su Universidad, y dentro de ella a su Escuela de maestros del Siglo de Oro del siglo XVI y comienzos del siglo XVII, que eran ambidextros en el manejo de los saberes teológicos a la vez que de los jurídicos... Teólogos y canonistas tenían en común un factor que aunaba sus esfuerzos, ya que unos y otros utilizaron todo su bagaje de fuentes y de conocimientos teológicos y jurídicos, así como su reflexión jurídico-teológica, para dar respuesta a los grandes problemas de su tiempo. Esto les obligaba a ser interdisciplinarios y ambidextros para manejar a la vez conocimientos filosófico-teológicos y jurídicos tanto canónicos como civilísticos, aunque el uso de los autores clásicos de la antigüedad grecolatina era frecuentemente de segunda mano, como lo muestra el hecho de que muchos textos patrísticos eran tomados del Decreto de Graciano y no de las correspondientes obras de los Padres de la Iglesia... Lo más novedoso de estos teólogos y juristas es que aciertan a ensamblar en unos esquemas, en buena medida antiguos, los problemas legales más candentes de los hombres y reinos del siglo XVI, al revés de los escolásticos medievales, que generalmente se mantienen en el plano de la atemporalidad.*

⁶ LACOMBE, G. "Varia sur Axular et son livre". *Gure Herria* XXVIII-6 (1956), 21. or.: *Jusqu' à la fin du XIX^e siècle, on croyait que le chef-d'œuvre d'Axular avait été pensé directement en basque. On ne s'était pas demandé comment un ecclésiastique rural, travaillant loin de toute grande bibliothèque, pouvait citer tour-à-tour et abondamment Aristote, Sénèque, Plutarque, saint Augustin, saint Jean-Chrysostome, saint Ambroise, saint Thomas, etc., etc...*

bereziak izanik ere, ikasleak bi zuzenbideetan ziren adituak eta jardunekoak.⁷ Elkarrekin aberasgarri gertatu ziren bi jakintzagaiok Salamancan bertan, eta, erraz atzeman daitekeenez, Axular-engan ere euren eragina izan zezaketen⁸.

Zuzenbideari dagokionez, ezin uka Axular-ek erakusten duen zuzenbide-ezaguera, testuak sarri-sarri papereratzen baititu bere kontu-arrazoia garbitzeko. Aipamenok, nolana ere, egoki eta artez antolatzen ditu, jarraian azalduko denez.

C) Bi-bion arteko estekadura, alegia, teologiaren eta zuzenbidearen artekoa, teologia moraletik dator, inoiz aipatu denez⁹. Teologia moral horrek

⁷ SALAMANCA. REVISTA DE ESTUDIOS (De Dios De Dios, S., Domínguez-Berrueta de Juan, M. eta Infante Miguel-Motta, J., koord.). *Salamanca y los juristas (monográfico)*. Salamanca: Ediciones de la Diputación de Salamanca (47. zk.), 2001.

⁸ SALABERRI MUÑOZA, P. *Axularren prosa erretorikaren argitan*. Bilbo: Doktorego Tesiak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 1997.

⁹ WERUAGA PRIETO, A. *Libros y lectura en Salamanca (Del Barroco a la Ilustración: 1650 – 1725)*. Salamanca: Junta de Castilla y León. Consejería de Cultura y Turismo, 1993, 62 eta 63. orr.: *Pero el siglo del Barroco, o la época de la Contrarreforma, va a ser el gran momento de la moral, más que el de la gracia divina o el de María. Aquella se erige en una rama de la Teología distinta de la dogmática... Por eso, al elevado número de obras de Teología moral le corresponderá una potenciación de la confesión y de los manuales de confesores. Éstos serán con los misales las obras más utilizadas por los eclesiásticos. Empezaron siendo una aplicación práctica de las enseñanzas de la Teología moral destinados a formar a los nuevos clérigos en sus tareas pastorales... Así, las posibilidades de hacer el bien o el mal eran infinitas, de ahí la necesidad de regular la praxis de la fe por medio de una moral casuística. Ello se parece más al Derecho que a otra cosa, y aunque en su inicio produjera obras históricamente tan importantes como la Relectio de Indis de Vitoria, el De iustitia et iure de Domingo de Soto o el De contractibus de Mercado, luego evolucionó hacia un legalismo absurdo, pero que calmaba eficazmente a la mayoría de las conciencias. Orobart, CRUZ CRUZ, J. *La ley natural como fundamento moral y jurídico en Domingo de Soto*. Barañain: EUNSA. Colección de Pensamiento Medieval y Renacentista, 91. zk., 2007, 53. or.: *Efectivamente, todo indica que para aquellos hombres la figura del teólogo, como la del filósofo para los griegos, o el jurista para los romanos representaba un papel protagónico en la vida de la sociedad. Aquellos teólogos del Siglo de Oro consideraban la teología a la manera que Cicerón la ciencia del Derecho: como conocimiento de las cosas divinas y humanas, y ciencia de lo justo y de lo injusto. La misión y objeto de la teología son tan amplios —dijo el dominico Francisco de Vitoria (1480-1546) al comenzar su Relección sobre la potestad civil— que “no hay asunto, investigación ni materia que parezcan ajenos a su profesión”. Bien se ha dicho que los teólogos, acostumbrados a contemplar los problemas más desde lo alto, fueron grandes juristas, precisamente por ser teólogos, porque sin desconocer ni negar la diferenciación de las ciencias, buscaron y descubrieron la urdimbre que las pone al servicio de una misma realidad, prestándose mutua ayuda para ampliar los horizontes del conocimiento, pero no hay que pensar que éste fue un resultado no querido. Baste recordar que los teólogos en general y sobre todo los de la talla de un Domingo de Soto eran de por sí maestros en el problema de la especificación de las ciencias.**

ekarri zuen, besteak beste, teologiak berak zuzenbidearen tankera hartzea, kristauaren eginbeharrak zehatz-mehatz eta kasuan-kasuan arautuz, manu eta agindu askoren bitartez. Neurri handi batean ere, teologia moralak da Axular-ek nabarmentzen duena, geroko bizitza prestatzeko mundu honetan zer egin behar den azalduz.

Hartara, Lafitte zenak¹⁰ berehala igarri zuen zuzenbide zibilaren izatea Axular-en testuan, hitz biribilak jaurtiz. Harentzat, alabaina, ezinezkoa zen urdazubitarrarentzat halako aipamenak egitea, aldezturik biblioteka aberatsik gabe. Gakoa, halere, bestera argitzen da, aipamenak egiteko eskuliburuak beren beregi tartekatzen direnean. Maiz-sarri erabiliko ziren haiek orduko hartan, eta gero ere bai¹¹.

Iduri luke, haatik, Axular-en zuzenbide-jakituria aipamentegi batena baino zabalagoa dela, eta, bide batez, horrek barruratsen dituela, besteak beste, hainbat kontzepturen xehetasunak, hala nola, geroago aipatuko denez, salmentaren eta bahiaren arteko berezitasunak, testamentuko xedapen askoren bereizketak eta abar...

D) Horiek horrela, bada Axular-engan garaiko zuzenbidearen isla, hau da, zuzenbide jasoa, zuzenbide erkidea, *ius commune* delakoa. Quid, ordea, Axular-ek jaiotzaz eta bizitzaz ezagutuz zezakeen nafar zuzenbidearena? Gai korapilatsua, inondik ere, oraingo hau. Axular-ek, ziur asko, bitasun hori nabarmendu zuen, bateko unibertsitatean ikasitako zuzenbide erkidea, eta,

¹⁰ LAFITTE, P. "Les citations d'Axular". *Gure Herria* XXVIII-6 (1956), 39. or.: *Enfin Axular a puisé dans les "Gloses", le dictionnaire de Charles Estienne, les Codes de droit civil, et dans le trésor oral des proverbes populaires. On s'est souvent demandé comment un curé de Sare pouvait avoir à sa disposition une telle quantité de texts, à une époque où les livres étaient rares et coûteux. En réalité point n'était besoin d'une vaste bibliothèque pour avoir à sa portée une documentation impressionnante. Les compilations abondaient sous des titres variés: Catenae, Exempla, Dicta fataque memorabilia, Antiquae lectiones, etc. Ces recueils de Petrus Crinitus, Alexander ab Alexandro, Leonicus, Caelius Rhodiginus, Fulgose, Ravisius Textor, Louis de Grenade, et autres collecteurs de citations antiques étaient for à la mode aux XVI^e et XVII^e siècles... Axular s'inspire d'ailleurs très librement de ses sources et son œuvre reste personnelle par la composition, le mouvement et le style.*

¹¹ Horren adibide, esaterako, CLARISS, VIRO. *Sententiæ selectæ pertinentes ad materiam praxios rerum criminalium, et aliarum partium. Iuris Scientiarumque* (1601. urteko argitalpena). The Lawbook Exchange, LTD. Clark, New Jersey, 2005.

besteko, lurraldeko zuzenbidea. Azken hau, Salamancan behinik behin, Gaztelakoa zen¹².

Uste izatekoa da, beraz, Axular-ek nafar zuzenbidea ere ezagutzea, zuzenbide hori (Aragoikoarekin batera) *ius commune* zelakoari oldartu baizitzaion irmoki. *Mos italicus* molde horren barruan zebilen orduan zuzenbide erkidea. Lalinde Abadiak¹³ jorratu du arlo hau zabal eta artez, eta harenak izan daitezke guretzat giltzarriak.

⁹¹ Badira tartean, azkenik, zeharo hildakotzat hartzen direlako edota adibide gutxi dute-lako esparru honetatik kanpora utzi ohi diren atzizki modukoak: *esate baterako -ai* (*belai*, *ibai*, *bizkai*, *aldai*, *zelai*...). Orobat hortik eratorriak: *pagaldai*, *murgialdai* moduko formak ere hor sar litezke.

⁹² Eratorpen-atzizkitzat har daiteke *-jende* hori, hala nahiago bada. Eskuartean dugun xederako berdintsu digu, nolanihi ere.

⁹³ Morfo/morfema bereizketarako, ikus Matthews, 1980, 91-4. Morfema bi edo gehiagoko morfoen analisirako ere ikus iturri hori bera.

⁹⁴ Esate baterako, *dirutza* hitzak aniztasun-adiera argia du berekin. *Alkatetza* hitzak, aldiz, ez. Oso antzeko fenomeno gertatzen da *-(g)oa* atzizkiarekin ere. Erdal hizkuntza handiei dagozkien azterketetan *abstrakzio-atzizki* esan ohi zaie, sarri, adiera horretako morfemei. Abstrakzio- eta multzo-adieren arteko harreman-bide posibleez eta bereizgarri nabariez xeheki hitz egin liteke, noski. Ez da artikulua hau, ordea, horretarako lekua.

V.2. Aniztasun- edo multzo-adierazleen ezaugarriak, adieraz eta hitz barneko joskeraz.

Bai semantika aldetik, eta bai lexema barruko konbinatoria morfematikoari dagokionez⁹⁵, badute aniztasun- eta multzo-adierazleek amankomuneko zenbait ezaugarri. Ezaugarri horiek aztertu nahi ditugu atal honetan.

V.2.1.- Ezaugarri semantikoak

Pinudi esaten den lekuan *pinu asko* esan liteke, edo *pinu-multzoa*. Hor biltzen da, funtsean, aniztasun- edo multzo-atzizkien adiera-muina. Horregatik esaten da, hain zuzen, **-di** atzizkia eta bere parekoak aniztasun- edo multzo-atzizki direla. Hori dute beren ezaugarri semantiko nagusia.

Adiera horren indarra eta gardentasuna ez da, ordea, beti bat. Aniztasun- eta multzo-adiera hutsa duten kasuetatik hasi eta multzo-izaera hori aski bazterrekoa duten kasuetara joanaz, bada esparru horretan gradazio jakina. Gradazio horretan mugitzen dira, gutxi-asko, euskal aniztasun- eta multzo-adierazle gehienak. Ikus dezagun, horretarako, behin eta berriro multzo-adiera argiko atzizkitzat hartu izan den adibide bat: **-di** atzizkia eta hortik sorturiko eratorpenak⁹⁶.

a) Aniztasun- eta multzo-adiera du, hortaz, **-di** atzizkiak. Adibiderik ez da falta, horren alde. Bistan da *pinudia* “pinu-multzoa” dela, eta *pagadia* “pago-multzoa”. Berdin *hariztia*, *gorostidia*, eta beste hainbat. Zertxobait konplikatatu egin beharko genuke gure azalpena, adibide zahar-gordeagoetara joanez, *sagardia* (*sagardoia*, *sagarduia*) eta beste zenbaitetan: *gaztainadia*, esate baterako, “gaztaina multzoa” ez baina “*gaztainondo* edo *gaztainatze* multzoa” dela esan beharko genuke, azken **-ondo** edo **-tze** horrek dakarren azterkizun osagarriarekin. Funtsaren funtsean, ordea, indarrean dago kasu horietan honako ekuazio semantiko hau:

⁹⁵ Zenbaitek, konbinatoria morfematikoaren esparrua zabalduz, “sintagmatika lexikala” esaten dioten eraikuntzez ez naiz ari, halere, oraingoan. Bai, aldiz, aurrerago. Bien arteko mugez ikus, esate baterako, Louis Guilbert 1975.

⁹⁶ Ez du inork, dakigularik, **-di** (**-doi**, **-dui**) atzizkiaren aniztasun- eta multzo-adiera hori ukatu. Egia ere da, ordea, atzizki-moduon azterlan sendoagoen behar nabarmenean gaudela eta, langintza horretan sakondu ondoan, **-di** atzizkiak gaur-gaurkoz dugun ikusmoldea gutxi-asko berriro beharrean gerta gaitzekeela. Ez goaz hemen, inola ere, hain bide malkarrean sartzeraz. Oinarri-oinarritzko ezaugarri semantikoetan zentratu nahi genuke gaurkoan. Ondotxoz asmo xumeagoa izanik ere eskuartean, gauza bat argi uzten saiatu nahi genuke artikulu honetan: ustez adiera bakarrekoak diren eratorpen-atzizkietan ere posible dela zenbait bereizkuntza semantiko egitea.

<i>A-di</i>	=	<i>A asko, A-multzoa</i>
-------------	---	--------------------------

Horrelakoetan ez dago dudarik, *A-di* eratorpen-lexemak “A-multzoa”, “A asko” esan nahi duela. Hots, *pinuek* (pinu askok, ez pinu bakarrak eta ez bizpahiruk) osatzen dute *pinudia*, eta *pagoeak* (pago askok) *pagadia*. “Pinudi horrek zenbat balio du?” galdetzen dugunean, hortaz, *pinuen* (saltzeko prest jarritako pinuen) salmenta-prezioa zenbatekoa den jakin nahi dugu, ez pinuak dauden *lur-sailak* zenbat balio duen. Horrelakoetan, hortaz, *pinudia* diogunean “*pinu-multzoa, pinuak*” ditugu gogoan, ez “pinuak dauden (pinu asko dagoen) *lekua*”. Era berean, “pagadia bota eta haritza aldatu nahi dut” dioenean norbaitek, *pagoez* (zuhaitz-multzoaz alegia) ari da delako hori, ez pagoak dauden *leku* fisikoaz. *Pagadiak* “pago-multzoa, pago asko” esan nahi du horrelakoetan, ez “pagoak dauden *lekua*”. Beste era batera esanik, eratorpenezko aniztasun- eta multzo-atzizki hutsa da *-di*, goiko adibide horietan guztietan. Lehenik eta behin eratorpenezko aniztasun- eta multzo-atzizki dela esan ohi da, horregatik, *-di* atzizkia. Goiko ekuazio semantiko hori ongi betetzen duten *-di* atzizkiei, aniztasun- eta multzo-adierazle huts diren atzizkiei, *-di*, esango diegu hemendik aurrera.

b) Horrelakoak (*-di*-ekoak) al dira *-di* atzizkia daramaten hitz eratorri guztiak? Ez, denak ez dira horrelakoak. Eratorpen-morfo horri eutsiz, badu *-di* atzizkiak bestelako adiera berezirik: gutxi-asko berezirik, baina nolana ere diferentzia argia antzeman litekeen modukorik. Beste kategoria semantikoa osatzen dute bigarren multzo honetakoek. Ikus dezagun bigarren kategoria horren adibide praktikoa: “Arantzazura oinez joateko, Oazurtzara hoa lehenik, eta pagadian gora har ezak gero” esaten dugunean, inori ere ez diogu esan nahi Oazurtzara iritsitakoan topatuko duen lehenengo pagora hurbildu eta, besterik gabe, bere enborrean gora hasi behar duenik. “Pagoak dauden *lekuan* gora, *aldapan* gora” egiteko esan nahi dugu horrelakoetan, “pagadian gora” diogunean. Bestela esanik, *-di* atzizkiaren bestelako ñabardura semantikoa antzeman liteke honelako kasuetan: *pagoak* ez baina “pagoak dauden *lekua*, pago-multzoa dagoen *lekua*, pago-multzoak determinatzen duen *lekua*” dugu oraingoan gogoan. Aurrekoan ez bezalako ekuazio modua dago oraingoan indarrean:

<i>A-di</i>	=	<i>A asko (A-multzoa) dagoen lekua</i>
-------------	---	--

Goiko bigarren ekuazio hori ongi betetzen duten *-di* atzizkiei, gauzak argitze aldera, *-di*, esango diegu hemendik aurrera. Multzo- eta aniztasun-atzizkien bigarren saila osatzen dute honelako kasu hauek. Kasu honetako *-di* atzizkia aurrekoa bera da formaz (hots: eratorpen-morfo bera da). Esanahiari dagokionez badu, ordea, alde ohargarririk. Biek dute multzo-

-adiera⁹⁷, baina bigarrenak lekuan egiten du enfasi nagusia. Batetik besterako bereizkuntza semantikoaren kontu hori ez da *-di* atzizkiarekin gertatzen den bitxikeria nabarmen bat, atzizkien alorreko aski gertaera arrunta baizik. Askotan gertatzen da semantikazko transposizio hori. *Multzoa* esan ordez, *multzoa dagoen lekua* esaten da eratorpen-atzizkion bigarren sail honetan. Urrunagoko pausoa ematen du zenbaitek, eta “A-multzoa” ordez “A hutsa” ikusten. Hori dela-eta, *A-di* moduko eratorpenetan “A-multzoa, A *asko* dagoen *lekua*” edota soil-soilik “A dagoen *lekua*” adierazten dela esan ohi du hiztegitik eta lexikologo batek baino gehiagok, lekuan zentratuz huts-hutsik. Hots, *-di*-eko eta, partez, *-di*-ko multzo-adiera hori alde batera uzteko joera dago halakoetan. Ondorio praktikoen aldetik arrazoi du, zenbaitetan, hala diharduenak: ez beti, inola ere (lehen saileko adibideez josia dago multzo-atzizkion erabilera), baina bai hainbatetan (batez ere egungo eguneko erabilera modu nagusiari dagozkionetan). Forma zaharrei dagokienez, bistan da “pinu bat dagoen lekua” ezin izan litekeela pinudia. Ez pinu bat, ez bi eta ez hiru: aniztasun-adiera oso barruan daramate horrelako eratorpen zaharrek.

Gauza bera gertatzen al da gainerako multzo- eta aniztasun-atzizkiekin? Gauza bera gertatzen al da, demagun, *-tza / -tze* (ardantza / ardantze), *-aga* (iturriaga), *-te* (eurite) modukoekin, *-eria* (gazteria) modukoekin? Askotan bai, baina ez beti. Azken biek (hots, *-te* eta *-eria* atzizkiek) ez dute (oro har) *-di*-ren pareko adiera hori berekin⁹⁸. Beste zenbait kontutan ere, multzo-atzizki batzuetatik besteetara alderik badagoela ikusiko genuke, banan-banan eta xehetasun osoz arakatzten hasi orduko. Funtsezko hainbat gauzatan bide beretik dabilta, ordea, *-di* atzizkia eta gainerako multzo- eta aniztasun-atzizkiak. Hainbat ezaugarri bere osoan eusten zaiola antzemango genuke, hartara jarritz gero. Konkretuki, beste atzizki horietan ere *-tza*₁ eta *-tza*₂, *-tzu*₁ eta *-tzu*₂, *-egi*₁ eta *-egi*₂ eta abar daudela⁹⁹ antzemango genuke. Ez da hau ordea lekua, multzo-atzizki horien guztien batera bilduzko azalpena egiteko, eta ez

⁹⁷ Horretan ez dago dudarik: *-di* ere multzo adierakoa dela ohartzeko, aski da gogoan izatea pago bakarra dagoen lekuari ez zaiola pagadia esaten inoiz (ez pago bakarra eta ez, seguruena, bizpahiru pago).

⁹⁸ Aldiz, erdal (español, frantses...) hizkuntzetan bada adiera bietako adibiderik aski. Horrela gertatzen da, esate baterako, gaztelaniazko *-eria* atzizkiarekin: *caballería* “conjunto de caballos” (beraz *-eria*), da, batetik, eta *perfumería* “lugar donde hay (se vende, etc.) mucho perfume” (beraz *-eria*).

Euskal *-te*-k badu, dena den, hortik hurbil (leku-ardatzetik denbora-ardatzera hegaldutaz hurbil) dagoen esangura: *izurrite*, *gosete*, *eurite*, *lehorte*... direlakoek *izurri*, *gose*, *euri* edo *lehor ugari* *aldia* (lekua ordez) adierazten dute. Hots, ugaritasuna berekin dakarren posizionatzaile tenporala da, horrelakoetan, *-te* atzizkia.

⁹⁹ Hala daudela edota, gutxien-gutxienez, halaxe interpreta litezkeela.

naiz bide horretan barrena abiatuko. Esanik bego, hala ere, **-di** atzizkiaz esandakoa baliagarria iruditzen zaidala, oro har, beste hainbat multzo-atzizkirentzat ere.

Gauza bera gertatzen al da **-alde** atzizkiarekin? Parte on batean bai, baina partez ez. Zertan bai, eta zertan ez? Horixe da, hain zuzen, txosten honen IV.3. puntuan aztertuko dena

V.2.2.- Joskerazko ezaugarriak

Bi eratako konbinazio moldeak aztertuko ditugu hemen: sintagmatika lexikalari dagozkionak batetik, eta morfema lexikalen konbinaziozkoak bestetik.

a) Multzo-atzizkien sintagmatika: ondorio sintagmatiko argia dute aniztasun- eta multzo-adierazleek. Atzizkia da lexema horien muina edo mugakizuna, ez hitz-enborra. Ikusi berri dugun adibidera itzuliz, **-di** atzizkia da elementu mugatua, determinatua. Hori da elementu determinatua eta, beraz, aurreko hitza (*pago*, *haritz*, *pinu...*) sintagma horren determinatzailea da. Alde horretatik, honako ekuazio hau egin liteke lehen kasuan:

$$A-di_1 = Ak \text{ determinaturiko multzoa}$$

Bigarren kasuan, berriz, honako ekuazio hau aplika liteke:

$$A-di_2 = A\text{-multzoak determinaturiko lekua}$$

-di atzizkia izenaren pareko da hortaz, batean zein bestean, kategoria gramatikalari eta sintagmatika lexikalari dagokienez.

b) Multzo-atzizkien konbinatoria. Iragaitzaz baizik ez dut gai hau landuko, txostena bera semantikan zentratua baitago. Zertxobait esatea merezi du, ordea, aniztasun- eta multzo-atzizkien konbinazio-ahalmenari buruz. Horrela, eta besteak beste,

- Nuklearrago dira multzo-atzizki batzuk, eta axalekoago besteak. Axalekoenak *-aga*, *-eta* (eta, beste maila batean, *-(t)eria*) dira, nabarmen: *itur(ri)* hitz-enborretik sortuak dira *iturtza*, *iturritza*, *iturralde*, *iturriaga* eta *iturrieta*, nork bere erabilera-eremu jakina duelarik. Zenbaitetan, horrezaz gainera, atzizkiok konbinatu egiten dira elkarren artean. Toponimian, esate baterako, *iturtza* hitzetik *iturtzaeta* ezaguna sortu da berreratorpenez. Baina alderantzizkorik ez: *iturrieta*-tik ez da *iturrietatza*-rik eratu. Era berean, *madaltza* (*madari* gehi *tza*) erator-

penetik *madaltzaga* (orain *maltzaga*) sortu da berreratorpenez, baina alderantzizkorik ez: *madariaga*-tik ez da *madariagatza*-rik eratu. Zerbait esan nahi du horrek: *-tza* (eta beste multzo-adierazle gehienak) baino ondotozoz periferikoago, axalekoago direla *-eta* atzizkia eta *-aga* atzizkia, K. Mitxelenak aspaldi ohartarazi zuenez. Esplikazio historiko-kronologikoa izan liteke, funtsean, horren oinarrian dagoena¹⁰⁰. Beti ez da, ordea, horrela izaten: *-tza* eta *-tzu* atzizkien kasuan, esate baterako, ez dago hain konbinatoria-arau argirik: *sagartzazu* modukoetan *-(t)zu* da periferikoa, axalekoa¹⁰¹; aldiz, *abartzuza* modukoetan *-(t)za*. Are gehiago (eta orain arte esandakoa baino garrantzitsuago izan liteke hori): atzizki batzuek ez dute, itxuraz, bestelako multzo-atzizkiekin konbinatzen¹⁰². Hala gertatzen da, bereziki, gaurkoan aztergai dugun *A-alde* eratorpen edo elkarte zaharrekin.

- Erabilera-eremu gehienetara¹⁰³ zabaldurik daude aniztasun- edo multzo-atzizki batzuek, eta eremu gutxitara edo bakarrera mugaturik daude beste zenbait. Eremu askotara zabaldurik daude, esate baterako, *-alde* eta *-tza* atzizkiak. Ia eremu bakarrean ageri da aldiz¹⁰⁴, itxuraz, *-di* (*-doi*, *-dui*) atzizkia. Egunen batean, multzo-atzizkien konparazio-taula prestatzen denean, argi ikusi ahal izango da irizpide horren arabera atzizki batzuek eta besteek beren artean duten diferentzia eta antzekotasuna zenbatekoa den.

V.3. Zer leku dagokio *alde*-ri, marko horretan?

Aniztasun- eta multzo-atzizkiez esan dugun zenbait gauza zuzen-zuzen aplikatu liteke *alde* elementuaren (are, *-alde* atzizkiaren) kasuan. Beti, ordea, ez. Zer du *alde*-k, gainerakoen pareko? Zer du berezi? Bi galdera horiei erantzun nahi zaie, hurrengo punturako bidea zabaltzeaz gainera, honako atal honetan. Morfema horren azpi-adierak analizatuko dira horretarako, batetik. Bere erabilera-eremu nagusiak aztertuko, bestetik. Goazen puntuz puntu.

¹⁰⁰ Egon ere, kasu konkretu honetan, motibo horixe dagoela uste dut.

¹⁰¹ Ez da erraza, horrelako adibide asko topatzea. Ez da erraza, gainera, topatutako adibide posibleak besterik gabe ontzat ematea ere: *arantzazu*.

¹⁰² *-(t)eria* multzo-atzizkiak (*gazteria* etab) ez du, dakigularik, beste multzo-atzizkiekin konbinatzen. Motiboa ez dago niretzat argi. Azken ordukoa izateaz gainera berreratorpenaren beharrik ez duen ezarpen-eremu mugatukoa delako?

¹⁰³ Erabilera-eremuaz zer esan nahi den jakiteko, ikus txosten honetako V.3.2 atala.

¹⁰⁴ Baina ikus, dena dela, aurrerago (V.3.2 atalean) atzizki horren fitonimia-izaeraz esaten dena.

V.3.1.-Lehen eta oraingo -alde morfemaren azpi-adierak

Aniztasun- eta multzo-adierazle garbia izanik ere hainbatetan, ikusi berria dugun *-di* atzizkiak bezala azpi-adiera bat baino gehiago du *-alde* atzizkiak edo morfema lexiko-sortzaileak. Multzo-adiera nagusi horren baitan azpi-adiera jakinak ditu, batetik, eta multzo-adierarik gabe ageri da zenbaite-tan, bestetik. Aurreko puntuan *-di* atzizkia aztertu denean, bi azpi-adiera berezi dituela ikusi da: multzo-adiera hutsa batetik (*-di*₁), eta multzo-adieratik eratorritako leku-adiera (multzo hori dagoen, multzo horrek okupatzen duen... *lekua*) bestetik (*-di*₂).

Nola dira kontuak *-alde* atzizkiarekin, *-alde* morfema lexiko-sortzai-learekin? Azpi-adiera bi al ditu *-alde* atzizkiak ere? Ez: azpi-adiera bi baino gehiago ditu *-alde* atzizkiak. OEHko eta AVko adibideak oparo aztertu ondoren, eta adibide berriekiko kontraste-lanerako AA erabilia, lau azpi-adiera antzematen zaizkio *-alde* atzizkiari: hiru azpi-adiera zahar edo ohiko, batetik, eta laugarren azpi-adiera, ondotoz berriagoa, bestetik. Kasu honetan ere posible da, *-di* morfemarekin egin den bezala, azpi-adiera nagusien oina-rrizko ekuazioak ematea. Konkretuki, ondoko ekuazio moduen bidez defini litezke, nire ustez, *-alde*-ren lau azpi-adiera horiek.

a) Lehen adiera (*-alde*₁)

<i>A-alde</i> ₁	=	<i>A asko, A-multzoa</i>
----------------------------	---	--------------------------

Goiko adibidearekin konparatuz, *-di*₁ atzizkiaren pare-parekoa da, semantikari dagokionez, *-alde*₁. Beste era batera esanik, Ak determinaturiko *multzoa* adierazten du *-alde*₁ morfemak. Azalpen-saio teorikoei dagokienez, atzizkiaren jatorrizko adiera *-alde*₁ hori dela esan izan da inoiz¹⁰⁵. Laster ikusiko dugunez, *alde*₁ adiera nahiko ugaria da *A-alde* hitzaren enborra biziduna denean (*gizalde*, *jendalde*, *haurralde*, *urdalde*, *artalde*, *ahuntzalde*...). Diskutigarriagoa da bere ugaritasuna, aldiz, bestelako esparru semantikoetan. Halakoetan ere ez da, ordea, adibiderik falta¹⁰⁶. Aurreraxeago helduko diogu gai horri.

¹⁰⁵ Gogoratu R. M. Azkuek esana: “**Originariamente** nombre sustantivo, <<grupo, rebaño>>, que en su evolución a la categoría de sufijo y al retrotraerse a su primitiva categoría ha quedado convertido en *talde*”(bi hitzak nik neuk belztuak).

¹⁰⁶ *Aralde* hitzak aparteko trataera behar luke, alde horretatik.

b) Bigarren adiera (-alde₂)

A-alde₂ = A *asko*, A-*multzoa* dagoen (duen...) *lekua*

Goiko adibidearekin konparatuz, gauza bat dago argi: -*di*₂ atzizkiaren pare-parekoa dela -*alde*₂. Beste ere batera esanik, A-*multzoak* determinaturiko *lekua* adierazten du -*alde*₂ atzizkiak. Atzizki hori ere ugaria da, aniztasun- edo multzo-adierako hitz eratorrietan.

Fitonimoetan, bereziki, azpi-adiera horixe da espezialista askorentzat ugariena¹⁰⁷. Multzo horretan sar daitezke, horren arabera, *pagalde*, *gaztainalde*, *gorostialde*, *lizarralde* eta *larralde* moduko adibide praktiko gehienak. Azpi-adiera horrek ez du zergatik fitonimoetara mugatua egon, halere. Aurrerago ikusiko dugu hurbilagotik zenbait adibide, azken irizpide horren bermagarri.

Garrantzitsua da gogoan izatea, hitz batek (*pagalde*, *lizarralde*...) ez duela nahi eta nahi ez azpi-adiera batekoa edo bestekoa izan beharrik: kasu batzuetan azpi-adiera batekin joka dezake hitz horrek eta hurrengo batean bestearekin. Gorago ikusi dugunez, *pagadi* diogunean *pagadi*₁ dugu batzuetan aipagai, eta *pagadi*₂ besteetan. Sarrera lexikal, lexema edo hitz bakarra da *pagadi* (ikus OEH, XIII: 811-2). Hitz bakarra izanik ere azpi-adiera bi ditu, gorago ikusi dugunez: *di*₁ eta *di*₂. Testuinguruak argitzen digu, gehienetan, zein azpi-adiera dugun une horretan kontuan hartzekoa.

Halatsu gertatzen da hitz-bukaeran, nire ustez, -*alde* morfema lexiko-sortzailea daramaten eratorpenekin ere. Oso litekeena da, aurrerago emango diren datuen argitan, *alde*₂ modukotzat ematen dugun hainbat eratorpen *alde*₁ modukoak ere izatea. Litekeena da gaur hala izatea edota, gaur hala ez balitz ere (eta hori ez dago frogatua), behinola hala jokatu izana. Funtsezkoa da puntu hori, toponimian eta ikerketan ari direnentzat bereziki¹⁰⁸.

Bukaeran -*aga* edo -*eta* daramaten aniztasun- edo multzo-hitz zahar askoren kasuan ere antzeko fenomenoak gertatu dela pentsa liteke: *larrainaga*

¹⁰⁷ Besterik da, aldiz, euskal fitonimoetako -*alde*-ren adiera *alde*₂ modukoa ote den beti. Aurrerago helduko diogu gai horri.

¹⁰⁸ Dokumentazio zabal eta kontrastatua falta zaigu, oro har, hipotesi hori zeharo frogatzeko edo gaitzesteko. Bien bitartean, hipotesitik harantzago ezin pasa gaitzke puntu horretan. Aurrerago jardungo dugu hipotesi mailako azterkizun horietaz, *iturralde* adibideari heltzean.

edo *larraineta* modukoetan argia dirudi jatorrizko aniztasun-adierak. Argia dirudi kasuan kasuko deklinabide-atzizkiak gogoan izanik, eta argia exokomparazioz, erdal *Las (H)eras* deitura kasualitate huts kontsideratu nahi ez bada behintzat. Gaur egun bistan da, nolana ere, “ha ido a las eras” esaten denean leku bat dugula gogoan: ezer egotekotan *-aga₂* edo *-eta₂* baten gisako azpi-adiera legoke hor ere, hortaz¹⁰⁹.

c) Hirugarren adiera (*-alde₃*)

<i>A-alde₃</i> = Ak determinaturiko B-multzoa
--

Esplizituki ez dut inon *-alde₃* horrela definitua ikusi. Ez da erraza, gainera, *alde₃*-ko adibideak berehala bilatzea. Lehendik halako sistematizaziorik egin gabe dagoenez, hitzak hiztegieta banan-banan arakatzuz jardun behar izan da horretarako. Hartan saiatu naizelarik, hiztegieta (kasu honetan, OEHko) definizioek edo azalpen osagarriek hartarako bide ematen dutela iruditu izan zait eta horregatik, azterlan enpiriko zabalagoaren premian badago ere kontua, berariaz aipatuko da hemen *-alde₃* azpi-adiera¹¹⁰.

Sei adibide emango dira hemen, OEHko arakatzeko lan horren emari:

- c1) *artalde*. OEHko bigarren *artalde*-az ari gara hemen (hots: *arto*-tik datorren *artalde*-az, ez *ardi*-tik datorrenaz). Bigarren *artalde* horrezaz ari delarik, honako definizio hau ematen du *Orotariko Euskal Hiztegiak* (OEH, II, 716): “*conjunto de los campos sembrados de maiz*”(beltxa nirea). *Multzo* batez ari da beraz, esplizituki, atzizkia eratorpeneko mugatzailea (lexema edo, behialako terminologian, hitz-enborra) *arto* delarik.
- c2) *galalde*. Sarrera lexikal honetaz ari delarik, aurrekoaren bide beretik doan definizioa ematen du OEHk (VIII, 243): “*conjunto de campos donde se ha sembrado trigo y cereales*” (oraingoan ere, beltxa nirea).

¹⁰⁹ Bada horren alde letorkeen definizio konkreturik, OEHn bertan. Esate baterako, *osinaga hitza* honela definitzen du Larramendik (ikus OEH, 676): <<los parajes profundos y frecuentes del río>>. Antzera H << Lieu où les gouffres, les tourbillons, les précipices sont fréquents>>. Beraz, “lugar frecuente”. Hots, aniztasuneko *-alde₂* atzizkiaren pareko *-aga₂* adibidetzat har litekeena.

¹¹⁰ Azterlan hori ez da hain bideragaitza, OEHren trataera informatizatuaz baliatu ahal izanez gero. Eskuz eta haztamuz egindako saioa da hemengo, eta konprobazio zehatzago baten beharrean dago beraz.

Multzo batez ari da hortaz, hemen ere, *-alde* atzizkia. Aurrekoan *arto* bezala, *gari* da oraingoa hitz-enborra edo lexema. Argiago esanik, *gari* hitzaren eratorpenezko aldaera ezaguna.

Kontura gaitezen, goiko bi adibideotan ez dela (aurreko guztietan bezala) *A-multzoa* aipatzen, *A*-k determinaturiko *B-multzoa* baizik: OEHko definizioaren arabera *artalde* ez da arto-multzoa, eta *galalde* ez da gari-multzoa, artoa edo garia ematen duen *lur-saila* edo “conjunto de campos” baizik¹¹¹. Xehetasunak xehetasun, eta ez dira xehetasun tipiak, “conjunto de campos” hori *multzo*-adierakoa da, argi eta garbi.

- c3) Bada beste adibiderik ere OEHn, esplikazio korapilotsuagoa eskatu arren *-alde₃*-ren erakusle izan litekeenik. Lehenengo adibide osagarria, konkretuki, *elizalde* da. Hona OEHk zer dioen: batetik <<cercanías de la iglesia; lugar próximo a la iglesia (generalmente en casos locales de declinación)>>; bestetik, berriz, <<barrio de la iglesia, parroquia>>.

OEHk lehen esplikazio moduan emandako <<cercanía>> eta <<proximidad>> horiek posposizio huts dira adibide praktiko askotan, agian gehienetan¹¹². Besteetan, alderdi- edo parte-izen arrunt: hots, gorago (III.1 puntuan, a2) atalean) aztertu ditugun modukoak. OEHren bigarren esplikazioa, aldiz, *-alde₃*-ren adibide paradigmakoa dugu. Elizak (eliza bakar batek seguruenik, ez elizek edo eliza askok) etxe-multzo edo populazio jakin bat determinatu (nukleatu) du menderik mende, eta eliza horrek determinaturiko etxe-

¹¹¹ Egia da ordea, guztiarekin ere, *arto asko*, *gari asko* adiera ere nolabait bizirik dagoela batean zein bestean: arto asko emango du (urtea oso txarra ez bada) *artaldeak*, eta gari asko *galaldeak*.

¹¹² Kontuz ibili behar da *-alde₂*, edo *-alde₃*, itxurako “eratorpen” askorekin. Horiatariko asko ez dira, izan ere, ez *-alde₂*, ez *-alde₃*, eta ez beste inolako *-alde* morfema lexikogenetiko, gorago (III.2 puntuan) aztertu diren posposizio hutsak baizik. Hiztegitan, Azkuegandik hasi eta OEHraino, nahaste handi samarra ageri da puntu horretan. Horrela, *alde* elementuaz ari delarik honako adibideok ematen ditu OEHk (VI: 579): “Leaburuko elizan ta *elizaldean*” (A Ardi 128); “*Eliz-aldera* inguratu (Muj PAm 65)”; “*Eleiz aldera* dijua (Alz Ram, 47)”. Beste horrenbeste gertatzen da beste alde dbatzuekin ere: “Ibai aldera joan giñean aita ta biok” (Osk Kurl 124 in OEH, xx103); “Ithurri alderat badoa” (Ox 198); “Bazekiten iturri-aldera egiten” (N Etx Antz 152). Posposizioak dira horiek, ez eratorpenezko lexema hutsak, eta aparteko trataera zor zaie hortaz. Dugun xedea kontuan izanik alde batera utz liteke, beraz, *-alde* atzizkiko zenbait sarrera lexikaletan OEHk dakarren leku-adiera hori.

multzoari edo populazioari (hots: parrokiari)¹¹³ *elizaldea* (gaztelaniaz *anteinglesia*) deritzo. >>. Bigarren kasu horren adibide moduan, honako hau ematen du OEHk: “Nolako *elizalde*, alako abade” <<Qual la anteiglesia (=parroquia), tal el abad>>(OEH, VI: 579; RIs 60).

Ba al da adibide gehiago, *-alde*, moduan interpreta litekeenik? Bai: ondoko hiru adibideok, konkretuki, *elizalde*-ren sail berekoak dira ene ustez. *Etxalde*, *bordalde* eta *olalde*.

Sei adibide xume eta ez oso ezagun lagungarri ahula (ahulegia) direla esan dezake hainbatek, azpi-adiera bati bere lekua aitortzeko. Arrazoi du halakok, parte on batez. Ez erabat, ordea. OEHren azterketa exhaustiboa egin arte ezin da esan, hasteko, *-alde*, moduko hitz eratorriak asko ala gutxi diren: azterketa egin ondoren, ez horren aurretik, juzkatu beharko da azpi-adiera honen hedadura eta pisua zenbatekoa (izana) den. Bitartean, egon hor daude adibideak, iturri seguruak dira itxuraz eta dauden-daudenean aintzakotzat hartzea da bide zuhurra, ez gutxi direlakoan ez ikusiarena gitea¹¹⁴.

d) Laugarren adiera (*-alde*,)

A-*alde*, = A-*lekua*, Ak determinaturiko *lekua*

Aurrekoen (batez ere *-alde*,₂-ren) deribazio modernoa da, itxuraz, laugarren azpi-adiera hau. Modernoa eta ugaria, ohiko hizkera molde arruntan.

¹¹³ Maria Moliner-en hiztegiaren arabera, Galiziako bereizgarria alde batera utzita lau adiera ditu *parroquia* hitzak gaztelaniaz. Ondoko lau adiera hauek, konkretuki: 1) iglesia que tiene a su cargo administrar los sacramentos a los fieles que habitan en determinado territorio o distrito. 2) Feligresía. El territorio, los fieles o ambas cosas juntas de cada parroquia. 3) Clero de una parroquia. 4) Clientela. Garbi dago lau adieretatik hiruk multzo-adiera dutela berekin, partez edo osoz. Laugarrenak (zerrendako lehenak), aldiz, eraikin- edo leku-adiera jakina du. Zein adiera den zaharrago, eta zein berriago, on litzateke jakitea. Jatorrizko adier(ar)en bila hasten bagara, horra Joan Corominas-ek bere hiztegian (1987: 442) zer dioen: “Parroquia: tomado del latín tardío *parochia*, y éste del gr. Paroikía “avecindamiento”, derivado de pároikos “vecino”. Lekuak baino areago *auzo-multzo* adierak dirudi beraz, etimologia aldetik, gailen.

¹¹⁴ *elizalde* aztertzen denean, badago motiborik dudatzeko *ugalde* edo *uralde*, *la(t)salde* etab. ez ote diren sail berekoak.

Hau da askogatik, *-alde*₂-ren ondoan, gaur egun gure artean bizienik dagoen adiera. Hau da, era berean, betiko *-alde* atzizkiak leku-adierakotzat hartzera bultzatzen gaituena maiz, Azkueren garaitik esan izan dena alde batera utziz. Horrelakoak dira, esate baterako, puntu kardinalak (*iparralde*, *ekialde*, *hegoalde*, *mendebalde*) eta hainbat posizio-adierazle: *kostalde*, *industrialde*, *zonalde*, *erdialde*¹¹⁵, *merinalde*¹¹⁶, eta abar. Multzo honetan sartzekoa gerta liteke, orobat, *orrialde*¹¹⁷.

Labur bilduz

Oinarriko perpaus-eskemaren ardatzera mugatuz, lau azpi-adiera antzematen dira (*-alde* elementuaren baitan, eta bere mugatzaile-mugakizun sekuentzia honela eman liteke:

<i>A-alde</i> ₁	=	Ak determinaturiko <i>aniztasuna</i> edo <i>multzoa</i>
<i>A-alde</i> ₂	=	<i>A askok</i> , <i>A-multzoak</i> determinaturiko <i>lekua</i>
<i>A-alde</i> ₃	=	Ak determinaturiko <i>B-multzoa</i>
<i>A-alde</i> ₄	=	<i>A-lekua</i> , Ak determinaturiko <i>lekua</i>

Lau kasuetatik hiru, lehenengo hirurak hain zuzen, aniztasun- edo multzo-adierazleak dira. Laugarren kasua berriagoa da itxuraz eta, ohiko zati- edo parte-elkarteak eta lexiko-sorkuntzaren alorretik kanpora aztertzeak diren posposizioak alde batera uzten badira, aniztasun- edo multzo-adierarik gabea da berez: egia da *industrialde* kasuan *industria asko*, *industria-multzoa* interpreta litekeela, baina ez da hori joera nagusia: *orrialdean* ez dago *orri asko*, *zonaldean* ez dago *zona asko*, *erdialdean* ez dago *erdi asko* eta *merinaldean* ez dago *merio asko*.

Azkueren sekuentzia kronologikoari eutsiz, eta *OEHn* zein *AVn* aurkitu ditugun kasuak banan-banan aztertuz, honako esplikazioa ikusten zaie *-alde* adierazlea duten hitzei: *-alde*₁-en zabalkuntza semantikoa da *-alde*₂. Adiera horien deribazio edo aparteko eramoldea da, bestalde, *-alde*₃. Apartekoa eta,

¹¹⁵ Posposiziozko kasu argiak alde batera uzten badira XX. mendekoa (Yon Etxaiderena) da *OEHn*, itxuraz, horrelako lehen adibidea (*OEH*, VI: 812).

¹¹⁶ Ikus, adibidez, *Adorez Zazpi* 1996: 480.

¹¹⁷ Ikus *OEH*, XIII: 629-30. XIX. Mende-amaieratik aurrera ageri da *orrialde* hitza hantzen (batez ere hemen, hegoaldean) ugari.

hainbatean, azken ordukoa dugu, aitzitik, *alde*. Hirugarren azpi-adierako sei adibide horiek gutxiegi direla edo duda-mudazkoak direla irudituko balitzαιο inori, beti legoke modua sei adibide horiek *alde*₁-en edo *alde*₂-ren azpimultzotzat hartzeko. Lau azpi-adiera ordeztu hiru izango genituzke, baina batez besteko panorama ez litzateke asko aldatuko. Lehenengo bi kasuek aniztasun- edo multzo-adierazle izaten jarraituko lukete (*di*₁ eta *di*₂-ren pare-pareko adierakoak, hain zuzen), eta azken kasuak (leku-adiera hutsekoak) berria edo berri-berria izaten jarraituko luke.

Labur bilduz: multzo- eta aniztasun-adierak barne-bereizkuntza nabariak dituela azaldu nahi izan da atal honetan. Erabilitako corpusa xehekiro aztertzen saiatu ondoren, adibide gehien-gehienak hiru azpi-atal diferentetan koka litezkeela konprobatu da. Ikusmolde horren haritik definitu dira, hain zuzen, *-alde*₁, *-alde*₂ eta *-alde*₃ adiera-moldeak. Corpus ia osoari azken orduko erabilera moduak gehitu zaizkionean, *alde*₄ atzizkia erantsi behar izan zaio.

Ñabardura xeheak, kasik hutsalak eta hainbatean diskutigarriak, irudituko zaizkio bereizkuntza horiek zenbaiti. Bistan da semantikaren alorra oso dela irristakorra, eta kasu hau ezin da arau nagusi horretatik alden. Bere ahuldade guztiakin ere, zatiketa hirukoitz/laukoitz hori gure kontuak argitzeko lagungarri gerta litekeela dirudi.

Bere aplikazio-esparruak ez du, gainera, zergatik etxean gelditu. Europako zenbait hizkuntzarekin, auzo-hizkuntza erromaniko nagusiekin eta hizkuntza germanikoekin besteak beste, tradiziozko zatiketa laukoitz horren konparazio-gunerik ezartzea ez da erabat ezinezkoa. Goraxeago, *-eria* atzizkiak jardutean, gaztelaniaz *-eria*₁ eta *-eria*₂ artean erraz bereiz litekeela ikusi dugu. Ez litzateke hain zaila, hartarako denbora izanez gero, hortik aurrera ere egitea¹¹⁸. Gauza bat dago, nolana ere, alor honetan argi: *-alde* atzizkiari leku-adiera bakar zurruna emanez ezin da euskal hitz (batez ere ohiko hitz-al-

¹¹⁸ Aski da Maria Molinerrera joatea, *-eria* atzizkiari gaztelaniaz ere barne-adiera jakinak dagozkiola antzemateko. Horrela, eta bere hitzetan esanik, “*-eria*: sufijo equivalente a *-ía* con que se forman nombres abstractos, de abundancia, cualidad, conjunto o lugar donde esta se hace o se vende una cosa” Alde handiak baditu ere zenbait aldetatik (batez ere *-ero* modukoetatik sortua delako erdal *-eria* hori) antzeko ezaugarriak ere nabarmenak dira oso. “Nombres de *abundancia*, cualidad, *conjunto* o *lugar*” dira horiek. Kualitate kontuak alde batera utziz, egunen batean *-tza* eta *-(g)oa* aztertzen ditugunerako, zaila da elkarren artean paralelismo handiagorik bilatzea.

txorreko eta toponimia zaharreko euskal hitz) askoren esplikazioan oso aurrera egin. Leku-adierakotzat hartzen diren *alde* bukaerako hitz askotan leku ez baina alderdi-, zati- edo parte-adiera du, berez, *alde* horrek. Hori edo, are nabarmenago, posposiziozko ñabardura erantsia. Horrezaz gainera, aniztasun- edo multzo-adiera dute aspaldiko eratorpen gehienek, multzo-izaera hori aski diferentea izan litekeelarik. Bakoitzari berea zor zaio, horretan ere. Atzizkiaren multzokarizko azpi-adiera horiek kontuan hartzea mesedegarri da, horregatik, errealitate bakoitzaren ezagutza xeheagoa eskuratu ahal izateko.

V.3.2.- *-alde atzizkiaren erabilera-eremuak*

Zer erabilera-eremu ditu, nagusiki, *-alde* atzizkiak? Zein ageri dira ohiko hitz-altxorrean eta aspaldi bateko toponimian? Zein ageri dira, aldiz, lexikoberrikuntzaren ildotik azken mende t'erdian eratu diren neologietan edota zabalkuntza semantikoetan? Errazenetik hasiko gara: *OEHk* (ohiko hitz-altxorri dagokionez) eta *AVk* (toponimo zaharretarako) biltzen duten *corpus* tradizionalen oinarrituko gara, eta horietatik abiatuz aniztasun- eta multzo-adierako *-alde* atzizkiaren ohiko erabilera-eremu semantiko nagusiak egituratu eta banan-banan azaltzen saiatuko¹¹⁹. Bere pareko atzizki batzuen aipamen xumean oinarrituko gara, azterketa horri ekiteko: *-di*, *-te* eta *-tza* atzizkietan hain zuzen.

Gorago ikusi dugunez, landare-eremuan erabiltzen da *-di* atzizkia, ia huts-hutsik¹²⁰. *-te* eratorpen-atzizkiak, berriz, aldi- edo aro-adiera du gehienatan berekin¹²¹: *lehorte*, *elurte*, *eurite*, *urte*; *gosete*, *izurrite*, *gerrate*. Ondotxo erabilera-eremu zabalagoa du, bestalde, *-tza* atzizkiak: aniztasun- eta multzo-adierazleei dagokienez landare-izenetan ageri da batetik (*artatza*, *lizartza*, *otatza*, *belartza*), mendi-haran eta lurrazal-izenetan bestetik (*aibertza*, *gaintza*, *harritza*, *legartza*, *hondartza*, *hareatza*), eraikin-izenetan hurrena

¹¹⁹ Aparte tratatuko ditugu, hortaz, neologietako alde atzizkidun hitzak eta beren erabilera-eremuak.

¹²⁰ Inoiz esan izan dena, *-di* atzizkiak fitonimoetarako bakarrik balio duela, ez da egia osoa: ez orain (*Euskaltzaindi*, *araudi* eta *gaztedi* modukoak eraginez) eta ez lehen: *Alberdi* (<*Harbeldi*) eman izan da erabilera-eremu zabalago horren lekuko, eta Ubillosen-eta *umedi* modukoak alde batera utziaz ere ez da agian bakarra. Gezur handia ere ez da ordea, adibide konkretuei dagokienez, landare-esparruko espezializazio kontu hori.

¹²¹ Hots, denbora-aldia edo garaia adierazten du batetik, eta eguraldia bestetik.

(*etxetza, igaratza, olatza*¹²²: *erretolatza, betolatza, arabaolatza, eziolatza, olatzagutia*) eta orotarikoetan azkenik: *dirutza*¹²³.

Zer-nolako erabilera-eremuetan ageri da multzo- eta aniztasun-adierako *-alde* atzizkia? Ondoko sei eremuotan ageri dira, normalean, *-alde* bukaera duten multzo- edo aniztasun-adierako hitz eratorri gehienak: orotarikoetan; bizidunen artean (gizaki eta abere); fitonimoetan (landaretza); mendi-, haran- eta lurrazal-izenetan; hidronimoetan eta, azkenik, gizakiak eginiko eraikinetan. Ikus ditzagun seiak, zenbait adibideren laguntzaz. Esan bezala, adibide gehienen iturria Mitxelenaen *Apellidos Vascos* da batetik, eta *Orotariko Euskal Hiztegia* bestetik.

a) orotarikoetan:

Zenbait adibide: *zaialde, hirinalde (hariñalde), bibi-alde, mahats-alde, bertso-alde, zorralde*

b) bizidunen artean (gizaki eta abere):

– Gizakietan: *gizalde, jendalde, lagunalde, aingerualde, fraidealde, fededun-alde, haur-alde,*
– Animalietan: *artalde, behialde, ahuntzalde, urdalde, txerrialde, antzualde (borregada), txit(o)alde,*

c) fitonimoetan (landaretza-azalpena):

Zenbait adibide: *artalde (arto-tik, ez ardi-tik edo arte-tik), galalde (gari-tik), gaztainalde, gorostialde, larralde, lizarralde, pagalde, sagaralde eta zumalde.*

d) mendi-, haran- eta lurrazal-izenetan:

Eratorpen horien enbor-hitz nagusiak *mendi, haran, gailur, haitz, harri, legar* eta *are(n)a* ditugu. Hona zenbait adibide: (*h*)aitzalde,

¹²² Baina ez, eta kontuan hartzekoa da hori ere, *bordatza, saroitza, salatza*. Hipotesizko *kortatza*-k ba ote du loturarik *kortaxa, kortaja(rena)*-rekin?

¹²³ Horrezaz gainera ugaria da atzizki hori, ezaguna denez, abstrakzio-adierazleetan ere: *agintaritza, alkatetza, erretoretza, artisautza, nekazaritza, morrontza; laguntza, bizitza...* Abstrakzio-adierarekin loturik daude, ingelesez, Marchandek “state, rank, order, condition, character” atalean sartzen dituen *-hood* modukoak (1960: 232), *-ness* atalekoak (1960: 271) edota *-ship* alorrekoak (1960: 281). Ikus orobat Tietze o. A., 1974. Antzeko parekotasunak bila litezke gaztelaniaz (Moliner: 1982), frantsesez (Wandruszka: 1976), alemanez (Fleischer: 1975) eta abar.

(*h*)*arralde*, *mendialde*, (*h*)*aranalde* (cf. *haranaga*), *gailurralde*, *arenalde* (cf. *hareatza* eta *arenaza*), *legarralde*, *aialde* eta *harrialde*.

e) hidronimoetan:

Zenbait adibide: *uhalde* (*ugalde*,...), *la(t)salde*, *errekalde*, *iturralde*, *osinalde*, *urbialde* (cf. *urbietea*). Ikusten denez, eratorpen horien hitz-erro nagusiak *ur* (*uh-*, *ug-*,), *itur*, *lats*, *erreka* eta *osin* dira.

f) eraikinetan

Kasu honetan *etxe*, *ola*, *borda*, *eihera*, *errota*, *labe* eta *zubi* ditugu eratorpen horien hitz-erro posibleak¹²⁴. Hona zenbait adibide: *etxalde* (*etxalte*), *olalde*, *bordalde* (*bordalte*), *eiberalde* (*eiberalte*), *errotalde* eta *labalde*¹²⁵.

Berrogeita hamar adibide inguru badira zerbait, atzizki jakin bati kopuru aldetik bere atzizki-*statusa* aitortzeko. Kopuru hori txikia dela esango bagenu, euskarak ia atzizkirik ez duela ondorioztatu beharko genuke¹²⁶. Ez dirudi ondorio zuhurra. Demagun, beraz, segurutzat har litekeela atzizki hau, kopuruaren aldetik bederen.

Ez da kopuru kontua, ordea, *-alde* atzizkiari aniztasun- eta multzo-atzizkiaren *statusa* aitortzeko orduan hainbatetan ageri ohi den eragozpen nagusia. Besterik izan ohi da, aitzitik, duda nagusia: noraino eman liteke frogatutzat, aniztasun- edo multzo-adierako hitz eratorriak (edo elkartuak) direnik *-alde* bukaerako horiek? Hori da, dudarik gabe, gaurko argudio-bide osoaren behaztopa-harri nagusia. Gatozen beraz, besterik gabe, aldeko frogantzak eta kontrako argudioak aurrez aurre haztatzen.

¹²⁴ Adierazgarria da, alde horretatik, *sala* eta *korta* ez direla zerrenda horretan ageri: *salalde*, *salarte*, *salagibel*, *salaondo*, *salaurre*; *kortalde*, *kortarte*, *kortagibel*, *kortaondo*, *kortaurre* eta antzekoak ez dirudi inon ageri direnik: ez maiz asko, behintzat. *Salaberri*, *kortabarri* eta *salazar*, *kortazar* modukoak besterik dira, jakina. Baluke bereizkuntza horrek ondorio kronologiko eta soziohistoriko argigarririk. Orain ez gara xehetasun horiek aztertzen ari, ordea, eta beude hortaz bere horretan.

¹²⁵ Azken bi kasu hauek dudazkoak iruditzen zaizkit. Litekeena da leku-ardatzeko alderdi-, zati- edo parte-elkarteen sailekoak izatea. Azterkizun gelditzen da puntu hori.

¹²⁶ Aditzak sortzeko *-tu*, izaera abstraktuak sortzeko *-tasun* (*-keria*), ekintza adierazteko (*keta*, *kuntza*, *era* edo *te*) eta adjektiboetarako *-kor*, *-koi* eta *-ti* izan ezik, gutxi dira *alde* hori baino dokumentatuagoak. Hori lehenari so. Azken ordukoetan, orobat, aurreko horiez aparte gutxi dira *-alde*₄ bezain emankorrak.

V.3.3.- *Ebidentzia dokumentala. Bateragarritzko argudio-bideak*

Kasu batzuetan oso argi dago, eguna baino argiago, multzo- eta aniztasun-adierako hitz eratorriak edo elkartuak direla horko hainbat. Hala gertatzen da, bereziki, aurreko ataleko a) eta b) pasarteetan ageri diren adibideekin: orotariko adibideei eta bizidunei dagokienez, multzo-adierako hitz eratorriak edo elkartuak dira horiek guztiak. OEHren kontestuak berak aski sostengu argirik ematen du horretarako, hiztegi-gileek beraiek horrelaxe definitu izanaz gainera. Hor ez dago eztabaida handirik, beraz: multzo-elkar-teen korrelato zuzena da *A-alde* moduko eratorpen-sail hori¹²⁷.

- a) Orotarikoetan, ikus adibidez Duvoisin-en “biltzen dituzte guk ez-bezalako *bibi-aldeak*” (Lab, 131). Ikus orobat, hitz-moldaera honen hedadura geografikoa zabalduz, Zaraitzuko *zorralde*: “cúmulo de deudas”(OEH, XVI: 860, 904). Adibide horietan ez dago, bistan denez, leku-usainik txikiena.
- b) Bizidunen artean (gizaki eta abere), adibideak asko dira. Bai adibide zaharrak eta bai berriagoak, bai prosa landukoak eta bai aho-hizkera jatorretik hurbilago daudenak. Azken hauei gagozkiela, “norbaitek gustuko *pertsu alde* bat irakurtzen badu” zioen Xalbadorek, *Odolaren mintzoan*, eta aurreraxeago “harat biltzen denean gure *haur-aldea*”. Esaldi horiek aurrean ditugula, bistan da multzo-adiera garbiko eraikuntzaz ari dela bietan: multzo-elkarte molde batez, ez leku-edo zati-usaineko hitzartez. Nolanahi ere, eta hori dugu atal honen xede nagusia, eratorpen-atzizki zein hitz-elkarte izan begien bistan da multzo-adiera garbiko lexemak jaulki direla hor, Urepeleko artzainaren ezpainenetik. Beste horrenbeste esan liteke Polikarpo Iraizozen erabileraz, honako esaldi honetan: “*Yende-alde*¹²⁸ guziak ere, ori ikusirik, Yainkoa goraiatu zuen”(YKBiz 366).

¹²⁷ *Zamari-jendea, mando-jendea, asto-jendea* bezain multzo-adiera du *A-alde* horrek. Kasu konkretuotan erraz da antzematea, behinolako hitz-elkarte mota bizi eta emankor baten azken arrastoen aurrean gaudela. Eratorpenez hitz egitea zilegi da horrelakoetan, *artalde* moduko adibideetan hizkuntzalarietatik kanpora inor gutxi *alde* horren (konkretuki: bi artalde desberdin horien) autonomia lexikalik antzematen duelako eta, gainerako kasuetan ere, autonomia hori azpieuskalki jakinera mugaturik dagoelako. Hizkuntza bera diasistema dela onartzen den neurrian, ordea, bistan da sailkapen hori aski diskutigarria dela.

¹²⁸ *Jendalde*-ren definizioa honela ematen du OEHk: “grupo de gente, multitud”. Nekez bila liteke, multzo eta aniztasun adierako hitz eratorri argiagorik.

Pertsonekikoan argi badago kontua, are argiago dago multzo-izaera hori abereekikoan. Ikus adibidez, gainerakoan argigarri, *urdalde* sarrera lexikaleko hainbat argibide: *Urdalde*, piara de cerdos. Balioki-deak: *urde-multzo*, *urde-saldo*, *urde-tropa*, *txerri-talde*.

Labur bilduz, argi dago multzo- eta aniztasun-adiera argia dutela, oro har, a) eta b) saileko adibideek. Goiko sailkapenaz baliatuz, a) eta b) saileko adibideek *alde₁* adiera dutela esan liteke oro har¹²⁹.

Zer gertatzen da, ordea, c), d), e) eta f) sailtakoekin? Hor ez dago aurreko bi sailetan bezalako oinarri dokumental zabal eta argirik, aldeko zein kontrako baieztapen sendorik egin ahal izateko. Toponimoetan, bereziki, lan zaila da adiera-finkapen hori. Zaila izateak ez du esan nahi, ordea, ezinezkoa denik. Ez da egia, aurrerago ikusiko denez, erabilera-eremu horretako adibideen artean inolako ebidentziarik ez dagoenik. Badago horietan ere zenbait ebidentzia eta, ene ustez, multzo-adieraren (hiru multzo-adiera posibleetako baten edo besteren, gehienetan *alde₁* edo *alde₂* adieren) alde mintzo dira ebidentzia kontrastatu gehienak. Ebidentzia dokumentalik ez dagoen (zuzenago esanik, aurkitzera iritsi ez naizen) kasuetan, berriz, behin-behineko izaeraz izango bada ere bateragarritzko argudio-bidea eskain daiteke. Ikus dezagun nola.

c) moduko adibideak (fitonimoak)

artalde (*arto*-tik, ez *ardi*-tik) eta *galalde* (*gari*-tik) kasuetan, OEHk dioenaz *-alde₃* da bertako adiera. Hots, Ak determinatzen duen *B-multzoa*. Gainerakoetan (adibide gehienetan: *gaztainalde*, *gorostialde*, *larralde*, *lizarralde*, *pagalde*, *sagarralde*, *zumalde*...) ez dago, gaur-gaurkoz, ebidentzia dokumental argirik *-alde* mota baten edo bestearen alde. Orain arteko bilketaren arabera, *-alde₁* eta *-alde₂* dira esplikatzeko errazena eta gainerako adibideekin bateragarrienak. Hots, ikusmolde

¹²⁹ Nahi adina adibide eman liteke, irizpide horren alde. Ikus esate baterako, OEHtik jasotako banaka hauek: *Urdalde*, *urde-alde*, *urde-multzo*, *urde-saldo* *urde-tropa*, *txerri-talde* <<piara de cerdos>> OEH, 795. “Bil zedin jendalde bat” Lç Act 2, 6. “Jarreiki zekion jendalde bat” Lç Mt 122, 15. “Yendetze handi” TB. “Ate-ondoan deadarka dagon Yendalde bekatariari” Or Mi 145 (Eus 235 jende-aldi). *Artalde* OEH, 715 (Rebaño de ovejas, manada de ganado, troupeau de brebis, carnerada, aprisco,..). “Artaldetako bildotsik gizenenak”, “Hi haiz gure artzaina, eta gu hire arthaldea”. *Gizalde* OEH, 612. *Jendalde* OEH, 207. (*jendaldi*; *jendaki*) (grupo de gente, multitud, troupe de monde; gentes, multitud de gentes; tropa). *Jendaki*: <<pueblo nación papulation>>. Cf. *jendemende*, *jendamende*, *jendaila*, *jendalia*. *Behorralde*, *behor-talde*, *behor-sail*, *behor-eli*, *behordi* <<Yeguada>> OEH, 675. *Abuntzalde*, *ahuntz-talde* <<rebaño de cabras>> *ahuntz-aralde*, <<troupeau de chèvres>>, *ahuntz-samalda* <<rebaño de cabras>>, *ahuntz-sail* OEH, 320-3.

horren arabera *lizarralde* hitzaren esplikazio probableena “lizar-*multzoa*”(-*alde*₁) edo “lizar-*multzoa* dagoen lekua” (-*alde*₂) da. Aukera bat edo beste egin, nolahi ere, *aniztasun*- edo *multzo*-adiera dugu oinarrian: *lizar asko*, *pago asko*, *haritz(ondo)-multzoa* eta abar. Hor ez dago, beraz, *gainalde*, *sabelalde* edo *zerualde* moduko hitz-elkarterik: *sabelaldean* ez dago *sabel asko* edo *sabel-multzorik*, *aurrealdean* ez dago *aurre asko* edo *aurre-multzorik* eta *itsasaldean* ez dago *itsaso asko* edo *itsaso-multzorik*. Are gutxiago denbora-ardatzeko *negualde* edo *goizalde* modukoetan.

d) moduko adibideak (mendi-, haran- eta lurrazal-izenak)

Adibideak ikusi ditugu: (*h*)*aitzalde*, (*h*)*arralde*, *mendialde*, (*h*)*aranalde* (cf. *haranaga*), *gailurralde*, *arenalde* (cf. *areatza* eta *arenaza*), *legarralde*, *aialde* eta *harrialde*. Zer dio sail honetako ebidentzia dokumentalak?

Kasuren batean edo bestean badago ebidentzia dokumentalik, eta ebidentzia hori *alde*₁ formaren aldeko da, erabat edo nagusiki. Ikus, batetik, *harrialde* (OEH III, xxx): “arri-*alde* gogorra: gran *montón* de piedras”. *Arralde* ere, bestalde, *multzo*-adiera horren ildotik doa nagusiki: “*roca*” (OEH III, 552).

Multzo-adiera argia du, lehenengo adibidean, *-alde* horrek. *Multzo*-adiera duela dirudi, OEHko definizioaren arabera, bigarrenean ere. Gainerako adibideei dagokienez ez dugu ebidentzia zuzenik eskuratzetik izan. Itxura guztien arabera, beste kasu horietan ere *alde*₁ eta *alde*₂ dira kasuan kasuko hitzak eta hitzarteak esplikatzeko errazenak, eta gainerako adibideekin bateagarrienak. *Haranalde* eta *arenalde*, horrezaz gainera, *-aga* eta *-tza* *multzo*-atzikien pare-parean ageri dira. Besterik frogatzen ez den artean, *alde*₁ eta *alde*₂ adieren alde mintzo dira horiek ere.

e) moduko adibideak (hidronimoak)

